Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

# Euskal Atlas linguistikorako ekarria: fonetika galdekizuna eta haren erabilpena

## Datu bilketa eta kartografiaketa Nafarroako zenbait lekutan


Egilea: **ROSA MIREN PAGOLA PETRIRENA**



Urtea: 1990

Zuzendaria: PATXI ALTUNA BENGOETXEA

Unibertsitatea: UD/DU

ISBN: 978-84-8428-276-8

## Hitzaurrea

Ikerketa lan hau egiten hasi nintzen garaian (1980ko hamarkada hasiera) euskararen atlasgintza hastapenetan zegoen, Euskaltzaindia ari baitzen horretarako lehen urratsak ematen. Galdekizuna erdi prestatua zegoen, baina fonetikari eskaintzen zitzaion atala murritz gelditzen zen. Tesi-lan honek hutsune hori betetzeko ekarri bat izateko asmoa zuen. Euskalki guztientzat baliagarria izan zitekeen galdekizun fonetiko oso bat prestatzeaz gain, hura jasotzeko metodologia bat eratu, kartografiaketa automatizatua egin eta emaitzen azterketa esperimentalaren aplikapena zabaldu nahi izan zen.

Hainbeste urte pasatu diren arren, lanak, emaitzen aldetik, ez du gaurkotasunik galdu eta helburu nagusiaren balioak bere hartan dirau, ez baita oraindik euskararen atlasa, are gutxiago hotsen sailari dagokiona, burutu. Hala ere, teknologiaren munduak hain bizkor aurrera egin duenez, esparru horrekin lotzen diren atalak -bere garaian aitzindariak izan baziren ere- eguneratu eta hobetu daitezke. Egungo atlas elektronikoei erabateko automatizazioa aplika dakieke, leku bakoitzeko hotsak, bideoak eta analisiak ere, nahi izanez gero, atxikirik eman daitezkeelako.

Laburbilduz, tesi-lanean jaso ziren emaitzak baliagarriak gertatzen dira: galdekizuna prestatua dago, metodologia zabaldua eta teknikoki ere bidea markatua, orduan erdi-automatizatua egin baitzen eta orain egungo aukerez baliatzea baino ez dago. Azkenik, jaso ziren emaitzak eta egin ziren analisiak garaiko lekukotasuna eskaintzen dute beren analisi esperimentala

EUSKAL ATLAS LINGUISTIKORAKO EKARRIA:
FONETIKA GALDEKIZUNA ETA HAREN ERABILPENA:
DATU BILKETA ETA KARTOGRAFIAKETA
NAFARROA-KO ZENBAIT LEKUTAN

# EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN HISTORIA ETA GALDEKIZUNAREN PRESTAKETA

L 6:7 D
MAS

EUSKAL ATLAS LINGUISTIKORAKO EKARRIA:
FONETIKA GALDEKIZUNA ETA HAREN ERABILPENA;
DATU BILKETA ETA KARTOGRAFIAKETA
NAFARROA-KO ZENBAIT LEKUTAN

# EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN HISTORIA ETA GALDEKIZUNAREN PRESTAKETA



Rosa Miren PAGOLA PETRIRENA

Patxi ALTUNA BENGOETXEA DOKTORE JAUNAK
arteztutako DOKTORADUTZA TESIA
FILOSOFIA ETA LETRETAKO FAKULTATEA
DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

*Lan hau egiteko Nafarroa-ko Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa izan dut. Biei nire eskerrik beroenak.*

# AURKIBIDE OROKORRA

## 1. alea

Aurkezpena

A - Dialektologia orokorra eta euskal dialektologia

1. Sarrera
2. Geografia linguistikoa eta dialektologia
3. Dialektologia eta euskara
4. Atlas linguistikoen historia laburra: helburuak, bilakabidea eta gaurko egoera.

B - Galdekizun fonetikoa: prestaketa eta azalpena

5. Galdekizun fonetiko-fonologikoa
6. Kanpo lanaren aurkezpena

## 2. alea

Euskalki guztietan jasotako aurre-inkestak

## 3. alea

Mapak-1: 1-220-rainoko mapak

**4. alea**

Mapak-2: 200-459-rainoko mapak

**5. alea**

A - Sarrera

1. Bokalismoa
    1.1. Bokalak
    1.2. Diptongoak
    1.3. Hiatoak
2. Kontsonantismoa
    2.1. Leherkariak
    2.2. Afrikariak
    2.3. Igurzkariak
    2.4. Sudurkariak
    2.5. Likidoak

3. Kontsonante multzoak

Ondorioak

## AURKIBIDEA


**AURKEZPENA** ..... 13

**A - DIALEKTOLOGIA OROKORRA ETA EUSKAL DIALEKTOLOGIA** ... 17

**1. SARRERA** ..... 18

1.1. **Dialektologiaren historiara hurbilketa** ..... 18

1.1.1. XVII. menderarte ..... 20
1.1.2. XVIII. mendea ..... 24
1.1.3. XIX. mendea ..... 27

*1.1.3.1. Dialektologiaren sorrera* ..... 27
*1.1.3.2. Lan monografikoak dialektologiaren barnean* ..... 29
*1.1.3.3. Lehenengo hizkuntz atlasa* ..... 31

1.1.4. XX. mendea ..... 31

*1.1.4.1. "Hitzak eta gauzak"* ..... 33
*1.1.4.2. Neolinguistak eta dialektologia* ..... 34

1.1.5. Gaurko egoera ..... 36

**2. GEOGRAFIA LINGUISTIKOA ETA DIALEKTOLOGIA** ..... 42

2.1. **Kontzeptuen mugaketa** ..... 42

2.1.1. Geografia linguistikoa eta dialektologia ..... 42
2.1.2. Dialektoaren definizioa ..... 43

2.2. **Dialektoak eta haien eremuak eta mugak** ..... 48

2.2.1. Estratifikazio linguistikoa ..... 58

2.2.2. Hizkuntza literarioaren gotorketa ..... 59

2.3. **Dialektologia eta estrukturalismoa** ..... 60

2.3.1. Dialektologia eta diasistema ..... 64

*2.3.1.1. Artxisistema eta / edo diasistema* ..... 67
*2.3.1.2. Diasistemaren balio funtzionala eztabaidatua* ..... 69

2.4. **Diatektologia eta polimorfismoa** ..... 71

**3. DIALEKTOLOGIA ETA EUSKARA** ..... 86

3.1. **Ataria** ..... 87

3.1.1. Euskararen zatiketaz ..... 90
3.1.2. Hiztunen kontzientzia ..... 92
3.1.3. Euskalkien aintzinakotasunaz ..... 92

*3.1.3.1. Tribuen zatiketa* ..... 92
*3.1.3.2. Tribuen eta dialektoen banaketa* ..... 97
*3.1.3.3. Banaketa eleiztiarrak eta dialektalak* ..... 100

3.1.4. Latinaren eragina ..... 105
3.1.5. Kristautzea ..... 107
3.1.6. Hizkuntza arrunta ..... 108

3.2. **Euskalkien sailkapenaren historia** ..... 111

3.2.1. Idazle zaharrengan euskalkien zatiketaren kontzientzia. 112
3.2.2. Bonaparte-ren aurretik euskalkiak bereizten ihardun diren idazleak: erabili dituzten erizpideak ..... 120

*3.2.2.1. Larramendi* ..... 120
*3.2.2.2. Larramendi-ren eskola: Jarraitzaileak* ..... 127

*3.2.2.2.1. Cardaveraz* ..... 127
*3.2.2.2.2. Juan de Perochegui* ..... 128
*3.2.2.2.3. A. Diego de Goitia* ..... 130

*3.2.2.2.4. Añibarro* ..... 130
*3.2.2.2.5. Mateo de Zabala* ..... 133
*3.2.2.2.6. Beste batzuk: Aizquibel eta Arana* ..... 134

3.3. **Luis-Luciano Bonaparte** ..... 143

3.3.1. L.L. Bonaparte-ren bidaiak Euskal Herrira ..... 145
3.3.2. Materialak eta metodologia ..... 151
3.3.3. Bonaparte-ren sailkapen dialektala ..... 156

*3.3.3.1. Lehen sailkapena* ..... 157
*3.3.3.2. Bigarren sailkapena* ..... 163
*3.3.3.3. Hirugarren sailkapena* ..... 169
*3.3.3.4. Laugarren sailkapena* ..... 178
*3.3.3.5. Laugarren sailkapenaz geroztik eginiko aldaketak* ..... 183

3.3.4. Mapa ..... 186
3.3.5. Bonaparte-ren lanaren balioa ..... 186

3.4. **Campión. Euskalki literarioak eta euskararen batasuna. Beste ikertzaile batzu** ..... 194

3.4.1. Arturo Campión ..... 194
3.4.2. Sabino Arana Goiri ..... 199
3.4.3. Ikertzaile atzerritarrak ..... 200
3.4.4. Polemika bat: Bizkaieraren egoera ..... 203

3.5. **Resurrección Mª de Azkue** ..... 208

3.5.1. Hiztegia ..... 208
3.5.2. Gipuzkera osotua ..... 209
3.5.3. Erizkizundi irukoitza ..... 211
3.5.4. Lan monografikoak ..... 214
3.5.5. Azkue-ren lanari kritikak ..... 214

3.6. **1936-aren aurreko beste lan dialektologiko zenbait** ..... 217

3.6.1. Grabaketak ..... 217
3.6.2. Lan fonetikoak ..... 219
3.6.3. Lan morfologikoak ..... 220

3.7. **1936-tik geroko lanak** ..... 223

3.8. **Laburbilketa** ..... 228

**4. ATLAS LINGUISTIKOEN HISTORIA LABURRA: HELBURUAK, BILAKABIDEA ETA GAURKO EGOERA** ..... 243

4.1. **Sarrera** ..... 243

4.1.1. Lehenengo atlas linguistikoak ..... 245

*4.1.1.1. ALF* ..... 246
*4.1.1.2. Jarraitzaileak* ..... 248
*4.1.1.3. ALC* ..... 251
*4.1.1.4. AIS* ..... 251
*4.1.1.5. Beste atlasak* ..... 254
*1.4.1.2. Atlas linguistikoak eskualdeka* ..... 261

4.1.3. Eremu haundietako atlas linguistikoak ..... 268

4.2. **Atlas linguistikoak egiteko metodologia** ..... 270

4.2.1. Inkesta-guneak ..... 270
4.2.2. Galdekizuna ..... 271
4.2.3. Lekukoak ..... 277
4.2.4. Inkestagileak ..... 280
4.2.5. Atlas linguistikoen automatizazioa ..... 283

4.3. **Euskal Atlas Linguistikoen historiara hurbilketa** ..... 291

4.3.1. Sarrera ..... 291
4.3.2. Aurrekariak ..... 293
4.3.3. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) eta Euskaltzaindiaren saioa ..... 299
4.3.4. Beste iniziatiba batzu ..... 303

**B - GALDEKIZUN FONETIKOA: PRESTAKETA ETA AZALPENA** ..... 307

**5. GALDEKIZUN FONETIKO-FONOLOGIKOA** ..... 308

5.1. **Hizkuntz maila ezberdinetako galdekizunak galdekizun orokorrean** ..... 309

5.1.1. Galdekizun fonetikorako erizpide orokorrak ..... 312

*5.1.1.1. Atlas linguistikoetan arlo fonetikoen metodologia* ..... 313

5.1.2. Gure proposamena EHHA-erako ..... 316

5.2. **Euskararako gertatu dugun galdekizunaren aurkezpena** .. 323

5.2.1. Aurre galdekizuna ..... 326
5.2.2. Aurre galdekizunak jasotzeko jarraitu den metodologia .. 364

*5.2.2.1. Lehen urratsak* ..... 364
*5.2.2.2. Jaso diren lekuak* ..... 365
*5.2.2.3. Lekukoak* ..... 365
*5.2.2.4. Inkesten traskribaketa eta hautaketa* ..... 367
*5.2.2.5. Galdekizunetik kanpo gelditu dena* ..... 368

5.3. **Galdekizun fonetikoa (bigarren saioa)** ..... 372

5.4. **Galdekizun fonetikoa (hirugarren saioa)** ..... 377

5.4.1. Prestaketaren azalpena ..... 377

**6. KANPO LANAREN AURKEZPENA** ..... 381

6.1. **Nafarroa-n euskaraz egiten den herrien zerrenda** ..... 381

6.1.1. Lanaren metodologia ..... 381
6.1.2. Inkesta tokien proposamena: Arrazoiak ..... 388
6.1.3. Lan honetarako hautatu diren tokiak ..... 391

6.1.4. Ikertutako eskualdearen deskribapen geografikoa..... 396

6.2. **Lekukoen hautaketa** ..... 403

6.2.1. Lekuko-mota..... 403
6.2.1.1. Adina ..... 403

*6.2.1.2. Sexoa* ..... 404
*6.2.1.3. Beste zehaztasun batzu* ..... 404

6.2.2. Lekukoen kopurua ..... 404
6.2.3. Lekukoen zerrenda..... 405

6.3. **Inkestak** ..... 408

6.3.1. Motak eta metodologia ..... 408

6.4. **Galdekizuna**..... 409

6.5. **Mapagintza** ..... 424

6.5.1. "Formen koadernoaren" prestakuntza..... 425
6.5.2. Mapen idazketa ..... 427
6.5.3. Mapen automatizazioa ..... 432

*6.5.3.1. Garapen informatikoa*..... 435

**BIBLIOGRAFIA** ..... 437

# AURKEZPENA

Duela zortzi urte doktoradutza tesirako gaia hautatu beharrean aurkitu ginenean, ez genuen kezka larregirik izan gaia hautatzeko, garbi ikusten bait genuen, artean hasi gabe aurkitzen zen Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako galdekizun fonetikoaren garrantzia. Hizkuntzaren arlo horrek ondo jaso beharra zuen, eta euskarak hainbeste aldaki eta ebakera desberdin dituenez, ezinbestekotzat jotzen genuen ongi neurtutako galdekizuna, nahi ez bazen, behintzat, lan nahasi, sakabanatu eta bateratasunik gabekoa egin.

Bagenekien, ordea, galdekizuna bera ez zela aski izanen, baldin ganorazko eta benetako ekarria gertauko bazen EHHAerako. Galdekizuna hainbat tokitan jaso eta informazioa kartografiatzea izanen zen galdekizunaren osagarri beharrezkoa, ekarria betea eta, ahal zen neurrian, erabatekoa ere gerta zedin.

Orain, tesia amaitu ondoren ezin dugu onartu baino, Mitxelena zenak arrazoia zuela lanari haundiegia eritzi eta lan honen zuzendari den Aita Patxi Altuna-ri horrela adierazi zionean. Geuk ere ez genuen txikia zenik uste, baina eguneroko ekinean egiaztatu ahal izan dugu zenbateraino zuen begi zolia Mitxelena Jaunak. Hiru urtetako geldiunea izan zuen lanak, baina gainerakoak luzeak eta aski latzak gertatu dira, eta ongi konturatzen gara hau bezalako lanak, eta hau bera ere, hobe direla taldean egiteko bakarrik aritzeko baino. Ez gara, halere, damu ez gaiaren hautaketagatik ez eman duen lanagatik, hamaika aldiz nekeak ezezik arazo larriak ere ekarri dizkigun arren. Gure barnean konbentzituak ginen euskal ikasketetarako lan honen premiaz, eta horrek bulkatzen gintuen aurrera egitera etsi gabe, bidagurutzetan bide berriak eta estualdietan beharrezko erabakiak hartuz, nahiz hain batak zein besteak behar bezain garbi ez ikusi beti.

Lehenbizi, gai honi buruz den eta guk ezagutzen dugun bibliografia ongi arakatu ondoren, 1.000 bat galdaratako galdeki-

zuna osatu genuen, sailean-sailean eta sistematikoki bokalismoari, kontsonantismoari eta ezaugarri suprasegmentalei dagozkien gertakizunak jasoz.

Galdekizuna euskalki guztietan jaso zen, inkestak tokian bertan eginez, galdekizunaren balioa egiaztatzeko eta alferrikako edo gainezko gerta zitezkeen edo euskalki guztietarako balio ez zitzateken galderetatik garbitzeko.

Berregin zen, beraz, galdekizuna eta Nafarroa-ko bi herrigunetan probatu ondoren, azken galdekizuna prestatua gelditu zen Nafarroa-ko 20 herrigunetan, bakoitzean birritan jasotzeko. Galdekizunez gainera, grabaketa askeak ere egin genituen, eta material guzti hori traskribatuz gero, bi inkesta tokiko ez zitzaizkigun nahikoa irudi eta hirugarrena egitera behartu genuen geure burua aurreko bien emaitzekin erkatzeko.

Behin materialak sailkatu ondoren, lan metodologian egungo aurrerapenetara egokitu nahirik, informatiko batekin harremanetan jarri ginen eta gure burutapenak eta asmoak azaldu genizkion. Ideia eginkorra iduritu zitzaion eta, horrenbestez, elkarrekin aritu ginen programa informatikoa prestatzen, datuen basea gerta zedin eta ondorengo kartografiaketarako ere balio zezan. Horren fruitu dira eskeintzen ditugun mapak.

Horretan amai zitekeen gure aurrenengo xedea, baina beti uste izan dugu dialektologoen egitekoa ez dela akitzen datuen bilketa hutsean, eta horregatik materialen analisia egitea erabaki genuen. Berehala ohartu ginen doktoradutza lanean analisi horretan sartzearen arriskua. Zalantzarik gabe bikoitza zen arrisku hori: edukiaren hedaduratik jarraitzen zena, fonetika alderdi bat ez baina fonetika osoa hartzen bait zuen; eta emaitzen ugaritasunagatik, hogei herrigune, bakoitzeko hiru lekuko eta bi alderdi aztertzeko, fonetikoa eta diatopikoa. Begirada batean, abailgarria erizteko bezalako lana.

Ezin izango genuen, halere, saihestu, horren beharraz ere konbentzituak bait genuen. Horretarako honako metodologia hau

erabili dugu: euskal fonetikako gertakizun diakronikoak egungo egoerarekin lotu; bildutako fenomenoak eta haien desberdintasunak ahal zen heinean bilakabide diakronikoz azaldu, baina betiere egungo gertakizunak egungo egoeran deskribatuz, eta analisi artikulatorioaren eta akustikoaren bitartez aztertutako hizketen sistema fonetikoak osatu.

Deskribapenean fenomenoen bilakabideek morfologiarekin izan ditzaketen loturak aipatu ditugu, baina analisia fonetika mugen barrutik hertsiki eramatea erabaki genuen. Analisi akustikoa, hain berriki sartua euskal fonetikan, guk ere erabiltzea erabaki genuen, lagungarri ona bait da deskribapena burutzeko. Analisi bikoitz honekin, alde batetik sinkroniko-artikulatorioa eta akustikoa, eta diakronikoa bestetik, aztertutako lurraldearen ikuspegi orokorra erdietsi nahi zen, hizketako hotsen sitema orokorra eta haren banaketa dialektala finkatuz.

Beste puntu bat bada azaldu beharrekoa, eta lanaren Sarrera-ri dagokio. Euskal ikasketa dialektologikoen egoera azaltzean hutsune haundi batekin aurkitu ginen alor horretan: ez zen gure dialektologiaren historiaren, urria izanik ere, lanik aurkitzen. Horrek hainbat material batzera eraman gintuen, agian uste baino gehiago ere; edonola ere, ekarri aprobetxagarria gerta daiteke aipaturiko hutsunea betetzeko.

Horrenbestez, doktoradutza lan honetan eman diren urratsak aski garbi agertzen dira aurkezten diren materialen bitartez. Aurrena, euskal dialektologiaren historia, eta jarraian euskal hizkuntz atlasarena. Ondoren galdekizun fonetikoaren prestaera eta aurre-inkesten bilketa, hauek ezagutzea ere interesgarri izan bait daiteke. Aztertu den lurraldearen deskribapena eta inkestak egiteko erabili den metodologia, ondorengo kartografiaketarekin bi aletan. Azkenik, datuen eta mapen analisia.

Lan honen lehen urrats erabakiorrak emateko K. Mitxelena Doktorearen laguntza izan genuen. Berak onartu zuen ideia, eta bata bestearen ondoren prestatu genituen galdekizunak ere

ezagutu eta hurbiletik jarraitu zituen. Haren aholku eta orientabideak hertsiki jarraitu genituen eta lan honetan aurkezten den behin-betiko galdekizunak ere haren onespena jaso zuen. Ager bezate lerro hauek gure eskerrik minena eman zizkigun aholku beteakatik, eta edonoiz eta edonon egin zigun harrera onagatik.

Gure eskerrik beroena tesiaren zuzendaria den Patxi Altuna Doktoreari. Hainbat laguntza eta aholku eskeini ezezik, behin eta berriz adoretu gaitu lana beti aurrera eramateko eta ahalik eta borobilen burutzeko.

Dolors Poch eta Joaquim Llisterri irakasle eta Bartzelona-ko Unibertsitate Autonomoko Fonetika Laborategiko Zuzendariei ere bai, egin dudan analisi akustikorako eskeini zidaten laguntza eskertezinagatik.

Eskerrik bereziena Euskal Herriko eta batez ere Nafarroako hainbat gizon eta emakumei, horiei esker egin bait da lan hau, eta nire galdekizun saio astun eta gogaikarriak borondaterik hoberenarekin jasan dituztelako euren eta guztion hizkuntzari dioten maitasunak eraginda.

Tomas Uribeetxebarria, kanpo eta barne lanean lagun eta laguntzaile aparta izan dudan nire senarrari eta ikuspegi zorrotzez aholkuak eta orientabidea eskeintzen jakin duen profesional bikain horri zuzentzen dizkiot nire azken eskerrak.

# A - DIALEKTOLOGIA OROKORRA ETA EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN HISTORIA

# 1.SARRERA

## 1.1. DIALEKTOLOGIAREN HISTORIARA HURBILKETA

> *"La dialectologie se sent un peu la mal-aimée de la linguistique moderne. Elle a eu sa heure de gloire, quand règnait la philologie historique, à laquelle elle apportait une très riche moisson de données à interpréter. Aujourd'hui, elle est parfois suspecte. Suspecte du point de vue linguistique, parce qu'elle sembla ne s'interèsser qu'à des faits marginaux: bribes d'idiomes en voie de disparition, ou parlers encore vivants, mais mal structurés, inadaptés à la vie sociale actuelle, tandis que les linguistes de notre époque (surtout l'école "generative") ne cherchent à fonder leurs analyses que sur les grandes langues de culture".*

Jean Batani-k **Introduction à la dialectologie française** liburuari, CHAURAND, J. (1972,3), egiten dion hitzaurrean.

Lan honen sarrera teorikoa egiterakoan, kontzeptuak mugatzearen zeregin arriskutsu eta asekaitzarekin topatzen gara aurrenik; eta arakatu beharko dira gero, gainetik bada ere, Dialektologian eta Geografia Linguistikoan izan diren joera nagusiak; eta ikusi beharko da, batez ere, nola sortu eta nola joan diren eraikitzen, beren nortasunaz, Linguistika Orokorraren barnean.

Lehenbizi, "Dialektologia" hitzarekin zer ulertzen den jakin beharko genuke, eta baita Dialektologia bera nola kokatzen den linguistika barruan ere. Halere, ez litzateke zilegi Dialektologia linguistikaren mugetara herstea, hain zientzia funtsezkoa eta sistematizatua izanik ere azken hau. Termino hauek argitzeko, beraz, begirada bat, laburra bada ere, bota beharko diegu.

Linguistika noiz jaio zen zientzia bezala ez dugu guk orain erabakiko, baina joan zen mendean edo oraingoan ezartzen bazaio sorrera ez gara hain oker ibiliko, eta, batez ere, eritzirik arruntenarekin bat etorriko gara (1). Hori horrela den arren, hiztuna beti ohartu izan da hizketan ageri den ugaritasunarekin eta dialektoen bereizketarekin, eta horregatik esan daiteke dialektologiaren historia linguistika berarena baino aintzinakoagoa dela.

Ugaritasuna diogunean, barietatea agertu nahi dugu, aldakortasuna, batetik bestera dagoen ezberdintasuna, eta honek misterio haundi baten aurrean ipintzen gaitu; misterio horri buruz aunitz idatzi da, baina bere izaera azaltzea oso zaila da.

Dialektologiak ezberdintasun horietan aurkitzen du lurra eta oinarria, betiere hizkuntzak komunikaziorako duen erabilgarritasuna galtzen ez den bitartean, edo, hobeki esanda, komunikazioa eteteraino iristen ez diren bitartean. Horixe da "gertaera dialektala", aspaldiko denboretatik ezagutua eta aztertua izan dena, beharbada hizkuntzaren ezaguera izan zen unetik bertatik, hizkuntza bera ere, hainbeste kasutan, ezberdintasun horiek zirela bide aztertu izan delarik. Egoera honek XIX. mendea ongi garaitu arte iraun zuen, hizketan azaltzen diren ezberdintasunen kontzientzia izan eta beraien deskribapena egiten hasi zen arte. WARTBURG-ek, tokian tokiko hizkuntzaren ezberdintasunak deskribatzean, zioen bezala (1969,26):

> *"Un des faits linguistiques qui se révèlent inmédiatement au profane, c'est la differentiation de la langue [...] Dans les contrées où les communications sont difficiles, des différences très notables se rencontrent de village en village".*

Horrela, ikasketa gramatikalak sortuz joan ziren apurka-apurka, eta, bidebatez, pertsonen eta tokien izenen azterketak, hortik antroponimia eta toponimia ikasketei, berezko ondorio bezela, bidea eman zitzaielarik.

### 1.1.1. XVII. menderarte

Historiara begiak itzuliz, egiptiarren, sumeriar-akadiarren, indiarren eta hebraiarren artean aurkitzen ditugu dokumentatuak dialektologiaren lehen aztarnak. Herri horiek aztertu egin zituzten, nola edo hala, hizkuntzalaritza bereiztaileari dagozkion gertakizunak, hots, hizkuntzan agertzen zitzaizkien bereizketak eta erabilera ezberdinak, azterketa hori nolabaiteko dialektologiatzat har genezakeelarik.

Antzerako bideari jarraituz, grekoek garbiago ikusi zuten hori, eta hizkuntzaren inguruko haien burutapenak zuzenagoak eta zehatzagoak izan ziren, gerora begira oinarrizko gertatu zirelarik. Erromatarrak, ordea, beste jakintzetan bezala, eramale eta hedatzaile baizik ez ziren izan (2).

Grekoek sortu zuten "dialekto" (διαλεκτοσ) hitza, eta badu esanahi betea ALLIERES-ek dioen bezala (1981,103), "évoque à la fois l'idée d'un langage (λεξιξ,λεγο) et celle d'une transition, d'un passage (δία)". Greziarrak ongi ohartu ziren, gainera, dialektoen arteko ezberdintasunaz eta aniztasunaz eta, horrez gain, barietate horiek hizkuntza bat eta berekoak zirela ere ikusi zuten.

Erdi Aroan horrek berdin jarraitzen du eta ez da berri aipagarririk gertatzen; apika, herri-hizkuntza kontutan hartzen duen gertakizunen bat. Esaterako, Bolonia-n (1246) Eskribauen Elkarteak eskribaugaiei herri-hizkuntzaren idazketa ezagutzea eskatzen die, eta horri zor zaio, nolabait, italiera batzeko lehen urrats eta ahalegina, POP (1950, XX).

Italia-n bertan sortzen da pertsonai bat, bat eta bakarra linguistikari dagokionez, Dante, **De vulgari eloquentia** (1303) lan garrantzitsuarekin. Lan honetan hamalau dialekto mota gutxienez bereizten ditu italieran, eta kontzeptu nagusiak eztabaidatzen ditu, hala nola, dialektoarena, hizkuntza literarioarena, eta herri-

hizkuntzan, "questione de la lingua" entzutetsua; LEROY-k (1974,18) dioenez, geroko erromanisten aintzindaritzat jo daiteke Dante.

Halere, Berpizkunderarte (XVI m.) ez zitzaien arreta haundirik eskeiniko herri-hizkuntzei. Berpizkundeak mundu klasikoa jaso zuen, baina, bidenabar, baita herriaren edozein emaitza ere, eta hauetarik bat eta nagusia hizkuntza bera zen. Hizkuntza arruntak literatur lanetan sartuz doaz, eta latina baztertuz bidenabar. Gero Elizan bertan ere, Erreforma eta Kontraerreforma zirela-eta, Biblia hizkuntza arruntetara itzultzen da, eta elizkizunetan ahoz ere erabiltzen da. Honek eragin haundia izan zuen hizkuntza horiek indartzeko, betiere latinaren kaltetan.

Hizkuntza arrunten lehenengo gramatikak ere garai honetan egingo dira; eta hizkuntza klasikoenak ez-bezala, ez dute elokuzioa helburu nagusitzat izango, hizkuntza bera baizik, bere izate propioa kontutan harturik. Idatzi ere ez dira latinez idatziko. Nebrija-ren **Gramática de la lengua Castellana** (1492) izan zen bidea ireki ziona hizkuntza erromanikoz idazteari.

Ahalegin berri honek ahoskera aztertzera ere eraman zuen, eta, hori zela bide, gertakizun fonetikoak arakatu behar izan ziren, hotsen artikulazioa eta beraien irudikapen grafikoa deskribatuz, eta aski garbi bereiziz hizkia eta ahoskera. Beste askoren artean, Erasmo de Rotterdam-en (1518) **De recta latini Graecique sermonis pronuntiatione Dialogus** lan klasikoa da, eragin haundikoa ondorengo lanetan eta hizkuntza arruntak jasotzen ahalegintzen dena (3).

Gure ikuspegietatik hurbilago leudeke beste hauek: Théodore de BÉZE (1584) **De Francicae linguae rectae pronuntiatione tractatus;** Cl. de SAINLIEN (1580) **De pronuntiatione linguae galicae;** eta A. BERKLEY (1521) **The introductorie to writte and pronounce frenche.**

Euskal Herria-n ere bada aipagarririk (4). Juan de Yciar-ek

**Ortografía Práctica** (1548) eta **Arte de escribir** idatzi zituen. Nabarmenagoa da, ordea, beste bizkaitar bat, P. de Madariaga arratiarra: **Honra de escribanos** liburu famatuan euskarazko zenbait soinuren deskribapen baliosoa egiten du, nola idatzi behar diren ere azalduz:

> *"Una sola R al fin de dicción tiene fuerza de doblada r, vguer, nadar; eder, hermoso; laster, presto; la s muchas veces se pronuncia apretando bien la lengua al paladar de arriba en medio de dicción como, essea, casa, ossoa, lobo, assoa, mujer vieja; y por eso se pone doblada para demostrar aquella espesura de la pronunciación. La N alguna vez se pronuncia escondida en las narices, como en oracioa, Ardaoa, y para denotar aquella n, se deue sobreponer una cifra desta manera a modo de nariz^" (5).*

Ari garen garai honetan agertu ziren beste zenbait lan ere, zuzen-zuzenean dialektogiakoak ez izan arren, hizkuntzen ugaritasun eta zatiketari buruzko hainbat datu dakartzatenak. Lehenbizikoa, aldiurrenez, Joaquim du BELLAY izango litzateke, bere **Défense et illustration de la langue française** (1549) liburuarekin, POP-en hitzetan (1950, XX):

> *"Comme le manifeste de l'école de Ronsard de la Pléiade, où il expose les moyens d'enrichir la langue française: l'emprunt de mots aux grecs et aux latins, la formation de mots composés, ainsi que l'emploi des termes dialectaux".*

Italia-n L. Salvati izan da dialektologiaren aintzindaritzat hartua –beti ere Dante ahantzi gabe–:

> *"En 1548, L. Salvati entreprend la traduction en douze dialectes de l'Italie de la neuvième nouvelle de la première journée du Decaméron de Bocacce,*

*afin de mettre en lumière les différences entre la langue écrit et la langue parlée". POP (1950, XXVI).*

Giro honek dena arautu beharra sorterazten du. Ahoskera, ortografia eta besterik ere araupean sartu nahi da, eta arautu ezeze, baita aldatu ere, garbi agertzen delarik erabilerako eta komunikazio arrunteko hizkuntzek sortzen zuten interesa. Hala ere, kontraesan itxurako zerbait azaltzen da dena araupetu beharraren ondorio bezala. Alde batetik herri hizkuntza eta haren erabilera jaso nahi dela dirudi, eta honek hizkuntza horien izakeraren eta ugaritasunaren begirunea suposatzen du; baina, bestalde, araupetu nahiak ugaritasuna eta hizkuntz-zatiketa zapuztera eta gutxiestera jotzen du. Izan ere, jokabide guzti honen barnean hizkuntza klasikoen irudia eta eragina dago, eta, ohartuz edo ohartzeke, haien irudira jotaku nahi litzateke, eredu bakarraren ospea bilatzen delarik (6).

Politikazko ikuspegiz ere, une honetan "estadoaren nozioa" garaitzen da eta, horrekin batera, baita lurraldearen eta hizkuntzaren batasunaren ideia ere:

*"Desde siempre los estados se han visto inducidos a elegir una lengua para su uso y a preconizar su utilización: elección de una lengua de cancillería, de una lengua cortesana, de una lengua de los tribunales de justicia, de los edictos y de las actas oficiales, de la correspondencia pública, etc." BRETON (1979,87).*

Inglaterra-ko Ordenantzak eta Villers-Cotterets-koak, Frantzia-n, benetan adierazgarriak dira ikuspegi honi buruz:

*"Dans la première moitié du XVI siècle, on prend les premières mesures contre l'emploi des dialectes. En effect, l'Acte d'Union du Pays de Galles à l'Angleter (1535-koa) contient, dans sa troisième clause, une disposition qui stipule que "la jouissance de toute espèce de charge sur touts les États du Roi serait*

*refusée aux personnes employant la langue galloise" á moins qu'elles n'adoptassent la langue anglaise. (p.928). Trois ans plus tard (en 1539), des mesures identiques sont prises en France par François I dans son ordonnance de Villers-Cotterets", POP (1950, XXV),(7).*

Hala eta guztiz ere, bada dialektoen aldeko aitortzarik, XVII. mendeko agiri bakan batetan agertzen den bezala:

*"... le roi Gustave-Adolphe de Suède reccommande, dans une résolution officielle, l'étude des dialectes et des noms de lieu", POP (1950, XXVI).*

### 1.1.2. XVIII. mendea.

Alabaina, XVIII mendean, Argiaren eta Enziklopediaren Mendean, hain zuzen, emango dira kontrasterik nabarmenenak. Esaterako, razionalismoa azken muturreraino eramaten den arren, inork ez luke esango hizkuntzei buruzko erizpide, teoria eta eztabaidak pentsamolde eta jokabide horren frutu izan daitezkeenik: hain dira bitxiak, eragabeak eta errebesak (8). Aldaketa nagusirik ez da izango, ordea, hizkuntzari buruzko ikuspegietan. Gehien ere materialak biltzeko zaletasunean, dena datuetan eta esperientzian oinarritu behar bait da. Hiztegiak eta glosarioak asko ugaritzen dira, eta baita edozein hizkuntzen gramatikak ere.

Hurbiltasunagatik eta duen garrantziagatik aipagarria da Gaspar de Jovellanos. Hainbat lan egin zuen asturianoaz eta bereziki bableaz: **Carta a D. Francisco de Paula Caveda y Solares sobre la formación de un Diccionario del dialecto asturiano** eta **Diccionario Geográfico de Asturias** (1791). Horiez gain, idatzi zuen ere **Apuntamiento sobre el dialecto de Asturias y lista de algunas palabras geográficas entresaca-**

**das por vía del ejemplo del dialecto de Asturias** (1804). Haatik, lanik garrantzitsuena **Instrucciones para la formación del diccionario del dialecto asturiano** (1791) izan zen, eta POP-en (1955, 12) eritziz lan honi zor dio:

> *"un place très importante dans l'histoire de la dialectologie, puisqu'il s'agit, pour la première fois, d'un plan et d'instructions pour la rédaction d'un vocabulaire complète des mots dialectaux employés par la population de Asturies".*

Izan ere, Jovellanos-ek gomendatzen duen metodologia benetan argia da: inkesta idatzien bidez batu behar da materiala, eta argitasun zehatzak eskeintzen ditu material hori biltzeko, ez hiriko jendeekin baizik eta herri eta herrixketakoekin. Hizkuntzaren aurrean duen jarrera eta haren bilakaeraz duen pentsamoldea kontutan hartzen badira, eta batipat dialektoei ematen dien garrantzia begien aurrean izaten bada, benetan eskeini litzaioke, eta egin ere hala egin da, dialektologia espainarraren aintzindari izena (9).

Nolanahi ere, ez da bakarra. Mendearen hasieran G. W. Leibniz filosofoak ere aurrera eramaten ditu era horretako lanak: "cherche à enrichir la langue littéraire allemande par des mots de'origine patoise, en accordant une grande attention à touts les idiomes de la famille des langues germaniques; il obtient souvent par correspondance des informations plus précises". POP (1950, XXVI). Bestalde, konparatismoa ere ez zitzaion hain arrotz. Garaiko semea zen arren eta hizkuntzen sorburu edo jatorri bakarrari eusten bazion ere, berari eskertu behar dizkiogu konparatismoaren oinarriak.

Mende honen bukaeran jokabide tamalgarria hartu zen Frantzian hizkuntzen ugaritasunaren kaltetan. 1790-ean Henri-Baptiste Gregoire d'Embermesnil apezak inkesta bat igorri zuen Frantzia-ko herrialde guztietara hango "patois"-en egoera ezagutzeko eta gero Frantzia-ko Iraultza-ren "Convention"-aren aurrean horren informea emateko.

Aski berrizale agertzen bada ere bere jokabidean, dialektoak eta aldakiak jaso beharra agertuz, eta erabiltzen duen metodoan (10), azken helburua ez da dialektologikoa ez eta aldaki horiek aztertzea, erkatzea eta zaintzea ere, suntsitzea baizik. Horra hizkuntzei jakinez eta berariz egindako lehen eraso zakarra (11).

Garai hartako egoera lingüistikoa, Gregoire apezak berak dioenez, honelakoa zen:

> *"On peut assurer sans exagération, qu'au moins six millions de Français, surtout dans les campagnes, ignorent la langue national; q'un nombre égal est àpeu près incapable de soutenir une conversation suivie; qu'en dernier résultat, le nombre de ceux qui la parlent purement n'excède pas trois millions, et probablement le nombre de ceux qui l'écrivent correctement est encore moindre". (POP, 1950,12).*

Urte berean (1794), Bertrand Barére de Vienzac "Convention"-eko partaideak agiri bat atera zuen, eta bertan horrela mintzo da:

> *"On doit donner aux citoyens "la meme langue", car "le federalìsme et la superstition parlent bas-breton; l'emigration et la haine de la Republique parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien et le fanatisme parle basque. Brisons ces instruments de dommage et d'erreur. Il vaut mieux instruire que faire traduire, comme si c'etait à nous à maintenir ces jargons barbares et ces idiomes grossiers qui ne peuvent plus servir que les fanatiques et les contre-révolutionnaires...".*

Agiri honen aurrean zera dio POP-ek (1951,9):

> *"Ce décret représente une autre action de l'autorité administrative et politique pour l'unification de la langue française".*

### 1.1.3. XIX. mendea

XIX. mendean beharrezko dira zenbait zehaztasun linguistikari eta dialektologiari dagokienez. Biak ere mende horretan jaio ziren, azken herenean izan bazen ere. Linguistika arloan Franz Bopp eta Ramus Rask izan ziren sortzaileak, eta horiekin baita F. von Schlegel ere (12). Bestalde, ezin ditugu ahantzi, azken heren horretan, neogramatikoak ere (13).

Dialektologiari dagokionez, mendearen erdialdean lan dialektologikoek toki garrantzitsua badute ere, eratu, 1875-etik aurrera eratu zen. Eta Bopp beraren lanek ere eragin haundia izan zuten, linguistika osoan bezala, oinarri teorikoak eta metodologia finkatzeko (14), baina KUKENHEIM-ek (1966,85) dioen bezala, dialektologia bera Ascoli, Schuchardt eta Meyer-ek landu zuten espreski (15). Hiru hauek dira, beraz, dialektologiaren abiatzaileak ekintza zientifiko bezala linguistikaren baitan.

Schuchardt-ek dialektoen arteko mugen arazoa ateratzen du, eta aski goiztiar atera ere, **Vokalismus des Vulgärlateins** III (3 ale: 1866-69), eta mugak ezartzearen ezinari eusten dio, ikusten bait du fenomeno linguistikoak teilakatu eta artekatu egiten direla elkarrekin.

#### 1.1.3.1. Dialektologiaren sorrera.

Honela hasi zen dialektologiaren objetoa zehaztearen inguruan polemika. Zabalkunde haundia lortu zuen polemika horrek eta mendearen azken herenean erruz agertu ziren artikuluak gai horri buruz hizkuntz aldizkarien bitartez (16). Dialektologiara lotuz, aldizkaririk ezagunena **Archivio glottologico italiano** (1873an 1. zenb.) izan zitekeen, hori bait zen bere helburua, Italia-ko dialekto bizietako materialak jaso eta aztertu, eta aurretik jasorikoak ulertzen saiatu, POP (1950, 487-488).

Italia-n bazen joera, eta arrazoiz, dialekto asko bait ziren, dialektoak aztertzeko, eta horregatik lehenbizikoz oinarri zientifikoz Italia-n egin ziren dialektologi lan sistematikoak. Halere, G. Isaia Ascoli bat gabe ez zen horrelakorik gertatuko. **Archivio** aldizkariaren bultzatzaile nagusia izan zen eta azterketa dialektologikoen aintzindaritzat har daitekeena. Hona nola aurkezten duen IORDAN-ek (1967, 19):

> *"Ante todo debe decirse que este lingüista creó la "dialectología" como disciplina estrictamente científica y, en consecuencia, debe ser considerado como el iniciador de la dialectología románica en general, porque hasta entonces las hablas populares de la romania habían atraído la atención sólo de los dilletantes".*

Kontutan hartu behar da, bestalde, Ascoli neogramatikoen eskolaren aurrekoa dela. Neogramatikoek hanbateko eragina izan zuten hemen darabilgun gaiaren garapenean, eta honen oinarrietan nagusienetarikoa dialektoen eta hizketa bizien ikerketa zen, horietan finkatu ahal izateko beren premisarik funtsezkoenak "lege fonetikoei" eta abarrei buruz, horrela zientifikoago eta zehatzago ulertu ahal izateko hizkuntza. Begibistakoa da, beraz, Ascoli-k lan hori hasia zuela neogramatikoen aurretik, eta horregatik IORDAN-en hitzek (1067, 252) ez dute egia baizik jasotzen:

> *"Antes de ellos (los neogramáticos) y sin declaración de principios, el estudio científico de los dialectos había sido inaugurado por el gran lingüista italiano G.I. Ascoli, en quien K. Jaberg y J. Jud, autorizados representantes de la geografía lingüística, ven al más importante precursor de ésta".*

Aipaturiko mugimendu italiarra Biondelli eta G. Morisi-ren lanekin oraindik gehiago indartu zen. 1870-ean argitaratu zituzten, lehenbizikoz, ingurunean bertan jasotako inkesten emaitzak, Italia Hegoaldeko hizketa greziarrei buruzkoak, hain zuzen.

### 1.1.3.2. Lan monografikoak dialektologiaren barnean.

Hemendik aurrera Dialektologiak abiada bizia hartu zuen. Dialektologorik entzutetsuenen artean zenbait izen adierazgarri aipatuko dugu kronologikoki, bidebatez garapen honen argigarri gerta dadin.

1875-ean Ch. de Tourtoulon probentzalariak (17) lehenbizikoz jaso zuen Frantzia-n ingurunean bertan egindako inkesta, eta ongi egiaztatu zuen "oïl" eta "oc" hizkuntzen arteko muga bereiztailea.

Gilliéron-ek lan dialektal ugari egin zituen urte haietan. Ezagunenetarikoak **Petik Atlas phonétique du Valais roman** eta **Patois de la commune de Vionnaz,** 1880-an argitaratuak.

Bide beretsua hartu zuen Pierre Rousselot apezak ikerketa dialektalak egitean ingurune txikietan. Urrats aparta eman zuen lan honekin: **Les modifications phonetiques du langage étudiées dans le patois d'une famille de Cellefruin** (1891). Enpirikoki frogatu zuen ez dagoela edozein eremutan ere eredu linguistiko bakarrik, ez eta ingurune txikienean ere, esaterako familia batekoarenean.

Izan ere, urte hauetan zalantzetan jarri zen ingurune haundien batasun linguistikoa. Halere, pentsa zitekeen zalantza gutxirekin familikoa behinik-behin gutxienezko eremu homogeneoa izanen zela, non desberdintasunak gertatu ere ezin zitezkeelarik. Rousselot-ek, ordea, garbi frogatzen du ez dagoela batasunik ezta ingurunerik txikienean ere. Honek urrats haundia suposatu zuen gertakizun linguistikoak argitzeko.

Lan honi esker, bestalde, Rousselot fonetika esperimentalaren sortzaile agertzen zaigu. Fonetika historikoak zerabiltzan bideak gaitzetsiz fonetika deskriptiborako bidea hartzen du, baina behaketa-bide zeharo bestelakoekin eta hagitz osatuekin.

Rousselot-ek garai hartan erabili zitezkeen tresnak hartu zituen fonetikaren azterketarako: kimografoa eta ahosapai artifiziala, eta horrela hizketak zehaztasun txikienez jaso eta analizatzen zituen. Ekarri berria, beraz, fonetikarako bereziki, eta linguistikarako orohar ere bai, baina batipat geografia linguistikorako eta dialektologiarako (18).

Rousselot-en lanak (19), bestalde, kapitulu berri bat ireki zuen eremuari dagokionez. Inguruneko bateratasun linguistikoa aurkitu nahiaren-nahiez lanerako eremua geroago eta txikiagoa hartzen zen, eta hortik ikertzaileek berez jo zuten "lan monografiko" izenez ezagutu ohi diren lanak egitera. Azterketarako hartu izan den ingurune ohizkoena herrigunea izan da, inoiz eremu zabalagoetan lanik egin izan bada ere, esate baterako, haran osoa hartuz. Rousselot-en lana haren jarraitzaile izan zen GAUCHAT-ek jarraitu zuen, eta 1905-ean **L'unité phonétique dans le patois d'un commune** argitaratu zuen.

Geroztiko lanen zerrenda aipa-ezina litzateke. Lana egiteko era berri honek, dialektologia eta geografia linguistikoa baturik, alde batetik, eta hizkuntzalaritza estrukturalistarekin, gehienbat, elkarturik, bestetik, oso emaitza onak ematen ditu. Metodologia aberatsagoa gertatu da hizketak ongi deskribatzeko, eta hari esker ere egokiago zertu ahal izan dira praktikan linguistikako teoriak, linguistika teorikoa eta praktikoa elkarrekin osatu eta aberastu egin direlarik. Metodologia honen emaitzak oso onak izan dira eta egun ere onak jarraitzen dute izaten. Isteko, bi lan ekarriko ditugu, eredu gisa aipatuak izan ohi direnak: PENNY, Ralph J. 1970 (1969) **El habla pasiega. Ensayo de dialectología montañesa.** London, Tamesis Books Limited; edo eta, arlo fonologikoari mugatuz, Andre MARTINET-en (1939) "Description phonologique du parler Franco-Provençal d'Hauteville (Savoie)", **Revue de Linguistique Romane** XV, Paris.

### 1.1.3.3. Lehenengo hizkuntz atlasa.

Dena dela, esan daiteke gailurrera **Atlas linguistique de la France** (ALF) agertu zenean iritsi zela. Lan honek ireki zuen Geografia linguistikoko arorik hoberena, hots haundiko lehenengo atlasa izanez gain, teoria berrietarako eta eztabaidetarako oinarri errealak eskeintzen dituelako bertan agertzen diren datuen behaketa eta analisiarekin dialektologiari buruzko gai nagusietan.

Ez litzateke, halere, bidezko une honetan Gaston Paris-en izena ez aipatzea, bera izan bait zen Frantziako lurralde osoko atlasaren beharra ikusi eta bulkatu zuena (20).

### 1.1.4. XX. mendea

Esan bezela, ALF egin ondoren sortu ziren planteiaketa teoriko berriak eta aurreko erizpideen berrikusketa. Beraz, neogramatikarien presupostuak goiti beheiti erori ziren. Muga dialektalak ezeze, baita dialektoak berak ere zalantzan jarri ziren. Aldakien banaketa hain eskualde zabaletan ikusirik, Gilliéron-en jarraitzaileak konturatu ziren neogramatikoen lege fonetikoen teoriek ez zutela benetako oinarririk. Honek ez du, haatik, ukatuko neogramatikariak heurak izan zirela gertakizun linguistikoen esplorazio zuzen eta zehatzaren beharra piztu zutenak. Eta ez da ahaztu behar ere Schuchardt-en eragina Gilliéron-engan, honek berak aitortzen duen bezala, hizkuntzaren gertakizunen ikuspegiari dagokionez batipat (21).

Gilliéron-engatik esan izan da bere garaiko hizkuntzaren ikuspegi historikoa amaitu eta egungo linguistika sinkronikoaren aurrelari izan dela (22), Saussure berarekin batera aipatua izan delarik: "[...] como éste, Gilliéron se interesa sobre todo por **el**

**aspecto estático del lenguaje humano,** hace lingüística descriptiva o, en términos de Saussure, sincrónica" IORDAN (1967, 334).

Bazuen, bestalde, idealistekin ere kidetasunik, beharbada Schuchardt-en bitartez hartua; honek linguistika idealistarekin loturak zituen eta Leo Spitzer-ek zioenez:

> *"Gilliéron llegó a la lengua literaria a través de los dialectos, de tal modo que sus estudios resultaron, en cierta medida, idénticos a los de Vossler, quien desde el comienzo , y como cuestión de principio, hizo de la lengua escrita el objeto de sus investigaciones" Apud: I. IORDAN (1967, 333-34).*

Bi arrazoi ditu horrek: bata idealistek eta ALF-en egileak ematen dioten garrantzia elemento fisikoari hizkuntzaren sorketan eta bilakaeran; eta bestea, hizketari, gertakizun linguistikoei, eskeintzen dioten arreta eta ez, ordea, hizkuntzari.

Esan daiteke, bukatzeko, Gilliéron-i linguistikaren bidagurutze eta garapen maila berri bat suertatu zitzaiola parean, hain izan ziren ugariak eta haundiak aldaketak linguistikan, iraultza gertatzerainokoak. Giro horretan, bere lana eta bere ekarria oso aberatsak izan ziren; eta bera ere berez zen adimen zoli eta irekia zuena edozein galderaren aurrean, eta ez zuen onuragarri gerta zitekeen mugimendu berrien deus arbuiatuko. Horregatik, beharbada, agertzen da Gilliéron irudi nahasi xamarrez eta zenbait ikuspegi ezberdinetatik hel dakiokeelarik. Baina horixe da, hain zuzen ere, XX. mendearen hastapenetan gertatu zen egoera linguistikoa, iragan historizista eta, lanetan eta ideia berrietan,une emankorra lotu nahi zituena, Saussure-n ideiei bidea irekitzen zitzaielarik aldiberean.

### 1.1.4.1. Hitzak eta gauzak.

Gilliéron-en lanaren ondorioz, mende honetako lorpenik nabarmenena Geografia linguistikoaren alorrean atlas linguistikoak egitea izan da (23). Alabaina, aipamen bat merezi du "Wörter und Sachen" edo Schuchardt-en izenez "Sachen und Wörter" mugimenduak. XIX. mendearen azkenaldian hizkuntzaren bizitza aztertu nahi da, eta horren ondorioz neogramatikoen "lege fonetikoen" eta horren inmanentismoaren aurka joan nahi da, eta honek ere bide berriak urratzera bultzatuko du dialektologia.

Hizkuntzen lexikoa aztertuz hitzen azken -edo lehen- esanahira iritsi nahi da; horretarako errealitatea, "gauzak", zehatz-mehatz arakatzen dira hitzen esanahiarekin lotuta. Horrela oreka berreskuratu nahi zen fonetikari ematen zitzaion garrantziaren eta esanahiak merezi zuenaren artean. "Hitzak eta gauzak" mugimenduaren ekina hortik doa, etimologian murgilduz, hitzaren bilakaera aztertuz eta honela hitzaren historia ezagutuz, gauzak (24) zergatik deitzen diren batera eta ez bestera jakin nahi luke.

Dena dela, gai honek grekoen mundura eta kultura klasikora garamatza. Platon-ek eutsi zion gauzen eta izenen arteko lotura naturalari, eta baita horren kontrako ideiari ere (Kratilo). Hau aspaldiko eta betiko eztabaida da hizkuntzaren azterketan, ea hizkuntza berez ala konbentzioz sortu zen.

Mugimendu honen bultzatzaileak, hastapen-hastapenetatik, H. Schuchardt eta Rudolf Meringer izan ziren, lan bana argitaratu bait zuten oso antzerakoak, 1897 eta 1898 urteetan jarraiberean, agerian jarriz biek hitzek ordezkatzen dituzten "gauzak" arras baztertuak utziak zirela. Meringer-ek, Meyer- Lübke-rekin batera (25), sortu zuen 1909-an **Wörter und Sachen. Kulturhistorische Zeitschrift für Sprach - und Sachforschung** aldizkaria; horrela garaile ateratzen zen Schuchardt-ek lehenbizikoz aplikatu zuen metodoa.

Geroago, F. Krüger eta bere lanen bitartez, **Die Gegenstandkultur Sanabrias und seiner Nachbargebiete** eta **Die Hochpyrinäen, Wörter und Sachen,** joera etimologizalea baztertzen joaten da eta arreta haundiagoa ipintzen zaie hitzaren ikuspegi folklorikoari eta kultura materialari.

**Volkstum und Kultur der Romanem** aldizkariarekin etnografiak ere bere tokia hartuko du azterketa linguistikoan.

Horrekin batera eta hori osatuz **onomasiologia** sortzen da F. Diez-ekin. Geografia linguistikoaren ikuspegiz, gauza edo ideia bati edo antzerako gauzen edo ideien multzo bati, eremu linguistiko baten edo zenbaitetan ematen zaizkion izenak jasotzea da onomasiologia dialektala.

Onomasiologiaren bitartez egiten ziren lanekin eta atlasekin batera ere egiten ziren monografiekin izan zuten momenturik garaiena, eta hortik jarraitu zen atlasen izendapen berria: "linguistiko-etnografikoa". Egun ere egiten dira atlas hauek (26)

### 1.1.4.2. Neolinguistak eta dialektologia.

XX. mendearen lehen erdialdean dialektologiak beste dimentsio bat hartzen du, eskola idealistak Karl Vossler-en eta, beraz, Croce-ren bitartez eragiten diolako. Mugimendu honek, bere eduki filosofiko-linguistikoak edo literarioak alde batera utziz, izan zuen eraginik dialektologian. Idealistei esker hartu zuen jarrera kritikoa ordurarte egindakoari zegokionez, eta XIX. mendetik zekarren zama positibista utzi zuen, hizkuntzaren kontzeptzio eskematiko eta sinpleegitik, hots, "a priori" asmatutako kutsuko ideietatik askatuz.

Idealistekin batera, eta ikuspegi linguistiko hutsez, ezinbesteko da "eskola neolinguistikoa" ekartzea, eta eskola horrekin bi

izen, mugimendu horren oinarri eta metodoak dakartzan lanaren egileena. **Lana Breviario di neolingüística** da, eta bi zati ditu I **Principi generali,** G. Bertoni-rena eta II **Criteri tecnici,** M.G. Bartoli-rena (Modena, 1925). Kontutan hartu behar da, orobat, M. Bartoli-ren (1925) **Introduzione alla Neolinguistica**, Ginebra.

Eskola neolinguistiko hau neogramatikarien aurkakotzat hartua izan da, eta "lege fonetikoen" aurkakoa bereziki. Baina Bartoli-ren teorien eraginez, hau baitzen bereziki neolinguista, beste bide bat hartu zuen, ikuspegi diakronikoa mapen interpretazioan oinarrituz baizik ezin daitekeela finka esanez (27). Honela Bartoli-ren aintzindaritza onartu zen, eta hasierako printzipioak baztertuz, eskola berria sortu zen, Bartoli-k "Linguistika espaziala" izendatu zuena, eta lanik adierazgarriena **Saggi di Linguistica spaziale**, (1945) Torino, da.

> *"L'intento principale che mi sono proposto con questo volume è di far meglio conoscere le* ***norme spaziali".*** *BARTOLI (1945, VIII), (28).*

Eskola hau Geografia linguistikoaren kontzeptu eta teorietan oinarritu zen. Geografia linguistikoak eginiko mapak zehatz aztertuz hizkuntzaren historia berreraiki nahi du. Edo bestela esanez, hizkuntz gertakarien hedakuntza behatu edozein zabalerako eremutan, eta horrela berrikuntzen sorburua finkatu (29). Honela, hitza nola dagoen kokatua ikusiz, "eremuetako arauak" ezartzen dira. Hein batean, Gilliéron-en erizpideen aurka, eremu linguistikoen banaketa ustegabeko eta subjetibotzat bait zuen, eremuen finkaketa isoglosen hautaketari datxekiolako, eskola espazialak eremutan erdigunea eta inguruak bereizten ditu; berrikuntza sortzen denekoa erdigunetzat hartzen du, eta fenomenoa bere faserik zaharrenean agertzen dutenak dira inguruak, trafikoko mugimendutik baztertuago eta iritsiera zailagokoak eskuarki.

Erdigunetan sortzen diren berrikuntza linguistikoak sustrato etnikoaren eraginez gertatuko lirateke, sustratoei buruzko Askoliren teoria ezagunekin lotuz, beraz. Sustratoen inguruko azterketa

hauek, hizkuntza baten barruan ibiltzetik, zenbait hizkuntza hartzen zituzten eremu geografiko zabalagotara bultzatu zituzten. Esan daiteke estrukturalistei bidea zabaldu zietela honekin, eremu linguistikoak hizkuntzen ezaugarrietan oinarritzen zituztelako; zenbait hizkuntzen ezaugarri multzo berdinekin eremuak finkatuz, hizkuntz horiek, jatorriz ahaidetasunik ez izan arren, geografiazko kontaktuz kidetasuna sortu dutelako.

Hala ere, eskola espazialak kritika gogorrak jasan behar izan ditu. IORDAN (1967, 449) horrela mintzo da:

> *"la doctrina neolingüística es de hecho, en gran parte, una continuación de la escuela neogramática, con diversas modificaciones que la ponen de acuerdo con el espíritu de las tendencias más nuevas de nuestra disciplina".*

Eta VIDOS ere ez da beratzagoa (1963, 79):

> *"La mayor insuficiencia metodológica de la lingüística espacial es su tendencia a esquematizar y a expresarlo todo con fórmulas. Tiene poco en cuenta las grandes variaciones de los fenómenos lingüísticos, sus normas son demasiado rígidas para poder ser utilizadas sin hacer distinciones, y son del todo insuficientes para poder determinar tantos factores múltiples, sociales, biológicos y estilísticos, en la vida del lenguaje. [...] En vez de descubrir la vida del lenguaje, la lingüística espacial no ha hecho en realidad otra cosa que sistematizar el aspecto exterior, el puramente geográfico, de la geografía lingüística."*

### 1.1.5. Gaurko egoera.

Gaur egun, eta alde batera uzten baditugu orain arte nola edo hala iraun duten joerek eta mugimenduek, dialektologiaren

alorrean ez da gertatu zirkin gogorrik mamizko gauzetan. Behar bada agortua gelditu da lan dialektologikoa, hau da, sistemen edo hizketen alderdi konkretuen deskribapen eta elkartze lana hizkuntza baztertuetan eta gutxi ezagutzen direnetan. Izan ere, hizkuntza afrikarren eta amerikarren bibliografi zerrendak oso zabalak dira, eta horrek aski ongi frogatzen du dioguna.

Teknologiaren garapena iritsi zaio, bestalde, gure gai honi ere, eta horrek metodologiaren eguneratzea ekarri du. Linguistika konputazionalak eta matematikoak dialektologian lortzen dute, hain zuzen ere, erabilerarik onurakorrena. Frekuentzien indizeek eta horren ondorioek,erabat automatizaturik, Geografia linguistikoa eta Geolinguistika aztergairik interesgarrien bihurtzen dituzte.

Hauek horrela izanik ere, ordea, ardatz nagusietan ez dute aldaketarik izan gai hauek.

# OHARRAK

(1) Mounin-ek dioenez (1976, 20), norberaren ikuspuntuak baldintzatzen du erabaki hori: "la lingüística ha nacido hacia el S. V antes de nuestra Era, o en 1816 con Bopp, o en 1916 con Saussure, o en 1926 con Trubetzkoy o en 1956 con Chomsky".

(2) Eritzi hedatuenek adierazten duten bezala, grekoei zor zaizkie bizimoduaren aldaketa eta munduarekiko ikuspegi zaharkituen bazterketa. Ordutik hitzegiten da zientziaren sorreraz eta gaurdaino iraun duen ikasketa modu berri batez. Dialektologian ere oinarria haiengan dago, eta erromatarrek, grekoen jakintzak iraganez gain, ez zuten ekarpen berririk egin; hori bai, beren hizkuntza ezarri zuten menderatu zituzten lurraldeetan, bidebatez hainbeste jatorritako herrien hizkuntz ugaritasuna xahutuz.

(3) Esaterako, eragin bizia izan zuen Juan de Valdes-en **Diálogo de la lengua**-n (1777-an Gregorio Mayans y Siscar-ek lehenbizikoz eta anonimotzat argitaratua LOPE BLANCH (1969, 31).

(4) Entzute haundia zuten euskaldunek eskribau bezala: "Sabiendo leer y escribir bien, con la añadidura de vizcaíno, podéis ser secretario del mismo Emperador", dio Cervantes-ek El Quijote-n. C. ECHEGARAY (1907, 244).

(5) J. URQUIJO-tik jasoa (1922, 250-251). P. de Madariaga-ren lana Valencia-n argitaratu zen, honako izenburuarekin: **Libro subtilísimo intitulado honra de Escribanos. Compuesto y experimentado por Pedro de Madariaga Vizcayno.**

(6) Pentsamolde eta jokabide honen adierazgarri ona da Baltasar de CASTIGLIONE-ren **Il Cortegiano** (1528), lehen aipaturiko Valdes-en lanean ere eragina izango zuena.

(7) Villers-Cotterets-ekoak hauxe dio hitzez-hitz: "Prescrivit l'emploi exclusif du français au lieu du latin dans touts les actes juridiques du Royaume". S. POP-erantzat: "C'est la premiére ordonnance d'une importance capital dans l'histoire de la langue française". Eta MEILLET-ek (1925, 108) apud POP (1950, 9) dioenez: "La introduction du français est donc un fait de nature essentiellement politique".

(8) Gure inguruetara lotuz, aipa genitzake Aita Larramendi-ren eta Mayans y Siscar-en arteko liskar dialektikoak. Antonio TOVAR-ek (1980, 66-95) zehazki azaltzen ditu.

(9) MITXELENA-k ere horrela aipatzen du (1959), Espaina-ko dialektologiaren aintzindari, beti ere Larramendi-ren ostean. **La obra de Manuel de Larramendi (1690-1766).** Oviedo, Cuadernos de la Cátedra Feijóo; G. Angel DEL RIO-k dioenez (1943, 212), ordea, Sarmiento-k mereziko luke aintzindari izen hori, zeinek izan bait zuen eragin haundia Jovellanos-engan ere. POP (1950, XXIX) ere bat dator ideia honekin.

(10) Zirkularra bidali zien herri guztietako abade eta maisuei 43 galderetako galdekizuna erantzuteko eskatuz. Galdekizunean arazo linguistikoak eta soziolinguistikoak sartzen zituen eta ezin daiteke esan interesgarria ez denik.

(11) Lau urte geroago "Instruction Publique"-eko komitearen aurrean txosten bat aurkeztu zuen izenburu honekin: **Rapport sur la nécessité de détruire les patois,** bi atal nagusirekin: Lehenengoa, nazio haundiek hizkuntzak bateratzeko duten premiaz; bigarrena, patois-ak kasatzeko biderik beharrezkoen eta egokienaz.

(12) Schlegel aipatzen dugunez gero, garrantzitsua iduritzen zaigu "genealogi zuhaitza-ren teoria" edo "Stammbaumtheorie" aipatzea, egun ere hainbat dialektologo bait da,

hizkuntzen zatiketei edo egoera dialektalei jatorrizko esplikazioa emateko, zuhaitzen eskemetara jotzen duena. Horrela dio HEREDIAK (1983, 81):

> "Así una interpretación al pie de la letra de la STAMMBAUMTHEORIE sugiere que las lenguas se separan de manera radical dando lugar a estados bien definidos y homogéneos, que a la vez se subdividen de la misma forma. La dialectalización se representa como un rasgo reciente de la evolución, es decir, al final de las ramas del árbol; todo en cambio hace pensar que dicho proceso se dio desde el principio, incluso en la protolengua: una observación sobre el desarrollo y condiciones "vitales" del lenguaje lleva a creer, en el caso del indoeuropeo, en una primitiva y, por otra parte, incesante fragmentación dialectal".

(13) Ikaslari askok neogramatikoengan ezartzen dute linguistikaren sorketa, zientzia honi egun ematen zaion balioaz.

(14) Bopp-eri, bereziki, sortu zuen zientzia giroa zor zaio, eta linguistikarako eta gramatika diferentzialerako ipini zituen oinarrietatik, dialektologiari ere bide berriak ireki zitzaizkion.

Mendearen lehen erdikian berdin jarraitzen da glosarioak eta hiztegi erkatzaileak egiten, aurreko mendean Leibnitz-ek irekitako bide arrakastatsuari jarraituz. Nolanahi ere, XIX. mendean sendiberatasun haundiagoa nabari da, erromantizismoaren eraginez dudarik gabe, herri hizkuntzak jasotzeko. Eta L.L. Bonaparte-ren Printzearen **Vocabularium comparativum omnium linguarum europaearum,** 1847-an argitaratua, ez litzateke adibiderik txarrena.

Aipagarria da, baita ere, Coquebert da Montbret-ek 1807-an "Seme galduaren alegia"-rekin jaso zuen inkesta korrespondentzia bidez. Kritika haundiak izan zituen erabilitako metodologiagatik eta materiala ere ez zelako egokia, baina garai hartarako aurrerakada galanta izan zen, eta eragin ezin haundiagoa izan zuen, jarraitzaile asko sortu bait zituen. Bidenabar, esan dezagun, autore honek, 1831-n dioenez, garbi ikusten duela muga linguistikoak ez direla lerroka edo marrak bezala agertzen.

Jarraitzaileen artean F.J. STALDER nabarmen daiteke POP (1950, XXXIII). Suiza-n eta Alemania-n eragina izan zuen, batipat lehenbiziko atlas linguistikoa egin zuen G. Wenker-engan. Eta Noruega-n ere izan zuen aski eragin, herrialde honek hizkuntza nazionala behar bait zuen 1814-an Dinamarka-tik zatitu ondoren; izan, hizkuntz normalizatzerako bilakabidea izan zen arren, Ivan Aasen, haren bultzatzaileak, hizkuntza propioa izateko irrikaz, bere lurraldeko dialekto ugaritasun dena jaso eta bildu zuen; honela, bidebatez, dialektologia modernoaren bultzatzaile nagusi gertatu zen.

(15) "Bien qu'en réalité on puisse retracer les origines de la dialectologie dans les ouvrages d'amateurs de l'époque romantique, c'est seulement aux environs de 1875 qu'Ascoli, Schuchardt et Paul Meyer s'occupent sérieusement du probleme".

(16) Dena dela, garai hartan bero-bero eztabaidatzen ziren, arazo dialektalak ezezik, baita linguistika osoaren oinarri zientifikoak ere, hizkuntza erromanikoen azterketa erkatzaileak zirela bide. Geure artean ere, eta euskal gaiei buruz, beste batzuren artean, Schuchardt-ek eta Vinson-ek izan zituzten antzerakoak.

Eztabaidok aldizkari berarituetan arkitzen zuten tokia. Entzute haundiko bat aipatzekotan, **Revue de Linguistique et de Philologie comparée** izango litzateke, 1876-an sortua. Urte berean agertu zen linguistika hispanoamerikarreko lehen lana, Rufino José Cuervo-ren **Apuntaciones críticas sobre el lenguaje bogotano**, alegia.

Aurrerago beste zenbait aldizkari garrantzitsu ere aipatuko dira.

(17) Garai hau garrantzitsua izan zen Frantzia-n bertako hizketak onartzeko. Horretarako eraginik izan zuen 1869-an sortu zen hizkuntza erromanikoak ikertzeko elkarteak eta hedabiderako zuten aldizkariak, **Revue des langues romanes.** Bietan Jourtoulon izan zen sortzailekide. J. Gilliéron-ek eta Rousselot-ek 1887-an **Revue des patois gallo-romans** sortu zuten, eta garaiko dialektologiaren zabalkunderako bide garrantzitsua izan zen. Aldizkari honen lehen zenbakian argitaratu zuen Rousselot-ek bere artikulu entzutetsua, "Introduction à l'étude des patois", non ezartzen diren edozein azterketa dialektalerako oinarriak; "... la première fois [...] une méthode scientifique pour étudier les patois", POP (1950, 38). Bestalde, aipaturiko aldizkari honek lurra landua aurkitu zuen, ideia berriak nahiko hedatuak bait zeuden G. Paris eta P. Meyer-i esker.

(18) **Modifications phonétiques** fonetikarako lan eragingarria izan zen, baina ez da Rousselot-en ekarpen bakarra. Baditu hainbat lan azpimarragarri, esaterako **Principes de Phonètique expérimentale** (1891) "où les faits dialectaux constituent une partie très importante des matériaux analysés", Georges STRAKA (1957, 263), edo Paris-eko eta beste hizketa batzutako ahoskerei buruz egindako azterketak.

(19) Euskal fonetikaz ere egin zuen Rousselot-ek lan bat, LACOMBE-k (1925, 555) dioen bezala, tamalez argitaratu gabe gelditu zena:

> "Il étudia, à son laboratoire, une foule de langues, parmi lasquelles le basque ne fut pas oublié. Il fit notamment des expériences sur la prononciation de l'abbé Azcue, et à Saint-Jean de Luz, chez M.J. de Urquijo, quelques investigations avec le palais artificiel. Je lui présentai quelques sujets, en présence de Broussain, à Paris, au laboratoire du Collége. Malheureusement ces traveaux furent interrompus, et l'article sur la phonètique basque, des longtemps annoncé et en partie rédigé, ne parut point".

J. URQUIJO-k (1925, 556-557) ere, berari Rouselot-ek 1921-8- 6-an eta 1922 -7 -2-an idatzitako gutunak argitaratzen ditu. Urte batzu lehenago (1918, 30) horrela mintzo zen:

> "Todos los trabajos de fonética vasca publicados hasta el día están basados en observaciones auriculares, pero sabido es que, en estos últimos años, algunos lingüistas han tratado de suplir las deficiencias del oído por medio de aparatos, tales como los paladares artificiales y los instrumentos registradores, lo que ha dado lugar a la creación de una nueva ciencia: la fonética experimental".
>
> " [...] los vascófilos que deseen ponerse al corriente de los métodos preconizados por la nueva ciencia, pueden leer los **Principes de Phonetique Experimentale,** de Rousselot [...]; pero sí debo hacer constar que, antes de la guerra, logré que el sabio abate estudiara, con sus aparatos, algunos detalles de la fonética labortana, suletina, guipuzcoana y vizcaína, para lo cual le proporcioné sujetos de estas diversas regiones de Euskalerria".
>
> "El trabajo de M. Rousselot no llegó a publicarse. Es en todo caso, de la mayor urgencia que el citado fonetista, o alguno de sus discípulos, continúe las experiencias comenzadas y, a ser posible, que se funde en Euskalerria un laboratorio de fonética experimental. A juicio del profesor Rousselot, la vida entera de un hombre no bastaría para investigar a fondo la fonética éuscara".

(20) Lanik nabarigarriena "Les parles de France" izenburuarekin eman zuen hitzaldia

eta 1888-an **Revue des patois gallo-romans**-en argitaratua. Hiltzaldi horretan atlas hori egitera premiatzen zuen, eta Gilliéron-ek egin zuenean burutu zen eskaera hori. Aurretik beste lan batzu ere izan ziren, esaterako Wenker-ena, nahiko aitzindaritzat har zitezkeenak, baina mapa indirektoak eta sintetikoak ziranez gero, benetan aurrena Gilliéron-ena izan zen.

(21) Gilliéron-ek Schuchardt-i eskeintzen dio **L'aire "clavellus', d'après l'Atlas Linguistique de la France.**

> "Lo cierto es que la mayor de las doctrinas gilliéronianas se encuentran ya en Schuchardt aunque sin el apoyo empírico con que contaba el autor del ALF. Así, la consideración de la lengua en estrecha consideración con la vida psíquica y el entorno material del hablante, la oposición al mecanicismo de las leyes fonéticas, la idea de que la lengua es un **continuum,** la de que no existen lenguas, dialectos, etc, sin mezcla, y tantos otros aspectos que hacen de Schuchardt un claro precursor de Gilliéron", HEREDIA (1983, 153).

(22) "D'autre part considérant l'utilité et la nécessité comme les principes mémes de l'evolution linguistique, Gilliéron prélude aussi aux conceptions antihistoriques modernes". KUKENHEIM (1966, 120).

(23) Hurrengo kapituluan astiro ikusiko dugu puntu hau.

(24) "Sachem" hitzak, Schuchardt-en eritziz, "gauzak" ezezik baita gertaerak eta egoerak ere hartzen ditu, erreala eta irreala, sentipenezkoak nahiz sentigaitzak", **Brevier,** 18.or. Apud VIDOS (1963, 59).

(25) Beste hizkuntzalari ospetsu batzuk ere parte hartu zuten. I. IORDAN-en lanak (1967, 103 eta hur) oso zehatz aurkezten du "Wörtter und Sachen" mugimendua.

(26) Lehena eta oso ezaguna K. Jaberg-ek eta J. Jud-ek egin zuten "Italia eta Suiza-ko Hegoaldeko atlas linguistiko-etnografikoa" izan zen, eta kartografiaz gain gauzen 4.000 fotografiaz eta 1.900 marrazkiz hornitua zegoen. Mundu guztia bat dator atlas onomasiologiko lehena hau izan zela.

(27) VIDOS (1963, 77).

(28) IORDAN-i jarraituz (1967, 494), benetako neolinguistikoa Bartoli zen eta ez hainbeste Bertoni, bien artean egin bazuten ere "Breviario"-a.

(29) IORDAN (1967, 496-497) hagitz kritiko agertzen da Bartoli-rekin: "Pero de Gilliéron, el linguista italiano no ha tomado la parte verdaderamente nueva y original, todo lo que significa estudio profundo de la vida de una palabra (estratigrafía o geología lingüística) o las explicaciones dadas sobre las causas de la desaparición de las palabras y su sustitución por otras (homonimias, contaminaciones, etimologías populares, etc)".

## 2. GEOGRAFIA LINGUISTIKOA ETA DIALEKTOLOGIA

### 2.1. KONTZEPTUEN MUGAKETA

Sarreran begiratutxo bat bota zaie kontzeptuen mugaketak dituen eragozpenei linguistika orokorretik ongi bereizteko dialektologia; halaz ere, orain berarizago aztertuko ditugu metodologiari eta teoriari buruzko gaiak.

Lehen esan bezala, XIX. mendeko azken herenean hasi zen dialektologia nortasuna lortzen eta izate propioz eratzen. Arrazoi soziologikoak ere tarteko izan ziren arren (1), hizkuntzalaritzak berak izan zuen bilakabideak eraman zuen herriko hizketa bizia aztertzera eta jasotzera. Lege fonetikoen aldagaiztasuna eta erregulartasuna etengabe hautsia ageri zen hizkuntzaren erabilera bizian, eta hori ikusiz konprenitu zen zenbat aldentzen ziren hizkuntzak lege orokorretatik, eta herrietako hizketak jasoz baizik ezin izango zela hizkuntza bera jaso, eta hortik sortu zen Dialektologia, baina baita Geografia linguistikoa ere.

#### 2.1.1. Geografia linguistikoa eta dialektologia

*Bi adar hauen artean ez dago bereizketa garbirik. MARTINET - en hiztegian (1975, 266),J.F. LACROIX-ek horrela dio:*

> *"Aunque los ámbitos respectivos de la geografía lingüística y de la dialectología no están todavía bien delimitados se considera generalmente que la* ***geografía lingüística*** *"reconoce en el espacio y traslada a los mapas los hechos lingüísticos de toda clase", mientras que la dialectología, por su parte, se entiende: 1º, como el estudio comparativo de los sistemas*

*que presenta cada lengua localmente; 2º, menos frecuentemente, como descripción de las hablas locales sin referencia a las hablas vecinas".*

Aski arrunta eta onartua da Geografia linguistikoaren ikuspegi hori, hots, herrialde konkretuetan jasotzen den informazio linguistikoa mapetara aldatzearena. IORDAN-ek (1967,251) zehaztasun berri bat, "herri-hizketak", sartu zuen definizioan: **"el estudio cartográfico de las hablas populares"** (2); dialektologia, berriz, "la investigación científica de los dialectos" bezala ematen du. Bata "azterketa" (aurreraxeago baita "metodo" ere deitzen dio), bestea "ikerketa zientifikoa", batean "herri-hizketak", bestean "dialektoak". Geografia linguistikoak, azterketari esker, beste maila bat lortzen du, eta ez da kartografiaketarako euskarri soilean gelditzen, baina ez dio dialektologiari eskeintzen dion garrantzirik ere ematen, "ikerketa zientifikoa" bait da hau. "Herri-hizketak" eta "dialektoak" izendatuz, elkarren artean bereizi nahi al ditu edo hitz egiteko era bat baizik ez ote da? Ziurrenez azken hau izango da, "geografia dialektala" ere deitzen bait dio Geografia linguistikoari.

Edonola ere ez da erraza, egun ere, bien alorrak mugatzea. Azterketako objetua biek bera dute: hizketa bizia. Hizketa bizia, ordea, beti unibokoa al da? Zentzu orokorrean baietz esan daiteke; baina Iordan-ek, esaterako, "dialektoa" eta "herri-hizketa" erabili ditu, biak bat diren edo ez ez dakigularik. Bestalde, ez da aisa ezagutzen bakoitzak zer hartzen duen eta noraino iristen den, zein helburu eta zein xede dituen. Hori bai, Geografia linguistikoak kartografia nahitaezko du, eta ez, ordea, dialektologiak.

### 2.1.2. Dialektoaren definizioa

Dena dela, kontzeptu guzti hauek aldatuz joan dira, inoiz izenek berek ere aldaketarik jasan dutelarik. Geografia linguistikoari "geografia dialektala" deitzen dio IORDAN-ek: "Teniendo en

cuenta que el objeto de este método lingüístico lo constituyen los dialectos (en el sentido más amplio de la palabra) y no la lengua común (hablada o escrita)" (1967, 251-52). Alemanek ere bi izendapen horiek erabiltzen dituzte: **Sprachgeographie** eta **Dialektgeographie.**

Dialektologia, adierarik zabalenean, linguistikan kokatzeak gainetiko zailtasunak ekarri ditu, batipat linguistika berez delako aski konplexua.

Dialektologiaren alderditik, norbanakoaren erabilera dago. HOCKETT-ek "idiolekto" izendatu zuena, eta pertsona bakoitzak aldi baten dituen aztura linguistikoez osatzen dena (1971, 319) (3); baina hori korapilatu egiten da hiztun bakoitzak erabiltzen dituen errejistro ezberdinekin, bere burua aurkitzen den egoeren arauera.

Guzti honi beste zailtasun ugari erantsi behar zaizkio: hizkuntzaren eraketa berezia, hizkuntzaren eremu eta mugak, dialektoen arteko mugak, dialektoen jatorria, dialektoen estratifikazioa eta abar. Bestalde, baita hiztunari dagozkion bereiztasunak ere: hezketa, erligioa, arraza, gizarte maila eta hiztunaren beraren jarrera ere. Zer esanik ere ez dago hainbeste aldaki kontutan hartuz gero, erizpideetan batasuna oso nekeza bihurtzen dela; edo, praktikan, objetu bera duten hainbeste adarren arteko mugaketa garbia ez dela sekula lortzen.

Linguistika estruktural amerikarrak hizkuntz komunitateak bi ardatzetan banatzen ditu: ardatz "geografikoan" edo horizontalean, eta ardatz "sozialean" edo bertikalean. Eta bi horien barnean beste zatiketa batzu hartzen ditu kontutan: hizkuntza **estandarra** (ikasiena), **sub-estandarra** (familiar arrunta) eta **toki-dialektoena,** BLOOMFIELD (1964, 54-68) (4).

Hori Bloomfield-ek berak onartzen badu ere, hizkuntzalariari pertsona guztien hizkuntzek interesatu behar diote, nola ikasienak hala pertsona arruntenak (24.or.) (5).

Ikuspegi sozial hori berria zen hizkuntza miatzeko, baina ez zuen aski oihartzun izan Bloomfield-en jarraitzaileen artean. Alderantziz baizik, formalismo hertsiz hartu bait zuten hizkuntzalaritzaren objetua, deskribapen formalista zorrotzera lotuz, estruktturalismo formalistaren eredu bihurtzeraino.

Chomsky-k ere bide hori hartu zuen, ezarri zituen muga teorikoek baztertu egiten dutelako hiztun idealaren konpetentzia linguistikotik at gelditzen den edozein elementu (6).

Europan ere gauzak ez dira asko aldatzen. Halaz ere, Saussure-n ikuspegiz hizkuntza gertakari sozial denez (7), A. Meillet eta, geroago, M. Cohen bultzatzen ditu hizkuntza gertakari sozial bezala ulertzera (8).

Dena dela, faktore soziala, garrantzitsua bada ere, bat da beste askoren artean; baina baditugu beste ardatzean zenbait barietate, faktore sozialarekin zerikusirik duten eta "barietate diastratikoa" izenez ezagutzen dugun horren parekoak: geografikoa, diafasikoa, diakronikoa, ezagunenak baizik aipatu gabe. Eta barietate horiek nola lotzen dira dialektologiarekin? (9). Bestalde, nola neurtu bio-geografiazko egoeraren, bizitzeko eren, zibilizazioaren eta kultura tradizionalaren baldintzen eraginez sorturiko dialektoen eta azpi-dialektoen zatiketak?

LOPE BLANCH-entzat (1967, 25) (10) dialektologiak honako lan honetan ihardun du:

> *"en estudiar el habla, la realización viva de un sistema, de una lengua ya sea en un nivel rústico, ya en el urbano; ora en un plano local, ora en el regional o nacional; tanto en los dominios del habla vulgar cuanto en los de la expresión normal o, inclusive, culta."*

Definizio edo deskribapen hau, hedadurari dagokionez, askotarikoa da eta ez dio hedadurari mugarik ezartzen; kontzeptoei dagokienez, berriz, definizio bateratuegia da, berdinegia. Hizkun-

tza bizia askotarikoa dela onartzen da, baina gero sistema bakarrean sartu eta metodo bakarrez -dialektologiarenaz, alegia- aztertu nahi da. Izan ere, hortxe dago dialektologia definitzeko koxka: hizkuntza, berez, ugaria dela, eta linguistika desberdintzailea eskatzen duen ugaritasun horrekin egin nahi dela teoria eta abstrakzioa dialektologian.

Hori horrela izanik, hizkuntzaren teoritzaileek nahiago izan dute lehenengo eta behin "dialekto" nozioa argitu eta mugatu, horren ondorioz dialektologia eta bere eremua definitu eta mugatu ahal izateko. Izan ere, linguistika barnean "dialekto" kontzeptuak askoz gehiago hartzen du dialektologiak baino, hau ikuspegi espazialera mugatu bait da beti, lehen genioen bezala.

Dialektoa da, beraz, eta HEREDIA-ren hitzetan (1983, 480) "unidad o categoría del análisis lingüístico", eta ahaleginik haundienak "hizkuntza" eta "dialekto" kontzeptuen arteko harremanak eta desberdintasunak argitzen egin dira (11).

Lan berriagoetan "dialektoa"-ren definizioa funtzioa aztertuz eman nahi izan da. Jean Séguy-k, esaterako, A.L.P.O.-n (12) jasotzen diren zenbait herri katalanetako hizketen azterketetan oinarrituz, frogatzen du "dialekto" hitzak, tokitasunezko esanahirik estuenean hartuta, funtzio bikoitza betetzen duela, hizkuntz ikuspegiz komunitate arteko harremanak finkatu beharrari erantzunez, eta ikuspegi sozialez, komunitate auzokideak elkarren artean mugatzeko. Bi funtzio, komunikatzailea eta zedarritzailea, alegia, biak elkarren aurkako ez baina elkarren osagarri direnak, J. SEGUY (1973, 27-28 eta 35. or.ak).

Ateratzen dituen ondorioetatik aipa genitzake nomenklaturari dagozkionak, berak dioen bezala, baina haratago ere jotzen du:

> *"On appellerait **dialectes** des parles qui permettent aux locuteurs se comprendre directement et sans difficulté. Deux parlers mettant les locuteurs dans la situation contraire seraient nommés **patois.** En effect, pour nous, le mot **patois** est vacant. Les beaux es-*

*prits l'emploient comme péjoratif de* ***dialecte,*** *et* ***dialecte*** *comme mélioratif de* ***patois.*** *Cette distinction est sans portée scientifique. Ainsi, du point de vue fonctionnel, un habitant de Paris et un habitant de Djakarta, un habitant d'Auch et un habitant de Thiers (parlant l'un et l'autre leur vernaculaire) seraient en situation de patois. Même cas si la compréhension n'est qu'univoque:le long du colossal bourrelet d'isoglosses séparent basque et gascon, les Basques apprennent le gascon, mais les Gascons se piquent de ne rien entendre au basque. Même cas si la communication s'établit par le détour d'une tierce langue: le franÇais pour les locuteurs vivant de part et d'autre du bourrelet saintongeais-occitan, les communautés savoyardes (se reporter aux observations de M. Martinet). Car en dépit de notre démonstration, ces faisceaux d'isoglosses en forme de muraille de Chine existent bel et bien, et encore en rase campagne. C'est l'un des charmes de la linguistique: quand on vient de prouver l'existence d'un être E, on peut présumer l'existence d'un anti-E ", SEGUY (1973, 36).*

Esan dezakegu, beraz, Seguy-k dialektoen mugaketa elkarren arteko ulergarritasunean oinarritzen duela, hortik at "patois" delakoa agertzen delarik. Horrela badukegu, batetik, hizkuntza/dialektoa bikotea, eta bestetik, dialektoa/patoisa; ez, ordea, biak abstrazio plano berean, dialektoa neutroa litzatekeelako nahiz hizkuntzari buruz, ardatz batean, nahiz patoisari buruz, lehenengoaren meneko beste ardatzean. Erabiltzen duen adibidea ez da ona, gaskoiera eta euskara ez direlako hizkuntza baten aldakiak, nahiz patois nahiz dialektotzat hartu aldaki horiek; ez eta jatorri erromaniko bera duten aldaki ezberdinak ere, diakronian zehar igoz puntu baten nolabait elkarturik aurkitzeko bezala, baizik jatorri arras ezberdineko hizkuntzak dira. Hala eta guztiz ere, adibideak balio dezake, eta neurriz gainekoa bada ere, akats hori ulergarri dateke teoriaren azalpenaren mesedetan.

Dena dela, eta amaitzeko ikuspegi hau, gu ere José Joaquín MONTES GIRALDO-rekin (1970, 18) bat gatoz, dialektoaren definiziorik ezagunenak aztertuz gero, ondorio honetara iristen denean:

> *"... no puede elaborarse un concepto de dialecto sobre base lingüístico-estructural válido para cualquier lengua en cualquier época, sino que, como ya lo han reconocido algunos estudiosos, tal concepto tiene que ser elaborado para cada caso concreto, lo que nos da una idea del estado de la cuestión"*

## 2.2. DIALEKTOAK ETA HAIEN EREMUAK ETA MUGAK

Neogramatikoak izan ziren hizkuntza indoeuropearren azterketa konparatzailea utzi beharra agertu zutenak. Hizkuntza, giza-hizkuntza, ezagutu nahi izanez gero, egungo hizkuntzak eta dialektoak ikertu behar direla zioten. OSTHOFF eta BRUGMANNek 1888-an zioten bezala (13):

> *"En todas las hablas vivas, las modificaciones fonéticas propias de un determinado dialecto aparecen realizadas en todo el material lingüístico y son observadas por los miembros de la comunidad lingüística con una* ***consecuencia*** *mucho mayor de lo que cabe esperar del estudio de las lenguas antiguas, accesible a nosotros sólo por medio de los textos escritos."*

Hauek nahi dutena zera da, aldaketaren erregulartasuna -aldaketa fonetikoarena, batipat- finkatu eta haren aplikazio bateratua egin hizkuntz komunitatetan. Horretarako ezinbestekoa dute ikerketa enpirikoa eta behar dute baita informazioa jaso eta mapetan ezarri ere (14).

Wenker izan zen neogramatikoen teoriak praktikan ipini zituena 1876-an. Goi-alemanera eta behe-alemaneraren arteko zedarriak ezarri nahi izan zituen, zenbait aldaketa fonetikotan oinarrituz, eta bereziki goi-alemaneran gertatu zen bigarren aldaketa kontsonantikoan (15). Jasotako datuak kartografiatzen eta aztertzen hasi zenean, ordea, ondorio honetara iritsi zen: "no existen las fronteras dialectales y, por tanto, en sentido estricto, tampoco los dialectos", IORDAN, (1967, 225).

Frantsesek ere kide alemaniarren jokabide bera hartu zuten, metodoaren oinarritarako neogramatikoen erregulartasunaren postulatua hartuz, BYNON, (1981, 255). Helburuak ere berdintsuak zituzten:

> *"reconstruir la historia de las palabras, flexiones y modelos sintácticos sobre la base de la distribución de las formas y tipos actuales", DAUZAT (1922, 27).*

Frantsesen lanak Gilliéron-en inguruan garandu ziren, eta atera zituzten ondorioek eragin bizia izan zuten dialektologian eta linguistikan ere, topo egin bait zuten aurrez-aurre neogramatikarien teoriekin. Wenker-i gertatu zitzaionaren antzera, Gilliéron-ek ere, ALF-ek eskeintzen zizkion datuak aztertu ondoren, garbi ikusi zuen ez zela itsu-itsuan eta mekanikoki aritzen den lege linguistikorik, edo, bestela esan, ez dela lege orokorrik hizkuntzaren sistema osoan batera eta ia berez eragiten duenik, eta, beraz, ez daitekeela aldaketa linguistikoetan jeneralizaziorik egin (16).

Wenker-en atlasarekin ere garbi agertu zen dialektoaren eta haren ezaugarrien hedadura ez zetozela bat, ez eta ezaugarrion hedadura bera ere, eta fenomeno bati zegozkion hitzen hedadura ere ez. Honek gauza bat jarri zuen zalantzan, dialektoen mugen izatea bera, alegia.

Gilliéron ere dialektoen arteko muga horiek ezeztatzera iritsi zen, eta horrekin, hein batean, baita dialektoen izatea bera ere ezeztatzen zuen. Ideia honek izan zuen eraginik geroztiko dialektologoen artean:

*"Los dialectólogos románicos han tendido siempre a negar la existencia de dialectos, sosteniéndose que las fronteras dialectales son de naturaleza subjetiva, toda vez que es el lingüista el que selecciona la isoglosa o isoglosas en cuestión que considera que es la más revelante de entre la masa de isoglosas en pugna", BYNON (1981, 263).(17)*

Gilliéron-ek, azkenean, dialektoen historia baztertu eta hitzen historia aztertzea proposatzen du. Ondorio horien aurrean, BYNON-ek (1981, 264) zera esaten du:

*"La justificación de este planteamiento* ***atomista*** *radica en el hecho de que son más los fenómenos lingüísticos individuales que los dialectos en su conjunto los que puede demostrarse que abarcan sobre los mapas áreas continuas y que poseen fronteras definidas, y esto es, sin duda, uno de los hallazgos más sorprendentes de la geografía dialectal."*

Edozein modutan ere,hau ere ez da zeharo berria. Schuchardt-ek ere, hizkuntzaz zuen ikuspegiaren ondorioz, ez zituen muga edo zedarri linguistikoak onartzen. Hizkuntza etengabeko mugimenduan dagoenez gero, ez da posible jarraitasun linguistiko bateraturik osatzerik:

*"Habla, subdialecto, dialecto y lengua son nociones relativas" decía en su* ***Brevier*** *(18), señalando que los pasos de una a otra son lentos y casi imperceptibles, debido a las relaciones multifacéticas que existen entre los hombres".*

Eta hau eremuen gainezarpenarekin elkartuz -ugaritasuna onartzea baino ez dena, bestalde-, MILLARDET-ekin (1977, 51-52) esan ahal izango genuke:

*"Le critèrium de la superposition des aires n'est donc point une invention de l'école géographique moderne."*

*"A le considérer avec attèntion, on s'aperçoit qu'il dérive directement du critérium traditiónel employé de tout temps par le méthode comparative. Le principe de configuration des aires est veritablement original en ce qu'il ne fait intervenir aucune comparaison."*

Dena dela, ugaritasunaren ideia indargabetua gelditzen da gertaera linguistiko bakarraren aldeko azaltzen den neurrian.

*"Un seul fait linguistique est en jeu, et la repartition de ce fait dans l'espace est éloquente par elle-même. Au contraire la méthode de superposition comporte toujours la confrontation de deux faits au moins. Il est vrai que ce qui est comparé, ce ne sont pas essentiellement les faits, eux-mêmes, comme cela se produit dans le comparatisme classique, mais bien la répártition géographique de ces faits".*

Datu linguistikoak errealitatetik jaso dituzten dialektologo gehienek ikusi dute gertakizun linguistikoen barietate haundi hori. Charles BRUNEAU-K dio:

*"Il n'y a donc pas des dialectes; et, s'il y en avait, nos cartes seraient impuissantes à les reproduire dans leur realité. L'unité aparente, purement abstraite, de dialecte se résout à l'analyse en une multitude de groupes linguistiques." (1913, 9-10)*

Eta horrela jarraitzen du:

*"Il peut donc y avoir des limites de dialectes, et il est nécessaire de les déterminer: mais ces limites n'ont que'une existence scientifique et abstraite; elles ne correspondent à rien de réel dans la conscience de sujet parlant."*

Beharbada ez zaio arrazoirik falta FERNANDEZ SEVILLA-ri (1976, 113), gauzak zerbait sinplifikatuz, dioenean:



Euskal Gaien Institutua
Bilbao

*"Preocupados por la cuestión de los límites, quizá ni unos ni otros se daban cuenta de que la cuestión era más profunda y de que el concepto de dialecto es, en buena manera, ajeno e independiente del problema de los límites. Y es que los hechos lingüísticos, en cualquier faceta y perspectiva, se avienen mal con los límites rígidos que, de manera arbitraria, establecemos con fines de estudio. La realidad lingüística, en ninguna de sus parcelas, ofrece compartimentos estancos. No por eso, sin embargo, dejan de existir los dialectos o las distintas categorías lingüísticas."*

Hizketen eta dialektoen ugaritasun hori hizkuntzetan gertatzen diren aldaketen ondorioa den arren, batik bat, badira beste elementu estralinguistiko batzu ere eragin erabakiorra dutenak ugaritasun horretan. GUIRAUD-ek (1978,15) ezberdintasun fonetikoez ari dela zera dio:

*"Cette situation, déjà si complexe dans l'hypothèse de lois phonétiques stables et régulières est encore troublée par des formes aberrantes, accidentelles et isolées (métathese, vocalisation, etc.). D'autre part le libre jeu des lois phonetiques est constamment tenu en échec, masqué, altére par des causes historiques externes. Les techniques, les cultures, les communications conditionnent des échanges entre provinces d'une part, entre la province et la capitale de l'autre, qui déterminent les passages et les cheminements de chaque mot."*

Barreiaketa haundia ematen da gertaera linguistikoen ugaritasun hori dela eta; halaz ere, ez da gaizki ikusten, metodologikoki gutxienez, zuhurtasunez jokatuz, zenbait area ezartzea. Begira zer dioen MITXELENA-k (1976, 318-19):

*"Lo que los primeros autores de encuestas sobre el terreno rompieron fue la idea, de la que Bonaparte*

*participaba plenamente,de que en un dominio determinado se puede proceder a separar y agrupar dialectos, subdialectos y variedades. [...] Ahora bien, si no hay dialectos estrictamente diferenciados y, sobre todo, no hay fronteras dialectales marcadas, sí hay isoglosas que a pesar de todos los fenómenos de polimorfismo, encierran áreas y las separan de otras. Los mapas son sustituidos por los atlas, conjuntos de mapas."*

Isoglosez baliatu behar da fenomeno linguistikoen zedarriak ezartzeko, eta area baterako zenbait isoglosa bateratu behar dira. Ezinbesteko da, beraz, isoglosen eta fenomenoen artean bereizketa egitea; baina bereizketa hori, azken finean, ezin da subjetiboa baino izan. Garbi ikusten zuen hau MITXELENA-k berak:

*"No hay mayor acuerdo acerca de los hechos fundamentales en la fijación de convergencias y divergencias entre variedades: se emplean en realidad, aquellos criterios que en la práctica se han demostrado más manejables, que no son necesariamente los mejores en teoría."*

Gauzak horrela badira ere, subjetibotasun hori ez da hain erabatekoa. Beti agertzen dira zenbait aztarna eta datu halako edo bestelako zatiketaren alde, isoglosak batera edo bestera biltzearen alde:

*"Quien se constituye en observador en este terreno percibe, a donde quiera que vuelva su mirada en el tiempo y en el espacio, esa diversidad, pero junto a ella, no deja tampoco de advertir que entes diversos están a menudo unidos por haces de semejanzas, más o menos nutridas y notables. Para muchos de estos casos de semejanza en la diversidad o de diversidad en la semejanza, si es que se ajustan a ciertas condiciones, hay una interpretación [...] que el origen de la variedad debe ser buscado en una fuente común" MITXELENA (1976, 310).*

Muga linguistikoak oinarri objetiboekin ezartzeko ahaleginak gero eta haundiagoak dira. Frantzia, Geografia linguistikoan beti aintzindari izan dena, da orain ere atlasak egiteko jokabide metodologikoak ematen dituena,

NALF egiteko erabilitakoetan oinarrituta (19), H. GUITER saiatu da printzipio batzu ezartzen edo teknika bat eskeintzen, metodo estadistikoaz baliatuz, muga dialektalak finkatzeko,honako helburu hauekin:

1. Isoglosen sortak agertarazi muga linguistikoak ezartzeko.

2. Eremu baterako atlas edo mapa bat baino gehiago egin direnean eta dentsitate ezberdinekoak gertatu direnean, aldaketa eta trukaketa formularen bat erabili muga linguistikoa ezartzeko. (Berak jokabide hau hartzen du Ekialdeko Piriniotarako. Lau mapa daude lurralde honetarako:Atlas Linguistique des Pyrénées Orientales (A.L.P.O.), Atlas Linguistique de la France (A.L.F.), Atlas Linguistique de Catalunya (A.L.C.) eta Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (A.L.P.I.).

3. Muga linguistikoak hizkuntz familietan, familia bateko hizkuntzetan, hizkuntza bateko dialektoen artean, subdialektoen artean, hizketetan... hierarkizatu. (20).

Helburu hauek, dena esan behar bait da, ondo betetzen dira lana egin ondoren, egia esan, ondo baino hobeto ere bai.

Matematika ere sartu izan da muga geografiko-linguistikoak zorrotzago finkatzeko asmotan. Georges COSTA-k (1985, 373), H. Guiter-en metodo globalaz baliatuz, honelako portzentaiak onartzen ditu bata bestearen aldamenean dauden toki edo guneen artean:

% 0-tik 20-ra ez dago batere mugarik
% 20-tik 30-era hizketak bereizten dira
% 30-tik 50-era azpi-dialektoak bereizten dira
% 50-tik 80-ra dialektoak bereizten dira
% 80-tik gora hizkuntzak bereizten dira

Metodo honen bitartez Iparraldeko katalana edo, bestela esan, Frantziako Kataluña-ko lurraldeak, hau da, Rosellon-a eta Iparraldeko Kataluña-ko hizkuntzaren bilakabidea sintetizatzea eta neurtzea eskuratzen du, hizketak kontutan hartu gabe.

Hain zuzen ere, neolinguisten ondoren hasi zen gai hau aztertzen zehatzago. Gauza normaltzat hartzen da herri hurbiletakoak hobeki ulertzen direla elkarrekin, ezen ez urrutikoekin. Beraz, proporzio zuzena ematen dela desberdintasunaren eta distantzia geografikoaren artean. Ez da, ordea, dana hain gauza xumea. Esan eta berresan ari garen bezala, eremu linguistikoen arteko zedarriak ez dira inoiz hain garbiak eta zehatzak izaten. Batetik bestera dauden tarteko eremuak izan ohi dira aldaketak nahasirik agertzen dituztenak hizketan. Alemaniarrek frogatu duten bezala:

> *"la densidad y localización de las isoglosas no es una cuestión completamente fortuita y que pueden diferenciarse áreas "nucleares" relativamente libres de isoglosas internas, de áreas "de transición" que rodean y separan las áreas nucleares [...]. Las áreas nucleares se localizan en derredor de centros culturales, en tanto que las áreas de transición caen dentro de la esfera de influencia", BYNON (1981, 265).*

W. P. LEHMANN-ek ere (1969, 165) antzera aurkezten du gai hau, eremu nuklear izenaren ordez "eremu fokala" darabilelarik; eta "hondarreko eremuak" ere ezartzen ditu, isoglosen hedaduratik at gelditzen diren eremuetarako, nahiz sarbide zailekoak direlako nahiz beste edozein arrazoi geografiko, kultural edo politikogatik.

BYNON-en eritziz, zedarri zehatzik ez izateak ez du dialektoen izatea ukatu behar nahi eta ez, baizik eta

> *"debería pensarse en términos de centros políticos y culturales, que imponen un modelo lingüístico y cultural unificado sobre el área de su entorno, y en áre-*

*as medianeras, sujetas a influencias procedentes de distintas direcciones."*

Eta dialektologia alemanaz zera esaten du:

> *"llegó al concepto de que las áreas de las lenguas son, en realidad, áreas culturales* ***(sprachlandschaften sind Kulturlandschaften)*** *y constituyen el resultado de una irradiación desde centros culturales." (1981, 265)*

Azken finean, badakigu nondik sortzen den hori: egitura linguistikoak ohitura tradizionalen, nekazarien tresnerien, etxe moten eta abarren egiturekin erkatzetik, edo, bestela esan, egitura linguistikoak eta bizitzeko erak elkarrekin alderatzetik. Eta erizpide hori indartzeko hortxe daude aspaldiko tribu banaketen eta eremu dialektalen arteko korrespondentziak:

> *"Los estudiosos -XIX. mendeko linguistez ari daquerían entroncar los dialectos coetáneos con los antiguos grupos tribales y la nomenclatura de que se valieron, así como sus populares concepciones han logrado perpetuarse entre nosotros. Todavía hoy se llama anglosajón al inglés antiguo. Con esta denominación se da a entender que los anglos llevaron a Bretaña su dialecto, el anglo, y los sajones el dialecto sajón, y que allí se fueron fundiendo ambos progresivamente hasta formar el inglés. De modo semejante, en Alemania las denominaciones aplicadas a los dialectos vienen a continuar antiguos nombres tribales que en la actualidad todavía se usan para designar ciertas áreas o regiones: el bávaro, el fráncico (de Franconia)." LEHMANN (1969, 151).*

H. Morf dialektoen eraketaz eta banaketaz asko arduratu zen, eta eleizbarrutietan egin zen erromatarren probintzien aintzinako banaketari garrantzi haundia ematen zion. Adibide baterako, "c"-ren aldaketak "a", "e" eta "i"-ren aurrean aztertu zituenean ,

Morf-ek aintzinako batasun linguistiko bat egiaztatu zuen, Frantzia-ko Normandia, Picardia eta Valonia lurraldeena, hain zuzen, betiere aspaldiko eleizbarrutietako zatiketarekin bat zetorrena, eta hau ere aspaldikoago galo-erromatarren "civitates"-ei jarraiki egina. Hau da, 2.000 urtetako aintzinakotasuna agertzen duen erlazio geografiko-administratibo-linguistikoa frogatu zuen, IORDAN (1969, 367). (21)

M. PIDAL-ek ere (1916, 77) zenbait arrazoi aipatzen ditu muga linguistikoak azaldu ahal izateko

> *"La coincidencia de los límites es por lo común el resultado del choque de dos lenguas o dialectos que se sienten entre sí como diversos; hay coincidencia de la distinción entre dos lenguas colindantes, y ambas se excluyen mutuamente en gran parte de sus fenómenos característicos. La naturaleza del choque puede ser muy diversa: los límites coincidentes pueden corresponder a una frontera político-administrativa más o menos estable y profundamente aisladora, según sea mayor o menor el número de límites agrupados; pueden responder a una frontera de comercio y relaciones interiores meramente económico-culturales; pueden no representar una frontera determinada, sino una invasión progresiva de influencias, como se observa en el caso de una propagación intensa de la lengua oficial."*

Eta aurreraxeago (82. or.) eleizbarrutien eragina agertzen du:

> *"La relación que se descubre entre obispado y dialecto reconoce la antigüedad y estabilidad secular de las divisiones eclesiásticas, las cuales conservan primitivas divisiones étnicas, comerciales o administrativas del imperio romano; es decir, muestra que en la caracterización de los dialectos intervienen causas de la más remota antigüedad." (22)*

### 2.2.1. Estratifikazio linguistikoa

Guzti honen ondorioz, aldaketak nola eta zein azpimailetan gertatzen diren aztertu beharra agertzen da. "Estratifikazio linguistikoa" deitu izan zaio horri, eta neolinguisten artean garatu zen batipat (23). Azken buruan, garapen linguistikoaren geruzak behatzea da, edozein berrikuntza edo aldaketa linguistiko ez bait da eremu linguistiko osoan batera gertatzen, eta ondorioak ere ez bait dira denean berdinak izan ohi. Batzutan, aldaketa puntu baten sortzen da, "gune berritzaile" deitzen zaiolarik puntu horri, eta hortik gainerako eremu linguistiko osora hedatzen da; beste batzutan, aldaketa toki baten kokatu eta geratzen da, beste inora hedatu gabe, honela aldaketak jasan ez dituzten "gune arkaikoak" ere gertatzen direla, eskuarki eremu linguistikotako bazter edo muturretan; inoiz erdigunean ere gerta daiteke gune arkaikoa, berrikuntza bazterretan gerta dadinean, noski. Azkenez, baita, gerta daiteke berrikuntza alderdi baten ematea ere eta ez bestean, orduan bi alderdi bereizten direlarik, bata berritzailea eta bestea arkaikoa (24).

Edozein aldaketa nola hedatzen den eta berrikuntzak sortzen duen estratifikazioa aztertzea Geografia linguistikoaren egitekoa da. Izan ere, mapa linguistikoak dialektologoek hainbat tokitan jasotzen zituzten datuak batera ikusteko beharraren ondorioa baino ez dira (25). Fenomeno fonetikoen, morfosintaktikoen, lexikoen hedadura ezagutu nahi bada, ez dago beste bide egokirik mapena baizik. Isoglosei esker ezartzen dira eremuen mugak eta edozein fenomeno konkretoren hedadura zehatza.

Bestalde, Geografia linguistikoa:

> *"es capaz de aclarar los centros de irradiación y las zonas de difusión de las palabras, pudiendo, de este modo, mostrar la estructura lingüística de los diferentes países ya que mediante la difusión, irradiación y*

*constitución de diversos tipos de palabras, nos muestra cómo la antigua centralización política, administrativa y cultural de Francia (p. ej.) con la supremacía de París y la multiplicidad y diversidad política y cultural de Italia, con un gran número de centros lingüísticos y culturales han estampado su sello sobre las lenguas de estos dos países", VIDOS (1963, 8O-81).*

### 2.2.2. Hizkuntza literarioaren gotorketa

Ezin dugu atal hau itsi hizkuntza literarioak aipatu gabe. Ez dira, zuzenean, dialektologiaren objetu, ez bait dute herriaren hizketaren arruntasunik ez eta berezkotasunik ere, eta hari interesatzen zaiona herri-hizketa da (26). Halaz ere, gauza ezaguna da herri-hizketen ezaugarrietako bat aldakortasuna dela, eredurik gabeko gizarte mugatuetan erabiltzen direlako, alde batetik, eta, bestetik, norbanakoaren erabilerak askatasun osoa izanik, herri-hizketek barreiadura eta ugaritasun haundia hartzen dutelako. Hori horrela delarik, hizkuntza literarioak, badenean, erreferente bezala joka dezake: "l'examen des langues littéraires est indispensable pour qui veut interpréter les faits dialectaux", MILLARDET (1977, 108). Hizkuntza literarioen eraginez dialektoek edo horien aldakiek jasan dituzten berdinketak ere ikusi eta aztertu nahi badira ez dago beste biderik, hizkuntza literarioez baliatzea baizik. Gertatu izan da, baita ere, hizkuntza literarioak ofizialtasunera jasoak izatea, eta horrela hainbat lurraldetan hedatzea. Lurralde hauetako hizketetan aldaketak sorrerazi ditzakete, edo hizkuntza literarioak, hau da, ofizialak, bere aldakiak sor ditzake lurraldeko hizketaren eraginez, ondorioz bertako dialektoak galeraziz eta suntsituz.

Emaitzak, beraz, oso ezberdinak izan daitezke: batzutan, eragina dialektoak bateratzekoa gertatu ohi da; beste batzutan,

hizkuntz arau konkretu bat inposatzen da, edo arau berria ere sor daiteke aurrekoa ordezkatuz, azken kasu hauetan tokiko dialektoa desagertu egiten delarik. MALMBERG-ek (1986, 31) hau dio:

> *"El dialecto "puro" es, las más de las veces, una abstracción. Las gentes, incluso en el campo y regiones alejadas de los centros, no viven en un aislamiento absoluto. Siempre han surgido centros (comerciales, eclesiásticos, administrativos) en los que se han establecido los contactos y de los que han irradiado las influencias y las nuevas normas.*

## 2.3. DIALEKTOLOGIA ETA ESTRUKTURALISMOA

Askotan esan dugu dialektologia linguistika historikoaren laguntzaile bezala sortu zela XIX. mendean, ez zen zientzia, alegia, metodo bat baizik,(27). XX. mendea igaro ahala, dialektologiako lanak bereziki usutzen joan ziren, eta deskribapen zientifikotako objetu ere gertatzen. Azterketa horiek alderdi ezberdinetatik egin zitezkeen. Batzutan, deskribapen soilean gelditzen ziren, lan monografiko gisa. Gehien ere, materiala metodo historikoz analizatzen zen, hizkuntzaren aurreko egoerak oinarritzat hartuz (28).

Beste batzutan, azterketek zenbait hizketetan azalduriko fenomenoak erkatu besterik ez zuten egiten, kontutan hartu gabe hizketen egitura bereziak. Hau da, analisia sinkronikotzat jo zitekeen arren, azken buruan diakronikoa gertatzen zen, hori arrazoi extralinguistikoak eta balio zientifiko murritzekoak erabiltzen ez zituztenean.

Nahi zutena zera zen: dialekto guztietarako balio lezakeen hitz zerrenda bat hartu, eta hortik hitz horietako unitate fonikoen arteko korrespondentziak bilatu. Bestela esanez, zenbait kasu partikularretatik balio orokorreko ondorioak atera nahi ziren sistema baterako edo, baita, zenbait sistematarako ere.

Geografia linguistikoak bitarteko berriak erabili zituen: inkestak, galdekizunak, kartografia, eta abar; bitarteko hauek arnas berria eman zieten XIX.-eko modu zaharkituei; halaz ere, ezin esan asko aldatu zenik ez edukiz ez eta analisirako metodotan ere (29). Izan ere, nahiz dialektologiak nahiz Geografia linguistikoak lexikoa baino ez zuten ia kontutan izaten. "Hitzak eta gauzak", horrek eramaten zuen ikerketa lana gehienbat. Hitzaren etimologia eta bilakaera ezeze, baita kultura eta gizarte baten egokitzea ere aztertzen zen. Hain ematen zioten garrantzi aparta guzti honi, ezen zirudien dialektologoen objetua gehiago zela lexikografia, eta semantika bera ere, eta hizkuntzaren soziologia eta etnografia beste zernahi baino.

Ez da, beraz, harritzekoa izan zuen egoera koloka, ez eta oinarri teorikoak aldatzeko beharra planteatu izatea ere. XX. mendearen lehen herenean gaude, eta garai honi buruz honela dio MALMBERG-ek (1986, 217) dialektologiari ezezik, linguistikari ere, orohar, dagokionez:

> *"El aspecto positivista da paso sucesivamente a un punto de partida estructuralista y funcional (fonológico, glosemático, generativista, etc.) o a un enfoque sociológico que hace entrar los materiales y las explicaciones en un contexto semiológico más amplio."*

Trubetzkoy izan zen behar hori jaso zuena dialektologiari dagokionez bere "Phonologie eta géografie linguistique" lanean, biziki haserre bait zegoen dialektoen azterketan maila fonikoari eskeintzen zitzaion garrantzi urria zela eta (30).

> *"The Russian linguist Prince Nikolai Trubezkoy was the first to bring fresh light to his problem from the structural view point of modern linguistics. In a paper published in 1931, he pointed out that not all diferences of pronunciation are alike in their relation to the sound-systems of the dialectes concerned. In particular, it is possible to distinguish between* ***phonetic*** *and* ***phonological*** *differences." K.M. PETYT (1980, 117)*

Trubetzkoy-k egiten duen sistematizazio proposamena ez da mamitzen; dialektologia estrukturala ez da sortuko 1954-rarte, Uriel Weinreich-ek "Is a Structural Dialektology possible?" (31) artikulu entzutetsua eta klasikoa argitaratu zuen arte. Galdera erretorikoari honela erantzuten dio:

> *"In answer to the question posed in the title of this paper, it submitted that a structural dialectology is possible. Its results promise to be most fruitful if it es combined with 'external' dialectology without its own conceptual framework being abandoned" WEINREICH (1954, 400).*

Egia esan, Weinreich-ek egiten duena zera da, eguneratze beharrean zegoen dialektologia estrukturalismora bideratu; ordurako, giroan zegoen orientabide berria, baina hizkuntzalari estrukturalistek -lehen ikusi dugunez- kritikatu egiten zituzten dialektologoak: errigortasun falta arpegiratzen zieten batik-bat, sistema ezberdinak erkatu eta elkartzen zituztelako, egiaz sistema horietakoak zirela aldez aurretik frogatu gabe(32).

WEINREICH-ek (1954, 391) salatzen duen bezala:

> *"The main objetion raised by structuralists against dialectology as usually practiced might be formulated thus: in constructing 'diasystems' it ignores the structures of the constituent varieties. In other words, existing dialectology usually compares elements belonging to different systems without sufficiently stressing their intimate membership in those systems."*

Weinreich-en helburu nagusia fenomenoak hizketa partikularren sistemen barnean eta dialektoak elkarren artean bereizteko egiturak aztertzea da; baina hizketa ezberdinetako sistemen erkaketan analogiak eta ezberdintasunak ongi frogatuz, betiere oinarri bateratua sistematizatu ahal izateko.

Horrek berez eramaten gaitu dialektologia estrukturalaren

helburuak praktikan zehaztera dialektologia tradizionalarenetatik bereiziz. Dialektologia estrukturalak hizkuntz fenomenoak sistemaren baitan aztertzen ditu; tradizionalak, berriz, ez du sistemaren osotasuna kontutan hartzen. Honela, dialektologia estrukturalaren jokabideaz, alegia, sistema desberdinen arteko zerikusi eta harremanak finka daitezke. P. IVIC-ek (1962,118) dioen bezela:

> *"la dialectologie structural cherche à envisager deux ordres de rapports: d'une part les rapports dans le cadre du système linguistique de chacun des dialectes et, de l'autre, ceux existant entre ces systèmes".*

Honek, agiria denez, ez du deus hausten dialektologia tradizionalaren bilakabidean; beste maila bat baizik ez da, dialektologia estrukturala dialektologia tradizionalak eskeintzen dizkion datuez baliatu behar baita.

Zein eskolari jarraitu, ordea, estrukturalismoan? Zein estrukturalismo mota izanen da egokiena dialektologiarako? Hau dio WEINREICH-ek berak(1954, 391):

> *"[...] it could only study relations within systems; and since in a perfect system all parts are interrelated ("tout se tient"), it is hard to see how systems could even be conceived of as partially similar or different; one would think that they could only be wholly identical or different. Considerations of this nature prevented orthodox Saussureanism of the Geneva School from undertaking the study of gradually changing systems, since it was felt that languages could only be compared, if at all, at discrete 'stages' [...]". "But a more flexible structuralism has overcome this hurdle by abandoning the illusion of a perfect system, and is producing notable results in the diachronic field".*

Honekin Martinet-en eskolara hurbiltzen da, beste zenbait eskola kanpoan uzten dituelarik, esaterako, Glosematika.

Weinrich-ek, dialektologia eguneratzearen ekarpen garrantzitsuaz gain, metodologian ere bide edo ikuspuntu berriak ireki zizkion dialektologiari, dialektologia beraren eta linguistika estrukturalaren artetik, edo, hobeki, biak elkarren osagarri bezala enfokatuz.

Honela dialektologiak estrukturalismoa errealitatean gotortzen du, eta COSERIU-k ere (1969, 16 eta 17) "abstrakzioa" linguistikan definitzerakoan gauza hori bera agertzen du:

> *"A nuestro entender, la lingüística, más que otras ciencias, por la naturaleza misma de su objeto, debe moverse constantemente entre los dos polos opuestos de lo concreto y de lo abstracto: subir de la comprobación empírica de los fenómenos concretos a la abstracción de formas ideales y sistemáticas, y volver luego a los fenómenos concretos, enriquecida por los conocimientos generales adquiridos en la operación abstractiva. Lo importante es que no se conforme con la abstracción y no se quede en ella, porque la íntima comprensión de la realidad del lenguaje podrá alcanzarse sólo en ese tercer momento de vuelta a lo concreto."*

### 2.3.1. Dialektologia eta diasistema

Edonola ere eta lehen esan bezala, beharra elkarrekikoa da; estrukturalista behartua badago konkretora eta errealitatera jeistera, dialektologoak ere abstrakzioaz baliatu behar du, edo, bestela esan, sistemaz, eta bigarren maila baten "diasistemaz", Weinreich-ek bere artikuluan formulatu zuen erara ulertuz.

Diasistema, gorago esan dugunez, erdi iduriko diren zenbait sistemen multzotik sortzen da. Begira nola azpimarratzen duen P. IVIC-ek (1962,119) diasistemaren baliagarritasuna:

*"A notre avis, la valeur de ces diasystèmes repose surtout sur le fait qu'ils mettent en relief la relation entre les parties du système qui sont communes aux parlers donnés et celles qui comportent certaines différences. Pouvoir constater quels sont les phonémes inconnus dans certaines aires constitue certainement un gain important pour la dialectologie d'une langue. On peut également exécuter une analyse semblable des facteurs distinctifs (traits pertinents) dans la phonologie".*

Dialektologiak aniztasun linguistiko haundiarekin egiten du topo, eta, horregatik, berez sortzen da organizazioaren beharra, antzerako jokabideak batuz eta goragoko sistema bat finkatuz, denentzat balio dezaken sistema, barietate bakoitzak bere sistema propioa izaten jarraitzen badu ere. FRANCESCATO-k honela dio(33):

*"Construir un 'diasistema' significa, de hecho, no sólo comparar dos o más estructuras dialectales que aparentemente revelan un paralelismo más o menos estricto, sino también, poner de relieve que este paralelismo es válido tanto desde el punto de vista paradigmático como desde el punto de vista sintagmático; en otras palabras, no basta con que el inventario y la distribución de los fonemas refleje ciertos tipos de congruencia; es necesario que unos tipos de congruencia similares se manifiesten también en la estructura de la palabra."*

Bestalde, 'dialektal' hitzak nola agertzen duen bere egitekoa 'diasistema' izenarekin doanean Weinreich-ek berak agertzen du (1954, 390):

*"I may be feasible, without defining 'dialect' for the time being, to set up 'dialectological' as the adjetive corresponding to 'diasystem', and to speak of dialec-*

*tological research as the study of diasystems. Dialectology would be the investigation of problems arising when different systems are treated together because of their partial similarity."*

Honek planteamendu berri batera behartzen gaitu. Izan ere, "continuum" baten ematen diren bereizketa partzialetatik jarraitzen diren ondorio estrukturalak errejistratu egin behar badira, zeri dagokio, zehazki, "continuum" hori? Bereizketa bikoitza egin beharra dago zalantzarik gabe: batetik, hizkuntza historikoa eta bestetik, hizkuntza funtzionala; eta gero, hizkuntza funtzionalean ere bereizi behar dira haren baitan, "continuum" bat izango balitz bezala, sor daitezkeen aldaketa guztiak. Aldaketa horiek izango lirateke, nolabait, eskualdetako arau linguistikoak, toki-hizketak eta, hitz batez, geografikoki banaturik arkitzen diren forma linguistiko guztiak, eta azken batean dialektoen formalizazioa besterik ez direnak.

Beste alde batetatik begiratuz, HEGER-i (1974, 143) bidezkoa iruditzen zaio, hizkuntzaren sistematizazio arazoa konpontzeko, metodologikoki diasistemaz baliatzea. Zera proposatzen du, sistemaren aldetik edo ikuspuntutik ezberdintasun gutxi dituzten zenbait sistema idiolektalen kopuru mugatugabe bat batu eta diasistema bat egin. Horrela, beraz:

*"En la mayor o menor medida en que, dentro de tal diasistema, se admitan las divergencias internas reinterpretándolas como oposiciones en el plano de las funciones de síntoma o de señal, la lengua constituida por tal diasistema corresponde a lo que normalmente se entiende por "una lengua" particular, o a uno de sus subsistemas dialectales caracterizados diacrónica, diatópica y/o diastráticamente".*

Ideia hau onartuz beste bide bat zabaltzen diogu dialektologiari, eta bide praktikoa gainera, idiolektoetan oinarrituz errealitatean oinarritzen eta finkatzen delako; hizketetan eta dialektoetan

oinarrituko balitz, berriz, hauek suposatzen duten abstrakzioan oinarrituko litzateke.

### 2.3.1.1. Artxisistema eta / edo diasistema

Dialektoari estatus teorikoa emateko eginahalean, bi egi horietatik ikus daiteke hizkuntza: hots, sistema funtzional bezala eta gizarte hizkuntza bezala. COSERIU-k zera dio (1978, 56):

> *"Pero hay que subrayar que la **lengua funcional** n o debe confundirse con la **lengua histórica** o **idioma** (como por ej., la lengua española, la lengua francesa, etc.). Una lengua histórica puede abarcar no sólo varias normas, sino también varios sistemas."*

Hizkuntza funtzionala, berriz, zera da: "sistema de oposiciones funcionales y realizaciones normales", COSERIU (1978, 55). Coseriu-k apuntatzen duen bezala (1969, 60), Saussure-k berak ere "langue" erabiltzen zuen isoglosetatik aterea:

> *"como sistema 'a posteriori' de isoglosas opuesto a la "lengua" como precedente al habla (**norma** o **sistema** de oposiciones funcionales) [...] y con esto ya se salta de la sincronía pura y se puede concebir, como lo hace Pagliaro, (34) una "lengua" como entidad histórica objetiva, cuya unidad se define por dos dimensiones: la espacial y la temporal." (35)*

Coseriu-ren burutapenok sistema eta norma bereiztera bultzatzen dute, hizkuntza funtzionala **sistema** eta **norma** bait da. Alabaina, **sistema**-rekin zera ulertzen da, "el sistema de posibilidades" eta izatez "oposicional o fundamental" dena hizkuntzan; **norma**-rekin, berriz, sistemaren "realizaciones obligadas", edo "lo normal, lo común" bezala har daitekeena. Errealizazio hauek gizartean eta kulturan onartuak dira; "norma" ez da erabil daitekeena, erabili dena eta komunitate horretan erabilera usatua duena baizik, COSERIU (1978, 53 eta 55).

Hizkuntzaren zatiketaren arauera, COSERIU (1978,55-57), "norma" ere bikoiztu egiten da: **norma funtzionala,** "como equilibrio del sistema", eta **norma historikoa,** "equilibrio entre los sistemas abarcados por un archisistema".

Artxisistema, beraz, Coseriu-ren planteaketari jarraituz, hizkuntza historikoaren sistema bezala ulertzen da, eta honek ere badu bere norma.

"Artxisistema" kontzeptu hau Weinreich-en "diasistema"-ren parekoa edo antzerakoa da, eta honela dio ALVAR-ek ere (1973, 28 eta 29); Coseriu-k berak ere, aurretik idatzitako lan baten (1969, 227), espaineraren sistema fonologikoari eta rioplatensean eta espainera literarioan ematen diren gauzatze ezberdinei buruz egin zuen lan batean, hain zuzen, hau dio:

> *"Naturalmente nada impide que, mediante una nueva abstracción, se constituya, sobre la base de los varios* ***sistemas*** *comprobados, un* ***archisistema*** *que corresponda al "español"; sólo que éste ya no podría tener ninguna funcionalidad (no podría "realizarse" en una "norma" y luego en un "hablar"), porque conservaría sólo elementos comunes de esos "sistemas".*

VARVARO-k ere (1978, 89) honela definitzen du "diasistema":

> *"un sistema di nivello superiore, costruito a partire da sistema discreti ed omogenei, che abbiano somiglianze parziali".*

Coseriu-rekin bat dator, bestalde, kontzeptu berriaren funtzionaltasun urrian. Dena dela, Coseriu-rena, funtsean, desbideratzailea gertatzen da, harentzat diasistema hizkuntza historikoari dagokiolako bakarrik.

### 2.3.1.2. Diasistemaren balio funtzionala eztabaidatua

Diasistema kontzeptua, goisistema bezala, ezagumenaren gainetik eta hiztunaren konpetentziatik kanpo gelditzen dena, izan al daiteke, benetan, operatiboa? Ez al da izango metodologia mailako bitarteko hutsa, deskribapenerako eroso samarra izan daitekeena? (36). Aski bortxatua dirudi, bai, ugaritasunean sistema homogeneo eta bateratua finkatu nahi izatea. MITXELENA-k honela zioen (1976, 321):

> *"Los diasistemas, una de las aportaciones del estructuralismo a la comparación interdialectal, se han mostrado después tal como eran: algo que no es carne ni pescado, que no quiere adherirse a la interpretación histórica tradicional, pero que tampoco puede mantenerse estrictamente en el plano sincrónico, puesto que tiene que dar entrada a la variedad dialectal. Es, en todo caso, un procedimiento, más o menos sumario y elegante, de representar ésta."*

Diasistemaren nozioa aski kritikatua izan da, eskematikoegia eta formalistegia delako, batipat, eta, bestalde, soziolinguistikak, esaterako, balia zitekeen arren diasistemaz, ez du aintzakotzat hartu. Halere, BERUTO-ren hitzak (1979, 97), diasistema defenditzen duen arren, neurtuak eta objetiboak direla uste dugu:

> *"En nuestra opinión el concepto de diasistema sigue siendo operativo -sobre todo en situaciones de bilingüismo- para representar el conjunto de dialectos que constituyen una lengua o el conjunto de las formas de hablar que constituyen un dialecto etc-; en general, un sistema lingüístico y sus variedades geográficas [...]. En este sentido sustantivo podríamos, pues, redifinir el diasistema como un grupo de modos de hablar, afines por su estructura y utilizados en la misma comunidad."*

Beruto-k elkarrekin loturarik edo zerikusirik ez duten hizkuntzei buruz dioena gauza agiria da, hizkuntza horiek ezertan antzik balute ere. Ez luke bururik euskararen eta italieraren diasistema egitea, esate baterako, fonologia mailan (37) bien sistema bokalikoek antza dutelako.

Egin daiteke holakorik, ordea, elkarrekin antzik ez duten hizkuntzen artean, elkarrengan eraginik izan badute edo elkarrekin edonolako zerikusirik balute; esaterako, euskararekin eta gaztelerarekin, besterik ez bada, bien arteko interferentziak ezagutu eta aztertzeko, helburu didaktikoz, hizkuntzaren normalizazioari begiratuz edo hizkuntza interferituaren, kasu honetan euskararen erabilera egokia begiratzeko.

Noiz eta nola erabili behar da diasistema? Hona BERUTOren eritzia 1979,96):

> *"el diasistema, por ende, se utilizará preferentemente para las variedades de una lengua, en especial para una lengua y sus dialectos."*

WEINREICH-ek ere horixe bera zioen lehenago (1954, 389-90):

> *"Structural linguistic theori now needs procedures for constructing systems of a higher level out of the discrete and homogeneous systems that are derived from description and that represent each a unique formal organization of the substance of expresion and content."*

Diasistemak, beraz, eta berriro ere azalduz, sistema ezberdinak erkatzen ditu, baina sistema horiek elkarren artean antzik edo zerikusirik behar dute izan, nahiz ahaidetasunaren aldetik, nahiz elkarren artean izan dituzten harremanengatik; goragoko mailetako azpisistemekin ere izan dezakete erlaziorik, esaterako, dialektoetakoek hizkuntzarenarekin.

Erkaketaz aritu gara (38), eta ez dago horretan kontraesanik. Dialektologiak beti suposatzen du dialekto eta hizkuntzaren arteko edo hizkuntzen arteko erkaketa. Beraz, dialektologiaren eta diasistemaren arteko kidetasuna ukaezinezkoa da. Ez daukate, beraz, gure ustez, funtsik metodologiaren eta deskribapenaren aldetik diasistemari egiten zaizkion kritikek.

## 2.4 DIALEKTOLOGIA ETA POLIMORFISMOA

Dialektologiaren beste ekarpenetariko garrantzitsu bat linguistikarentzat polimorfismoarena izan da.

J. Allières eta J. Séguy (39) izan ziren gertakizun edo fenomeno hau agerian ipini zutenak, eta egun ezinbestekoa da edozein azterketa deskribatzailerako.

Polimorfismoaren definizioetan ez dago alde haundirik, eta gertaera polimorfikoak analizatzeko ere erizpideak berdintsuak dira dialektologoen artean, baina sortzen da aldaketarik erizpideen hestutasunaren aldetik. LOPE BLANCH-ek (1979, 8) honela definitzen du,zentzu zabalean, polimorfismoa:

> *"La concurrencia de dos o más formas lingüísticas -ya sean fonéticas, gramaticales o léxicas- que alternan libremente para desempeñar una misma función, tanto dentro de un sistema dialectal (habla local) cuanto en el habla individual (sistema idiolectal).*

Azken puntu hau da, norbanakoarekikoa alegia, ALLIERES-ek (1954, 70) polimorfismotzat hartzen duena:

> *"Nous appelons polymorphisme la coexistence, dans*

*le langage d'un sujet parlant, de deux ou plusieurs variantes phonétiques ou morphologiques d'un même mot, utilisées concurremment pour exprimer le même concept, le choix de l'une ou de l'autre apparaissant comme indépendant du conditionnement articulatoire (tempo, etc.), ou d'une recherche quelconque d'expressivité."*

Klaus HEGER-ek (1974,193) beste era batera erabiltzen du hitza, banaketa osagarrian dauden forma bi edo gehiagoren berdintasun kontzeptuala aditzera emateko:

*"La polimorfía aparece cuando dos o varios signemas designan el mismo noema (o la misma combinación conjuntiva de noemas) y se encuentran entre sí en distribución complementaria, lo que les impide formar oposición, cualquiera que ésta sea).*

Ez dira, ordea, polimorfismo mota desberdinak; nahiz dialektala nahiz idiolektala edo norbanakoarena, biak elkarrekin loturik daude, eta ezin emango litzateke bata bestea gabe; bien artean dagoen aldea gradukoa besterik ez da. Polimorfismo kolektiboak norbanakoaren hizketa oinarrizko du, edo, bestela esan, ez daiteke uler nola heda daitekeen askoren artean hiztun bakarraren formen alternantzia, hizketa orokorrean edo hiztun horien dialektoan eraginik izan gabe.

Izan daitezke, halere, norbanakoen hizketa hagitz homogeneoak eta oreka eta nibelazio gorakoak; baina, gero, gizarte kopuru haundietan, arrazoi ezberdinak tartean direla, hala nola belaunaldienak, kulturazkoak, soziolinguistikoak eta abar, hizketa gerutzetan bezela ager daiteke eta aldaketak dituelarik gizarte eta hizketa maila orokorretan. Hau hirigune haundietan gertatu ohi da, batipat, eta ez horrenbeste herrigune edo baserrigunetan.

Polimorfismo hau, beraz, dialektala da, baina ez du islada zuzenik norbanakoaren hizketan. Euskaran, esaterako, ez zen asko gertatzen orain arte; orain, agian, aurki daiteke eskolaren eta

alfabetatzearen eraginez; gaztelaniari dagokionez, Bilbo-koan nabari daiteke polimorfismo mota hau.

Graduzko alde edo desberdintasun hauez kanpo, badira beste batzu ere, LOPE BLANCH-ek (1983, 107-109) seinalaturikoak bezala, aipatzea komeni direnak.

Zenbat eta elementu gehiago izan kolokan edozein hizketa edo azpisistemaren baitan, hainbat haundiagoa gertatzen da polimorfismoa. Era berean, elementu egongaitz bakoitzak hainbat aldaki izan ditzake; elementu bakoitzeko zenbat eta aldaki gehiago edo gutxiago izan, hala izanen da ugariagoa edo urriagoa polimorfismoa. Eta, beraz, aldaki horiek erabiltzen dituzten hiztunen kopuruak emanen dio polimorfismoari maila eta garrantzia.

Azkenik, aipa ditzagun eragina duten beste elementu batzu ere. Alde batetik, aldaki bakoitzaren erabilera hizketan; eta, zer esanik ere ez, hiztunen maila sozio-kulturala. Gizarte mailari dagokionez, erizpideak kontrajarriak dira eta ez da gauza garbia zein mailatan gertatu ohi den polimorfismoa indartsuago. Baserri giroan errazago eman daitekeela pentsatzeak bidezkoa dirudi. Halere ezin zaio honi larregi eutsi, ez bait da oso zuzena edo egokia dialekto maila hauetan hizketa kultoaren eta herrikoiaren artean bereizketa egitea.

Orokorki esan daiteke polimorfismoa hizkuntzaren kolokadurak sortzen duela. ALVAR-ek (1972, 163) hori dio:

> *"es consecuencia de una falta de nivelación en el sistema: supone, por tanto, inestabilidad. Pero inestabilidad significa ruptura de un equilibrio previo y búsqueda de un nuevo orden, por cuanto no es posible mantenerse indefinidamente en un estado de fluctuación."*

Polimorfismoa hizkuntzaren aldaketaz lotzen da eta aldaketa horren iraupen luzea dela bide gertatzen da. Aldaketa ematen denean barianteak sortzen dira eta, beraz, barianteen artean hau-

tatzeko aukera. J. SEGUY-k (1973, 88) sinonimia osoko kasuei "bariante askeak" semantika mailan deitzen die, eta bakanak, ahulak eta oso iragankorrak direla hizkuntza estandarretan esaten du, eta ugariagoak eta iraunkorragoak dialektoetan, "polimorfismo" hitzaren azpian batzen dituelarik.

Askoz ere zabalago hartzen ditu LOPE BLANCH-ek (1979, 11-15) gertakizun polimorfikoak. Honentzat, lehenengo eta behin, ez dira linguistika deskriptiboko eta historikoko gertakizunak, linguistika orokorrekoak baizik. Horretarako hizkuntz sistemaren aldakortasunean oinarritzen da -Saussure-ekin eta Chomsky-rekin bat ez badator ere-, eta, Coseriu-ren erara ulertuz (40), hizkuntza "sistema mugimenduan" dela dio, eta hizkuntzaren garapena, bizitza eta historia, "sistematizatze iraunkorra".

Horri aldakuntzaren kontzeptua eta hizkuntzaren berezko dinamismoa gaineratzen badizkiogu, zuzen joko dugu, Lope Blanch-i lagun eginez, hizketan ematen diren gertakizunak hizkuntzari eragiten diotela eta "el estado normal o natural de toda lengua [...] habrá de ser el estado polimórfico" onartzen baditugu.

Egia esateko, Lope Blanch-ek polimorfismoaren azterketak Mexiko-n egin ditu, eta ezaguna da hango errealitate linguistikoan agertzen den gertaera polimorfikoen konplexutasun eta ugaritasuna. Hori izan daiteke fenomeno honen aurrean duen, Allières-ek, Séguy-k edo Alvar-ek berak baino irekitasun haundiagoaren azalpena. Guzti honen argigarri ekar daiteke arazo fonetikoari buruz dioena, LOPE BLANCH (1979, 15, 28 oharra):

> *"[...] los alófonos ("sonidos", "articulaciones") no son más que variantes polimórficas de un mismo fonema, de polimorfismo "puro" cuando aparecen en distribución libre y en el habla de un mismo individuo (variantes facultativas). En realidad, toda realización fonética, toda articulación humana de cualquier fonema resultará siempre "polimórfica", al menos relativamente, ya sea su duración, su altura, su intensi-*

*dad o su tensión, etc.; [...]. Los límites entre estas realizaciones polimórficas "naturales" -constantes en la cadena fónica de cualquier hablante- y esas otras más acusadas a que me he referido en este trabajo, son absolutamente imprecisos y relativos, y su determinación resulta básicamente subjetiva: dependerá de la importancia o significado lingüístico que el oído del dialectólogo quiera conceder a cada diversa realización."(41)*

LOPE BLANCH-ek ere (1979, 14) ematen die garrantzia gertaera extralinguistikoei eta kanpotiko faktoreei -hizkuntz adstratoen eragina, interferentziak, kontaktoan dauden azpisistemen berdinketa eta abar- hinzkuntzaren irabio etengabea indartzeko edo baretzeko:

*"El polimorfimo podrá ser más o menos acusado según las etapas particulares de la historia de cada lengua; según qué circunstancias extra-linguísticas determinen una mayor o menor rigidez o autoridad en la norma de prestigio."*

Gertaera polimorfikoen azterketa eta sakonketa oraindikan gauza berria da. Fenomenoa bera, hizketaren egituraren baitakoa denez, betikoa da, baina azterketak sistematizazio haundiagoa behar du. Edozein emisiotan ematen diren aldagaiak gertaera polimorfikoak dira, baina galde daiteke aldagai kontextualak diren eta, beraz, erabat sinonimoak kasu denetan edo, aitziz, banaketa konkretu bati erantzuten dioten. Hizkuntz gertaeren aldagai soiltzat har daitekeena, oso maiz, beste arrazoi fonetikoz edo morfologikoz edo lexikoz azal daiteke; edo gerta daiteke, baita ere, eragin extralinguistikoz; edo afektibitatearen edo adierazkortasunaren eraginez, eta abar (42).

Onartzen diogu Lope Blanch-i hizkuntzen aldaketa eta bilakabide luzean egoera berria sortu arte, alternatibak asko izan ohi direla eta hizkuntzaren bizitza agertzen dutela (43), bertzelaineko-

an hizkuntza zurrun eta sormenik gabearen aurrean, eta, ondorioz, galtzeko zorian izango litzatekeen hizkuntza baten aurrean aurkituko gintezkeelako. Baina, SEGUY-k seinalatzen duen bezala (1973, 88), beharrezko da bereiztea hizkuntza estandarra, eta arautzailea ere, eta errealizazio dialektalak, azpidialektalak eta beste aldaki askeak eta berezkoak. Eta Seguy-ren ideia horrekin jarraituz, garrantzizkoa litzateke ere gertaera polimorfikoak zergatik gertatzen diren aztertzea, kontutan hartzen bada ekonomi legearen aurkako jokabidea agertzen dutela.

ALVAR-ekin (1973, 47) onartu behar da:

> *"Los investigadores de las hablas vivas descubrieron que los dialectos no presentaban la inmutabilidad que se les venía atribuyendo (Gilliéron, Jaberg...), sino que, por el contrario, coexisten dos o más variantes -fonéticas o morfológicas- de una misma palabra en la lengua de un hablante. La elección de cualquiera de estas variantes es independiente de cualquier suerte de intencionalidad."*

Honek zera eskatzen du, hizketak zehatz-mehatz batu eta errejistratzea. Lekuko bakarreko atlas linguistikoek ugaritasun hori ez jasotzeko arriskua dute. Horregatik, tokiko hiruzpalau edo bost lekukorekin jasotako lanak dira onargarrienak, eta ez galdekizuneko galdera soilekin bakarrik, baizik eta grabaketa aske ugari ere beharrezko dira, horrek agertuko duelako benetako aberastasuna, polimorfismoak suposatzen duen hizkuntzaren benetako konplexutasuna.

ALVAR-ek (1973, 49-50) ederki goraltzen du Séguy-k eginiko lana alor honetan:

> *"No otra cosa que un depurado estudio de polimorfismo es lo que ha hecho J. Séguy (44) al intentar la cartografía fonológica del gascón: partiendo de las realizaciones polimórficas puede determinar los fonemas gascones, pero no por eliminación simplista*

*de formas no "regulares", sino por el índice de frecuencia de las realizaciones; se llega así a establecer la "dominante" de las realizaciones, tal y como practican Doroszewski y sus discípulos".*

Bide hau jarraitzen den bitartean eta bide berriak irekitzen ahalegintzen den heinean, ez dago Dialektologia eta Geografia linguistikoa zientzi adar zahartzat edo metodologia zaharkitutzat hartzeko arriskurik. Gure ustez, zerbitzu haundia eskeini diezaieke, oraindikan, hizkuntz zientziei.

# OHARRAK

(1) Begira zer dioen VIDOS-ek (1963, 37) eragin sozial eta politikoaz dialektologiaren sorreran:

> "El espíritu democrático y socialista, lleno de interés por los lenguajes populares y deseoso de explicar los hechos lingüísticos a través de la sociología, el apego a los usos tradicionales de cada región, el nacionalismo de los pueblos pequeños, profundamente basados sobre su tradición y sobre su lengua popular, el interés que por motivos de colonialismo ponían las grandes potencias en estudiar las lenguas de los pueblos primitivos privados de literatura, la tendencia misma hacia todo lo que es primitivo -tendencia que estaba de moda en Europa desde fines del s XIX-, todo esto contribuyó a resucitar el interés por los dialectos. Una concepción de la lingüística fundada preferentemente sobre la intuición y la dialectología, que estaban por tener un papel importante en el desarrollo de la lingüística, son los factores más evidentes que han hecho nacer una reacción contra el espíritu racionalista, exclusivo, aristocrático y literario del método histórico-comparativo."
>
> "Pero desde un punto de vista estrictamente lingüístico, la reacción que viene de la dialectología es la más importante: en ella, efectivamente, la materia revela de modo inesperado su más íntima unión con lo espiritual, con lo individual y personal."

(2) Azpimarratuak letren banaketa adierazi nahi du.

(3) Izan ere, HOCKETT-entzat idiolektoa da "el punto de partida más firme para la dialectología sincrónica (1971, 319). "Dialektologia sinkronikoa" (zuntz honi gero ere helduko diogu) izenarekin "linguistika deskribatzailea" adierazten duela dirudi, eta, beraz, linguistika diakronikotik ere bereiztuko litzateke, hura izango litzatekeelarik: "el estudio de la estructura de la lengua de una sola persona, en un punto dado del tiempo, sin tener en cuenta eventuales variaciones individuales y diferencias entre dialectos", MARTINET (1975, 365).

(4) D. BOLINGER-ek (1968), **Aspects of lenguage** New York, Harcourt, bereiztasun dialektalak garrantzitsuago jotzen ditu, hizkuntzaren aldetik, sozialak baino.

Philip S. DALE-k, ordea, (1980, 335) garrantzi aparta ematen die ezberdintasun sozialei:

> "Las diferencias son más pronunciadas en una sociedad estratificada, y, en realidad, la sociedad americana es una sociedad de clases. Hay una fuerte tendencia a clasificar a la gente de acuerdo con su lenguaje, y esta clasificación puede ser de carácter evaluativo. Es frecuente que se cultiven las diferencias para influir en la opinión que otros tienen de nosotros . Generalmente se clasifican las diferencias de grupos étnicos como diferencias de clase social."

Eta jarraitzen du:

> "La profesión, la edad, la geografía y la clase social, son todos factores que determinan el empleo de diferentes dialectos. Existe también un factor que determina que un mismo hablante use diferentes dialectos: la situación en que se encuentra un determinado hablante en un determinado momento."

(5) Hizkuntz estandarra bera ere ez da garbi azaltzen. F. ABAD-ek (1977, 125) hauxe dio: "nosotros creemos -francamente- que no existe; en todo caso identifiquémosla con el

uso normativo que recomienda la academia". Eta aurreraxeago (129. or.): "Además la "lengua" (estándar) es -de entre los códigos- aquel que se escribe, aunque no todo lo que se escribe sea lengua estándar".

(6) Mugaketa hau hasierako lanetatik agertzen da. Halaz ere, aipa genezake *Aspectos de la teoría de la sintaxis,* 1971 (1965), Madrid, Aguilar, lanik adierazgarriena bezala hartuz, bertan aurkezten bait ditu ikusmolde nagusiak.

Lehen esana kontutan izanik,norbanakako aipagarririk bada ere, esaterako R. Jakobson bera, ez da hain harritzekoa,soziologoen bitartez, hasiera Iparramerikan izatea soziolinguistikak, "Social sciences Research Council" (1963) aldizkariaren inguruan, hain zuzen.

(7) Hona hemen, hainbesteren artean, bi zita (1965, 50 eta 51):

> "El lenguaje tiene un lado individual y un lado social, y no se puede concebir el uno sin el otro".
>
> Eta hizkuntzari buruz ari denean hona zer dioen:
>
> "Es a la vez un producto social de la facultad del lenguaje y un conjunto de convenciones necesarias adoptadas por el cuerpo social para permitir el ejercicio de esa facultad en los individuos."

(8) MEILLET-en ikusmolde honetako lehen lanetariko bat **Esquisse d'une histoire de la langue latine** da (1948). COHEN-en libururik ezagunena **Pour une sociologie du langage** (1956), Paris, Editions Albin Michel.

(9) Dialektologia aldaki geografikoan kokatzeko joera betikoa da. VARVARO k (1978, 42), esaterako, dialektologia geografikoa edo diatopikoa eta soziala edo diastratikoa elkarrengandik bereizteko hona zer dioen:

> "In genere, quando si parla di dialecto, ci si riferisce a differenze nello spazio (il dialetto napoletano si oppone al romanesco o al calabrese o al bolognese)."

Eta HEREDIA (1983,438-439), hori bera ikusten duelarik, gotorki azaltzen da:

> "Uno de nuestros objetivos era mostrar la inserción del dialecto en una esfera más extensa que la meramente "dialectológica", asociada esta última de forma inmediata a lo geográfico."

Ikuspegi hori ia berez sortu da, material guztia eremu geografikotan biltzen bait zen, eta hitzen aldaketak ere eremu horietan aztertzen zirelako. Alabaina, ezin da dialektologia ikuspegi geografikora mugatu. SAUSSURE-k (1965, 305-324 batipat), beste faktore batzuren eragina gutxietsi gabe, hau zioen:

> "El esquema de la diferenciación geográfica no queda completo más que proyectado en el tiempo". "La diversidad geográfica es, pues, un aspecto secundario del fenómeno general. La unidad de los idiomas emparentados no se vuelve a hallar más que en el tiempo. Este es un principio con el que los comparatistas deben compenetrarse si no quieren ser víctimas de engañosas ilusiones".

X. RAVIER-ek ere (1973, 44) berdin dio:

> "...par ailleurs on est habituellement tenté d'établir une proporcionalité directe entre le degré de graveté de la variation linguistique et la distance: cette dernière certes

intervient, mais pas comme cause première, elle n'est qu'un agent multiplicateur des paramètres que nous évoquions à l'instant avec toutes les éventualités que cela implique du point de vue de situations locales particulières."

Ideia berari eusten dio V. WARTBURG-ek ere (1969, 27): "Les différences géographiques que nous constatons aujourd'hui sont visiblèment le reliquat d'un processus dans le temps."

(10) **II Simposio del Programa Interamericano de Lingüística** (Bloomington, Indiana, 2-8 agosto 1964). Apud ALVAR (1973, 66-67).

(11) Ez da gure asmoa "dialekto" kontzeptuak izan dituen gorabeherak zehatz-mehatz azaltzea.Eztabaida XIX. mendearen azkenaldera sortu zen Meyer, Schuchardt eta Ascoli-ren artean, eta geroztik gaur arte iraun du nozio hori definitu eta mugatzeko joran biziak, eta ez da izan hizkuntzalaririk, dialektologoa ez izanik ere, tratatu ez duenik.

"Dialekto" hitzak beti izan du erdainezko eduki edo kutsu haundia, Europa-n behinik-behin, MARTINET-k dioen bezela (1954, 4 eta 5). ALVAR-ek berak ere agertzen du horrelako zerbait (1970, 145-158), hizkuntza eta dialektoa elkarrengandik mugatzerakoan. Dialektoa dela, dio, "un sistema de signos desgajado de una lengua común, viva o desaparecida; normalmente, con una concreta limitación geográfica, pero sin una fuerte diferenciación frente a otros de origen común". Hizkuntzak, berriz, dialektoak ez bezala, beharrezko ditu "fuerte diferenciación" eta "un alto grado de nivelación".

Esan daiteke, beraz, lehenengo sistema hizkuntza izaki,dialektoa sistema bigarrenkaria dela zenbait erizpidetan oinarrituz, hala nola, elkarren arteko ulergarritasunean, ekoizpen literarioan, hizkuntz komunitate konkretu batekoa izatearen kontzientzia garbian, funtzioen hedaduran, eta abarrean, CAZACU (1959, 22-26), beti garrantzi haundia hartzen dutelarik elementu extralinguistikoek. Egia esan, ezin dakizkieke ukatu eraginik eta garrantzi haundirik elementu extralinguistikoei, baina maizegi subjetibotasunez eta partzialkeriaz interpretatu izan da eragin hori, batik bat politikaz kutsatu denean "dialekto" hitza.

(12) Henry GUITER (1966). **Atlas Linguistique des Pyrénées orientales.** Paris, C.N.R.S.

(13) **Morphologische Untersuchungen** I., Leipzig, Teil, Apud IORDAN (1967, 28), lanaren hitzaurretik jasoa. Hitzaurre garrantzitsua, bera bait da eskola neogramatikoaren agerpena.

(14) Neolinguistek eraman zuten ideia hau azken bururaino, Bartoli-k bereziki, esanez ez zegoela ikuskera diakronikorik ezartzerik mapen interpretazioz kanpo, VIDOS (1968, 99).

(15) VI. eta VII. mendeetan gertatu zen, eta leherkari gorretan -p, k, t- batipat izan zuen eragina, aspiratutara edo frikaritara aldaraziz.

(16) Gilliéron-en oinarri teorikoak **Généalogie des mots qui désignent l'abeille d'après l'Atlas linguistique de la France** (1918), Paris, lanean arkitzen dira.

Gilliéron-en teoriak eta ondorioak Bonaparte Printzeak euskerarako erabili izan balitu eragin haundia izango zuketen. Bonaparte Gilliéron baino lehentxoagokoa zen, baino helburu bera zuten, hots, mapa linguistikoa egin. Baina, Gilliéron-ek ikuskera askoz zabalagoz eta metodologia askoz ere aurreragotuagoz egin zituen bere lanak. Bonaparte-k ezin izan zuen garaiko ideiak jaregin, eta horregatik materialak eta euskararen mapa bera zurrunegi eta uniformatuegi azaltzen du.

(17) MENENDEZ PIDAL-ek ere (1921,27),garai horren inguruan,dialektoen mugak ezartzearen zailtasuna azpimarratzen du:

> "Pero sabido es que un dialecto no tiene un único límite fijo como el de una provincia o un partido judicial; los muy varios caracteres que distinguen ese dialecto, de los vecinos, no tienen todos en masa una misma extensión, sino que cada uno de ellos alcanza por lo común un límite distinto de los demás, siguiendo cada uno de ellos direcciones muy diversas..."

(18) Apud IORDAN (1967, 82). Garai honetan azaltzen du Schuchardt-ek J. SCHMIDT-en harria urmahelera jaurtikiz sortzen diren "uhinen teoria":

> "Imaginémonos la lengua en su unidad como una superficie de agua; ésta se pone en movimiento porque en diversos lugares se forman círculos concéntricos cuyos sistemas, más o menos extensos según la intensidad de la fuerza motriz, se entrecruzan."

(19) Orain arte erabilitakoak berehala ikusiko den GUITER-en metodo globala eta SEGUY-k proposaturiko metodo dialektometrikoa dira. J. SEGUY (1971, 335): "La relation entre la distance spatiale et la distance lexicale",**Revue de Linguistique Romane** 35; Hans GOEBL (1976, 165): "La dialectométrie apliquée à l'A.L.F.", **Actes du XIVe congrés International de Linguistique romane,** II, Napoles, non proposatzen den identitateko indize orokorraren metodoa.

(20) GUITER konturatzen da bere metodo globalaren limitazioekin, beharrezko diren herriguneen kopuruei buruz batik bat, edo inkesta bakoitzak behar duen dentsitateari buruz, eta honela agertzen da bere lanetan: (1979, 261) "Critique et limites d'une méthode", **Melanges Michel,** Montpellier; eta aplikatzen du, beste zenbaiten artean, lan honetan: H. GUITER (1979,11), "Limite occidentale des parles d'après L'A.L.E.O.", **Bulletin philologique et historique de l'année 1977,** Paris; eta GUITER (1979), "Limites linguistiques dans la région bordelaise", lanean ere, **Actes du CIVème Congrès national des Societés Savantes,** Bordeaux. Merezi du aipamenik GUITER-en beste artikulu honek ere (1985,355-67), "Les méthodes quantitatives en Geolinguistique sont-elles equivalentes?", **Actes XVI Congrés Int. de Linguistica Filologia Romàniques, 1980,** Tom. II, Palma de Mallorca.

(21) Nolanahi ere, erromatarren banaketa probintziala baino urrunago jo beharko litzateke azalpenean, leinuetako biztanleek bazituztelako beraien zedarri geografikoak, hauek ere hizketa modu batekin lotuak, eta hori ikusteko ez daukagu euskarari berari begiratu baizik.

(22) MENENDEZ PIDAL-ek berak adierazten duenez (1916, 82,1.oharra), erromanistak aspalditik oharturik zeuden erromatarren banaketa administratiboak eta, geroago, Eleizak barrutietan egin zituenak hizketek sortzen zituzten hizkuntz mugetan oinarrituak zirela. Hori egiaztatzeko zenbait aipamen egiten ditu: Tessino-ko kantoiarentzat Salvioni, 1891-ean; Menéndez Pidal bera Miranda de Duero-rako 1906-an, eta 1908-an Segorbe-rako; franko-probentzalerako Morf 1909-an.

(23) BARTOLI-k du lehentasuna gai hauen azalpenean, aurretik aipaturiko bi lan nagusietan batez ere: (1925) **Introduzione alla neolinguistica,** Ginebra eta (1945) **Saggi di linguistica spatiale,** Turin. Guk egin dugun laburpen hau LAUSBERG-etik (1965, 23-24) jaso dugu. Honek garapen linguistikoaren estratifikazio "geologikoa" deitzen dio.

(24) Eremuen izenez ari delarik, GIRAUD-ek (1978, 58) deskribapen hau egiten du:

"Elle -area linguistikoaz ari da- peut être centrale ou périférique, separé par des frontières naturales (montagnes, forêts) ou politiques. Une aire peut être **homogène** ou **sporadique** si le phénomène est unique. D'autre part si l'on considère les relations entre deux ou plusieurs aires, elles peuvent être contigües, séparées, inclusives. Dans ce dernier cas les formes de l'inclusion peuvent varier: B peut constituer un aire homogène au centre ou à la périphérie de A; B peut former une poussière de points sur toute la surface de A; A peut être aussi infiltré par un sporade de points isolés, b,c,d,e...; B peut couper A en deux parties; etc"

(25) Hona zer dioen IORDAN-ek (1967, 254):

"Para poderlas comparar fácilmente entre sí -emaitzez ari da-, era necesario que una particularidad fonética o morfológica cualquiera se pudiera ver inmediatamente en todas las hablas de una región; para un mapa del territorio explorado". Eta apur bat aurrerago: "Un mapa lingüístico es un verdadero cuadro sipnótico de los hechos lingüísticos en su distribución geográfica."

(26) Berarekin denak bat ez datozen arren, begira zer dioen MILLARDET-ek (1977, 108):

"Par leur importance politique et sociale comme instruments de civilisation, par leur valeur esthetique, par leur nature même et leur constitution profonde, les langues littéraires doivent être considérées, même si on les étudie d'un point de vue purement linguistique, comme ayant beaucoup plus d'importance que les patois."

Izenari berari buruz ere ez dago adostasunik. Hizkuntza literarioetatik ateratzen dira ofizialak edo "nazionalak" deitzen direnak. Estatu mailan, orohar, hizkuntza normatibotarako ikuskera politikoz, inoiz baita kulturalez ere, osperik haundiena zuena hartzen zen.

(27) IORDAN-ek (1967,676), erizpide onez, adierazten du dagokion izena metodo edo disziplinarena dela eta ez zientziarena, errealitate linguistikoa aztertzeko bide berri bat baizik ez bait da.

(28) Diego CATALAN-ek (1962, 69-70) gogor salatzen du jokabide hori:

"La dialectología, la gran aportación romanística a los estudios lingüísticos, se halla ciertamente en crisis. [...] Las monografías dialectales se constriñen por lo común a un simple descriptivismo: unas veces se conforman con la enumeración de las divergencias entre el habla estudiada y la lengua normativa más cercana; en otras la descripción sincrónica se tiñe de historicismo al buscar como medio de comparación o como base de ordenación las formas latinas correspondientes... Pero nadie suele pasar de la actitud descriptiva."

IORDAN-ek ere (1967, 676-77) dio:

"...los estudios de geografía lingüística, basados en los datos de los atlas, aunque hayan aumentado desde el punto de vista de la cantidad (lo que no puedo ni afirmar, ni negar, ya que no he hecho una estadística), no están a la altura de los estudios de Gilliéron, Jaberg o Jud."

BLECUA-k, ordea, berriki,(1985, 50) oso bestalde erizten dio:

"[...] la Geografía Lingüística, con su eterna juventud y belleza, puede proporcionar datos utilísimos para los nuevos caminos de la Lingüística."

(29) ALVAR-i ere (1973, 14) ez dio erizpide hobeagorik merezi Geografia linguistikoak:

"No trato la geografía lingüística sino marginalmente, y como contrapunto de las últimas tendencias de la investigación. Bien sé cuánto ha significado la geografía lingüística para el progreso de nuestra ciencia, y nadie podrá negarme el entusiasmo con que la practico. Pero mi fe en ella no me permite ver que lo que hacemos ver es, con enormes progresos, ¿quién lo duda?, lo que inventó Gilliéron. Pero frente a la fónética experimental, que ha querido romper con la dialectología, por remoquete llamada tradicional, la geografía lingüística de hoy es ortodoxamente gilleroniana y ortodoxamente tradicionalista."

(30) TRUBETZKOY, N.S. (1931) "Phonologie et géografie linguistique", **Transactions du Cercle Linguistique de Prague,** 4. Eta berrargitaratua dago TRUBETZKOY-ren (1967,343-350): **Principes de phonologie,** Paris. Guk azken honi jarraitu diogu.

(31) **Word** X.-ean argitaratu zen (1954, 388-400). F. ABAD NEBOT-ekin (1977, 126 2.oharra) bat nator, ez bait du arrazoi faltarik dioenean:

"Permítasenos decir que es uno de los trabajos fundamentales de la lingüística estructural que -incomprensiblemente- no se ha editado (ni traducido) en obra más accesible a la mayoría."

(32) Ez da eritzi honetakoa G. SALVADOR (1977,39), eta gogor erasotzen die hori diotenei, beretzat dialektologia beti izan bait da estrukturalista, beste hau ere onartzen duen arren:

"Bien es verdad que Weinreich y los otros que dije han estado más bien haciéndose cuestión de los métodos expositivos de los estudios dialectales, de sus moldes de presentación, de las finalidades que se han venido proponiendo, que juzgando la investigación como tal, el proceso de la encuesta, el puro trabajo del dialectólogo."

(33) "Structura linguistica e dialetto **"Actes Xe CILPhR,** Paris, 1975, III alea. AIVAR-engandik hartutako zita (1973, 28-29).

(34) A. PAGLIARO-z ari da, (1950,57-103) Corso di Glottologia, Roma.I- "Questione teoriche", IV. Eta COSERIU-k (1969, 36) honela azaltzen du:

"La "lengua" pertenece al individuo y al mismo tiempo a su comunidad, y en el mism individuo se presenta como **alteridad**, como algo que pertenece también a otros; es «objetivación concreta de la actividad lingüística de un grupo humano en el espacio y en el tiempo»".

(35) COSERIU-ren beste lan baten ere (1969,15) azaltzen da ideia hori:

"...para nosotros la "lengua" se sitúa en un momento ulterior al análisis del lenguaje como fenómeno concreto y corresponde más bien a la lingüística histórica que a la teórica."

Beste lan batean (1978, 49) hizkuntzaren bi alderdiak seinalatzen ditu, bata hizketan eta hizketaren bitartez ematen dena (res gestae, geschichte), hizkuntz gertakizun indibidualetan ematen dena, eta bestea, hizkuntza bera gauza bakar bezala, "la historia que sistematiza y estudia aquello que ocurre" (historia rerum, historia). Eta eransten dio:

"En los dos sentidos la lengua puede considerarse como "sistema de isoglosas" y puede "abstraerse" como objeto de estudio. Por ello, precisamente, la lengua no es "por su naturaleza" sincrónica ni diacrónica pues no se trata de dos modos de ser contradictorios, ni hay objetos sincrónicos y objetos diacrónicos."

Honela Coseriu-k hizkuntzaren baitan diren bereizketak ikuspegi osoz eta bateratzailez eskeintzen ditu. Hizkuntza bat mintza daitekeena, funtzionala, aurreko erabilerei eta ereduei lotua, izate osokoa; eta bestea, askoz enbergadura haundiagokoa, zenbait hizkuntza funtzional hartzen dituena bere baitan, bakoitza bere arauekin eta bere sistemarekin.

(36) Weinreich-en artikuluak argia ikusi ondoren eztabaida zabala izan zen gai horietaz. Beste batzuren artean nabarmendu ziren: FRANCESCATO, G. (1965,484-491)"Structural Comparison; Diasystems and Dialectology", **Zeitschrift für romanische Philologie** LXXXI. HEILMAN L. (1959, 45-54), "Per una dialectologia strutturale", **Quaderni dell'Ist. di Glottologia di Bologna** IV. PULGRAM, E. (1964, 66-82) "Structural Comparison, Diasystems and Dialectology", **Linguistics** IV. GRASSI, C.(1967, 75-88) "Sistemi in contatto: il conceto di diasistema e i principi della geografia linguistica", **Atti Accad. Sc. di Torino** LII.

(37) Fonologian egin dira lanik esanguratsuenak, zenbat sistema fonologikotako elementu baterakoak finkatuz. Gaia, orokorki, galdera baten bitartez plantea daiteke: hizketa edo dialekto ezberdinetako sistema fonologikoen artean, zeintzu dira heuren arteko fonema berdinak? Zertan idekotzen eta bereizten dira, ezaugarri fonikoen eta beste zehaztasunen arauera? Sistema osoak ezagutu gabe ez dago sistema horietako elementu isolatuak erkatzerik.

Gainera, teorian behintzat, maila ezberdinetan ematen diren hizketen sistema abstraktoa ere kontutan hartu behar da. Hots, "el del sistema (en el que han de estudiarse fonemas y morfemas) y el del diasistema o sistema de sistemas (en el que se insertan los **geofonemas** y los **geomorfemas;** respectivamente fonemas y morfemas gráficos)" ALVAR (1973, 17).

(38) Erkaketa beste planotan ere egin daiteke, hau da, morfo-sintaktikoan eta lexikoan, eta horri eutsi diote U. Weinreich-ek eta, batipat, Paule Ivic'-ek. Aurkakorik ere izan du, Stankiewicz agertu delarik gogorren erkaketa fonologiko soilari eutsiz.

(39) Jacques ALLIERES-en ekarria erabakiorra izan da. Euskarari dagokionez bera izan da gertaera polimorfikoak lehenbizikoz aurkitu dituena, geroago ikusiko dugunez. Nabarmenduko dugun lana, ordea, honako hau da, J. ALLIERES (1954,69-103) "Un exemple de polymorphisme phonétique: le polymorphisme de l'-s implosif en gascon garonnais", **Via Domitia I,** polimorfismoaz ari nahi bada ezinbestekoa.

J. SEGUY-k ñabarketa garrantzitsuak egin ditu. Esaterako "Les atlas lingüstiques de la France par régions" lanean, **Langue Française** 18(1973, 88), egiten dituen oharrak; aipatzekoa da, baita ere, "Cartographie phonologique en Gascogne", **Actes 1er CIL PhR** III, 1030-1031.or., polimorfismoaren azterketa zorrotzagatik, errealizazio polimorfikoetan oinarrituz fonema gaskoiak finkatzera iristen bait da.

(40) E. COSERIU (1978), **Sincronía, diacronía e historia,** Gredos, Madrid.

(41) MENENDEZ PIDAL-ek, (1950, 107), **(Orígenes del español)** erromantze espainar zaharrerako zera dio:"...una variedad multicolor, aún más grande que la de los dialectos populares modernos. Parece que falta una norma cualquiera que rija el lenguaje vulgar antiguo". LOPE BLANCH-ek, ordea, (1979,11,18 oharra) -hemendik hartu bait da Menéndez Pidal-en zita ere-, honela ihardesten dio: "¿Qué es esa mareante variedad de formas de que habla Menéndez Pidal sino un caso intenso de polimorfismo?" Eta, M. ALVAR ek, **Libro de Apolonio** (1976, 1. alea, 344), lan horretan agertzen den polimorfismoa honela azaltzen du "...falta de nivelación en la lengua medieval. Porque no es de creer que la inestabilidad sea un fenómeno moderno, por más que la moderna dialectología lo haya descubierto."

(42) Euskaran bertan pilaka aurki daitezke adibideak, "zango" eta "hanka" Goi Nafarreran esaterako, biak berdintasunez erabiltzen direla dirudi; baina hala da,izan, ala distribuzio bat dago? Eta gauza bera galde daiteke "xoria/txoria" bikoteaz, edo "amatxo/ama"-renaz' amatto bera ere sar daitekeelarik azken honetan (GN). Polimorfikoak al dira? (Norbaitek esango du, agian, "ama"-ren sailean, atzizkidunak adierazkorrak direla, baina ziur esan dezaket, nahiz bata nahiz bestea, hots, "amatxo" nahiz "amatto", ingurumen semantiko berdinean erabiltzen direla).

(43) Bizitza, hau da, hizkuntzan ematen den mugimendua, aldakortasuna esan nahi bait da, zenbait aldaki batera ematen direlarik, haietako bat gailentzen den arte. Hitz batez, hizkuntz aldaketa baino ez da.

(44) SEGUY-ren (1965) "Cartographie phonologique en Gascogne", **Actes Xe. CILPhR** III, 1030-1031. or., lanaz ari da.

# 3. DIALEKTOLOGIA ETA EUSKARA

## 3.1. Ataria

> *"Au da, onenbeste aldaketa ta onenbeste berextasunekin gure euskerak ez dezake deus irabazi. Irabazi bearrean bereixtasun au euskerarentzat gauzarik kaltegarrienetakoa da.*
>
> *Gure berextasun oiekatik, gure euskera maitagarria parragarri jartzen dugu gure artera datozen erdaldunen begietara, lotsagarri elkarri ezin adituz ikusten diran euskaldunentzat eta azkenean gorrotagarri ta zer esanbide naiko ematen diena, guri eta gure gauzei aurretik gutxi nai digutenentzat. Argatik bearrezkoa da euskera batutzea, euskera bizitzekotan".*
>
> (D. INZA (1922,2, 91) (1921-eko ilbeltzaren 27-an Elizondo-ko Auzo-Etxean, Euskaltzaindian sartu zen egunean irakurritako lana)

Aita Damaso de Inza-ren hitz hauekin hasi nahi izan dut, garbi agertzen dutelako euskal idazleen eta euskararen arazoa bizi izan dutenen hizkuntzarekiko kontzientzia eta kezka. Hizkuntzaren zatiketa hori kaltegarria izan dela euskararentzat ez da ukatzekoa, baina kaltea egiten duen heinean, dialektologia lanetarako alorrik zabalena eta aberatsena eskeintzen du hainbeste euskalki, azpieuskalki eta aldakirekin hain lurralde mugatuan. MENENDEZ PIDAL-ek (1921, 27) esan zuen bezala:

> *"Puede, en todo caso, sorprender que una fragmentación tan menuda se dé en un espacio tan reducido: Leiçarraga al presentar a los vascos su versión del Nuevo Testamento (1571), señala como hecho bien conocido que el modo de hablar es distinto casi de casa en casa. Lo mismo puede observarse, dicho sea de paso, fuera del dominio vasco, en los valles*

*pirenaicos por ejemplo y, de una manera general, dondequiera que la diferencia dialectal es el resultado de una larga sedimentación secular en comunidades estables que no han sufrido consecuencias de trasiegos violentos."*

Zatiketa aipatu ezezik, arrazoiak ere ematen ditu zatiketa hori azaltzeko, hau da, gizartea mendeetan eta mendeetan toki berdinean izan dela kokatua eta jendearean aldaketa bortitzik ez duela jasan. Ezagutu ditu, halere, herri askoren pausuak eta mugimenduak. Egia da, ordea, toki batean sortu eta bertan jarraitu duela; J. M. BARANDIARAN-i (1976, 355) jarraituz:

*"Al tratar de las antigüedades de Vasconia es preciso conceder particular importancia a la cultura del* ***Paleolítico superior*** *porque ya desde entonces puede hablarse de los vascos como habitantes de las comarcas que hoy ocupan."*

Eta Bosch Gimpera-ren zita jasotzen du:

*"No es posible explicarse la presencia del pueblo pirenaico en sus hogares más que como habiendo habitado allí desde tiempo inmemorial, procediendo de los antiguos grupos paleolíticos de la región."* ***(Revista de Occidente,*** *(1925, 184), XXVI. zenb.*

BARANDIARAN-ek (1976, 358) jarraitzen du:

*"Creemos, pues, que, a partir del Paleolítico Superior, se puede hablar del Pueblo vasco. ¿Qué antigüedad corresponde a este periodo? [...] Según los cómputos mejor fundados la etapa final del Paleolítico Superior, es decir, el Madeleniense, distaría de nosotros 14.000 años. Según cálculo más moderaddo esta cifra hay que reducirla a 7.000 tal vez a 6.000"*

Eta hizkuntzari buruz beste horrenbeste esaten du, euskal gizonarekin batera hemen sortua dela, alegia. Euskal hitzetan oinarrituz honako buruketak egiten ditu (1976, 408-411):

> *"Los nombres vascos de algunos instrumentos responden, en cuanto a su significado etimológico, al material y a las formas que tales objetos tenían en el período neolítico (aizkora, aitzur, azkon, zalakaitz). Lo que revela que en la Edad de Piedra pulimentada se hablaba vascuence en los Pirineos occidentales."*

Horrekin batera, "ozme", "ozminarri", "tximiztarri", "oneztarri" eta tokien arauera era ezberdinetara esaten diren horrelako hitzek esanarazten diote: "ya en los tiempos prehistóricos el País Vasco estaba fragmentado en varias zonas dialectales."

Eta euskara bera hain zaharra izanik eta Euskal Herria ere dagoen tokian egonik, benetan gauza harrigarria da gaur arte nola iraun duen:

> *"Ipar eta Hegoaldeko herrien harremanak gurutzatu diren itsasora ateok zabalik izatez aparte, alderdi ona benetan tarteka historian, kontinenteak zafratuaz, gertatu diren imigrazio pasai ikaragarrien lekuko eta ikusle berezia izatea egokitu zaio Euskal Herriari. Hala, gure lurraldea, bere itsaroarekin, izan da zenbait alditan ubide berdintzale, hots, ekilibrioa ezarri duena ez bakarrik Europa eta Penintsularen artean, baita honen eta Afrikaren artean ere." MITXELENA (1978, 232).*

Dena dela, harrigarria gertatzen dena zera da, euskarak, hain pasoko lurraldean kokaturik egon arren, hainbeste urtetan irautea eta gainera herri indartsuen tartean. Iraupen horren arrazoiak, bat baino gehiago izan daitezke. Alde batetik, hain hizkuntza setatsua izatea: "se diferencia además del resto de las lenguas de la Península en que no presenta tendencia a la expan-

sión, pero que comporta y exhibe unas características propias de tenacidad que contribuyen a la conservación de las colonias" ENTWISTLE, W. (1969, 21). Bestalde, euskara bera inguruko hizkuntzetakik hain ezberdina izatea ere, lagungarri gertatu izanen zaio iraupenerako. Horrela adierazten du MITXELENA-k (1978, 17):

> *"Guri dagokigunez, bakartasunak edo bereztasunak bai hizkuntzaren alde eta bai kontra eragin du. Bereztasun nabariak, besteekiko izate bakanak, hizkuntzaren iraupenaren alde bulkatu du, eta honela aitortu dute auziaz arduratu diren guztiek. Bertan behera utzita gal zitekeen bakarrik (horretarako elebitasunezko denboraldia behar, luzeagoa nahiz laburragoa), ez ordea bere ezaugarriak galdu ahala inorenak bereganatzen dituela antzeko beste hizkuntzekin nahas."*

### 3.1.1. Euskararen zatiketaz

Bada arazo bat betitik deigarria gertatu dena edonorentzat: euskararen euskalkiena, euskararen zatiketarena. Rousselot-ek bere ikerketak egin zituenetik badakigu, jakin, ez dela euskararen arazo berezia, eta gauza ezaguna da, bestalde, araurik eta jokabide normatiborik gabe, bere kasa uzten denean edozein hizketa, aldaketei ateak irekitzen zaizkiela zabal-zabal. Horregatik dio MITXELENA-k (1978, 15-16):

> *"Zatikatze honek berriz ez gaitu harritu behar bera denez hizkuntzaren berezko lege eta joera. Gogora dezagun ere ez dela egundaino izan bestetan ihardun jakinetarako erabili ohi den hizkuntza komun edo delako hori."*

Hori gutxi bailitza, hizkuntzak eta kulturak zerikusi haundia dute elkarrekin, eta hori garbi agertzen da euskararen egoera banatuan. Hizkuntza estandarizatu edo normalizatu gabe dagoenean, irakurri ere ez da egiten, eta are gutxiago hizkuntza horretan, euskaran gertatu izan den bezala, alfabetatzeko aukerarik ere izan ez denean; bi alderdi dira horiek, normalizazio falta eta irakurtzerik eza, elkar baldintzatzen dutenak, eta bien eraginez hizkuntzaren zatiketa indartu egiten da, gizarte gune bakoitza leku itxi eta mugatua bihurtzen baita hizkuntzaren aldetik. Berez ere hiztunak bere idiolektoa du ezinbestez, bakoitzak norberaren erara moldatzen duelako hizkuntza, eta hori horrela izanik, edozein hiztunen aldaketek lur oparoa aurkitzen dute herrian, haranean edo beste edozein gune mugatutan hedatu eta indartzeko. Ez da, beraz, harritzekoa euskalkien ugaritasuna: hizkuntzaren dinamikak berak sortu du. Nork esango luke, liburutan ikasi gabe, gaztelera, esaterako, latinetik datorrela? Ba, historia, **mutatis mutandis,** berbera da.

Badugu, bestalde, froga gaurkoagorik ere. Euskararen normalizazioak "a contrario" frogatzen du: euskaran jendea alfabetatuagoa, eta "euskara batua" ezagunagoa eta erabiliagoa; ondorioz, "euskara batua" hedatzenago eta euskalkiak ahulago. Hizkera normalizatua nagusitzen den neurrian, aldakiek, azpieuskalkiek eta euskalkiek ere atzera egiten dute. Historian zehar euskara ez da sekula hizkuntza ofiziala izan, eta MITXELENArekin jarraituz (1978,16):

> *"Egoera honek, bistan da, badu ikuskizunik euskara sekula hizkuntza ofiziala ez izatearekin, 1936-37 epe laburrean, noski, izan ezik, orduan Euzko Jaurlaritzak bestela erabaki zuenez gero."*

Nafarroa-n, esaterako, egoera hori benetan mingarria gertatu izan da. Aurrena latina eta gero nafar-erromantzea izan ziren hizkuntza ofizialak, eta horietan agertzen dira dokumentu ofizial guztiak; halere, badira ehun bat dokumentu gaskoieraz, baina ezin dugu beste hainbeste euskarari buruz esan. LAKARRA-rekin (1957, 9) aitortu behar:

*"...al historiar la Edad Media del País Vasco nos asalta constantemente la preocupación de estar reconstruyendo el pasado de un pueblo que se expresa por escrito en un idioma que no es el que habla, y que el suyo se le escapa a través de los documentos."*

### 3.1.2. Hiztunen kontzientzia

Beste maila batera igaroz, hiztun arruntak ere euskalkien kontzientzia zehatza izan du, hau da, euskarak hizketa ezberdinak dituela, nahiz euskalki nahiz aldaki nahiz aldaketa txiki bezala, eta aspaldiko kontua dela hori edonork dakien gauza da. "Balio eritziak" ere eman ohi dira: nork ez du entzun "gure euskara ez da polita", "guk euskara traketsa dugu" edo "Tolosa-koa da ona" -Tolosakoa inoiz entzun ez badute ere-, eta horrelakorik? Nolanahi ere, norberak bere hizkera ez du saltzeko eta, beraz, alde batera utzi beharko ditugu horren harira datozkigun Bally-ren ideiak, hemen aplikaziorik baduten arren, noski.

Edertasun eta balio eritzi horiez gain, beste erizpiderik ere eman izan da hiztunen artean, erizpide "etikoak" edo: garai batean, Gipuzkoako Ekialdeko biztanleek Nafarroa-koak eta Iparraldekoak erdi sorginak zirela esaten zuten, eta hori, euskara ezberdinez mintzatzen zirelako. (1)

Dena den, hau ere ez da Euskal Herrian eta euskararekin bakarrik gertatu izan dena.

### 3.1.3. Euskalkien aintzinakotasunaz

#### 3.1.3.1. Tribuen zatiketa

Hizkuntzen edozein egoera bilakabide baten ondorioa da ezinbestean:

*"En todo proceso que se desarrolla en el tiempo, sea físico o social, una situación no es más que la continuación y el desarrollo de la situación anterior: también aquí* ***omnis cellula e cellula,*** *según decía Virchowo, en otras palabras, todo estado de lengua procede de otro anterior. Si tomamos una situación (un estado de lengua) como inicial, esto sólo ocurre por razones de conveniencia, de comodidad, si no por triste necesidad, ya que siempre habrá que empezar el relato si no* ***ab ovo,*** *sí al menos a partir de algún estado de cosas que se elige para que haga de punto fijo en el océano del devenir universal." MITXELENA (1981,292)*

Hori horrela izanik, euskarak egun dituen euskalkiak berriak al dira ala betitik al ditu? Ez gara euskararen batasunaren eztabaidan sartuko, hau da, hizkuntza batetik sortu den zatiketa edo betitik zatitua izan den, edo, egiazko adibidez baliatuz, Bizkaiera beti euskalki ezberdina izan den ala azken mendeetan bereizi izan den. Alferrikako lana litzateke ziurrenez,eta gainera guri dagokigun ikuspegi historikoz euskararen aspaldiko egoera azaltzea da.

Garai bateko tribuen kokapenaz datu aski zehatzak ditugu Estrabon-i, Plinio-ri eta Ptolomeo-ri esker.

Claudio SANCHEZ ALBORNOZ-ek (1974, 16-40) (2), autore horien datuak aztertu ondoren, mapa bat egin zuen, ordutik erabiliena historilarien artean batere ikuturik eta aldaketarik gabe.

Mapa horretan, lehenengo lau herri agertzen dira Baskoien tribuaren mendebal bazterrean:

***"Calagurris,*** *citada por Estrabon, por Plinio y por Tolomeo como perteneciente a la Vasconia;* ***Araceli*** *en la vía romana de Astorga a Burdeos por Briviesca y Pamplona y capital de los aracelitanos, gentes del convento jurídico* ***Caesaraugusta*** *según Plinio y, por tanto, vascos, y* ***Olarso*** *u* ***Oiarso,*** *citado por Plinio y*

*Tolomeo como puesto de los vascones en el Cantábrico, al que ya les había asomado Estrabón. Ciudades estas que corresponderían a Calahorra, Huarte Araquil y Oiarso a Oyarzun -con el puerto de Pasajes o Fuenterrabía, aspecto este no muy clarificado todavía. Sirviendo de frontera occidental a la tribu de los vascones las sierras de Urbasa, Andía y Aralar. Quizá el valle del Ega primero, estas sierras después y el límite entre los valles del Urumea y Oyarzun, por último, serviría de frontera occidental a los vascos." SANCHEZ ALBORNOZ (1974,20-21)*

Muga honetatik mendebal aldera, eta Ptolomeo-ri jarraituz, barduloak zeuden, iparraldetik Kantauri itxasoa zutelarik eta hegoan, mugakide, Beroien tribua, egungo Errioxa-ri dagokiona eta heuren medebaldean zituzten karistiarrengandik Deba ibaiak ezartzen zuelarik muga.

*"Traspuesta la sierra, -SANCHEZ ALBORNOZ-ekin orain ere (1974,22)- la raya entre caristios y várdulos atravesaba la llanada de Vitoria, dejando a Oriente* ***Tullonium*** *(Alegria) y a* ***Suessatio*** *(Zuazo), hasta llegar a los montes del Condado de Treviño, cuyo probable nombre antiguo,* ***Trifinium,*** *indica a las claras la coincidencia de los tres límites, acaso de las rayas de várdulos, caristios y autrigones."*

Aipatuez gain, barduliarrak dira, baita ere, eta garrantzitsuak Beleia (Iruña) eta Alba (Albeniz) hiriak; SANCHEZ ALBORNOZ-ek dioenez, hamalauraino hiri ematen dizkie Pliniok barduliarrei:

*"Ocuparon éstos, por tanto, casi toda la provincia actual de Guipúzcoa, la mitad de la llanada de Vitoria con las sierras vecinas, el valle de Araquil o Burunda hasta Echarri-Aranaz y el valle alto del Ega." (1974, 22-23)*

Karistiarrei buruz zera dio: "Al occidente del Deva y del

Zadorra y entre el Ebro y el mar habitaban los caristios o cavietes" (23. or.). Baina ez du tribu honen mendebaldeko muga ezagutzen. Hauxe baino ez dio SANCHEZ ALBORNOZ-ek (25. or.): "Sabemos que les cerraban el paso hacia poniente los autrigones". Azken hauetaz, aurreraxeago:

> *"Se sitúan de sur a norte, siguiendo una línea que arrancando de Puentelarrá parece buscar el mar remontando la vega del Omecillo hasta las inmediaciones del valle de Orduña y descendiendo luego aguas abajo con el valle al principio y con el río Nervión después hasta el Cantábrico ¿Fue ésta la línea que dividía Autrigonia de Caristia? A tenerla por tal inclinan numerosos indicios."*

Eta berriro ere (29. or.) muga zehatzik eta berezkorik ez dagoela Ekialdeko Bizkaia-ren eta Mendebalekoaren artean, lurraldean dena baturik aurkitzen delako, eta lurraldeko toki batetik bestera ere komunikazioa erraza delako.

Autrigoiak mendebalean **Ammaro** itsas portua zuten, geroago **Colonia Flaviobriga** izendatua izan zena, egungo **Castro Urdiales**-en ingurutan edo. Autrigoiek Nerbioi ibaiaren ahoa hartzen zuten, Osma de **Valdegovia** orain, Omecillo-ren mendebaleko bazterrean. Bestalde, Plinio-k ematen dizkie, baita ere:

> ***"Tritium y Virobesca,*** *mansiones conocidas en la vía romana de Astorga a Burdeos, identificadas con el monasterio de Rodilla y Briviesca y, Tolomeo les atribuye además* ***Vindeleia,*** *situada por Saavedra y Blázquez junto a Santa María de Rivarredonda y* Salionca, *que pudo estar en Poza de la Sal." SANCHEZ ALBORNOZ (1974, 27)*

Horrela, mugak oraindik gehixeago zehaztuz:

> *"Autrigonia habría ocupado un territorio no muy irregular, integrado por la Bureba al Sur, las tierras de*

*Villarcayo y Medina del Pomar en el Centro y las Encartaciones en el Norte." (29. or.)*

Ez genuke aspertzerik nahi, baina argigarria gerta liteke CARO BAROJA-k egiten duen sintesia (1975, 191):

> *"Los autrigones con el extremo occidental de Vizcaya y Alava y parte septentrional de Burgos (hasta Briviesca), los caristios con la mayor parte de Vizcaya, desde el Nervión hasta el río Deva, en Guipuzcoa, y una posición septentrional y occidental de Alava, y los várdulos, asentados desde el Deva al oeste, hasta las cercanías de San Sebastian al este, y la llamada sierra de Cantabria en Alava, al Sur."*
>
> *"Con relación a los vascones, bastará decir aquí que este pueblo que limitaba al occidente con los várdulos, ocupaba una extensión muy parecida a la que tiene la actual provincia de Navarra, cogiendo además el extremo nordeste de Guipúzcoa (valle de Oyarzun y promontorio de Jaizkibel), algo de Logroño y algo también de las de Zaragoza y Huesca con Jaca y Egea inclusive."*

Iparraldeari dagokionez ere CARO BAROJA-ri jarraitu diogu (1975, 201):

> *"Los aquitanos del primer momento en que aparecen aludidos por los escritores clásicos son considerados por ellos, en lo que se refiere a la lengua, al aspecto, más parecidos a los habitantes de la Península que a los de las otras partes de las Galias: concretamente, estos aquitanos son los que en época posterior formaron la circunscripción de los "los nueve pueblos", la* ***Novempopulania*** *separados de los galos desde el punto de vista fiscal, etc. Dentro de la* ***Novempopulania,*** *y sobre todo en las faldas del Pirineo la epigrafía romana refleja la cantidad de*

*nombres que podríamos definir como de fisonomía "vascoide"...".*


Iparraldeari buruz ezin da askoz gehiago argitu, datuak aski urriak bait dira eta dagoena ere nahiko iluna eta ulergaitza agertzen da. Caro Baroja-k Estrabon-en (3) testigantza dakar, eta hori beste inskripzio ehortzari eta botibo batzukin osatzen da, denak erromatarren garaikoak: "halladas casi todas dentro del territorio de la antigua Aquitania, constituyen el testimonio más antiguo de la lengua vasca." MITXELENA (1964, 14)

### 3.1.3.2. Tribuen eta dialektoen banaketa


Zein izan daiteke aspaldiko eta hain ongi kokaturiko tribu hauen eta egungo euskararen dialektoen arteko zerikusia?

Campión (4) ere ohartu egiten da leinu eta euskalkien artean sortzen den loturaz; ohartu ezezik, idatzi ere egiten zuen; CARO BAROJA izan zen, ordea, zehazki eta hitz laburrez lotura hori finkatu zuena (1945, 34):

> *"1º Los límites del vasco en la Edad Media final están encuadrados en el territorio que en la época romana ocupaban los pueblos llamados vascones, várdulos y caristios.*
>
> *2º El límite N. de los vascones coincide con el del dialecto llamado alto navarro septentrional en su variedad de Guipúzcoa y no con los límites actuales de navarra.*
>
> *3º El límite del alto navarro meridional, en 1552, iba por las fronteras de los vascones, asimismo por su lado SW.*
>
> *4º El límite E de los caristios coincide con el del dialecto vizcaino en su variedad guipuzcoana.*




SANCHEZ ALBORNOZ, C., (1974)-tik hartua.


Santoña
Laredo
Castro Urdiales
FLAVIOBRIGA
Río Asón
Guernica
San Sebastian
OIARSO
TRITIUM
Río Deva
Río Oria
Tolosa
Río Bidasoa
Bilbao
Valmaseda
Durango
Mena
Río Nervión
CARISTIOS
VARDULOS
VASCONES
SUMMO PYRENEO
TURISSA
ARACELI
ALABONE
Orduña
SEGONTIA PARAMICA
Villarcayo
AUTRIGONES
Río Zadorra
ALBA
Alsasua
VELEGIA
UXAMA BARCA
Vitoria
SUESSATIO
TULLONIUM
PAMPELONE
Río Ebro
Salinas
Treviño
DEOBRIGA
Miranda
SALIONCA?
Campezu
Estella
VINDELEIA
Pancorbo
CURNONIUM
Los Arcos
BIROVESCA
Haro
Laguardia
SEGISAMUNCLUM
LIBIA
ATILIANA
Logroño
VAREIA
SEGISAMO
TRITIUM
Sto Domingo
Nájera
Lodosa
TRITIUM
BARBARIANA
DEOBRIGULA
Burgos
Río Arlanzón
CALAGURRIS
BERONES
MANARICUA; A. (1963)-tik hartua.
LIMITES TRIBALES EN TIEMPOS ROMANOS
SEGUN SANCHEZ ALBORNOZ
Límites de tribus
Vías romanas
Ciudades romanas

*Parece lícito suponer, en consecuencia, que en la época romana ya los vascones, várdulos y caristios tendrían sus dialectos propios dentro de un idioma común."*

Esan daiteke, beraz, egokitzapen zehatza dagoela zatiketa tribalen eta dialektoen artean (5). Izan ere, egungo Gipuzkoa-n Ekialdeko kostaldea, Hondarribia-tik Errenderi-ra, orain ere Goi-Nafarrera hizketakoa da; eta Deba bailaran, berriz, Bergara eta Gatzaga barne, Bizkaiera erabiltzen da; hori gertakizun nabarmenenak aipatzeko. Horregatik, area dialektalak eta dialektoak mugatzeko izan daitezkeen eragozpenak eragozpen, esan daiteke ondorioz euskararen sailkapen dialektala erromatarren garaiko zatiketa tribalean oinarria hartuta egin daitekeela, ordutiko bereiztasunek, geroztiko zatiketa administratibo berrien gainetik, gaur arte iraun dutelarik (nolanahi ere esan behar da bi mila urtetako aldia delarik tartean ari garela hitz egiten). Zenbait autorerentzat, esaterako Oihenart-entzat, tribuen eta dialektoen arteko egokitzapen hau izan da euskararen dialektoak sailkatzeko erizpidea.

J. ALLIERES-ekin (1981, 112) batera esango genuke:

*"...la différenciation dialectale serait extrémement ancienne, et les "peuples" dont parlent les historiens de l'Antiquité, a savoir les Caristii, les Varduli et les Vascones, se seraient trouvés dès origines distincts par la langue. Il y aurait donc là un fait etnolinguistique essentiel, qui rappelle d'assez près la differenciation également ethnólinguistique que l'on observe chez les grecs de l'Antiquité , où Achéens, Doriens et Ioniens se distinguaient autant par le "dialecte" que par d'autres traits culturels."*

### 3.1.3.3. Banaketa eleiztiarrak eta dialektalak

Aurreko gaian aipatzen genuen eleizaren eta dialektoen

zatiketen arteko egokitzapena. MENENDEZ PIDAL bera ere (1916) genekarren ideia honen eusle bezala. Haatik, 1920-ko Abenduaren 27-an Bilbo-n irakurritako hitzaldian zioenez, eleizaren zatiketek Konstantino-ren inperio barneko mugak onartzen zituzten, eta hauek, nola edo hala, aurreko tribuenak isladatzen zituzten (1928,28 edo berdin 1962, 48):

> *"No se ha de entender que la división eclesiástica influyó en la dialectal, sino algo más interesante: que las viejas diócesis reflejan muy antiguas divisiones del país y éstas acaso sean de los antiguos pueblos: los caristios vizcaínos y los várdulos guipuzcoanos."*

Hitzaldi sail horretan bertan, GRIERA-k (1921,75) antzeratsu arrazoitzen zituen frankoprobentzalaren neurriak eta mugak.

Jung-ek frogatu zuen Eleizak bere barruti haundiak Diokleziano-ren organizazio-muga zaharrak gordez finkatu zituela. SANCHEZ ALBORNOZ-en ustez (1974, 39):

> *"existen numerosos indicios de que en los primeros tiempos de la iglesia hispano-cristiana, en el norte de España, cada obispado abarcaba la comarca habitada por una gran tribu o grupo de tribus menores o afines."*


Gauza bera baieztatzen du A. de MAÑARICUA-k ere (1963, 13):

> *"Cuando, ya entrada la Edad Media hasta el siglo XI inclusive, conocemos mejor la geografía eclesiástica, vemos reaparecer la división que apuntamos. El antiguo territorio várdulo pertenecerá a Pamplona; una pequeña franja junto al Bidasoa, hoy perteneciente a Guipúzcoa pero en tiempos romanos a Vasconia y no a Vardulia, correspondió a Bayona. El de los caristios de la diócesis de Alava y el de los autrigones de Valpuesta que, nacida a principios del siglo*

23. LA DIOCESIS DE PAMPLONA EN 1363




CARRASCO PEREZ, J.: La población navarra en el siglo XIV, Universidad de Navarra, Pamplona, 1973.


S. J. de Gastelugache
Baquio
Bermeo
Albóniga
Mendata
Barrica
Axpe de Busturia
Munguía
Guernica
Ugarte
Santurce
VIZCAYA
Bolivar
Cenarruza
Echano
Arrigorriaga
Garay
Yurreta
Arandia
DURANGO
Abadiano
Aránzazu
S. Agustín de Echebarria
Menaya
Llodio
Carranza
Pando
MENA
AYALA
ORDUÑA
OB. DE VALPUESTA
OB. DE ALAVA
Salinas de Léniz
Araoz
Elgueta
Forondas
Valpuesta
Velegia?
Gaztelu
Estíbaliz
Morillas
Armentia
Nanclares
Gauna
Saleedo
Estabillo
Armiñón
Armentia
Briñas
Haro
Cuzcurrita de Río Tirón
Elciego
Oyón
Irache
Najera
OB. DE NAJERA - CALAHORRA
S. Sebastián
Oyarzun
OB. DE BAYONA
Astigarribia
Hernani
Vergara
Olazabal
GUIPUZCOA
OB. DE PAMPLONA
Araya
Eguilaz
S. Adrián
Pamplona
Santa Pía
MAÑARICUA, A.; (1963)-tik hartua
DIVISION ECLESIASTICA HASTA FINES DEL SIGLO XI
Límite de provincias actuales
Id: " obispados
Sedes episcopales

*IX, se considerará sucesora de Oca. Esta coincidencia, siglos más tarde, de la geografía eclesiástica con la muy anterior geografía tribal y con la lingüística no pueden atribuirse a casualidad y tiene raíces hondas que avalan las presunciones que apuntamos."*

Aldaketarik nabarigarriena Gipuzkoa-ko Ipar-mendebaldea eta Nafarroa-ko Iparreko erdialdea eta mendebala Baiona-ko eleizbarrutira eramatea izan zen. Zati hauek aspaldiko baskoien lurraldeetakoak dira, Gipuzkoa-n Hondarribia, Irantzu eta Oiartzun eta Nafarroa-ko Iparrean Baztan-go Bailara, Bertizarana, Basaburua Txikia eta Bortzirieta. Lurralde hauetako hizkera Lapurteratik hurbil samar agertzen zaigu, ez bada hain erreza ere Baztan-goa Lapurterarekin edo Iparraldeko Goi-Nafarrerarekin sailkatu behar den erabakitzea. Edonola ere, azken hau ulergarria da bailara hori muga-mugan bait dago.Guzti honi buruz begira zer dioen MITXELENA-k (1981,298), jaiotzez eta hizkeraz errenderiarra bera:

*"...para mí, nacido en el antiguo arciprestazgo menor de Guipúzcoa dentro de la diócesis iruñense (7), de lengua no ya guipuzcoana, sino más bien altonavarra (de lengua en otras palabras, oriental antes que occidental), a quien el habla de Goizueta o la de San Juan de Luz le resultaba más bien familiar, tuviera su primer tropiezo con la marcada diferenciación del vizcaíno."*

Nolanahi ere, ez dira arrazoi erligiosoak edo eleiztiarrak herrialde hauetako hizkeran eragina izan duten bakarrak. Ezaguna da Nafarroa-ko Erresumaren itsasorako irteera Hondarribia zela. Erdi Aroan, bestalde, herri hauetako ekonomia Nafarroa-ko Erresumari loturik aurkitzen zen, loturik eta Nafarroakoaren menpean. Hitz batez esateko, azken batean, Nafarroa-ko Erresumako herriak ziren, izan, eta horrek adierazten du, aski garbi, zer eragin duten faktore extralinguistikoek hizkeretan.

Guk ikus dezakegun heinean, Hegoaldeko hizkerei buruz ez dago batere ziurtasunik. Erronkari-ko eta Zaraitzu-ko bailarez ari gara nagusiki, Aezkoa-koa ere hemen sar daitekeen arren; baina azken hau nahiz Goi-Nafarreratik nahiz Behe-Nafarreratik hurbil agertzen zaigu, bateko nahiz besteko ezaugarriak hartzen dituela mugetako hizkera guztiek bezala . Aspaldiko geografoen testigantzek diotenez, bailara hauek baskoien tribukoak ziren, "Summo Pirineo" deitzen zenekoak. Baina geografiako kokapenak berak eramaten gaitu pentsatzera giza-harremanak Akitania-ko lurraldekoekin aisago izango zituztela, egungo hizkeren eiteak ere azaltzen duenez. Nolanahi ere, hizkera pirenaikoaren itxura (8) izan da aldaketarik haundienak jasan behar izan dituena antzinatetik Erdi Arora, euskal hondarrik gelditzen zela tarteka, oraindikan XIV. mendean (9). Lurralde hau geroago eta ezagutzenago doa egiten diren lanei esker, halaz ere nahiko interesgarri bezain asmagaitz izaten jarraitzen du ikuspuntu linguistikoz.

### 3.1.4. Latinaren eragina

Puntu honetara iritsiz gero, behartuak gaude Euskal Herriaren latineratzea eta erromanizatzea aztertzera. Latinaren eragina benetan izan da neurtezina. Lehenengo eta behin, atzerakada ikaragarria ekarri ziolako euskarari lehen aipaturiko Pirinio Ekialdean (9) eta Nafarroa-ko eta Araba-ko Hegoaldeko lurralde denetan, latinak eta ondorengo erromantzeek euskara lekutu zutelako. Horrez gain beste bi geruza daude. Bata elebiduna, nagusiki Araba-ko eta Nafarroa-ko erdialdeak hartzen dituena (10) eta Pirinio-tako zati bat ere bai (11),eta Enkarterriak Mendebaldean (12).

Beste geruza Gipuzkoa-ri, Bizkaia-ri, Enkarterriak salbu, Araba-ko Iparraldeari eta Nafarroa-ri, Iruñea-ren hegoalde xamarretik hasita gora, legokieke. Lurralde honek, euskalduna izanik ere, latinaren presentzia izan zuen (13) eta, zeharbidez, baita eragina ere.

Latinaren eta euskararen harremanei buruz CARO BAROJA-k (1945, 35) dio:

> *"En Guipúzcoa, en verdad, hay pocos datos arqueológicos que atestigüen una gran romanización; lo mismo ocurre con parte de Vizcaya y el Norte de Navarra. ¿Pero no se hablaba vasco, por ventura, en la llanada de Alava y en los campos que rodean Pamplona hasta hace poco? ¿Y no están llenas aquellas tierras de vestigios romanos?"*

Eta MITXELENA ere (1981,311) honela azaltzen da:

> *"La época romana [...] no parece que nos sea del todo impenetrable. Por lo que toca a la lengua, es seguro que la romanización lingüística (la latinización) en zonas éuskaras de lengua tuvo que suponer, como ya con anterioridad la indoeuropeización prelatina, una reducción drástica del área de habla vasca que, como foco de adaptación de gentes inadaptadas, tuvo que recibir sobre todo en épocas de violencia y de inseguridad población de zonas separadas del núcleo central, con el inevitable* ***brassage*** *de hablantes de dialectos y variedades muy diversas [...] Lo que se quiere subrayar es que, con intermitencias y remisiones, el sentido general de la evolución tuvo que ser el mismo, alguna concentración de población cuya procedencia, y esto es lo importante, no podía menos de ser diversa."*

Puntu hau burutzeko ezin izango dugu esan gabe utzi denok ezaguna dugun egia zozoa, alegia Euskal Herria ez zela inoiz erromanizatua izan; Iruñea biak, Nafarroa-koa eta Araba-koa, erromatar eta hiritar zentru garrantzitsuak izan ziren, baina erromanizazioa hedatzeko beste indar ez zuten lortu ahal izan, MITXELENA (1974,185). Hirugarren mendearen erdialdetik, erromatar inperioa deuseztuz gero, batez ere mendebaldean, haren eragina galduz joan zen eta galera horren arabera tokian tokiko

jendeen nortasuna berreskuratu egin zen; baserriratzea ere indartu egin zen, eta honek berriro gotortu egin zuen euskara, baina, esan bezala, eritzietan gehiago ari gara datu ongi oinarrituetan baino.

### 3.1.5. Kristautzea

Edonola ere, latineratzea eta geroztiko erromanizatzea ez dira guztiz itzaltzen. Gero Euskal Herriaren kristautzea gertatu zen, eta honen eragina ere haundia izan zen. Eragin hau mailazmaila eta une ezberdinetan gertatu zen, MITXELENA (1981, 13):

> *"La introducción y asentamiento del cristianismo, para los cuales se dan fechas muy diversas (válidas posiblemente las tempranas y las tardías a la vez, para diversas partes del país)..."*

Halaz ere, aintzinatasunaren zenbait data antzeman daiteke euskarak hartutako mailegu latino-erromanikoen azterketatik, euskararen fonetikan izan zuten eraginetik, eta, mugatuago bada ere, lexikoaren azterketa semantikotik.

A. IRIGARAY-k (1945, 39, 14 oharra) honela esaten zion Caro Baroja-ri :

> *"No se puede negar que la influencia eclesiástica en esa época fué muy grande, y creo yo que no hay que desdeñarla: los estudios de Gauchat muestran que en el franco-provenzal, no corresponden sus límites con el reino de Borgoña; sí en cambio con los de las diócesis de Vienne y Lyon, lo mismo en otras partes...".*

Hitz batez esanda, kristautasuna latinaren bitartez sartu bide zen euskaldunen artean, latinaren bidez sartu zen lexiko kris-

tau ugariak agertzen duenez, fedearen zabalkundeak tokiko hizkuntza erabiltzera behartzen bazuen ere. Ezaguna da, ebangelizazio lanetan Eleiza mendebaldean ez zela ekialdean bezain tokiko hizkuntzak erabiltzearen aldeko izan. Badira erromantzearen edo euskararen erabileraren testigantza batzu, (15) tokian tokiko beharren arauera, baina testigantza hauek Erdi Aro Beherakoak dira, eta, edozein modutan ere, Kontrarreformaraino itxaron beharko da elizkizunetan toki-hizkuntza erabiltzen dela esan ahal izateko.

Ez da ahaztekoa, bestalde, herriak berak jareintasun haundia izan duela hizkuntzaz. Zirudienez, ez zion axola askorik hizkuntzaren murrizketa etengabeak; alderantziz ere, ordea, kontutan hartzekoa da atxikimen haundia izan diola hizkuntzari, gorde bait du gaur arte zorigaiztoko asmatzaile eta igarle ororen aurka.

Euskarazko lehenengo lekukotasun idatziak eta lanak eleizjendeari zor dizkiogu, bai dotrinak eta Ebanjelioak eta bai olerkiak ere. Honek hizkuntz eredu modukoren bati bidea ireki zion, baina ez bide zuen entzute gehiegirik lortu, eta, nolanahi ere, ez zituen hizketa motak bateratu, hortarako askoz gehiago idatzi behar bait zen, eta, batez ere, askoz ere gehiago irakurri. Honela uler daiteke dialekto literarioek ere -Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera eta Zuberera, Bonaparte-ren sailkapenari jarraituz- zergatik ez zuten aparteko begiramenik erdietsi hiztunen baitan.

### 3.1.6. Hizkuntza arrunta

Hizkuntza literarioaren ondoren hizkuntza arrunta ere aipatu behar da, orain arte esandakoaren aurka dagoela baderitzagu ere.

Lehen aipaturiko J. CARO BAROJA eta A. IRIGARAY-ren arteko solasaldian (1945, 39, 14 oharra), honela zioen honek:

*"Respecto a los dialectos, es indudable que a medida que uno se remonta en la Historia, las diferencias se atenúan y las coincidencias aumentan: Oihenart, suletino, es mucho más claro y asequible que el suletino actual: Micoleta, vizcaíno, lo mismo: y los guipuzcoanos de los siglos pasados son menos "guiputzes" que ahora."*

Izan ere, MITXELENA ideia honen eusle izan da beti, eta bat gatoz berarekin dioenean (1981,86): "los dialectos de cualquier lengua proceden de la diferenciación de una lengua común", eta euskarari dagokionez, euskal dialektoak elkartzen dituena askoz ere ugariagoa dela bereizten dituena baino. Mitxelena Hans Vogt-en zita baten oinarritzen da bere ideia garatzeko. Vogt-ek honela dio, MITXELENA (1981, 296-297):

*"L'unité primitive de parlers basques ne fait aucun doute. La structure phonétique et morphologique est sensiblement la même partout, et derrière la masse énorme d'emprunts, surtout romans, on entrevoit un vocabulaire basque assez homogène. Le basque commun l'origine commune des parlers actuels- ne doit pas être très différent de ce que ces parlers sont de nos jours."*

Eta hortik Mitxelenak jarraitzen du:

*"...los dialectos vascos aún en nuestros días están poco diferenciados, y la coincidencia en las estructuras subyacentes (fonología, morfología, vocabulario) se debe a que proceden en común de un protovasco cuyas características más importantes casi podemos tocar con los dedos."*

Ideia horrek hizkuntza arruntaren eraketara darama (1981, 309):

*"Si tuvo que existir una especie de lengua común como raíz de los dialectos conocidos y si esa lengua*

*común no está demasiado lejos de nosotros, tal y como andan las medidas en lingüística histórica, [...] habrá que preguntarse entonces cómo llegó a constituirse. En efecto, tal hecho no pudo darse por sí mismo, ya que las lenguas no se unifican* ***motu propio,*** *sino que son unificadas por alguien o algo, por hombres que operan dentro de ciertas condiciones históricas."*

Mitxelena-k uste duen lehen-euskara horren lekukotasunik ez da gordetzen eta ez dakigu zein datatan koka daitekeen. Gelditzen diren testigantzak, multzotxo bat eta aintzinakotasun batekin, Akitania-ko inskripzioak dira, eta horiek fonetikari laguntzen diote, ez besteri; eta garai haietatik gaur arte aldaketa frogagarririk izan da, baina aldaketak gertatu diren arren, orduan eta ordurako eta erromatarren garaian bazen zatiketa dialektala. CARO BAROJA-ren hitzen (1945, 38,14 oharra) ohiartzunkide egiten gara:

*"...es lógico pensar que el vasco ha ido diferenciándose con el tiempo; pero ello no quita para que las variaciones dialectales hayan existido en épocas anteriores a la de la acción de la Iglesia como órgano cultural, en las que cabría mucho el particularismo."*

Erromatarren garai aurrekoa, beraz. Pentsa al daiteke, hipotesi gisa, hasieran batasun soziala izan zela eta gero sortu zirela Estrabon-ek eta beste geografoek deskribatu zituzten leinuak? Erantzuna MITXELENA-ri eskatzen diogu (1981, 310):

*"Como, por otra parte, la unificación lingüística suele ser resultado (y factor) de cohesión social, cabe muy bien pensar que un proceso de concentración sociopolítico precedió y acompañó a la nivelación dialectal. De cualquier modo, aquí como en otras partes, cualquiera ve que la cadena argumental no podrá ser más resistente que su eslabón más débil."*

Utzi dezakegu, beraz, esanez euskarak baduela, egun, koherentzia eta bateratasuna bere sisteman. Haatik, dialektotan banatua arkitzen da; dialekto horiek gradu ezberdinetan bereizten dira eta berezienak bazterretakoak dira, Bizkaiera eta Zuberera, alegia. Dialektoen zenbaitasun hori ez da azken mendeotan gertatu, baizik erromatarren garaietakoa da gutxienez; geroztik urrunketa haundiagoa gertatu denaren aztarnak bil daitezke. Dena dela, suposa daiteke betiere dialektoak aldakien urrunketatik eta etenketatik sortu direla, baina aldaki hauek elementu bakar batetik sortu eta askatu dira, beste testigantzarik utzi ez digun batasun linguistiko batetik, "protoeuskara" edo "aintzineuskara" deitu izan zaion hizkuntza batu batetik.

### 3.2. Euskalkien sailkapenaren historia

Euskarak, bere historian, guk ezagutzen dugunetik, hau da, testigantza idatziak ditugunetik, euskalkiak ere izan ditu. Ez da, beraz, harritzekoa, euskararen zatiketa zela eta, euskal idazleek -Etxepare-k izan ezik, honek ez bait du horrelakorik aipatzen- izan duten kezka, ez bait zekiten zein dialektotan idatzi edo nola erabili euskara ongi ulertuak eta ahalik eta irakurle gehien izateko. Honela, zeharbidez, dialektoei buruzko ikusmira agertzen dute, eta dialektoen banaketa ere ezartzen dute, ez apeta hutsez, baizik, gehienbat, arrazoi historikoz, erligiosoz edo politikoz, ikusiko dugunez.

Hala eta guztiz ere, ez da eginbehar erreza dialektoen sailkapena. Ideia estrukturalen aurretik, sailkapen hori benetan gogaikarria gertatu zen, lehen ikusi dugun bezala, Gilliéron berarengandik hasita; baita zalantzan ere ipini izan dira inoiz dialektoak. Zailtasun horri dialektoen arteko ezberdintasunak finkatu eta neurtzearena gaineratzen badiogu, arazoa asko korapilotzen da. MITXELENA-k seinalatu zuen bezala (1964, 18):

*"No vamos a entrar aquí en una discusión acerca de si las diferencias que se observan entre los dialectos vascos modernos son grandes o pequeñas. La discusión es más bien ociosa en tanto no se arbitre una técnica que permita darle una respuesta precisa, cuantitativa."*

Ez zaigu, beraz, zilegi kritikoegiak azaltzea idazle eta ikertzaile klasikoek, nolabait deitzeko, egin zituzten planteamendu-ekin.

Euskal dialektologiak eginiko bidean pertsonai bat bereizi behar da beste guztien gainetik eta bide horretan mugarri bezala har daitekeena, eta hori Luis Luciano Bonaparte Printzea da. Besteak idazleak dira, dialektoen sailkapenen bat egin izan duten idazleak, ororen gainetik Larramendi nabarmendu daitekeelarik. Metodologiari dagokionez, Bonaparte Printzea-k finkatutakoari ez zaio aldaketarik egin Espaina-ko azken gerratearen ondorioak pasatu arte.

### 3.2.1. Idazle zaharrengan euskalkien zatiketaren kontzientzia

Lehenengo agertzen zaiguna Joannes LEIÇARRAGA (1571) da (17); **Iesus Christ Gure launaren Testamentu Berria**-n "Heuskalduney" izenburuz ipintzen dion hitzaurrean, hona zer dioen dagoenekoz:

*"...bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diversitatea den."*

Nafarroa-ko Erreginak Testamentu Berria itzul zezan eskatu zion Leizarraga-ri, eta enkargu hori betetzeko izan zuen zailtasunetarik bat, eta ez, agian, txikiena, zein euskara mota hautatu eta

erabili izan zen. Bera eta bere lankideek norma bat jarraitzen saiatu ziren Lapurtera eta Behe-Nafarrera erdiz-erdi erabiliz, Lapurtera bada ere nagusi, eta Zuberera ere ez dute ahazten, ez baitziren alferrik zuberotarrak laguntzaileetako bi; hirugarren alean agertzen dira zenbait ezaugarri zuberotar eta, bestalde, "Testamentu Berria"-ri hiztegi ttiki bat eransten diote, zuberotarrek bere euskalkian hitz batzuen itzulpena eduki zezaten.

Ia mende bat beranduago, 1643-an, AXULAR-ek **Guero** idatzi zuen (18), eta irakurleari eskeintzen dion sarreran, honako hitz hauek esaten ditu besteren artean:

> *"Badakit halaber ecin heda naitequeyela euscaraco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez, eta differentqui minçatcen baitira euscal-herrian. Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guippuzcoan, Alaba-herrian eta bertce hanitz leccutan."*

Lan erligiosoa egin nahi izan zuen, eta ahalik eta euskal irakurlego ugarienari zuzendua, baina garbi ageri zitzaion ezin izango ziotela denek ulertu. Benetan nabarmena da nola Euskal Herri osoko lurralde eta dialektoak aipatzen dituen, eta era berean horrek agertzen duen Euskal Herriaren ikusmira bateratua, garai hartan ez hain usatua. "Bertce hanitz leccutan" ere dio, eta hau zalantzagarriagoa gertatzen da, baina, behar bada, Erronkari-n, Zaraitzu-n eta Aezkoa-n pentsatzen egon zitekeen, edo baita ere Euskal Herritik at ziren euskaldunen kolonietan (19). Dena dela, batetik bestera dauden bereiztasunak ongi ikusiz gain, argitu ere egiten ditu zenbait adibide lexikoz:

> *"Batac erraiten du behatcea, eta bertceac so eguitea. Batac ilquitcea, bertceac, ialguitea, Batac athea, bertceac bortha. Batac erraitea, bertceac esatea, Batac iracurtcea, bertceac leitcea, Batac liscartcea, bertceak ahacartcea. Batac hauçoa, bertceac barridea. Batac aitonen semea, bertceak çalduna. Finean bat bederac bere guisara,ançura eta moldera." (20)*

Idazkeran dauden ezberdintasunak ere ez dira txikiak:

> *"Bada ezquiribatceaz denaz beçan batean ere ez naiz eguiteco gabe. Ceren bada hunetan ere differentcia. Batac esquiribatcendu chehero, bertceac gehero. Batac chedea, bertceac, gedea. Batac ichilic, bertceak igilic. Batac lachoa, bertzeac lajoa [...] Eta hunela bada, bertceric ere cenbait hitz, batac eta bertceac, norc bere herrico edo erresumaco arauaz differentqui esquiribatcen baitituzte."*

Eta parrafo horren aurretik ere honela azaltzen da:

> *"Eztituzte euscaldun guztiec legueac eta azturac bat, eta ez euscarazco minçatcea ere, ceren erresumac baitituzte different."*

Ortografiaz dioenaz ere zerbait esan daiteke, ezartzen dituen paralelismoak ez bait dira guztiz parekagarriak, baina, berak berdintzat jotzen dituenez gero, utzi egingo ditugu. Harrigarriago gertatzen dena monarkiaren aipamena da. Esango litzateke zatiketarako, erizpide linguistikoaz gain politikoa ere hartzen duela, ohiturena eta legeena alegia. Kontutan hartuz gero, haren garaian ere Euskal Herria muga batez zatitua zegoela, ez da hain harrritzekoa pentsatzea Axular-ek ere, **grosso modo,** Hegoaldea eta Iparraldea bereizten zituela, dialektoei dagokienez ere, erizpide politiko-administratibotan oinarrituz; eta hori ontzen du egiten duen usarioen eta legeen aipamenak. Adibideak ere gauza bera ematen dute aditzera, ez bait dituzte dialektoen arteko bereiztasun errealak azaltzen.

Juan de TARTAS-ek ere bere **Onsa hilceco bidia** liburuan (1666, Orthez) Iparraldeko hizketen zatiketari aipamen bat egiten dio:

> *"Ené euscara, eta lengagia eztaquit aprobatia içanen denéz, bai, ala ez, badu orotaric çerbait, çuberoac, Bassanauarrec, eta lapurdic emandrauco çerbait,*

*baina ez oro; aruen egin dut neuré pieça pobria, hanco lengagia ezpada asqui eder, hanco euscarac, du oguena, eta ez euscaldunac" (21).*

Lurralde bakoitzari aldaki bat ezartzen dio, eta, nola edo hala, denetik zerbait sartzen duela aitortzen du; ardatza, ordea, erdi Zuberera da, Arue-koa hain zuzen. Ohartzen da, bestalde, darabilen euskarak ez bide duela behar adinako kalitaterik, errua hizkuntzari berari egozten dio,beharbada hiztunak errutik askatzeko.

OIHENART izan zen, ordea, ez aintzindaria, hori ezin bait zen izan XVII. mendean, arazo horiek planteiatu ere egiten ez zirelako garai hartan, baina bai lehenbizikoa euskararen hizkelkiez benetan ohartzen. Oihenart-ek euskalkiak azterketagai bezala berariz hartzen ditu. Beste idazleek ez zuten horren oharmenik; ezberdintasunei buruz mintzatu egiten dira, baina arazo eta eragozpen bezala, ahalik eta lurralde zatirik haundienean ulertuak nahi dutelako izan.

Ez da harritzekoa Oihenart-en aintzindaritza hau, hizkuntzaren beste alderdi batzutan ere aurrelari izan bait zen, esaterako gramatikan eta literaturaren prezeptiban. Hizkuntza osoa hartu zuen gramatikaren ikusmiraz aztertzeko, eta, hori zela bide, garaikideek baino sakonago ezagutu zuen hizkuntzaren egoera.

**Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae** (1638), Paris (22) Euskal Herriaren historia bat da, geroztiko historialariek oso estimagarritzat jo izan dutena. Historiako liburua delarik ere, hiru kapitulu, XI.,XII. eta XIII., hizkuntzaren azterketari ematen dizkio. Nahiko zehazki aztertzen du hizkuntza: ortografiari buruz datu interesgarriak eskeintzen ditu; baita ahoskerari buruz ere, kanpo-sandhiak ere seinalatuz; eta aditzaren joskeraz edo euskararen aintzinako zatiketaz ere bai (23).

XIV. kapituluan (1926,168-169) OIHENART-ek euskaraz mintzatzen den tokien deskribapen orokorra egiten du (24):

*"Los franceses llaman Bascos o Basculos a los que hablan esta lengua; los españoles llaman con el nombre general de Bizcaya la región en que se habla este dialecto. Nada tiene de bárbaro, de áspero o de difícil; es delicadísima y suavísima, y también, sin duda alguna, antiquísima, y se hablaba en aquellos territorios antes de la época de los romanos. La usan a esta parte del Pirineo ahora la máxima parte de Navarra, toda Guipúzcoa, Alava y Bizcaya; al otro lado del Pirineo, los tres distritos, que se designan con el nombre de Vasconia o tierra de los vascos, a saber, Laburdi, baja Navarra y Soule.*

XIV. kapituluak honako titulu hau darama: "De ciertas particularidades de la lengua vasca y del modo de declinar y conjugar sus palabras" (25). Gramática labur bezain interesgarria da, eta berriztailea gainera; esan daiteke Oihenart dela euskararen lehen gramatikaria (26). Dialekto batzuen bereiztasun zenbait azaltzen ditu, esaterako "a"-ren erabilera nominatibo pasibo singularrerako Bizkaiko euskaran; eta, orohar, erabilera-ohar zenbait egiten ditu ekialdea eta mendebaldea erizpide onargarriekin bereizteko. Mendebaldeaz ari denean Bizkaierari buruz ari dela uste izan daiteke, ematen dituen arrazoien arauera: "... se apartan, no sólo de la verdadera analogía, pero también del uso y modo de hablar de la máxima parte de Vasconia" (1926, 343). Autore honek ere, beraz, bereizi egiten du dialekto hau beste guztietatik, hauek batera hartzen dituelarik.

Kapitulu berean, ordea, XIV.-ean, alegia, (1926, 353), deskribapen dialektal oso neurtua eskeintzen du:

*"Por lo demás, en las reglas anteriores y en los ejemplos de las declinaciones y conjugaciones, hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la*

*actualidad. La forma navarra difiere no poco de ésta, más de la vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína, cuya exposición y mutua comparación en particular es objeto de nuestro trabajo actual."*

Ados gaude Yrizar-en iruzkinaz (27):

*"Según lo que antecede, Oihenart consideró cuatro dialectos del País vasco francés, de Navarra española, de Guipúzcoa (en la que incluye Alava) y de Vizcaya."*

Oihenart hartaratzen da bere esposizioaren mugapenekin, eta seinalatzen du ez dituela hizkelkiak ez deskribatzen ez erkatzen: horrekin konturatzeak berak ikusmira aski aintzindaria adierazten du dialektologiaren alderditik. Gainera, beste lan batean, **Les proverbes basques recueillis par le s'd'Oihenart plus les poesies basques du mesme Auteur** (1657), París (28), eta Atsotitzak edo Refrauac izenarekin ezagunagoa den lanean, hain zuzen, zehaztasun hau ematen du:

*"L'v voyelle se prononce en Basque come, "ou", tout ainsi qu'es Langues Italienne & Espanole, excepté au païs de **Soule,** & quelques **endroits** de la Bassé-Navarre, oú il se prononce l'u François."*

Bokalismoari dagokion puntu fonetiko garrantzitsu bat seinalatzen du, isoglosa bat ere ezarriz, eta, bidebatez, "ü" artikulazioari buruz XVII. mendeko zehaztasun txit estimagarria eskaintzen du, betiere oharpen gaitasun haundia agertuz.

Bada besterik ere euskararen ikuspegi orokorrari dagokionez. Euskara mintzatuaren samurtasuna azpimarratzen du, hau da, ezaugarri prosodikoa ematen du, mende bat geroago Larramendi-k ere ezaugarri bereiztaile bezala ekarriko duena, baita euskalkien arteko bereizketarako ere (29).

Euskal dialektologiaren aintzindarietakoa da, beraz,

Oihenart, haren idatziek, bere laburtasunean ere, metodologia zorrotz eta zuzenera jotzen dutelako. Metodologia hori garatu izan balitz, euskal dialektologiaren historian urrats distiratsua eman zezakeen.

Sailkapen dialektala egiteko erabili zituen erizpideei buruz, hau dio CARO BAROJA-k (1973, 292-293):

> *"I. Vasco-franceses = aquitanos*
> *II. Guipuzcoanos y alaveses = várdulos*
> *III. Vizcainos = autrigones"*

Eta horrela darraio:

> *"Tales reducciones son no sólo insuficientes, sino también inexactas, pues únicamente el extremo occidental (y no vasco en conjunto) de Vizcaya correspondió a los autrigones y en Guipúzcoa y Alava la parte correspondiente a los várdulos era la oriental) mientras que la de Poniente la ocupaban los caristios o carietes."*

Egia den arren Caro Baroja-ren ohar hau, ezin daiteke hertsiegia izan analisi kritikoan, ez bait ditu dialekto denak aipatzen, hori ez zelako bere lanaren helburua. Karistioak ere ez ditu aipatzen, Bizkaieraren zati nagusia diren arren; baina, esan bezala, Oihenart-ek lan sakonagoa eta hobea izan zitekeenaren hastapena baino ez zuen egin.

Azkenik, Oihenart-ek aurkakoengandik izan zituen erasoak ere aipatzekoak dira. Bere garaikideekin historiako eta linguistikako gaiez polemikak izan zituen. Azken gai honetaz Morales-ekin ari izan zen, eta aurreko autoreak ere aipatzen ditu, Marineo Síkulo, esaterako, Mérula, Mariana eta José Escalígero [Ikus: SAROIHANDI, J.: "Oihenart contra Garibay y Morales", RIEV 13 (1922, 448-455)].

Ia mende bat geroago Sara-ko J. ETCHEBERRI-k **Lau-**

**urdiri gomendiozco carta, edo guthuna** (1718) argitaratzen du Baionan-n (30). Axular-en jarraile suhar (31), adimen argiko eta euskararen eta honen egoeraren ezagutza miragarria agertzen duen mediku horrek, dialektologiarako ere datu interesgarririk ekarri zuen:

> *"Eta oraino bertce-alde, geure herritic ilkhigabe Escualherrian berean barrena, geure artean dugu pena, eta neque ondicozco hau; ceren gure hizcuntça propiala baitarabilagu hain nahasia, eta truccatua, non Euscaldunoc gueroc pena eta neque baitugu elkharren aditceco."*
>
> *"Ezperen bat-bedi Nafarroa-beherearra, edo Çuheroarra (sic) Bizcaitarrarequin, edo Alabesarequin, eta Ochagabiarra, edo Erroncalesa Baztandarrarequin eta Lau-urtarrarequin; edo cein nahi Escual-herrico aldebatecoa bertce alderdicoarequin, eta ikhusico duçu, elkhar ecin adi deçaquetela; aitcitic elkharri idurituco çaizquio Escualdunac direlaric, eztirela hitzcuntza berecoac." (1937, 398)*

Ez du euskal dialektoen deskribapen osorik egiten, baina, euskarak dituen maileguen ugaritasunaz ari delarik, badu esangurarik, dialektologiaren ikusmiratik, euskal hizketen artean nabari duen ugaritasunak eta ezberdintasunak, "non Escualdunoc geuroc pena eta neque baitugu elkharren aditzeco." Eta honen adierazgarri bazterretako eta elkarren artean urrutikoak diren hizkerakoak kontrajartzen ditu, esaterako Zubero-koa eta Bizkai-koa, hots, elkarren artean ezberdintasun sakonak dituztenak; edo baita ere hurbilekoak, nola Zuberera eta Behe-Nafarrera, nola Baztandarra eta Lapurtera, eta honek garbi agertzen du, erkaketa horren bidez, Etcheberri-k zuen euskal dialektoen ezagutza sakona.

### 3.2.2. Bonaparte-ren aurretik euskalkiak bereizten ihardun ziren idazleak eta erabili zituzten erizpideak.

#### 3.2.2.1. Larramendi

Behin XVIII. mendean sartuz gero, eta Aita Larramendi jesuitarengana iritsiz gero, aldaketa nabaria eman zela esan behar da trataera dialektologikoan aurreko autoreekin erkatuz.

Mende honetan, razionalismoaren eraginez, arazoen muineraino iritsi nahi izaten zen. Hizkuntzei, bereziki, dagokienez, polemika dialektiko beroak sortu ziren eta azken ondorioetaraino eramanez gainera. Garai honetan hiztegi eta gramatika ugari egin zen. Dialektologiaren alorrean, berriz, oraintxe hasten da teknika berriez; teknika artisauez, agian, baina XIX. mendeko tokiko lana gertatuko duena. Zera esan nahi da, kanpora aterata herrietan materialak biltzen hasten dela, batzutan inkesten bitartez ere, beti lexikoa edo lexikoaren inguruko zehaztasunak jasotzeko asmoz hiztegiak eta gramatikak osatzeko. Baina berritasuna hizkelkien informazioa jasotzeko asmoan datza, hain zuzen.

Euskal Herriak, alor honetan, pertsonai bikain bat izan zuen, Espaina-ko Estatu osoan entzute haundia lortu zuena, Aita Larramendi (1690-1766), hain zuzen, lehen esan dugunaren eredurik onena. Euskararen apologista sutsua izanik, bere lehenengo euskarari buruzko idatziak hortara jo zituen; **De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España** (1728) izan zen bere lehenbiziko lana, eta Mayans y Siscar-ekin eta Armesto-rekin izan zituen liskarrak ez ziren nolanahikoak izan. Euskal gramatika egin zuen, maila batekin egindako lehenbizikoa (32), eta hiztegia ere bai; ongi eginak dira biak, neologismo ugari sortzen dituen arren hiztegian, eta ongi agertzen eta frogatzen dute biek hizkuntzarekiko ezagutza sakona.

Dialektologiari dagokionez, irudi hagitz interesgarria da euskal dialektologian; Larramendi-z hau esan zuen MITXELENA-k (1959, 26):

*"Fue, como después Jovellanos, un precursor de la dialectología moderna."*

Eta ez deritzogu gehiegizko baieztapena, alderantziz baizik. Larramendi, dialektologia mailan, berri eta berritzaile gertatzen da, ordurarte ibili gabeko bideak zabaltzen ditu eta aintzindari bezala agertzen da, toki-lanak aho-galdekizunez baliatuz egiten bait ditu. MITXELENA-k zioen bezela (1983, 21):

*"Gehiago dena, ez da txokozale donibandarren gisan -P. d'Urte-z dio-. Bere hirikoen ordez bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu, eta Gipuzkoako euskalki hori berak begiz joa da, Beterri aldera. Badaki, ordea, euskalki bat baino gehiago dituela euskarak eta saiatzen da ahaleginean beste dialektuen berria zabaltzen."*

Entzun diezaiogun, ordea, berari lan egiteko duen eraren azalpena **Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin** (1745) liburuan (33). Aurrena, euskaraz beraz berjabetu behar izan zuen:

*"... me fue preciso renovar las especies del vascuence, imponerme primero en mi dialecto guipuzcoano y despues en los otros hasta que los reduje á método y arte."*

Gero hiztegia egiteko beharra erne zitzaion, eta hitzak jasotzeak dituen zailtasunei buruz honela dio (1853,XLVI):

*"... pero el vascuence no se halla junto en Vizcaya ni en Guipuzcoa, sino que está derramado en estas dos provincias y en otras de España y Francia. Para saber sus voces no hay recurso á los libros, sino á los pocos que he citado, y esos en un solo dialecto (34) y se hizo preciso recurrir a todas las provincias y adquirirlas de viva voz. Las he andado todas con sobrada fatiga, aunque algunas con mas celeridad*

*de la que quisiera, preguntando y ciertas veces (sic)- "voces" esan nahiko duela uste dugu- oía para colocarlas después en las correspondientes castellanas."*

*"A dos géneros de personas he dirigido mis preguntas, en los dialectos de España, á los que saben castellano y bascuence, y en el de Labort, á los que saben bascuence y francés, y á los que en todos los dialectos solo saben bascuence."(35)*

Jaso zituen, gainera, solas askeak eta baita arteztuak ere (1853, XLVII):

*"Sobre determinadas materias y objetos en que precisamente habían de salir aquellos verbos y nombres que yo deseaba saber."*

Seinalatuz, bidebatez:

*"... este es el medio único que hay para descubrir las voces vascongadas que faltan, y son muchísimas, así de este dialecto de Guipúzcoa, como del de Vizcaya y de los demás..."*

Ez dugu, beraz, uste gehiegikeria denik aintzindaria dela esatea, euskal dialektologiarena ezeze, baita dialektologia modernoarena ere.

Euskararen dialektoen banaketari dagokionez, bestalde, Larramendi, gaia sakonduz eta hizketak ezagutuz doan heinean, banaketa ere zabalduz eta zehaztuz joaten da. **El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada** (1729) liburuan, III. kapituluan, "De los dialectos del bascuence" tituluan, dialektoaren definizioa ematen du:

*"El dialecto en una lengua no es otra cosa, que una nota, diferencia ò caracter distinto de la misma Lengua, que no le estilan todos los que hablan aque-*

*lla Lengua, sino que se habla en algunos parages, ò Provincias determinadas."*

Horren ondoren euskal dialektoen lehenengo sailkapena egiten du (1979,12-13), (36):

> *"... así el Bascuence tiene el dialecto Guipuzcoano, del Señorio, ò Bizcaíno, y Navarro, ò Labortano, que comunmente es uno mismo, aunque ay bastante mezcla de los demás dialectos, y es lo que sucede en Alava, que participa en todos ellos, mas ò menos sincopados, y variados."*

Aurreraxeago dialektoen ezaugarriak zeintzu izan daitezken azaltzen du:

> *"Los dialectos pues se reducen á las declinaciones del nombre, y pronombre, que consisten en los articulos, y á las conjugaciones del verbo, que consisten en terminaciones, ò inflexiones, diferentes, y se pondrán en su lugar."*

**Diccionario Trilingüe** (1853, XXIV) lanean, urte gutxi geroago, formulaketa berdina egiten du orohar:

> *"A tres dialectos principales reduciremos todos los que tiene el vascuence; al navarro, al vizcaino y al guipuzcoano, que son muy regulares, apuntando algunos otros menores que sin regularidad se conservan y son indicio de que eran mas en numero en lo antiguo."*

Halere, hurrengo kapituluetan, dialekto bakoitza deskribatzean, Lapurtera ere sartzen du dialekto bezela, Nafarreratik sortua dela dioen arren. Behe-Nafarroa-ko, Lapurdi-ko eta Zuberoa-ko hizketen arteko bereizketak seinalatzen ditu eta bakoitzaren ezaugarri bereziak ere bai. Maila fonikoan, aspiraketa, leherkari sabaiaurreko gorra [t'], armonia bokalikoren falta

Lapurdi-n eta euskalki honetako hizketaren samurtasun aparta, halako doinu goxo eta itsaskorra duelako, "tonillo agradable y pegajoso" dio berak, eta esamolde zauli eta erreza, "expresión fácil y suelta". Iparraldeko zenbait erabilera desberdin ere aipatzen ditu.

Bizkaierari buruz, mugak hagitz zehatz ezarri ondoren, haren barnean aurkituriko desberdintasunak seinalatzen ditu. Gero Bizkaieraren hainbat ezaugarri eskeintzen ditu, eta haren azpi-euskalkiak ere ongi ezagutzen ditu, ederki bereizten bait ditu Gipuzkoa-ko Bizkaiera, eta ekialdekoa ere, hots, Markina eta Elorrio-koa; oraino irauten zuen Bilbo-ko hizketari buruz hauxe zion (1853, XXV):

> *"Aunque en Bilbao se habla mal, no así en sus cercanías, donde la propiedad y pronunciación se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao si en este punto se picaran más de vizcainos; ni en esto quiero decir que no haya en Bilbao quien sepa bien su dialecto, pues se hallan algunos."*

Bizkaieraren ezaugarriak hizkuntz maila orotakoak ematen ditu, baina ugarienik lexikokoak.

Azkenik Gipuzkera aztertzen du (1853, XXVI):

> *"... comparado con los demás, puede decirse el mejor, más inteligible y gustoso."*

Ohartzen da dialekto honek dituen desberdintasunekin, eta hemen ere, Bizkaierarekin bezala, mugak eta tokian tokiko hizketak ongi ezagutzen dituela ageri da:

> *"Los lugares rayanos de Vizcaya usan más del dialecto de Vizcaya:los interiores, empezando desde Elgoibar o desde Azcoitia por el lado septentrional y desde Cegama y Segura por el lado de Navarra,*

Lapurdi-n eta euskalki honetako hizketaren samurtasun aparta, halako doinu goxo eta itsaskorra duelako, "tonillo agradable y pegajoso" dio berak, eta esamolde zauli eta erreza, "expresión fácil y suelta". Iparraldeko zenbait erabilera desberdin ere aipatzen ditu.

Bizkaierari buruz, mugak hagitz zehatz ezarri ondoren, haren barnean aurkituriko desberdintasunak seinalatzen ditu. Gero Bizkaieraren hainbat ezaugarri eskeintzen ditu, eta haren azpi-euskalkiak ere ongi ezagutzen ditu, ederki bereizten bait ditu Gipuzkoa-ko Bizkaiera, eta ekialdekoa ere, hots, Markina eta Elorrio-koa; oraino irauten zuen Bilbo-ko hizketari buruz hauxe zion (1853, XXV):

> *"Aunque en Bilbao se habla mal, no así en sus cercanías, donde la propiedad y pronunciación se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao si en este punto se picaran más de vizcainos; ni en esto quiero decir que no haya en Bilbao quien sepa bien su dialecto, pues se hallan algunos."*

Bizkaieraren ezaugarriak hizkuntz maila orotakoak ematen ditu, baina ugarienik lexikokoak.

Azkenik Gipuzkera aztertzen du (1853, XXVI):

> *"... comparado con los demás, puede decirse el mejor, más inteligible y gustoso."*

Ohartzen da dialekto honek dituen desberdintasunekin, eta hemen ere, Bizkaierarekin bezala, mugak eta tokian tokiko hizketak ongi ezagutzen dituela ageri da:

> *"Los lugares rayanos de Vizcaya usan más del dialecto de Vizcaya:los interiores, empezando desde Elgoibar o desde Azcoitia por el lado septentrional y desde Cegama y Segura por el lado de Navarra,*

*hasta Irun y Fuenterrabia usan el dialecto de Guipuzcoa [...]. En Fuenterrabia, Irun y Oyarzun participan algo del dialecto labortano, aun de su tonillo gustoso..."*

Gramatikako ohartxo bat eginez akitzen du, Donostia-ko erabilera desegoki bat salatuz, hain zuzen: "esango didazu" erabili beharrean "esango nazu" erabiltzen dutela, alegia. Eta hasierako "yod"-en ahoskera kontsonante belare gor frikariaren ebakera jasotzen du euskalki horretarako.

Bukatzeko, **Corografia de Guipúzcoa** (1882) (37) lanean egiten dituen euskalkiei buruzko oharrak begiratuko ditugu, eta azken aurreko kapitulukoak, "De los dialectos del vascuence y del particular de Guipuzcoa" bereziki. Euskalki guztien desberdintasunak eta ezaugarriak seinalatzea lan luzea dela dio, "que puede emprender algún curioso vascongado" (1969, 295). Egia esan, euskalki bakoitzaren ezaugarri nagusiak analizatzen ditu: Zubererarenak, Lapurterarenak, Bizkaierarenak, Nafarrerarenak, Gipuzkerarenak sakonago aztertuz amaitzeko. Ez du garbi uzten horietako bakoitza euskalki propiotzat hartzen duen ala, aurreko lanetan bezala, ez dien denei euskalki kategoriarik ematen. Pentsa liteke, hizketa bakoitza berariz aztertzen duenez, bakoitzari nortasun propioa ematen diola, onartzen badu ere honako hau: "en cualquier dialecto, aun independientemente de los demás, hay sus diferencias, aunque son pocas y conocidas"; esan daiteke, beraz, hasierako ikuspegitik, euskararen euskalkiak hirura mugatzen zuenekotik, alegia, bost euskalki onartzera igarotzen dela dialektologiaz mintzatzen den azken lanean.

Kasu honetan, dialektoen ezaugarri bereizleak adibidetzeko testu literarioez baliatzen da. Bidenabar, Euskal Herriko Alderdi bakoitza osotara hartuz, Iparraldeak eta Hegoaldeak elkarren artean dituzten ortografiazko desberdintasunak ere komentatzen ditu.

Berriro ere, hotsak eta hauen grafemak gertatzen zaizkio deigarrien. Aspiraketa Lapurdi-n baino Zuberoa-n usuagoa dela

dio, eta ez dela batere egiten Hegoaldean. Sabai-erdiko afrikatu ahoskabearen ahoskera seinalatzen du; leherkari belare ahoskabearen ahoskeraz eta idazkeraz, "k" edo "qu"-ren artean, azken hau gomendatzen du , eta berdin apikari-hobietako afrikatu ahoskabeaz, "ts" gomendatzen du idazteko "x" gaskoina gaitzetsiz. Zubererako "ou" ere kritikatzen du [u] hotsa idatziz azaltzeko: "sin necesidad alguna, pues en vascuence no hay diferencias de pronunciación en u que siempre suena a la española" (1969, 296).

Nafarrerari buruz, desberdintasun haundiak dituela dio; kasu batzutan Lapurterarekin duen antza seinalatzen du, baina Juan de Beriayn-en eta Elizalde-ren lanak aztertzen luzatzen da apur bat, aditzaren iraganean"n" morfemaren faltaz ohartzen delarik azken honen lanean.

Gipuzkerari eskeintzen dio zatirik haundiena. Oso zorrotz ezartzen ditu muga dialektalak eta azpi-euskalkiak, ezaugarri linguistiko interesgarriak seinalatuz.

Azkenik, azpimarratzekoa da ezaugarri prosodikoei ematen dien garrantzia, doinuari azentoari baino gehiago. Hainbeste aldiz aipatzen du hizketa batzuen "el tonillo gustoso", Gipuzkerarena eta, batipat, Lapurterarena, eta betiere emakumeena gizonena baino samurragoa eta biziagoa dela esaten du; Zubereraz, berriz, hagitz gogorra eta gizasemekoia dela dio, "muy varonil y fuerte", eta Bizkaierari buruz gizonek zakarki samar hitz egiten dutela (38).

Dirudienez eta hiztegian dioenez, ongi ezagutu bide zituen Gipuzkoa-ko, Bizkaia-ko eta Lapurdi-ko euskalkiak. Zuberoa-koa, berriz, haren idatzietatik antzeman lekiokeenez, literaturaren bitartez baino ez zuen ezagutu (39). Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa-ko hizkerak, berriz, ez zituela ezagutuko uste dugu, ez bait zuten literatura idatzirik; eta oraindikan euskaldun ziren Nafarroa-ko beste lurralde asko ere ez zituen, ziurrenez, ezagutuko. Bonaparte-k aurki ditzan arte itxaron beharko da.

### 3.2.2.2. Larramendi-ren eskola: jarraitzaileak

Bere hizkuntzarekiko erabilerari eta kulturari zegokionez hain txirotasun gorrian bizi zen gizarte hark zirkin gogorra jasan beharko zuen Larramendi bezalako gizon jakintsu eta ospetsuak egin zuen euskararen aldeko lan adoretsu eta suharraren eraginez. Izan ere, Larramendi-k, gorteko bizitz aukera distirakorra baztertuz eta Salamanka-ko katedrako irakaskuntza eta XVIII. mendean horrek ematen zuen ospea ere utziz, hainbat urte eman zituen Euskal Herrian, Loiola-n, idazten eta lotardoan zegoen euskaldunen kordea iratzartzen eta astintzen. Honek, bidezkoa den bezala, emaitza onak eman zituen.

Ez da harritzekoa, beraz, Larramendi-ren eragina haundia izatea baita bera bizi zelarik ere (40). Hain ugari zabaldu zen haren lan idatzia eta hain ziren ezagunak haren ibilera, solas eta portaerak, non eskola berez sortu zuela esan beharko genuke. Badira hainbat idazle, eta ez gutxi Jesusen Lagundikoak bertakoak, Larramendi-ren eragina aski nabaria dutenak. Lan honi ez dagokio eskola interesgarri hori aztertzea, baina gehienek ezagugarri orokor bat dute, euskaraz idatzi dutela, alegia (41), eta helburuetan lehena euskara indartzea zutela, nahiz erligioan nahiz euskarari buruz idatziz, beti garaiko pedagogikotasuna ardatz nagusi bezala hartuz. Honela, garai hartan guztiz berria gertatzen ziren giro eta ikusmirak sortu zituzten. Tamal haundiz, jesuitak estatutik jaurtiki zituztenean mugimendu hori ia orpo-orpotik ebakia gelditu zen.

#### 3.2.2.2.1. Cardaveraz

Aita CARDAVERAZ izan zen eskola honetako kiderik nabariena eta, beharbada, Larramendi-ren jarrailerik zintzoena ere. Haren lanak, **Eusqueraren Berri onac: eta ondo escribitceco,**

**ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac** (1761), ez du, Larramendi-k esandakoez gain, gauza berririk dialektoei dagokienez. Bigarren kapituluan, "Eusqueraren izquerac, edo dialectoac" (1761,11), hernaniarraren ideiak jarraitzen ditu:

> *"Itsu itsuan ascoc esanoidu, Eusquera asco dirala, edo erri bakoitcean bere Euscara dala; baña cer cioten ezdaquite. Ezta ori eguia: eusquera bat da. Euscara bat onetan, eguia da, Dialecto, edo izquera asco dirala [...] onela bada Francian, Nafarroan, Bizcaian, Araban, ta Guipuzcoan, beren Izquerac, bacoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta."*

Ageri denez, ez dago gauza berririk euskalkien banaketan. Ezer nabarmentzekotan, **euskararen** eta **dialektoaren edo izkeraren** artean egiten duen bereizketa izango litzateke. Hizkuntza bakar bezala agertzen du, eta "euskara" izena erabiltzen du behin eta berriz, zalantzetarako biderik eman gabe; dialekto edo hizkera sinonimo bezela erabiltzen ditu, beti lurraldeetako barietateak izendatzeko. Beraz, aurrenekoa da, agian, euskararen batasunari hain tinko eusten diona, barietateak ere ukatu gabe. Berritzailea ere bada, besteen euskalkiak ezagutu eta ikasi beharra agertzen du eta:

> *"Oitu beardira, ez emengo Izqueran bacarric, ezpada edoceñ dialectotan, eta Francia, edo Nafarroaco, edo Bizcaico Libruetan ondo, ta trebe iracurtera." (1761, 19)*

#### 3.2.2.2.2. Juan de Perochegui

Beste maila baten bada ere, aipatzekoa da Juan de PEROCHEGUI **Origen de la Nación Bascongada y de su lengua** lanaren egilea (1760) (42). Apologista bezala ezaguna zen,

euskara Frantzia-ko eta Espaina-ko lehen hizkuntza zela ideiari eusten zion, eta, beste aunitzek bere hizkuntzekin bezala, Paraisoan mintzatzen zela ere esaten zuen.

Lanaren bigarren zatian, "De la antigüedad y universalidad del vascuence" izendatuan, Perochegui-k euskararen euskalkiak aipatzen ditu aditzaren erabilera etikoak deskribatzean:

> *"... no solo en un dialecto, sino en los tres principales de Guipuzcoa, de Bizcaya, y de Labort en Francia, à que se reducen los demás" (1978,101).*

Ideia bera errepikatzen du aurreraxeago (1978,101):

> *"...que el Bascuenze es Lengua mas rica y abundante: y quien la supiese en sus tres dialectos, hallará una multitud admirable de vocablos."*

Beste barietaterik ere suposatzen du beste lurraldeetan (1978,121):

> *"El segundo indicio es, que hoi dia el Bascuenze en Guipuzcoa, Bizcaya, Alaba, Navarra alta y baxa, Labort, y otros países de Francia, en que se habla, mantiene tanta multitud de vocablos, que aun en el numero material puede igualarse con cualquiera lengua del mundo, como se verá en el Diccionario, que siendo Dios servido se dará à luz."*

Begirada orokor batez, lan honetan ere Larramendi-ren "Arte de la lengua Bascongada" liburuaren eragina nabaria da; nola ideia nagusietan nola hitzetan ere, beti jesuita gipuzkoarra dakarkigu gogora (43). Bestalde, aski harrigarria da liburuaren hasieran sartzen duen harmarria Larramendi-k bere "Arte"-an sartu zuen bera dela.

Dialektoen kopuruari eta, orokorki hartuta, baita zatiketa definitzeko erari dagokionez ere, Perochegui-k gramatikako edo

lehen garaiko Larramendi-ren antz haundia agertzen du; izan ere, datei jarraituz, Perochegui-k berea argitaratu aurretik ezagut zezakeen lan bakarra Larramendi-ren gramatika zen. Zehatzago erkatuko bagenitu, Larramendi-ren eta Perochegui-ren artean hemen zer aipaturik ez dauden antz ugari aurkituko genituzke. Halere, ahoskerari dagokion bateratze bat aipagarria da. Larramendi-k etengabe bereizten ditu gizakumearen eta emakumearen arteko desberdintasunak, emakumearena leunago eta samurragoa dela esanez. Perochegui-k ere, era berean dio' "Pues la inflexion, que corresponde à la muger es mas suave, y dulce en el Bascuence, que la que corresponde al hombre." (1978,102) Eta ideia hau hainbat aldiz berresaten da lanean zehar baita aditzaren joskeraz ari denean ere.

#### 3.2.2.2.3. A. Diego de Goitia

Larramendi-ren eraginaz ari garelarik, A. Diego de GOITIA bizkaitarra ere aipagarria da (44). Honen lana argiratu gabe dagoen arren, gure ustez Larramendi-ren eraginez idatzi zituen euskaraz lan batzu hizkuntzaren didaktikari erabat dedikatuak, ikusmira dialektalez idatzi zituen, hala nola guipuzkerarako esaldiak eta ariketak bilduz, "el dialecto central o guipuzcoano". Helburu didaktikoaz ez dago zalantzarik, honako hitz hauek ez bait dute hartarako biderik ematen:

> *"A los bascongados, que no saben leer, alguno, que lo sepa, y esso para hacer más fácilmente, quiero mostrarlo el camino: iracurtzen ez daquiten euscaldunai, daquien batec iracurri, ta errazago eguiteco, nic bidea ernari nai diet." (45)*

#### 3.2.2.2.4. Añibarro

Aita AÑIBARRO ere Larramendi-ren ingurunean sartzen da

eta bere lana helburu didaktikoz idatzi zuen, tituluak berak zehatz asko agertzen duenez: **Gramatica bascongada** ("Para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros") (46). Ideia bera azaltzen dio Mariano Muguiro Nafarroako Aldaz herriko abadeari, idazten dion gutunean Nafarroa-ko lurralde horietako zenbait aditz forma eskatuz (47):

> *"Este arte va dirigido al alivio de Parrocos y Predicadores poco instruidos en el bascuence: y me persuado que resultarán de ello mas bienes espirituales que si se escriviessen otros libros." (48)*

Larramendi-ren jarraile zintzo bazen ere, ez zen ados Bizkaierako aditz jokoari eman zion trataerarekin:

> *"Estas conjugaciones se han escrito particularmente para Bizcaya, y salen por primera vez en este Señorío: pues aunque el P. Larramendi apuntó algo de ellas entre las conjugaciones de Guipúzcoa, fue casi como nada, y no pasó de dos tiempos, y esos no con legalidad." (1969,11)*

Añibarro, bestalde, ez da berritzaile dialektoen sailkapenean, euskalkien talde nagusietan Larramendi-ri jarraitzen dio eta Iparraldea ez du sekula aipatzen. Azken hau nahiko logikoa da, Hegoaldeko erligiosoak ez bait ziren ez Lapurdi-n eta ez beste Iparraldeko tokitan misiotan ibiltzen. Hegoaldeko dialektoei buruz zera dio (1909,12):

> *"Concluidas éstas, -Bizkaierako aditz jokerez ari dase seguirán con la misma orden las de Guipuzcoa y Navarra. Esta y la Provincia de Alava tienen bastante mezcla, y participan de los dialectos de sus Provincias vecinas. Esto mismo sucede con los Pueblos rayanos de cada Nación."*

Ikus daitekeenez, beraz, ez dago aldaketarik Larramendiren eta bere jarraitzaileen artean. Edonola ere, Añibarro-k aztertu

zituen lurraldeetako hizketak ezagutu egin zituen eta aldakiak ere jaso (1969,13):

> *"Mucha parte de Bizcaya, algunos Pueblos rayanos suyos, y en las Cinco Villas de Navarra posponen una b a la u de nombres y conjugaciones: como cerua,* ***ceruba,*** *zuec, zubec, deutsue, deutsube, y una "j" herida al ia, v.g.* ***arguia, arguija, oguia, oguija...***"

Denak pentsarazten digunez, Añibarro-k ez zituen Nafarroako hizketa denak ezagutu, eta bereziki ekialdekoak. Misio lan eta bidaietan Gipuzkoa inguruko herrietan ibiliko zen, eta hortik etorriko zaio erizpide orokor hori Nafarroa-ko hizketari buruz, aldameneko probintzietako dialektoen eragina eta nahasmena duela esaten bait du. Hala ere, Erronkarieraren aipamen bat egiten du, aipamen garrantzitsua gainera, XIX. mende hasierako euskararen egoera eta euskalkiaren bereiztasuna agertzen baititu, hitz laburretan bada ere:

> *"En este valle ya no se predica en bascuence: y aun el que usaban antes era enteramente distinto del bascuence navarro." VILLASANTE (1956, 444).*

Beste hainbeste esan daiteke **Voces Bascongadas** (49) lanari buruz, non hiru lurraldeotako hitzak jasotzen dituen, B **verbea**; G **itza**; N **mintza**, eta horien azterketak hau esanarazi zion:

> *"Y según he observado, ha habido tiempo que no había diferencia de dialectos vascongados: y se han variado insensiblemente, por no usar y continuar con las primitivas voces. Enzun oyr es general en Bizcaya y Navarra y no en el interior de Guipúzcoa: pero se conoce que en algún tiempo usaban de este verbo, pues se valen de él para explicar el oyr misa:* ***meza enzun: mecenzun.***"

Adibideak kultura hitzetara eramaten ditu: "De **orria** hoja, para **tabacorria**, **libru-orria**; y en lo demás usan **ostoa**, **ostroa**"

(50); honek, ordea, zalantzetan jartzen ditu aintzinako batasunari buruz berak atera dituen ondorioak.

### 3.2.2.2.5. Mateo de Zabala

Azkenik, Juan Mateo de ZABALA, Bizkai-koa hau ere eta A. Añibarro-ren erligiokidea. Halere, hau ez bezala, Bizkaia-n baino ez zen ibili misioak ematen, eta horretarako egiten zituen ibileratan hizkuntzari buruzko oharrak eta aldakiak jasotzen zituen. Horren emaitza izan zen lan hau: **El verbo regular Vascongado del dialecto vizcaino**" (51). Lan honek, argitaratu ondoren, eragina izan du geroztiko gramatikalariengan. Bizkaieran lau barietate bereizten ditu aldaketa bokalikoetan oinarrituz, hau da, bokalak elkarrekin doazenean eta hiatoa egiten denean sortzen diren aldaketetan oinarrituz, bokalen arteko eufonia edo armonizazio formen arabera. Barietate hauek **Markina-koa**, **Arratia-koa**, **Erdi-koa**, eta **Orozko-koa** deitzen ditu.

Markina-koa: 1. **e** bokala, **a**, **o**, **u** bokalekin topo egiten duenean, **i** ahoskerara aldatzen da: "leikean → leikian".

2. **i**-k, beste edozein bokalen aurrean doanean, latineko erara ahoskatzen den "j" tartekatzen du: "daguian → daguiyon", "cinaio cinaiyo".

3. **u**-k bere aldetik, edozein bokalen aurrean doalarik, **b** tartekatzen du: "ninduan → ninduban"; "dozue → dozube".

4. **o** bokala, berriz, **a** eta **e** bokalek jarraitzen badiote, **u** egiten da: "daroa B"; "nintzâcoen → nintzâcuen".

Aita Zabala-k dioenez, Markina-ko eufonia kasu hauek Bizkai-ko lurraldearena baino hedadura handiagoa dute; haren eritzietara, isoglosa hauek jarri dakizkieke (1848,54-55):

*"Las eufonías marquinesas están en uso en la villa de Marquina y los pueblos de su circunferencia y siguiendo por la raya de Guipuzcoa se extienden también a los de esta provincia que hablan el dialecto vizcaíno y a otros muchos de ella y aún de Navarra."*

Arratia-ko barietateaz dio: "los de esta Merindad pronuncian al natural las cuatro vocales dichas". **a** bokala **e** egiten da, monosilabikoa edo esaldiaren amaierakoa denean, aurreko bokala **i** edo **u** bada: "dira → dire"; "eguin dau → eguin deu"; "eldu da eldu de"; "etorri → naz etorri nez". Eta gero **e** bezela irauten du azken silaba ez denean ere: "nintzelako, deutsedaz, deuegu".

Erdi-aldeko barietateak, hau da, Bizkaia-ren barrualdekoak, **e** eta **i** Markinarrak bezala: "gueunquean → gueunquien"; "daguian → dagiyen".

Orozko-koak, berriz:

"1. Usan las mismas eufonías que los de Centro y a más cuando la **o** roza con la **a** les hace mediar una **b**: "doa → doba".

2. Y si a la **u** se siguiere **a** sin consonante interpuesta, truecan esta en **i**: "nenduan → nenduin", "cenduan → cenduin".

3. También mudan la **e** que precede inmediatamente a otra **e** en **i** y dicen: "daudee → daudie", "deutsee → deutsie", "zaree → zarie" señalando que esta última eufonía llega por este lado hasta las inmediaciones de Bilbao.

### 3.2.2.2.6. Beste batzu: Aizquibel eta Arana

Puntu hau burutzeko, beste bi pertsonairen aipamena, laburra bada ere, egitekoa da; gai honekin badute zerikusirik, eta bere

garaian izenik eta entzuterik ere izan zuten: Jose Frantzisko AIZQUIBEL eta Aita ARANA dira, hain zuzen.

AIZQUIBEL-ek (1798-1865) lexikografiara eta gramatikara zuzendu zituen bere lanak. Bere hiztegia **Diccionario Basco-Español titulado Euskeratik Erderara biurtzeko Itztegia** Larramendi-renaren kopia da, baina hizkuntzaren ordena, hau da, erdara-euskara izan beharrean euskara-erdarakoa da; ortografiaren aldatzaile ere bada eta katalogatutako tituluen artean kontutan har daitezke **Tratado acerca de los dialectos del vascuence, Sobre la declinación vascongada** eta **Gramática General analítica del vascuence**. Larramendi-ren ideiak jarraitzen ditu orohar; eusko-iberista da; eta aski garbi ikusten du euskararen egoera zer-nolakoa den zatiketa dialektalaren ondorioz. Horregatik, hizkuntzaren batuketa proposatzen du, eta baita Akademia sortzea ere ikertzaileen euskararen aldeko ahaleginak batzeko. Euskal dialektoak laburki deskribatzen ditu eta bakoitzaren ezaugarri banaka batzu eskeintzen ditu. Hiztegian ere hitzak euskalkien arabera seinalatzen ditu (52)

Aita J. Ignacio ARANA ere, josulagun azkoitiarra, besteak baino gazteagoa den arren, aipatu beharrean gaude. **San Ignacio Loyolacoaren bizitza laburtua** (1872) idatzi zuen, eta azkenean, "Apendice" delakoaren 3. kapituluan, "Liburucho onen eta besteen Euskera-ren gañean cerbait" tituluarekin, dialektoez aritu izan zen honako hauek bereiziz: Eskuara Ekialdekoa, Iparraldeko denak hartuz; Mendebaldekoa, Bizkaia, Araba-ko herri batzu eta Debarainoko Gipuzkoa zatia hartuz; eta Euskera Erdikoa edo Hegoaldekoa, Gipuzkoa, Goi-Nafarroa eta Araba-ko zati bat hartuz, hizketa honetan idatzi zuten idazleak ekarriz. Honela dio (1872, 201-202)

> *"Oraiñ bada, Eskuara **sortaldecoan**, ceñean, Francia-co Lapurdi edo Lau-urdi, Zuberoa, Subola eta Naparroa-beecoa dana batzen da, iztun autuenac eta escribalariric bicañ da bitoreenac izandu dirade [...]."*

*"Euskara **sartaldekoan**, ceñean Deba-ibaitic Bizcaia-ren atzenerañoco errienac eta cembait Arabacoarenac ere sartzen diran, berba egin dute itzpide eta erausi ederrian bere liburuetan [...]." "Baita ere euskera **erdicoan** edo **egoaldecoan**, nungoa Gipuzcoa-n, Naparroa-goicoan ta Araba-parte batean itz-eguiten dan, escribitu dute itzguiro gozo, garbi, leun, eder berdiñean [...]".*

Ortografiarako ere proposamena egiten du (53), euskal idazkera errazteko. Eta azalpen luze baten ondoren, euskaraz eskoletan eta apaizei erakutsi beharrari buruz, honako deseiu hau ere agertzen du, ikastolak sortzearena, alegia:

"¡Ah ceñ egoki litzakean Francesa-ren, Gaztelania-ren eta beste izkeraren guisan Euskarac bere itzlagunkide edo dala academia edo icasola idukitzea, juan dan eunkidaco Lagunkide Erreac Euskaldunaren asmoac parteca beintzat betetzeco [...] eta beste gauza on asco aurreratzeco; bilduric ortaraco zar da gazte letradun arguienac euskalerrico uri buruetan!

# OHARRAK

(1) Horrela adierazten du J. CARO BAROJA-k (1973, 288, 4.oharra): "Lope Martínez de Isasi, en una relación sobre cuestiones de hechicería, fechada en 1618, dice que en Guipúzcoa "la sospecha es de los extranjeros franceses y navarros", es decir, vascos orientales. **Anuario de Eusko Folklore** XI (1933,145). Caro Baroja-k berak eta leku berean dio: "Y hace años traté yo en Vera a una mujer que se excitaba grandemente cuando oía hablar en vasco de otras comarcas, porque decía que los que lo hablaban solían ser brujos, por lo general."

(2) Gero ikusiko denez, Bizkaieraren eta beste euskalkien arteko harremanei dagokienez eztabaida izan da aspalditxotik, nahiz egungo egitura linguistikoaren alderditik nahiz ikuspegi historikoz hartuta. Ezagunak dira Lacombe, Gorostiaga, Uhlenbeck, Lafon, alderdi batean, eta Mitxelena, Tovar-ekin, bestean, haiek bereizketaren aldekoak eta hauek batasunarenekoak. Berrikiago, J. Allières eta J.A. Lacarra lirateke, bata bereizketaren aldekoa eta bestea batasunarenekoa, jarraiberean. Denak aipatuko dira aurrerago.

(3) Guk erabili dugun lana hauxe da **Vascos y Navarros en su primera historia** (1974), Ed. de Centro, Madrid. Baina honi dagokion lana artikulu bezala argitaratu zen lehenengo "Divisiones tribales y administrativas del solar del reino de Asturias en la época romana", **Boletín de la Real Academia de la Historia** XCV (1929, 315-391).

(4) Gai honi buruz behin baino gehiagotan idazten du, besteren artean ikus: "Origenes del pueblo euskaldún- Celtas, Iberos y euskaros", **Bol. de la Com. de Monum. Hist. y artíst. de Navarra,** 2. aldia, (1910-1911).

5) Bonaparte-k asmatu egin zuen dialektoen mugak tribuen aspaldiko zatiketen parean ezarriz; Campión izan zen, ordea, lehen esan bezala, bi gauza horien arteko lotura, hots, tribuen geografiarena eta egungo zatiketa dialektologikoarena, ikusi zuena eta biak horren arauera parekatu zituena, **La lengua vaska,** CARRERAS CANDI, **Geografía general del País Vasco-Navarro** (Tomo general), Barcelona, (1971,197). Bigarren argitaldian (1971) **Navarra en su vida histórica** tituluarekin, Buenos Aires, Ed. Ekin.

(6) Iparraldekoa ilunago dago lekukotasun faltaz, lehen ikusi denez. Nolanahi ere, guztiz gaitzetsia izan da frantsesen artean zabaldu zen teoria, zeinaren arauera Iparraldeko euskaldunak VI. mendean gertatu zen baskoien emigrazio baten ondorio direla. CAMPION-ek ere ezeztatzen du hau (1971,3), eta geroztik erabat baztertua izan da, TOVAR-ek (1987, 8-9) ahalbide txikiren bat eskeintzen badio ere:

> "Al Norte de los Pirineos la correspondencia de dialectos con tribus antiguas no está tan clara, y podríamos considerar el dialecto oriental, suletino, descendiente de Ausci y Biguerrones, en los territorios occidentales aparecen en los mapas antiguos nombres de tribus celtas como los **Tarbelli,** que no nos dejan ver cuáles eran los pueblos más antiguos. Quizá el Turonense está bien informado cuando habla de una expansión de vascones, pues parte de este territorio es de dialecto bajo-navarro."

Egungo Gipuzkoa-ko lurraldeari buruz, hauxe dio MITXELENA-k (1964,85):

> "Guipúzcoa cuyo territorio no es dialectamente unitario ni tampoco corresponde por entero a la extensión que los geógrafos antiguos parecen asignar a alguno de aquellos pueblos de modo que la zona de habla celto-navarra coincidiría con territorio

vascón y la de habla vizcaína al oeste con territorio caristio, con lo cual la parte várdula de Guipúzcoa sería el solar del moderno dialecto guipuzcoano."

(7) "Die römanischen Landschaften des römischen Rechtes" (1881,9), Insbruck eta SANCHEZ ALBORNOZ-etik jasoa (1974,38). Azken honek, gainera, dio Espaina-rako testigantza konkretua dagoela Toledo-ko IV Kontzilioan:

"Un testimonio preciso que atestigua tal concordancia: el acuerdo del Concilio IV de Toledo ordenando que la división eclesiástica se conformara con la civil."

(8) Gipuzkoa-ko edo Hondarribi-ko -bietara esaten bait zen- Artziprestegi Txikia 1567-rarte Baiona-koaren menean egon zen, eta data horretan Iruñe-ko Elizbarrutira igaro zen. Mitxelena bigarren aldi honetaz ari da, hain zuzen. Gauza bera gertatu zen Lerin-go -Basaburua Txikia, Bortzirieta eta Bertizarana- eta Baztan-go artziprestegiekin 1524-1567 urteen barruan.

(9) Ondorengo hizkuntzalarien testigantzetan oinarritzen gara: R. D'ABADAL (1955) **Catalunya Carolingia** III, Barcelona. J. COROMINES (1965,106 eta hur. or.) **Estudis de toponímia catalana** I, Barcelona, alderdi katalanerako eta baita aragoitar-pirinaitarrerako ere; ez dira ahaztu behar F. JUNGEMANN-en toponimia lanak, **Teoría del sustrato** (1955,41 eta hur. or. batipat), Gredos,Madrid. Iparralderako, berriz, G. ROHLFS **Le Gascón. Etudes de phillologie pyrénéenne** (1970), Pau-Tübingen.

(10) Adibide bezala balio du J. M. Lacarra-k aurkitutako Huesca-ko udal ordenantzei buruzko dokumentuak. Dokumentu honek honela dio:

"Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre ningunas personas favlando en algaravia ni en abaraych nin en basquenç et qui lo fara pague por coto XXX sol." A. APAT- ECHEBARNE (1974,115)

(11) MENENDEZ PIDAL, R.M. (1968) **Toponimia prerrománica hispánica.** Lurralde horretan eta egungo Euskal Herrian jasotako toponimian oinarrituz erromanizaturiko lurralde-en eta erromanizazioaren kronologiaren azterketa egiten du.

(12) Ikus GONZALEZ OLLE, F.: "Vascuence y romance en la Historia lingüística de Navarra" **BRAE** (1970, 31-76). TOVAR, A.: "Los Pirineos y las lenguas prelatinas en España", **Actas de I Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos** (1950), San Sebastian, gero **El euskera y sus parientes** liburuan sartua, (1954) Madrid.

(13) COROMINAS, J.: **Estudis de Toponimia Catalana** I, Barcelona, 1965. MENENDEZ PIDAL, R.: "Toponimia Prerrománica Hispánica" (1968), Madrid. IRIGOYEN, Alfonso: "La lengua vasca y el País Vasco", **Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra** 26 (1977, 183-188). "Haur ola zirola. Elementos deícticos en lengua vasca"' **Iker-1** (1981, 365-400), Bilbao.

(14) M.T. ECHENIQUE ideia honen aldekoa da. Ikus Historia **Lingüística vasco-románica.** Intento de aproximación, (1984,64), San Sebastian.

(15) Latinaren eragina euskaran aski ongi aztertua izan da, eta, materialak bildu zituztenengandik hasiz, hurrenez-hurren zitatuko ditut: UNAMUNO,M.: "Del elemento alienígena en el idioma vasco", **Revista de Vizkaya** I, (1885-1886,256-269 eta 295-305). SCHUCHARDT, H.: **Baskisch und Romanisch** (1906) **ZRPh,** Beiheft 6, A. GOENAGA-ren itzulpena, **BRSVAP** 13 (1957), 15 (1959) eta 16 (1960). MEYER-LÜBKE: "Romanobaskisches", **RIEV** XIV (1923, 463-485). ROLHFS, G.: "La influencia latina en la lengua y cultura vascas",

"RIEV" XXIV (1939,323-348). J. CARO BAROJA **Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina** (1945), Salamanca. MITXELENA, K.: "Guipúzcoa en la época romana" **RSVAP** XII (1956, 56-94); "Basque y roman" **Via Domitia** IV (1957,12-25); "Hispánico antiguo y vasco" **Archivum** VIII (1958,35-47); "Notes sur les elements romans du basque" **Via Domitia** V (1958,5-14); **Sobre el pasado de la lengua vasca** (1964), San Sebastian; "La lengua vasca y la prehistoria" **Problemas de la prehistoria y de la lingüística vasca,** (1966,271-285), Pamplona; "Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca" **FLV** 4 (1972,5-25); "El elemento latino románico en la lengua vasca", **FLV** 17 (1974, 183-209); "Romanización y lengua vasca" **FLV** 16 (1984, 189-198). TXILLARDEGI:"Specificité de l'evolution des langues romanes de la region Pyrenéenne occidentale", **Euskera** (1976-2, 51-73). MUGICA, L.M.: **Latina eta erromanikoaren eragina euskaran,** (1982), Donostia; "El vocalismo en préstamos latinos al euskara", **FLV** 41-42 (1983, 5-16).

(16) S.A. GARCIA LARRAGUETA-k (1957) **El gran priorado de Navarra de la orden de San Juan de Jerusalen** II, Pamplona, honako testigantza hau dakar: Beriain-en (Nafarroa), 1276-an "aillegados los vezinos ante la iglesia de Beriayn mostróles el deán por palavra en lengua romana o en bascuentz...".

(17) Pierre Hautin-en inprentan, La Rochelle-n. Guk Hordago-ren argitalpena erabili dugu (1979), Donostia (3 ale).

(18) G. Milanges inprimatzailea baithan. Bordelen. (**RIEV** IV, 1910).

(19) "Cuando Axular, 1643, p. 17, dice que esta lengua, además de hablarse en la Alta y Baja Navarra, en la Soule, en Labort, en Vizcaya, Alava y Guipúzcoa, se habla también en muchos otros lugares **(eta bertce anhitz leccutan)** no piensa, sin duda, en alguna comarca limítrofe, sino en los núcleos de la diáspora vasca, en Castilla, Andalucía, etc., primero, y luego en el Nuevo Mundo." MITXELENA (1985,218 oharra).

(20) **RIEV** IV (1910, 435,17).

(21) **RIEV** I (1907,30).

(22) Erabili dugun argitalpena J. GOROSTERRATZU-ren itzulpenekoa izan da: **RIEV** XXVII (1926, 141-174; 329-355; 475-515); XVIII (1927, 79-110; 241-291; 470-512; 279-618); XIX (1928,26-47; 234-279; 346-380; 493-547).

(23) Oihenart "Vascoiberismoaren" goraldian bizi izan zen, Licenciado Poza-k, Garibay-k eta abarrek Tubalismoa-ri eusten ziotenean. Oihenart, ordea, oso begiratua azaldu zen gai horretaz. Kantauri-hegala eta Pirinio-ak sinalatu zituen euskararen barruti bezala.Ez zen erabat libratu halere "vascoiberismoaren" eusleen buruberokerietatik gaztelaniako hitzen etimologiak beti euskaran bilatu nahirik. "Azucena", esaterako, euskaratik eratorria, "A-zuzena, lo recto, la cosa recta, porque la azucena cría el tallo más recto y largo de todas las plantas". (1926,330)

(24) Badira testigantza zehatzak XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan euskararen egoeraz Araba-n eta Nafarroa-n. Garaiko dokumentu erligioso eta zibilak dira, noski. Deigarrienak aipatuz: A. IRIGARAY: "El euskera en Zufía", **RIEV** XXIV (1933,34-36); "Documentos para la Geografía Lingüística de Navarra", **RIEV** XXVI (1935,601-623) eta **Geografía Histórica de la lengua vasca** I liburuan (1960,67-107), San Sebastian. **MUNARRIZ URTASUN, E.** de: "El vascuence en la vieja Navarra", **RIEV** XIV (1923,685-690). LEKUONA, M.: "El Euskera en Navarra a fines del s. XVI",RIEV XXIV (1933,365-374).APAT-ECHEBARNE: **Una geografía diacrónica del euskara en Navarra** (1974), Pamplona.

Dokumentu horiei esker, aski zorrotz ezarri daitezke euskararen orduko mugak. Horregaiti, Oihenart-en esaldia, Nafarroa-ko zatirik haundienean euskaraz egiten dela dioenean, nahiko dudakor gelditzen da. Araba-z ari denean ere, lurralde osoan mintzatzen zela euskara dirudien arren, 1025-ko "Reja de San Millán" delakoari esker badakigu hiru hizkuntz eskualde finka zitezkeela Araba-n: bat euskalduna, bestea erromantze hizkerakoa, hegoaldean, eta hirugarrena, bien arteko erdialdea, ziurrenez gradu ezberdinetan elebiduna. Ikus MITXELENA (1964-2,29).

(25) Ikus gainera: SAROIHANDI,J. (1923,41-46) "Doctrina gramatical de Oihenart", **3er. Congreso de Estudios vascos.**

(26) Lehen kapituluan genion bezala, Berpizkundea da herri-hizkuntzen gramatiken sorrera garaia, eta eskribau euskaldunak ibili eta landuko zituzten, baina ez da inor euskararra lotzen, Oihenart izan ezik. Urte gutxi geroago -hamabost, hain zuzen- **Modo breve de aprender la lengua vizcayna** (1653) agertuko da, Rafael de Micoleta Bilbo-ko apezak paratua; gramatika bezala ez du askorik balio, baina Bilbo-ko euskaran eginaren xarma ezin izango zaio ukatu.

(27) **Contribución a la dialectología de la lengua vasca** I, (1981,98), San Sebastian.

(28) **RIEV** XXVI (1935,201-264; 665-693).

(29) Larramendi-k, beste XVIII. mendeko zenbait autorek ez bezala, gogo onez onartzen ditu, eta kontutan hartu ere bai, Oihenart-ek euskal gramatikaz egin zituen oharrak.

(30) J. URQUIJO-k 1937-an prestaturiko edizioa jarraitu dugu, **RIEV** XXVIII (1937,379-403).

(31) J. ETCHEBERRI-k berak aitortzen du **Escuararen Hatsapenac**-en eta Julio URQUIJO-k ere (1937,55) haren lanen argitalpenari egin zion sarreran .

(32) Pierre d'Urte-k, Donibane-Lohitzundarrak, gramatika bat egin zuen Lapurterara mugatua **Grammaire cantabrique basque** (1712), eta askoz geroago argitaratu zena **Bulletin de la Societé Remond** (1896-1900) aldizkarian. Hiztegia ere egin zuen, baina argitaratu gabe gelditu zen.

(33) 1853-ko argitalpena erabili dugu, Pio de Zuazua-rena, Donostia.

(34) Lapurteraz ari da.

(35) Hitzak jasotzeko zituen zailtasunak aipatu ondoren, metodo deiktiko zuzena -"au cer da?", "oni nola deritza?", zerbait seinalatuz, alegia- gertatzen zitzaiola probetxugarriena zioen. Zein alor lexiko jaso zuen ere esaten du, itxasotik esaterako, portuak, itxasketa, itxasontziak, ekaitzak eta abar. Maila honetan ere aipatu behar genituzke: zuhaitz motak, orografia, erlekuntza, ferreriak, eta edozein langintzetako lexikoa. Harrigarria da zein zehatz jokatzen duen kasu batzutan:

> "En tiempo de la sementera y cosecha iba á las caserías á preguntar de tanto instrumento, de su manejo vario, de tan repetida diferente labor, tan multiplicadas acciones, tanta yerba perjudicial a los sembrados, la faena de innumerables objetos y ejercicios en el segar, recoger macollas, manojos, montones, eras, trillos, etc." (1745, XLVII).

(36) Hordago-k eginiko argitalpen faksimila (1979), San Sebastián, erabili dugu.

(37) Erabili dugun argitalpena J. Ignacio TELLECHEA-rena izan da, (1969), San Sebastián.

(38) Hemen Wilhelm F. von HUMBOLDT filologo ospetsua gogoratu nahi genuke, batetik Larramendi-ren ideia euskoiberistaren jarraile eta eusle bezala, eta bestetik, Euskal Herrian ibilitako bidaiari bezala, euskara, berak esaten digunez, bertan, **in situ,** aditu eta ikasi izan zuena. Uste dugunez, gainera, Larramendi-ren idatzien eragina dago Humboldt-en euskalkien doinuaz mintzatzen denean esaterako: "Respecto al idioma tiene esta provincia su dialecto propio, que para el oído del forastero es más agradable que el vizcayno propiamente dicho, si bien no tan delicioso como el francés (labortano)". **Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801** (Alemanetik Telesforo Aranzadi-k itzulia), (1975,48) San Sebastian, liburutik jasoa. Larramendi irakurri zuela ere gauza ziurra da, haren hiztegia zitatzen bait du bere **Primitivos pobladores de España y Lengua Vasca** (F. Echeberria-k itzulia), (1959,13) lanean, Madrid. Humboldt-i eta euskarari buruz zerbait gehiago jakin izanez gero, begira MITXELENA (1973, 107-125), "Guillaume de Humboldt et la Langue Basque" ; GARATE (1946) **El viaje español de G. de Humboldt** eta, J. GARATE (1933) **G. de Humboldt. Estudio de sus trabajos. sobre Vasconia;** ECHEGARAY,C. (1911), **RIEV** 5, 10-13.or.

(39) "Lécluse ha sido quien primero ha establecido, siguiendo los consejos de mi padre, la existencia de un dialecto particular en la antigua provincia de Soule (Ziberoa)", A. Th. D'ABBADIE eta J. AGUSTIN CHAO (1836,37) **"Etudes grammaticales sur le langue euskarienne",** Paris. P. de YRIZAR-ek baieztapen honi buruz, hein batean baizik ez dela egia dio (1981,99): "Pues si bien es cierto que la Corografía de Larramendi permaneció inédita hasta el año 1882, fue escrita setenta años antes de que se publicara la Gramática y el Manual de Lécluse, aunque, como es natural, A. Th. D'Abbadie, no conocía la Corografía, cuando escribía lo que antecede."

(40) Larramendi hil baino bi urte lehenago, 1764-an, Bergara-n Euskal Herriko Adiskideen Elkartea - Sociedad Bascongada de Amigos del País sortu zen. MITXELENA-k (1959,121,26.oharra) Larramendi Azkoiti-ko Zalduntxoen aintzindaritzat jotzen du. Ez dakigu Peñaflorida-ren euskaldun jarrera Larramendi-ren eraginez sortua zenentz, baina ez litzateke harrigarri horrela balitz. Peñaflorida-k jesuitekin egin zituen ikasketak eta haiekin harreman onak izan zituen beti. Auzoak izaki eta ikertzaileak biak, ez ginateke oker ibiliko pentsatuz elkar behin baino gehiagotan ikusiko zutela eta elkarrekiko eraginik ere izango zutela. Dialektoei dagokienez, Peñaflorida-k hau dio **El borracho burlado** (1764), Vergara, antzerki lanaren "Advertencia"-n : "... pero luego me saltó la dificultad del dialecto [...] si me valía del de Azcoytia hubiera sido poco grato a todo el resto del País hasta la Frontera de Francia [...], y si quería usar el Dialecto de Tolosa, Hernani, San Sebastián, etc., exponía a los Actores a hacerse ridículos...". Ageri denez, Larramendi-k egin zuen Gipuzkeraren zatiketa jarraitzen du.

(41) Hemen dialektologia-ikuspuntuz dagozkigunak baizik ez ditugu ikusiko. Ikuspegi orokorragoz Ibon SARASOLA (1986,203-215), "Larramendiren eraginaz eta", **ASJU** XX-1.

(42) Jarri dugun titulua guk erabili dugun Iruñe-ko edizio faksimiletik hartua da, Ediciones Vascas, San Sebastián, 1978. Baina argitalpen hori, Iruñe-koa, alegia, bigarrena da; lehena 1738-koa da (VILLASANTE-k, **Historia de la Literatura Vasca** (1961,117), 1731. urtea ematen du. Bi edizio ote?), eta titulua ere ez da berbera: **Origen y antigüedad de la lengua bascongada y de la nobleza de Cantabria,** Barcelona. Militar bezala agertzen duen titulua ez da ere bera. Lehen argitalpenean Perochegui kapitaina zen; bigarrenerako igoa zen mailaz eta koronela zen.

Nik neronek ez ditut bi argitalpenak erkatu; Julio URQUIJO-ri (1918,17-1. oharra), **Estado actual de los estudios de la lengua vasca** (Separata), hartu dizkiot lehen edizioari dagozkionak.

(43) Ez du, halere, inoiz zitatzen Larramendi, eta bai, ordea, Oihenarto (sic), Echabes (sic), Poza, Garibay, Moret, Cortés eta Henao, zerrenda "otros Authores" esanda isten duelarik, (1978,22)

(44) Diego de Goitia-ri buruz hemen esaten dena J. SAN MARTIN-en (1982,613-618) "Diego Goitiaren euskerazko esaldi bildumak", Euskera XXVII, lanetik jasoa da.

(45) SAN MARTIN (1982,614-615).

(46) **ASJU** III (1969,3-17). (Aita Villasante-k paratutako edizioa).

(47) Fr. L. VILLASANTE (1983,403-409), "En torno a una carta, hasta ahora inédita, del escritor vasco P.P. de Añibarro", **Euskera** XXVIII.

(48) VILLASANTE (1983,404). Gramatikarako informazioa jasotzen ari da, eta honela dio berak gutunean: "Se está para imprimir un nuevo arte con las Conjugaciones Bizcaynas y Guipuzcoanas; es la más bella ocasión para que Navarra tenga las suias de seguida a dichos dos dialectos; y aunque en muchas sigue esta a Guipuzcoa, deseo saber dos cosas...".

(49) **Voces Bascongadas diferenciadas de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra,** Ed. Caja de Ahorros Vizcaina, (1963), Bilbao.

(50) L. VILLASANTE-tik (1962,356) hartua: "El diccionario castellano-vasco del P. Añibarro"ri egin zion erreseinatik, **Euskera** VII, Bilbao, 355-357.

(51) 1848-an Donostia-n argitaratua.

(52) GARATE,J.: "Apuntes acerca de F.J. Aizquibel", **Eusko Yakintza** 3 (1947,534-539); eta J.M. SATRUSTEGUI "Un documento de J.F. Aizquibel sobre la lengua vasca" **ASJU** XI (1977,131-154).

(53) 1890-ean ere **Disertación sobre la ortografía euskara** argitaratu zuen.

## 3.3. LUIS-LUCIANO BONAPARTE

Euskal Dialektologia honela izendatzera eta izatera Luis-Luciano Bonaparte Printzeari (1813-1891) esker iritsi da. Gizon argia izan zen eta euskal dialektologian ezezik, baita euskal linguistikan ere, bete-beteko mugarria ezarri zuen.

Bonaparte-ri zor diogu erizpide linguistikoz eginiko euskalkien lehen sailkapena; berari zor dizkiogu lehen mapa linguistikoa eta zenbait euskalkietako testuen argitalpenak ere, aurreraxeago ikusiko dugun bezala. Baina, beste ekintza guztien gainetik, Bonaparte-k herri osoan hizkuntzaren kezka ernarazi zuen, Bizkai-tik Zuberoa-ra eta Lapurdi-tik Goi-Nafarreraren Hegoaldeko azken mugetara eta, A. RIEZU-k (1958,150) dioen bezala, akademia oso bat bildu zuen inguruan, euskara gaietan garaiko gizonik jakintsuenekin, denak lanean ipini zituen datuak batzen, itzulpenak egiten, herrietako eta baserrietako erabilera konkretuak jasotzen, eta, azken finean, desberdintasun linguistikoa balio maila batera igotzen; bidenabar, zatiketa gogaikarri eta kontrolik gabeko ugaritasun askea zenari azpieuskalkien eta aldakien sailkapen maila eman zion.

Lurra landua zegoen, ordea, ez bait dira ahazteko Larramendi-ren lana eta emaitzak. Ordurako bazen hizkuntzaren ardura, eta Bonaparte berari ere, Euskal Herrira iritsi zenean, Zarautz-ko Frantziskotarrek lagundu zioten ikusiko dugun bezala, aholkuz eta euskal liburuak eskeiniz euskara ezagutu eta ikasteko.

Edozein modutan ere, Bonaparte-k Euskal Herrian ordurarte ibili gabeko bideak ireki zituen (1) eta tinko uste dugu XIX. mendeko azkenetan eta XX. mendeko lehen herenean emaitza ezin hobeak eman zituzten gure hizkuntzarekiko kezka eta afana sortarazi zituela. (2)

Ez gara luzatuko Bonaparte-ren bizitza kontatzen, hagitz

interesgarria den arren (3). Napoleon-en iloba hau ustekabean jaio zen Inglaterra-n; bere ikasketak josulagunekin egin zituen, eta gero unibertsitatean kimika eta mineralogia ikasi zituen. Halere, laister aldatu zituen zientziak linguistikagatik, eta benetan harrigarriak gertatu ziren alor honetan erabili zuen berotasuna eta egin zituen lanak. Hizkuntza eta dialekto asko ezagutu zituen eta, bibliofilo haundia izanik, bere lepotik Bibliako testuen itzulpen zerrenda luzea -San Mateo-ren Ebangelioaren eta Seme galduaren parabolaren testuen gainean batipat (4)- hainbat hizkuntzetako dialektotara argitaratu zuen. Italiera, gaztelania, gailego-portugesa eta euskara izan bide ziren, ezagutuz gain, gehien erabili zituenak, eta baita hizkuntza finlandiarrak eta inglesaren dialektoak ere; azken hau zela eta Gladstone-n Jaurlaritzak urteko 250 liberatako errenta ezarri zion (5).

Bigarren ezteitan euskaraz zekien emakume batekin ezkondurik, Clementine Richard Grandmontagne, Tarbets-eko alaba eta bere laguntzaile zen Claudio Otaegui-ren ezkonarreba, ez dakigu nondik edo nola sortu zitzaion euskararako grina (6), baina, gure ustez, hizkuntzalari bezala egin zituen ahaleginik haundienak eta lanik ederrenak euskarari eman zizkion. Guzti honen lekuko on izan daitezke Julio URQUIJO-ren hitz hauek ere (1908, 215):

> *"Cualquiera que sea la importancia que se conceda a las opiniones que, con relación á la naturaleza y estructura del vascuence, emitiera en sus trabajos el Príncipe Bonaparte, y fuera mayor ó menor la perspicacia de que en ellos diera pruebas [...], es lo cierto, que pocos hombres se han dedicado con más ahínco que él al estudio de nuestra lengua y ninguno le ha igualado, si se exceptúa tal vez al Sr. Azkue, en la penosa é ingrata labor de recoger hechos y materiales lingüísticos que pudieran más tarde servir de base á ulteriores trabajos" (7).*

### 3.3.1. L.- L. Bonaparte-ren bidaiak Euskal Herrira

Badira hainbat lekukotza Bonaparte Printzeak Euskal Herrira egin zituen bidaiez. RODRIGUEZ FERRER-ek (1873, 69-77) bost bidai egin zituela esaten du; IRIGARAY-k (1966, 70-72) sei egin zituela dio baina lehenbiziko laurak bakarrik kontatzen ditu, eta beste biez ez du deus esaten. YRIZAR-ek ere (1981,102) sei bidai izango omen zirela sinalatzen du, ezagutzen ez dugun seigarren hori zein izan zen argitzen ez duen arren; Bonaparte bera **Le Verbe Basque** lanaren tituluan bost txango linguistikoz mintzatzen da, (8). Seigarrenari dagokionez, ez da lekukotza sinesgarririk jaso. Gure aburuz, gakoa beste zerbaitetan legoke, hots, VILLALONGA-k, (1953-57,63), laugarren bidaiarekin egiten duen zatiketan: udaberrikoa eta udazkenekoa, alegia (ikus beherago); eta hortik jarrai daiteke azken bidaia, bosgarrena, alegia, seigarrena bezala hartua izatea. Baina izan, gure ustez, bost izan ziren.

LEHENENGOA 1856-garren urtekoa izan zen aurreneko bidaia. Aldez aurretik ezaguna bide zuen Antoine d'Abbadie izan zuen bidai-lagun eta sartzaile Euskal Herrian. Baiona-ra uztailaren 19-an iritsi zen, eta d'Abbadie beraz gain, esan bezala, laguntzaile haundi izango zituen beste bik hartu zuten han, Inchauspe kanonigoak eta Jean Pierre Duvoisin-ek. Irun-a igaro zen eta handik Donostia-ra, azterketa hemen geldituz. Gero Donibane-Lohitzunera joan zen, eta Lapurdi eta Behe-Nafarroa igaro zituen, besteen artean Cambó, Helette, Donibane-Garazi, Baigorri bisitatuz, non itzulpenak egiteko gai zitezkeen pertsonekin harremanetan sartu zen, bere laguntzaile eginez (9). Hegoaldera itzuliz Hondarribi-ra joan zen, gero Sara-ra, berriro Hondarribi-ra, eta gero Udabe Aita lagun hartuz, Araba ezagutu zuen. Urruña-ko euskal jaietan egon ondoren, berriro ere Hegoaldeara pasatu zen , Nafarroa aldean Iruñe-ra iritsiz; eta hemendik Tolosa-ra, Bergara-ra eta Markina-ra, non beste laguntzaile bipil bat ezagutuko zuen, Aita Jose Antonio Uriarte, Villalonga-k dioenez (10), eta gero Bilbo-raino iritsi zen.

Itzulera itsas-bazterretik egin zuen eta Loiola-n ere izan zen (11); Zarautz-era iritsi eta han frantziskotarren konbentuan laguntza eta orientabideak jaso zituen eta baita hainbat euskal liburu ere (12).

BIGARRENA Bigarren bidaia 1857-an egin zuen, eta biziki interesgarria gertatzen da Goi-Nafarrera euskalkirako, eta baita Bizkaierarako eta Zubererako ere. Baiona-tik, Baztan-en ibili ondoren, Iruñe-ra joan zen. Iruñe inguruetako jendeekin bilera linguistikoak egin zituen, saio luze eta nekagarrietan (13). Burunda-n zehar Bizkai-ra joan zen; Arratia-ko bailadatik igaroz, Bilbo bisitatzen du; eta handik Donosti-ra abiatu zen, bidenabar Mungia, Bermeo, Gernika, eta Gernika-ko Arbola ere, Durango, Bergara,Azpeitia, Tolosa eta Hernani ikusiz. Iparraldera pasatzen da eta Zuberoa-n zehar ibiltzen da Inchauspe lagun duela; eta baita Zaraitzu-ko bailadan ere, Otxagabia-ko euskara jasoz eta aztertuz beste bi laguntzaileren bidez: Jaurrieta-ko abadea, Pedro M. Samper eta Juan Marcos Juanco Otxagabiarra. Berriro Zuberoa-ra itzuli ondoren, Baiona-ra joan zen Londres-eruntz joateko, han bizi bait zen.

Bigarren bidai honen eta hirugarrenaren artean bederatzi urte igaro ziren, 1866-an etorri bait zen berriro Euskal Herrira. Halere, urte emankorrak izan ziren, euskal gaiak lantzeko. Collins-en katalogoak 33 bat euskal lan ematen ditu Printzeak argitaratuak (14). Nabarmendu daitezke Inchauspe-ren **Le Verbe Basque** eta Duvoisin Kapitainaren Biblia bezelako lan garrantzitsuak.

HIRUGARRENA Puntu honetara iritsiz gero eta zenbait laguntzailez mintzatu garenez, uste dugu ordua dela laguntzaile horien aipamen zehatzagoa egiteko. Zer esanik ez dago, Printzeak inondik ere ezin izango zuela egin zuen lan haundia egin Euskal Herriko lankide horien laguntzarik gabe. Printzeak eskatzen zituen datuak jasotzen eta behar zituen itzulpenak egiten, erabat ez bazen izan ere, buru-belarri aritu ziren. Lankidetza hestu honen adierazgarri Printzearekin izan zuten gutunketa da (15). Gutun oso interesgarriak, hamaika zehaztasun linguistikoz, erizpidez, jarraitu behar den metodologiaz eta abarrez

Itzulera itsas-bazterretik egin zuen eta Loiola-n ere izan zen (11); Zarautz-era iritsi eta han frantziskotarren konbentuan laguntza eta orientabideak jaso zituen eta baita hainbat euskal liburu ere (12).

BIGARRENA Bigarren bidaia 1857-an egin zuen, eta biziki interesgarria gertatzen da Goi-Nafarrera euskalkirako, eta baita Bizkaierarako eta Zubererako ere. Baiona-tik, Baztan-en ibili ondoren, Iruñe-ra joan zen. Iruñe inguruetako jendeekin bilera linguistikoak egin zituen, saio luze eta nekagarrietan (13). Burunda-n zehar Bizkai-ra joan zen; Arratia-ko bailadatik igaroz, Bilbo bisitatzen du; eta handik Donosti-ra abiatu zen, bidenabar Mungia, Bermeo, Gernika, eta Gernika-ko Arbola ere, Durango, Bergara,Azpeitia, Tolosa eta Hernani ikusiz. Iparraldera pasatzen da eta Zuberoa-n zehar ibiltzen da Inchauspe lagun duela; eta baita Zaraitzu-ko bailadan ere, Otxagabia-ko euskara jasoz eta aztertuz beste bi laguntzaileren bidez: Jaurrieta-ko abadea, Pedro M. Samper eta Juan Marcos Juanco Otxagabiarra. Berriro Zuberoa-ra itzuli ondoren, Baiona-ra joan zen Londres-eruntz joateko, han bizi bait zen.

Bigarren bidai honen eta hirugarrenaren artean bederatzi urte igaro ziren, 1866-an etorri bait zen berriro Euskal Herrira. Halere, urte emankorrak izan ziren, euskal gaiak lantzeko. Collins-en katalogoak 33 bat euskal lan ematen ditu Printzeak argitaratuak (14). Nabarmendu daitezke Inchauspe-ren **Le Verbe Basque** eta Duvoisin Kapitainaren Biblia bezelako lan garrantzitsuak.

HIRUGARRENA Puntu honetara iritsiz gero eta zenbait laguntzailez mintzatu garenez, uste dugu ordua dela laguntzaile horien aipamen zehatzagoa egiteko. Zer esanik ez dago, Printzeak inondik ere ezin izango zuela egin zuen lan haundia egin Euskal Herriko lankide horien laguntzarik gabe. Printzeak eskatzen zituen datuak jasotzen eta behar zituen itzulpenak egiten, erabat ez bazen izan ere, buru-belarri aritu ziren. Lankidetza hestu honen adierazgarri Printzearekin izan zuten gutunketa da (15). Gutun oso interesgarriak, hamaika zehaztasun linguistikoz, erizpidez, jarraitu behar den metodologiaz eta abarrez

josiak. Gutun horien azterketa zehatza arront interesgarria eta garrantzitsua litzateke, honela Bonaparte-ren lanak, "Carte linguistique" lanak hain zuzen, ezinbestez dituen hutsuneak bete ahal izango lirateke.

Printzearen laguntzaileak, euskalkiz-euskalki, hauek izan ziren: Zubererarako: Inchauspe Kanonigoa eta Jean Baptiste Archu; Behe-Nafarrerako: Cazenave Abadea (Zize-ko bailadarako) eta Sallaberry (Ibarrola-koa); Lapurterarako: Duvoisin kapitaina; Goi-Nafarrerako: Bruno Echenique; Erronkarierarako: Mariano Mendigacha eta Prudencio Hualde Mayo; Aezkerarako: Pedro José Minondo eta Martin Elizondo; Zaraitzuerarako: José Samper eta Juan Marcos Juanco; Gipuzkerarako: Juan Eloy Udabe, Jose Antonio Azpiazu, A. P. Iturriaga eta Claudio Otaegui; Bizkaierarako: Fray J. A. Uriarte (16).

Beste laguntzailerik ere izan zuen, herri konkretutako euskarara itzulpenak egin zituztenak, baina guztien izenak emateak oso luze joko luke. Haatik, d'Abbadie-ren laguntza ordainezinezkoaz gain, beste bi laguntzaile berezi ere, ezin dira ahaztu, Arturo Campión eta Aita Arana, azken hau aurrez-aurre ezagutu ez zuen arren; hauek biek lagundu ezeze, azken aldiko urteetan harekin adiskidetza izan zuten, batez ere epistolarra (17).

Aipatu ditugun izen eta laguntzaile horiek talde bikaina osatzen zuten, benetako euskal akademia zen, euskarazko materialak batzen, idazten, itzultzen urteetan aritu izan zena; oraino ez dira zeharo jaso material horien fruituak (18).

Hirugarren bidaia, beraz, laburra izan zen. 1866-ko uztailaren 21-etik martxoaren 22-aren bitartean egin zuen. Zenbait hizketa hobeki ezagutzeko beharrak eraginda egin zuen, batik bat, bidaia hau: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari-ko hizketak, eta bere azkenengo sailkapen dialektalean Hegoaldeko Goi-Nafarreraren barruan sartu zituen Nafarroa-ko aranetako hizketak. Bere laguntzaile nagusiekin, Inchauspe, Duvoisin, Uriarte, Otaegui eta Echenique-rekin, Anglet-en egin zuen lana euskalkien mugak zehazten mapa linguistikoa osatuz joan ahal izateko.

Bruno Echenique eta Claudio Otaegui lagun zituela Donibane Garazi-tik aterata, Luzaide, Orreaga, Auritze eta Garralda ibili zituen. Bidaia honetan A. J. Minondo eta Martin Elizondo ezagutu zituen; hauek egin zizkioten Aezkerarako itzulpenak eta behar izango dituen argibideak eman ere bai. Zaraitzu-tik Erronkari-ra pasatu zen, eta han laguntzaile paregabea izango duen, eta gero baita Azkue-k ere, Mariano Mendigatxa Bidankotzetarra ezagutu zuen; Pedro Hualde ere ezagutu zuen. Ezin izan zuen, ordea, berak nahi izango zukeen bezela, haranean barna sartu elurte handia egin omen zuen eta. Beste ikustaldi bat aginduz alde egin zuen, baina hauxe izan zen Erronkari-ko haranera egin zuen azkena. Aspurz, Iminizaldu eta Aribe-tik Orreaga-ra itzuli ziren Artze eta Esteribar-ko haranen barna (19). Handik, berriro ere, Behe-Nafarroa inguratu zuen astiro, azkenik Londres-a itzuliz. Urte hartan argitaratu zuen **Formulaire de Prône en Langue Basque, conservé naguère dans l'Eglise d'Arbonne,** (1866) Londres (20).

Hirugarren bidaia honetaz ere honela dio:

> *"Mais nous serions, trop long si nous voulion ici faire connaitre en détail touts les grains d'or gramatical et lexical que nous avons exploités, surtout dans la vallée de Roncal, parmi ces braves montagnards si intelligents, si hospitaliers quoique ensevelis au milieu des neiges et entourés de toutes parts de ravins, de précipices, d'ours et de loups." (21)*

Bidaia honi buruz bada kontraesanik daten inguruan. Biografo denak, eta bera ere, ikusi dugun bezala, bat datoz 1866-garren urtea ematen bidaia honi. RODRIGUEZ FERRER-ek, berriz, (1873, 72) 1865-ean ipintzen du bidaia. Zer denentz honetaz ez dakit, baina kustinoa da bidai honetan egoitza Lapurdi-n ipini zuela, Anglet-en hain zuzen, eta Baiona-ko kantoia igaro zuela, edo, bestela esanda, Lapurdi-ko lurralde historikoa. Eta gertatzen dena da, Bonaparte-k Axular-i Sara-ko elizan eskeini zion oroit-harriak 1865-eko data duela:

Pedro Axular
Euskaldun Iskribatzalletatik iztun ederrenari, ni,
Luis Luciano Bonaparte, Euskarazaleak au ipiñi nion
ez dago atsedenik
ta odei gabe egunik
zeruetan baizik
1865

Printzeak 1883-an Jose Manterola-ri idatzi zion gutun baten **Revista Euskal-Erria** 8 (1833, 404) honela dio:

> *"Habiendo leído en el número del 20 de marzo de este año la inscripción vascongada que compuse diez y ocho años hace en la losa de mármol que cubre las cenizas del célebre autor vascongado Pedro Axular...".*

Eta gutunak darrai inskripzioa egiteko oinarritu zen latineko bertsoak emanez.

Azpimarratua geurea da, daten zuzentasuna nabarmendu nahi genuen eta, izan ere 1865-ean jarri zelako oroit-harria. Agian, postaz eman zezakeen mandatua, baina ez da ez gutunik ez aipamenik ezagutzen. Villalonga-k (1953-57) artikuluaren hasieran puntu horri buruz mintzatuko dela agintzen du, baina gero ez du egiten. (Artikulu hori Baiona-n Printzearen omenaldi baten, eman zuen hitzaldi bat da, baina moztu egin behar izan zuen denbora faltaz, eta gero **Eusko Jakintza** aldizkarian esandakoaren itzulpena argitaratu zen, ez, ordea, prestaturik zuen hitzaldi osoarena.

Urte hauetan, Bonaparte-k Bruno Echenique-ri maiz asko idatzi zion; baina hutsune bat dago 1865-eko otsailaren hasieratik urte bereko irailerarte, URQUIJO (1910, 287-288). Hutsune harrigarria, bi gutunen artean hilabeteko epea zelako ohizkoa garai hartan. Beste bidairen bat ote da tartean Euskal Herrira, behar bezela dokumentatu gabea?

LAUGARRENA Hurrengo urtean, 1867-an, laugarren bidaia

egin zuen. Euskal Herria birritan ikusteko asmoa zuen, behin udaberrian, eta gero udazkenean. Udaberrian etorri zen eta laguntzaileekin Lapurdi, Bahe-Nafarroa eta Zuberoa igaro zituen: Ezpeleta, Hazparren, Hiriburu, Sara, Donapaleu, Atharratze, Bastida.

Bidaiaren bigarren zatiari dagokionez, berriz, azalpen desberdinak daude. VILLALONGA-k (1953-57, 62-63) bidaia honen argitasun zehatzak ematen ditu, honen ustez irailaren 1-etik urriaren 16-a bitartean egin zuen: Burunda, Goizueta, Arano, Lekunberri eta Ultzama-ko haranak inguratuz gero, Oltza eta Goñi ikusiz, Gares-era iritsi zen, eta hemendik, Aoitz, Aurizperri, Elizondo eta Bera-n barna, Baiona-ra igaro zen, eta handik Londres-era. RIEZU-k (1958, 158) Hegoaldeko Goi-Nafarrera aztertzera dedikatu zela dio (22); IRIGARAY-K, berriz, (1966,72) "Urdiain y demás pueblos de la Burunda, Barranca y Araquil" aipatzen ditu bakarrik. Esan daiteke,autore hauek, bakoitzak Villalonga-k dioen bigarren bidaia honen zati bat baino ez dutela hartzen.

ARANA MARTIJA-k (1984,40-41) bidaia hau egin ez ote zeneko susmoa aurkezten du, eta Inchauspe-k eta Duvoisin-ek zuzendu zioten korrespondentziak hori egiaztatuko lukeela dirudi. Guk ere eritzi hori onartzera joko genuke, Villalonga-k dakartzan datoak asko diren arren. Bonaparte-k oso zehatz antolatzen zituen bidaiak, aldez aurretik ongi programatuz egunak, iritsierako orduak, ibilerak, toki bakoitzean eman behar zuen denbora eta abar, eta dena idatziz ipintzen zuen, hainbeste gutunetan ageri den bezala. Beraz, Villalonga-k bidaia honen zehaztasunak Printzeak programaturiko datuetatik jaso zitzakeen, baina bidaia egin gabe gelditu zitekeen arrazoi politikoak eta osasunezkoak tarteko zirela; ordurako ez zebilen ongi osasunez, eta giro politikoa ere aski nahasia eta, horrelakoetan, Printzeak nor zen kontutan hartuz, bere burua zaintzen bazekien.

BOSGARRENA eta azkenengo bidaia 1869-an egin zuen. Erronkari-ra itzuli nahi izan zuen, agindua zuen bezala, toki horre-

tako hizketa aztertzen jarraitzeko asmoz, baina Espaina-ko egoera politikoak ez zuen gomendatzen Hegoaldera etortzerik. Donibane-Lohitzun-en finkatu zen, beraz, eta Lapurterako aditza aztertzera eman zen. Hara joanarazi zituen Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari haranetako informatzaile euskaldun bana bakoitzetik, honela, hiru asteren buruan, hiru haran horietako aditz-sistema osoa jaso zuelarik, eta baita lexiko sail on bat ere. Beste bi aste gelditzen zitzaionez gero, Gares, Elkano eta Oltza-ko euskaldunekin gauza bera egin zuen, eta baita helburu berdina lortu ere (23).

### 3.3.2. Materialak eta metodologia

Orain arte ikusi dugunetik atera daitekeenez, Bonaparte-k, nahiz berak nahiz laguntzaileek, bi motatako materialak erabili zituzten: zuzenak eta zeharkakoak.

Zuzenak lekukoen ahotik jasoak dira, eta bi sailetan bereiz ditzakegu:

a) Berberak jasotakoak benetako kanpo-lanean, herriak eta baserriak Euskal Herri osoan ibiliz eta bereziki Nafarroa-n eta Iparraldeko hiru lurraldeetan.

b) Printzeak eskatuz, haren laguntzaileek bildutakoak, hark seinalatzen zizkiela jaso behar zuten informazioa eta puntu zehatzak.

Zeharkakoak, berriz, itzulpenak dira. Behe-Nafarreraz, Bizkaieraz, Goi-Nafarreraz eta Gipuzkeraz eginiko San Mateo-ren Ebangelioaren itzulpenak, 1856-1857 bitartean argitaratu zituen. Urte horietan oraindik lurralde historiko bakoitzak bere euskalkia zuela uste zuen eta hura bakarrik. (24)

Eskatzen zituen itzulpen gehienak (25) Bibliakoak izan ohi ziren, nola Testamentu Berrikoak nola Zaharrekoak, eta dotrine-

nak ere bai. Orohar, gaztelaniatik edo frantsesetik euskarara, berak nahi zuen euskalki, azpi-euskalki eta aldakira egin behar izaten zen.

Hortan zorrotz jokatzen zuen: berak nahi izaten zuen aldakietara eta herriko hizketetara hertsi-hertsian lotu behar izaten zen, barietate literarioarekin nahasi gabe, eta beste hizketekin nahasteko arriskutan ere ipini gabe.

Aholkuak ere xehetasun guztiekin eman ohi zituen. Begira nola idazten zion Bruno Echenique-ri, 1861-eko uztailaren 22-an, Ruth-en Liburuaren itzulpena eskatzen ziolarik (26):

> *"Eviter comme un poison mortel pour le but que je me propose (la comparaison des dialectes basques-espagnols et basques-français), l'usage non seulement d'expressions, de tournures, etc, labourdines, basse-navarraises ou souletines, mais même celles de Urdax et de Zugarramurdi, ou de Valcarlos. Quoiqu'en Espagne, on se serve d'une varieté labourdine dans les deux premières et d'une variété basse-navarraise dans le dernier endroit,...".*

Lexikoari zegokiolarik honela dio Printzeak, URQUIJO (1908, 219-220):

> *"Si de mots tels que **iria** pour **ciudadea** manquent à Elizondo il faudrait s'informer, si le premier de ces mots qui est basque, est en usage dans quelqu'autre partie du Baztan, ou même dans la vallée de Ulzama, Anüe, etc., jusqu'à Pampelune ou même dans le Cinco Villas; mais si réellement iria ne se dit généralement dans aucun de ces pays, il faut préférer le mot dérivé de l'espagnol que est usité, à toute autre. [...] car dans tout ce qui est basque, comme **goibela**, pour nuage, **zaben** pour **cioten**, **oñaztura** pour chimista, etc., il faut suivre non seulement le Baztan, mais Elizondo **exclusivement**".*

Ortografiari buruz hona zer dioen:

> *"Quant à l'orthographe je préfère écrire toujours* ***tz*** *a u lieu du* ***tc****; le* ***tch*** *indique le* ***ch*** *espagnol et* ***ch*** *le* ***c h*** *français. Jamais la* ***h*** *aspiré."*
>
> ***"Bigar*** *por* ***bihar*** *n'est pas une corruption; quand à* ***begarria****, pour* ***bearria****, je m'en rapporte à votre décision. La* ***g*** *cependant pourrait intéresser le linguiste à cause qu'il remplace le* ***h*** *du basque français. Il foudra suivre en cela l'usage plus general d'Elizondo" URQUIJO (1908,220).*

Echenique-ri honela zioen 1862-ko martxoaren 17-an:

> *"Ce que je désire c'est que la prononciation soit la seule base de l'orthographe. Par conséquent j'écris* ***oi*** *et non pas* ***ori****. La seule chose qui me préoccupe un peu c'est la crainte que vous n'ayez oublié beaucoup d'autres* ***cas****; p.e. dans le bas-navarrais de Cize j'écris:* ***itsasoät*** *etc. au lieu de* ***itsarora****t. Je suppose que le* ***r*** *ne se supprime pas si souvent à Elizondo. En tout cas c'ést la prononciation qu'il faut suivre,* ***absolument la pronociation****, et pas autre chose." URQUIJO, J. (1910, 243)*

Zeinuak ere berak ezartzen ditu:

> *"J'aime encore à bien établir l'usage de ces trois signes: ' apostrophe,´ diérese,´ accent aigu. J'adopte l'apostrophe comme dans touts les langues qui ont l'habitude de supprimer des lettres, toutes les fois que la supression a lieu au commencement ou à la fin d'un mot. [...] Or à Elizondo il en est de même. Dans* ***contraïc 'in*** *on supprime, l'* ***e*** *et le* ***g*** *de* ***eguin****; c'est pour cela que l'apostrophe doit se trouver au commencemente du mot* ***'in*** *pour indiquer que la*

*suppression a eu lieu* ***au*** *commencement. [...] L'accent aigu enfin, je le propose seulement pour quand de deux voyelles on en supprime une p.e.* ***emaztén*** *pour le distinguer de* ***emazten, emaztéc*** *différe de* ***emaztec,*** *mais non pas* ***emazteec*** *puisqu'on ne fait entendre qu'un seul* ***e.*** *En un mot que le prononciation décide toujours."*

Zitak luze xamarrak izan badira ere -eta pilaka atera daitezke antzerakoak-, ongi ematen dituzte aditzera Bonaparte-ren lanerako lehia eta arreta haundiak.

Hala eta guztiz ere, kritikatua izan da itzulpenetan hainbeste oinarritu zelako. AZKUE-k berak (1969, XVI) A. Astete-ren doktrinaren itzulpen bat, Bonaparte-ren laguntzaile ziren Elizondo, Samper eta Hualde-k eginikoa, kritikatzean, Italia-ko esate hura aipatzen du: **Traduttore, tradittore**. J. URQUIJO ere eritzi berekoa da (1910, 259-260):

*"Si Bonaparte no hubiera escogido exclusivamente textos religiosos, el vascuence de sus traducciones no hubiera sido tan* ***mordollo****: y la razón es bien clara, puesto que es cosa sabida que nuestra antigua lengua ha tomado del latín la inmensa mayoría de las palabras eclesiásticas."*

Dena dela, argi eduki behar da Bonaparte-k ez zuela epaile eta erabakitzaile izan nahi euskararen egoerari buruz, historialari baizik, hizketa bera jasoz, zuzenak nahiz okerrak izan erabiltzen ziren formak, berak behin baino gehiagotan azaldu zuen bezala idatzi zituen gutunetan. Bestalde, gainera, oraindikan hasi gabe zegoen berariz prestaturiko galdekizunen bitartez inkestak jasotzea. Garai hartan ideia besterik izan ohi zen: material linguistiko aski homogeneoa zela beharrezko, zenbait hizketa ezberdin bereizteko ondorioak atera ahal zitezen; eta Printzearen kasuan, ondorioak erkatuz, euskalkiak, azpieuskalkiak eta aldakiak finkatzeko adinako materiala behar zuen. Itzulketa, beraz, eta testu

erligiosoena batez ere (27), malgutasun gutxikoak direnez, testu horiek itzulpen askeegirik ez bait dute onartzen, materialik egokiena da nahi zituen helburuak lortzeko, eta areago itzulpena herrimailako hizketara egin behar zenez gero, jende xehearen artean Dotrina eta Biblia zirelako testurik ezagunenak.

Edozein gisatan ere, lan modu hori zen usatuena garai hartan. Bonaparte-ren metodologia Coquebert de Montbret-ek sortutakoa edo zen; 1807-an inkesta handi bat hasi zuen posta bidez, eta 1931-n argitaratu ziren inkesta horren erresultadu garrantzitsuenak (28). Inkesta hori Frantzia-ko herri-hizketetara eginiko Seme galduaren parabolaren itzulpenak biltzeko izan zen; eta horren xedea ere, gero Bonaparte-k Euskal Herrian erdietsi nahiko zuenaren antzerakoa zen: Frantzia-ko XIX. mendearen hastapenetako egoera linguistikoa errejistratu eta honela lurralde hartako mapa linguistikoa moldatu, bertan bi gauza hauek agertuz: Frantsesaren mugak eta haren dialektizatze maila (29).

POP-ek (1950,21) jasotzen ditu C. de Montbret-en hitzak gai honi buruz:

> *"Parmi les traductions de ce morceau [...] on a choisi qui ont paru le plus caractéristiques. Cependant on ne se dissimule pas qu'il s'en trouve dont les différences sont peu tranchées: mais les dialectes d'une même langue appartiennent touts à un fonds commun; on passe le plus souvent de l'un à l'autre par des nuances peu sensibles d'abord, mais qui le deviennent à proportion de la distance de lieu où ils sont en usage."*
>
> *"Ces justes observations furent souvent confirmées par les enquêtes dialectales modernes; Coquebert de Montbret les a reconnues depuis plus d'un siècle."*

Lan modu honek baditu bere mugak, eta begibistakoak direnez ez dago hemen aipatzen ibili beharrik; eginen dugu azkenean,

gaia burutzerakoan, Bonaparte-ren lanaren garbiketa eta han agertuko dugu gure erizpidea. Itzulpena ez zen izan, gainera, lehen ikusi dugunez, materiala biltzeko iturri bakarra, eta horrek garrantzi haundia du.

Batzen zituen itzulpenak argitaratuz joaten zen. Diru faltaz, biltzen zituenak baino askoz ere gutxiago (30). Bere lehen asmoa dena argitaratzea zen, eta baita Biblia-ren berebiziko edizioa egitea ere, dialekto guztiak batuz; dotrinekin ere beste hainbeste egin nahi zuen (31), baina Frantzia-ko inperatorea zen bere lengusua jausi zenean, Printzearen egoera ekonomikoa makurtu egin zen, eta argitalpen asmoak ezin atera ahal izan zituen aurrera nahi bezala.

### 3.3.3. Bonaparte-ren sailkapen dialektala

Ikusi bezala, Printzearen helburua, euskararen inguruko lanetan sartu zenean, euskararen sailkapen dialektala egitea zen. Lan hau luzea gertatu zen, urte aunitz hartu zizkiona. Denetara lau sailkapen egin zituen. Azken xehetasunetaraino ez bada ere, gehiegi luzatuko bait ginateke, laurak ikusiko ditugu, horiek aztertuz agertuko zaizkigulako erabili zituen erizpideak eta beraiei ematen zien balioa, eta, batez ere, nola joan zen erizpide horiek aldatuz lau sailkapenak egitera iritsi zen arte, euskalki bakoitzaren errealizazio ezberdinak ezagutuz zihoan neurrian (32).

Dialektologian aritu den edozeinek daki zein zaila den muga dialektalak ezartzea, eta inork jakitekotan Bonaparte-k zekien hori; bazekien, gainera, zein kritika egingo zitzaion, baina, arrazoitan oinarrituz, eutsi egin zien, halere, bere erizpideei; eta gaur egun laugarrena eta azkena izan zen sailkapena baliagarria da gero egin zizkion ikutuekin, eta denek onartzen dugu aldaketa haundirik gabe (33).

### 3.3.3.1. Lehen sailkapena (34)

Lehen sailkapen saioa 1861 ingurukoa da. Ezin daiteke esan benetako sailkapena izan zenik, dialektoen zedarritzera hurbilketa bat baizik. Bruno Echenique-ri idatzi zizkion gutunetan agertzen ditu zedarriok. Goraxeago 1861-eko uztailaren 22-an idatziriko gutun bat ekarri dugu, eta gutun horretan oraino Nafarroa-ko eta Iparraldeko hizketei buruz ez da azaltzen. Konturatzen da Urdazubi-ko eta Zugarramurdi-ko hizkerak Lapurterakoak direla dialekto ikusmiraz. Ikusten du, baita ere, Bortzirietakoa eta Baztan-goa ez direla berdinak; eta Nafarroa-ko mendebalde euskalduna Gipuzkeraren antzerakoagoa dela, eta Burunda-ko euskarak, berriz, Bizkaiera kutsutxoa duela.

> *"On peut dire jusqu'à un certain point, que la Haute-Navarra et par conséquent l'Espagne, renferme les six dialectes (35): Burunda, Lecumberri, Elizondo, Urdax, Valcarlos, Roncal. "*

Honako ondorio hau ateratzen duelarik:

> *"Le Haut-Navarrais ressemble, sans contredit, au labourdin; mais il faut en même temps admettre qu'il diffère" J. URQUIJO (1908,219).*

Lehenengo urte hauetan, Bonaparte asko arduratzen da aldaki mintzatuez, eta batu egiten ditu eta itzulpen zorrotzak eginarazi ere bai, baina euskalkiez ari denean literatur ekoizpenean oinarritzen da. Begira zer diotson Bruno Echenique-ri 1861-eko irailaren 7-ko gutunean, URQUIJO (1908,650-657):

> *"Tandis que le Guipuscoan, le Biscayen, le Labourdin et le Souletin existent comme des dialectes littéraires ayant une petite litterature imprimée, le Haut-Navarrais et le Bas-Navarrais, qui sont tout aussi bien des dialectes que les premières, ne possèdent*

*pas de livres. Je ne suis pas obligé, pour ce dialecte, d'inventer un basque théorique qui ne se trouve nulle part..."*

Esango litzateke literatura idatzirik ez duten euskalkiak ere literatura horretaz hornitu nahi lituzkeela, eta horregatik eskatzen dituela hainbeste itzulpen.

1862-an Printzeak hamaika gutun igorri zizkion Echenique-ri, eta horietako hiruk datu interesgarriak dituzte sailkapen dialektalerako. Nafarroa-ko haranetako hizkuntz material beharra ageri du batez ere: Ultzama-koa, Bortzirietakoa, Baztan-goa, Aezkoa-koa, Zaraitzu-koa, eta abar (1862-ko urtarrileko 2-ko gutuna). Oraindikan, bestalde, sailkapenerako euskalki literarioen eraginak irauten du; 1862-ko otsailaren 19-an gutun bat idatzi zion Echenique-ri, J. Urquijo-ren aburuz, URQUIJO (1910,237), Printzeak hari idatzi zizkionetatik garrantzitsuenetarikoa, eta honela esaten zion gutunean:

*"Je compte: le biscayen du centre (dial. pour ainsi dire inculte); le biscayen littéraire des livres; le guipuscoan littéraire; le haut-navarrais (dialecte inculte); le labourdin litéraire; le bas- navarris (dial. inculte); le souletin littéraire."*

Zazpi dialekto ematen dizkio, beraz, euskarari, berak garbi esaten duenez:

*"Je suis d'opinion que la langue basque possède* ***sept dialectes****, dans le sens que les lingüistes modernes donnent au mot* ***dialecte.*** *Je n'ai adopté cette opinion qu'aprés des études très approfondies sur le sujet et je ne pense pas qu'on réussisse facilement á prouver, je ne dis pas aux basques, mais aux philologues européens en général, que ma manière de voir ne soit la vraie."*

Eritzia aldatuko du geroago. Nolanahi ere, une honetan haren xede nagusia erizpide dialektalak funtsezko oinarritan

finkatzea da, eta gero dialekto denak jasoko dituen Biblia argitaratzea, honela dialekto horiek behar bezala agertu ahal izateko, 62-ko urriaren 9-an aitortuko duen bezala:

> *"L'année prochain je commencerai à imprimer toutes vos belles traductions [...] qui doivent faire partie d'une Encyclopédie Biblique Basque contenant toute traduction biblique..." URQUIJO (1910,257).*

1862-ko apirilaren 26-ko eskutitzean ematen ditu eremu dialektalak finkatzeko zenbait erizpide. Fonetikoak dira, hain zuzen: Urdazubi eta Zugarramurdi-ko hizketetarako aspiraketa; edo bokal armonizazioa Baztan Haraneko hizketa motak bereizteko. Adib.:


> Elizondo-n: semea, mendia, otsoa, burua
> Oronotz-en: semia, mendiya, otsua, buruba ("précisément comme à Vera qui n'est pas Baztan")
> Arraiotz-en: semie, mendiye, otsue, burube ("précisément comme à Ochandiano en Bizcaïe et à Villareal de Alava")
> Irurita-n, Ciga-n, Aniz-en, Almandotz-en: semea, mendie, otsoa, burue ("précisément comme à Cegama"). URQUIJO (1910,245-46)

Berriro ere, urte bereko ekainaren 27-an idatziko dio Echenique-ri URQUIJO (1910, 252-253), eta esaten dio, huskeria batzuren faltaz, prest duela **Langue basque et langues finnoises** lanaren edizioa. Lan hau euskararen eta finlandiar hizkuntzen arteko azterketa erkatzailea da, maila fonikoan armonia eta bokalen aldaketak erkatuz, eta morfologian, nominatibo plurala, deklinabideko forma mugatua eta aditz-jokoa; hainbat idekotasun agertzen dituzte alor hauetan. Lan honetan euskalkien sailkapen orokorra egiten du, guk lehenbizikotzat hartu dugun sailkapena.

Gutunekin jarraituz -azkenean azalduko bait dugu sailkapena-, gutun honetan bertan mugaketa garrantzitsuak eskeintzen ditu Bizkaieraren hedaduraz. Eta iduriko luke gainera, urte honeta-

rako zerbait baztertzen hasia dela euskalkien sailkapenerako idatzian oinarritzeko zuen uste aldakaitza.

Bizkaierari dagokionez, azpieuskalkien eta aldakien artean egiten duen banaketa honela azalduko genuke:




Ekialdeko azpieuskalkian, Markina-koaz gain Bergara-koa ere sartzen du, honen barnean Antzuola ere sartuz ("Le guipuscoan, de ce coté, ne commence qu'à Villarreal y Zumarraga"). Eta Bergara-koa Gipuzkerarekin kutsatuagoa dagoen arren, Bizkaiera dela dio, Markina-koa bezala.

Mendebaldeko azpieuskalkiari dagokionez, honela sailkatzen ditu tokiak: Barambio-n Orozko-koa hitz egiten da, eta hau Arratia-koa da, zertxobait aldatzen bada ere. Laudio-n Bizkaiera erdikoa mintzatzen da, eta baita Zigoitia-n ere, honek bere ñabardurak dituen arren. Araba-ko Legutio Otxandio-ko aldakikoa da;

eta, azkenik, Gatzaga-koari dagozkio, aldaketa txiki batzurekin bada ere, Aramaio-koa, Gatzaga bertakoa eta Leintze bailarakoa orohar, Ullibarri Ganboa-koarekin batera.

Urte hartan, 1862-n alegia, Echenique-ri idatzi zizkion gainerako hiru gutunek badituzte zenbait puntu berdintsu. Hasia da mapa linguistikoa prestatzeko asmoaz behin eta berriz mintzatzen. Gero, Nafarroa-ko zenbait herrietako edo, hobeki esanda, zenbait haranetako xehetasunak jaso nahiz agertzen da hiruetan: Aezkoa-ko haranekoak, Orba-koak, Aoiz-ko Lurraldean, eta Ameskoa Beherekoak, Lizarra-koan; oraindikan euskaldunak, dituen datuen arabera, baina ez ditu ezagutzen, eta aldaki horietako doktrinaren itzulpenak eskatzen ditu hisituki.

Horrez gain, honako toki hauetako aldakien analisi zehatza egiten du:

1. Baztan (Elizondo-koa)
2. Bera
3. Ultzama (Lizaso-koa)
4. Burunda
5. Orba
6. Aezkoa
7. Erronkari
8. Zaraitzu
9. Bergara

Aztertzen dituen ezaugarriak hauek dira nagusiki: armonia bokalikoa, yod-en ahoskera, xistukari frikarien eta sabaiko afrikarien ahoskera, eta ergatibo pluralaren errealizazioa.

Prest zuen **Langue basque et langues finnoises** urte honetan argitaratu zuen Londres-en, eta han beste hau seinalatzen du (28. or., ohar 9):

> *"1º Que le biscayen est parlé non seulement dans toute la partie de cette province où le basque est en usage, mais en outre dans une partie de Guipuscoa*

*eta dans toutes les localités de l'Alava, peu nombreuses à la vérité, où l'on ne parle pas exclusivement l'espagnol. 2º Que le guipuscoan n'est parlé qu'en Guipuscoa, la seule de las provinces basques où l'on parle par tout l'euscara et qui soit en même temps entourée de pays faisant usage de cette langue. 3º Que le haute-navarrais n'est parlé que dans la Haute Navarre. 4º Que le labourdin n'est pas seulement parlé dans la Labourd, mais aussi à Urdax et Zugarramurdi dans le Haute Navarre. 5º Que le bas-navarrais est en usage en Basse-Navarre et en même temps à Bardos en Labourd, à Domezain en Soule et à Valcarlos dans la Haute Navarre. 6º Que le souletin enfin étend son domaine hors de la Soule, soit à Esquioule dans l'arrondissement d'Oloron, soit dans les vallées de Salazar et surtout de Roncal dans la Haute Navarre, où l'on fait usage d'un dialecte qui ne peut être rapporté selon nous qu'en souletin."*

Zati luze honetan euskalkien banaketa geografiko osoa egin du, xehetasun gutxirekin, egia esan, eta honegatik bukaeran dio: "Voyez pour plus de détails ma carte linguistique du Pays Basque". Hortik ondoriotzen dugu, beraz, hasiera-hasieratik zuela mapa linguistikoa egiteko asmo tinkoa.

Burutzeko, eta laburpen gisa, esan daiteke lehen etapa honetan, 1861-etik 1863-rakoan, sailkapena baino gehiago sei euskalkien bereizketa egiten duela; horietatik ziur agertzen da, aski ongi ezagutzen dituelako, Bizkaiera aipaturiko azpieuskalki eta aldakiekin; Gipuzkerarekin, Gipuzkoa osoa hartuz, mendebaldea izan ezik, hau Bizkaierarena delako; Lapurterarekin, Lapurdi-z gain, Bardoze izan ezik, Zugarramurdi eta Urdazubi hartzen dituela. Beste euskalkiei dagokienez ez da hain garbi azaltzen, mugak nahiko aldakorrak bait dira unetik unera; euskalkien hizkuntz zati nagusiari dagokionez ez dago zalantza haundirik, eta erizpide orokor horren arauera Goi-Nafarrera, Behe-Nafarrera eta

Zuberera izango lirateke bereizten dituenak; baina azpi-sailkapenak ez daude batere garbi eta nahiago dugu abururik ez arriskatu (37).

Gainera, garai honetan euskalki literarioen ideiari eusten dio oraindikan nagusiki, testu idatziak dituzten euskalkiei, hain zuzen (38). Aurreneko eta hastapenetako sailkapen honen ardatz erreferentziala hori bera baizik ez da izango, hau da barietate dialektalak literatur idatzia izatea edo ez izatea. Hasierako ideia eragile hau indarra galduz joanen da astiro-astiro, eta erabat ahaztuko da, azkenengo sailkapenean batipat.


### 3.3.3.2. Bigarren sailkapena

"Bigarren sailkapena" dei diezaiokegun sailkapenari hurbilketa 1864-1865 urteetan gertatu zen. Aurreko urteetako ikuspegiaren aldaketa nabari daiteke zenbait alderditan, Bruno Echenique-ri zuzenduriko gutunetan. Hasiera batetan aurreko pentsamolde bera agertzen du, noski.

Halere, 1864-ko urtarrilaren 9-ko gutunean, URQUIJO (1910, 271), planteiatuko du Nafarreraren Hegoaldeko aldaki baten izatea, Aoiz hartzen duelarik gunerik errepresetagarrientzat. Hautatu behar ziren guneen edo tokien arazoak kezka haundiak sortzen zizkion, eta honela plateiatzen zion Echenique-ri:

> *"Tout ce que je désire c'est de bien choisir les points topographico-linguistiques de la Navarre. Or les voilà, si vous les approuvez: 1. Vera; 2. Elizondo; 3. Garralda; 4. Aoiz?; 5. Lizaso; 6. Bacaicoa."*

Zaraitzu-ko eta Erronkari-ko hizketak Zuberera-espainar azpieuskalki bezala hartzen ditu, bi aldakitan banaturik aldi berean, eskema honen arauera (39):




Euskal Herriko mapa linguistikoa -"à la quelle je travaille depuis longtemps"- igorriko diola esaten dio. Iruñea inguruko, hau da, Burlata-ko, Arre-ko, Billaba-ko, Berrioplano-ko eta abarreko egoera linguistikoa egiazta diezaiola eskatzen dio, hau da, euskarrik baden edo ez. Eta beste hainbeste Lizarra-ko Auzi-Barrutiko herri batzutakoa, Ameskoa Goikoa eta Behekoak, hala nola, Zudaire-koa eta abar.

Yod-en ahoskeraz Erronkari-n eta Otsagi-n oraindik ere arduratzen da, hots horrentzat sabaiaurreko igurzkari ahoskabearen ahoskera egiaztatzen duelarik; xistukarien ahoskera frikari eta afrikariez ere galdetzen dio.

Benetan harritzekoa da Bonaparte-ren ahaleginaren haundia. Bederatzi urte luzetan, eta Euskal Herritik at izanik, aritu zen joranik ikaragarrizkoenaz euskararen mapa egiten. Ikusten ari garen urte hauetan, bizi den Paris edo Londres-tik koordinatu behar ditu Euskal Herrian material linguistikoa biltzen ari zaizkion laguntzaileak, itzulpenen bidez eta lurralde bakoitzeko euskararen egoera jasoz, batipat Naparroa-koa ez bait zuen honen Erdialdea behar adina ezagutzen. Ez da, beraz, batere harritzekoa dudamudak eta kontraesanak inoiz arkitzea, benetan ikertzen duen tokitik oso urruti bait dihardu kanpo-lana egiten.

1864-ko hilabete hauetan, beraz, bere ahaleginak Nafarroako tokien berriak zehaztu nahi zituen,lehen aipaturikoez gain, Aezkoa-koak, Burunda-koak, Arakil-goak; haraneko hizketa egokien errepresentatzen zituzten herriek, zein zen egoera, erabileraren ezaugarriak eta abar, horiekin mugaketak ongi egiteko eta egoera egiazkoa zorrotz adierazteko.

Urte honetan hasten da Iruñea eta Irurtzun bitarteko herriguneetako hizketaz eta, orohar, Araitz-ko, Larraun-go eta Basaburua-ko haranetakoaz bereziki arduratzen. Horretarako erizpide bezala aditz laguntzailearena hartu zuen, 1864-ko azaroko 7-ko gutunean dioen bezala, URQUIJO (1910, 280):

"1º Si on y dit **naiz, zare** ou **zara, da, gare** ou **gara, zarate** ou **zarete, dire** comme à Elizondo et dans le Labourd, ou bien **naiz, zera, da, guera, zerate, dira,** comme dans le Guipuscoa."

"2º **dut, duzu, dugu, duzue** ou **duzute** ou bien **det, dezu, degu, dezute** ou **dezue**."

"3º **Ceren ona baita** ou bien **ceren ona dan** [...]. Le **baita**, le **baitu**, ect. ne sont pas guipuscoans. [...]. En connaissant ces trois particularités, il me serait facile de déterminer la limite entre le vrai navarrais et le guipuscoan." (40)

Gutun berean Bonaparte-k lau dialekto literarioen ezaugarri bereztaileen koadroa eskeintzen du: Bizkaierarena, Gipuzkerarena, Lapurterarena eta Zubererarena. "Izan" aditzaren orainaldiko NOR formen paradigma osoa eskeintzen du jarraiberean: "naz, naiz, niz"; NOR-NORK formena: "dot, det, dut, düt"; "cein dan, cein den" eta "cein baita"; halaber, **jaunagan** ala **jauna baithan;** komitatiboa: **jaunagaz**, j**aunarekin**, **jaunarequi**; artikulo mugatzailea lexemaren oinari lotua doan ala ez: **alabia**, **alaba** (ez du Zubererako "alabá" aipatzen); ergatibo plurala: **guizonak**, **guizonek**; eta lexikoari buruz, **domeca**, **igandea**, **esan**, **erran**, **becoquia**, **copeta**, **borondia**, **belharra**. URQUIJO (1910,282).

Eta honela amaitzen du (282-283):

> *"N.B.-Le vrai dialecte navarrais espagnol est celui qui dans les points que je viens de citer, mais surtout dans le verbe, est plus rapproché du Labourdin que du Guipuscoan ou du Souletin. D'après ce principe nous avons:*
>
> *Elizondo, Vera, Lizaso -- **navarrais***
> *Urdiain, Echarri-Aranaz -- **guipuscoan***
> *(Urdiain participe un peu du bizcayen).*
> *Ochagavia, Roncal -- **Suletin***
> *Aezkoa? je l'ignore*
>
> *Larraun, Araiz, Basaburua mayor y menor? Je l'ignore mais je voudrais bien le savoir.*
>
> *Aoiz? je l'ignore."*

Hurrengo urtean, 1865-ean, interesik haundiena urtarrilaren 24-ko gutunak du; besteek ez dute gauza berririk eskeintzen. Berriro aipatuko dugu urte honetan izan zen gutun hutsunea zazpi hilabetetan, ohi ez bezala deus idatzi gabe. Urtearen azkenaldian idatzi zituen eskutitzetan hurrengo urteko bidaia prestatzen du, 66-an Iparraldean eta Nafarroa-n zehar bereziki egingo duena.

Urtarrilaren 24-koan, URQUIJO (1910, 286), poz haundia agertzen du azkenean ere Aezkerara itzulitako dotrina jaso duelako . Eta euskalki honetaz dio:


> *"Ce sous-dialecte est réellement un des plus intéressants pour la science linguistique. Ce n'est pas du navarrais espagnol, comme celui d'Elizondo, Vera, Lizaso et Araiz; ce n'est pas du Guipuscoan, comme celui d'Urdiain et de Huarte-Araquil, ce n'est pas du souletin, comme celui de Roncal et Ochagavia, mais c'est un sous-dialecte distinct du Bas-navarrais de France. Il a pour frére le bas-navarrais de Baïgorry et*


*le bas-navarrais du Labourd dèpuis St. Pierre d'Irube jusqu'à Hasparren et Briscous."*

Honek aurrerapena suposatzen du hizkuntzaren banaketan, jarraian dioenagatik, batez ere, aditzean eta lexikoan oinarrituz bi dialekto, beren azpieuskalki berezituekin daudela, ondoriotzen bait du, URQUIJO (1910, 287):

*"...il est clair qu'à Hasparren, p.e. le verbe est plutôt souletin que labourdin, de même qu'à 'Baigorry, de même qu'à Garralda; mais comme les mots tiennent du labourdin plus que du souletin, nous avons pour ces trois sous-dialectes, malgré leurs différences, précisément ce qu'il nous faut pour les appeler des sous-dialectes bas-navarrais,..."*

Hori horrela izanik, dialekto hauen eskema honela gelditukо litzateke:






Zize eta Amikutze Zubereran sartzen ditu, aditzagatik eta aditzaren errespetuzko erabileragatik,zuketagatik, alegia: "cer duzu", "cer da"-ren ordez, aldaketa edo erabilera hau Donibane-Garazi-ko eta Donapaleu-ko argitalpenetan egiaztatzen duelarik.


1865-eko urtean zehar lan bat argitaratzeko asmoa agertzen du, non jaso nahi lukeen euskararen banaketa euskalkietan, azpieuskalkietan eta aldakietan aditzaren eta hiztegiaren azterketa zientifikoan oinarritua.

Halere, guk dakigunez, urte honetan ez zuen horrelako lanik argitaratu. Beharbada hurrengo urtean, 1866-an, argitaratu zuen **Formulaire de Prône en Langue Basque** lanari dagokio hor dioenak. Gorago mintzatu gara lan horretaz, eta izan ere sailkapen berri bat aurkezten du arestian ikusi dugunetik bereizten dena, eta, beraz, hirugarren sailkapentzat hartzen dena.

Nolanahi ere, esku artean darabilgun gutun honek, 1865-eko urtarrileko 24-koak, alegia, ideia bat du benetan bereizgarri gertatuko dena "3. sailkapena" delakoan; Nafarroa-ko lurraldeari ez diola euskalki berezirik ezartzen, beste euskalki guztietan, Bizkaieran izan ezik, parte hartzea baizik. Jarraiko urteetan garbiago azalduko da hau, baina orain ere somatzen da erdizka bada ere, URQUIJO ( 1910,286):

*"Il n'y a que le biscayen, le guipuscoan, le labourdin et le souletin qui aient un verbe vraiment caractéristique. Le haut-navarrais et le bas-navarrais se distinguent comme dialectes intermédiaires, ayant le premier une grammaire plutôt labourdine, et un dictionnaire plutôt guipuscoan, tandis que le second présente une grammaire plutôt souletine avec un dictionnaire plutôt labourdine."*

Bigarren sailkapen honetan, beraz, ez dute ez Lapurterak ez Bizkaierak aldaketarik izanen aurrenengo sailkapenari begiratuz. Gipuzkerari, berriz, berdin geldituko den arren Gipuzkoa-ri dagokionez, bi azpieuskalki berri sartuko dizkio, eskema berri hau sortuz:




### 3.3.3.3. Hirugarren sailkapena

Hirugarren sailkapena gauzak zehatzago ezagutu ondoren egina da, tokian bertan egina, 1866-an egin bait zuen hirugarren bidaia edo txango linguistikoa Euskal Herrira.

Hemen bi hilabeteetan izan zen (41), eta Iparraldeaz gain, Aezkoa-ko, Zaraitzu-ko eta Erronkari-ko haranak inguratu zituen bereziki -Erronkari-koa erdizka, eguraldi txarra izan bait zuen-; eta azkenengo sailkapenean osatuko dituen beste haran batzu ere ikusi zituen, Hegoaldeko Goi-Nafarrerarenak hain zuzen: Artze, Esteribar, Oltza, eta Auritze eta Orreaga. Luzaide ere aztertu zuen bidaia honetan (42). Edonola ere, orainartean Printzearen ezagutzatik at gelditzen zen eskualde honek hirugarren sailkapen honetan ere hartzen du bere toki berezia.

Nafarroa-ko Hegoaldeko hizketa bereizteko ezaugarri morfologikoak batipat jasotzen ditu: "-ek" pluraleko ergatiboa erabiltzea edo ez erabiltzea; deklinabide animatuko "-gan" atzizkiaren erabileragatik, edo horren ordez "baitan" erabiltzen delako. Ezagunak zituen, bestalde, Aezkeraren bi ezaugarri bereziak, bata erakusleen hasierako leherkari belare ahostuna, "gau, gori...", eta bestea, aditzen iraganaldiko "-n" ezaugarriaren falta, "nue, zue..." eta abar. Aezkera inguruko haranetako hizketatik bereizteko, jakin nahi du baita ere aipaturiko arazo horiek nola gertatzen diren Longida, Gares eta abarreko haranetan (1866-ko abuztuaren 5-eko gutuna), URQUIJO (1910,294).

Behe-Nafarrera ere aztertzen du bidaia honetan, **Formulaire de Prône** laneko "Observations" delakoan garbi ageri den bezala, non egiten bait du, Behe-Nafarreraren ezaugarrien azterketa zehatzaz gain, sailkapen antzerako bat ere.

> *"Nous considérons comme bas-navarrais celui des cinq dialectes basques qui, tout en ayant le verbe intransitif en **niz, zira, gira, dira**, etc., ne possède pas le traitement respectueux, soit en **zu**, soit en **chu**." BONAPARTE (1866,27):*

Bost euskalki hauek honela azaltzen ditu:

*"1- Le guipuscoan, caractérisé par **det, dezu**, etc.*
*2- Le biscaïen, " par **dot, dozu**, etc.*

*3- Le navarro-laburdin* " par ***dut, duzu**, etc.*
*4- Le bas-navarrais* " par ***niz**, etc. Sans le traitement respectueux.*
*5- Le navarro-souletin* " *par le traitement respectueux, "BONAPARTE (1866,33)*

Nafarroa bertako dialektorik ez da agiri eta horrexek harritzen du aurrenik, lehen esan dugun bezala; Goi-Nafarrera aipatu ere ez da egiten. Lurralde honek badu beste guztietarik, Bizkaieratik izan ezik, baina ez bide du bere euskalkirik. Hona Printzearen beraren hitzak (1866, 33-34):

> *"N.B. L'étude sur les lieux mêmes de la Navarra espagnole vient de nous prouver d'une manière évidente que cette province [...] n'a pas de dialecte qui lui soit propre, mais qu'elle se divise entre les autres, le biscaïen excepté."*

Nafar-Lapurteraz ere Lapurtera bera hartzen du euskalki honen legezko ordezkotzat:

> *"Le navarro-labourdin y domine, mais ce dialecte a pour représentant légitime le sous-dialecte labourdin de France."*

Eritzi berdintsua du Araba-ko euskal herriei buruz ere: ez dute bere dialektorik eta Bizkaiera da erabiltzen duten euskalkia. Eta **Langue Basque et Langue Finnoises** lanean egiten zuen bezala, irakurlea zazpi probintzietako mapara igorriz amaitzen du, han beharrezko xehetasunak ikusi ahal ditzan.

Zubererari, edo hobeto esanda, Nafar-Zubererari dagokionez azpieuskalkien sailkapena aldatzen du, bost azpi-euskalki ezartzen dizkiolarik, errespetuzko edo zuketazko formetan oinarrituz bereziki. Sailkapena honela uzten du:

NAFAR-ZUBERERA:

1. Soule-ko Zuberera: Zuberoa.
2. Erronkariera: Erronkari Harana.
3. Zaraitzera: Zaraitzu-ko Harana.
4. Zize-Amikutzekoa- Zizera: Zize.
   Amikutzera: Amikutze.
   Bardozera: Bardoze.
   Arberera: Arberua.
5. Aturrera: Urketa,Lehuntze, Beskoitze,Mugerre
   Elixaberri-rekin, Hiriburu.

Nafar-Zubereraren eta Behe-Nafarreraren arteko muga linguistikoa ezartzeko erabili zuen erizpide bakarra aditzaren tratamera izan zen. Zubereraren azpieuskalkirik konplexuena Zize-Amikutzera da, lau barietatetan banatzen delarik, eskeman azaldu den bezala. Zertan oinarritzen da, ordea, banaketa hori egiteko? Hori ez da esaten, baina ziurrenez armonizazioan eta aditzean izango dela pentsa daiteke.

BEHE-NAFARRERA: Honela eratzen du:

Baigorri-koa: Baigorri, Orzaize, Arnegi, Luzaide.
Lapurtera:
I- Izenik gabea: Behe-Nafarroa-n -
Aiherra
Lapurdin: Lekuine, Hazparne,
Luhuso, Makea, Lekorne.
II- Lapurdi-koa: Kanbo, Ezpeleta,
Haltsu, Itsasu,
Larresoro,Zuraide, Milafranga.
Aezkera:
Aezkoa-ko Harana: Abaurregaina,
Abaurrepea, Aria,
Aribe, Garaioa, Garralda,
Orbaizta, Orbara, Iriberri.

Lapurterak bi aldaki ditu: batari ez dio izenik ematen, eta

bestea, Lapurdi-koa, aldaki honetako herri denak Lapurdi-koak direlarik.

Sailkapen honetarako erabili zituen erizpideak berak ematen ditu (1886, 28-29). Baigorri-ko Behe-Nafarrerak, berezkoak, alegia, "-ua → ia" erako armonizazio bokalikoa du, "buria"; galdetzeko "-a" du ezaugarri bezala, "duta?"; partizipioan **izan** eta **ukhan** bereizten ditu, iragankorretarako "ukhan" erabiliz laguntzaile.

Behe-Nafarreraren barneko Lapurteraren lehen aldakian ere, Baigorri-koan bezala, "izan/ukhan" bereizketa arkitzen dugu, eta "-a" galdegilea ere bai, baina armonizazioa "-uya" egiten du, "buruya". Beste aldakiak, Lapurdi-koak, armonizazio bokalikoa "-uya" egiten du, baina ez du "-a" galdegilea erabiltzen eta ez du "izan/-ukhan"-en arteko bereizketa ere.

Aezkerak, azkenik, ez du beste bi azpieuskalkien ezaugarrietakorik; armonizazio bokalikoa "-ua" egiten du, baina "u" hotsa "u" eta "ü" hotsen tarteko bezala ahoskatuz. Hots honi buruz honela dio:

> *"Ce son se recontre, mais non pas d'une manière constante, en d'autres localités de la Navarre Espagnole, notamment dans les vallées de Baztan, d'Arce, d'Erro, de Longuida, et on peut même l'entendre quelquefois dans certaines localités françaises du sous-dialecte qui précède." BONAPARTE (1866, 29)*

Deskribapen hau interesgarria da, garbi agertzen duelako bazela tarteko hots bat, euskal fonetikako ohizko deskribapenetatik kanpo gelditzen dena eta guk geuk ere mende bat geroago aditu ahal izan duguna.

Aezkeraren beste ezaugarri berezi batzu seinalatzen ditu, betiere bere dialektokideetatik bereiziz: aspiraketa falta; sabaiaurreko frikari gorraren ahoskera yod-aren ordez, "xau"; erakuslee-

tan **gau**, **gori**,..., baina **ura** izenordain bezela eta **gura** determinatzaile bezala, "-n"-rik gabe aditzaren iragana.

Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari, Piriniotako hiru Haran horietako lexikoaren eta gramatikaren azterketa eta dialektoen sailkapen orokorra aginduz burutzen du gutuna (1866,33), "dans lequel nous avons enrégistré tout ce qu'il nous a été possible de ramasser". Eta gainera euskal deklinabideari eta lexikoari dagokienez honako hau eransten dio:

> *"les soi-disants cas et declinaison basques, aussi bien que la partie lexicale de l'euscara, ne pourront jamais être traités à fond, même dans un seul de ses dialectes, tel que le labourdin ou le guipuscoan qui est le moins incomplet des cinq dans son ensemble, sans que l'on mette à contribution tous les sous-dialectes et toutes les varietés dont le dialecte étudié se compose." BONAPARTE (1866,34)*

Bada beste lan bat ere hirugarren sailkapen hau ematen duena. Lan hau argitaratzeke gelditu zen, baina eskuizkribuak itxura guztiak ditu inprentarako prestatua izanarenak (43). Haren titulua hau da:

**Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres; suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et precedée d'une nouvelle classification des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'euscara. D'aprés de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866, 1867. Par le prince Louis-Lucien Bonaparte.** Londres. (Datarik gabea).

Amaigabeko titulu honek berak adierazten du dena. Armonizazio bokalikoa batzen du, hitzen oinarri guztiena, "-a,-i,-e,-o,-u" artikuluarekin elkartzen direnean; bilketa hau zehaztasun miresgarriz egina dago, euskalkien, azpieuskalkien eta aldakien arabera, azentua ere kontutan hartuz. Egiten dituen sailkapenak

armonizazio horretan oinarrizen ditu. Sailkapen hau **Formulaire de Prône**-en ematen duenarekin erkatu dugu, eta biak iduri-iduriak dira. Ohartu gara Behe-Nafarroa-ko, Zuberoa-ko eta Nafarroa-ko Pirinio-tako Haranetako herri eta herriguneen zerrenda osoa ematen duela, eta Lapurdi-koena ia osoa; Gipuzkerari, Bizkaierari eta baita Nafar-Lapurterari dagokienez, berriz, tokien zerrenda aski murritza da. Zera esan nahi du horrek, Pirinio aldera egin zituen bidaiek asko lagundu ziotela hobeto ezagutzeko eta hobeto jasotzeko toki horietako aldakiak.

Sailkapena, esan dugun bezala, **Formulaire**-ko "Observations" delakoan agertzen denaren guztiz antzerakoa da. Izenen zerrenda, ordea, berria da eta horregatik dakargu hona, zehaztasun linguistikoak utziz. Beharbada orriren bat falta daiteke eskuizkribuan, ez bait daude zenbatuak, baina tituluan agintzen duen banaketa dialektala ez da agertzen, ez bada, behinik-behin, lana bera aurkezteko eraz ari.

(Oharra: herrien izenen grafia eta azpimarratuak Bonaparterenak dira).

(G)

I.1. Hernani, Astigarraga, Renteria, los Pasajes, San Sebastián
2. Tolosa, Villabona, Andoain, Urnieta, Albistur, Vidania, Goyaz.
3. Azpeitia, Regil
– Azcoitia
– Zumarraga, Villarreal

II. Cegama, Segura, Ormaiztegui, Telleriarte, Legazpia
– Villafranca

III. 1. Urdiain, Bacaicoa, Iturmendi, Alsasua, Olazagutia, Ciordia
2. Echarri-Aranaz

(B)

I- Marquina
– Elorrio
II-1. Guernica, Amorebieta, Urbina, Luco
– Munguía,
– Durango
2. Bermeo, Mundaca, Pedernales, Busturia, Murueta, Gauteguiz.
3. Plencia
4. Villaro, Ceanuri, Aranzazu, Yurre, Lemona, Vedia.
5. Orozco, Barambio
– Ergoyen
6. Arriaga, Galdacano, Basauri, Miravalles
– Llodio, Arracundiaga
7. Ochandio, Ubidea, Elosu, Villareal
– Olaeta
III-1. Vergara, Plasencia (sic), Elgoibar, Anzuola, Oñate
2. Salinas
– Elguea (sic)

(N-L)

I-1. Sare, **Amotz**, Saint Pée-sur-Nivelle, **Helbarron**, Ahetze
2. Ainhoa
3. Saint-Jean-de-Luz, Ciboure, Ascain, **Serres**, Biriatou
– Urrugne, Béhobie, Hendaye
– Bidart, Guétary, **Parlamentia**
4. Arcangues, Arbonne, Bassussarry
II-1. Lizaso
– Arraiz, Olagüe
– Olabe, Sorauren
2. Elizondo, Errazu
– Irurita, Ciga, Aniz, Almandoz
– Arrayoz
3. Vera, Yanci, Sumbilla, San Esteban (sic), Narvarte,
– Oyeregui, Oronoz -Beinza-Labayen, Saldias,

– Erasun, Ezcurra

4. Huarte-Araquil, Arruazu, Lacunza, Arbizu, Irañeta, Murguindeta, Yabar, Villanueva, Satrustegui, Zuazu, Ecay, Echarren, Eguiarreta, Echaverri, Irurzun.
   – Erice, Sarasa, Añezcar
5. Inza, Leiza, Areso
6. run,
   – Fuenterrabia, Oyarzun
   – Lezo
   – Goizueta, Arano

III-1. Elcano
Aoiz, Mugueta, Adoain, Ayechu

2. Uriz
3. Espinal
4. Burguete
5. Puente la Reina
6. Olza

(BN)

I-Baïgorry, Banca, Ossés, Bidarray
– Irouleguy, Ascarat, Anhaux, Lasse
– Arnéguy, Valcarlos

II-1. Espelette, Soraïde, Itsatsou, Cambo, Larresore, **Intalatzia**, Halsou,Ustarits, **Arunts**, Jatscou, Villefranque, **Arguintz-Carrica**, **Milafrancaco behereco cuartierra**

2. Hasparren, Urcuray, Bonloc, Mendionde, Macaye, Louhossa

III- Aribe, Garralda, Aria, Orbara, Orbaiceta, Villanueva, Garayoa, Abaurrea Baja, Abaurrea Alta

(N-S)

I- Tardets, Saint-Engrace, Larrau, Licq, **Atherrey**, Laguinge, **Abeuse-de-haut**, Troisvilles, Sauguis, **Saint**

**Etienne**, Idaux, Musculdi, Pagolle; Barcus, Esquiule, **Basques**, Gotein, **Libarens**, Garindein, Charrite-de-Bas, Aroue, Etcharry, **Oyhercg**

III- Jaurrieta, Ezcaroz, Oronz, Esparza, Ibilcieta, Sarries, Izal, Ripalda, Gallues, Iciz, Güesa, Igal, Rocas alto

II- Vidangoz, Garde, Burgui
Roncal, Urzainqui
Isaba, Uztarroz

IV- 1.Saint-Jean-Pied-de Port, Suhescun, Lantabat, Larcevea, Cibits, Hosta

2. Saint-Palais, Garris
Domezain, Ithorots, Olhaiby
Bunus, Ibarrolle, Saint-Just, Ibarre Pgolle, **Oyhana,** Lohitzun


3. Bardos

4. Saint-Martin-d'Aberoue
Méharin, Armendarits, Iholdy, Irisarry
Saint-Esteben, Isturits, Ayherre
Hélette

V- Briscous, Lahonce, Mouguerre, Saint-Pierre-d'Irube
Urcuit

### 3.3.3.4. Laugarren sailkapena

Hauxe da behin-betiko sailkapena (44). Laugarren sailkapen hau **Le verbe basque en tablaux** (1869), Londres (45) lanean azaltzen du. Hiru talde egiten ditu, A, Bizkaierarekin; B, Gipuzkera, Iparraldeko Goi-Nafarrera, Hegoaldeko Goi-Nafarrera eta Lapurtera hartuz; C, Zuberera, Ekialdeko Behe-Nafarrera eta Mendebaldeko Behe-Nafarrera hartuz. Zortzi euskalki, beraz, eta euskalkiok aldi berean, hogeitabost azpi-euskalki hartzen dituzte, eta azpi-euskalkiek berrogeitamar aldaki, aldaki bakoitza herrigune baten izenarekin. Hauxe da sailkapena zehazki:




Euskalki bakoitza honela banatzen du azpi-euskalkietan eta aldakitan:

I Bizkaiera:
1. Ekialkekoa - Markina.
2. Mendebaldekoa - Gernika, Bermeo, Plentzia, Arratia, Orozko, Arrigoriaga, Otxandio.
3. Gipuzkoa-koa - Bergara eta Gatzaga.

II Gipuzkera:
4. Ekialdekoa - Hernani, Tolosa, Azpeitia.
5. Hegoaldekoa - Zegama.
6. Nafarroa-koa - Burunda, Etxarri-Aranatz.

III Iparraldeko Goi-Nafarrera:+
7. Ultzama-koa - Lizaso.
8. Baztan-goa*: - Elizondo.
9. Bortzirieta-koa - Bera.
10. Arakil-goa - Uharte-Arakil.
11. Araiz-koa - Intza.
12. Gipuzkoa-koa - Irun.

IV Lapurtera:
13. Bertakoa - Sara, Ainhoa, Donibane-Lohitzune.
14. Nahastua - Arrangoitze.

V Hegoaldeko
Goi-Nafarrera:

15. Ekialdekoa - Egues, Olaibar, Artzibar, Erroibar, Auritz.
16. Iltzarbe-koa - Gares.
17. Mendebaldekoa - Oltza, Zizur, Gulina.

VI Zuberera:

18. Bertakoa - Atharratze.
19. Erronkari-koa - Bidankotze, Urzainki, Uztarroze.

VII Ekialdeko
Behe-Nafarrera:

20. Zize-Amikutzekoa - Zize, Amikutze, Bardoze, Arberua.
21. Aturri-koa - Beskoitze, Urketa.
22. Zaraitzu-koa - Zaraitzu.

VIII Mendebaldeko
Behe-Nafarrera:+

23. Baigorri-koa - Baigorri.
24. Lapurdi-koa - Uztaritze, Lekorne.
25. Erronkari-koa - Erronkari.

Azken sailkapen hau bi oharrez osatzen da, eta horrek egin du bi oharrak dagozkien puntuetan sailkapena bi eratara hartua izatea. Nolanahi ere, Printzeak berak ere bazekien hori, horretarako bidea berak ematen bait du, Baztango hizketaren egokiera Iparraldeko Goi-Nafarreran edo Lapurteran nahiko hautazkoa dela onartzen duenean:

> * *"Le basque de la vallée de Baztan pourrait aussi, sans trop d'inconvénient, être regardé comme le troisième sous-dialecte du labourdin, car il est assez difficile d'etablir, d'une manière qui ne soit pas un peu arbitraire, s'il se rapproche plus de ce dernier que du haut-navarrais septentrional."*

Bigarren oharra Iparraldeko Goi-Nafarrerari eta Mendebaldeko Behe-Nafarrerari dagokie. Bi hauek euskalki bitartekariak direla esaten du, eta horregatik askok maiteago izanen dutela Hegoaldeko Goi-Nafarreraren eta Ekialdeko Behe-Nafarreraren azpi-euskalki bezala sailkatu; halere, berak, bitartekaritza hori dela eta, nahiago du euskalki bezala eutsi biak:

> * *"Le haut-navarrais septentrional et le bas-navarrais occidental sont des dialectes essentiellement intermédiaires, que bien des personnes aimeront mieux peut-être considérer comme des sous-dialectes du haut-navarrais méridional et du bas-navarrais oriental. Nous n'en persistons pas moins á voir dans cette 'intermédiariété' le caractère qui les distingue comme dialectes."*

Sailkapen honek, bestalde, benetako heldutasuna ageri du, urteetako lan luzearen ondoren, ikuspegi egina euskal dialektologiari buruz. Eta hori aski ez balitz, datuak biltzen eta ñabardurak eta aldakiak behar bezala bereizten asmatzeko, oharmen zorrotza eta sentiberatasun haundia ere ezinbesteko dira; honela euskararen ezaugarriak zehaztuz eta ongi banatuz, sailkapen ongi buruturiko honetara iristeko. Horri esker, egun ere Bonaparte-k eginiko sailkapen honekin baliatzen gara eta ukituren beharrik ere ez du gainera.

Sailkapen honek antz haundia du, bere alderdi nagusietan, historiak suposatzen duen eta lehen azaldu dugun banaketarekin. Ez dakigu kontutan izan zituen erizpide historikoak sailkapenak egiterakoan; Larramendi-ren lanak ezagunak zituen, eta Oihenartenak ere ziurrenez. Hala ere, aztertu ditugun sailkapenen bilakabidean erizpide horiek ez dira agertzen ez aipatzen, eta bai, ordea, tokian-tokiko lan luzea, datuen bilketa neketsua eta sailkapen saioen behin eta berrizko errepikatzea; lan iraunkor hori behar besteko arrazoia da azken sailkapena azaltzeko, erizpide historikoetara jo gabe. Garrantzitsua zera da, bi bideetatik, historiakotik eta hizkuntzarenetik, gauza bera frogatzera edo ondorio berak indartzera iritsi dela, banaketa biak, eleizarena historian eta hizkuntzarena, oso antzerakoak bait dira.

Gipuzkoa-ko mendebaldean, Deba ibaiaren bailara euskalkiz Bizkaierakoa da, herri batzuk karistioen leinukoak ez diren arren, esaterako Arrasate, barduloen leinukoena baita. Hondarribia, Irun, Oihartzun, Errenderi, eta abar, baskoiak dira eta Iparraldeko Goi-Nafarreran sartuak daude. Eta Baztan-go bailara, denbora batean Baiona-ko Eliz-Barrutikoa, zalantzetan ibili zuen luzaro, azken momentuan Iparraldeko Goi-Nafarrera-n kokatu bazuen ere. CARO BAROJA-k (1945,10) dio Bonaparte-z:

> *"Aludo al admirable plano en el que marcó, no sólo los límites del vascuence, sino también los de las divisiones dialectales de este idioma."*

Caro Baroja bezain ikertzaile zorrotz eta erantzunekoaren hitz hauek Bonaparte-ren sailkapenaren egokitasun haundia aditzera ematen dute. Gehien ere Bizkaieraren azpi-euskalkien banaketa zehatzagoa eskatu izan zaio. Hark ezarri zituen hiruetatik, ekialdekoa, mendebaldekoa eta Gipuzkoa-koa, bigarrenak, mendebaldekoak, bere zazpi aldakiekin saski-naski itsura hartzen du. Honen aurrean Iparraldeko Goi-Nafarrera dugu, sei azpi-euskalkirekin. Zergatik ez zuen Bizkaiera ere azpi-euskalki gehiagotan bereizi? Zerbaitek eragin zion Printzeari gehiago ez zatitzeko Bizkaiera. Gure ustez, izan daiteke bizkaitarrak ez direnentzat Bizkaierak duen erabateko itxura hori , batasun itxura hori beste euskalkien aurrean. Ezagutu, ongi ezagutzen zituen Bonaparte-k aldakien arteko desberdintasunak, baina ez bide zien azpi-euskalkitan tajutzeko adinakoak eritzi.

Aipatzekoa da, bestalde, Nafarroa-ko zenbait hizketei buruz izan zituen aldaketak. Hirugarren sailkapenean Nafarroa-ko zatiketa aski koloka gelditu zen, baina laugarren honetarako egokitasun haundiz zatitzen du bi euskalkitan: Iparraldekoa eta Hegoaldekoa. Nafarroa-k duen aberastasun dialektalak behar zuen zatiketa hori, eta egin zuen zatiketari zuzena erizten diogu. Eragotzi ahal izanen da Aezkoa-ko hizketa Iparraldeko Behe-Nafarrerarena ala Hegoaldeko Goi-Nafarrerarena ote den, edo mugako herriguneren bat euskalki batean edo bestean kokatu beharko den; baina guztiok ezagutzen dugu zein erlatiboak eta aldakorrak gertatzen diren hizkelkien arteko mugak , hartzen diren

erizpideen arauera. Halere, beren orokortasunean bada ere, zehatz eta erizpide zuzenez ezarri zituela euskalkien arteko mugak onartu behar da eta aurreko sailkapenek zituzten akatsak lan nagusi honen aurreko saio eta zirriborro bezala. Berak ere onartu zuen ateratzen zituela ondorioak Euskal Herriko bazterrak behar bezala ezagutu gabe; hona **Le verbe basque** lanean dioena, sailkapena sartzen duen orrialde beretan:

> *"Si nous nous sommes trop pressé à cet ègard, lorsqu'il y a quelques années, avant d'avoir visité les vallées intérieures de la Navarre espagnole, nous avons avancé que cette province n'avait pas de dialecte qui lui fût propre, et que l'on y parlait tous les autres à l'exception du biscaïen, nous nous reprochons la première de ces assertions, comme étant on ne peut plus contraire à l'exactitude.[...] Maintenant que nous avons visité, pour ainsi dire, tous les recoins de l'euskalerria, soit en Espagne, soit en France, nous admettons que la Navarre espagnole, outre les dialectes que nous y avions déja constatés, en présente deux autres qui lui sont propres: le haut-navarrais septentrional et le haut navarrais méridional, et que la Basse Navarre en offre également deux: le bas-navarrais occidental et le bas-navarrais oriental, ce qui porte à huit, d'après notre manière de voir, le nombre des dialectes basques."*

### 3.3.3.5. Laugarren sailkapenaz geroztik eginiko aldaketa

Bonaparte-k ez zuen euskara sekula utzi, eta bizitzaren azken aldian ere honela azaldu zitzaion A. Arana-ri, ALTUNA (1985,308): "... sobre todas las demás lenguas hermosísimo vascuence."

Kronologiazko ordena jarraituz, aurrena aipatzeko izango litzateke **Études sur le trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal,** (1872) Londres. Lan honek ez du aldaketarik, baina bai interesik hizkuntzaren nahiz soziologiaren aldetik. Haran horietako euskararen egoera, aski larria bestalde Erronkari-n, hagitz metodikoki deskribatzen du, herriak banan-banan bereiziz. Lan honek sakonketa haundiagoa suposatzen du bailara horietako hizketetan, eta horren ondorioz bera ere aldatuz joanen da urte batzuren buruan Erronkariera ere ia-ia dialekto berezitzat hartu ahal izateko (46). Bailara bakoitzeko herrigune errepresentagarrientzat Aribe, Eaurta eta Bidankotze hartzen ditu jarraiberean.

Lau urte geroago, 1876-an beraz, "Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun etc. par le Prince Louis-Lucien Bonaparte" argitaratzen du (47). Lan honetan azpieuskalki honi buruzko azterketa erkatzaile haundia egiten du, herri horietako hizketak elkarrekin eta Gipuzkerarekin erkatuz, eta baita bi herri horietakoak, Arano eta Goizueta, Oihartzun eta Lezo-ko hizketekin ere erkatzen ditu, ondorio interesgarriak kausituz.

Ondorengo urteetan, Campion-ek zeraman **Revista Euskara** aldizkarian argitaratuz joanen da Nafarroa-ko bailaretako euskarari buruz lan sail bat (48).

Baztan-go euskarari dagokionez, LACOMBE-k (1924,205), haren lan zehatzik aipatu gabe zera dio, Bonaparte-k 1881-ean Baztan-go euskara Lapurtera barnean sailkatzen duela.

> *"Dans son Verbe, daté de 1869 mais achevé d'imprimer à la fin de 1871, le prince le considère comme pouvant être rattaché indifféremment au labourdin ou au haut-navarrais septentrional, mais à partir de 1881 il le classa définitivement comme labourdin, ce qui ne saurait surprende, car d'une part, pendant fort longtemps le Baztan dépendit, ecclésiastiquement de l'évêché de Bayonne et d'autre part, chacun sait que les intermariages ne sont pas rares de Baztanais et Labourdins..."*

Ziurrenez, Luzaide-ko euskaraz idatzi zuen artikuluaz ihardungo da. Artikulu hartan honela zioen:

> *"... el valle de Valcarlos, de igual manera que el país de Quinto, los valles de Aezcoa, de Salazar, y de Baztan mismo, con Urdax, Alquerdi y Zugarramurdi, deben ser considerados como países que lingüísticamente pertenecen a Francia, es decir, a los dialectos: 1º Labortano (Urdax, Alquerdi, Zugarramurdi, Valle de Baztán, excepto Oronoz y Zozaga (sic)); 2º Bajo-Navarro occidental (país del Quinto, Valcarlos, Aezcoa); 3º Bajo-Navarro oriental (Salazar); 4º Suletino (valle de Roncal)." BONAPARTE (1881,161-162)*

Halere, 1877-an honako azalpen hau egiten zion A. Aranari, uztailaren 14-ko gutunean, ALTUNA (1985, 316):

> *"La première note, en caractères italiques, de la dite page, se rapporte à la variété du Baztan qui, selon moi, peut aussi bien être considérée comme appartenant au labourdin qu'au haut-navarrais septentrional. Je me suis beaucoup occupé de la grammaire et du vocabulaire de cette variété baztanaise, qui constitue à elle seule un sous-dialecte, et je dois avouer qu'il m'est impossible de condamner celui qui considére le baztanais comme du labourdin. [...] Dans la carte litographique il est classé avec le haut-navarrais septentrional, tandis que dans la carte en taille douce je le range avec le labourdin."*

Garbi ageri da, beraz, 1877-an oraindikan zalantza haundiak zituela hizketa horren sailkapenaz. Mapa litografiatuan (GN) bezala sailkatu zuen, baina beste "taille douce" delakoan egindako mapan Lapurtera barruan sartu bide zuen, gutun horretan dioenez (49).

Puntu hau isteko eta orain arte esandakoa laburtuz, zera esan genezake: aldaketa gutxi sartu zituela laugarren sailkapenaz geroztik, eta, gutunek agertzen dutenez, behin **Le verbe basque** argitaratu ondoren sailkapenari buruz ez du planteiaketa aldatzen, ez eta euskalki edo aldakiak ikusteko era ere; alderantziz baizik, Erronkari-ko eta Baztan-go bailarei buruzko oharrak eta gogoetak izan ezik, beste guztiekiko erizpide eta erabakietan sendotu baino ez dela egiten esan daiteke.

### 3.3.4. Mapa

Honaino egin dugun bideak artez-artez ekarri gaitu Bonaparte-ren lanik ikusgarrienaz, eta agian garrantzitsuenaz, mintzatzera. Esan beharrik ere ez dago **Carte de sept provinces basques monstrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous dialectes et variétés par le Prince Louis-Loucien Bonaparte** (50) mapa dialektalaz ari garela.

Mapa honen interesa neurtezina da. Lehenengo eta behin, laugarren sailkapena grafikoki azaltzen duelako; sailkapenari berari dagokionez ere, gainera, aurrerapidea suposatzen duelako, sailkapenean euskalkiak eta azpi-euskalkiak ematen bait ziren, baina aldakietarako herri bakar bat baino ez zen agertzen, herrigune denetatik adierazgarriena izan ohi zena; honek hutsune haundia uzten zuen, horrela ez bait zitezkeen ezagutu aldakien edo azpi-euskalkien muga zehatzak, eta ondorioz ez eta euskalkienak ere. Mapari esker hutsune larri hori bete egiten da, hor mugak zehatz ematen bait dira.

Euskararen lehen mapa linguistikoa da, bestalde, egiten eta argitaratzen dena. Larramendi-k mende bat lehenago eginiko saioez gain, inork landu gabeko alorra zen hori. Maparen balioa neurtzeko kontutan hartu behar da, zein zaila den aldaki bakoitzari mugak finkatzea, eta, alderantziz ere, -eta hainbat kasutan baita

auzuneei ere- herrigune bakoitzari bere aldakia ezartzea. Horrez gain, euskararen egoera demografikoa ere seinalatzen du. Mapan erabiltzen dituen koloreen bizitasunaz baliatzen da edozein tokitako mintzaleen kopuru maila aditzera emateko (51). Hegoaldeko (GN) da euskalkirik aunatuena, erditik gora kolore ahulean bait dago, egoera atzerakorra agertuz; izan ere honela zen, hedaduraz zabalena zen euskalkia, urte gutxiren buruan erakuskai huts bihurtu bait zen (52). Mende-erdi eskasean atzerakada izigarria egin zuen eta gaur egun gelditzen diren hondarrak galtzorian dauden erlikiak dira.

Beste hainbeste esan daiteke Erronkarieraz eta Zaraitzeraz, biak lekutzen bait zihoazen dagoeneko Printzearen garaian.

### 3.3.5. Bonaparte-ren lanaren balioa

Bonaparte Printzeak bere lana egin eta burutu zuenetik mende oso bat igaro ondoren, galdera bat egin daiteke: Zer ekartzen du, zer emaitza ditu lan horrek gaur egun? Eta, gero, lanak berak ere zein balio du, ez egungo zientzia eta metodologien arauera, bere garaiko metodologia kontutan hartuz baizik?

Hainbeste libururen argitalpenaz gain, liburu erligiosoak batipat, eta euskalki eta euskalki guztien aditza jasotzeaz gain, edo lexikoia egiteaz gain, asmo nagusia mapa linguistikoa egitea zuen beti, bertan euskararen euskalki, azpi-euskalki eta aldakiak oso ongi zehaztuak ager zitezen. Eta, agian, horixe Printzearen errurik haundiena, mugarik ez duenari mugak ezarri nahi izatea, eta kritikak ez zion hori barkatu. MENENDEZ PIDAL-ek oso gogor erasotzen dio (1962,45):

> *"Bonaparte, con el concepto unitario arcaico de los dialectos, delimitó, por medio de líneas únicas, los ocho dialectos con sus subdialectos y variedades.*

*Pero sabido es que un dialecto no tiene un único límite fijo como el de una provincia o un partido judicial; los muy varios caracteres que distinguen ese dialecto de los vecinos, no tienen todos en masa la misma extensión, sino que cada uno de ellos alcanza por lo común un límite distinto del de los demás, siguiendo cada uno direcciones muy diversas."*

Gogorra izanik ere, ez da baztertzekoa kritika hori. Dialektoak ez dira ente mugiezinak, geldigorrak baizik, eta ezin daitezke muga finko eta mugiezinetan sartu. Bonaparte-ren mapak euskalkiak ezezik, aldakiak ere mugatu egiten ditu, eta horren arriskuak benetan larriak dira, hizkuntzak ez bait du inoiz muga gaindiezinik; eta are gutxiago dialektoen eta azpi-dialektoen artean, ez bait dituzte sekulan mugak ez gardenak ez zehatzak izaten, eta ezaugarriak berak ere ez dira batere errezak sailkatzeko, hain izaten dira ezberdinak eta korapilotsuak. Printzeak berak ere hainbat hizketa -Burunda-koa, Baztan-goa, Aezkoa-koa edo Erronkari-koa, ezagunenak baizik ez aipatzeko- euskalki baten edo bestean sailkatzeko izan zituen arazo larriak aipaturiko zailtasun horren adierazgarriak dira. Bazterretako hizketak izanik, euskalkien arteko mugetan kokaturik daude, eta euskalki bien ezaugarriak hartzen edo nahasten dituzte, bien eragina bait dute.

Gaurko ikusmiraz, badu beste puntu kritigarri bat ere. Haren mapa ez da, noski, atlas linguistikoa. Guk uste dugu bildu zituen datu piloarekin egin zezakeela Euskal Herriko atlasa, funtsezkoa bederen. Mapan azaltzen den banaketa eta zatiketa ez ziren itsumustuan egin, ugaritasun haundiz jasoriko datu linguistikotan oinarrituz baizik. Maparen begiratzaileak ezin ditu, tamalez, handik atera mugaren finkaketan erabili diren erizpideak. Aski da, ordea, haren gutunak eta eskuizkribuak irakurtzea horri buruz argia egiteko, erizpide horiekin bat etorri edo ez.

Dena dela, garrantzi haundia eman zion literaturari, eta aurreneko urteetan bereziki. Ikusi dugu lehenbiziko sailkapenean, eta bigarrenean ere, bereizten zituela euskalki literarioak eta ezli-

terarioak, haietan Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera eta Zuberera sartuz. Honek eraginik izan zuen ondorengo idazleetan; esaterako A. Campion-ek euskalki literario horien gainean egin zuen bere **Gramática Bascongada**, MITXELENA (1960,128):

> *"A pesar de su atención primordial a la lengua hablada, por una inconsecuencia que desde el punto de vista literario no puede ser menos de ser llamada feliz, la mayoría de las versiones que hizo preparar están en variedades fijadas y normalizadas por la tradición escrita."*

Hori egia bada ere, egia da ere aski dela begirada bat Euskal Foru Aldundiek eskuratu zituzten haren eskuizkribuei, konturatzeko Testamentu Zaharreko liburuen eta zenbat dotrinen itzulpen arrunt edo herrikoi bildu zituen eta erabili mapa egiteko. Haren korrespondentzia irakurtzen duenari garbi agertzen zaio zein tematsua eta zehatza izan zen itzulpenak eskatzean, eta zein zorrotz analizatzen zituen hartzen zituen materialak, eta nola behin eta berriro eskatzen zituen edozein formari buruz azalpenak, ez bazitzaion erabilera arrunteko iruditzen.

Hor dago, bestalde, hainbeste txango linguistikotan batu zuen guztia ere. Ez dago lehen esandakoa errepikatzen ibili beharrik, baina uste dugu begirada zorrotza eta adimen zolia izan zuela bere ibileretan, eta hizkuntzaren elementurik garrantzitsuenak ezagutzea lortu zuela, batez ere gehien landu eta ahoz jaso zituen hizketetakoak, eta jakina da zeintzuz ari garen, Iparraldeko hizketez, Piriniotako Haranetakoez, Hegoaldeko Goi-Nafarrerakoez eta Iparraldeko Goi-Nafarrerako batzuez,alegia (53). Bestalde, ikasi zuen euskalkia Gipuzkera izan zen, eta aski ongi menderatu omen zuen, itzulpenak eta zuzenketak egiteko adina izatera iritsi bait zen.

Euskalkien sailkapenak egiteko nagusiki erabili zituen erizpideei buruz, zera esatera ausartuko ginateke, betiere esku artean izan ditugun materialen gainean:

. Fonetika mailan, bokalismoari dagokionez, [ü] hotsa kontutan izan zuen eta tarteko beste hots bat ere bai, [u.] izan zitekeena, eta Iparraldeko hizketetan, eta baita Hegoaldekotan ere, egiaztatu zuena, ikusi dugun bezala. Zubererako eta Erronkarierako bokal sudurkariak ere jaso zituen, eta baita bokalen sinkopa ere.

Kontsonantismoan kontutan hartu zituen kontsonanteen topaketak sortzen dituen sandhiak, aspiraketa, sabaikari ozenaren ahoskera, xistukari frikari nahiz afrikarien ahoskera sabaikari mailan batipat.

Fonetika sintaktikoan armonizazio bokalikoak eragin haundia izan zuen harengan, eta hiatoen eta diptongoen ahoskerak ere bai. MITXELENA-k dioen bezela (1981-1,135):

> *"Siguiendo sin duda a maestros vascos, tuvo siempre muy en cuenta los fenómenos de acomodación o falta de acomodación de las vocales en hiato (ea, ia, oa, ua, etc.), lo cual es hasta muy actual, por lo mismo que no se trata de hechos en bruto y aislados, sino de reglas que actúan o no y, cuando actúan, lo hacen de cierta manera y no de otra; una regla, en efecto, no puede consistir en una imagen solitaria, sino que supone la yuxtaposición de dos imágenes por lo menos."*

.Morfologia mailan, deklinabidea euskalki guzietan jaso zuen, eskuizkribuetan ageri den bezala. Arreta berezia honako kasu hauei eskeini zien: nominatibo pluralari, ergatiboari (ergatiboaren bereizketa edo bereizketarik eza), komitatiboari, datiboaren erabilerari.

Aditzari buruz, lanak berak agertzen du dena. Laguntzaileari dagokionez agortzeraino jaso zuela esan daiteke, eta "gairik kuttunena" izan zuela onartu zuen berak ere. Trataera formak ere ez zituen alde batera utzi, batez ere zutanoa edo errespetuzko trata-

era erabiltzen duten hizketetan eta erabiltzen ez duten haien aldamenekoetan, Zubereran eta Behe-Nafarreran bereziki. Partizipioaren edo erroaren erabilera; eta geroaldiko formetarako "-ko" edo "-en" morfemen erabilera.

.Sintaxiari dagokionez, atzeratuxeago gelditu zela uste dugu. "Bait-" edo "-n" zatikien erabilera, genitibo objetiboarena, eta deus gutti gehiago.

.Lexikoa ere aztertu zuen. Euskalki guztietako lexikoia egiteko zuen ametsaz hitz egin dugu lehen ere, baina zenbait kontzeptutarako dagoen hitz ugaritasunak uste baino lan gehiago emango zion (esaterako "arrubi" edo "arrubio" animaliaren izenei buruz orrialde osoak ditu gutunetan) eta atzeruntz eragin ere bai beharbada. Nolanahi ere, ez zuen horrelako lanik argitaratu eta, guk dakigunez behinik behin, ezta idatzi ere (54).

Beste kritika batzu ere jaso izan ditu haren lanak orohar baina euskal alorrean egin duenari ere egokitzen zaizkio. HEREDIA-k (1983,116) honela azaltzen du kritika hori:

> *"Si bien la labor del Príncipe Bonaparte merece todo elogio y respeto, lo cierto es que hay en ella más de compilatorio y acumulativo (un poco al estilo del siglo anterior) que de estrictamente científico, lo que hace que no sea considerada como un jalón importante en la historia de la dialectología."*

Guk ez dugu erkatu nahi izan Printzearen lana haren garaiko ikasketa dialektologikoekin. Azken batean, guretzat, Printzea euskararen inguruan hizkuntzalaritzako lan zientifikoa hasi eta hedatu zuena izan zen. Bera izan zen lehena euskal hizketen material linguistikoak metodoz batzen eta datu horiek idatziz edo mapetan ezarriak ematen. Laguntzaile sail bat ere sortu eta prestatu zuen eta euskararen azterketa linguistikotara zaletu; esan daiteke, beraz, euskal dialektologia sistematikoki eratzen aurrelaria izan zela. Guzti hau gutxi bailitz, argitalpenak ere hartzen baditugu, euskarari dagozkionak dira ugarienak (55):

| Hizkuntza | Argitalpenak | % |
|---|---|---|
| Euskara | 68 | 31'05 |
| Italiera | 50 | 22'83 |
| Inglesa | 43 | 19'63 |
| Finesa | 11 | 5´02 |
| Poliglota | 8 | 3'65 |
| Portugesa | 6 | 2'73 |
| Frantzesa | 6 | 2'73 |
| Neo-Latina | 6 | 2'73 |
| Kornikoa | 4 | 1'82 |
| Frisoi modernoa | 3 | 1'36 |
| Gaskoina | 3 | 1'36 |
| Beste hizkuntzak | 11 | 5'09 |
| Guztira | 219 | 100.- |

Osotasunean begiratuz, inork ezin ukatuko du Bonaparte-k euskarari buruz egin zuen lana benetan haundia eta estimagarria izan zela.

Ikuspegi zabalago batekin ere ezin zaio meritorik ken. XIX. mendeko 70-eko hamarkadan dialektologia hasia zen zientifikoki lantzen, esaterako Italia-n B. Biondelli-rekin, eta Ascoli berarekin ere; eta zuzenean dialektologoak ez izan arren, hizkuntzalari bezala dialektologiako azterketak linguistika historikoari erantsi beharra ikusi zutenez gero, ezin dira zeharo baztertu Schuchardt, G. Paris, P. Meyer eta abar, egia bada ere dialektologia linguistikaren menean ipintzen dutela, bere nortasun propioa ukatuz. Dialektologiaren ikuspegi orokorretik, Bonaparte-ri ezerk kalterik egin badio, egin zuen lanaren emaitzak berak egin dio kalte. Ordurarte egin gabe zegoen euskararen sailkapen dialektalak eta artean izan ere ez zen mapa linguistikoak irudi aldagaitz, mugatu eta berezia eman diote Printzeari. Bildu zuen material linguistiko pilo ikaragarriak ere, bestalde, biltzaile soilaren irudia eman dio. Alabaina, emaitza ikusgarrienetatik at, lana bera da gelditzen

dena eta lana egiteko era. Hizkuntza aztertzeko era esan nahi da, edozein aurreiritzitik aske, erabilera sinkronikora lotuz, eta, beste edozein elementuz gain, tokian tokiko hizketa bizia baloratuz; guzti hau ez da batere arbuiagarri. Baditu bere egiteko eraren lan adierazgarriak, esaterako "Notes sur certaines remarques de M. A. Luchaire" (56) edo Arturo Campión-i igorritako gutun linguistikoak (57); lan hauetan, zehaztasunak eta deskribapenak mukurutzen ibili gabe euskararen zenbait alderdi linguistiko analizatzen ditu, euskararen eta linguistikaren ezagutza sakona agertuz, erizpide orekatua azalduz eta ondorio naroetara iritsiz, euskararen nahiz bertako nahiz kanpoko ikerlarien artean hain usu ikusten ez den bezala.

Metodologiari dagokionez, adibide bezala balio dezake **Observations sur le basque de Fontarabie, Irun, etc.** (1877,175-176) lanetik hartutako atal honek:

> *"Les recherches que nous avons faites nous-même sur les lieux; celles que nous y avons fait faire par des personnes que nous avons accoutumées pendant plusieurs années à notre méthode d'investigation linguistico-comparative; les nombreux spécimens, enfin, que nous possédons en manuscrit, et qui consistent en une grande quantité de traductions bibliques, en vocabulaires de quelques milliers de mots, en petites grammaires et en catéchismes comparatifs, dont un présente les variétés guipuscoanes, biscaïennes et haut-navarraises septentrionales que l'on parle en Guipuscoa, en autant de traductions basques, soit de Vergara ou Salinas, soit enfin d'Irun, -travaux qui ont touts été faits ou rédigés avec le plus grand soin sous la dictée des gens du pays, et dont l'exactitude a été constatée à plusieurs reprises par des personnes autres que les traducteurs et également compétentes."*

Egia da, agian, bere lanen zenbait ondorio kritikagarri izan

daitezkeela, baina, nolanahi ere, euskal letretarako duen esanahiagatik eta utzi zigun ondare ugariagatik -aberastasun neurtezina, alafede-, Bonaparte-k gure begiramen osoa mereziko luke; eta gainera bidegabekeria izango litzateke zientzilari maila ukatuko bagenio hainbat hizkuntzetako materiala biltzen aritu izan zelako. Bidegabekeriaz gainera, biltzaile soiltzat hartzea, bestalde, Bonaparte-ren lana ez ezagutzea baino ez da.

MITXELENA-ren hitz hauek (1976,319) onak gerta daitezke kapitulu hau isteko, hark gorespen gisa ez baina Printzearen lan dialektologikoaren ondorioak analizatzeko idatzi bazituen ere:

> *"No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permiten distinguir subgrupos dentro de grupos; cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte, mucho antes de Gilliéron, etc., y no precisamente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica."*

## 3.4 CAMPION. EUSKALKI LITERARIOAK ETA EUSKARAREN BATASUNA. BESTE IKERTZAILE BATZU.

### 3.4.1. **Arturo Campión**

(1854-1937), nafarra, Bonaparte-ren bigarren garaiko laguntzaile bezala ikusi dugu. Bi garai edo uneren arteko lekukoa izan zen. Batetik, euskaldun ezagutu zituen guri Bonaparte-k ezagutarazi dizkigun Hegoaldeko Goi-Nafarrera zen euskalki haundiaren eremuak; baina, bestetik, samiñez ikusi zuen nola

erdarak lekutu zuen euskara euskalki horretako hainbat eta hainbat herritatik. Galera horren bihotzondotik sortu ziren haren hainbat lan literario, **Narraciones Baskas** izendatuak bezalakoak.

Literato eta historilari izateaz gain, A. Campión gramatikari eta dialektologo ere izan zen. Bonaparte Printzearen miresle haundi izan zenez, bere **Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara** (1884) lan izigarria eskeini zion. Gramatika horretan, sarrera kapitulu oso bat, 15 orrialdetakoa, ematen dio dialektologiari, eta, bestela ezin izan zitekeen bezala, Bonaparte-ren jarraile zintzoa bezala jokatzen du. Printzeak **Le verbe** lanean eman zuen sailkapen dialektal berbera ematen du, eta euskalki bakoitzaren hedadura eta banaketa ere bai, udalerri guziak izendatuz. Sailkapen horri lotuz, Baztandarra Iparraldeko Goi-Nafarreran sartzen du, eta Erronkariera Zubereran. Benetan larria agertzen du Hegoaldeko Goi-Nafarreraren egoera, ez hainbeste lurrez eta gizartez atzeraka doala-eta, baizik arras desagertzen ikusten duelako (1884,39):

> *"Este dialecto pierde terreno, el castellano lo acorrala desde las tierras llanas a los más altos valles. De él puede decirse que está en vías de extinción inmediata, por más que cuenta todavía comarcas en su jurisdicción, en las que el euskara vive lozano y vigoroso. La región de escasa densidad que presenta es muy extensa; desde que se levantó el **Mapa** (año 1863) es seguro que habrán desaparecido de muchísimos pueblos de dicha región, las personas ancianas, capaces de hablar vascuence, y que por lo tanto, serán aquellos en la actualidad totalmente castellanos de lengua."*

Gramatika lau euskalki literarioena egin zuen, lau euskalkiak Printzeak proposatutakoak direlarik (B), (G), (L) eta (Z). Printzeari orpoz-orpo jarraituko ez balio, ez genuke ulertuko Campión-ek Goi-Nafarrerari maila literariorik ez eskeintzea, Gramatikaren Sarreran eusten bait dio berak Nafarroa-n euskarak izan zuen erabilera ofizialari Nafarroa-ko lore jokoak eta antzezke-

tak eta abar aipatuz, eta ezagutzen zituen Beriayn-en, Lizarragaren eta Mendiburu-ren lanak.

Edonola ere, literaturarik ez duten euskalkiek ere badute beren tokia, mugatuagoa bada ere, Gramatikan. III. kapitulua, atzizkiketari dagokiona, "Fonología, transcripción y sistema fonético" gaiez ari da bereziki, eta euskalki guztiak hartzen ditu kontutan. Bokalismoaz eta kontsonantismoaz lan luzea da: hotsak sinkronikoki deskribatzen ditu, ahoskera desberdinen isoglosak ezartzen ditu -Bonaparte-ren materialetan oinarrituz betiere- eta hotsen azterketa diakronikoak ere egiten ditu. Beste fenomeno batzu ere aztertzen dira lan honetan, hala nola elisioa, trukaketak, sandhiak, armonia bokalikoa.

Lan interesgarria dela ez dago ukatzerik, eta are gehiago XIX. mendean egina izan zela kontutan hartzen bada. Fonetika alderditik ez da berritzailea, ordurako Rousselot fonetika artikulatorioa egiten ari bait zen, baina jaso eta deskribatzen dituen datuen ugaritasunagatik, alderdi hori ezagutzeko ere interesgarria eta onuragarria da. Gramatika bera ere deskribatzailea da, baina euskalki literarioetan oinarritua eta zatirik garrantzitsuena aditzari ematen dio.

Bonaparte-ren sailkapenean inspiratuz, **Orreaga** balada idatzi eta lau euskalki literarioetara itzuli zuen eta Erronkari-tik Olazaguti-ra bitarteko beste hamazortzi aldakitara: "diez y ocho variedades dialectales de la región bascongada de Navarra desde Olazagutia hasta Roncal." (58)

Gipuzkerara Campión-ek berak itzuli zuen; Lapurterara Duvoisin-ek; Luis de Iza y Aguirre-k Bizkaierara; eta Inchauspe-k Zubererara. Nafarroa-ko itzulpenek dute beren alde Nafarroa-ko hainbat tokitako hizketa agertzen dutela aski ongi -Bonaparte bera ere iritsi zen zuzenketaren batzu egitera lehenbiziko argitalpeneko itzulpen batzuei-, honek aukera eskaintzen duelarik zati aski laburrak erkatzeko eta ondorioak atera ahal izateko. Campión-ek berak ere atera zituen ondorio banaka batzu Sarreran, eta bukaeran ere eman zituen "Observaciones gramaticales y léxicas" izen-

buruaren pean. Edozein modutan ere, garai hartan oso gogoko zituzten horrelako lanak.

Kasuren baten dagoeneko galdua zen hizketa ere jasotzen da, esaterako Xulapain-goa. Itzulpenek, ordea,itzulpenetan gertatu ohi denez, batez ere eskolarik gabe eginez gero, berezkotasun falta nabaria dute; haatik, esaten genuen bezala, material hori interesgarria gerta daiteke. Campión-ek eransten dizkien oharrei buruz, berriz, esan daiteke ez dituela beti garbi ulertzen fenomenoak. Erronkarieran, esaterako, trukaketa ezezagun bat ikusten du **b**-tik **y**-ra, eta adibidea "gaya" ipintzen du; baina asmatu ez duen fenomenoa beste bat da, lexemaren bukaerako "-u" gehi artikulua ematen denean gertatzen den armonia bokalikoarena, alegia, "-ua" "-ia", Zubereran eta Ekialdeko Behe-Nafarrerako zenbait hizketetan gertatzen den bezala. Beste kasuren baten gauza interesgarritzat hartzen du ortografiako hutsegitea, esaterako **d**-tik **g**-ra trukaketa, **ingarra** hitza **indarra**-ren ordez, baina guk Saldias-en "indarra" jaso dugu batere zalantzarik gabe; horrelako hutsegiteak Bonaparte-k ere zuzendu zizkion Erronkarierako itzulpenean. Luzaide-ko aldakira egin zen itzulpena ere kritikatzen du Printzeak, ez bait da itzulpena Behe-Nafarrerara lotzen, hori den arren Luzaide-ko euskalkia, eta Goi-Nafarreraren edozein aldakiren antz haundiagoa hartzen bait du (59).

Aldeko kritikak ere izan zituen lan honek. Vinson-ek, hain zorrotza izanik ere euskal egileekin, gorespen hitzak izan zituen Orreaga-rentzat (1881,101):

> *"M. Campion a droit à tous nos remercîments et à tous les éloges. Des travaux comme le sien valent cent fois mieux pour la langue que toutes les tentatives de félibrisme."*

Campión Euskaltzaindiko osoko kide izan zen haren sorreratik, 1918-an, eta P. Broussain-i eta biei gomendatu zieten euskararen batasunerako zerbait prestatzea. Horren emaitza **Informe de los Señores Académicos A. CAMPION y P. BROUSSAIN a**

**la academia de la lengua vasca sobre unificación del euskera** izan zen (60).

Informe honek itxura guztiak ditu Campión-ek egindakoa dela, eta bertan, euskalki literarioen nahiz literatura gabeen egoera aztertu ondoren eta hizkuntzak berak gizartean duen ahuleria haundia begiztatu ondoren, ezinbesteko jotzen du batasuna, hizkuntza galbidetik atera nahi bada. Batasuna lortzeko ez da euskalki berri bat sortzean pentsatzen, "un noveno dialecto, que sería el quinto literario, o en otros términos más significativos: unificar sintéticamente el euskera" burutik igaro zitzaiola ukatu ezin badu ere, ideia horri uko egin ondoren, euskalki benetako batean oinarritzea proposatzen du (192O,13):

> *"1º Unificar el euskera sobre la base del dialecto guipuzcoano o labortano o de ambos previamente combinados, en la forma y modo que indica el presente informe."*

Bigarren puntu bezala, fonetikarako eta ortografiarako, gramatikarako eta hiztegirako batzordeak sortzea proposatzen da.

Lan osoan zehar eta proposamenean ere Bonaparte-ren gogoa ageria da. Honek beti uste izan zuen Gipuzkera eta Lapurtera zirela euskalkirik jatorrenak, eta beti eutsi zion horri azken urteetaraino. Bonaparte-rengan aurki daitezke, beraz, batasunerako euskalki horietako baten edo bietan elkarturik oinarritzearen erroak. Euskalki horien aldeko arrazoiak, ziotenez, aski agiriak dira, beren baitan aisa onar ditzaketeelako euskalkiak oro, Bizkaiera eta Zuberera izan ezik, hauek "demasiado divergentes atendiendo a la comunidad euskariana" (1920,10) bait dira. Gipuzkerari:

> *"Le distinguen arrestos invasores; desposee de su jurisdicción al alto-navarro septentrional en los pueblos de Guipúzcoa, donde le hablaban y va infiltrándose intersticialmente en Navarra por la comarca de Cinco Villas y de los valles de Araiz y la Burunda."*

Lapurterarekin ere antzera gertatzen da Iparraldeko euskalki eta aldakiekin. Erdiguneko euskalkiak dira, bestalde, eta horrek ere heuren aldera makurtzera bultzatzen du (61). Hizkuntzarekiko arrazoiak ere badira alde, deklinabidea erregularragoa, esaterako, edo hiztegia aberatsagoa eta hedakortasun haundiagokoa bazterretako euskalkietakoa baino.

### 3.4.2. Sabino Arana-Goiri

Sabino Arana-Goiri-k euskarari buruzko zenbait lan egin zituen , baina gu batean gelditukо gara, **Lecciones de ortografía del euskera bizkaino** (1896) lanean, alegia (62). Lan horretan Arana-Goiri euskararen batasunaren aurkakoa agertzen da hitz hauekin (1965, 820,821):

> *"Nótase, primeramente, en algunos tratadistas marcada tendencia a la reducción de todos los dialectos del Euskera a uno solo, que habría de componerse de las formas más próximas a las primitivas u orgánicas y usarse como* ***Euskera literario.*** *Otros quieren que se establezca en cada dialecto y subdialecto, de suerte que haya un* ***bizkaino literario*** *y un* ***bizkaino vulgar,*** *un* ***guipuzkoano literario*** *y un* ***guipuzkoano vulgar,*** *un* ***laburdino vulgar*** *y un* ***laburdino literario,*** *etcétera." "Estimo que ninguno de los dos proyectos es admisible..."*

MITXELENA-ren ondorengo hitzek ere (1960,144) horrelako zerbait adierazten dute:

> *"Tenía además una ciega admiración, muy vasca, por la lógica: en nombre de la consecuencia nunca vacilaba en aceptar una conclusión, por extraña que esta resultara, si ésta parecía seguirse de los princi-*

*pios que había fijado. Por esto es él el responsable principal, aunque no el único, de un cierto ideal de pureza que ha tenido larga vigencia entre nosotros."*

Nik ez dakit hitz hauek esaterakoan, Sabino Arana-k aldaki literarioei zien aurkakoan pentsatzen zuen Mitxelena-k, baina, edozein eratan ere,logika hori zen eskeintzen ziena Arana-k hiztunen erabilera aske eta berezkoei; eta askatasun horri eusten zion, erabilera jator eta garbitzat hartuz baserritarraren ahotik berez, eragozpenik gabe sortzen zena, edo, okerrago dena, "hizkuntza aristokratikoaren" eta arrunt eta landu gabearen artean bereizketarik egin gabe.

Sailkapen dialektalari dagokionez Bonaparte-renari darraio (1965,821-1.oharra); Bonaparte-ren hiru talde nagusiak honela deitzen ditu Arana Goiri-k: bizkaitarra, baskoia eta piriniotakoa. **Baskoi** izena hartzen du baskoiak zirelako euskalki hori erabiltzen zutenak: "sin duda lo hablaron los que fueron designados con el nombre de **vascones, uascones** por los latinos españoles". Piriniotakoari buruz zera dio: "también pudiera llamarse **gaskón** si este nombre no lo tuviera ya un idioma neolatino...". Sailkapenari buruz, esan bezala, Bonaparte-renari jarraitzen dio batere aldaketarik sartu gabe. Jokabide honek Printzearen sailkapena sendetsi egin zuen eta ondorengo hamarkadetarako ongi finkatua utzi zuen.

### 3.4.3. Ikertzaile atzerritarrak

Atal honetan zenbait hizkuntzalari atzerritar aipatu nahi nituzke, euskararen bitxitasunak eta ahaidetasun ezak erakarriak eta euskararen azterketari ekina eta denbora eskeini zizkiotenak. Dena dela, ez ziren horiek arrazoi bakarrak, Humboldt-ek ere, bere lanen bitartez eta Berlin-go Unibertsitatearen bitartez, asko

hedatu zuen euskararenganako eta gure herriarenganako zituen mirestasuna eta zaletasuna; eta gero Bonaparte Printzeak euskarari eman zizkion hainbeste urtetako ahaleginak ere garaiko hainbat hizkuntzalari bultzatu zuen euskara aztertzera.

Gu ez gara guzti horiek azaltzen hasiko, banaka batzuk, zeharka eta zatika, geografia linguistikoko eta dialektologiako lanak egin dituzten arren (63); guk euskal dialektologia zuzenean eta bere osotasunean hartu eta tratatu dutenak ikusiko ditugu.

W.J. VAN EYS-ek (64) euskara apur bat Zarautz-en ikasi zuen, baina ezagutzen zuena liburuetatik ezagutzen zuen gehienbat. Bi lan ditu nagusiak, **Dictionnaire basque-français** (1873) eta **Grammaire comparée des dialectes basques** (1879). Aditzari buruz ere idatzi zuen lanik, eta berari zor diogu **Refranes y sentencias de 1596** lanaren edizioa (1896).

Gramatikan ematen duen euskalkien sailkapena sei euskalkitakoa da: Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera, Behe-Nafarrera, Nafarrera eta Zuberera. Oso eritzi trinkoak eta berekoiak zituen euskararen izaeraz eta historiaz, eta kezka gutxi, bestalde, bere eritziak azaltzeko. XIX. mendearen amaieran, gainera, oso gogoko zituzten polemikak, nahiz beroak eta garratzak izan. Van Eys ere ez zen horietatik libre atera: Schuchardt-ek eraso oso gogorrak jaurtiki zizkion, batipat hizkuntza mintzatuan ez baina idatzian oinarritu zelako, eta gainera ez bere garaiko idazleengan, baizik aurreko mendeetakoengan oinarritu zelako gehienbat. Ez zituen, bestalde, beti ongi ulertu, edo, ez zituen, bederen, beti zuzen interpretatu. Campión-ek eta Bonaparte-k ere gupidarik gabe astintzen dute; begira zer zioen azken honek A. Arana-ri bidalitako gutun batean, ALTUNA (1985,325):

> *"La Grammaire des Dialectes Basques de M. Van Eys vient de paraître. Les impertinances, les mensonges grossiers à mon ègard y abondent . J'ai déja répondu il y a quelque temps à ce Monsieur dans l'"Academy" d'ici, et comme j'ai pris l'engagement envers le public de ne plus rien avoir à faire avec M.*

*Van Eys, je ne me donnerai pas la peine de rélever une seconde fois les erreurs incroyables de ce chef d'oeuvre d'ignorance, de mauvaise foi et de sotte et impuissante méchanceté."*

Ez zioten, haatik, gehiegirik eragiten behin eta berriro itzultzen bait zen ateka gaizto berdinetara erasoei bide emanez (65).

Beste polemista gogor bat J. VINSON izan zen. **Revue de Linguistique**-n zuzendaria izatera iritsi zen eta bere erizpide eta iruzkinekin asaldatu zituen inoiz bere garaiko euskaldunak eta Bonaparte bera ere (66). Gramatikazko gaiez Stempf eta Schuchardt-ekin eztabaidak izan zituen, euskal aditzaren pasibotasunaz hain zuzen, Vinson horren aurkakoa bait zen. Hizkuntzalaritzako lanik gehienak **Revista Internacional de Estudios Vascos** aldizkarian argitaratu zituen. Eta 1891-92 urteetan bere **Essai d'une bibliographie de la Langue basque** lan garrantzitsua argitaratu zuen.

Dialektologiari dagokionez, Vinson-ek Bonaparte-ren sailkapenari jarraitu zion, eta Bordel-en, "La Parabole de l'enfante prodigue" zelakoaren materialak jaso ondoren, Iparraldeko hizketen sailkapena honela egin zuen:

I - LAPURTERA:
- a) Propioa (Zugarramurdi eta Urdazubi barne direlarik)
- b) Denetarikoa
- c) Mixtoa
- d) Kostaldekoa

II - Mendebaldeko Behe-Nafarrera:
- a) Lapurdi-koa
- b) Erdigunekoa
- c) Mixtoa
- d) Aturri aldekoa

III - Ekialdeko
Behe-Nafarrera:
a) Bardoze-koa
b) Arberats-ekoa
c) Amikutze-koa
d) Zize-koa

IV - Zuberera: Aldakirik gabea, bateratuena delako.
Eskiula ere hartzen du, Oloron-go Kantoikoa den arren.

Sartu dituen aldaketek ez dute eragin haundirik; beraz, Bonaparte-ren sailkapena sendotu egiten du. Pirinio-en Hegoaldeko herriguneak sailkapenetik at uzten ditu. Euskalkien banaketa lehen bezala uzten du; azpi-euskalkietan, aldiz, -berak "aldaki" deitzen die-, euskalki batetik bestera aldaketaren batzu egiten ditu, hala nola, Aturri-koa Mendebaldeko Behe-Nafarrerara eramaten du, eta Baigorri-koa ez dakigu non sartzen duen, ez bait du aipatu ere egiten ez aldaki ez herrigune bezala (67). Aurretik jasotako material idatzietan oinarritzen denez, pentsa daiteke Bourciez-en inkestak ez zuela, ziurrenez, Baigorri-ko eskualde hori batuko, ez bait du batere aipamenik egiten horretaz bere lanean zehar.

Amaitzeko, gogoratu nahi genuke Vinson-ek euskararen inguruan egindako lanen zerrenda G. Lacombe-k argitaratu zuela (68). Hortik bat nabarmenduko genuke, lehena dela egia ez bada ere: "Premier essai de phonètique basque", **RIEV** 3 (1909) 423-459 eta **RIEV** 4 (1910) 118-127.

### 3.4.4. Polemika bat: Bizkaieraren egoera

Atzerriko idazleen zerrenda hau isteko G. LACOMBE ekarri behar da, eta harekin oraindio egun ere irauten duen polemika bat, G. LACOMBE (1952, 260):

*"Il suffirait peut-être de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l'on pourrait appeler aussi basque occidental) d'un côté, et d'autre côté touts les autres dialectes (guipuzcoan, dialectes de la Haute et de la Basse Navarre, labourdin, souletin) [...] On pourrait appeler ce groupe, par opposition au premier, centro-oriental. Nous justifierons cette clasification par la considération suivante: on passe par gradations insensibles d'un parler à l'autre parmi ceux que constituent ce groupe, tandis que le saut est brusque lorsqu'on passe de guipuzcoan au biscayen. Ce dernier dialecte se distingue en effet, dans toute une partie de son verbe par l'emploi d'auxiliares qui lui son propres, il offre des particularités qui n'appartiennent qu'à lui dans maints détails de la grammaire en plus grand nombre que les autres dialectes, et enfin son vocabulaire tranche aussi assez souvent sur celui de ces congénères."*

Beraz, Bonaparte-k bere sailkapenean egin zituen hiru talde haundiak Lacombe-k bitara bihurtzen ditu, edo hobeki esanda, Bonaparte-ren zortzi euskalkiak hemen bi baino ez dira: **Mendebaldeko euskara** eta **Erdialde-ekialdeko euskara,** edo, bestela esan, Bizkaiera eta Bizkaiera ez dena, hau da, Bizkaiera eta beste guztia.

Ideia hau ez da berria; Bonaparte-k ere onartzen zuen Bizkaieraren berezitasuna eta talde bat berarekin bakarrik egin zuen; Campión-ek eta Broussain-ek ere onartzen zuten hori, eta lehen aipaturiko **Informe**-an (1920,5) honela diote Bizkaierari buruz:

*"El más homogéneo, compacto y denso de todos, que sobre todos descuella por su masa imponente, sus tres variedades son tan poco abultadas, que apenas frisan el calificativo de sub-dialectos."*

Duvoisin ere antzera azaltzen zen Bonaparte-ri 1860-ko Ekainaren 27-an idatzi zion gutunean; Lapurteraren, Zubereraren, Gipuzkeraren eta Nafarroako euskalkien artean alde haundirik ez dela dio, baina bai horien eta Bizkaieraren artean, DARANATZ (1928,62):

> *"Le biscayen seul s'éloigne des autres dialectes d'une manière assez caractérisée pour laisser croir qu'il soit possible d'y trouver des propriétés bonnes ou mauvaises que les autres ne possèdent pas."*

C. C. Uhlenbeck haratago joanen da oraindikan: Bizkaiera beste hizkuntza bat izan ote zitekeen asmatzera ematen du, gero, denboraren iraganean, bereiztasunak gutxitu edo ezabatu ahala Gipuzkerara hurbilduz joan dena .

Julio de URQUIJO-k ere, zuhurtasun eta oreka haundiko gizona izan arren, ideia beretsuari eutsi zion, egungo euskararen egoeran zortzi euskalki onartuz, baina gertakizun diakronikotara begira zera esaten duelarik, (1929,20):

> *"... en un momento dado, debieron reducirse sólo a dos, el antepasado del vizcaíno y el de los otros siete dialectos vascos...".*

Lafon ez da hain zehatz azaltzen, eta baditu bere zalantzak batera edo bestera makurtzeko (1943,13 eta 73):

> *"M. Lacombe est d'avis que les dialectes basques peuvent être divisés en deux grands groupes, le biscayen d'une part, et de l'autre tous les autres dialectes. Cette opinion, qui parait fondée dans l'ensemble, nous semble devoir être nuancé de quelques réserves [...] Cette importante affirmation de M. Lacombe, dont les bascologues souhaitent qu'il expose un jour la justification..."*

Mitxelena behin baino gehiagotan mintzatu da gai honi

buruz (69); baina bere azkenaldiko lan batetan (1981) agertzen duen eritzia ikusiko dugu, hori delako bere eritzirik berriena, aurrekoak ere bertan batzen dituelarik bidenabar.

Lehenengo eta behin, zatiketa dialektal ezberdinak guztiz normalak direla onartu behar da, ez bait dago ez erizpide finko eta hutsik gabekorik aldakiak ezartzeko, ez eta ikuspegi subjetiboak eraginik ez izaterik ere zatiketa horiek egiterakoan. Eta ezberdintasunak heurak ere ez dira berdinak zaleentzat eta espezialistentzat.

Honela azaltzen da MITXELENA (1981,299):

> *"El vizcaíno es, por lo tanto, un dialecto vasco a secas, es una entre varias ramas, por usar la imagen arboriforme familiar, no una entre dos. Como dice Tovar,* ***op.cit,*** *p.174 (70): "Se trata de un dialecto bien caracterizado, pero, en definitiva, no independiente. Forma parte del patrimonio común del vasco, es un tesoro de antigüedades lingüísticas como todos los demás dialectos, pero no nos permite remontarnos, con la reconstrucción en él basada mucho más allá."Lo característico de su personalidad se debe además en buena medida -dio Mitxelena-k-, a su condición de dialecto marginal."*

Mitxelena-ren ustez Bizkaieraren eta Ekialdeko euskalkien arteko desberdintasunak haundituz joan dira XV-XVI-garren mendeetatik gaur arte, eta hortik ateratzen du:

> *"no veo, por consiguiente, razonez que no inviten a no extrapolar, es decir, a no suponer que las divergencias eran todavía menos marcadas digamos en el siglo X" MITXELENA (1981,300).*

Halaz ere, honela bukatzen du:

> *"fue Vizcaya la región vasca que tuvo y retuvo una personalidad más acusada, y que fue más refractaria a influencias llegadas desde Pamplona a otros centros situados fuera de su territorio." (1981,313)*

Egun ere, erizpide honi eusten zaiola gehienbat uste dugu, salbuespenak ere badiren arren, eta hauetariko bat ALLIERES-ena (1981,108):

> *"C'est le biscayen qui, de loin, se sépare le plus nettement des autres, au point que l'on a pu suggérer qu'il s'agirait peut-être, primitivement, d'une langue distincte peu à peu attirée, par voisinage, dans l'orbite basque; l'hypothèse est d'autant moins inconcevable que d'une part tout dépend, au fond, du sens que l'on attribue au mot "langue", et que, d'autre part, on trouve vraisemblablement dans le gascon un autre exemple du phenomène, puisque, selon toute probabilité, il n'a acquis que relativement tard les traits qui, aujourd'hui, le rattachent indiscutiblement à l'ensemble occitan."*

Azkenaldi honetan Bizkaieraren eta beste euskalkien arteko idekotasuna frogatzeko ahalegina ageri da. "Hiperbizkaiera" izena, "hipervizcaíno", MITXELENA-k atera zuen (1981,300) Bizkaierarenak soilik diren hizkuntz gertakizunak izendatzeko:

> *"algo es vizcaíno de lengua si y solamente si sólo aparece ahí y falta en las demás variedades de la lengua (de la cual se sigue suponiendo, sin embargo, que es dialecto el vizcaíno); si no se alcanza esa perfección extrema, siempre deseable, algo es vizcaíno en la medida que tiene menos copartícipes o, en otras palabras, en la medida en que no es vasco común."*

Zenbaiten artean hitz hau aski ongi kausitu da, baina halako erdeinu kutsu bat hartu du (71). Edonola ere, guk uste dugu bi maila bereizi behar direla. Batetik, Bizkaieraren eta beste euskalkien arteko antza edo berdintasuna, ikuspegi historikoz egitekoa litzatekeelarik azterketa hau. Bestetik egongo litzateke azterketa sinkronikoa, hau da, non kokatzen den egun Bizkaiera euskalkien

artean. Beldur gara, egia esan, "hiperbizkaiera" eta "hiperbizkaieratartasuna" kontzeptuak arinkiegi eta saihestuegi erabiltzen eta nahasten ez ote diren; izan ere, azken batez, euskalkiak elkarrekin erkatu ahal izateko, funtsezko azterketa lanak falta dira. Eta uste hau ez da guk esaten dugulako, MITXELENA-k berak ere honela bait dio hainbeste aldiz ekarri dugun artikuluan (1981,298):

> *"... es indudable que la frontera vizcaíno-guipuzcoana se presenta abrupta [...] esa frontera -Bizkaiera eta Gipuzkeraren arteko mugaz ari da- que coincide en trechos con el frente de guerra tal y como quedó estabilizado en octubre de 1936, jamás ha sido explorada en detalle punto por punto. [...] Antes de levantar teorías, sería necesario dedicar algún tiempo al humilde, trabajoso, pero indispensable menester de observar los hechos."*

Guk ere uste dugu ezin dela erabateko ondoriorik atera, eta ezin daitezkeela datuak bere garaitik eta testuingurutik kanpo erabili, ondorioak ere ez direlako berdinak izaten.

## 3.5. RESURRECCION Mª DE AZKUE

Euskal dialektologian, Bonaparte-ren ondoren Azkue nabarmendu da indar bereziz, alde batetik materialak, ahozkoak nahiz idatziak, biltzen egin duen lan etengabea eta apartagatik, eta, bestetik, oraindikan gainditu ez diren idazlan berebizikoak egin dituelako.

### 3.5.1. Hiztegia

**Diccionario vasco-español-francés** (1905) hiztegiaren sarreran, XXVI- XXX orrialdetan, Bonaparte-ren sailkapenari

jarraitzen dio honako aldaketekin: Erronkariera euskalki propiotzat hartzen du; Goi-Nafarrerako euskalkiak -Iparraldekoa eta Hegoaldekoa- biak baten sartzen ditu,Goi-Nafarrera euskalki bakarraren azpi-euskalki egiten dituelarik; eta beste hainbeste egiten du Behe-Nafarrerarekin, biak -Ekialdekoa eta Mendebaldekoa- Behe-Nafarrera bakarraren azpi-euskalki bihurtuz. Azkue-ren sailkapena, beraz, honela gelditzen da (72): Bizkaiera, Gipuzkera, Goi-Nafarrera, Lapurtera, Behe-Nafarrera, Zuberera eta Erronkariera.

Erronkarieraren nortasunari dagokionez, zera aitortzen du (1905,XXVI): "Debo á nuestro docto escritor Sr. Campión, en conversación particular, la iniciativa de esta idea."

Ez dirudi euskarak aintzinatean batasun haundiagoa izango zuela uste zuenik Azkue-k, Humboldt-en **Correcciones y adiciones al Miltriades**-en oinarrituz honela bait dio (XXVII):

> *"la multiplicidad de dialectos y variedades, por lo que hace á nuestra lengua, estriba en la gran extensión territorial que un tiempo abarcaba y la separación que mediaba entre los que la hablaban."*

Eta hortxe agertzen du hizkuntzaren batasunaren beharra (XXII-XXVIII):

> *"... si queremos que nuestra hace siglos canosa lengua cobre la robusta vida a que tiene derecho, es absolutamente necesario que el arte y la literatura nos lleven á la unificación, [...]. Así nuestros esfuerzos serán realmente prácticos."*

### 3.5.2. Gipuzkera osotua

Izan ere, euskararen batasunarena guztiek ikusten zuten beharra zen. XIX. mendean ere bazen zenbait pertsona batasun

horren beharra agertu zuenik, baina mende honetan ez da zalantza txikienik ere horri buruz. Azkue-k bere proposamena **Ardi galdua** (1918) eleberrian egin zuen, praktikan ipiniz berak zuen teoria, eta baita "Observaciones acerca de la obra "Langue Basque et Langues Finnoises" del P.L.L.B." lanean ere, **Euskera** (1927). Batasunerako Gipuzkera hartzen du ardatz bezala (1927,29):

> *"La importancia de este dialecto -Gipuzkeraz ari da- radica a mi modo de ver, no en su mayor pureza, ni en la abundancia de su léxico ni en que cuenta con más copia de viejos documentos, sino que valiéndonos de él nos entendemos en general los vascos de diversas comarcas mejor que mediante cualquier otro dialecto; siendo además, como dije en la Introducción al Prontuario de la Lengua Vasca, dialecto geográfica y lingüísticamente central. Reúne además a su favor la circunstancia de ser algo más fácil su aprendizaje, gracias a estar literariamente casi del todo unificado."*

Ondorioa, Azkue-k tituluan bertan garbi dioen bezala, Gipuzkera berregina da, "Gipuzkera osotua". Lexikoan Bizkaierako zenbait hitz hartzen ditu eta hitz berri ugari ere sortzen ditu.

Idazkera ere gai oso eztabaidatua zen, eta akordiorik ez bazen lortzen ere, mundu guztia bat zetorren ortografiaren batu beharraz. "Gipuzkera osotua"-ren idazkeran berrikuntza batzu sartzen ditu: esaterako, "tz" eta "ts"-ren erabilera, edo kontsonante sudurkarien eta albokarien bustidura ez seinalatzea. Gure sistema ortografikorako hainbeste urte geroago hartuko den erabaki honen zioa, Azkue-k bere eleberrian jakinarazten du, eta **De fonética vasca** (1919) lanean ere bai, eta ez da besterik euskalkien artean hurbilketa bilatzearena baizik: bustia eta busti gabea ahoskatzen dutenen artekoa, alegia, erabaki honekin aldaki edo erabilera bakoitzaren arauera irakurketa bietarako aukera uzten delarik. (73).

Azkue-ren egitasmoa hortantxe gelditu zen, eta giroak batasuna eskatzen zuen arren, ez zuen beste emaitzarik eman Azkue beraren eleberria izan ezik. Giro horren adierazgarri, adibide bat baino ez dut eskeiniko, **Euskera** aldizkarian (1922) argitaratu ziren Euskaltzaindiko bileretan euskararen batasunaz izan ziren txostenak: Campión eta Broussain-en **Informe**-az gain, Orixe, Larrakoetxea, Eguzkitza, Azkue eta beste hainbat luma ezagunenetarikoak hemeretzirarte, eta denek batasunaren beharrari eutsiz beren agiri eta txostenetan.

### 3.5.3. Erizkizundi irukoitza

Giroa, beraz, aldekoa da. Denek ikusi dute eta bizi dute euskara hainbeste euskalkitan zatitua eta barreiatua aurkitzeak zenbateraino eragozten duen hizkuntzaren berezko erabilera. Euskararen egoera larriak, bestalde, indartu baizik ez du egiten batasun horren egarria. Euskaltzaindia ere, hainbeste ahaleginen ondoren, azkenean 1918-an sortzen da (74), eta haren helburu nagusia hasiera-hasieratik euskararen batasuna bultzatzea da. Azkue bera izan zen lehenbiziko lehendakaria, eta urteren baten buruan aurkeztu zuen proposamen bat. Galdekizun hirukoitz bat da: fonetikoa, morfologikoa eta lexikografikoa. Euskaltzaindiak, 1921-eko urriko 27-ko bileran, akordio hau hartzen du:

> *"Euskaltzainburuak, bere beste lan askoren ideko euskal-lan eder bat dakar.* ***Erizkizundi Irukoitza*** *deitzen diyo. Iru zati ditu lan onetxek:* ***itzen-otsa*** *(cuestionario fonético),* ***itzen erabidea*** *(cuestionario morfológico) ta* ***itz batzuen erabilkera*** *(cuestionario lexikográfico). [...] Euskaltzain bakoitzari, bere etxera, lan ori osorik igortzea, erabaki da."*

Lan honen xedea Euskaltzaindiak aurretik hartu zuen erabaki baten oinarritzen da. Batasun lanari ekiteko ezinbestekoak

ziren oinarrizko arau batzu; ez zen, ordea, helburua euskara bera batzea, ez bait zen Euskaltzaindiaren asmoa hizkuntza estandarizatzea, hiztunen erabilerak ezagutuz gero, gramatika batua egitea baizik (75).

Aktetatik atera daitekeenez, 1922-garrenerako eginak omen zituzten inkestaren batzu. Halere, lana luzea izanen da ikusiz joango garen bezala.

Galdekizun labur hau jasotzen Nafarroa-n A. Eusebio Etxalar-koa eta A. Polikarpo Iraizoz ibiliko dira; Gerhard Bähr eta N. Ormaetxea, "Orixe", Gipuzkoa-n; Lacombe eta H. Gavel Iparraldean, (BN)-rentzat Dassance-ren laguntzaz; geroago Odon Apraiz-ek ere lagundu zuen Iparraldean eta (B)-ri zegokionez, Deba Garaian (76).

Inkestetarako koadernotxo batzu prestatzen dira. Bakoitzean, galdekizunaz gain, herriaren izena eta inkestaren zenbakia batzen dira; baita lekukoari buruzko argitasunak eta haren zehaztasun pertsonalak ere. Laurehun galderek osatzen dute galdekizuna, eta maila lexiko, morfologiko eta fonetikoari dagozkie, eta sintaxitik ere sartzen da zertxobait.

Inkestak ahoz egin ziren, eta Azkue-ren erizpideei jarraituz, galderak frantsesez edo gaztelaniaz egin ziren tokien arauera, erantzunak inoiztxo ere aintzindu gabe.

Jaso ziren inkestak 260-raino iristen dira, baina ez dira denak gordetzen; herrigune ezberdinetakoak 172 dira, baina inkestak banaka batzu gehiago dira, gune batzutan bat baino gehiago jaso baitzen, Orozko-n, esaterako, lau, eta Zarautz-en hiru, eta abar.

Lan honen interesa haundia dela gauza ageria da. Hogeiko hamarkadako hizkuntzaren egoera agertzen du; materialak saile-an-sailean Euskal Herri osoan batu ziren, baita egun euskara galdua duten Araba-ko eta Nafarroa-ko lurraldeetan ere, Hegoaldeko Goi-Nafarreran, Erronkarieran eta Zaraitzeran, eta honen ga-

rrantzia benetan haundia da. Orduantxe izan zen, hain zuzen, atlas linguistikoa egiteko garaia, beste herri askok egin zuten bezala. Kontutan hartu behar da, nolanahi ere, gure egoera, tamalez, askoz ere penagarriagoa zela. Hizkuntza ez zegoen normaldua, ez zen irakaskuntzan irakasten -Azkue berarenak izan ziren lehen saioak erakunde publikoen eskutik alor honetan-, administraritzak ez zion batere arretarik jartzen, eta mendez-mende jasan behar izan zuen jazarpenarekin, atlasa egiteko asmoa egitasmo gehiegia zen ongi burutu ahal izateko.

"Erizkizundi Irukoitza"-ko materialak Orixe joan zen argitaratzen **Euskera** aldizkarian (77). Atharratze eta Barkoxe-koak H. GAVEL-ek berak, inkestagileak, argitaratu zituen **RIEV** aldizkarian (1936) XXVII. alean eta, geroago, Mitxelena-k **Euskera**-n (1960,293-316).

Aipatu dugun eta ukaezina den balio dokumentalaz beste, baditu puntu kritikagarriak ere (78). Galdekizunak berak bazituen hutsuneak eta garrantzi gutxiko gaiak ere jasotzen zituen; galdegileen prestakuntza ez zen beti behar adinakoa; inkestak egiteko erizpideak ez zeuden aski bateratuak; koordinaketa falta; transkribaketa ere norberak egiten zuen bere kasa. Eragozpen hauek mugatu egiten dute materialen balioa, edozein modutan ere aski interesgarriak diren arren. Gaur egun material hauek, Ana María Etxaide-ri esker (79), denok erabil ditzakegu.

Ez da hau ez tokia eta ez unea Erizkizundiaren kartografiaketak eskeintzen duen informazioa zehatz eta lasai aztertzeko, baina, edonola ere, analisi lan hori egin beharrekoa da; ez hasieran zuen xedea lortzeko, hura ez bait da gaur beharrezko, edo hobeki esanda, "euskara batua" osatzen ari den heinean helburu hura betetzen bait doa, baina bai une hartako euskararen egoera ezagutzeko eta baita euskalkien artean azterketa erkatzaileak eta historikoak egiteko ere.

Beharbada deitora daitekeena zera da, Orixe-k egin zuen materialen argitalpen txarra, eta, zalantzarik gabe, Gavel-ena baino askoz ere okerragoa; baina, bestalde, atlasik eza bete zeza-

keten material horiek zeharo ahantziak egon dira berrogeitamar urtetik gora (80).

### 3.5.4. Lan monografikoak

Resurrección Mª de Azkue-k baditu beste lan monografiko batzu ere. Honek ere egin zituen, Bonaparte-ren erara, txango linguistikoak, baina akademia baten laguntzarik gabe, berak bakarrik, datuak eta argitasunak Hiztegirako eta Morfologiarako bilduz, Euskadi osoko herri eta bailarak, eta toki horietako, zahartegiak batipat ibiliz. Bidaia hauen beste emaitzen artean daude **Particularidades del dialecto roncalés** (1932) eta **Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera** (1928) (81). **Verbo guipuzcoano** ere argitaratu zuen (1932), non esaten duen Burunda-ko aldakiak Gipuzkeraren eta Bizkaieraren ezaugarriak dituela, edo, bestela esan, nahastua edo kutsatua dagoela.

Askotarako gizona izaki, Azkue-k batu zuen beste adierazpen herrikoi ugari, folklorea, musika, ipuinak, errefrauak, esateak eta abar ere, eta lau aletan argitaratu zituen **Euskalerriaren Yakintza** izenburuarekin (1935). Ordurako galtzear zeuden herrikulturaren azken aztarnak ziren, agian.

### 3.5.5. Azkue-ren lanari kritikak

Hain lan ikaragarrizkoak aisa izanen du nork astindu, eta areago dialektologiazko ikusmiraz aztertzen bada. Mitxelena-k **Morfologia**-z zioena (82) beste lanetara ere luza daiteke; izan ere, bere aitaren bertsoak argitaratzerakoan (83) zernahi aldatzeko kezkarik ez duenak, haien airea edo gogoko ez duelako, ez

du eragozpen haundirik izanen han-hemenka edozein aldaketa sartzeko. Ez zen, ez, oso begiratua jasotzen zuen informazioarekin. **Euskalerriaren Yakintza** altxor bat da etnografiarako, baina ez, ordea, dialektologiarako: aldatu egiten du bere kasa, gauza berriak sartu, itzuli bere gisa eta iturria beti ematen duen arren, sekula ez da erabat fidagarria, eta aurkezten dituen agerkiei ere beti egotzi ahal zaizkie aipaturiko eragozpen horiek edozein tokitako ordezkagarri hartu ahal izateko (84).

**Diccionario**-az ere gauza beretsuak esan daitezke. Hitzen bilketa izigarria suposatu zuen; garaiko hizketa bizitik hitz asko jaso zituen, baina aunitzetan baita beste hiztegi batzutatik ere, nahiz argitaratuetatik nahiz eskuizkribatuetatik, eta batez ere azken hauetatik. Arazoa, alabaina, betikoa da: zein euskalki eta zein aldakitako den hitza esaten du, baina zehaztasun horiek ez dira beti arras tinkoak izaten, eta erabili nahi badira dialektologian, egiaztatu beharra izaten dute, ez bait da beti egia berak dioena.

MITXELENA-k (1961, 13) Azkue-ren **Diccionario**-az dio, batetik Larramendi-renari ateak larregi hertsi zizkiola -ez bait zen Azkue Larramendi zalea-, baina zirrikitu ugariegi utziz, bestetik, handik eta hemendik sartu zitzaiolarik:

> *"... eta hori dela medio maiz topa dezakegulako Larramendi eskumikatua Azkue'ren iztegian."*
>
> *"Ez, noski, bere izen-deiturekin, izengoiti ugariekin baiño. Eztezagun, ordea, geure burua engaña. Zer dira, bestela, Azkue-k oartzaka ala jakiñaren gaiñean eztakit, aipatzen dituen orrenbeste izen Larramendi otsoaren ardi-larruak baizik? Ona emen zenbait: Londres, Otxandio eta eztakit nongo esku-izkribuak, Añibarro, Cardaberaz, Iztueta, Hervás y Panduro."*

Beste lan baten ere ematen ditu adibideak MITXELENA-k (1970,28-29):

> *"Lo que no podemos ignorar es que los escritores*

*posteriores han echado mano, casi sin excepción, de Larramendi y, por tanto, de sus neologismos; los unos (Joaquín Lizarraga, Iztueta, Hiribarren) con profusión, los otros (J.B. Aguirre, Lardizabal, Harriet) con parsimonia. En unas páginas del* ***Diccionario*** *de Azkue tomadas como muestra, encontramos sin rebuscar, palabras como éstas, con sus correspondientes autoridades: andeza, "tumor acuoso, edema" (Añibarro, Lacozquieta),* ***angurri,*** *"sandía" (ms. Londres),* ***akirin,*** *"cabrón castrado" (Añ),* ***aski,*** *"grama" (ms. Londres),* ***atseden*** *"respirar" (Añ)..."*

*"No se trata de negar que cada uno de estos términos sea genuino y hasta muy popular. Afirmo sencillamente que, en cada caso, la fuente de Azkue, aunque creyera otra cosa, es siempre la misma bajo diversas especies: Larramendi."*

Beraz, ohar hauek kontutan izanez gero, Azkue-ren hiztegiaren balioa mugatuagoa agertzen zaigu informazio geografiko bermea atera ahal izateko, dialektologoa behartua dagoelako datorkion materialaren jatortasuna kasuz-kasu egiaztatzera.

Arazo fonetikoa ere oso garrantzitsua da; kontsonante xistukariak ez dira beti zehatz bereizten, sabaiaurrekoa zenbaitetan mihipuntakoa delarik, edo alderantziz ere afrikatuen kasuan, eta horrela zalantza eragozpen gertatzen da.

Guzti hauek horrela izanik ere, Azkue-ren lan erraldoiak garrantzirik behinena du dialektologiarako. Egin zuen Erronkarieraren deskribapenak neurtezinezko garrantzia du, hil-hurren baitzen orduan euskalki hori. Aezkeraren materialak euskalki honen azterketetarako oinarri dira, eta etnografiarako ere badute baliorik. Eta edozein gisatan ere, nola Hiztegia nola Morfologia ekarpen garrantzitsua dira dialektologiarako. Horregatik, Azkueren irudia gailentzen da beste guztiengandik datu-biltzaile bezala ezeze baita analista bezala ere. Eta, azkenik, berari zor zaio Eus-

kaltzaindiak paratu zuen lehen galdekizun linguistikoa, ordena batean eta sailean-sailean Euskal Herri osoan jaso zen galdekizuna.

### 3.6. 1936-REN AURREKO BESTE LAN DIALEKTOLOGIKO ZENBAIT

Mende honen aurreneko urteak oso garrantzitsuak izan ziren euskal ikasketetarako, lan asko egin zirelako gure herrian bertan eta gure herritik at. Edonola ere, garai horretan indartu zen hizkuntzalaritza eta, nola ez, baita dialektologia ere. Hizkuntzen ezagupenaren ardura eta kezka XIX. mendetik zetorren, baina areagotu egiten dela, esan daiteke, mende honetan. Bilketa eta analisirako bitartekariak hobeagotuz doaz, eta horiei esker alor berriak ere irekitzen zaizkie ikertzaileei. Euskal Herria aski gibelean gelditzen da teknika berriei dagokienez, baina kanpotiko ikertzaileek begia emana diote euskarari, eta horri esker euskararekin ere erabili ziren teknika horiek. Aurretik gogoratu dugu Rousselotek euskararekin zuen arreta, eta nola Euskadi-ra ere etorri zen beste hainbesteren helburu berarekin.

#### 3.6.1. Grabaketak

1913-ko udaran Austria-ko etnografo bat iritsi zen hona, Rodolfo Trebitsch, xede bikoitzarekin (85). Alde batetik, herriko arte lanen bilduma bat egin nahi zuen Viena-ko Museo Etnografikorako (86); eta bestetik, euskalki denetako zatiak grabatu nahi zituen diska fonografikotan, gero artxibatzeko asmoz Viena-ko Fonogrammarchiv-en, egun munduko fonotekarik aspaldikoena. **Viena-ko Zientzien Akademia Inperiala**-ren menpean dagoen fonoteka honek munduko hizkuntza eta dialekto guztiak

artxibo fonologiko baten gordetzea zuen helburu; aisa uler daitekeenez, ez zegoen helburu hori betetzerik , baina garai hartako pentsakizunekin oso egoki zetorren asmo hori.

Trebitsch akademia horrek kargutua etorri zen, eta zenbait pertsonek lagundu zioten. J. Urquijo-k Sara-n eta Ainhoa-n lagundu zion, eta Bizkaia-n eta Nafarroa-n ere; Iparraldeko gainerako tokietan Georges Lacombe-k eta euskal pintore M. Gabriel Roby-k; eta Gipuzkoa-n Euskalerriaren-Alde aldizkariaren zuzendaria zen Gregorio Mugica-k.

J. URQUIJO-k (1913, 577-579) Euskal Herrian lehenbizikoz eginiko grabaketa linguistikoa egin ahal izateko igaro behar izan zituzten gorabehera eta arazoen kontu zehatz-mehatz ematen du. Nolanahi ere, Viena-ko artxibo fonografikoko batzorde hartzaileak "bikainak" bezala jo zituen egin ziren grabaketak. Erabili zen fonografoak argizarizko disko baten grabatzen zuen, gero beste iraunkorrago baten errejistratzeko. Grabaketa egiteko metodoa URQUIJO-k (1913,578) azaltzen digu:

> *"Una vez escogido el individuo que ha de hablar ante el fonógrafo, se le encarga escriba un cuento, relación, trozo de historia ó algo por el estilo, en su dialecto de nacimiento, y se ejercite en seguida en la lectura del mismo, de modo que no incurra en confusiones ó tropiezos en el acto de impresionar los mismos."*

Ikertzaileak, diskoarekin batera, grabatutako testu idatzia eraman behar zuen, eta, Urquijo-k dioenez, H. Schuchardt omen zen euskal disko horien iruzkin filologikoa egin behar zuena (87).

Grabaketak egin ziren tokiak hauek dira: Sara, Hazparren, Amorotze, Behanze, Bardoze, Donibane-Garazi, Baigorri-Garazi, Maule, Bildoze, Santa Grazi, Barkoxe, Garindañe, Atharratze (musika) eta Ainhoa, Iparraldean; Bergara, Azpeitia, Lizartza, Ataun, Tolosa, Gipuzkoa-n; Lekeitio, grabaketa bat Azkue berari, Markina, Mungia, Bizkaia-n; eta azkenik, Nafarroa-n, Orbaizta

(biak Aurizperri-n jaioak), Uztarroz, Elizondo (bat Amaiur-en jaioa), Iruiñea (jota bat) (88). Tokiren batzutan hiru grabaketa ere egin ziren, baina normalean bi edo bat egiten ziren. Guztira 68 gramofono-disko grabatu ziren. Horien balioa ez da testimoniozko hutsa, balio linguistikoa dute batez ere (89).

Viena-koa ez zen fonoteka bakarra; Berlin-en ere bazen Berlin-go Fonoteka Zaharra. Fonoteka honetan gordetzen ziren munduko lehen gerratean alemaniarren preso erori ziren Iparraldeko gudari euskaldunei H. Urtel-ek eginiko grabaketak. Ez da ezagutzen zer izan den fonoteka honekin bigarren Gerrate Haundiaren ondoren; agian desegin egin zen (90).

### 3.6.2. Lan fonetikoak

Espaina-ko 1936-ko gerrate aurretiko azterketa dialektologikoekin jarraituz, fonetikako lanetan ekar genitzake, aipatuez gain, CHARENCY-ko kontearen lanak: **Recherches sur les lois phonétiques de la langue basque** (91) eta **Phonetique souletine** (1891); C.C. UHLENBECK: **Contribution à une phonetique comparative des dialectes basques** (92).

Euskal Herrian ere badira zenbait lan. N. ORMAETXEA "ORIXE" -k "Acento vasco" artikulua idatzi zuen **RIEV** 9 (1918, 1-15), eta "Vocales compuestas o de acento doble en el euskera" ere **RIEV** 10 (1919,45-48). Serapio MUGICA-k "Observaciones sobre la ley de la afinidad de las vocales en los sub-dialectos septentrional y meridional de Guipúzcoa", B 1 (1907, 141-147 eta 340-368). Odon de APRAIZ-ek "Un caso de alternancia -l-:-r-" argitaratu zuen, **RIEV** 11 (1920, 812-94).

Ororen gainetik Henri GAVEL nabarmentzen da doktoradutzako tesiarekin, **Eléments de Phonétique Basque** (93). Lan honetaz esan daitekeena zera da, euskal fonetikako lehenengo

lana dela, fonetikari dagozkion alderdi guztiak zehaztasunez aztertzen dituena. Lan deskribatzailea da, artikulazioaren ikuspegitik egina. Ez du garaiko tresneria teknikoa erabiltzen, alabaina ugaritasun haundiz batzen ditu galeren, aldaketen, ahosketen, sudurkariketen, alternantzien elementu eta fenomenu guztiak. Zubereraren "ü"-ri buruz egiten duen azterketak egun ere dagoen bezala balio du (94). Hitz gutxitan esanda, euskararen eta euskalkien fonetika ezagutu nahiz gero, ezinbesteko manuala da.

Aurretik, Jean LARRASQUET izanen da teknika fonetikoa erabiliko duena hizketa dialektalerako, palatogramak eta kimografoa erabiliz hizketa bateko hotsak deskribatzeko: "Phonetique du basque de Larraja (Quartier de Barcus)", **RIEV** 13 (1932, 153-191). Argitaratu zuen "Sons et alphabet du basque Souletin" ere, **Revue de Phonetique** V (1928, 260-288), beste lan batzuren artean (95).

Ikerketa bide beretik eta Euskal Herriko Hegoaldeari dagokionez, T. NAVARRO TOMAS-ek ere egin zituen lanak, eta Euskal Ikasketen 3. Batzarrean (3er. Congreso de Estudios Vascos) partaide izan zen "Observaciones fonéticas sobre el habla de Guernica", (1923), lanarekin, eta Amado ALONSO-k ere batzar honetan "Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés" (1923) aurkeztu zuen. NAVARRO TOMAS-ek beste lan baten (1925) Gipuzkeraren fonetika aztertu zuen: "Pronunciación guipuzcoana" **Homenaje a Menéndez Pidal** (1925).

Azentua S. ALTUBE-k landu zuen: **El acento vasco** (1932); baita NAVARRO TOMAS-ek ere: "Sobre la entonación y el acento vascos", **RIEV** 17 (1926,404-415); eta N. ORMAETXEA-K **RIEV** 9 (1918, 9-15).

### 3.6.3. Lan morfologikoak

Morfologia mailan garai hartan egin ziren lanak askoz ere

ugariagoak izan ziren, euskarari orohar zuzenduak gehiago, eta ez hainbeste euskalkiei. Dena dela, aurreko mendeko gramatiken eragina nabaritzen da: Abate INCHAUSPE, **Le verbe basque** (Dialecte Souletine), (1858); Jean ITHURRI **Grammaire basque** (Dialecte Labourdin), (1895); L. GEZE **Eléments de Grammaire Basque** (Dialecte Souletin), (1873).

Euskalkiei dagozkien lanetan, bereizgarrienak aipatuko ditugu. A.Damaso de INZA-ren lana nabarmentzekoa da. Goi-Nafarreraren azterketarako egin zuen ekarpenak bide berri garrantzitsuak ireki zituen, batere ukiturik gabe jaso zuelako herri hizketa, hau da, haren lanek hizketaren berezkotasuna gordetzen dute, baita aditzari badagozkio ere. Euskaltzaindirako sarrera hitzaldian aditz laguntzaileaz aritu zen, "Naparro-ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran" **Euskera** (1921, I, 3-35 eta III, 65-92).

Burunda-ko aldakia ere aztertu zuen Ziordia, Olazagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaikoa herrietan. Haren xedea zen herri hauetako euskara euskalkiz benetan Gipuzkera ote zen egiaztatzea, Bonaparte Printzeak horrela sailkatu bait zuen, azpieuskalki berezi bezala izan bazen ere. Horretarako azterketa erkatzailea egin zuen herri horietako euskararen eta Gipuzkoa-ko herrigune hurbilenetakoen artean, hots, Idiazabal-go Ursua eta Zegama-ko Otzaurte auzoetakoarenekin. Atera zituen ondorioetan zera ikusten zuen, alderdi bateko eta besteko hizketak oso iduriak diren arren elkarren artean, benetako erkaketak garbi uzten duela ez dagoela Nafarroa-ko eta Gipuzkoa-ko herrigune horietako euskara bateratzerik, eta Burunda-koa askoz ere hobeki lotzen dela Nafarroa-ko euskalkiarekin. Lanaren izenburua "Burundako euskalkia" da, **Euskera** (1922, III, 3-42).

Beste bi argitalpen ere egin zituen gerrate ondorean, baina bilketa aldez aurretik egina zuen: "Larraun eta bere euskalkia", **Euskera** (1957, II,91-105) (96) eta **Nafarroako euskal-esaera zarrak** (1974).

Gerrate aurretiko beste ikertzaile garrantzitsu bat G. BÄHR

da. "Erizkizundi irukoitzean" laguntzaile izan zen, eta euskal lexikoaz zenbait lan egin zuen, baina batez ere Gipuzkerako aditza aztertu zuen ia agortzeraino. Haren lanen artean daude "Estudio sobre el verbo guipuzcoano comprendiendo el presente e imperfecto de Indicativo del auxiliar transitivo "izan" y de los verbos "jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri, ibilli" en sus flexiones comunes y alocutivas" (97) eta "Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)" (98).

Gipuzkerarako bada besterik ere aipagarririk: ELEIZALDE, "Apéndice a la conjugación guipuzcoana (sub-dialecto guipuzcoano)", **Euskadi** (1905, II (64-77) eta "Notas suplementarias al estudio de la conjugación del grupo A (euskera guipuzcoano)" **Euskadi** V (1908, 239-245). A. GARMENDIA ,"Segurako euskeraren ichura berezia", **Euskal Esnalea** (1914,I, 269-271). ORAITZ "Algunas particularidades del euskera en el Goyerri guipuzcoano", **Euzkerea** (1933,II, 418-419 eta 43)-435); P. ZAMARRIPA **Conjugaciones guipuzcoanas** (1939).

Bizkaierarako, ELEIZALDE,L.: "Breves notas acerca del euzkera de Bergara", **Euzkadi** (1988, V, 239-245. W. ROLLO **The basque dialect of Marquina** (1925). J. ZABALA ARANA: **La conjugación en el euzkera bizkaino** (1919); P. ZAMARRIPA **Gramática vasca con vocabulario vizcaino-castellano y castellano-vizcaino** (1915).

Lapurterari dagokionez, Bonaparte-ren laguntzailea izan zen Duvoisin-ek, "Le verbe basque Labourdin d'aprés le Prince Louis-Lucien Bonaparte" (99) argitaratu zuen. L. FABRE: **Notions élémentaires de Grammaire basque** (dialecte labourdin) (1873). Eta XX. mendearen hasierakoak: J. SAROIHANDY-k bi lan argitaratu zituen: **Le basque de Sare** (1924) eta **Remarques sur le verbe labourdin** (1918). H. SCHUCHARDT-ek, Sara-n izan ondoren, "Zur Kenntnis des Baskischen von Sara" idatzi zuen (100).

Behe-Nafarreraz lanik behinenak honako hauek izan daitezke: DARRICARRERE, "Quelques caracteristiques du dialecte

navarro-mixain", **RIEV** 5 (1911, 19-35), Tartas-en **Onsa ilçeco bidia** liburuko formak aztertzen dituelarik; G. LACOMBE gerrate aurreko eta ondorengo den arren, hemen ekartzeari hobe deritzagu: "Notes sur le basque des Aldudes", **Eusko-Jakintza** VI (1953,1-10); "Le traducteur de Rodriguez et son dialecte", **Gure Herria** II (1931, 68-69) Zize-ko Behe-Nafarreraz; SALABERRY (Ibarla-koa), **Vocabulaire de mots basques bas-navarrais traduits en langue française** (1856); J. SAROIHANDY-ren lan hau ere Zize-koaren ingurukoa da, eta mende honetakoa: "El vascuence en el "Collége de France", **RIEV** 15 (1924, 606-609).

Hauxe izan da 1936-ko gerra aurretik egin ziren lan dialektalen azalpen orokorra. Garrantzitsuenak edo aipatu nahi izan ditugu, baita material dialektalaren bilketa edo azterketa suposatzen dutenak ere. Baina berariz utzi ditugu aipatu gabe itzulpenak eta baita euskalkietako hainbat testu ere, azterketa dialektaletarako behar adinako bermetasunik eskeintzen ez dutenean.

### 3.7. 1936-TIK GEROKO LANAK

Beti 1936-ko data eta gerra hartu ditugu mugarri bezala, gertaera mingarri hark arras suntsitu bait zuen garatzen ari zen mugimendu linguistiko guzia. Egitasmoak, argitalpenak, dena eragotzi zuen gerrak, eta linguistikan nabarmenenak ziren pertsonaiak atzerrira joatera behartuak izan zirenez eta jazarpena ere gogorra izan zenez, ondorengo urteak zeharo elkorrak izan ziren. Bi hamarkadatzar behar izan ziren berriro burua tentetzen hasteko. Euskaltzaindiaren ekintzen hasierak eta komentuetan sortzen den mugimenduak emeki-emeki aldeko giroa ernarazten du belaunaldi berrietan, eta 60-tik aurrera han-hemenka lanak agertuz joaten dira.

K. MITXELENA izan da eredurik nabarmenena hainbat urte-

tan hizkuntzalaritzan eta dialektologian. Haren **Fonética Histórica vasca** (196) lan historikoa izateaz gain euskal fonetika dialektologiko diakronikoa ere bada. Mitxelena-k hizkuntzaren hainbat puntu aztertu ditu, baina gure lanaren ikuspuntutik hagitz interesgarriak dira dialekto bereziei emanikoak: "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal", **Via Domitia** III (1954, 124-158); "Notas fonológicas sobre el salacenco", **ASJU** I (1967, 163-177); "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés", **BRSVAP** 9 (19, 153) **Sobre el pasado de la lengua vasca** (1966) liburuan ere badu kapitulu bat euskalkien ezberdintasunei buruz: "La interpretación de las diferencias dialectales" (45-65. or.). Mitxelena izan da, bestalde, azken urteotako geografia linguistikoko lan guztiak bideratu eta arteztu dituena; ekintza garrantzitsuak ere bultzatu ditu, eta hauen artean gero ikusiko dugun atlas linguistikoarena.

Ikertzaile estranjeroek ere jarraitu dute euskara aztertzen. Aski ezaguna da N. HOLMER eta bere lana **El idioma vasco hablado** (1964), non Iparraldeko Goi-Nafarrera, Gipuzkoa-ko eta Bortzirietako azpi-euskalkiak aztertzen dituen. Bizkaierari buruz ere HOLMER berak eta bere emazte V. ABRAHANSON-ek "Apuntes vizcainos" lana egin zuten hiru sailetan banaturik (101).

R. LAFON-ek tesi doktoralean XVI. mendeko aditzaren sistema aztertzen du, baina baditu azterketa dialektalak ere fonetika-fonologiaren inguruan: "Contribution à l'étude phonologique du parle basque de Larraun (Haute-Soule), **Misc. Hom. A. Martinet** II (1958); **Etudes basques et caucasiques** (1952) lanean kapitulu bat eskeintzen dio Lapurterako bustidurari, "La mouillure en Labourdin", (11-15. or.). Baditu beste zenbait lan ere "ü" bokalaz, aspiraketaz, bokalismoaz, beti Iparraldeko hizketetara mugatuz. **Pirineos** II aldizkarian "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques" (1955).

A. MARTINET hizkuntzalari entzutetsuak ere eman dizkio lan banaka batzu euskal fonetikari orokorki; eta berak arteztu zion G. N'DIAYE-ri Amaiur-ko hizkerari buruz egin zuen tesia: **Structure du dialecte basque de Maya** (1970). K. ROTAETXE-k

ere lan monografikoa egin du Ondarroa-ko euskarari buruz: **Estudio estructural del euskera en Ondarroa** (1978). N. MOUTARD-en ondorengo lan hau ere estrukturala da: "Etude phonologique sur les dialectes basques" (102).

K. IZAGIRRE-k dialektologiarako hain baliotsu diren material linguistikoak batzean erabiltzen dituen zehaztasun eta zorroztasunak benetan miresgarriak dira. Honako lan hauetan zintzotasunik haundiena izan du xehetasun denetan: "El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes", **ASJU** IV (1970) , "Oiñatiko liñagin-iztegia", **Euskera** (1956, 12-20); "Altsasuko euskeraren gai batzuk", **BRSVAP** XXII (1966, 403-407).

J. ALLIERES-ek ere lan ona egin du kartografiaketa sailean. Estatu edo nazio osoa hartzen duten atlas haundien ondoan, beste atlas batzu ere egin izan dira aurretik bilduriko materialez baliatuz, lurralde txikiagoetakoak, eta inoiz aski landu gabeko guneren bat ere aztertu izan dute, inola ere ordezkatzen edo betetzen ez duten arren egin beharrezko diren lan nagusien zerrenda. Horrelaxe egin zuen J. ALLIERES-ek "Petit atlas linguistique basque-français 'Sacaze'", (1960-1961) **Via Domitia** IX-X, gertatu zuenean. "Sacaze" Frantzia-ko irakaskuntza publikoko Ministraritzako funtzionari baten izena zen. Sacaze-k 1887-an inkesta bat igorri zuen korrespondentzia bidez Frantzia-ko piriniotako eta ingurutako zortzi departamendutako herri guztietara. Herri horietako maisuek herriko hizketara bi ipuin itzuli behar zituzten, Barbazan-en eta Tantugon-en leiendak. Itzulpenerako eman zituen oharrak oso zehatzak ziren, COSTA (1977,159):

> *"Ecrivez les mots tels qu'ils se prononcent et n'oubliez pas un seul instant que c'est l'idiome de votre commune, et non celui d'une localité plus o moins raprochée, que vous devez recueillir. Des collaborateurs intelligents nés dans la commune, -les vieillards, de préference-, vous faciliteront la tâche:..."*

Inkestaren xedea ere Sacaze-k maisuei bidalitako gutunean agertzen da, COSTA (1977, 159):

> *"Les matériaux ainsi rassemblés serviront à une étude comparée de nos idiomes pyrénéens (basque, gascon, languedocien, catalan) et nous permettront de classer les dialectes, les sousdialectes et jusqu'aux varietés dialectales modernes qui se manifestent entre des localités toutes voisines."*

Material horiek Toulouse-n Erakusketa Nazional baten 1887-an erakutsi zirenetik, Toulouse-ko Udal Bibliotekan zeuden altxatuak; J. Allières-ek euskarari zegozkionak kartografiatu egin zituen, Iparraldeko hiru lurraldeetakoak, alegia: Lapurdi, Behe-Nafarroa eta Zuberoa. Allières-ek honela azaltzen du argitalpenarekin bilatzen zuen helburua, ALLIERES (1961-82):

> *"Nous persistons en effet à penser que notre travail peut être utile. Bien entendu, et nous n'insisterons jamais assez sur ce point, les documents mis à profit ne présentent aucunement, étant donnée la façon dont ils ont été établis et rassemblés, les caractères d'authenticité et de sincerité qu'exige la dialectologie moderne; il n'en reste pas moins qu'une certaine image du domaine dialectal basque français se dégage de ces cartes, et c'est là l'essentiel."*

Material hauek, korrespondentziaz jasotakoak hain zailak diren arren kartografiatzeko, sailkatuak izan ziren atlas txiki hori osatuz, banaketa honen arabera:

Lehenbiziko 15 mapak galdera orokorrei dagozkie.
Galdera fonetikoak, 16-36 mapak.
Galdera lexikoak, 37-64 mapak.
Galdera morfologikoak, 65-83 mapak.

Denera 83 mapa dira 146 oinarrizko gune edo tokitakoak. Eragozpenik haundiena fonetikoa zen, erantzun idatziek berez bait dute arazo larria transkribatzerakoan. Halaz ere, XIX. mendearen azkenaldiko Iparraldeko materialak kartografiaturik aurkitzea ekarpen interesgarria da Geografia linguistiko diakronikorako.

Honen ondorioz egin den lehenbiziko aplikapen praktikoa, guk dakigunez, Henri GUITER-ena da: "Atlas et frontières linguistiques" (1973) lanean haren formula erabiltzen du euskalkien arteko mugak finkatzeko, Lapurtera eta Behe-Nafarreraren artekoak eta Behe-Nafarrera eta Zubereraren artekoak, eta azpi-euskalkienak eta aldakienak finkatzeko ere bai(103).

Jacques ALLIERES-ek argitaratu zuen, "Petit atlas linguistique basque-français 'Bourciez'" I **FLV** 27 (1977,353-386) eta II **FLV** 47 (1986,5-46)ere. Kasu honetan Seme Galduaren parabola egokituaren itzulpena da, eta Edouard Bourciez izan zen aurrera eraman zuena 1894-1895 urteetan (104). Itzulpen hori korrespondentziaz eskatu zen Frantzia-ko Hego-Mendebaldeko departamendu orotara. Material hauek Bordel-go Unibertsitateko liburutegian aurkitzen dira bildurik "Recueil des idiomes de la région gasconne" izenarekin. "Petit atlas 'Sacaze'"-en parean badu abantailik, testua luzeagoa da eta, beraz, materiala ere ugariagoa da; mapak 50 dira, alabaina lan honek amaitu gabeko lanaren itxura osoa du.

"Sacaze" atlasak zituen eragozpen berberak ditu honek ere: materialak korrespondentziaz batuak izatea, jasotako informazioa transkribatzerakoan erizpideen batasun falta, eta abar. Halere, "Petit atlas" honi esker Iparraldeari dagozkion erresultaduak bikoiztu egiten dira denboraldi bererako, eta horregatik arrunt baliotsuak dira euskalkien eta azpi-euskalkien arteko mugak ezartzeko, eta aldakiak elkarrekin erkatzeko, eta honela atera daitezkeen ondorioak askoz fidagarriagoak dira, ezen ez material bakarrenak, ikuspegi mugatuaren eragozpena bait dute.

Azkenik, euskal dialektologiaren ikuspegi orokor hau burutzeko aipatu nahi nuke "hitzak eta gauzak" metodoa.

Gure artean abegi ona izan zuen "hitzak eta gauzak" metodoak, hizkuntzalarien artean ezeze baita etnografoen artean ere. Telesforo de Aranzadi-ri eta bere **Etnografía, sus bases, sus métodos y aplicaciones a España** (1917) lanari esker itzal bat

lortu zuen. Lan horretan nabarmen daiteke "uztarriei" buruz munduko lurralde askotan egin zuen azterketa (50-51.or.).

CARO BAROJA-k "hitzak eta gauzak" delakoaren printzipioak erabili ditu Bera-ko gertakizun kulturalak aztertzeko, eta printzipio horiekin gezurtatu zuen G. Rohlfs-en baieztapen dogmatikoegi zenbait, **La vida rural de Vera de Bidasoa** (1944). Rohlfs-en erizpide horiek artikulu honetan ageri dira "La influencia latina en la lengua y cultura vascas" da, **RIEV** (1933,323-348) (105). Caro Baroja-k metodo linguistikoak erabili ditu hainbat aldiz, erdiespen haundieneko etnologiazko interpretazio edo azalpenak egiteko (106).

Bide beretsutik doaz M. ALVAR-en artikuluak: **Palabras y cosas en la Aezkoa** (1947) (107).

Zientzietako "Aranzadi" Elkarteak ere lan aunitz ditu metodo honen arabera eginak. Nabarmenena **Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa** (1983), zeinek, izenburua gora-behera, gehiago duen etnologiako ikuspegitik ezen ez linguistikotik.

### 3.8. LABURBILKETA

Euskal atlas linguistikoa hurrengo gairako utziz, orain arte egin dugun Euskal Dialektologiaren Historiaren azalpen honen laburbilketa gisa, zenbait gogoeta beharko genuke egin.

Lehenengo eta behin, begi bistakoa dena zera da, euskaldunok ez garela dialektologia lanetan ez aintzindari ez bide urratzaile izan. Atzeratuak ibiliz gain, lanek ez dute egoki litzatekeen mailarik ez kalitaterik erdietsi. Areago esan daiteke: lanik onenak, salbuespen estimagarri batzu izan ezik, kanpotiko pertsonei zor zaizkie.

Euskal dialektologiaren azkenaldiko gorapenean, deigarri

gertatzen da lanen kopuruan fonetikari buruzkoek izan duten ugaritasuna, ez, izan, asko direlako, ia denak fonetikakoak direlako baizik. Hau ez da harritzekoa, bestalde; gure ingurutatik at ere, dialektologiak askoz gehiago aztertu ditu fenomeno fonetiko eta fonologikoak, barietate dialektalak sailkatu behar izan direnean batez ere. Gure artean ere fonetikako gertaerak izan dira erabilienak. Horien artean, bokal armoniarena da erabilienetakoa, aski berria den arren fenomeno hau, eta honi dagozkion isoglosek ere tinkotasun urria agertzen duten arren. Mitxelena-ren lanak kenduta, fonologiako lan sistematikoagoen hutsunea sentitzen da, fenomenoen ugaritasunean konbinaketa aukerak mugatu eta joera batzu ezartzeko arauak atera ahal izateko. Konbinaketa aukera horiek egungo dialektologia sinkronikoan erabiliz gero, ez legoke asmaturiko forma berregin beharrik, kontutan izan behar da, gainera, formak berregiteko arauak ez dela erraz objetibotasunez erabiltzea.

Morfologiak ere izan du toki aski garrantzitsua, deklinabideari eta aditzari dagokienez batipat, beharbada kasuen eta aditzaren formek ez dutelako arazo haundirik sortzen beren banaketan, ez badute ere, bestalde, konbinaketa aukeren arazoa erabakitzen, gertakizun dialektalak sistematizatzeko hain garrantzitsuak diren arren.

Sintaxiko arauak baztertuagoak izan dira, agian dialektologia orokorrak ere aurre egiten jakin ez dion arazoa delako. Fenomeno bakar batzutan izan ezik, maila hori dialektologiako umezurtza dela esan daiteke, oraindikan jakin ere ez bait dakigu nola bil daitekeen erraz eta garbi.

Lexikoa ere aski baztertua gelditu da, eta hori euskalkietan hitzak hain garbi banatzen direlarik. Uste dugu hitzek eskaintzen dituzten emaitzak azterketa dialektalerako ez direla behar adina ustiatu, ez diakronia ikuspegiz ez eta sinkroniakoz ere. Honen garrantzia, gainera, euskarak egun duen iraupen kinkan eta hartu duen normaltze bidean areagotu egiten da, galtzear dauden edo ongi ezagutzen ez diren hitz asko ere jasoko liratekeelako. Dena dela, gogoeta honek maila denetarako balio du.

Beharbada, gauzarik harrigarriena zera da, asko deitu duela atentzioa euskalkien ugaritasun horrek, eta mundu guztiak izan duela zer esanik horri buruz, eta, aldiz, hain gutxi izan dela landua. Azken 10-15 urteotan ardura itxaropengarria ernatu da, eta hamaika testu errekuperatzen ari gara; baina testu horiek ez dute ez salbatu ez errekuperatu beharrik, hortxe bait daude, eta hainbat kasutan argitaratuak ere bai,eta edozein kasutan aldez aurretik idatziak daudenak. Herriz-herri eta baserriz-baserri ibiltzea da nekosoa, oraindik bizirik dirauen baina, beharbada, bihar izango ez den lekukoaren testigantza jasotzen: hori da oso gutxi egiten den egin beharrekoa. Azkue-k esaten zuen zein gogaikarria gertatzen den hemendik hara ibili behar hori, berak inork ez beza-la egin eta ezagutu zuena. Gaur ere inoiz bezain larria da horren beharra, eta lehen bait lehen egin beharko litzateke, gero material horiek landu eta sistematizatzeko.

# OHARRAK

(1) Bonaparte-ri zor zaizkio Hegoaldeko Goi-Nafarreraren aurkiketa, azterketa eta lekukotasun txit garrantzitsuen bilketa, zeren eta Printzea eta haren ardura izan ez balira, egun, galduak lirateke aztarnarik utzi gabe lekukotasun horiek.

(2) R.M. AZKUE-k (1969,XXXIII) Printzearen eragina aitortzen du:

> "Yo no sé si el que estas líneas traza habría hecho otra cosa que versos a imitación de su padre, a no haberle aficionado a estos estudios, bien que mediatamente, nuestro gran Bonaparte."

(3) L.L. Bonaparte-ri buruzko biografietatik honako hauek aipatuko genituzke: IRIGARAY, A. (1966) "La obra del P. Bonaparte. Los fondos de la Biblioteca de "La Bilbaina". Los viajes turísticos a Vasconia. Nuevos documentos del Vascuence Alto Navarro Meridional", **BRSVAP** XXII, 67-74. YRIZAR, P. de (1960), "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte y su obra", **BRSVAP** XVI, 3-13; LACOMBE, G. (1907) "Le Prince Louis-Lucien Bonaparte. (Notice biographique et bibliographique)", **RIEV** I, 161-166. RIEZU, J. (1958) "El Príncipe Luis Luciano Bonaparte" **Príncipe de Viana** XIX, 149-164, RODRIGUEZ FERRER,M. (1883) **Los vascongados: su País, su lengua y el Príncipe L.L. Bonaparte,** Madrid; VILLALONGA, J., (1953-1957), "Introducción a un estudio sobre L.L. Bonaparte y sus trabajos", **Eusko-Jakintza,** 39-68.

(4) Bonaparte ez da asmatzaileegia ez formari ez eta edukiari dagokionez ere. Seme galduaren parabola hamaika aldiz batua zen mendearen hastapenetatik. 1807-an Frantziako Barne-Ministraritzak, Coquebert de Montbret-en zuzendaritzapean, Frantzia osora igorri zuen postaz bere inkesta haundia eta han Seme galduaren itzulpena eskatzen zuen, POP (1951,XXX). 1819-an Stalder-ek Suiza-ko hizketa guztietan jasotako Seme galduaren itzulpenaren lan garrantzitsua argitaratu zuen. 1831-n Vegezzi-Ruscale-k Italia osoan parabola beraren itzulpenak batu zituen, gero Biondelli-k erabiliko zituenak. 1874-ean J. TEWINKEL-ek ere neerlanderako itzulpenak batu zituen. Eta, egia esan, aipatuak garrantzitsuenak baizik ez dira.

(5) 1887-ko Urriaren 11-n Gonçalves Vianna-ri idatzi zion gutunean, Printzeak dio frantse-sa, italiera, espainera eta euskara dirala berak "d'un manière practique" ezagutzen dituen hizkuntzak. G. LACOMBE (1932,194) "Lettres de L.L. Bonaparte a Campión", RIEV XXIII.

(6) Linguistikako bere lehenbiziko lana Florentzia-n 1847-an argitaratu zuen; **Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaearum,** eta 51 hitzez osaturiko lexikoa ematen du hainbat hizkuntzetan, euskaratik hasita, RIEZU (1958,153). Ditugun datuetatik, badakigu 1856-an hasi zela euskararekin harremanetan, urte horretan egin bait zuen lehen bidaia Euskal Herrira; baina aipatu dugun lan horrek adierazten duenez, askoz lehenago ere harremanik behar zuen izan gure herri eta hizkuntzarekin, lexikoi horretako hitzak Larramendi-ren Hiztegitik hartuak badira ere. LACOMBE-k dioenez (1924,199) 1846. urterako euskara ikasten hasia omen zen; izan ere, **Canticum Canticorum Salomonis tribus Vasconicae linguae dialectis in Hispania vigentibus versum,** Opera et studio Josephi A. de Uriarte et Ludovici L. Bonaparte, Londini,1858. urtean argitaratu zen -lehen bidaitik bi urtetara, beraz-, eta hona Lacombe-ren hitzak: "Ce fut le prince lui même, qui connaissait déjà assez bien le basque à cette epoque l'étudiant depuis douze ans etayant

déjà fait deux grands voyages en Pais basque -qui composa la version guipuzcoane littéraire,...". Gipuzkerara itzulpena Printzeak berak egin zuen, eta, inolaz ere, hamabi urte lehenago hasi zen euskaraz ikasten. Okerrena zera da, ordea, ez digula beste argibiderik ematen eta ez dakigula zein nolako egoeratan ikasi zuen euskara. Dena dela, bere kontura argitaratu zen lehen lana **Vocabulaire de mots basques bas-navarrais, traduits en langue française,** Bayona, 1856, izan zen, Sallaberry Behe-Nafartarrak egina. (ARANA MARTIJAtik (1984,36) hartua).

(7) Printzearen lanen ezagutza arrunta izan nahi bada, euskarari buruzkoena batez ere, bere tituluen zerrendari begirada bat aski da. Haren eskuizkribu guztiak bikain katalogatu ditu Carlos GONZALEZ ECHEGARAY-k. Euskara aldizkarian egin den azken argitalpena bakarrik aipatuko dugu (1984-1,91-184) 29.

(8) Titulu osoa honela da: **Le verbe basque en tableaux accompagné de notes gramaticales, selon les huit dialectes de l'euschara: le guipuscoan, le biscaïen, le Haut-navarrais septentrional, le Haut-navarrais meridionel, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletain; avec les differences de deurs sous-dialectés et de leurs varietés. Recueill sur les lieux mêmes de la bouche les gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces Basques d'Espagne et de France pendant des années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869, par le principe Louis Lucien Bonaparte, docteur,** ..., Londres, 1869.

(9) Beste batzuren artean baita gero estima handian izango zuen Bruno Echenique Urdazubitarra ere.

(10) Azalpen ezberdinak daude bi hauen ezagutzari buruz. Villalonga-k ematen duena (1953-57, 58) ez dator RIEZU-renarekin (195[illegible]54) bat, honek esaten bait du Bilbo-ko San Nikolas-en elizan predikatzen ezagutu zuela.

(11) Loiola-ko Santutegiko sinadura albunean ageri da haren eskeintzitza, ALTUNA (1985,306). Aita Arana-ri ere bere atsegina adierazten dio gutun baten aita josulagunek egin zioten harrera onagaiti. Villalonga-ren ustez, Loiola-ra 1856-garrenean egin zuen bisita hau lehenbizikoa izango zen, Bonaparte Loiola-n birritan egon zela bait dio, bigarren aldirako 1857-ko urriko 30-a ematen duelarik. Halere Aita Altuna-k 1859-rarte Loiola-ko komentua bisitatu zuten pertsonai entzutetsuen artean behin baino ez du aipatzen Bonaparte Printzea.

(12) Ohar garrantzitsu bat egin beharrean gaude. Angel IRIGARAY-k dio, (1966,70), Villalonga-tik jasoa guk uste, komentu honetan sartuko zela harremanetan Zabala, Echeverria eta Añibarro idazleekin. Hauek ordurako hilak ziren, 1840-an, 1853-an eta 1830-ean hil bait ziren jarraiberean; horregatik, ezagutza hori haien idaz-lanena izango zen, ez, jakina, pertsonala. Benetan hartu zutenak Aita Uriarte eta A. Echezarraga izanen bide ziren (VILLALONGA, 1953-57, 58).

(13) Saio horietako batetik hainbeste galdera eta hainbeste fiabardurekin hain nekatua atera omen zen apez bat, ezen , C. Otegui-ri horrela esan omen zion: "Fortuna, que no le ha dado a éste por la guerra; porque si no ni Dios para en este mundo". A. CAMPION (1890,82-87) "Apuntes necrológicos. D. Claudio Otaegui", **Euskal Herria** I semestre.

(14) Bigarren bidaia horri buruz xehetasunak nahi izanez gero, Jose Antonio ARANA MARTIJA-ra (1984-1,37-39) jo daiteke, oso zehatz azaltzen bait ditu bidaia, laguntzaileekin izan zituen harremanak eta baita bi bidaien tartean argitaratu zituen lanak.

(15) Asko daude argitaratuak, baina argitaratu gabeak ere oraino izango direla ziur gaude. Ezagutzen ditugunen zerrenda honako hau da, argitaratzaileen alfabeto ordenaren arabera:

ALTUNA, Patxi (1985) "Bonapartek eta Aita Aranak elkarri egin kartak", **FLV** 46, 305-342. ALZOLA, N. (1958) "Euskerazko eskutitzak A. J.I. Arana Jesuitak Bonaparte Euskalariari, eta Printzipe Jakintsu honek Aita Aranari", **Euskera** III, 25-28 eta (1959) **BRSVAP** XV, 447. BERRIOCHOA, V. de (1958) "Contribución a los Homenajes del Príncipe Bonaparte y R. M. de Azkue", **BRSVAP** XIV, 55-68. CAMPION, A. (1881) "Carta del Príncipe Bonaparte a D. Arturo Campión", **Revista Euskara** IV, 190. DARANATZ, J.B. (1928-31) "Correspondance du Capitaine Duvoisin" **RIEV** XIX, 58, 280, 425, 449; **RIEV** XX, 152-181; **RIEV** XXI, 70-97, 334-368; **RIEV** XXII, 44-73, 310-337. INCHAUSPE (1928) "Une lettre du Prince Bonaparte" **Gure Herria** 3, 193-196; 427-429. IRIGOYEN, A. (1954) "Cartas de Uriarte al P.L.L. Bonaparte con noticias bibliográficas del P. Fray Juan Ruiz de Larrinaga" **BRSVAP** X, 231 eta (1957) XIII, 220, 230, 429; (1957) "Cartas de Inchauspe al Príncipe L.L. Bonaparte", **Euskera** II, 171-260; eta "Del epistolario de Azkue", **Euskera** II, 261-393. LACOMBE, G. (1908), "Quatorze lettres inédites du Prince L.L. Bonaparte au Compte de Charencey", **RIEV** II, 775-786; (1932) "Lettres du Prince L.L. Bonaparte à D. A. Campion", (1932) **RIEV** XXIII, 192-198; (1933) XXIV, 304-313; (1909) "Briefe des Prinzen L.L. Bonaparte au H. Schuchardt", **RIEV** III, 133-139. RUIZ DE LARRINAGA, P. Fr. J. (1924) **RIEV** XIV, 313-336; (1954) "Cartas del P. Uriarte al Príncipe L.L. Bonaparte" **ASJU** I, 35-106. URQUIJO, J. de (1908) "Cartas escritas por L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", **RIEV** II, 215-221; 655-659; (1910) **RIEV** IV, 223-297. VEYRIN, Ph. (1934) "Lettres du Prince L.L. Bonaparte à Wertworth Webster", **RIEV** XXV, 316-322; (1883) "Carta de S.A. el Príncipe Luis Luciano Bonaparte", **Euskal Erria** VIII,404 (1873); "Carta lingüística", **Euskal Erria** IX, 261-265; "Carta lingüística", 485-489; (1884) "Carta de S.A. el Príncipe L.L. Bonaparte", **Euskal Erria** X, 144.

(16) Lapurterarako Duvoisin-ez gain beste bat ere izan zuen, H.L. FABRE, **Lettres Labourdines** eta "Dictionnaire Français-Basque" lanen egilea eta dotrina baten itzultzailea Ainhoa-ko lapurterara. Berri hau Philippe VEYRIN-ek dakar (1927) "Un collaborateur du Prince Bonaparte" RIEV XVIII, 292-294.

(17) Laguntzaileen zerrenda URQUIJO-tik (1908,216) hartua da. Halere, Joaquín Lizarraga ere laguntzaileetan sartzen du, eta hori ezin daiteke izan, Lizarraga 1834-an hil zelako. Printzeak haren eskuizkribuak erabili zituen Hegoaldeko Goi-Nafarrera ezagutzeko, eta argitaratu ere "Evangelio según San Juan" eta "Coplas" argitaratu zituen. RIEZU-k (1958, 156-157) hamabost izeneko beste zerrenda bat ere aipatzen du, denak Printzearen laguntzaileak. Merezi du hemen P. Lhande-ren hitzak ekartzea:

> "Quand on écrira l'Histoire de la littèrature basque il y aura un page intèressante à consacrer à toute une plèiade de linguistes qui ont écrit entre 1830 et 1880. A la tête de ce groupe devront figurer le prince Louis-Lucien Bonaparte et Antoin d'Abbadie qui furent en vérité l'âme et le cerveau de ce vaste mouvement." (1925, septembre) "L'Abbé Martin Hiribarren et son Dictionnaire Basque", **Gure Herria.**

(18) Esan nahi duguna zera da, alde batetik material asko eskuz idatzirik gordetzen dela; baina, batipat, analisi, erkatze eta ondorioak ateratzeko lana, honela euskal hizkuntzari eta dialektologiari aurrerakada sistematikoa emango lekiokeen lana egiteko dagoela. Materialak batzea ezinbestekoa bada ere, ez da aski, materialok aztertu eta landu egin behar bait dira.

(19) RODRIGUEZ FERRER-tik (1873, 72-73) hartua.

(20) **Formulaire de Prône** Printzeak argitaratua zuen aurretik Baiona-n, 1866-ko otsailean, Lamaignère-n, baina edizio hori "Observations"-ik gabe izan zen; hauek Lodres-eko ediziorako prestatu zituen, eta urte bat geroago, 1867-garrenean beraz, Baiona-n ere, eta inprenta berean, argitaratu zituen "Observations" horiek. Zergatik birrargitaratu zuen **Formulaire**-a Londres-en, Bonaparte berak azaltzen digu edizio horretako "Observations"-etan (1867, 27):

> "Cette deuxième se distingue de celle que j'ai fait exécuter à Bayonne, par une plus grande uniformité avec l'edition originale de 1651, dont je possède le seul exemplaire connu."

(21) **Formulaire de Prône**-ko "Observations"-etik hartua.

(22) Bidaia honen bigarren aldiari buruz, 1867-ko udazkenean, ustez, egina, A. Riezu-k urte hartako bigarrena eta Euskal Herrira eginiko seietatik bosgarrena izan zela dio. Honek argituko luke sei bidaien arazoa. Arazo hau Printzeak berak **Le Verbe Basque** lanaren tituluan dionarekin bat ez datozen datotan oinarritu izan delako sortuko zen zihurrenez.

(23) RODRIGUEZ FERRER (1873,74). Nafarroa Erdiko informanteak deitu beharrak beste gauza bat ere erakusten digu, eta zera da, 1867-garreneko bidaiaren bigarren aldia, udazkenekoa, alegia, ez bide zela egin, bestela ez bait zuen oraingo honetan informante horiek deitu beharrik izanen.

(24) 1858-an ere "Canticum trium puerorum" zazpi dialektotan eta hamaika barietate ezberdinetan argitaratu zuen.

(25) Ez zituzten denak laguntzaileek egin. Berak ere hilabete gutxiren buruan hain izigarri ongi menderatu zuen Gipuzkerara itzuli zuen, beste lan batzuren artean, Bibliako **Abestirik ederrena.** (Canticum Canticorum).

(26) URQUIJO, J. (1908,219).

(27) URQUIJO-k (1910,260) eragozpenak arkitzen zizkion itzulpenerako testua erligiosoa izateari, eta behin gertatukoaz honela zioen:

> "En una ocasión se separó el Príncipe de su costumbre, y el resultado fue completamente opuesto. Compárense, en efecto, las traducciones de textos religiosos [...] con la de los diálogos agrícolas de Iturriaga [...], y se observará que el vascuence de éstos es muy superior, en punto à pureza, al de aquellas". Hori ez dago ukatzerik. Baina, zein homogenotasun eskura zezakeen batu nahi zituen materialetan, laguntzaile bakoitzari luma bere kasa erabiltzen utzi izan balio?

(28) Bolumenaren titulua hauxe da: **Mélanges sur les langues, dialectes et patois; renfermant, entre autres, une collection de versions de la Parabole de l'Enfat prodigue en cent idiomes ou patois différents, presque touts de France: précédes d'un essai d'un travail sur la Géographie de la langue française."**

(29) Coquebert de Montbret aintzindaritzat hartu dugu, bera izan zelako helburu linguistiko-dialektologikoak ezarri zituena. Baina askoz lehenago ere horrelako material-bilketarik eginak ziren. Esate baterako, 1552-an Zurich-en Conrad de Gessuer-en **Mithridates** agertu zen, Aita gurea hogei ta zortzi hizkuntzetara itzulia zuena, eta gargero antzerako lan askoren eredu izango zena, POP (1950, XXVI "on ouvre ainsi la voie aux enquêtes par

correspondence"). Sortalde Urrutiko hizkuntzak ere antzeratsu transkribatu ziren latineko alfabetora. Misiolariek beharrezko zuten joan behar zuten tokietako hizkuntza mintzatuak ezagutzea. Euskal Herrian ere erligiosoek zituzten beharrak misioak ematera joan beharra eragin zuen lurralde historikotako hiztegiak eta gramatikak egitera.

(30) Bonaparte bibliografo haundia zen eta edizioak oso asko begiratzen zituen. Argitaraldi oso mugatuak eta txikiak egiten zituen, 10 alekoak gehienbat, eta inoiz ale bat-ekoak ere. Oso edizio dotoreak egin ohi zituen, eta batzutan hartzailearen izena ere inprima erazten zuen. 250 aleko edizioak ere maiz egiten zituen, baina erosteko gehiegizko prezioak izaten zituzten, LACOMBE (1924,198)

(31) Goi-Nafarreraz bakarrik Echenique-k 40 dotrina argitaratu gabeak batu zizkion, hainbat dialektotan idatziak.

(32) Laugarren sailkapenean, **Le Verbe Basque** lanean, honela esaten digu:

"Sólo después de haber recorrido uno mismo todo el País Vasco y de haber estudiado todas las actividades lingüísticas debería permitirse enumerarlas y clasificarles. Si nos hemos apresurado demasiado a este respecto, cuando hace algunos años, antes de haber visitado la Navarra española, adelantamos que esta provincia no tenía dialecto propio y que hablaba todos los demás, excepto el vizcaíno, nos reprochamos [...]. Ahora que puede decirse que hemos visitado todos los rincones de Euskalerría, tanto en España como en Francia, admitimos que la Navarra española, además de los dialectos que ya ..." Ongi agertzen du hemen zein izaera ganorazkoa zuen eta zein ikertzaile funtsezkoa zen.

(33) "No se ha adelantado gran cosa en cuanto al perfeccionamiento de los criterios que permitan distinguir subgrupos dentro de grupos cuando, aunque el campo no es de los mejor trabajados, todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte, mucho antes de Gilliéron, etc., y no precisamente con los mismos criterios que luego se han empleado en dialectología románica o germánica." MITXELENA (1976,319)

(34) YRIZAR-ek (1981,104) lehenagoko beste zatiketa baten berri ematen du. Fetxarik gabea den arren, 1857-koa izan daiteke beharbada. Latinez idatzia dago, eta egiten duen sailkapena oso hastapenetakoa denez ez dago hona ekarri beharrik. Nafarroa-ko Diputazioan dagoen eskuizkribu baten ageri da, P.L.L.B.-ren eskuizkribuen bildumako sorta 1-ekoa.

(35) "Dialekto" hitza "barietate" izenaren balioarekin darabil.

(36) Azpimarratua geurea da.

(37) P. de YRIZAR-ek (1981,109) zehatz-mehatz ematen ditu azpi-euskalki eta aldakiak, baina ez dakigu ziur esposizio horrek zenbaiteraino erantzuten dion Bonaparte Printzeak garai hartan zuen ideiari.

(38) Zentzu horretan hartzen dut Mitxelena-ren dialekto literaria, hots, idatziaren sinonimo bezala, "ya que se ha tratado de formas estándar fijadas, o que se deseaban fijadas, para el uso escrito" (1981,291).

(39) 1864-ko arazoaren 7-ko gutunean euskalki honetakoa dela dio, aditz laguntzaile iragankorraren eta iragangaitzaren erabileragatik, "zutano"-aren erabileragatik, "duzu" "da"-ren ordez, -errespetuzko forma ote?- eta galdetzeko formagatik, duya?, ziraya?, Zubereran bezala URQUIJO (1910,280).

(40) Bonaparte-ren lanari buruzko ikuspegia osoagoa izan dadin, bidenabar bada ere esan nahi genuke hogei hogerleko ordaintzen zuela dotrina bakoitzaren itzulpena edozein aldakitara. Bruno Echenique beti ukatu zen diru hori hartzera. Napoleon III, Frantzia-ko inperadorea, erori zenean, Bonaparte-k ere urteko 130.000-ko sarrerak galdu zituen eta "Senatore" eta "Alteza" tituluak ere bai; horregatik txango linguistikoak eta itzulpenengatik ematen zituen ordainketa on horiek ere utzi behar izan zituen. Haatik, ez zuen sekula utzi, hil arte, euskararen ikerketa.

(41) Bidaia hau zehaztasunez ezagutzen dugu B. Echenique-ri bidalitako gutunei esker, URQUIJO (1910,293).

(42) Zenbait urte geroago herri honetako hizketari buruz lan bat argitaratuko da:"Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV (1881,161-166), Arturo Campión-ek itzulia eta argitaratua.

(43) Eskuizkribua Bizkaiko Foru Aldundiko Bibliotekan dago, espedientearen zenbakia 84- Bonaparte ondarea.

(44) Izan ere, hauxe da behin-betiko eraketa, geroztik zenbait aldaketa sartuko badu ere, baina ez dira aldaketa nagusiak izanen, ikusiko dugun bezala. Laugarren sailkapen honen zirriborroak badira bere eskuizkribuen artean, baina ez dakarte deus berririk, eta horregatik ez dago hona ekarri beharrik. YRIZAR-ek (1981,117-118) dakar horietako bat.

(45) Data hau eman ohi da laugarren sailkapenerako, baina ez bide da zuzena. **Le Verbe** lanaren argitalpenak 1869-ko data darama, baina, RODRIGUEZ FERRER-ek dioenez (1873,78), berea baino urte bat lehenago argitaratu omen zen, hau da, 1872-an. LACOMBE-k (1924,205) imprimaketa 1871-ean amaitu zela dio. Bestalde, lan honetan sailkapen hau Euskal Herri-ko bazterrak oro ikusi ondoren egina dela Printzeak berak dio, eta 1869-an argitaratu izan balitz ezin izango zuen argitalpena prestatu, urte horretan egin bait zuen azkeneko bidaia Euskal Herrira. Ez dugu uste jasotako datuak aldatu, sailkapena prestatu, eta gainera argitalpena paratzeko astirik emango zionik. Ez da posible.

(46) 1880-ko urriaren 12-an A. Campión-i honela idazten zion: "vous vous rendez compte de la singularité du dialecte roncalais, qui est presque un dialecte indépendant", LACOMBE (1932, 195).

(47) **Actes de la Société Philologique** IV, 3er. décembre (1876), Paris, (1877). Bonaparte-k lana 1876-12-20 datatu zuen. 1870-ean urteko diru errenta kendu ziotenez, bere kabuzko argitalpenak urritu egin behar izan zituen eta, beraz, baita ohizko argitalpen-erritmoa eten ere.

(48) 1881-ean "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos" y "Observaciones acerca del vascuence de Betelu", **Revista Euskara** V (1882,120-121).

Urte bat lehenago argitaratua zuen "Observaciones sobre la ley de afinidad de las vocales en el vascuence de Lizaso, Valle de Ulzama, provincia de Navarra", **Revista Euskara** IV (1881,65-67). "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda" **Revista Euskara,** IV (1881, 33-40). Lan honetan Bakaikoa, Urdiain eta Olazti-ko hizketen zenbait alderdi aztertzen ditu aditz-formen arauera, eta ondoriotzen duena zera da, bailara honetako aditza Gipuzkerarena dela, zenbait ñabardurakin bada ere.

Ultzama bailarako euskarari buruz Iparraldeko Goi-Nafarreraren ezaugarriak beste azpieuskalki biak baino hobekiago agertzen dituela dio; eta Egues-eko bailarakoak Hegoaldeko Goi-Nafarrerarenak.

(49) Guk erabili dugun mapa bakarra litografiatua izan da, eta bestea ezagutzerik ez dugu izan.

(50) Drawn, engraved and pinted at Standford is Geographical establissement. Londres, 1863. Bi edizio egin ziren, lehena grabatua eta bestea litografiatua. Mapan ematen den fetxa hori benetan harrigarria da, urte hauetan ez zuelako oraino heldua euskararen sailkapena. Geroagokoa dela dirudi, lehen ikusi dugunaren arauera. YRIZAR-ek garbi azaltzen du fetxei buruz dagoen nahasmena:

> "En realidad el mapa fue puesto en circulación mucho más tarde y aun la fecha de 1867 dada por Vinson [...] es, evidentemente, demasiado temprana por la razón que acabamos de exponer y como tal fue rectificada por el propio Vinson en 1891, sustituyéndolo (sic) por la de 1869 (Vinson.- **Essai d'une bibliographie,** etc.). Lacombe, tan documentado en estos estudios, señala la fecha de fines de 1871 o principios de 1872 (LACOMBE.- **"La langue basque"** en Les langues du Monde, A. MEILLET et M. COHEN, Paris, 1924 "Observación al mapa de Broca").

Yrizar beraren eritziz Printzeak berak 1869-an eta Otaegi-k 1871-n jasotako datuekin osatu zen.

(51) Euskalki bakoitzak bere kolorea du. Koloreak, zenbat eta biziagoa, hainbat eta hobekiago gordetzen dela euskara adierazten du, hau da, eskuarki hitz egiten dela, bera soilik ez bada ere. Kolore ahulagoak hiztun gutxi dituela euskalkiak agertzen du, edo atzeraka doala.

(52) Hizkuntzak ez dira, bere izatez, ez haundiagoak ez txikiagoak, eta hedadurak ere ez du, beraz, hizkuntzaren bizitasuna edo indarra adierazten.

(53) Esan dugunez, Bonaparte-k aurkitu zituen lehenbizikoz euskalki horiek, Aezkera, Zaraitzera eta Erronkariera; baina, Aita Añibarro-k Erronkarierari buruz egiten duen aipamenaz gain, Fray José de Jesús María y Araquistain erligioso karmeldarrak Larramendi-ri, bere hiztegia argitaratu ondoren, igorri zizkion Gipuzkoa-ko eta Nafarroa-ko zenbait hitzekin batera Erronkarierako "algunos términos vascongados bien extraordinarios". Euskal hitz harrigarri hauek Erronkari-ko hitzak ziren, eta A. Fidel Fita-k argitaratu zituen **Revista de Ciencias Históricas** aldizkarian, Barcelona II (1881), "Suplementos al Diccionario trilingüe de Larramendi, escritos en 1746" izenburuarekin, MITXELENA-tik (1960,162) jasoa. Prestatu zirenean argitaratu ez zirelako parada eman zion Bonaparte-ri Erronkarieraren aurkitzaile ere izateko.

(54) Laburpen hau oso gainetik egina da, eta Printzeak askoz gehiago sakontzen zuen, bere lanetan garbi agertzen duen bezala, esaterako, bat besterik ez aipatzeko, **Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc** (1887), Paris, Ernest Leroux Editeur, 149-191, lanean ikus daitekeen bezala.

(55) Agertzen diren zenbakiak V. Collins-ek 1902-an bere Katalogoa-n eman zituenak dira, baina guk ARANA MARTIJA-tik (1984,1,42) hartu ditugu.

(56) Paris, 1877, 133-143.

(57) Lehenbizikoa 1883-ko 6-ko 30-ekoa, **Euskal-Erria** aldizkarian argitaratua, T. IX (z.16), 1883, eta bigarrena 1883-11-12-koa, **Euskal-Erria**-n, XI (z. 123). argitaratua.

(58) Iruñea-n argitaratu zen 1880-an. Edizio faksimila erabili dugu, Ed. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1970.

(59) "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV, (1881, 161).

(60) **Euskera aldizkarian** (1922, III-1) argitaratu zen; dena dela , aurretik Akademian irakurria izan zen eta urte berean, 1920-an, liburuxka gisa argitaratua Bilbo-n, Ave Maria-ren Inprentan.

(61) XIX mendean ere Iztueta euskararen batasunaren beharrean aldeko azaldu zen. Ikus MITXELENA (1978,167-179) "Iztueta, testigo político de su época", **Euskal Herria (1789-1850)", Actes du colloque International d'Etudes Basques,** (Bordeaux, 1973), Bayonne. Hauxe dio MITXELENA-k (1978,177):

> "Se tiende por necesidad, al menos en intención, a formas supradialectales de la lengua, o más modestamente, al empleo de variedades completadas con aportaciones de dialectos vecinos. Así Iztueta, a pesar de su guipuzcoanismo, fue asiduo recolector de voces y frases vizcaínas -de ello da fe su diccionario manuscrito, aún inédito- y no desconocía, al menos indirectamente, el labortano."

Ideia hauek Mitxelena-k **Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia,** San Sebastián, 1847, liburutik atera zituen.

(62) **Obras completas** deituriko edizioa darabilgu, (1965), Buenos Aires.

(63) Euskararen aztertzaileen zerrenda izigarri horretatik XIX. azkenetako eta XX. hasierako nabarmenenak aipatzekotan, Frantzia-n honako hauek izango genituzke: Lacombe, Vinson, Luchaire, Gavel eta Lafon -hau beranduxeagokoa-; Alemania-n Baehr, Spitzer, Linschmann eta K. Bouda; N. Tauer txekoslobakiarra; H. Schuchardt, austriar haundia; Van Eys eta Uhlenbek holandarrak; Dogson eta W. Webster Inglaterra-koa; Trombetti italiarra, eta Marr errusiarra.

(64) Hain zuzen ere, VAN EYS-en Gramatika eta Hiztegia izan ziren S. Arana-Goiri-ren lehen irakasleak, **Euzkadi** (1914,183), VILLASANTE-tik hartua (1961,287).

(65) LACOMBE-k baditu zenbait lan hizkuntzalari honi buruz: (1908,805-807) "Basquisants contemporains. Le Jonkheer Van Eys" , **RIEV** II; (1914,386-388) "Necrologia", **RIEV** VIII, eta (1918,66-68) "La Bibliothèque basque de Van Eys"' **RIEV** IX. Emazteak ere, Mathilde Van Eys-ek alegia, Euskal Herrira elkarrekin egin zituzten bidaia bakoitzen lanak argitaratu zituen **RIEV**-en XVIII (1927,111-121) eta (527-543).

(66) Nolanahi ere, gizon jakintsua izan zen eta ikertzaile nekagaitza, eta berea kenduko genioke ez bagenio eskertuko, eztabaidak gora-behera, euskarari eman zizkion ekina eta lanak; Julio de URQUIJO-k dioenez (1927,224):

> "... y no obstante algunas opiniones que no compartimos, hay que reconocer que el sabio francés fué uno de los autores que más contribuyeron al progreso de nuestros estudios, a los que se dedicó, durante cerca de 60 años, con paciencia de benedictino."

Dena dela, orduan eztabaida gai izan zena hizkuntzaren inguruan, guretzat gaur txit estimagarritzat gerta daiteke alderdi askotatik, esaterako, "El método científico y la lengua euskara" lana, **Revista Euskara**-n argitaratua (1879,144-148).

Vinson-ek izan zituen polemika batzu beste euskalari batzukin J.J. GRANJA PASCUAL-ek batzen ditu: (1986,237-235), "Julien Vinson, el euskera y una polémica del XIX", **ASJU** XX-1.

(67) VINSON, J. (1907, 627-633), (1908,129-135), (1911,210-223), "Spécimens de varietés Dialectales Basques", **RIEV** I,II eta V. Azken zenbaki honetan Darricarrère-ren gutun bat sartzen du, non Lapurdi-ko eta Behe-Nafarroa-ko herriguneetan euskararen giza-egoera azaltzen den.

(68) LACOMBE, J. (1936,74-76), "Les travaux bibliographiques basques de Julien Vinson depuis 1898", RIEV XXVII.

(69) MITXELENA-k lan askotan hitz egiten du honetaz, eta bat nabarmentzeko (1964,63) **Sobre el pasado de la lengua vasca,** San Sebastian, nabarmenduko nuke, eta lan orretan 63. or.

(70) **El euskera y sus parientes,** (1959) lanaz ari da.

(71) Itziar LAKA-k bere tesina **Hiperbizkaieraren historiaz** egin zuen eta bi ekinalditan argitaratu, **ASJU** XX-3 eta XXI-1 (1986-1987). J. A. LAKARRA-k ere badu lan bat gai honi buruz, "Bizkaiera Zaharra Euskalkien Artean" **ASJU** XX-3 (1986,639-682).

(72) Azkue-k egin zituen aldaketa hauek, ikusi genuen bezela, Bonaparte-k berak ere begiz joak zituen. Azkue-k, bestalde, herrien zerrenda osoa ematen du, bakoitza bere euskalkian kokatuz, euskalkiaren hedadura ezagutu ahal izateko; eta berak dioenez, izenen zerrenda Bonaparte-ren mapatik hartu zuen. Garai horietarako (1905) euskara lekutua zen Nafarroa-ko udalerri aunitzetatik; Azkue-k kontutan izan balu hori, egun XX. mendearen hasierako euskararen mugak ezagutzeko aukera izango genukeen.

Erronkariera eta Nafarrerari, biei dagokienaz gain, beste aldaketa batzu ere sartu zituen: Alzola eta Elgoibar Gipuzkeran sartzen ditu, Bonaparte-rengan Bizkaierakoak zirenak; Antzuola ere Gipuzkerakoa egiten du, baina hogei urte geroago, **Morfologia**-n, berriro Bizkaierara itzuli zuen.

(73) Kontsonante bustien idazkeraz azterketa fonetikoa eta proposamen zehatza egiten du "Cuestiones fonético-ortográficas" lanean, **Euskera** III (IV zenb.), (1922,49-62). Edonola ere, Azkue beti izango da Gipuzkeraren bitartez euskara batzeko zalea, eta "Gipuzkera osotua" izan zen berak eskeinitako aukera. Aldiro-aldiro arituko da horretaz. **Euskera** VIII (1927,116-140) orrialdetan "Batasunera bidean edo Pernando Amezketarra-ren autsi-osotxoak eta Ardi galdua-ren autsi-mautsiak" argitaratu zuen. "Gipuzkera osotua"-ren aurkezpen formala Euskaltzaindiaren 1934-ko apirileko bileran egin zuen, **Euskera** XV. Hemen malguagoa azaltzen da, beste euskalkietako erakarpenak ere onartuz. Erabilerak batuz joan behar direla ikusten du, baina bide hori astiro-astiro egin behar dela onartzen du, hizkuntza egokituz joan dadin unean uneko beharretara.

(74) Intesresgarria da garai horretan Azkue-k hurbileneko zituen euskaltzaleekin, P. Broussain-ekin batipat, izan zuen elkarridazketa. A. IRIGOYEN-ek, **Euskera** II (1957, 261-293), argitaratu zuen gutuneria hori titulu honekin, "Del Epistolario de Azkue". Gutun horietan agertzen dira, baita ere, Bonaparte-ren eskuizkribuak hemen geratu ahal izan zitezen egin zituen hainbeste joan-etorri eta ihardun; eta azkenean baita lortu ere nahi zuena Inglaterra-n enbajadore zen Fermin Lasa gipuzkoarraren bitartez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa-ko Aldundiek bereganatu bait zuten hain ondare baliotsu hura. Arestian argitaratua izan da "Resurrección Mª de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa (1897-1920)" ere, P. CHARRITON-ek paratua, (1986) **Iker**-4, Bilbo. Hagitz interesgarria da, era berean, J. A. ARANA MARTIJA-k (1983) argitaraturiko lana, "El fondo Bonaparte de "Azkue Biblioteka", **Iker**-2, "P. Lafitte-ri omenaldia", bertan jasotzen bait dira gutuneria eta zenbait zehaztasun Azkue-ren eta beste hizkuntzalari batzuren artekoak, esaterako Dogson eta Campión-ekin izan zituenak.

(75) Euskaltzaindiak eginiko lanetarik garrantzitsuenetarikoa izanen da lan hau. Antolaketa, inkestagileen eta informatzaileen bilaketa, erakunde publikoen laguntza lortzea, Euskaltzaindiak berak eramango ditu aurrera. Bilera haietako aktak eta geroztiko ondorioak aldizkari ofizialean argitaratuak izan ziren, **Euskera** III (1922), VI (1925), VII (1926), IX (1928) eta XI (1930).

(76) Ana Mª ETXAIDE-k zerrenda osoa ematen du (1984,43-49). Pedro de YRIZAR-ek O. de Apraiz-ek inkestak jaso zituen tokietako argitasun zehatzak ematen ditu, "Sobre las formas verbales alocutivas de pretérito desprovistas de "-n" final"' **Homenaje a O. de Apraiz, O.F.A.,** (198 ,407).

Lehenago, 1957-an Erizkizundi-ko materialak argitaratzeko asmoa izan zuten Antonio Tovar eta Ion Bilbao-k, baina asmotan gelditu zen. Ikus ETXEBARRIA (1982,380).

(77) Argitalpenak, hurrenez-hurren, honela izan ziren: (1925) "Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona", **Euskera** III, IV, 16-36 eta (1926), 38-56, 45-59; (1926) "Gipuzkoak erizkizundiari erantzun diona", **Euskera** VII, III-IV, (1926) 46-58; (1927) VIII, I-II, 3-30; (1927) Naparroak erizkizundiari erantzun diona", Euskera VIII, 164-178; (1928) IX,1ª, 35-58; 110-123; (1928) "Erizkizundia Naparroa barrenen", (BN), XI, Iª, 237-257. (1928) "Erizkizundia Lapurdin", Euskera IX, Iª, 319,336. (1930) "Erizkizundi Irukoitzari errietan erantzun diotenak"' **Euskera** X, 62-71.

(78) MITXELENA-k (1981-2) kritika egiten dio Erizkizundiari, adibideez argituz eta frogatuz gainera, "Sobre las necesidades de una exploración lingüística en Euskal Herria", **Euskera** XXVI, 876-878.

(79) (1984) "Erizkizundi Irukoitza" **Euskara** (1925), Iker 3, Bilbao, (2 ale).

(80) Gai honetaz ikus VILLASANTE, L. (1985-2), "Erizkizundi Irukoitza-ren aurkezpenean", **Euskera** XXXII, 629-632.

(81) Erronkarierarena (1931) **Euskera**-n argitaratua izan zen, XII, 207-333. Eta Aezkoa-koa (1927) **Euskera** VIII, 179-300.

(82) Dialektologiari nolarebait badagokio ere, ez dago haren **Morfologia vasca** (1923) berariz aipatu beharrik, gramatikako lana delako batik bat. Gainera, Ian honetaz nahiago dugu MITXELENA-ren itzalaz baliatu (1981,136):

> "... sobre todo en lo que toca al verbo, Azkue se preocupó más de una vez de presentar sus propias teorías en lugar de los datos a que tenía derecho el lector. Y es lástima, ya que tenía a su disposición los copiosos datos que había recogido en una laboriosa encuesta y que de forma manuscrita se conservan en parte, si no estoy muy equivocado, en Euskaltzaindia."

(83) Eusebio Mª de AZKUE-ren (1896) **Parnasoko Bidea.**

(84) Alderaketak atsegin ez diren arren, Azkue-ren lana A. Barandiaran-enarekin erka daiteke, eta muaila linguistikoagoan, K Izagirre-narekin ere.

(85) Julio Urquijo-k **La Gaceta del Norte** (1913-7-20) egunkarian eman zuen Trebitsch-en Euskal Herrirako bidaiaren berri. Urte berean **RIEV** VII-n artikulu bat argitaratu zuen "De lingüística y etnografía vascas. A propósito del viaje del Dr. Rodolfo Trebitsch", 575-583. Baita (1918) **Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca,** Bilbao, lanean ere ematen du etnografoaren bidaiaren berri.

(86) Garai hartan museotan ziren eta Trebitsch-ek ziurrenez Viena-ra eramango zituen herri kulturako objetoei buruz, ikus URQUIJO (1913), **RIEV** VII, 580-583.

(87) Horri buruz ez dakigu besterik; ez dakigu egitekoa bete zuenentz.

(88) Tokien zerrenda J. M. ETXEBARRIA-ren (1984-1), **Euskera** XXIX, 395-396, lanetik hartu dugu.

(89) Euskaltzaindiak eskatu zituen disko horien kopiak, eta ez zitzaizkion ukatu, baina ez dakigu igorri dizkioten.

(90) **Euskadi** aldizkaria (1984), otsaileko lehenengo astekotik jasoa.

(91) Hau **Mémoires de l'Académie Nationale des Sciences, Arts et Belle-lettres de Caen**-en, 1866, 359-370, argitaratua izan zen.

(92) Jatorrizko titulua (1903) "Beiträge zu einer vergleichenchen Lautlehre der baskischen Dialekte" zuen, **Mémoires de l'Academie des Sciences d'Amsterdam** eta frantsesera G. Lacombe-k itzuli zuen (1909) **RIEV** III, 465-503 eta (1910) IV, 65-120.

(93) CHAMPION argitaletxeak argitaratua eta geroago **RIEV**-en, XII (1921).

(94) Hots horri buruz polemika interesgarria izan zuen SAROIHANDY-rekin, honen lan baten ondorioz, "Assimilation progressive de "i" a "ü" dans le basque de la Soule", **Bulletin de la Societé de Linguistique** XXIV (3ème. fascicule), 378-830, eta GAVEL-en erantzuna, "A propos de l'ü souletin", **RIEV** XVI (1925), 230-234.

(95) Lan denak Zubereraren inguruan, (1927) **Action de l'accent dans l'evolution des consonnes etudiés dans le basque souletin,** Vrin, Paris; (1928) **Recherches experimentales sur l'état actuel et l'evolution des velaires dans le basque souletin,** Paris; (1934) **Le basque souletin Nord-Oriental,** Paris.

(96) Mitxelena-k "importantísimo" erizten dio lan honi, **Euskera** III (1958,8).

(97) (1926) **RIEV** XVII, 98 eta hur., 370 eta hur.; (1927) XVIII, 437 eta hur.; (1928) XIX, 287 eta hur.; eta gainera (1929-30-31-34-35) **RIEV** XX, XXI, XXII, XXV, XXVI denbora soilei eta inperfektoari buruz.

(98) (1925) **Euskera** VI, 12-31, 73-114.

(99) **Bulletin de la Societé Romand** (1895) XXX, 131-162; 321-341; 126-138; (1896), XXXI, 126-138; (1897), XXXV, 129-189.

(100) (1922) **Abhandlungen der Preussischen Akademie der Wissenschaften,** Berlin, Phil.-hist. Klasse, 1.

(101) (1968) **ASJU** II, 81-141; (1969) III, 171-228, (1977) XI,3-43.

(102) (1975) **FLV** XIX, 5-42; (1975) XX, 141-188; (1976) XXII, 9-54.

(103) "Petit atlas `Sacaze'"-ren berriematea eta kritika R. LAFON-ek egin zuen, (1962) **Bulletin de la Societé de Linguistique** LVII, (2. fasz.) 152-155 or. eta (1964) BSL, 192-194.

(104) Metodo honek, gorago esan dugun bezela, ez du batere berritasunik, XIX. mendearen hasieratik erabiltzen bait zen.

(105) Voretzsch-i egin zitzaion omenaldirako prestatutako lan baten itzulpena da: "Baskische kultur in Spiegel des lateinischen Lenworthers".

(106) Ikus gai honetaz (1949) **Análisis de la cultura,** Barcelona, VII eta IX. kapituluak.

(107) Ohiartzun haundia lortu zuen Europa-n barna artikulu honek. A. TOVAR honako hau esatera iritsi zen metodo honi buruz: "el método de "palabras y cosas" [...] tiene una buena aplicación al terreno de los confines del vasco y el español [...]. El trabajo sobre Aezcoa de Alvar es en cierto aspecto al correlativo de la **Aezkera edo Petiriberro-Inguruetako mintzaera** que Azkue publicó [...] o de las **Particularidades del dialecto roncalés** del mismo gran vascólogo", **El estado de los estudios de Filología euskérica.** IORDAN-etik hartua (1967,119). Alvar-ek baditu beste lan batzu ere: (1947) "El habla de Oroz-Betelu" **RDTP** III, 447-490; "El léxico de la casa en el Nordeste de Navarra" (1950-eko inkestak), **Archivo Filología Aragonesa** XX-XXI, 9-55; eta "Breve vocabulario de la Navarra Nordoriental", **Archivo de Filología Aragonesa** XXII-XXIII, 251-298.

# 4. ATLAS LINGUISTIKOEN HISTORIA LABURRA: HELBURUAK, BILAKABIDEA ETA GAURKO EGOERA.

> *"Ahora bien, si no hay dialectos estrictamente diferenciados y, sobre todo, no hay fronteras dialectales marcadas, sí hay isoglosas que, a pesar de todos los fenómenos de polimorfismo, encierran áreas y las separan de otras. Los mapas son sustituidos por los atlas, conjuntos de mapas."*
>
> **MITXELENA (1976,319)**

## 4.1. Sarrera

Geografia linguistikoa dialektologiari arpegiratzen zitzaizkion gaitzen sendagai miresgarri bezala azaldu zen, hizkuntz gertaerak erabileratik zuzen-zuzen jasotzen bait zituen gero mapetan ezartzeko. Ez zen itxaroten zen bezala gertatu, ordea. Isoglosek edozein hizkuntz fenomenoren errealizazioak markatzen dituzte, eta uste zitekeen, beraz, zehaztasun osoz seinalatu ahal izango zirela hizkuntzaren areak edo nolabaiteko esparruak. Hortan oker zeuden. Horrek ez du esan nahi buruko aipamen horretan Mitxelena-k egia ez dioenik edo hor esaten denarekin bat ez gatozenik, baina bere testuinguruan hartu behar dela uste dugu. Isoglosek ez dituzte, berez, hizkuntzaren areak bereizten, isoglosen kopuruek, isoglosa multzoek baizik. Hizketen mugak isoglosen ugaritasunarekin proporzio zuzenean daude: zenbat eta isoglosa gehiago edozein puntutan, hizketen arteko ezberdintasuna ere haundiagoa, muga zehatzagoa eta esparru trinkoagoa. Baina isoglosak maiz elkarrekin gurutzatu egiten dira eta hizkuntz eremua inguratu eta mugatu beharrean isoglosa zenbaitek zeharkatu egiten dute hainbat aldetatik; horra, bada, arazoa, isoglosen artean bereiztea, mugak ezartzeko zeintzu utzi eta zeintzu hartu erabakitzea. Berriro ere, beraz, gainditua uste genuen subjetibotasunak mototsa agertzen du eta gai honetan zeresanik izaten jarraitzen ote duen geure buruari galdetzen diogu.

Geografia linguistikoaren metodoa hizkuntz gertakizunak mapetara aldatzea da. Gertakizun bakoitza mapa batetara. Atlasak, beraz, maila guztietako gertaerak bilduko ditu: fonetikakoak, morfo-sintaxikoak eta lexikokoak. YUSK-ek honela azaltzen du atlas linguistikoen betekizuna (1981,276):

> *"il s'agit de reporter sur un fond de carte géographique les variations régionales des faits linguistiques, sur le modèle de cartes isothermes, isobares ou isobathes. De même en effet qu'on peut parvenir à représenter graphiquement les variations d'un élément quelconque de la constitution géographique du globe, de même il est parfaitement possible de dresser des cartes linguistiques pour touts les paramètres du langage, à condition que ceux-ci soient simples par nature ou qu'on les soumette à une analyse et à une élaboration aboutissant à la production de cartes simples."*

Metodo honek zeharo aldatu zuen dialektologiaren mundua ezezik, baita linguistikarena ere; izan ere, metodo hau eraman edo hedatu zenean eremu zabalagoetara, hautatutako guneen bateratasunak eragin zuen ordurarte jaso gabe zeuden eta ezertarako kasurik egiten ez zitzaien herri-hizketak aztertzen hasi beharra. Horrek, gainera, berez agertarazi zituen aurretik ezagutu ere egiten ez ziren hizkuntzaren hainbat alderdi.

Hizkuntzalariak, hizkuntzen bilakabide diakronikoa ezagutu nahian zebiltzalarik, ohartu ziren herri hizketak, aunitzetan, erabat alde batera utziak izaten zirela hizkuntzen normalizatze ahaleginean, eta hizkuntza ofizialek edo kultoek ez zutela haiengan batere eraginik izan. Herri hizketa horiek, bestalde, hizkuntza normalizatuak eta bateratuak baino fenomeno eta egoera zaharragoak agertzen zituzten , hizkuntza ofizialek gordetzen ez zituzten forma arkaikoak. Bakoitzari zegokion bilakabidean galdutako urratsak berregiteko edo bestela frogatu ezin izango liratekeen hutsuneak agertarazi eta betetzeko ezin hobeak dira. Honek, beraz, ohizko dialektologian geografia linguistikoari, toki solte eta mugatutako monografiei eta, batez ere, atlas linguistikoei tokia egitera bultzatu zuen.

Halaz ere, atlas linguistikoekin zartako gogorra hartu zuten neogramatikariek. Lege fonetikoak ez direla itsu-itsuan aritzen aldaketak sorrarazteko: horra zeri eutsiko zaion orain; ordurarte esaten zenaren aurka, kanpotiko eraginez gertatuko dira aldaketak. Dialektoek eta "patois"-ek ez dute izanen uste zen eta eskeintzen zitzaien hizkuntz batasun hura; hizkuntza unitate txikiagoetatik hasita aztertu behar da, hau da, hitzetik hasita, unitate horietako bakoitzak bere historia bait du. Beraz, ez dago goimailako hizkuntz unitateez mintzatzerik ez eta "patois" direlakoak zientzi mailako lanerako oinarritzat hartzerik ere (1).

Burutazio hauek hedatuz eta giroan sartuz joan ziren. ALF interpretatzen zen neurrian, hainbat garbiago ageri zen hizkuntz eragineko guneak tokiz aldatuz joan ohi direla, eta eragina ez dela beti toki batena izaten. Hori horrela izanik, faltsua gertatzen zen dialekto garbien edo garbiagoen hasierako ideia, hots, dialekto batzu garbiak direla eta ez dutela ez eraginik, ez aldaketarik, ez formen ustegabeko garapenik jasan. Beraz, hizkuntz eskualde edo eremuen artean beti aurki daitezke eta sinalatu iraganguneak; hizkuntz eremu baten garapen bat ematen delarik eta beste baten beste bat, bien artean tarteko esparruak gertatu ohi dira, edo bestela esan, bi eragin-guneren artean eremu nahasiak edo bitarikoak izaten dira. DAUZAT-ek dioen bezala (1941,42):

> *"Une constatation qui se dégage des premières études de géographie linguistique, c'est le principe de la continuité des aires. Une aire qui apparaît aujourd'hui disloquée et fragmentée formait autrefois un tout continu."*

### 4.1.1. Lehenengo atlas linguistikoak

Atlas linguistikoen historia Alemania-n hasi zen eta gaurdaino iristen da. Historia hau asmo, ekintza eta lan haundiekin josia dago, gehienbat talde-lanean aurrera eramanikoak, baina hainbat aldiz burutu gabe ere gelditu direnak.

G. WENKER (1852-1911) alemaniarra (2) izan zen atlasak egiten aintzindaria. Egin zuen lanaren xedea alemanieraren muga dialektalak ezartzea izan zen, eta, beraz, mugak eta dialektoak ere badirela frogatzea. Ez zitzaion nahi zuen bezala atera gauza, ondorioak, lehen esan dugunez, uste zuenaren aurkakoak izan bait ziren. Faszikulo bat besterik argitaratzera ez zen iritsi. Erabili zuen metodologia honako hau izan zen: 40 esaldi laburreko galdekizuna paratu zuen eta herrietako jende ikasiari igorri zion gutunez herriko hizketara itzul zezan. Denera 30.000 herrigune aztertu zituen, eta aurrerago bere jarraileek beste 14.000-tan ere materiala jaso zuten.

G. WEIGAND **Linguistischer Atlas des dacorumänischen Sprachgebietes** (Daco-errumanieraren atlasa) (Leipzig, 1909). Berrikuntza bat sartu zuen honek, galdekizuna, berak prestaturikoa bestalde, berak zuzenean jaso zuen. (3)

#### 4.1.1.1. ALF

**Atlas Linguistique de la France,** J. GILLIERON eta E. EDMONT,(Paris, 1902-1910). Gilliéron-ek 1900 galderatik gora zituen galdekizuna prestatu zuen. Fonetikako galderez gain, morfologiakoak, sintaxikoak eta hitzei buruzkoak ere sartu zituen. Ordurarte fonetikakoak baino ez ziren hartzen. Hitz kultoak ere sartu zituen ikusteko Paris-ko hizketa kultoa zenbateraino zen sartua herri hizketetan.

639 herrigune hautatu edo ezarri zituen dialekto hauen arauera: frantsesak, probentzalak eta frankoprobentzalak eta haien azpi-dialekto nagusiak. Bretoiera (Bretaina-n), neerlandera (Frantzia-ko Iparmendebaldean) eta euskara (Frantzia-ko Hegomendebaldean) ez zituen sartu; haren asmoa hizketa galo-erromaniarrak aztertzekoa izan zen, eta ez beste enborrak.

Ezarri zituen helburu linguistikoak bete ahal izateko Frantzia-ren muga politikoetatik kanpora ere irten zen. Belgika-ko Hegoaldera, non dialekto frantsesak (Valoiak) hitz egiten diren;

Suiza-ko mendebaldera (Suiza Romande-a), hor franko-probentzalera mintzatzen bait dute; Piamonte ingurura (Italia), hor ere franko-probentzaleko (Iparraldean) eta probentzaleko (Hegoaldean) zenbait une badirelako tarteka.

Behin materiala bildu ondoren, atlasa egiten hasi zen. Gilliéron-ek aurrenekoz erabili zuen teknika egun ere orohar erabiltzen den berbera zen. Datu dialektal bakoitzeko mapa bat; herriguneak aldez aurretik ezarritako zenbaki baten bidez ematen dira; eta jaso den hitza maparen gainekaldean, ezkerretara, frantsesez ipintzen da. Inoiz mapa bat baino gehiago ere ematen zaio datu bati, erantzunaren luzeerak hala eskatzen badu, sintaxiko erantzunetan gerta daitekeen bezala. Honela egiten da datu guztiekin, atlasa osatu arte.

ALF-ek 1920 mapa ditu, eta horietako 500-ek Frantzia-ko Hegoaldea baino ez dute jasotzen -Midi delakoa, edo Hego-Ekialdea-, eta frantsesa ez den beste hizkuntzaren bateko datu linguistikoak ere hartzen dituzte. Azkenik, atlasaren erabilerarako liburuxka azaltzailea ere badu, non sartu den baita frantseseko eta dialektoetako hitz guztien indize alfabetikoa ere (4).

Hauxe izan zen, orokorki esanda, Gilliéron-ek egin zuen lan haundia eta emankorra. Merezi du VIDOS-ek dioena (1963,49) hona aldatzea:

> *"Gilliéron, recogiendo sobre los mapas de un atlas la denominación de ciertos conceptos, objetos, ect., para 629 puntos del territorio lingüístico galorrománico, ha creado para este territorio un importante aparato lingüístico de comparación con más de un millón de formas dialectales. Sus materiales representaban al mismo tiempo la situación de entonces de los dialectos galorrománicos, esto es, una especie de sección transversal que reproduce la situación lingüística sincrónica. Extendiendo e integrando el material lingüístico con el geográfico, Gilliéron y con él la Geografía Lingüística, ha reforzado e integrado, sin proponérselo el método comparativo, y con él la lingüística románica como ciencia histórica".*

Gilliéron-en ondoren, eta eredu beraren arauera, hainbat lan egin ziren, nahiz atlasak nahiz Geografia lingüístikoko monografiak. Hurrenez-hurren, gutxi gora behera, aipatuko ditugu.

#### 4.1.1.2. Jarraitzaileak

1910-ean George MILLARDET-ek **Petit Atlas linguistique d'une région des Landes. Contribution à la dialectologie gasconne,** Toulouse, Paris. Gaskoieraren 573 mapa ditu, 800 galderei dagozkienak, 400, hitzenak, eta beste 400-ak, esaldiak, alderdi sintaktikoak eta semantikoak jasotzeko. Udalerrietara lotu zen gehienbat, eta 68.000 erantzun lortu zituen, eta horiekin mapak eta lamina fonetikoak eratu zituen. Ahosapai artifizialez eta kimografoaz baliatu izan zen. Haren asmoa edo itxaropena dialektoak aurkitzea zen, bere ohizko zentzuan, alegia, eta horregatik hautatu zuen Landes-etako lurraldea. Halere, azterketaren ondoren atera zuen ondorioa besterik zen, bere hitzetara lotuz, "aztertutako fenomenoen mugarik gabeko ugaritasuna" eta "ordenarik eza eta erregulartasunaren falta osoa".

Charles BRUNEAU-k ere, Gilliéron-en galdekizunaren eredura, glosario bat osatu zuen 1914-1926 urteen artean, gero kartografiatu ez zuena: **Enquête linguistique sur les patois d'Ardenne.** Frantzia-ko 93 herrigunetan batu zen, Ardenne-tan, eta Belgika-n Namur-en eta Luxemburgo-n. Ahozko eta gutunezko galdekizunak konbinatu zituen. Interesgarria da, halaber, **Etude phonétique des patois d'Ardenne,** Paris, 1913; azterketa hau Enquête-ean eta haren ondorioetan oinarriturik egin zuen:

> *"... présente donc un tableau complet des principaux caractères dialectaux de la région ardennaise à l'époque ancienne et à l'époque moderne. J'essayerai, aprés avoir étudié successivement chaque fait, de faire la synthèse des conclusions de détail que j'aurai établies et de dégager les tendances phonétiques générales qui ont dominé toutes les évolutions particulières" (1913,7), IORDAN-etik hartua (1967,351).*

Interesgarria da gertakizun sinkronikoak diakroniarekin batera, azken hau testu historikoen bitartez aztertua, aurkezten dituelako, honela fenomeno linguistikoen bilakaera azalduz.

Beste lan honetan, **La limite des dialectes wallon, champenois et lorrain en Ardenne** (1913), Paris, dialektoen formazioan arrazoi linguistikoek duten eraginaz gain, historikoek eta gizartekoek dutena seinalatzen du; eta linguistikoetan hiztegia bereziki, hain egongaitza eta aldakorra baita berez. Agertzen zaio, bestalde, berak aztertu dituen dialektoen mugak ez direla garai baten ziren bezain garbiak eta zehatzak:

> *"La limite dialectale d'une caractère phonétique n'est pas nette. Les villages voisins de la frontière phonétique mélangent, ou échangent, les formes: les différences d'articulation s'atténuent; les voyelles intermediaires créent entre deux voyelles extrêmes une sorte de transition. La limite d'une caractère phonétique dépend aussi de la vitalité du mot étudié: elle varie sensiblement avec chaque mot." (1913, 179), IORDAN-etik hartua (1967, 351-352).*

A. TERRACHER (1881-1955). Gilliéron-en ikaslea izan zen, eta haietarik berritzaileena. Geografia linguistikoko azterketetan analisi fonetikorako zen joeratik aldendu egin zen, eta morfologiara eman zen erabat. A. MEILLET-ek errepresentatzen duen Frantzia-ko eskola linguistikoarekin lotzen da ikuspegi soziologikotik begiztatzen eta aztertzen duelako hizkuntza: "el habla humana es un hecho social y como tal evoluciona en función de otros hechos sociales" IORDAN (1967, 353).

Garrantzitsua da halaber agertarazi eta finkatu zuen dialektoetako morfologiaren nahasketek eta herrigune ezberdinetako pertsonen arteko ezkontzek elkarrekin duten zerikusia, hau da, gertaera demografikoek eta dialektalek elkarrekin dutena.

Seinalatzen du ere, aztertu dituen "area morfologikoak" ez

direla aintzinako zatiketa administratiboekin edo elizakoekin egokitzen, E. Boehmer-ek eta H. Morf-ek eusten ziotenez, eta bai,aldiz, aspaldiko banaketa feudalekin. Azkenik, ospea duten hizketek herri-hizketetan duten eragina ere iragartzen du.

Oscar BLOCH (1877-1937). Honek atera zituen ondorioetan honako hauek azpimarra daitezke: arrazoi extralinguistikoz aldakiak bereiz badaitezke ere, hizkuntzaren aldetik ez dagoela muga zehatzik ezartzerik dialektoen aldakien artean; fenomeno linguistikoak ez zirela, iraganaldian, parrokien hedaduraren arauera banatu eta orainaldian ere ez direla udalerrien arauera banatzen; Bloch-ek ere garbi ikusi zuen giza maila altuetako hizketek duten eragina eta, batipat, frantses literarioaren eragina eta zabalkundea geroago eta haundiagoa. **Atlas linguistique des Vosges méridionals,** Paris, 1977.

Dena dela, Mexiko-ko atlasean egoera soziolinguistikoko ondorioak ere atera bide zituzten, eta ikuspegi soziologikoa ez da eskuarki sartzen atlas arruntean, lehen esan dugun bezala.

Hirigune haundiek onartzen dute eta beharrezko ere gertatzen zaie inkesta bikoitza. ALVAR-ek (1973, 153-154) Andaluziako atlasa egin zuenean lau lekuko ere galdegin zituen: bi unibertsitari, gizakumea eta emakumea, eta beste bi auzune desberdinetakoak, hauek ere gizonezkoa eta andrazkoa. Baina kasu honetan ere esan beharra dago soziologia linguistikoko datuak ere jaso nahi izan zirela.

Ohar bezala besterik ezean, bada beste alderdi bat ere kontutan hartu beharrezkoa, lexikoaren bilketarena. Badira hainbat eremu lexiko oso berarituak eta lanbidez edo jakitez pertsona prestatuak eskatzen dituztenak erantzunak jasotzeko. Honelakotan lekuko osagarriak hartzen dira galdera konkretuenei erantzuteko.

Sexoari dagokionez, berriro ere lanaren helburuak izan beharko dira begietan. Emakumeek hobeki ezagutzen dituztela eremu lexiko mota batzu: sinesteak, gaisotasunak, etxeko lanak. Ez da hain gauza garbia, ordea; betiere hautatutako informatzailearen kalitatearen arauera izanen da. Emakumeak, bestalde, kontserbatzaileagoak agertzen dira batzutan (35), inoiz gizonak baino berritzaileagoak badira ere. Fonetika artikulatorioaren aldetik, giza-ahotsaren tinbrea onesgarriagoa izan ohi da.

Beste batzutan gertatzen da inkestak berak eskatzen duela lekuko bat baino gehiago. Lexiko bereziak jaso nahi direnean galdekizun bakarra aski ez dela eta zerrenda osagarriak behar izaten direla esan dugun bezala, informatzaile osagarriak ere beharko dira informatzaile oinarrizkoak edo bakarrak eman ezin duena emateko. Hala nola baserri edo itxas giroko zenbait alderdi jaso nahi izanez gero: mahas-bilketa, errotaritza, ehungintza, eskulanak, arrantza eta abar.

Edozein modutan ere eta esanak esan, egia da informatzaile bakarraren eragozpena harekin egindako lanaren ordezkotza mugatuarena dela. Bizpahiru informatzailek aukera gehiago eskeintzen du nahiz erkatzeko nahiz egiaztatzeko. Horrek ere badu eragozpenik, ordea: noiz eta zein aldetara erabaki, zalantza hitzari edo hotsaren traskribaketari badagokio? Eta ezberdintasunak ematen direla, danok dakigu, noski, baita sendi bereko kideekin arituz ere, Rousselot-ek XIX. menderako frogatu zuen bezala.

### 4.2.4. Inkestagileak

Lekukoei buruz hartu diren aztergai edo eztabaidagaiek inkestagileentzat ere balio dute. Zenbat inkestagile, bat edo zenbait? Gilliéron inkestagile bakarraren aldekoa zen arren, gaur egun baztertuxea gelditu da erizpide hori. Haatik, galdera egin egiten da oraindik, eta ez erretorika arrazoi hutsez.

Atlasetan denera jokatu izan da: inkestagile bakarra ALF-en

-Edmont- eta 21-eraino inkestagile ALPO-n ("Ekialdeko Pirinieotako Atlas Linguistikoa", H. Gaiter-ek zuzendua), eta horien artean, 3-ko AIS, edo 2-ko zenbait talde atlas katalan berrian, eta 16 ALG-en.

Arazo honen gakoa, nolanahi ere, denborarena da. Inkestatokiak asko badira, bistakoa da lana ere asko luzatuko litzatekeela inkestagile bakarrarekin. Baina badu, bestalde, abantail haundia inkestagile bakarrak, eta hori bildutako materialen bateratasuna da, noski. Inkestagile gehiegiak ere, hainbeste pertsona ezberdinen lana izaki, ondorioak lar zatikatzen ditu. Bilketari berari dagokionez, datuak aberatsagoak gerta daitezke eta tokikoagoak ere, eta denboran ere asko aintzinduko litzateke, baina, esan bezala, datuek elkarren arteko loturan eta bateratasunean galduko lukete, ez bait da posible, aurretik har dezaketen prestakuntza gora-behera, hainbesteren erizpideak eta jokabideak behar adina bateratzea.

Eremua oso zabala denean, bestalde, eta, beraz, inkestatokiak ugariak, inkestagile asko sartuz gero, lurralde hori eskualdetan banatzen dugu, eta gerta daitekeena zera da: zenbat inkestagile, hainbat eskualdeko atlas. Alderaketa honek gehiegizkoa irudi lezake, baina JABERG horrelako zerbaitez ari zen honako hau zioenean (36):

> *"On imagine difficilement une treintaine de dialectologues se mettant d'accord comme voudrait M. Merlo, pour faire un atlas linguistique d'Italie. Un atlas national composé d'atlas régionaux perdrait en cohérence ce qu'il gagnerait en authenticité et en précision dans le detail."*

Beste puntu eztabaidatu bat inkestagilearen nongotasunarena izan da, tokikoa edo kanpokoa behar duen izan, hain zuzen ere. Bertakoa izateak abantailak ditu, baina baditu, bestalde, baita eragozpen haundiak ere. Eta haundiena zera litzateke, bere herriko hizketaren alderdi interesgarriak ohartu gabe ihes egin diezaio-

ketela, beretzat, agian, oso etxekoak eta egunerokoak izanik, ez dielako garrantzi berezirik ikusten. Toki bakoitzerako bertako inkestagilearekin, bestalde, zatiketa oraindikan haundiagoa bihurtuko litzateke. Ez herri bat, baita haran bat ere izango balitz inkestagile bakoitzarentzat, jasoko liratekeen datuen ugaritasuna haundiegia gertatuko litzateke.

Denek onartzen dutena zera da, ikertzaileak hizkuntzalaria behar duela izan. Gilliéron-ek hizkuntzatik kanpoko inkestagilea nahi zuen, baina hori gaur arras gaitzesten da. Eta inola ere ez da onartzen, noski, galdekizuna zenbait inkestagileren artean banatzea, jokabide honekin artez-artez joango litzatekeelako bateratasunaren eta loturaren aurka.

Alvar-ek esaterako, inkestagile bakarrari eusten dio, baina onartzen ditu, arrazoi materialak direla tartean, zenbait inkestagile erabiltzea ere zatiketa larregitik zainduz gero, baina sekula ere ez galdekizuna zenbaiten artean zatitzea edo banatzea, ALVAR (1973,149):

> *"Creo anticientífico y con resultado de valor muy dudoso el interrogar a sujetos distintos distintas partes del cuestionario. Entonces los yerros se multiplican demasiado: dualidad de sujetos, dualidad de transcripciones, preguntas diferentes..."*

Beste galdera bat atlasaren zuzendariari dagokio: inkestak jasotzen lagundu behar ahal du zuzendariak?

Batera edo bestera erantzun daiteke, erizpideen arauera. Alvar-ek zenbait arrazoi ematen ditu alde (Apud IORDAN 464,65): tokia ezagutzeak mapak egiten laguntzen duela, lankideei exenplu ona eskeintzea lanik okerren eta zatarrenean, eta abar, baina ez dute hainbesteko indarrik ere.

Baina zuzendariak benetako arduraduna eta erantzulea behar du izan, eta lanak horrela eskatuko balu baita parte hartu ere lana ongi burutu ahal izateko; eta baita tokian bertan ibili ere

biltzen doazen datuen lotura eta bateratasuna egiaztatzeko, traskribaketa begiratzeko, eta, hitz gutxitan esanda, lan-taldearen ugaritasuna ikuspegi bakarrez bateratzeko; azken finean, aterako den atlasa egoera linguistikoaren islada zuzena izan dadin.

Traskribaketa fonetikoaz hurrengo gaian arituko gara, eta mapen motaz ere bai, guk erabiliko ditugun mapa analitikoaz eta sintetikoaz, hain zuzen.

### 4.2.5. Atlas Linguistikoen Automatizazioa

Grabaketez eta fonetika artikulatorioaz eta akustikoaz aparte, informatika ere sartzen ari da dialektologia lanetan:

> *"Avec un corpus mis en mémoire informatique et un ordinateur couplé à des imprimantes automatiques, il devient possible d'envisager l'exploitation de la banque des données sous des angles variés et de produire divers documents de travail. Les index et les listes produits par la technologie informatique son toujours complets et fiables; la reproduction des données et de leurs paramètres (localisation, prononciation, etc.) reste conforme à la banque originale. En fin, l'avantage le plus important de l'informatisation est de permettre la montage et l'impression automatiques d'une édition -prototype que l'éditeur publie telle quelle." (37)*

Ez dago duda apurrik ere atlas linguistikoak egiteko beharrezko direla, egun, ordenagailuak, hauek eskeintzen dituzten aurrerakuntzak neurri gabekoak bait dira. Hona hemen zer dioen ALVAR-ek (1984,58):

"En definitiva, se confía obtener las sabidas ventajas que la automatización tiene sobre los procedimientos manuales: reducción de tiempo y gastos, almacenamiento electrónico de datos y

posibilidad de su futura utilización, amén de limitar mucho las posibilidades de error."

Urteak dira ordenagailuen bitartez atlasak egiten hasiak direla. Egia esan, egiten baino gehiago, probatzen eta saiatzen. Edozein modutan, aipatu dugun Kanada-ko Ekialdeko Atlas Linguistikoa (ALEC) informatizaturik egin da eta bide hau daramate "Atlas Linguarum Europae" (ALE) egiten ari direnak, batez ere, kartografiaketa mailan pentsatuz (38).

Lehenengo saioak Geografia linguistikoarekin egin ziren. U. WEINREICH-ek (1962) yidish hizkuntzari buruz egin zuen azterketa soziologiko bati aplikatu zion informatika, aski emaitza onak lortuz (39). Estatu Batuetan ere aspalditik ari dira horrelako lanak egiten, HOUCK (1967),(40). Eta urte beretsuetan beste toki batzutan antzerako saioak egiten hasi ziren, Alemania-n eta Japon-en batez ere (41). Baina kasu guztietan saio lanak edo lan pilotoak izan ziren. Edozein modutan, teknika honek ematen dituen aurrerapideak izugarriak dira eta, era berean ez bada ere, nabari da ordutik gaur egunera pasatu diren urteen diferentzia.

Gure artean, hau da, inguruko hizkuntza erromanikoz egiten ari diren atlasetan eta hemen gehien ikusi ditugunen artean, (ALG), (ALC), (ALEA), (ALEICAN) eta besteak ez dira teknika honetaz baliatu. Bai, ordea, Alvar, sartu bait du informatika Santander-ko atlasean, (ALES)-ean, alegia. Guk ez dugu oraindik atlas honen alerik ikusi; lerro hauek idazten ari garenean ez dugu argitaratu denaren berririk izan, eta, beraz, ezin dugu erizpiderik eman. Dena dela, ALVAR-ek berak (1984,58-59) seinalatzen ditu eman behar diren pausuak eta, bidebatez,heurek jarraitu duten metodologia ere argitzen du:

> *"En conclusión la utilización de ordenadores en cartografía lingüística exige:*
>
> *1º Obtención de datos; copia manual de cuadernos de formas y, una vez redactados éstos, reducción a unos símbolos previamente establecidos.*

*2º Confecciòn de tarjetas o cintas perforadas.*

*3º Dibujo automático con el "plotter", según los principios de localización por un sistema de coordenadas."(42)*

Informatikaz egindako lanak abantaila ukaezinezkoak ditu, batez ere datu zehatzen eskuragarritasuna eta honek suposatzen duen erraztasuna edozein egitekorako, ediziorako ezezik, baita, eta batez ere, gero datuak bilatzeko. Baina atlasari aplikatzen bazaio eta zerrendak ateratzen badira bakarrik, ez dago horri "atlas" izenik ematerik. Mapak izan behar du informazio bateratua eman eta ikuspegi sintetikoa eskeini behar duena, eta informazioa ez bada mapaz eskeintzen, atlas izena ere aldatu beharko litzateke, ez bait da orduan atlasa eta bai, ordea, beste zerbait.

Egia da atlas bat, azken batean, forma pilo baten bilduma dela, eta hori horrela den heinean, beste era askotako azterketetan eta traskribaketetan errejistratu eta eman daitekeela; bestalde, ikerketa guneen sarea datuen bilketaren zabalera eta homogeneotasuna bermatzeko bezala hedatua badago, horrek atlaserako asko balio du, baina aprobetxagarri da baita datuen informatizazioaren bitartez ere. Guzti hau horrela izanik ere, datuak, ez mapetan baizik zerrendetan emanez gero, aldaki, dialekto, edo hizkuntz sail baten osoko ikuspegia ezkutatzen da, edozein lurraldetako hizketen ikuspegi orokorra eta batua eskeintzen den informaziotik at geldituz. Ez dut uste alperrik etorriko direnik hemen G. JUD-ek 1928-an esan zituen hitzok:

*"El atlas arranca la palabra de su aislamiento en el vocabulario donde surge al azar del orden alfabético, la repone en su verdadero ambiente regional y proporciona al lingüista una multitud de hechos sincrónicos debidamente transcritos y exactamente localizados." (43)*

Zerrenda informatikoek informazio garrantzitsua eta interes-

garria eskeintzen dute, noski, baina ez dira "atlas linguistikoak" ez formaren aldetik ez eta edukiarenetik, eta ez datoz ere ongi "atlas" izenak adierazten duenarekin. Betiere, beraz, "beste zerbait" dira.

Alabaina, azkenaldiotan egiten diren lanek baikor izatera eramaten gaituzte eta zerrendetatik kanpo, benetako atlasak ere egiteari ekin zaiola bistan da. Gero eta gehiago uste dugu, atlas egiteko gertatzen diren egitasmoetarako automatizazioarekin kontatuko dela. Eta azkenik zera esan nahi genuke: abantail teknikoetatik kanpo, gure ustez, badu beste gauza onik, atlas batek dituen materialak azterketen bidez aprobetxatzeko bidea,alegia. Ez dago ukatzerik orain arte egin diren atlasak museoko piezak bezala gorde eta ezer gutxi aztertu direla. Horri eman zaion arrazoietako bat atlasek duten lamina haundi horien artean lana egitea zaila dela izan da, eta horietatik materialak biltzea ia ezinezkoa. Ordenagailuekin ez da horrelakorik gertatuko, eta nahi den informazio zehatza prest eta txukun eskeiniko da. Ez da, bada, hau arrazoi makala atlasgintzan automatizazioaz baliatzeko.

# OHARRAK

(1) (1905) **Étude de géographie linguistique: "scier dans la Gaule romane du Sud et de l'Est",** Paris; J. GILLIÉRON-M. ROQUES (1912) **Études de geographie linguistique d'aprés L'ALF,** Paris; eta J. GILLIÉRON (1919), **La faillite de l'etymologie phonetique,** Neuville.

(2) Aurrerantzean atlasei buruz aritzeko I. IORDAN-en (1967) **Lingüística románica,** Madrid,(Itzulpena, berrelaboraketa eta notak M. Alvar-enak) eta Sever POP-en (1950) **La Dialectologie; aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques,** Lovaina, jarraitu dira nagusiki.

(3) Horren aurretik ere tokian bertan galdekizunak jasoak ziren, GILLIERON-ek (1881) **Pétit Atlas phonétique du Valais roman** eta ROUSSELOT-ek (1891) **Modifications phonetiques.** Baina hauek ez zuten galdekizunik erabili.

(4) Liburuxka honako hau da, (1902) **Atlas linguistique de la France. Notice servant à l'intelligence des cartes,** Paris; GILLIÉRON-en beste lan batzu: (1912) **Table de L'Atlas linguistique de la France,** Paris; aurrerago argitaratu zen (1920) **Atlas linguistique de la France,** Suppléments, tome premier, Paris, eta hemen galdekizunetik kanpo batutako materialak aurkezten dira. A. DAUZAT (1944,8, 2. ohar.) **La geographie linguistique,** Paris. Apud IORDAN (1967,261-261).

(5) Bloch-ek aztertu zituen herri-hizketak Vosgos herrialdekoak ziren, hizkuntzari dagokionez Lorena-ko dialektokoak.

(6) **Meisterwerke der romanischen Sprachwissenschaft** I, 369. or.

(7) Itzulpenak seme galduaren alegiarenak eta beste zenbait zati errezenak ziren kultura gutxiko jendearentzat.

(8) Beste puntu batzutarako ikus ALVAR M. (1951) **Metodología e historia lingüística. A propósito del "Atlas de Rumanía",** Salamanca.

(9) Egitasmoa eta lana bera NAVARRO TOMAS-ek azaltzen du (1923, 112 eta hur. or.), **RFE** X.

(10) (1955,1-61), "Grossraümige und kleineräumige Sprachatlanter", VR XIV. Apud IORDAN (1967,453).

(11) Deitzen zaio baita ere "Atlas linguistiques de la France par régions".

(12) Frantzia-n aurretik ere eginak ziren toki mugatutako azterketak, esaterako Brunot-ek, Millardet-ek, Bloch-ek, Gilliéron-ek. Guer-ek, Meunier-ek, Le Roux-ek, Devaux-ek eta Dauzat-ek egin zituzten fonetika eta lexikoaren aldetik ikerketa oso garrantzitsuak **ALF**-i bideak ongi aski zabalduz.

(13) "Pour Dauzat, l'essentiel était de prospecter non plus le territoire national, mas des régions naturelles par leur langage et par leur culture. Ainsi seraient abolis deux inconvénients majeurs: le réseau trope lâche et l'inventaire uniforme, donc inadéquat." SEGUY (1973,69)

(14) Ekintza honetan parte hartu zuten inkestagileak eta tokien zatiketa honako hauek dira, SEGUY (1973,71):

Alsace: E. BEER, R. MATZEN.
Bourgogne: G. TAVERDET.
Bretagne romane, Anjou, Maine: G. GUILLAUME, J.-P. CHAUVEAU.
Centre: P. DUBUISSON.
Champagne et Brie: H. BOURCELOT.
Franche-Comté: C. DONDAINE.
Gascogne: J. SÉGUY, X. RAVIER, J. ALLIERES.
Ile-de-France et Orléanais: M.-R. SIMONI-AUREMBOU.
Jura et Alpes du Nord: J.-B. MARTIN, G. TUAILLON.
Languedoc occidental: E. NEGRE, X. RAVIER, J. BOISGONTIER.
Languedoc oriental et Roussillon: L. MICHEL.
Limousin et Basse-Auvergne: J.-C. POTTE.
Lorraine germanophone: M. PHILIPP.
Lorraine romane: J. LANHER, A. LITAIZE, J. RICHARD.
Lyonnais:P. GARDETTE.
Massif central: P. NAUTON.
Normandie: R. LEPELLEY, P. BRASSEUR.
Ouest (Poitou, Aunis, Saintonge, Angoumois): G. MASSIGNON, B. HORIOT.
Pays basque français: J. HARITSCHELHAR.
Picardie: R. LORIOT, C. DEPARIS.
Provence: Ch. ROSTAING, J-C. BOUVIER, C. MARTEL.
Pyrénées orientales (Atlas linguistique des): H. GUITER.
Réunion (île de La): R. CHAUDENSON, M. CARAYOL.

(15) Gaskonia-ko atlasak euskaraz egiten den puntu bat jasotzen du, Labastid-Clarence, baina gaskoiearen informazioa baizik ez zen jaso.

(16) Ikus M. ALVAR (1953) "Proyecto de un Atlas Lingüístico y Etnográficode Aragón", Anejo del AFA (Archivo de Filología Aragonesa), Zaragoza.

(17) Nafarroa-ko euskal alderdiaz gai honen bigarren zatian mintzatuko gara.

(18) Galdekizuna 1963-an argitaratu zen, C.S.I.C., Sevilla.

(19) Atlas honen galdekizuna 1964-an izan zen argitaratua La Laguna-n; eta berriro **Estudios Canarios**-en, ere I (1968), Las Palmas-en.

(20) Alvar-ek zioen, IORDAN (1967,479), Murtzia-ko atlas linguistikoa eta etnografikoa egiten ari zela edo, M. Alvar beraren, G. Salvador-en eta A. Quilis-en lankidetzarekin. Ez dut atlas honen beste berririk, ez eta argitaratu ote denarenik ere.

(21) ALM babestu eta antolatzen duen fundazioak argitaratu zuen, Fundazione Giorgio Cini-k.

(22) ALVAR, M. (1985) **Léxico de los marineros peninsulares,** (2 ale), Madrid.

(23) 1965-ean argitaratu zen **Atlas lingüistic del Domini Catalan. Questionari.** Barcelona.

(24) Datuak Ian honetatik jaso dira: Joan VENY (1973) "Dialectologie", in **La linguistique catalane,** Actas et colloques nº 11 (Colloque International organisé par le Centre Philologic et de Littératures romans de L'Université de Strasbourg du 23 au 27 avril, 1968, Paris.

(25) A. MEILLET-ek eta L. TESNIERE-k aurkeztu zuten (1934): **Rapport sur l'activité de l'Atlas Linguistique Slave.**

(26) A. WEIJNEN (1976) **Atlas Linguarum Europae - Premier questionnaire.** Assen, Amsterdam.

(27) Ikerketa hauetan oinarriturik eta ikerketa hauen ondorioz hitzak geroago eta nortasun eta indar gehiago hartzen du herri-hizketen ikerketan. Hortik berez joko da lehen kapituluan azaltzen genuen "Wörter und Sachen" delakora. Honela hitzaren eta ordezkatzen duen gauzaren ikerketak batu edo gurutzatu egiten dira; hizkuntza eta hizkuntzak azaltzen duen errealitatea nolabait elkartu edo harremanetan sartzen dira.

(28) **URSS-eko Zientzien Akademiako Aldizkarian,** Hizkuntza eta Literatura Saila, XVII,1, 17-18 or. MONTES GIRALDO-tik (1970,82) hartua.

(29) Galdekizunari dagokionez, POP-ek (1957,248) banaketa hau egiten du:

> "1. Le type de questionnaire; 2. Le contenu; 3. Le nombre des questions; 4. Le groupement des questions; 5. L'uniformité des questions; 6. Un ou plusiers questionnaires; 7. Les phrases; 8. Le questionnaire à l'epreuve; 9. La conversation dirigée."

(30) Gure artean atlas etnografiko bat egin da. **Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa.** Alderdi horretatik eta orokorki interesgarria da, baina ez die euskarak dituen eskakizunei erantzuten. Ikus ETXEBARRIA (1984,2-861-863). Aurrerago ere aipatzen dugu 4.3.4. puntuan .

(31) Ikusi dugun bezala, M. Alvar-ek Estatu espainarrean egindako atlasak linguistiko-etnografikoak dira, eta orobat NALF-ekoak; beraz, "etnografiko" izenlaguna ere eman egin behar zaie.

(32) Kritikoen artean aipa daitezke W. von WARTBURG "Betrachtungen über die Gliederung des Worteschatzes und die Gestaltung des Wörterbuchs", ZrPh LVII (1937), 296 eta hur.; MENENDEZ PIDAL, R.M. (1916, 73-89) "Notas bibliográficas" (Griera-ren "La frontera catalano-aragonesa", RFE III); MILLARDET, G.: (1977,30-36) **Linguistique et dialectologie romanes. (Problémes et méthodes),** Genève. Slatkine Reprints.

(33) Gurasoak ere aztertu behar den toki berekoak izateak duen garrantziaz, A.TERRACHER-ek dio ezkontz eskualdeak eta area morfologikoak bat etorri ohi direla (1912,220):

> "Donc, il est aisé de mettre en raport avec les faits de résistance ou de désagrégation morphologiques des faits démographiques et matrimoniaux strictament parallèles. Par contre, je n'ai pu relever, pour aucune des rares communautés dont il n'a pas été fait mention dans les notes qui précèdent, un manque de coincidence entre cette double série de faits."

(34) Dauzat-ek bi informatzaile gomendatzen zituen NALF-erako: "un cultivateur et sa femme" Orbis IV, 25. or., ALVAR-etik (1973,152) hartua.

(35) G. SALVADOR-ek aurkitu du fenomeno hori, "Fonética masculina y fonética femenina en el habla de Vertientes y Tarifa (Granada)", **Orbis** I (1952,19-24). ALVAR-ek berak ere ALEA-rako inkestetan ezaugarri arkaikoak aurkitu zituen Puebla de Don Fadrique herrian, hizketaz Murtzialdekoa dena, (1973,153).

(36) (1936,16), **Aspects géographiques du Langages, Paris.**

(37) **Le parler populaire de Québec et de ses régions voisines** (Atlas linguistique de l'Est de Canada), (ALEC), Editeur Officiel du Québec, (10 ale) Zita lehenengo aletik hartua dago, 36. or.-tik. Kanada-ko Ekialdeko Atlasaren galdekizuna Gaston DULONG-ek argitaratu zuen (1969): **Enquête dialectologique et phonétique du français parlé au Québec,** volumes I et II. Presses de l'Université de Laval.

(38) HEEROMA, K.(1956): "Vers un atlas linguistique européen",Orbis V, 339-348. or. Edo ikus, berriago hau: PUTSCHKE, W. (1972): "Planung einer Projektdurchführungs Automatische Kartierung des Atlas Linguarum Europae", **Germanistische Linguistik** VI, 547-577.

(39) **Anthropological Linguistics** IV, 6-22.or.

(40) "A computerized Statistical Methodology for Linguistic Geography: a pilot Study", **Folia linguistica** I, 80-95. or.

(41) Urte horietan aski sartuak zeuden horrelako saioak hizkuntzalaritza mailan. Gure arloa fonikoa denez, bidezkoa iruditzen zaigu, honi buruz, adibideren bat jartzea. Esaterako: FLANAGAN (1962): "The use of computer for research in phonetics", **Actes du 4ème. Congrès International des Sciences Phonétiques,** The Hague, Mouton, 149-154. or. MATHEWX, M.V., PIERCE, R. eta GUTTMAN, N. (1962) "Sounds from digital computer", Gravesaner Blätter, Mainz, 23 eta 24. zenbak.

(42) **Informática y Lingüística,** Agora, Málaga. Lan horrek "Ordenadores y Geografía lingüística. El proyecto del Atlas plurilingüe de Europa", izena du eta argitaratua izan zen **Revista de la Universidad Complutense,** (1976, 79-84). Goian aipaturiko liburuan beste artikulu batzuen bilduma da eta duten interesgarritasunagatik emango ditugu: ALVAR M. eta VERDEJO, V. (1978): "Automatización de atlas lingüísticos", RDTP XXXIV, 23-48. or. ALVAR, M. eta NUÑO, Mª Pilar (1981): "Un ejemplo de atlas lingüístico automatizado: el ALES", **LEA** III, 352-370. or. ALVAR, M. eta MARTINEZ ABAD, C (1984): "Automatización de índices en los atlas lingüísticos", **Homenaje a A. Rabanales,** Chile, 107-111. or.

Gazteleraz idatzi diren beste lanetako batzu honako hauek lirateke: FERNANDEZ SEVILLA, J. (1976): "Ordenadores electrónicos y atlas lingüísticos", **Revista Universidad Complutense** XXV, 87-89. or. ALVAR, M. (1977): "El atlas lingüístico etnográfico de la provincia de Santander", **Revista de Filología Española** LIX, 81-118.

(43) "Le valeur documentaire de l'Atlas linguistique de l'Italie et de la Suisse méridionel (AIS)", **RLiR** IV, 266. or. Apud VIDOS (1963,57).

## 4.3. EUSKAL ATLAS LINGUISTIKOEN HISTORIARA HURBILKETA

### 4.3.1. SARRERA

Gaur egun ez du inork hauzitan jartzen atlas linguistikoen garrantzia hizkuntza ezagutu eta aztertzeko une konkretu baten. Begira zer zioen MENÉNDEZ PIDAL-ek euskarari buruz ari zelarik, hamar urte baizik ez zirela igaro ALF deitua atera ondoren (1921,29) (1):

> *"La Academia, con su autoridad, puede atraer muchos colaboradores y tender por todo el país una red de mallas bastante estrechas para que ningún fenómeno notable se escape entre sus claros, y podrá así dar un diccionario digno de las necesidades modernas de la lingüística, en el cual la geografía esté debidamente trabajada, y sobre el cual pueda ser estudiada la historia del vocabulario. Porque en la distribución geográfica de cada voz está reflejada gran parte de su historia. El camino de su introducción, su lucha con voces sinónimas, su fuerza expansiva, su evolución en los significados, y otra serie de problemas a ella relativos pueden solucionarse mediante la inspección del área o de las áreas que cada palabra ocupa en el territorio de un idioma."*

Menéndez Pidal-en hitzek garbi adierazten dute Geografia linguistikoak dituen garrantzia eta balioa hiztegia aztertzeko. Argiro azaltzen du herriguneen hautaketak eta banaketa geografiko egokiak hutsunerik gabeko sare aski itxia osatuz, duten eragina hitzen historia ezagutzeko. Begibistakoa da hizkuntzaren lexikoaz ari dela eta ez hizkuntz atlasei buruz, baina testuinguruak nahiko argitzen du hiztegiaz dioena atlasetako alderdi lexikoari ezar dakiokeela, eta, beraz, atlasetako zatirik haundienari. Hona Euskal Atlasi buruz nola zioen MENÉNDEZ PIDAL-ek (1921,28):

*"Unicamente he de asociar aquí mi deseo al de muchos de vosotros, porque la formación del "Atlas lingüístico del Vasco" sea un hecho. Ya el señor Urquijo, en compañía del señor Lacombe, ha dado los primeros pasos para su estudio. En buenas manos, pues, está el proyecto; de esperar es que el apoyo de las Diputaciones lo haga realizable."*

Aspalditik daude munduko linguistak euskal atlas honen irrika biziz, euskara ez bait da alferrik Europa-ko hizkuntzarik zaharrena. TOVAR-en hitz hauek (1959,151-152),zentzu horretan, aski argigarriak dira:

*"En el caso del vascuence, donde el problema de la lengua hace dos mil años no nos lleva a un dato conocido como el latín, sino a una incógnita, un atlas lingüístico sería un importantísimo elemento de trabajo, que nos descubriría sobre la historia de la lengua seguramente más de lo que podemos imaginar. Tal atlas es una de las tareas más urgentes de la lingüística vasca, y urge hacerlo cuando la vida moderna amenaza en todo el mundo a lenguas y a diferencias dialectales."*

Halaz ere, atlas horrek tenkor pairatu ditu denboren iragana eta jendeen gogoak, eta 1975-ean honela zioen VILLASANTE-k, Euskaltzaindiko Buruak (1975,468):

*"Euskararen Atlas Linguistikoa. Horra beste asmo zahar bat, eta orain ere asmo bezala segitu beharko duena aurrera eramateko biderik ez dugun bitartean".*

Eta Jose Mª SANCHEZ CARRION-i bi hitz aski izan zitzaizkion euskal atlasaren historia azaltzeko (1974,343):

*"La historia del Atlas Lingüístico Vasco es la historia del proyecto de un atlas."*

Ageri denez, beti izan da hizkuntzalarien asmoa atlasa egitea, baina asmoak eta ekinbideak orain arte bide erdian gelditu dira, batere fruiturik eman gabe. Eta horrela mende-erdi luzea.

Zeintzu dira, ordea, Menéndez Pidal-ek aipatu dituen urratsak? ALF agertuz gero, gure artean ere atlasaren beharra erakutsi zen. ALF-ek, Frantzia-ko estatu osokoa izan arren eta mugetatik kanpora ere irten arren, euskarari eta Iparraldeko euskalkiei dagokiena ez zuen jaso. Urte haietan Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan zen irabioa, Revista Internacional de Estudios Vascos eta Julio Urquijo bereziki tarteko zirelarik, ikaragarrizkoa zen. Berehala ikusi zuten, beraz, euskal atlasaren beharra.

### 4.3.2. Aurrekariak

Lehen ekintza Iparraldean sortu zen "Cercle d'Etudes Euskariennes" zenaren inguruan, 1912-ko Ekainaren 13-an egin zen bileran, Broussain, d'Arcangues, Landerreche, Leon, Gavel eta Urquijo bera azalkide zirelarik. Honoko erabaki garrantzitsu hau hartu zen han (2):

> *"Le cercle émet le voeu qu'un atlas linguistique du Pays Basque soit entrepris."*

Bazekizkiten, ordea, era horretako lanen zailtasuna eta haunditasuna, eta horregatik egitasmoa Lapurdi-ra mugatzen dute. Honela esaten zion Broussain-ek Lacombe-ri, 1912.go uztailean, CHARRITON (1985,287):

> *"Je ne me dissimule pas que l'Atlas Linguistique du Pays Basque sera un travail formidable. A notre dernière réunion (13 juin 1912) nous avons décidé de nous en tenir, pour le moment, à un seule dialecte, le laburdin."*

Elkarren artean izan zuten gutunketatik atera daitekeenez,

haien asmoa Lapurdi-tik hasi eta Behe-Nafarroa eta Zuberoa-ra hedatuz, Iparralde osoko atlasa egitekoa zen. Hortarako zenbait esaldiz baliatu nahi zuten, fonetikako eta morfologiako alderdirik oinarrizkoenak jaso ahal izateko. Materiala jasotzeko eraz, denak aditzera ematen du frantsesetik euskarara itzuliz egiteko asmoa zutela; itzulpenerako esaldiak prestatzeko, berriz, H. Schuchardt zuten begiz joa.

Egitasmo horrek munduko Lehen Gerratea hasi zelako ezin izan zuen aurrera egin. Haatik, J. URQUIJO-k ez zuen etsi, eta Euskal Ikasketen Lehen Biltzarrean (1er. Congreso de Estudios Vascos), 1918-an, Euskaltzaindia sortu zen urte berean, hain zuzen, berriro ere egitasmoa bulkatu nahi izan zuen (1918,52-53):

> *"... pero si las Diputaciones vascas y el País en general, desean que esta ciencia se ponga de una vez a la altura de otras ramas -euskal ikasketez ari da-, hoy más adelantadas, de la lingüística, deberían decidir, lo antes posible, la formación del Atlas Lingüístico del País Vasco. El señor Lacombe y yo, comenzamos esta labor en modesta escala, puesto que sólo comprendía el territorio vasco-francés, pero la guerra vino a interrumpir nuestros trabajos."*

Eta azalkideei argitu nahiean, honela azaltzen die lana:

> *"El atlas Lingüístico no tiene nada que ver, como a primera vista pudiera creerse, con la Carte Linguistique en la que el Príncipe Bonaparte mostró la repartición o distribución de las variedades del vascuence. Es un trabajo de muchísima más trascendencia, en el que se consagran un mapa del atlas a cada uno de los vocablos o cada uno de los hechos lingüísticos que se trata de estudiar, de modo que el lingüista puede darse cuenta, de un solo golpe, de todas las variantes y matices que, respecto de un punto determinado, presenta el habla de un territorio euskaldun." (3)*

J. Urquijo-ren hitzek ez zuten oihartzunik izan. Urquijo-k hitzaldi hori eman eta 36-ko gerrateraino hamazortzi urte igaro ziren batere ekintzarik gabe, ez bakarkakorik ez eta erakundeetakorik, egitasmo hori aurrera eramateko. 1951-rarte ez zen horretaz mintzatuko. Euskaltzaindiko akta batek agertuko digu, ordea, euskaltzainen burutan bazebilela, halere, atlasaren kezka. Euskaltzaindiak Donostia-n, Gipuzkoa-ko Aldundiaren Jauregia-n, 1922-ko urriaren 26-an egin zuen bileran, zenbait erabakien artean honako hau hartu zuen:

> *"Apraiz jaun bekadunari idatzi behar zaio,* ***lanetan bereziz*** *jardun dezala, bere oraingo ikasketak utzi gabe. Bähr jaunak ere* ***lingüística****-ko ikaskuntzari gogoa lotu bezaio. Polikarpo Iraitzoz'ek udarako opor egunetan Aita Etxalar laguntzaile bikain zaiolarik, Naparroa'ri dagokion Erizkizundiko lanetan ekin lezake ta Bähr jauna, udaran Euskalerrian balitz berau ere lan ontan lotu liteke. Lacombe jaunak Bidasoatik aruzko erizkizundi-lanak artu bitza, Gabel jauna lankide zaiolarik ta Aita Iraitzoz ta Gerhard Bähr, Naparroa'ko lanak bukatzekotan, Bidasoatik aruzko erizkizundian ere arreta bitez." (4)* ***Euskera*** *(1925,46)*

Eta 1923-ko azaroaren 22-an egin zuen bileran ere, Donostian eta Aldundiaren Jauregian berriro ere, honela erabaki zuen:

> *"Euskalkiai dagokien* ***Mapa*** *bat egitea Euskaltzaindiak erabaki du",* ***Euskera*** *(1925,12).*

ALPI ere arras baztertua gelditu zen Espaina-ko gerrateare-kin, eta berriro Madrid-eko Centro Superior de Investigaciones Científicas-en babesean abiatu zen, R. de Balbin-en zuzendaritzapean. Aukera horretan euskara ere sartu nahi izan zen ALPI-ren plangintza orokorrean, Navarro Tomás-en garaian kanpoan utzi bait zuten eremu erromanikokoa ez zelako. Hori zela eta, Euskal Herriko zenbait pertsona ezagun deitu zituzten C.S.I.C.-tik: M.

Agud, J.J. Beloqui, Juan Gorostiaga, Pedro de Yrizar, Joaquin Mendizabal, J.B. Merino Urrutia eta L. Mitxelena (5). MITXELENA-k kontatzen duenez (1951,591), plangintza ganoraz egin zen eta ondorio onen itxaropidea izan zitekeen:

> *"En estas reuniones, después de distribuir entre los asistentes la labor de preparación de cuestionarios y estudio de los diversos problemas técnicos que entraña el proyecto, se acordó la celebración de nuevas reuniones para el próximo mes de abril, en las que se espera dejar ultimados estos estudios previos. El próximo verano, tras un cursillo que se celebrará en San Sebastián para preparar los equipos de trabajo y unificar sus criterios, se procederá sin más retraso a la realización de la labor de campo en el conjunto del País."*

Bazen tartean elkarte bat onespena eman behar zuena; pentsa daiteke, beraz, ez zela bakarkako ekintza izango. MITXELENA-k azalpen berean dioenez:

> *"Los Amigos del País han visto con la máxima satisfacción como es natural, esta feliz iniciativa del Consejo Superior de Investigaciones Científicas y han ofrecido su ayuda total para llevar a buen término esta empresa que llenará una necesidad que venían sintiendo dolorosamente."*

Pedro de YRIZAR-ek ere (1981,9-10) azaltzen du Madrid-en egin zen bilera:

> *"Se estudiaron en la misma las directrices que habrían de presidir la exploración de las variedades del vascuence, con vistas al levantamiento del Atlas Lingüístico Vasco. En la distribución de los trabajos preparatorios para dicho levantamiento, se me encomendó el estudio de los dos puntos siguientes: a) Fijación de los lugares más adecuados para ser*

*explorados lingüísticamente, con objeto de conseguir los datos que mejor reflejaran las peculiaridades de los distintos dialectos y variedades, sin multiplicar excesivamente, por razones económicas, el número de dichos lugares explorados; b) determinación de las formas verbales que deberían incluírse en los cuestionarios, para que, limitando al mínimo imprescindible el número de formas interrogadas, se obtuviera una información lo más completa posible sobre las variantes de las formas verbales."*

Bilera haiek ez zuten gehiagorik eman. Guk dakigunez, ez zen Donostia-ko ikastaroa egin, eta lan-taldeak ere ez ziren osatu (6). Guzti hartatik gelditu zena zera izan zen: Mitxelena-k prestaturiko galdekizun fonetiko bat (7) eta P. Yrizar-ek paratu zuen 169 galderatako aditzari buruzko galdekizun bat (8).

Urte haietan NALF ere abiatzen ari zen. Dauzat, atlas berrien bultzatzailea, hartaratu zen Estatu Frantsesean bazela beste lurralde bat euskaraz egiten zuena eta, beraz, batu beharko litzatekeena. Baina hain atzeratuak zeudenez hizkuntz lanak, etsi egin zuen (9).

Bada, halere, zenbait aipamen Iparraldeko atlasa NALF barruan hartzeko asmoa agertuz, eta Haritschelhar eta Allières zuzendari bezala ipiniz, edo Haritschelhar bera bakarrik, SEGUY-k (1973,71), esaterako, nahi zuen bezala (10).

Garai hartakoa da, ere, Arnald Steiger-en saioa, nork nahi izan bait zuen Euskal Herriko atlasa berak bakar-bakarrik egin, berak prestaturiko 2.000 galderatako galdekizunez baliatuz. Zoritxarrez, haren ustegabeko heriotzeak berriro ere galerazi egin zuen egitasmo hau.

Bada beste egitasmo bat ere Nafarroako Unibertsitate barnean sortu zena 1965-1966 urteetan eta orduan sorberria zen Euskal Hizkuntz eta Kulturaren Katedraren inguruan Ana Mª Etxaide izan zen, bere ikasleekin batera, 72 inkesta egin zituena

Nafarroa-n zehar; erabili zuen galdekizuna lehen aipatu dugun Mitxelena-k paratutako galdekizun fonetikoa izan zen. Jaso zituen inkestetatik 60 gordetzen ditu. Lana egiteko "Príncipe de Viana" Erakundeak lagundu zuen. Material hauek, egileak esan zuenez, argitaratze bidean omen daude (12).

J. Allières ere, aditz formei eskeinitako ALG-eko V. alearen egile distiratsua, euskararen atlas linguistikoa egin beharraren bultzatzaile gogor bezala agertzen da aldizka (13). Egoera eta posibilitate benetakoak aurkezten zituen, betiere ALG egitean hartu zuen esperientzia kontutan izanik; hark ikusten zuen beharra Euskal Herri osorako atlas bakarrarena zen, Iparraldea eta Hegoaldea, biak hartuz, eta horretarako uste zuen Baiona-ko Euskal Erakustokia eta Donostia-ko Julio de Urquijo Institutoa izan zitezkeela lanerako bi zentroak. Bidebatez agertu zuen "la muy interesante sugerencia -MITXELENA-ren ustez (1981,139)- de que, junto al Atlas propiamente dicho, y en estrecha relación con él, se elabore también, basándose en encuestas por correspondencia un Wortatlas o Atlas léxico". Orobat, gertakizun morfologikoak eta sintaktikoak zailagoak diren arren, ALLIERES-ek (1966,254) bideak zabaltzen ditu eta kartografiaketa beharra ere azaltzen du (1981,276):

> *"Néanmoins, la complexité formelle des premiers ne doit nullement en remettre le principe en question, car il est presque toujours possible d'analyser les formes complexes et cartographier les variations spatiales de chacun des constituants."*

Tratamendu orokorrari buruz zera dio (1981,277):

> *"Donc,le devoir des promoteurs de l'Atlas Linguistique Basque, dont la fraction sud et la fraction nord devraient être èlaborés en liason étroit [...], serait de concevoir, à coté du questionnaire morphologique et d'un choix lexical permettant d'obtenir les données fondamentales de la phonétique dialectale,*

*une technique, une métode, un moyent de relever le vocabulaire le plus riche possible."*

Berriro (1981-2, 106) mintzatzen da atlasaren gaiaz eta, bidenabar, Iparraldean ez litzatekeela arazorik izanen esaten du:

*"Nous espérons que nos difficultés ne seront que passagères, et avons de bonnes raisons de penser que le CNRS nous permettra sans peine de nous remettre à l'ouvrage."*

Biltzeko eraz, berriz, honela dio:

*"De la sorte, l'enquête sur le terrain se limite à des enregistrements de phonétique dialectale, et de morphologie -on pourra à cette occasion demander une fraction du vocabulaire."*

*"Une enquête ethnographique, avec enregistrements au magnétophone ou au magnétoscope de récits techniques, et relevés de photographies ou de dessins d'objets, devra doubler l'enquete linguistique." (1981,107)*

Amaitzen du esanez bilketa etnotestuekin edo testu askeekin eta, esaterako, "Seme Galdua"ren testuaren itzulpenarekin, okzitanoan egin zen antzera, osatu behar litzatekeela.

### 4.3.3. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) eta Euskaltzaindiaren saioa

Euskaltzaindia, sortu zenetik, beti arduratu izan da euskararen arazoakatik eta sortu bazen ere euskarari dagozkion lanak eta betekizunak aurrera eramateko sortu zen. Lan horietatik asko, zuzenean Euskaltzaindiak berak eramaten ditu, hala nola euskararen normaltzeari eta eguneratzeari dagozkionak, honetarako

sortu bait zen hain zuzen ere; hiztegia eta gramatika egitearenak, oraintxe bertan ari den bezala, baina gerrate aurrean ere egin zituenak, guri gaur egun gizon bakar baten lanak bezala agertzen bazaizkigu ere, bere Lehendakari izan zen Azkue jaunarenak alegia, baina ezin dira Euskaltzaindiaren helburuetatik eta eginkizunetatik bereizi; eta Erizkizundi Irukoitza ere ikuspegi berean sar daiteke. Zeharbidez ere lan asko bultzatu ditu Euskaltzaindiak: ikerketak, lehiaketak, bertsolaritza eta abar, beti euskararen erabilera eta erabilera ona lagundu nahian.

Gerratearen ondoren, eta gauzak baretu ahala, hasi zen berriz ere bere eginkizunak bideratzen. Eta hizkuntzaren atlasarena ere hortxe agertu zen berriro.

Akademiaren bileretako agirietatik atera daitekeenez, Mitxelena izan zen 1968-tik hasita, **Euskera,** XIII, aritu zena bere akademi kideak eginkizun gaitz horren beharraz kezkatzen eta jabetzen.

Gai honen inguruan 1967-1970 urteetan izan zen iharduna hagitz interesgarria izan zen. Ez zen, bestalde, Euskaltzaindia lan honi ekiteko prest zegoen bakarra, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak ere lagundu nahi bait zuen.

Urte horietan izan zen mugimendua laburbilduz, zera esango genuke: Pierre Lafitte euskaltzainak egitasmoaren zirriborroa prestatu zuen eta Euskaltzaindiak onartu eta kide guztiei banatu. Geroxeago Mitxelena eta Allières izendatu zituzten atlasaren erantzule eta lana egiteko tokia ere eman zitzaien. Hurrengo urratsa finantzaketarena izan zen; beti arazo arduragarria gertatu ohi da hau, eta kasu honetan erabakia bide zegoen: Donostiako Udal Aurrezki Kutxak diru-laguntza agindu zuen, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak ere lagundu nahi omen zuen. Haratago ere joan zen, hitz egin bait zen Mitxelena liberatze kontuaz kartografiaketa-lan haundi horretara erabat eman ahal izan zedin (14).

Hala eta guztiz ere, indar gorderen bat aurka ari dela esan liteke. Dena bertan behera gelditzen da, eta beste hamar urteren buruan ez da horretaz ia hitzik esango.

1980-an, berriro ere Mitxelena-ren ekinbidez eta eraginez, atlasa egiteko azpiegitura berregiteari ekiten zaio (15). Geroztik gauzak ongi doazela dirudi. Batzorde bat izendatzen da, F. Ondarra Euskaltzaina lehendakari eta J. A. Letamendia idazkari dituena, beste sei kiderekin batera (16).

Dialektologiako ikastaro bat antolatu zen 1981-eko apirilean, alde batetik, irakasle katalanekin, atlas linguistikotako eginkizunetan esperientzia zutenekin, lan horietan arituak izaki, eta bestetik, Euskal Herriko irakasleekin; Allières-en partaidetza ere izan zen. Denera 32 partaide izan ziren. Ikastaro honen xedeak bi ziren, hots, atlasa egingo zuen pertsonala gaitu eta atlasa egiteko lanak prestatzen eta antolatzen hasi.

1982-1985 bitartean lau Dialektologi Ihardunaldi antolatu dira, euskaltzainekin batera dialektologi batzordea bilduz, eta ihardunaldiotan galdekizuna, traskribaketa fonetikoa eta abar prestatu ziren.

Azkenengo ihardunaldia Gasteiz-en ospatu zen 1985-eko urtarrilaren 25 eta 26-an, eta Bilera horretan behin-betiko galdekizunak onartu ziren. Galdekizun fonetikoak 51 galdera ditu eta "Atal honek, beraz, bi fenomeno multzo agertzen ditu: i eta u bokal edo bokalerdiek ondoko silabako a letran duten eragina, eta euskaran ematen diren sandhi batzu." ETXEBARRIA (1986,406)

Morfologiari dagokion galdekizuna, betiere ETXEBARRIA-ri jarraituz (1986,407-408), bi ataletan banatzen da: "Izen morfologia" eta "aditz morfologia". Izenaren morfologiak bere aldetik beste bi atal ditu, "izenaren deklinabidea", alegia, 491 galderakin eta "gainontzeko guzia" 371-kin; denera 862 galdera ditu. "Aditz morfologia"-k 294 galdera ditu. Beraz, denera 1156 galdera dira galdekizun morfologikoan. Eta sintaxian, "Zenbait arazo morfosintaktiko" deitutako atala 41 galderakin.

Azkenik, galdekizun lexikoa, 2617 galderatakoa: 2368 galdera orokor inkesta-toki guztietan jasotzekoak, eta 249 berezi toki seinalatuetan bakarrik jasotzeko. 30 gai ditu, gero kartografiatzen joango diren ordenaren arabera lau ataletan banatuak, ETXEBARRIA (1986,409):

I atala: 1-4 gaiak
II atala: 5-7 gaiak
III atala: 8-17 gaiak
IV atala: 18-30 gaiak

Gure kontuen arauera, galdekizunak 3.865 galdera ditu denera. Galderok zuzenean jasoko dira, galdera bigarren hizkuntzan eginez, frantsesez edo gaztelaniaz, alegia, tokiko bigarren hizkuntzaren arauera.

Ez dira inkesta-tokiak seinalatzen. Arazo hau beste hurrengo bilera baterako uzten da.

Informatzaile bakoitzeko "testu libreen" 15 minututako iraupeneko grabaketak egitea gomendatzen da.

Dakigunez, hiru pertsona liberatuak izan dira galdekizunok prestatzen aritu direnak: J.M. Etxebarria, X. Bidegain eta G. Aurrekoetxea. Ez dakigu, ez bait da argitasun hori Euskaltzaindiaren Euskera aldizkarian agertu, zenbat inkestagile ari diren lan honetan. Horretaz agertu den gauza bakarra zera da, 1986-ko urtarrilaren 31-n Atlasaren lehen zatia 15 herritan batua zela:

> *"15 herritan Atlasen lehenengo zatia grabatua dago, eta zazpiren traskribaketa eginda ere"' ETXEBARRIA (1986, 410).*

Oraingoan bide onetik doa, beraz, Euskal Herriko Atlasa. Hala bedi.

### 4.3.4. Beste iniziatiba batzu

Atlas horrez gain, "Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa" ere aipagarria da, dituen bereiztasunek aski eztabaidagarri bihurtu badute ere atlas hori, esaterako inkestak jasotzeko era, traskribaketa, galdekizuna bera, eta abar (17).

ALEANR atlasak ere batzen ditu Nafarroa-ko euskal eskualdeko zenbait toki (18).

Atal hau ixteko, J. M. SANCHEZ CARRION, "TXEPETX"-en (19) zenbait lerro ekarri nahi nituzke. Ikuspegi kritikoz begiratzen ditu atlas linguistiko tradizionalak eta egoera soziolinguistikoa atlasetara aldatzeko aukera eta beharra aurkezten du, batez ere atzerrian dauden euskaldunena, TXEPETX (1974,346):

> *"Nucleos vascos de París, de Buenos Aires, de Caracas..., muchos de los cuales han mantenido el euskera a costa de un ímprobo esfuerzo, son sociológica y lingüísticamente de un enorme interés para la lingüística vasca, tanto más cuanto que de ellos puede llegar a depender como hemos visto en el caso del gaélico, por ejemplo, la pervivencia del vascuence como lengua viva."*

Batu beharko lirateke, ere, "los núcleos de migraciones interiores", "la diáspora económica" eta "los pastores vascos de Norteamérica"; azken hauek nolabaiteko "koiné"-a lortu dute heuren arteko komunikatu beharraren-beharrez.

Beste talde bat ere bada, "diáspora interior" deritzana, Iparraldera igarotako gipuzkoar eta bizkaitarrak alegia, euskaldunen arteko migraketa; dialekto sozialak eta bazter-hizketak (pidginduak), hala nola tratanteenak, arrantzaleenak eta abar. Talde hauek ere batu beharko liratekeela dio, eta euskal atlasean agertu.

Ez da gure xedea eritzi hauek kritikatzea ez eta atlas

linguistikoak defenditzea ere; baina planteamendu hauek beste oinarri eta helburu batzutatik sortzen dira, eta hori ere kontutan hartu behar da.

Gauza agiria eta onartua da atlas linguistiko tradizionalak baldintzapetuak eta mugatuak daudela nahiz lekukoen kopuruagatik, tokiko bat edo banaka batzu hartzen badira ere, ikuspegia beti izanen delako partziala, nahiz lekukoaren hautaketa askeak berekin daraman arbitrariotasunagatik, ez bait dago lekuko honi edo hari herri osoaren ordezkotza zergatik eskeini, eta are gutxiago errejistro bikoitza kontutan hartuz gero. Hala eta guztiz ere, aurrean izan behar dena zera da, atlas linguistikoek toki izendatu bateko hizketaren informazio linguistikoa jaso nahi dutela, informazio hori horizontalki eskeintzen dutela, geografiaren ikuspegitik, alegia, eta hizketako gertakizunak direla aztertu nahi dituztenak.

"Txepetx"-ek proposatzen duena besterik da, atlas soziolinguistikoa, alegia, eta honen ikuspegia bertikala da, hizkuntzaren ezaugarriak ez baina gizartearenak azaltzen dituena. Soziolinguistikak darabiltzan bariableak ez dira, egungoz, ezinbestekak Geolinguistikan, eta azken buruan, helburu arazoa da. Soziolinguistikak, bestalde, bere barneko arazoak erabaki beharko ditu aurrena, eta gero ikusiko da kartografiaketa izan daitekeen edo ez teknikarik egokiena beretzat. Orainarte egin diren saioak, behinikbehin, ez dira nahi liratekeen bezain onak gertatu.

# OHARRAK

(1) 1920-12-27-an emandako hitzaldian.

(2) Lacombe ere "Cercle"-ko kide zen, bilera horretako azalkideen artean aipatzen ez bada ere, eta Urquijo berak dioenez ekintza honen bultzatzaile eraginkorra, "Cercle d'Etudes euskariennes", **RIEV** VIII (1914-1917,11).

(3) Lehen ikusi dugu nola Menéndez Pidal-ek bi urte geroago Urquijo-ren ekintza lagundu nahi zuen.

(4) Azpimarratuak bereak dira.

(5) Izen hauek ahoz eman omen zizkion Agud jaunak, J. M. ETXEBARRIA (1986,379).

(6) Mitxelena-k hamaika aldiz aipatu ditu bilera haiek, eta baita lanerako metodologia, galdekizuna, galderen kopurua, ikerketa-tokiak eta abar aintzinduz. Hori MITXELENA (1964) eta (1965) lanetan agertzen da.

(7) Galdekizun fonetikoak 300 galdera omen zituen. Mitxelena-k eta beste batzuk Erronkari-n batu zuten (1953,501):

> "Las preguntas sobre vocabulario se hicieron, en general, en castellano. Nos sirvieron de guión unas notas para un cuestionario que tenía preparadas uno de nosotros (L. Michelena), sin que esto quiera decir que nos atuviéramos estrictamente a ellas, pues hicimos también preguntas que se nos ocurrían en el momento. El cuestionario estaba preparado para una encuesta en la totalidad del País y dirigido, sobre todo, a obtener formas interesantes desde el punto de vista de la fonética histórica, pero al elaborarlo se había tenido preferentemente en cuenta el roncalés en lo relativo a vocales nasales."

Galdekizun hau gero Ana Mª Etxaide-k ere erabili zuen Nafarroa-n jaso zituen inkestetarako. Vid.: "Encuestas preliminares para el Atlas lingüístico Vasco", **Actes du Xe. Congrés International des Linguistes** II,102 eta hur.

(8) P. de YRIZAR-ek berak (1981,10) jaso du inkesta hori Euskal Herri osoan:

> "Realicé los estudios que se me encargaron y, al ver que transcurría el tiempo sin que se nos convocara nuevamente, decidí publicar mis resultados. Los correspondientes al punto a) [-fijación de los lugares], se encuentran expuestos en los dos artículos "Sobre exploración lingüística del País Vasco", los referentes al punto b) [-determinación de las formas verbales-] se reproducen en el trabajo "Atlas lingüístico del País Vasco. Cuestionario de formas verbales."

Bilaketa linguistikoaz gero mintzatuko gara. Aditz-galdekizuna, berriz, (1956,143-158)-an argitaratu zen, **BRSVAP** aldizkarian.

(9) **L'Europe linguistique**, 35 (1953).

(10) Honi buruz aipagarria da SEGUY beraren lana "Basque et gascon dans l'Atlas linguistique de la Gascogne", Orbis I (1952,385-391).

(11) Zurich-eko Unibertsitateko Filologia Erromanikoko katedraduna izan zen. Baita C.S.I.C.-ko eta R.A.E.-ko akademiko laguntzailea ere, eta Alfontso Jakintsuaren Ordenako Zaldun Gurutze Haundia; gazteleraz **Suiza Cuadrilingüe** argitaratu zuen, Madrid, 1961.

(12) "Encuestas preliminares para el atlas lingüístico del País Vasco", **Actes du Xe. Congrés International des Linguistes** II, 102-105. or. Azken orduko ohar bezala, lan hori argitaratu berri da: ECHAIDE (1989).

(13) Allières-ek bilera bat ere egin zuen Mitxelena-rekin Baiona-n 1967-ko abuztuaren 18-an, atlasa egiteko asmoz tokiak, pertsonak eta abar prestatzeko lehen urratsak eman nahian.

hobe! (¡mejor! enfasiz edo amorruz)

**3. Hiru silabakoak** (edo gehiagokoak)

beharria (belarria) (la oreja)
nekosoa (cansado, que cansa)
beharri bat (una oreja)
irabaziak (irauziak) (ganancias)
irabazi nekosoak (ganancias costosas)
bi beharri (belarri bi) (dos orejas)

bi beharriak (las dos orejas)
beharritakoak (pendientes, los)

**4. Eratorriak eta besterik**

lotsa (vergüenza, respeto)
lotsaizun (respeto)
lotsagarria ( vergonzosa, de vergüenza)
lotsagabea (sinvergüenza)
haundi (grande)
haundia (grande, el-la)
haunditasuna (grandeza)
haundikeri(a) (grandeza, despectivo)
lotsagabekeri(a) (desvergüenza, acción concreta)
behi eder-ederra (vaca muy buena)
gizon haundi-haundia (hombre muy grande)
txakur hau txiki-txikia (ttipi-ttipia) da (este perro es muy pequeño)

**5. Esaldiak**

Mutilak bukatu du lana (El mozo ya ha terminado el trabajo)
Mutilak (-ek) bukatu dute lana, baina neskak ez (Los mozos han terminado el trabajo, pero las chicas no)

(Orain galdera aurreko esaldian oinarrituta erantzuna bilatzeko: "Nortzuk bukatu dute lana?")
Bukatu dugu lana, mutilak! (Ya hemos terminado el trabajo, muchachos!)
Mutilak, bukatu diagu lana! (Muchachos, ya hemos acabado el trabajo!)
Bukatu duzue lana, neskak? (¿Habéis terminado el trabajo, chicas?)

(Bi gauzetatik bat bukatu dela adieraztea eskuratu behar da, bestea ez dela bukatu suposatzen delarik):
Lana bukatu dugu (baina ez afaria)

Beste perpausa batzu:

Txakurra okerrean dabil (El perro está haciendo algo malo)
Txakurra! (¡Perro! amorruz)
Txakurra, alde! (¡Fuera, perro!)
Txakurrak!!! (¡Perros!)
Behiak belagian (belardian, zelaian) daude (Las vacas están en el prado)
Behiak!!! (¡Vacas! con todo énfasis)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa (Xabier, tú traerás el vino. Mera enunciación)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa? (Pregunta)
Xabier, zuk ekarriko duzu ardoa! (Orden, mandato, y con cierto énfasis)
Mikel, etorri zaitez hona (Mandato sin énfasis)
Mikel, etorri zaitez, ba! (Con mucho énfasis)
Mikel, etorriko zara? (Mera pregunta)
Mikel, etorriko zara behingoan? (Mandato enfático de entonación más o menos interrogativa)

# OHARRAK

(1) Jaberg-ek, esaterako, gaskoieraren Edmont-ek jasotako ALF-eko datoak Alliéres-ek jasotako ALEG-ekoekin erkatu zituen. Zenbait kasutan bataren eta bestearen datuen arteko desberdintasunak larriskoak dira, eta hori, agian, ez zen horrela izanen Edmont-ek prestaera fonetiko mamitsuagoa izan balu. Ikus ALVAR (1973, 120 eta hur.).

(2) Hor dago, bestalde, P. Yrizar-en lan eskerga. Aspaldiko urteetan euskal aditza oso zehatz jasotzen ari da, eta, beraz, alderdi hori, neurri batetan, egina bezala har genezake.

(3) Berriro ere ekarri nahi dugu maila lexikoa betzeko premia bizia, hainbat eremu lexiko galtzorian bait dago.

(4) Lehen esan bezala, dialektoetan jasotzen den materialak berak eskeintzen du informazio ugari diakroniaz. NAVARRO TOMAS-ek zera zioen (1925, 594, 2. oharra):

> "La escasez de textos antiguos podría compensarse ventajosamente, por lo que a la fonética se refiere, con el estudio detallado de las muchas modalidades diferentes observables en el vasco actual. Basta el tanteo de algunos sujetos para comprender hasta qué punto deben abundar por pueblos y aldeas las variantes intermedias de algunos procesos fonéticos cuyos extremos suelen aparecer en muchos casos separados por una evolución difícil de entender sin el conocimiento de dichas variedades."

(5) Interesgarriak dira honetaz MITXELENA-ren hitzak (1971, 60. oharra) sistemen arteko erkaketa estrukturalista zalantzetan jarriz:

> "Ahora bien, en Europa (y acaso también en América) la práctica, no la teoría de la encuesta dialectológica, ha estado libre de preocupaciones estructuralistas: **La dialectologie** de S. Pop es, como señaló MARTINET, un caso límite de impermeabilidad a este respecto. Creo, con todo, que KING está en lo cierto al sostener que, dentro de un planteamiento estructuralista ortodoxo, dos sistemas son incomparables entre sí, aunque no difieran más que en menudos detalles, ya que sólo cuentan las relaciones entre elementos dentro de una totalidad. Cf. p. ej. GABRIEL BES "Phonetique, phonologie et communication" en **Beiheft** 3-4 (neue Folge) de la **Zeitschrift für Mundartforschung,** págs. 6-83 y "Certains aspects du rapport de la phonologie avec la dialectologie" en **Phonetica** 13, 1965, pás. 22-26."

(6) MITXELENA-ren **Fonética Histórica Vasca** da gehien erabili duguna, lan hori bait da orain arte egin den lanik zehatzena fonetikaren eta dialektologiaren aldetik, eta onena ere bai metodologiaren eta analisiaren aldetik.

### 5.2.2. AURRE-GALDEKIZUNAK JASOTZEKO JARRAITU DEN METODOLOGIA

#### 5.2.2.1. Lehen urratsak

Galdekizuna fenomeno fonetikoen arauera prestatu ondoren, hitz guztiak zenbakitu egin ziran, zein kasutan agertzen ziren zainduz eta hitz bat eta bera toki batetan baino gehiagotan ager zitekeela ere kontutan hartuz. Gainera, hitz bakoitzari galdera bat ezarri behar zitzaion, beti testuinguru berdintsuan jaso ahal izateko. Bidebatez, galderak bakoitza gaztelaniaz eta frantsesez ere jarri genituen, erdaraz egin behar bait ziren erantzuna euskaraz jasotzeko. Azkenik, galderak ere zenbakitu egin ziren garbitasuna lortzeko metodologiaren aldetik.

Orohar 845 galderatakoa gertatu zen aurre-galdekizuna, eta horiez gain, ezaugarri prosodikoak jasotzeko beste esaldiak eta hitzak ere kontutan hartu behar dira.

Galdekizun fonetiko ugari honek badu arrazoirik. Azken asmoa euskalki guztietarako balia zezakeen galdekizun laburrago bat lortzea zenez gero, fenomeno bakoitzerako hitz bat baino gehiago prestatzea nahitaezko zen, gero fenomeno horiek euskalki denetan jasotzeko aukerak hutsik egin ez zezan, eta horren ondorioz euskalki guztietarako aipaturiko galdekizun labur eta zehatz hori egiteko.

Inkestak 1983-ko udan jaso dira eta hurrengo neguan osatu, falta edo garbi azaltzen ez diren datuak bilduz. Grabatzeko erabili den tresna UHER 4.400 Report Monitorra izan da, bobina irekikoa, eta mikrofonoa, UHER M518 motakoa. Grabatzeko zintak BASF markakoak izan ziren, bobina irekikoak, (Ferro LH HiFi DP26) 366 m-koak eta 1201'-ko iraupenekoak.

Inkesta guztiak herrietan egin dira eta lekuko guztiek oso harrera ona egin digute, borondate ezin hobeagoz ahalegindu direlarik gure galderak erantzuten, saioak luzeak eta aspergarriak

izan arren, eta, kasu batzutan, palatogramak egiteko aukera ere eskeini zigutelarik.

### 5.2.2.2. Jaso diren lekuak

Azaldu berriak diren arrazoiengatik, begibistakoa zen Euskal Herri osoan probatu eta jaso behar zela galdekizun hau. Horretarako inkestak sei euskalki hauetan egin dira:

Goi-Nafarreraz, Lapurteraz, Behe-Nafarreraz, Zubereraz, Gipuzkeraz eta Bizkaieraz. Lekuak, berriz, honako hauek izan direlarik:

Goi-Nafarrerarako Ituren-en jaso genuen.
Lapurterarako Sara-n.
Behe-Nafarrerarako Baigorri-n eta zenbait osagarri Elheta-ko lekuko batekin.
Zubererarako Santa-Grazi-ko lekuko batekin.
Gipuzkerarako Astigarraga-n, eta Orendain-eko lekuko batekin osatu.
Bizkaierarako, azkenik, Gorozika-ko lekuko batekin, eta oñatiar batekin osatu.

### 5.2.2.3. Lekukoak

Aurre-inkesta egiteko ez gara zorrozkerietan ibili, aurre-galdekizun horren helburua ez baitzen fonetika azterketetarako edo mapetarako materiala biltzea, galdekizuna bera probatzea baizik, hau da, galdekizun horrek euskalki guztietarako balio zeza-keen edo ez probatzea. Lekukoak bere hizkera ongi menderatzea aski genuen, betiere zenbat eta gutxiago kutsatua izan,nahiz beste euskalkiengatik nahiz erderagatik, hobe. Honela Gipuz-kerarako aurkitu genuen lekukoa ia elebakarra zen; honek ere baditu, ordea, eragozpenak, ozta-ozta ulertzen bait zituen galde-rak. Baxe-Nafarrerako lehenbiziko lekukoa "ikasia" zenez, ondo-

ren Ekialdeko (BN) ezagutzen zuen beste lekuko trebe batekin berrikusi genuen galdekizuna, eta, azkenik, zenbait galdera Baigorri-ko beste lekuko batekin osatu genituen. Zubererak ere baditu berez arazoak guretzat, eta horregatik lekuko trebea bilatu genuen, euskalkia ongi ezagutu eta guk nahi genuena ongi uler zezakeena. Ez dira horrelakoak lekukorik hautatuenak geografia linguistikoan, baina gure helburuetarako nahiko egokiak.

Lekuko nagusiak -laguntzaileak ez ditugu aipatzen- honako hauek izan ziren:

Feli Petrirena Aranburu, Ituren-goa (Nafarroa), emakumea, 72 urtekoa, Ip (Goi-Nafarrera) euskalkikoa, Bortzirietako azpi-euskalkiaz egiten duelarik.

Paul Delpech, Sara-koa (Lapurdi), gizona, 58 urtekoa, Lapurtera euskalkikoa, Bertako azpieuskalkiaz egiten duelarik.

Pierre Bidart, Baigorri-koa (Behe-Nafarroa), gizona, 37 urtekoa, Mend. (Behe-Nafarrera) Baigorriko azpi-auskalkiaz egiten duelarik.

Xipri Arbelbide, Heleta-n, gizona, Ek (Behe- Nafarrera).

Martin Zabaltzagarai, Baigorri-koa (Behe-Nafarroa), gizona, 59 urtekoa, Mend. (Behe-Nafarrera) Baigorriko azpieuskalkiaz egiten duelarik.

Junes Casenave, Santa-Grazi-koa (Zuberoa), inkesta Larrañe-n egina, gizona, Zuberera euskalkia egiten duelarik.

Francisco Irigoyen, Astigarraga-koa (Gipuzkoa), gizona, 55 urtetakoa,

(Gipuzkera) euskalkia, Iparraldeko azpi-euskalkia, Hernaniko aldakia egiten duelarik.

Elixabete Garmendia, Gorozika-koa (Bizkaia), emakumea,

60 urtetakoa, (Bizkaiera) euskalkia, Mendebaldeko azpi-euskalkia, Gernikako aldakiaz egiten duelarik.

### 5.2.2.4. Inkesten traskribaketa eta hautaketa

Hurrengo pausua inkestak traskribatzea izan zen. Traskribatzeko ez ginen erizpide estutara lotu, ez bait zen hori beharrezko lehenengo aurre-galdekizun horren asmotarako. Bilatzen genuena zera zen: batetik fenomenoen eta zegozkien adibideen banaketa eta hautaketa ongi zegoen edo ez probatu; eta bestetik, fonetikaren aldetik batasuna euskalki denetarako lortu, eta lexikoaren aldetik adibideen esanahia ezagutu eta finkatu.

Fonetika mailan, "r(t)z" eta "st" talde kontsonantikoek, esaterako, zein eremu nagusi hartzen duten jakiteko beste adibideen artean "ortzegun" eta "ortziral" ipiniak genituen, baina Bizkaierak "eguena" eta "barikua" erabiltzen dituenez, Bizkaiera kanpoan gelditzen zitzaigun; "bortz" / "bertze", ordea, toki guztietan berdin erabiltzen direnez, haiek kendu eta azkenengo bi hauek gelditu ziren bigarren galdekizunean. Gainera, bi hitz hauek beste fenomeno batzutarako ere balio dute : "bortz"-ek "o" bokala silaba trabatuan nola gertatzen den ikusteko, eta "bertze"-ren kasuan dardarkari ondoko xistukaria afrikari ala igurzkari gertatzen den ikusteko. Eta adibide hobeagorik ere bada, baina, lehen esana argitzeko hauek aski dira.

Lexikoaren aldetik, berriz, esanahia ezagutu eta finkatzeko. Goierri-n esate baterako, arkitu dut "otso" gaztelerako 'oso' dela eta, benetako "otso"-ari "basatxakurra" esaten diotela. Beste batzutan alor semantikoa nahastu xamarra dago: "laino", "lurrun" eta zenbait kasutan erreferentea zailegia gertatu da hitza jasotzeko: "gozotasun", "dastatu", "aufa"..., eta galdera baztertu egin behar izan da.

Inkesta denak traskribatu ondoren, orrialde haunditara

pasatu genituen,zutabetan, bata bestearen parean, horrela galderak eta euskalki guztietako erantzunak begien aurrean denak batera izateko. (Ikus eraskin gisako alea).

Hitz bakoitzari bere fitxa egin zaio, azkenik, bertan zein kasutan eta kasu bakoitzean nola den eta errepikatzen den edo ez sinalatuz. Horrela galdekizuna orraztuz, garbituz eta bakanduz joan da, 845 hitzetako galdekizuna 325 hitzetakoa bihurtuz.

Halere, aurreko jokabide bera daramagu behin-betirako galdekizunean ere: fenomeno bakoitzari bere adibidea ezarri zaio eta, ahal izan den neurrian, bat baino gehiago ere bai, honela fidagarriago gerta dadin eta aztertzen den fenomenoa kartografiatzerakoan adibide baten baino gehiagotan oinarriturik egon dadin.

Galdekizunak bi atal ditu: batetik, galdekizunaren sail nagusia, euskalki guztietan jasotzekoa, eta bestetik, bi eraskin: bata, Iparralderako, 17 hitzetakoa, aspiraketa eta leherkari aspiratuak jasotzeko; bestea, "ü" bokalari dagokio eta Zuberoa-n eta Ekialdeko Behe-Nafarreraz egiten den tokietan behintzat jasotzeko da; 28 hitz ditu eta, lartxo badirudite ere, interesgarriak eta beharrezkoak izan daitezke, noiz eta non gertatzen den fenomenoa ikusteko; azkenik, beste hitzen bat ere sartzen da tartean, bokal sudurkariak jasotzeko asmotan.

### 5.2.2.5. Galdekizunetik kanpo gelditu dena

Helburua Euskal Atlaserako galdekizun baliagarria gertatzea denez gero, lokalismo batzu, interesgarriak badira ere, kanpoan utzi dira, hala nola Zubereraz gertatzen diren hots xistukari afrikari ahostun esporadiko batzuk, "edzamina", "edzemplu", eidzer"; edo leherkari ahostunak, "andderejer" edo, Zubererarekin jarraituz, sabaiko albokari bereziren bat,

"holli"... Gipuzkoa-ko Goiherri aldean ere -(G)-ren mugak ongi zehaztea ez da gauza erraza-, fonetika sintaktikoan (fonetika

sintaktikoa ala morfofonologia?) agertzen diren sabaiko sudurkari batzuk ere kanpoan utzi ditugu: "ñauk", "ñagok"...

Halere, derrigorrezkoa da esatea erizpide tinkoari jarraitu diogula. Arestian aipaturiko kasu bakanok, gure eritziz, dialektalismo oso lokalizatuak dira, eta estruktura barnean sartu ezin daitezkeenak; isolatu samar agertzen direnez, ez dute Atlas linguistikorako balio berezirik, hizkuntz maila osoan fenomeno denak baliotsuak izaten badira ere.

Bestalde, oinarrizko galdekizunean bikoteak bilatu genituen zalantzazko hots batzuren fonematasuna argitzeko edo, hau da, "bikote soilak" direlako horiek bilatzen saiatu ginen. Baina, errealitateak erakutsi digu hori ez dela posible atlas baten; sei euskalki nagusi jasoko duen atlasean, behinik behin. Bikotean gertatzen badira, gehien ere euskalki baten gertatzen dira, eta kasu aski bortxatuetan, baina ez bitan. Fonema konfliktiboez ari naiz, dudarik gabe, esaterako: t /t'; t'/d'...Holakoak ere alde batera utzi ditut, horien arazoa argitzea ez bait da atlasen egitekoa. Jakina, honekin fonetikaren ala fonologiaren eztabaida famatu horren aurrean gaude. Lehenengo, fonetika egitea beharrezkoa da, hotsak jasotzen bait dira, hots bakoitzaren analisi artikulatorio eta akustikoa eginez; gero, horretarako biderik izanen balitz, fonologiara ere pasa daiteke. Bestalde, bikoteen arazoa baztertu egin dugu, izan ere nahiko diskutigarria baita horien balioa hotsen arteko oposizio fonologikoa frogatzeko

Errealitateak erakutsi digunez, ezinezkoa da galdekizun fonetikoan sintagma luzeak batasunez jasotzea. Galdekizun lexikotan barietateak ez du gaitzik egiten eta hein batean aberasgarri ere gerta daiteke. Galdekizun fonetikoak, aldiz, lehen esan dugun bezala, batasuna ezin bestekoa du, elementu fonikoak aztertu eta erkatzeko. Sintagma luzeetan, berriz, aditzak, erakusleak eta hitzen ordena asko aldatzen dira, eta askotariko perpausak eta perpaus zatiak jasotzen dira, eta orduan, erantzunen balioa ezabatua edo, gutxienez, hagitz murriztua gelditzen da fonetika azterketarako. Horregatik, esaldi luze banaka batzu baino ez dira sartu: gutxi baina ziurrak.

Antzeratsu gertatu zaigu, inoiz edo behin, lexema soilekin ere, eta horrelakoren batzu kendu beharrean ikusi gara. Arrazoiak, besteren artean, honako hauek lirateke:

. Erantzunak desberdinak ematen dituztelako. "Ispilu" edo "zekor" jaso nahi arren, (L), (BN), "miraila",(Z) "miaila", (B), (G) "txekor", (L) "zokor", (GN),(BN) "aretxi", jasotzen dira. "Eguzki" hitzaren kasuan, Zubereraz "ékhia" erantzuten dute, halere hitz horri eutsi egin zaio interesgarri gertatzen delako sortzen dituen aldakiak direla eta.

. Hitzaren erreferenteak ez direlako errezak mamitzen, esaterako, "berdin" edo "etsai" edo "sendo" lortzeko, eta horrelakotan ere erantzunak ez dira parekagarriak suertatzen.

. Sinonimoak ere gehiegi badira, galdera ez da ona izan ohi: "gaztanbera" jaso nahi bada, (GN), (L) "gaztanbera" edo "gaztanbra" ala "kallatua" jasoko dira, baina (G) "mamia", (B) "gatzatua", (Z) "zúnbea"; "atera" jaso nahi bada, (G) eta (BN)-rako balio du, baina (B) "urten" eta (Z) "élkhi" eta "khéntü".

. Erantzun berdinegiak ere ez du asko laguntzen beti: "-garren" ("bosgarrena"), "e" bokalaren sinkopa ("bosgarna") aztertzeko ipini zen, baina Goi-Nafarreran izan ezik ez du probetxurik izan. Halere, beste kasu batzutan, erantzuna bera izan arren euskalki denetan, adibidea edo galdera gorde egin da fenomenoren batetarako ona zelako, hala nola "bai" hitzaren kasuan, diptongoa beti mantenitzen duelako.

. Nahi zen helburua betetzen ez dutelako: "arbi /erbi" bikotea, esaterako, "e" eta "a"-ren arteko oposizioa bilatzeko jarri zen, baina Bizkaieraz eta Zubereraz "nabua" esaten denez, bikoteak ez digu balio.

. Beste batzutan, galdekizuna luzeegia ez zedin gertatu fenomeno bat jasotzerakoan, lexema bakarrakin edo birekin, euskalki guztietan ongi bildua gelditzen bazen, nahiko zela erabaki genuen, alperrikako kasuak kanpoan utziz.

Esaterako, "gerri" kendu genuen "txerri" hitzak bere betekizunarekin kunplitzen duelako. Gainera, azken hitz honek badu, bokalismotik kanpo, kontsonantismoaren aldetik ere interesik, hitz hasierako xistukariaren, afrikari ala frikariaren ebakierarena, alegia.

. Beste kasuren batzutan lexema bera ezagutzen ez zutelako kendu behar izan dugu: "gaztelu"-ren kasuan, esaterako.

. Erreferente baterako erantzun bat baino geiago gertatu ohi dira balio semantikoa ez delako berdina izaten zenbait baldintzen arauera: "mendi"/ "baso"/ "oihan" eta besterik ere gerta daiteke hurbil / urrutitasunaren edo tamainoaren arauera.

. Bokalen armonia kanpo-sandhietan, edo / eta tinbrearen aldaketak jasotzeko, "gauza haundia", "andre ederra" eta horrelakoak jarri genituen. Baina, forma mugagabea jasotzeko gauza bera hainbeste aldiz aurkitzen genuenez, erredundanteegi gerta ez zedin horrelakoak kentzea erabaki genuen.

. Lehen, bidenabar, morfo(fo)nologia aipatu da, eta, beharbada, erabat bazterturik utzi dela pentsatzeko bidea eman da. Ez eta gutxiagorik ere. Fonetika sintaktikoko gertaera orokorrak batu dira, hala nola, mugagabea, mugatu singularra eta plurala, inesiboa, adlatiboa, erregela fonetiko ziur batzuk jarraitzen dituztelako eta euskalkietan distribuzio berezi bat dutelako. Aditzaren morfologiaz ere jaso dira zenbait kasu, euskalkitik euskalkira hots nabarmenen bat dela bide bereizten direnak, alegia. (Besteak galdekizun morfologikoan bilduko dira).

. Azkenik, ezaugarri suprasegmentalez zerbait esan nahi dugu. Galdekizunean zenbait galdera prestatu nituen azentua eta entonazioa jasotzeko. Baina, oraindik lan hau hastapenetan dagoela konturatu gara , eta atlasean ez lukeela toki egoki eta ziurrik. Hirureun galdera horietan azentua denetan agertuko zaigu eta ondoriorik ateratzeko biderik emango duela uste dugu. Edonola ere, azentua eta doinua apropos jasotzeko biderik onena, berriro

esan, ez dugu uste atlasa denik. Horregatik, hori atlasetik at uztea hobe izanen dela pentsatu dugu.

. Azkenik, zera esan behar da: galdekizun biak, bai aurrekoa eta bai behin-betikoa, tesiaren zuzendariaz gain, Koldo Mitxelena Jaunak ere ikusi zituela eta bere erizpide eta oharrak kontutan hartu nituela. Azentoari buruz harturiko erabakia oso ona iruditu zitzaion, haren ustez azentoaren balioa lexemetan bakar bakarrik jaso bait daiteke. Forma mugatuetan, gainera, "etxea" bezalako formetan, eta ez "hiru etxe" gisako hitz andanetan, hauetan azentua aldatu egiten delako inguruko hitzen eraginez. Hiztunen kontzientzia ere, hitza ematerakoan, forma mugatuan oinarritzen da, eta alderdi horretatik ere badu interesik. Hori dela eta, azentua jasotzekotan, forma mugatuetan, eta horietan bakarrik, jaso beharko litzateke.

### 5.3. Galdekizun fonetikoa (bigarren saioa)

Arrazoi horien ondorioz honako galdekizun hau gelditu zaigu:

1. ikusi
2. irin
3. ukitu
4. urritza
5. iltze
6. ihizi
7. bazkari
8. bazkaldu
9. gizone(r)i
10. etxe
11. etxera
12. herri
13. harri
14. txerri

138. jaiki / -gi
139. irabazi
140. zenbat diru?
141. sagarrak dira
142. edo
143. bizi da
144. oilanda
145. gurasoak
146. gurdi
147. gabe
148. aldare
149. hemengo
150. kolko
151. hilgo

15. bele
16. eguzki
17. kerats
18. izter
19. eguerdi
20. gauerdi
21. elkar
22. erdoi
23. behor
24. honetan
25. katea
26. arratoi
27. gazta
28. zahar
29. ahate
30. ahari
31. nabala
32. beso
33. mogitu
34. arotza
35. aho
36. hondar
37. ontzi
38. ontz
39. bortz
40. zoratu
41. denbora
42. goroldio
43. katu
44. katakume
45. putzu
46. garizuma
47. guti
48. huntz
49. gorputz
50. ardo
51. berant
152. ez dut
153. ez gara
154. ez banaiz
155. aita
156. ttipi
157. ttentte
158. loditu
159. ohe
160. ohetik
161. egin ditut
162. tu
163. -tto, -txo (amatxo)
164. hondo
165. hil da
166. ezin dut
167. txar
168. atzo
169. atso
170. oso
171. otso
172. txakur
173. txori
174. txotx
175. tximitxa
176. hotz
177. itxaso
178. martxo
179. itsu
180. autsiki
181. jauntzi
182. erantzi
183. intxaur
184. itsi - hertsi
185. beltza
186. bertso
187. sudurtzulo
188. haitzur

52. hauspo
53. gauza
54. gau
55. arraultza
56. ahul
57. euskara
58. euri
59. leun
60. egitai
61. naiz
62. Jainko
63. bezain
64. baino
65. bakoitz
66. zain (-a)
67. usain (-a)
68. artzain (-a)
69. aingeru
70. behi
71. eihar
72. eleiza
73. eleizara
74. hareitz
75. xaboi
76. arrazoi
77. goiz
78. goiza
79. oin
80. fruitu
81. asuin (-a)
82. suerte
83. kafia
84. aihen
85. leiho
86. oihal
87. eho
88. mahai
189. faltsu
190. feria
191. festa
192. afari
193. afaldu
194. nafarr(a), -tar
195. alfer
196. fiko
197. ferra
198. ifar
199. jakin
200. autsi
201. jo
202. jauna
203. jabe
204. jai
205. jende
206. (Ama) Birjina
207. ijitu
208. jikara
209. zait - jat
210. zaio - jako
211. sare
212. zare
213. zeru
214. zor
215. sorgin
216. zuri
217. aisa
218. esne
219. izan
220. zozpal
221. burtxintxa
222. esnatu
223. esan
224. merke
225. makila

89. zango
90. joan
91. hauek
92. hari
93. mahats
94. zahar
95. edan
96. jan
97. belarri
98. alaba (mugag.)
99. alaba (mugat. sing.)
100. alabak
101. dan / den
102. dala / dela
103. ke
104. kea
105. etxea
106. etxeak
107. etxean
108. deabru
109. herriak
110. herrira
111. herrian
112. herri bat
113. ogi
114. ogia
115. ogi bat
116. ikatz
117. bihar
118. bihotz
119. besoa
120. besoak
121. besoan
122. besora
123. zoaz
124. esku
125. eskua
226. makar
227. mospel
228. mezperak
229. hemen
230. atzamar
231. nahas
232. nabar
233. negal
234. nehor
235. enara
236. bedeinkatu
237. ukainka
238. egun
239. guraldi
240. ona
241. bana
242. nehon
243. keñu
244. burdiña
245. manteliña
246. luma
247. lahar
248. lasai
249. larru
250. bel(h)ar
251. el (h) ur
252. il(h)ar
253. zil(h)ar
254. il(h)argi
255. botila
256. oilar
257. iloba
258. bilatu
259. or(h)e
260. ura
261. er (h)aztun
262. perrexil

126. eskuak
127. eskura
128. eskuan
129. esku bat
130. bularra
131. barkatu
132. borru
133. ditare
134. (k)upel
135. (k)abia
136. (k)orapilo
137. (k)onddo
263. ateri
264. antzar
265. orio
266. ugalde
267. lupeko
268. aizkolari
269. hortik
270. horko
271. maitasuna
272. masustra
273. hartz
274. hertze

**Oharra**: 66, 67, 68, 81 galderak, bikoitzak dira. Hortaz, euskalki guztietan jaso behar den galdekizun nagusi honek, 278 hitz izango ditu.

**Eraskinak**

A - **Iparralde guztian jasotzeko**

A. 1. urthe
2. hurte
3. merkatu
4. merkhatu
5. oker
6. okher
7. lepho
8. sarthu
9. sorthu
10. agertu
11. ausartu
12. urkhatu
13. phika
14. mutu
15. mutatu
16. manhatu
17. senhar

B - **Zubereraz eta Behe-Nafarreraz jasotzeko**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| B. | 1. | ẽhẽ | 15. | ütsü |
| | 2. | ehe | 16. | txümür |
| | 3. | ãhãlke | 17. | urdazpi |
| | 4. | hũn | 18. | urdin |
| | 5. | hũ̃n | 19. | hürko |
| | 6. | nun | 20. | kürlo |
| | 7. | nũn | 21. | ürzo |
| | 8. | hurtze | 22. | bürdin |
| | 9. | hürtze | 23. | hũnki |
| | 10. | hur | 24. | ünkhü |
| | 11. | hür | 25. | üngüria |
| | 12. | phezu | 26. | urthuki |
| | 13. | phezü | 27. | ehüle |
| | 14. | gahũna | 28. | ehün |

## 5.4. GALDEKIZUN FONETIKOA (hirugarren saioa)

Galdekizuna gertatzerakoan orain arte eman diren urratsak zein izan diren ikusi dugu. Momentu honetan bigarrena lorturik dugu, euskalki guztietan jasotzekoa eta nahiko zehatza, gure ustez. Baina guk, gure xedeekin aurrera eginez, Nafarroa-ko hogei bat herritan bakarrik jaso behar dugu.

### 5.4.1. Prestaketaren azalpena

Kontutan harturik horretarako eman diren eritziak, galdekizuna berriro frogatu behar izaten da inkesta toki guztien ehuneko hamarrean, horrela galdekizuna frogatua eta behin-betirako finkatua gel dadin.

Gure kasuan, hogei bat herrik egiten dutenez eremu osoa, ehuneko hamarra bi herri dira. Hasieran hautatutako herrietatik honako hauek hautatu ditugu, oraindik aurre-inkesta den hau jasotzeko: Auza, Ultzama bailaran, eta Arraiotz, Baztango-an.

Bi herri hauen hautaketa, lehenengo inkesta Bortzirietako azpi-euskalkian, Bonaparte-ren sailkapenaren arauera, jaso zelako izan da batik-bat. Oraingoan, beste bi azpi-euskalki jaso nahi izan dugu: Ultzama-koa eta Baztan-goa, biak, zer esanik ez, Iparraldeko Goi-Nafarrerakoak.

Lekukoak honako hauek izan dira:
Francisco AIZPURUA DESCARGA. 64 urte, Auza-koa, Ultzama bailarakoa eta Ultzama-ko azpi-euskalkikoa. Eta
Juan AGERREBERE BERTIZ. 77 urte. Arraiotz-koa, Baztan bailarakoa eta Baztango azpi-euskalkikoa.
Inkestak 1984. urteko urtarrilan egin izan ziren.

Ultzama-ko lekukoari buruz esan nahi nuke, lexiko mailan gaztelaniaren eragin bortitza sumatu dudala: "sabaionak", "morak", "perak". Lekukoak argitzen zuen, berak ezagutu edo gorde arren hitz bat, esaterako: "igertua", "flore igertuek", jendeak galdua zuela. Hau euskararen egoeraren adibide bat besterik ez da.

Inkestak egin eta traskribatu ondoren, erkatu egin genituen eta galdekizuna aldatu puntu banaka batzutan, gutxitan. Aldatu ditudan puntuak azaldu aurretik, esan nahi nuke berriro ere, galdekizunaren helburu nagusia edo azkena euskalki guztietan jasogai izatea dela, eta horregatik hitzen batzu mantenitu egiten ditugula, Nafarroa-n edo Goi-Nafarreraz ez jasotzeko arriskurik baldin bada ere.

Zergatik? Uste dudalako hitz bat ez ezagutzeak edo esperoko litzatekeen maneraz ez esateak esanahi bat duela, sinale bat dela, hizkuntzalaritza mailan; eta Geografia linguistikoan ezberdintasun horiek dira,hain zuzen ere, erabili nahiz ez erabili, interesgarrienetakoak. (Aurreko galdekizuna, bigarrena, alegia, gertatu dugunean, puntu honetan zorrotzak izan gara, kasu hartan bene-

tako garrantzia zuelako batasuna lortzeak eta oraingoan ez zegoen horren beharrik).

Adibide batzurekin azalduko dugu hau. Esaterako "berant" hitza azken posizioan doan "u" bokalaren galera jasotzeko ipini zen, eta horrela jaso genuen Iparraldeko euskalkietan; Hegoadekoetan, berriz, "berandu". Baina, eratorrietan "berantetsi", "berantsi" Nafarroa-n. Honekin agertzen da "berant" Hegoaldean ere argigarri dela fenomenoaren isoglosa ezartzeko.

Leherkarietan albokarien ondoko leherkaria ahostun / ahoskabe egiten den ikusteko, besteren artean, "hilgo" ipini zen. Iparraldeko euskalkietan "hilen" jaso genuen, eta bai orain Auza-n eta Arraiotz-en ere. Halaz ere, "hilgo"-ri eutsi egiten diogu Goi-Nafarrerako beste toki batzutarako eta Gipuzkera eta Bizkaierarako balio duelako.

Gauza bera "txotxa" hitzarekin, Ultzama-n "sistrikek" eman badute ere; eta "enara", Arraiotz-en "azpixuri" jaso arren.

Berdin "emanen" hitzarekin, "emango" ibiltzen bait da zenbait tokitan baina sudurkarien disimilazioa ikusteko utzi da.

"Gurdi" hitzarekin "g- / b-"-ren arteko alternantzia ikus daiteke, "guraso"-rekin batera. Ez da toki guztietan erabiltzen, Iparraldean "orga", 'carro', adierazteko eta "gurdi", berriz, 'l'oreiller' bur-(u)di, kontrako prozesoa adierazten duelarik. Iparraldeko Goi-Nafarreraz: Baztan eta Ultzama-n: "karru",... Bestalde, "gurdi"-ren parean "gurdibide", "gurlanga", 'palos del carro' eta horrelakoak gelditu direnez jaso daitezke.

Kontutan hartu behar da fenomeno bakoitzerako hiruzpalau hitz daudela kasu gehienetan, ez gehiago, goian esan dugunagatik; horregatik, hitz bat edo beste tokiren baten ez azaltzea ez da izango kaltegarri, beste toki askotarako oso egokia bada.

Hitz batzu kendu egin ditugu: "oina", "zangoa" eta "hanka"ren artean bereizteko zail eta gogaikarri gertatzen delako.

Auza-koak, bestalde, ez zuen "oina" erabiltzen eta Arraiotz-koak ere gutxi. "Lukainka" ere kendu egin dugu, ez bait da erabiltzen. Eta gutxi gehiago.

Aldaketak ere egin dira: "usain"en tokian "ezpain" sartu dugu, esaterako, haren helburua honek ere berdin erdiesten duelako, eta "usain"-en ordez, berriz, "urriñe" jasotzen delako.

Hitz berriren bat ere sartu dugu, fenomenoren bat osatzeko edo hobeki osatzeko edo isoglosak finkatzeko, beti euskalki denak kontutan harturik, jakina.

Adibidez: lehenengo galdekizunetik [d'] hotsarekin ahoska zitekeen hitzen bat kendu genuen bigarrenean: "deus", "dastatu", "i(d)uki", ez genuelako espero genuena jaso eta geografikoki hedadura aski mugatua dutelako. Aldiz, hirugarren honetan "nor (h)aiz?" sartu dugu, arruntagoa eta ezagunagoa delako.

Xistukari frikarien disimilazioagatik gertatzen den galera ikusteko, bi hitz genituen: "zozpal" eta "burtxintx". Baina azken honek aldaki asko ditu: "katagorri" eta horrelakoak ere barrenean gertatzen direlarik. Erabaki genuen, bada, horren ordez "azkazal" hitza sartzea eragozpen gutxiago sortuko duelakotan.

Labur esanez, denetara, hamasei hitz berri sartu eta hamar kanpoan utzi genituen azken galdekizun honetan.

Galdekizuna, aldaketa hauekin, ia 300 hitzetakoa da, eta horri erantsi behar zaizkio lparralderako aparte jaso behar diren "ü" bokala, bokal sudurkariak, aspiraketa eta leherkari aspiratuak biltzeko. Hortaz, hirueunetik pasatzen da. Baina kontutan hartu behar da galderen kopurua dexente gehitzen dela, forma asko mugatuan eta mugagabean hartu behar direlako.

## 6. KANPO LANAREN AURKEZPENA

Lanaren helburuetariko bat eta nagusia galdekizun fonetikoa gertatzea zen, baina ez zen hori bakarrik bilatzen. Galdekizun hori probatu eta toki batzutan jaso ondoren, hurrengo pausu batetan datu horiek kartografiatzea ere helburuen artean zegoen. Azken finean, bilatzen zena zera zen, metodologia bat erakutsi eta bideak ireki. Eta toki batzutan egin dugu, ez bait du honelako lana pertsona batek bakarrik Euskal Herri osoan egiterik, epe finko batean behintzat. Horregatik lana mugatu beharrean aurkitu ginen.

Tokiari dagokionez, ni neu nafarra naizenez eta hango azpieuskalki eta aldakiak hobekien nireganatzen ditudanez, inkestak han jasotzea erabaki nuen. Hala eta guztiz ere, toki batzuk aukeratu behar ziren. Horretarako, Nafarroa-n euskaraz egiten den herriekin plangintza oso bat egin ondoren, zein herritan jaso beharko liratekeen inkestak hautatu eta gure lana non kokatu erabaki nituen.

Beste lurraldeetarako ez nuen horrelako azterketarik egin. Izan ere, Iparralderako eginik zegoen sailkapenak balio zuela iduritzen zitzaigun (1); Hegoalderako Yrizar-ek 1955-ean proposamena egin zuen (2). Geroztik, Euskaltzaindiko Dialektologia Batzordeak proposamen bat egin zuen. Garai hartan 175 tokitan egitea proposatu zen, distribuzio honekin: 51 toki Iparraldean; Bizkaia-n, Gipuzkoa-n eta Nafarroa-n 40 toki bakoitzean eta 4 / 5 Araba-n (3). Nolanahi ere, Euskaltzaindiak hautatuak ditu dagoeneko tokiak, eta inkesta linguistikoen lana aurrera darama.

### 6.1. Nafarroa-n euskaraz egiten den herrien zerrenda (4)

#### 6.1.1. Lanaren metodologia

Herrien zerrenda egiteko Bonaparte-ren laugarren sailkape-

na darabilgu, eta horretara arrazoi metodologiko batek bultzatu gaitu. Ez du horrek Bonaparte-ren erizpideekin guztiz bat gatozenik esan nahi: hain zuzen ere, euskararen atlasa egiteko beharra, nolabait XIX. mendeko erizpideetatik alde egin beharretik dator.

Ez dago ahazterik, halere, Bonaparte-ren sailkapenarekin mugitzen garela egun ere, oinarri-oinarrian behinik behin, eta euskararen egoera linguistikoa bera ere ez dela hainbeste aldatu. Horregatik ongi deritzat Bonaparte-ren sailkapena -azpi-euskalki eta aldakiz- hartzeari, horrela, metodologia mailan, komenigarri daitezkeen puntuak edo inkesta tokiak hautatzea errazago gertatuko delako.

Bonaparte-ren sailkapeneko azpi-euskalki eta aldakien izenek, adierazten dituzten baino lurralde haundiagoak hartzen dituztenez gero, azaldu beharreko zen, zehaztuz, zein eskualde edo haran hartzen dituzten. Hona, beraz, Bonaparte-ren sailkapenetik, euskalkien arauera euskaraz egiten den Nafarroa-ko herrien zerrenda, haranez-haran, eta lurraldearen hedadura eta biztanlegoa emanez (5):

| Euskalkia - Azpi-euskalkia - Aldakia | | Harana | Biztanlegoa |
|---|---|---|---|
| II- (G) 6. Nafarroakoa - Burunda: | Ziordi | | |
| | Altsasu | | |
| | Bakaiku | | |
| | Iturmendi | | |
| | Olazti | | |
| | Urdiain | | 13.949 |
| | Lizarraga | | |
| | Dorrau | Ergoiena | |
| | Unanu | | |
| | Etxarri-Aranatz: | Etxarri-Aranatz | |
| III - Ip(GN) 7. Ultzamakoa - Lizaso: | Eltzaburu | | |
| | Ilarregi | | |
| | Juarbe | | |

| | | |
|---|---|---|
| Auza | | |
| Larraintzar | | |
| Lizaso | Ultzama | 1.609 |
| Gerendiain | | |
| Urrizola | | |
| Elso | | |
| Zenoz | | |
| Iraizoz | | |
| Alkoz | | |
| Arraiz | | |
| Arraras | | |
| Beruete | | |
| Igoa | | |
| Orokieta | | |
| Jaunsaras | | |
| Itxaso | Basaburua | 907 |
| Garzaron | Haundia | |
| Erbiti | | |
| Iaben | | |
| Beramendi | | |
| Udabe | | |
| Burutain | | |
| Esain | | |
| Etulain | | |
| Leazkue | Anue | 521 |
| Egozkue | | |
| Olague | | |
| Arizu | | |
| Lanz | | 153 |
| Urriza | | |
| Latasa | | |
| Goldaratz | | |
| Eraso | Imotz | 498 |
| Zarranz | | |
| Etxaleku | | |
| Oskoz | | |
| Muzkiz | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Beunza | | |
| | Berasain | | |
| | Erize | Atez | 243 |
| | Arostegi | | |
| | Eguaras | | |
| | Ziganda | | |
| | Denera: | | 3.931 |
| 8. Baztangoa - Elizondo: | Almandoz | | |
| | Berroeta | | |
| | Aniz | Hegoaldea | |
| | Ziga | | |
| | Arraiotz | | |
| | Lekarotz | | |
| | Irurita | | |
| | Garzain | Erdia | |
| | Elizondo | | |
| | Elbetea | | 8.545 |
| | Azpilikueta | | |
| | Arizkun | | |
| | Errazu | Ipar. | |
| | Amaiur hiribildua | | |
| 9. Bortzirietakoa - Bera: | Oronotz-Mugaire | Baztan | |
| | Bera | | |
| | Etxalar | | |
| | Igantzi | Bortzirieta | 8.379 |
| | Lesaka | | |
| | Arantza | | |
| | Oieregi | | |
| | Narbarte | Bertizarana | |
| | Legasa | | |
| | Donamaria | | |
| | Elgorriaga | | |
| | Ituren | | |
| | Oiz | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Lerin-go | |
| | Doneztebe | Doneztebe | 4.046 |
| | Sunbilla | (Gaur desagertua) | |
| | Urroz | | |
| | Zubieta | | |
| | Erasun | | |
| | Saldias | Basaburua | |
| | Ezkurra | Txikia | 1.578 |
| | Labaien | (Gaur desagertua) | |
| 10 Araizkoa - Intza: | Arribas | | |
| | Atallo | | |
| | Gainza | Araiz | 893 |
| | Inza | | |
| | Azkarate | | |
| | Uztegi | | |
| | Betelu | | 359 |
| | Leiza | | |
| | Areso | Leizaran | 3.472 |
| | Gorriti | | |
| | Huitzi | | |
| | Azpiroz | | |
| | Albiasu | Larraun | 950 |
| | Errazkin | | |
| | Baraibar | | |
| | Denera: | | 5.674 |
| 11 Arakilgoa - Huarte- | Arbizu | | |
| | Arakil | Lakuntza | |
| | Arruatzu | Sakana | 2.982 |
| | Irañeta | | |
| | Huarte-Arakil | | |
| | Etxarri | | |
| | Aldaz | | |
| | Lekunberri | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Mugiro | Larraun | 1.186 |
| | Iribas | | |
| | Alli | | |
| | Arruiz | | |
| | Astiz | | |
| | Oderiz | | |
| | Madoz | | |
| 12 Gipuzkoakoa - Irun: | Goizueta | Urumea | 1.479 |
| | Arano | | |
| IV - Heg (GN) | | | |
| 13 Ekialdekoa-Erroibar: | Zilbeti | | |
| | Aurizperri | | |
| | Bizkarret | | |
| | Mezkiritz | | |
| | Erro | | |
| | Linzoain | Erroibar | 1.031 |
| | Esnoz | | |
| | Olondriz | | |
| | Loizu | | |
| | Ainzin | | |
| | Ardaitz | | |
| | Iragi | | |
| | Usetxi | | |
| | Leranoz | | |
| | Eugi | | |
| | Urtasun | | |
| | Agorreta | Esteribar | |
| | Zubiri | | |
| | Osteriz | | |
| | Ilarraz | | |
| | Inbuluzketa | | |
| | Auritz | | 345 |
| Artzibar: | Lusarreta | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Arrieta | | |
| | Saragueta | Artzibar | 247 |
| | Imizkoz | | |
| | Espoz | | |
| | Gorraiz | | |
| | Lakalle | | |
| Olaibar: | Zandio | | |
| | Osakain | | |
| | Anoz | | |
| | Latasa | | |
| | Uriz | Olaibar | 153 |
| | Iabar | | |
| | Aginaga | | |
| | Ollakarizketa | | |
| | Beorburu | | |
| | Gelbenzu | | |
| | Gendulain | | |
| | Ripa | Odieta | 315 |
| | Gascue | | |
| | Ziaurritz | | |
| | Anotzibar | | |

## Oharra

Heg (GN) euskalkitik Ekialdeko azpieuskalkia sartu dugu zerrenda honetan, alabaina, euskaldunak direnik ezin daiteke esan. Oso testimoniala gertatzen da euskararen presentzia bailara gehienetan, batzutan batere gelditzen ez delarik. Horrela, Artzibar eta Odieta haranetan euskara erabat galdurik dago eta Olaibar-en zaharren batzuk besterik ez dira gelditzen, eta horiek ez dira euskaraz elkarrizketa bat mantenitzeko adina. Esteribar-en gelditzen zaizkigu benetako herri euskaldunak eta Erroibar-en zer edo zer agertzen da, esaterako Mezkiritz-en, baina ez besterik.

Badira beste bi bailara sailkapen hauetan agertu ez direnak eta euskaldunak, edo nahiko euskaldun direnak: Aezkoa eta Zaraitzu. Lehenengoa, eta beti Bonaparte-ren sailkapenarekin jarraituz, Mendebaldeko Behe-Nafarreran eta bestea, berriz, Ekialdeko Behe-Nafarreran kokatzen direlarik euskalkien

aldetik. Horiek ere kontutan hartu behar dira tokien hautaketa egiterakoan. Urdazubi eta Zugarramurdi udalerriak ere kanpoan gelditzen dira, Lapurtera euskalkiaren barruan kokatuak daudelako.

### 6.1.2. Inkesta tokien proposamena. Arrazoiak.

Nafarroa-rako egin dugun antolaketan lehen aipaturiko banaketari jarraitu diogu, hau da, Euskaltzaindiak proposaturiko 175 tokitakoari. Kopuru hori egokia iduritzen zaigu kontutan hartzen baldin badugu inguruetako atlasak ere horrelako kopuruez mugitzen direla:

ALEANR: 135 toki
ALEG: 163
ALEA: 230
ALEICAN: 51
ALPI: 528

Euskal Herri osorako gure proposamena 176 tokikoa litzateke, Nafarroa-ri leku bat gehitzen zaiolarik.

Beste atlasekin erkatuz, ikusten den bezala, tokien aldetik, berdintsu jokatzen da. ALEA-k gehiago hartzen ditu, baina lurraldea ere haundiagoa du. ALPI Penintsula guztirako pentsatua zegoen, eta gainera, ordutik gerra aurretik bildu zen materiala-, dialektologiaren erizpide eta helburuak ere aldatu egin dira.

Lurraldearen hedadura eta biztanlegoaren arauera, eta 41 puntu proposatzen ditudala Nafarroa-rako kontutan hartuz, batezebestekoa hauxe litzateke: puntu bat 1.459 biztanleko eta 6.574 ha. do 65'74 km$^2$-tarako.

Zabaltzen den sareak nahiko hertsia, trinkoa eta egokia dirudi ALPI-rekin erkatzen badugu, adibide baterako. ALPI-k honako kopuruok aurkezten dizkigu: toki bat 1.115 km$^2$-tarako eta 67.819 biztanleetarako. (ALPI hartu dugu erkatzeko, bera bait da, azaldu ditudan atlasetatik, toki gehien dituena).

Bestalde, hartaratu behar gara, Nafarroako eremua askoz txikiagoa dela eta hiribururik ez dela sartzen. Honekin biztanlegoa ere asko murrizten da.

Tokiak aukeratzeko dialektologian jarraitzen diren erizpideak izan ditugu aurrean:

a) Euskara galduta dagoen tokitik at, badira beste toki batzu, goian aipatutakoak, euskara erdi hilik dutenak. Adineko pertsonengan gordetzen da, baina horiek ere gaizki eusten diote, eta komunikazioan gaztelera erabiltzen dute beti. Jaso dudan esperientziak zera erakutsi dit: atlas bateko lekukoak izateko ere ez direla gai. Horregatik, toki horiek gaitzetsi egin ditut: Artzibar, Olaibar..., Hegoaldeko Goi-Nafarreran, jakina.

b) Herri haundiak edo haundixkoak ere, erdaldunak edo gaztelera erabat sartua dutenak -Lekunberri, Irurtzun, Elizondo...-, kanpoan utzi ditugu. Ogibide bezala baserrilana, nagusiki, duten herriak nahiago izan ditugu, horietan euskara hobeki gordetzen delako.

Era berean, badira toki batzu, gaztelera oso sartua duten arren, hartu beharrezko direnak, euskara berezia dutelako eta -larregi ez bada ere- oraindik bizirik irauten duelako. Aezkoa eta Zaraitzu bailaraz ari gara. Horietan, euskara biziago duen tokia aukeratu dugu: Iriberri, esaterako, hobe dela uste dugu, Abaurrea baino.

c) Euskal dialektologia mailan tradizio esanguratsua duten tokiak ere jaso dira. Tradizioarekin hauxe adierazi nahi da: herri horretako hizkerak aldaki bat ongi agertzen duela edo maiz ekarri izan dela on eta garbia bezala. Esaterako: Oskoz edo Goizueta.

d) Errepidetik aldentzen diren herriak eta gune geografiko-komertzialak -merkatuekin eta abar- ez direnak nahiago izan ditugu. Hauetan ere euskara hobeki eta kutsadura gutxiagorekin gorde izan delako, edo horrela esan ohi delako.

e) Kasu batzutan, herri bateko hizkera ez da herri hori kokatzen den haranekoa, ezberdina baizik. Horiek ere hartu izan ditut: Oronotz-Mugaire, Sunbilla... Era berean, haran batek bi hizkera modu baditu, bakoitzetik toki bat hartu dut. Esate baterako, Ultzama-ko azpi-euskalkian, Basaburua Haundia-n, Arraras eta Beramendi.

f) Azkenik, hautatu ditudan tokiak ez dute betikotasuna bilatu. Behin-behingoak dira, eta esperientziak, aurre-inkestak edo errealitate linguistikoak berak besterik eskatuko balu alda daitezkeenak.

**Inkesta tokien PROPOSAMENA**

| EUSKALKIA | AZPI-EUSKALKIA | ALDAKIA | HARANA | TOKIA |
|---|---|---|---|---|
| II (G) | 6 Nafarroakoa | Burunda | = | 1 Unanua |
| | | | | 2 Urdiain |
| | | Etxarri-Aranatz | = | 3 Etxarri-Aranatz |
| III Ip (GN) | 7 Ultzamakoa | Lizaso | Ultzama | 4 Auza |
| | | | | 5 Larrainzar |
| | | | Basabur. H. | 6 Arraras |
| | | | | 7 Beramendi |
| | | | Anue | 8 Leazkue |
| | | | Imotz | 9 Goldaratz |
| | | | Atez | 10 Beunza |
| | 8 Baztangoa | Elizondo | Baztan | 11 Aniz |
| | | | | 12 Arraiotz |
| | | | | 13 Gartzain |
| | | | | 14 Amaiur |
| | 9 Bortzirietakoa | Bera | Baztan | 15 Oronotz-Mugaire |
| | | | Bortzir. | 16 Etxalar |
| | | | | 17 Arantza |
| | | | Bertizar. | 18 Oieregi |
| | | | Leringo | 19 Donamaria |
| | | | Doneztebe | 20 Sunbilla |
| | | | | 21 Ituren |
| | | | Basabur.Tx. | 22 Erasun |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 10 Araizkoa | Araiz | = | 23 Arribas |
| | | | | 24 Gainza |
| | | | Betelu | 25 Betelu |
| | | | Leizaran | 26 Leiza |
| | | | Larraun | 27 Gorriti |
| | | | | 28 Errazkin |
| | 11 Arakilgoa | Huart. Arak. | Sakana | 29 Irañeta |
| | | | | 30 Arbizu |
| | | | Larraun | 31 Aldaz |
| | | | | 32 Astiz |
| | 12 Gipuzkoakoa | Irun | Urumea | 33 Goizueta |
| IV Heg(GN) | 13 Ekialdekoa | Erroibar | Erroibar | 34 Mezkiritz |
| | | | Esteribar | 35 Iragi |
| | | | Odieta | 36 Anozibar |
| V (L) | 16 Bertakoa | - | - | 37 Zugarramurdi |
| VII Ek(BN) | 22 Zaraitzukoa | Zaraitzu | Zaraitzu | 38 Esparza |
| VIII Mend(BN) | 23 Baigorrikoa | Baigorri | = | 39 Luzaide |
| | 25 Aezkera | Aezkoa | Aezkoa | 40 Aria |
| | | | | 41 Iriberri |

(Oharra: Inkestak egiteko tokien proposamena eta horrek euskalkien sailkapenarekin duen zerikusia hobeki ager daitezen, ikus atzean datozen mapak (6).)


### 6.1.3. Lan honetarako hautatu diren tokiak

Goian esan den bezala, Nafarroa-ko zenbait leku hartu nahi genituen galdekizuna probatzeko eta atlasgintzaren metodologia zabaltzeko. Tokiak hautatzerakoan, bada, mugatu beharra garbi




YRIZAR (1981)-tik hartua.

YRIZAR (1981)- tik hartua.




Mapa 16.—Dialectos suletino, bajo-navarro oriental y bajo-navarro occidental. Límites de subdialectos y variedades, con indicación del número de vascófonos correspondientes a cada una de éstas, en 1970-72.

YRIRAZ (1981)- tik hartua.




Mapa 14.—Dialecto guipuzcoano. Límite de subdialectos y variedades, con indicación del número de vascófonos correspondientes a cada una de éstas en 1970-72.

YRIRAZ (1981)- tik hartua.

ikusi genuen. Hogei bat herrirena kopuru egokia iduritu zitzaigun gure xedeak betetzeko. Bestalde, aldakien eta azpi-euskalkien aldetik barietate bat baino gehiago bilatzea mesedegarria gerta zitekeela uste genuen, datuak erkatzerakoan ondorio aberatsagoak eta interesgarriagoak jasotzeko. Horregatik, bi euskalki hartu ditugu, bata, eta nagusia, Iparraldeko Goi-Nafarrera, eta Lapurtera, bestea. Lehenengo euskalkiaren lau azpi-euskalki jasotzen dira eta bat Lapurterarena, eskema honen arauera:

| Euskalkia | Azpi-euskalkia | Aldakia | Harana | Tokia |
|---|---|---|---|---|
| III Ip(GN) | 7 Ultzamakoa | Lizaso | Ultzama | Auza |
| | | | | Larrainzar |
| | | | Basbur. H. | Arraras |
| | | | | Beramendi |
| | | | Imotz | Goldaratz |
| | | | Atez | Beunza |
| | 8 Baztangoa | Elizondo | Baztan | Aniz |
| | | | | Amaiur |
| | | | | Gartzain |
| | | | | Arraiotz |
| | 9 Bortzir. | Bera | Baztan | Oronotz-Mugaire |
| | | | Bortzir. | Arantza |
| | | | | Etxalar |
| | | | Bertizar. | Oieregi |
| | | | Leringo | Donamaria |
| | | | Doneztebe | Sunbilla |
| | | | | Ituren |
| | | | Basabur. Tx. | Erasun |
| | 11 Arakilgoa | Huarte Arak. | Larraun | Aldatz |
| V (L) | 16 Bertakoa | - | - | Zugarramurdi |

(Ikus: 6. 5. 2. atalean ezartzen diren mapak)

### 6.1.4. Ikertutako eskualdearen deskribapen geografikoa

Nafarroa morfologia eta klimazko alde haundiak dituen lurraldea da, eta bi alderdi edo eskualdetan zatitzen da: bata hezea eta bestea idorra. Zatiketa hau Pirinio-en eta Ebro Arroaren artean kokatua aurkitzearen ondorioa da. Banaketa honek baditu bere ohizko izenak, eskualde hezea "Mendia" da (La Montaña) eta bestea "Erribera" (La Ribera), eta bien artean "Nafarroa Erdialdekoa" dago (La Navarra Media) dago. Azken hau beste bien artean gertatzen den iragan-gunea da. "Mendia" bera ere, geografiaren aldetik, ez da dena bat, hiru eskualde desberdin bereizi daitezkeelarik: Pirinio zeharkako ibarrak; Ipar-Mendebal hezea eta Piriniotako ibarrak.

Guk ikertu dugun eskualdea Ipar-Mendebal hezea da (7). Nafarroa-k dituen 10.421 km²-tatik, Ipar-Mendebal-eko Nafarroa hezeak 2023'20 km² hartzen ditu, hots, Nafarroa osoaren % 16'4. Demarkazio honek bailara hauek hartzen ditu: Burunda, Sakana, Ergoiena, Larraun, Basaburua Haundia, Ultzama, Anue, Imotz, Atez, Odieta, Baztan, Bertizarana, Leizaran, Urumea, Bortzirieta, Araxes, Lerin-go Doneztebe eta Basaburua Txikia (8).

Esan bezala, Ipar-Mendebal hezean kokatzen dira ikertu ditugun tokiak. Lehen eman dugu zerrenda -ikus 6.1.3.-, bakoitza bere bailaran ezarriz.

Nafarroa hezearen mugak historikoak eta betitik onartuak dira eta gai honen inguruan ibili diren autore denek ere horrela onartu izan dituztenak (9). Lerro mugikor samar bat ikusten da muga bezala Europa-rekin Iparraldetik, lerro horren barnean Bortuz Bertzaldeko Merindadea ere sartuko litzatekeelarik. Merindade horrekin ezartzen diren mugak administraritzakoak dira, noski, egitura fisiko eta linguistikoaren eta kultur ezaugarrien aldetik idekotasuna osoa izan delako orohar eta betitik, aspaldiko Estrabon eta Ptolomeo geografo greziarrek ere beren garaian agertu zutenez.

Eleiz-ikuspuntutik, XVI. mendeko erdialderarte, guk aztertu

ditugun eskualde horretako tokirik gehientsuenak Baiona-ko Eliz-Barrutikoak ziren (10). Honela izan zen aurreko lau mende luzeetan, 1566-ko apirilaren 30-eko Bularen bitartez Iruñe-ko Eliz-Barrutira pasa ziren arte (11). Nafarroa hezeko eskualdeak ozeano eragineko klima biguna du; Nafarroa-ko lurralderik euritsuena da, Imotz eta Atez-eko bailaretatik hasita, 800 mm-tako euriekin, asko gehitzen dira Iparralderuntz, 1.500 mm-ak gainditzeraino, Bortzirieta Euskal Herriko tokirik euritsuena delarik. Klimaren eragina funtsezkoa da, ezinbertzez, landaretzan eta bizitza moduan, egitura ekonomiko bereziak sortuz, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Uren isuria ez da bera bailara denetan. Isuri Kantabrikoa (12) Bortzirieta, Doneztebe, Bertizarana, Baztan eta Basaburua Txikia bailarek dute. Bortzirieta-ko mazizoak garrantzi haundia du, Bidasoa ibaiaren ibilbidea bideratzen bait du Baztan-go eta Doneztebe-ko bailaretan zehar, Ekialde-Mendebalde norabidea Hegoalde-Iparralde norabidera aldatuz. Mazizo horrek gainera "hace de nudo de dispersión de aguas puesto que en él tienen su nacimiento los ríos Urumea y Leizarán. Por último, sirve de vertiente al río Ezcurra -tributario del Bidasoa- que corre al pie de este mazizo y entre él y las montañas de la divisoria." TORRES LUNA (1971,13)

Urak Mediterraneo-ra isurtzen dituzte, Ebro hibaiaren bitartez, Larraun, Basaburua Haundia, Imotz, Atez eta Ultzama-ko bailarek.

Kanpoan gelditzen da Zugarramurdi, Olabidea errekastoak Sarrakaria (Nivelle) hibaira eramaten bait ditu urak Sara-ko lautadan zehar.

Bailara hauetan hagitz ugariak dira pagoak eta haritzak eta honek oihan-hustiapena sortu du, baina ez oso haundia.

Nekazaritza mendikoa eta abeltzantzan oinarritzen dena da. Azpimarratzekoa da abeltzantzarako belagiei eskeintzen zaizkien eremu zabalak, batez ere behi-abereentzat direnak; hori Euskal

Herrian oso usatua den askotariko lurgintzarekin -artoa, mailarrak, arbia,...- batera doa.

Nafarroa osoan eskualde hau da gutxien landua, GAVIRIA (1978,123), landutako lurrak ibar barrenekoak eta higaduraz sorturiko batzu baizik ez bait dira.

Nekazariak lurgintzarako izan duen jokabidea edo erizpidea norberaren mantenuarena izan da, bizitzeko beharrezko duena ekoiztera begiratuz, lurraren erabilera eta hustiaketa gehiegizkoa izateraino iritsi delarik.

Gainerako beharrak abeltzantzak bete ditu: usatuenak behiak, ardiak eta txerriak izan dira.

Nekarazarien jokabide autarkiko hori aldatuz doa azkenaldiko hamarkadetan, ohizko lurgintza baztertu eta bazka eta larretarako erabiliz lurrik gehienak; gure ikerketako bailaretan lur landuetatik % 90 belagi eta larretarakoak dira, ZENBAITEK (1980,144).

Honek berez ekarri du hustiapen egituren aldaketa eta hazkuntza tekniken modernizatzea, makineria sartuz.

Eskualde hau "Baserrien Nafarroa" bezala ere hartua izan da, eta bi populamendu motatan sakabanatua dager:

> *"La casa aislada en medio de prados, campos, bosques y matorrales, y el pequeño grupo de casas cercanas entre sí." FLORISTAN (1986,94)*

Baserriaren inguruan kokatu eta banatu ohi ziren lurrak eta hazkuntzak, baserriko premien eta eginbeharren arauera. Etxebizitzatik hurbileneko lurretan baratzeak ezartzen ziren; gero zetozen alor landuak eta, azkenik, urrutiago, belagiak.

Ohizko egituraketa hau desegokia bihurtu da egungo bizimoduarekin. Bizimodu hiritar-industrialak eta esnearen eta behiharagiaren eskaritza haundikorrak, hirien haunditzea dela eta bati-

pat, aldaketak ekarri dituzte ekoizpenean eta hazkuntzan (13). Dena dela, hirien haunditzea herrien bizkarretik eta herrien kaltetan gertatu da, hauen biztanlegoa aunitz urritu delarik.

Biztanlegoaren murrizketa azken mende osokoa da. Lehenbizi emigrazio haundia izan delako Europa-ra eta, batez ere, Amerika-ra; azken urteotan, berriz, hiriburura. Halere, gure eskualdeko hirigune nagusienetan industrigintza gehitu denez gero, biztanlegoa ere haunditu egin da apur bat, hala nola Leitza-n, Doneztebe-n, Lesaka-n eta abar.

Nolanahi ere, egoera zinez da kezkagarria, aztertu ditugun bailaretan biztanlegoa erdira murriztua gelditu bait da 1960-1981 urteen epean.

Arazoa, bestalde, makurtu egiten da zahartzaroaren indizea kontutan hartzen bada, biztanlegoaren % 15-16-ra iristen delako batez-beste, eta bailara batzutan % 25-era.

Imotz, Basaburua Haundia, Atez eta Ultzama-ko bailarei buruz LOPEZ ASENSIO-k (1987,24) zera dio:

> *"El riesgo de despoblamiento es por tanto real, ya que de continuar la actual situación puede alcanzarse un despoblamiento generalizado en un plazo medio de 15 a 20 años, con la consiguiente muerte social del territorio."*

Gure lanari dagokionez, bestalde, interesgarriak dira bailara hauetako jendeek egun sinalatuetan dituzten sal-erosketa tokiak. Feria eta merkatu egunez ari gara, noski. Feriak urtean behin edo birritan baizik ez dira izaten eta aski berariak izan ohi dira, nahiz salmenten haundiagatik, nahiz eskeintzen diren salgaiakatik, laborantzako tresneria eta makineria ere izaten delarik. Merkatuak, aldiz, asterokoak edo hilerokoak izan ohi dira, eta hauetan baserrietako ekoizpenak eskeintzen dira. Merkatuetara inguru hurbileko jendeak joaten dira; ferietara, berriz, eskualdetik eta lurralde osotik ere joan ohi dira.

Merkatu toki ezagunak dira Lesaka eta Doneztebe hamabostero; eta Elizondo eta Irurtzun astero. Lurraldetik at ere badira eskualde hauetako jendeentzat erakarri haundiko beste merkatu batzu:

> *"El primer escape extraprovincial lo dan al norte los pueblos de la que podríamos llamar Navarra cantábrica: Irún, San Sebastián, Hernani y Tolosa recogen la actividad de los vecinos lugares de Navarra" CASAS TORRES - ABASCAL GARAYOA (1948,27).*

Gipuzkoa-ko toki hauek inoiz ferien maila ere lortzen dute, esaterako Tolosa-koak, eta aztertzen ari garen Nafarroa-ko bailara eta herrietako jende ugari erakartzen dute eta beste tokiek baino gehiago.

Nafarroa-koei dagokienez, Irurtzun-go merkatuek eta feriek dute erakarririk haundiena. Bestalde, Irurtzun oso lagundua izan da ibilbideen garapenarekin, gurutzagune gertatu bait da.

Trenbideak eta autoak erabateko eragina izan dute usarioen aldaketan, mugikortasuna asko gehituz. Halaz ere, azken lustroetako aldaketak direnez, ez dugu uste eragin haundirik izan dutenik tokian tokiko hizketaren egituran.

Harreman hauetatik ere kanpoan gelditzen da Zugarramurdi, merkataritza harremanak Sara-rekin izan dituelako batipat; eta Etxalar-ek ere, Iparraldearekin mugaz-muga, adiskidetza eta lotura haundia izan du Sara-rekin aspalditik, merkataritzan ezezik baita uren eta belarren partzuergoan ere nork bere aziendentzat.

Ibilbideei dagokienez, Larraun, Imotz eta, gutxiago bada ere, Basaburua Haundia dira Tolosa-rako eta Donostia-rako iraganbide gertatu direnak. Gainerako bailarek ez dute hainbesteko menpetasunik jasan, baina Ultzama-koak eta Atez-ekoak, agian Iruñea-kin duten hurbiltasunagatik, euskaldungoaren batez-bestekoa urritua ikusi dute, bailada hauetan, hizkuntza kinka larrian dagoelarik.

# OHARRAK

(1) LAFON-ek 1955. urtean proposamen bat egiten du Iparralderako inkesta tokiak aukeratuz. "En vue d'une enquête linguistique sur les parles basques de France", **BRSVAP,** XII (1956), 1-8. or.

Ikus gai honi buruz GAVEL-en (1957) eritzia ere.

(2) YRIZAR (1956): "Sobre la exploración lingüística del País Vasco", **BRSVAP,** XI, 375-385. or. Baita bizkaierari buruz egiten duena ere boletin berean XII. alean, (1956), 35-38. or.

Era berean ikus IRIGARAY, A. (1957): "Observaciones al artículo de Pedro de Yrizar "Sobre la exploración lingüística del País Vasco", **BRSVAP** XIII, 247-249. or.

(3) Donaixti-Ibarren, 1982, Apirilaren, 16 eta 17-an.

(4) Euskararen egoeraz Nafarroa-n argitaratu diren lanak nahiko ugariak izan dira. Joan zen mendeko Bonaparte-tik hasita, gaur arte, etengabeko galeren, garaien arauera, kontu ematen duen idazle bakoitzak kronista bat dirudi, hain da begi bistakoa bilakabidea. Nagusienak baizik ez ditugu aipatuko, eta horien artean, A Irigaray (Apat-Echebarne izen ordez, maiz), klasikoa bihurtu dena euskararen gibeleratzeaz Nafarroa-n. Lan asko ditu, eta hemen nolabait ere horien mamia biltzen duena bakarrik ekarriko dugu: APAT-ECHEBARNE, A. (1974): **Una geografía diacrónica del euskara en Navarra,** Diario de Navarra 10, Pamplona, eta autore berarenak, (1935): "Documentos para la Geografía lingüística de Navarra", **RIEV** XVI, 601-623. or., eta lan bera (1960): **Geografía Histórica de la Lengua Vasca** liburuan, Auñamendi, San Sebastian ; eta (1956) "Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935", **Euskera** I, 41-46.or. YRIZAR, P. (1973): Los dialectos y variedades de la lengua vasca (Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo", **ASJU** VII, 3-36. or. SANCHEZ CARRION, J. M. (1972): **El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970),** Príncipe de Viana, Pamplona. Eskualde baterako bakarrik balio badu ere, autore berak du (1981): "La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka)". Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldun", **FLV** 37, 19-97. or. eta ETXAIDE, A. Mª (1966): "Regresión del vascuence en el Valle de Esteríbar", **Problemas de la historia y de la etnología vascas,** Príncipe de Viana, Pamplona, 257-259. or.; E. ELGOIBAR, B. ZUBIZARRETA, I. GAMINDE (1987): Euskararen galera Nafarroan (1587-1984), Pamiela, Iruñea.

(5) Guk ematen ditugun datuak biztanlegoaren zentsokoak dira, 1975. urteko zentsokoak. ARDAIZ, J.(1980): **Navarra elementos para su estudio regional,** Eusko Ikaskuntza, Navarra, liburutik jasoak.

(6) (1980): **Contribución a la dialectología de la lengua vasca** I, San Sebastian, (2 ale).

(7) "Ipar-Mendebal hezea" edo "Ipar-Mendebaleko Nafarroa hezea" izena hainbat ikertzailek onartu eta erabiltzen zuen, hala nola Floristán-ek, Mensua-k, baina espreski erabili izan duena TORRES LUNA (1971) izan da, bailarak eta herriak zehaztuz.

(8) Lerin-go Doneztebe eta Basaburua Txikia egun desagertuak dira. Horietako hainbat herri, batez ere Doneztebe-koak, Malda-Erreka izenarekin ofizialtasunik gabe- ezagutua den bailaran sartzen dira.

(9) Esaterako, LEFEBVRE, Th. (1933): **Les modes de vie dans les Pyrénnées Atlantiques orientales,** Paris. LAMARE (1952): "La structure géologique des Pyrénnées basques", **Actas del 1er. Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos,** II, Zaragoza, 1-44. or. SERMET, J. (1957-58): "Le problème de le limite géographique occidentale des Pyrénnées", **Memoires de l'Académie des Sciences, Inscriptions et Belles-Lettres de Toulouse,** IX, 99-144. or.

(10) Zelestino II-ren Preskriptoaren arauera Baiona-ko Eliz-Barrutiak euskualde hauek hartzen zituen, CARO BAROJA-k dioenez (1932,12):

> "Vallem que dicitur Laburdi. Vallem que dicitur Arberoa. Vallem que dicitur Orsais. Vallem que dicitur Cizia. Vallem que dicitur Baigur. Vallem que dicitur Bastan. Vallem que dicitur Lerin. Vallem que dicitur Lesseca. Vallem que dicitur Otarzu, usque ad Sanctum Sebastianum."

Mugetarako ikus, baita ere, UBIETO, A.: (1953, 92-93) eta LACARRA (1949, 421-425).

(11) Honela jasotzen du HARISTOY M.-k, **Le Pays Basque,** II alea, 125. or.

(12) Gure ikerketako bailaretara mugatzen gara.

(13) Nafarroa, urte gutxiren buruan, industria-aurreko koordenada sozioekonomikotan sartua zegoen lurralde bat izatetik, egoera industrial garbira igaro da, aurreko egoera edo aroko hainbat ezaugarrik oraindik irauten badu ere. Esaten den honen froga ona da nekazaritza lanetan ihardun zuen biztanlegoak izan duen beherakada azken hogeitabost urteotan, 81.304 pertsonatik 30.303-ra jeitsiz. I. ARDAIZ (1980,13)

## 6.2. LEKUKOEN HAUTAKETA

Zein garrantzitsua den lekukoen hautaketa denok dakigun gauza da, beren esku bait daude lanean agertuko diren emaitzak. Begi bistakoa denez, inork ez du zalantzatan jartzen hau. Bestalde, Edmont ALF-erako datuak jasotzen hasi zenetik herriz herri, leku bakoitzean informatzaile bat bilatuz, gaur arte gauzak franko aldatu dira. Egun, lekukoaren "fitxa" osoa egiten du zenbaitek, herrietatik hasiz: gurasoen eta aiton-amonen jaiotze lekuak, ikasketak, ogibidea, erabiltzen dituzten edo dakizkiten hizkuntzak eta abar luzea lekukoaren datu guztiak jasotzeko "curriculum vitae" osoa eta zehatza eginez.

Gu, egia esan, ez gara hain zehatzak izan; izan ere, Euskal Herriko euskaldunen jendeen gorabeherak aski berdintsuak bait dira; horregatik, zaindu ditugun arloak eta gure ustez garrantzitsuenak, honako hauek izan dira.

### 6.2.1. Lekuko mota

#### 6.2.1.1. Adina

Betitik esan izan da lekuko zaharrak, adin askokoak, onenak direla horrelako lan motak egiteko. Horrela izango denik ez dugu ukatzen, euskararik garbiena eta jatorrena, gehienbat haiek gordetzen dutelako. Alabaina, gure lanerako ez dira egokienak, arlo fonikoa jasotzen bait dugu. Lekuko zaharregiak ahotsa ez dute hain tinkoa, eta ahoskera bera ere moteltzen hasia izan ohi dute. Salbuespenak salbuespen -oso adinekoak ere baditugu, izan ere ez baita euskalkun gazteagorik gelditu ere egiten herri batzutan-, berrogeitamar- hirurogei urteetakoak hartu izan ditugu batipat.

### 6.2.1.2. Sexoa

Jasotzen genuen informaziotik parte batek analisi akustikotarako balio behar zuela, eta analisi mota horretarako gizonen ahotsa egokiagoa dela kontutan harturik, nahiko baldintzaturik ikusi genuen gure burua gizonezkoak hartzera. Halere andrazkoekin ere egin dira zenbait inkesta. inkesta batzu egin direlarik.

### 6.2.1.3. Beste zehaztasun batzu

Lekukoa hautatzerakoan non jaioa zen hartu dugu kontutan, jakina, baina horrekin batera, eta ahal zen neurrian, herrian bertan bizi izandakoa izatea ere bai. Gurasoak ere biak herri bertakoak edo oso ingurukoak izatea, eta gauza bera lekukoaren ezkontidearekin.

Ikasketen aldetik, zoritxarrez esango genuke, ez da zaila izan euskaran alfabetatu gabeak eta euskaraz ikasketak egin gabeak aurkitzea. Zailagoa da, gaur egun, euskal irrati-telebistak entzun gabekoak aurkitzea, baina horien eragina, azken urteotako kontua denez, aski urria izanen zela pertsona helduengan ziur gaude.

Azkenik, eta lanbidearen aldetik, inkestatu ditugun herriak baserri girokoak direnez, lekukotarako nekazariak bilatzen ahalegindu gara edo, behinik-behin, fabrikara joaten ez zirenak; horrela, baditugu arotzak, harakinak, saltzaileak, etxeko-andreak, baina edozein modutan ere denak baserritarrak. Kasu guztietan zera bilatu dugu: hizkera izan zezatela ahalik eta gutxien kutsatua.

### 6.2.2. Lekukoen kopurua

Gure lana fonetikara mugatu arren ez da lan monografikoa, atlasarako ekarpen gisa egina baizik. Horregatik, tradizioari lotuz,

lekuko bat hartu genuen puntu bakoitzerako. Badakigu horren fidagarritasun estadistiko eta soziologikoak ez direla behar adinakoak, halere atlas bati ez zaizkio ez bata eta ez bestea eskatzen. ez bestea ere, ez dira atlas bati eskatzen zaizkion baldintzak.

Alabaina, lekuko bakarra eskastxo eta inoiz murritzegi ere gelditzen zitzaigunez, bigarren inkesta bat egin genuen toki guztietan. Bigarren horrekin ez ginen beti erabat konforme gelditzen, eta hirugarrenaren beharra somatzen genuen zenbait kasu konkretotan, bi emaitza ezberdin jasotzen genituenean lekukoengandik batez ere. Horrelakoetan kezka bizia gelditzen zitzaigun: noren errealizazioa ote da nagusia edo errepresentagarriena? Egia esan, hirugarrenarekin zalantzak ez dira beti argitzen baina, lanek amaiera bat behar dute.

Dena den, leku bakoitzerako informatzaile edo lekuko nagusia bat bakarrik izan da, hau da, lekuko bat eta bakarrarena da leku bakoitzean agertzen den informazioa (ikus mapei egiten diegun sarrera). Bigarrena, osagarri bezala hartu dugu; eta hirugarrena, berriz, emaitza puntualak kontrastatzeko baizik ez dugu erabili.

### 6.2.3. Lekukoen zerrenda

Francisco AIZPURUA DESCARGA. 64 urte. Auza-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Mikela LASARTE OSTIZ. 91 urte. Auza-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Ulpiano MARIEZKURRENA OIARTZUN. 83 urte. Larraintzar-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Raimundo OSKOZ ARISTEGI. 77 urte. Larraintzar-koa (Ultzama), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Pedro BARBERIA ITURRALDE. 52 urte. Arraras-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Juan José LEIZAGA ERRETXEA. 48 urte. Arraras-koa. (Basaburua Haundia)Ip (GN),Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Miguel GOÑI ETXEBERRIA. 44 urte. Beramendi-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Juan Bautísta ETXEBERRIA GOIKOETXEA. 57 urte. Beramendi-koa. (Basaburua Haundia), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Miguel OLAETXEA AZPIROZ. 68 urte. Goldaratz-koa. (Imotz), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Ignazio LEGARRA LEGARRA. (27 urte),Goldaratz-koa. (Imotz), Ip (GN) Ultzama-ko azpi-euskalkikoa

Pedro NAZABAL LEKUNBERRI. 58 urte. Beunza-koa. (Atez), Ip (GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Enrique NAZABAL LATASA. 63 urte. Beunza-koa. (Atez), Ip(GN), Ultzama-ko azpi-euskalkikoa.

Jose Joaquin AZKARATE ETXENIKE. 40 urte. Aniz-koa (Baztan), Ip (GN),Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Patxi JUANIKORENA SANTESTEBAN. 30 urte. Berroeta-koa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Gil GOIENETXE ITURRIAGA. 71 urte. Amaiur-koa. (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Alberta ETXENIKE IRIBARREN. 70 urte. Amaiur-koa. (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Valentin IRIGOIEN PEROTXENA. 68 urte. Gartzain-goa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Maria ORMAT ETULAIN. 89 urte. Gartzain-goa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Juan AGERREBERE BERTIZ. 77 urte. Arraiotz-koa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Emilia LAURNAGARAY BERTIZ. 68 urte. Arraiotz-koa (Baztan), Ip (GN), Baztan-go azpi-euskalkikoa.

Javier AIZPURU SALABURU. 56 urte. Oronotz-Mugaire-koa, Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Vitoria JAUREGI ZARRATEA. 74 urte. Oronotz-Mugaire-koa, Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Roman IPARRAGIRRE ALTAMIRA. 54 urte. Arantza-koa (Bortzirieta), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Vicente AROCENA BIURRARENA. 56 urte. Arantza-koa (Bortzirieta), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Virginia ARBURUA MIURA. 46 urte. Etxalar-koa (Bortzirieta), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Manuel VERGARA DURRUTI. 52 urte. Etxalar-koa (Bortzirieta), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Mª Jesus LAURNAGA MITXEO. 68 urte. Oieregi-koa (Bertizarana), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Manoli AIZPURU IRIGOYEN. 59 urte. Oieregi-koa (Bertizarana), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Alfredo MENDIBERRI ILARREGI. 34 urte. Donamaria-koa (Lerin-go Doneztebe), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Miguel M. MUTUBERRIA AGERRALDE. 36 urte. Donamaria-koa (Lerin-go Doneztebe), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Jose Leon PETRIRENA LASAGA. 58 urte. Sunbilla-koa (Lerin-go Doneztebe), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Benito IRIARTE DOMEK. 71 urte. Sunbilla-koa (Lerin-go Doneztebe), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Felipe PETRIRENA ARANBURU. 65 urte. Ituren-goa (Lerin-go Doneztebe). Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Pedro APESTEGIA HUALDE. 76 urte. Ituren-goa (Lerin-go Doneztebe), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Lorenzo MARIEZKURRENA APESTEGIA. 68 urte. Erasun-goa (Basaburua Txikia), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Anastasia BENGOETXEA ARREGI. 78 urte. Erasun-goa (Basaburua Txikia), Ip (GN), Bortzirieta-ko azpi-euskalkikoa.

Juanito ZUBELDIA JAUREGI. 53 urte. Aldaz-koa (Larraun), Ip (GN), Arakileko azpi-euskalkikoa.

Bakartxo GARRO LASARTE. 57 urte. Aldaz-koa (Larraun), Ip (GN), Arakileko azpi-euskalkikoa.

Julian ANSALAS OLANDEGI. 59 urte. Zugarramurdi-koa. (L), Bertako azpi-euskalkikoa.

Norberto ARBURUA LEKUBERRI. 84 urte. Zugarramurdi-koa. (L), Bertako azpi-euskalkikoa.

(Oharra: Toki bakoitzeko lekuko nagusia edo "A" lekukoa lehenengo doana da.)

### 6.3. Inkestak

#### 6.3.1. Motak eta metodologia

Oinarrizko inkesta eta garrantzitsuena geldekizunarena izan da eta horretatik jaso ditugun erantzunak kartografiatu ditugu.

Galderak gazteleraz egiten ziren, erantzunetan galdetzailearen euskararen eragin pittinik ere ager ez zedin.

Galdekizunez gain bi inkesta edo grabaketa mota ere egin dira:

a) Grabaketa askea. Hau da, gai monografiko bat eman lekukoari eta hitz egiten utzi. Bost-hamar minutu.

b) Grabaketa hartaragabea. Lekukoa ohartzen ez zelarik hitz egiten zuenean grabatua. Mota hau, egia esan, oso gutxitan izan da posible, eta horietan ere aski kalitate txarrekoa atera zaigu grabaketa.

Azken bi hauek galdekizuna sendotzeko balio izango zutelakotan egin genituen eta dudazko kasuetan ere erabakiak zuzenago hartzeko. Fonetika sintaktikorako ere baliagarri gertatuko zirela uste genuen. Erdizka bete dira helburuak, emaitzak batu edo argitu beharrean, gehitu eta aniztu egin dituztelako, batez ere.

Inkesta hauetatik kanpo, zenbait lekukori palatogramak egin dizkiogu, lau lekukori denetara.

Lehenbiziko inkestak -herri bakoitzean bat, eta bigarrena ere hainbat tokitan- 1984. urteko lehenbiziko sei hilabeteetan egin ziren; gaineko guztiak 1987 eta 1988 urteetan. Konturatzen gara hiru urtetako tartea gelditzen dela hutsik, baina garrantzi haundie-

girik ez duela uste dugu, eta ondoriorik ez duela izan gure lanean.

Inkestak egiteko erabili dugun materiala goian aipaturikoa da, aurre-inkestak egiteko material berdinez baliatu bait gara. (Ikus: 2.2.2.).

### 6.4. Galdekizuna

Galdekizunaren prestaketari kapitulu oso bat eman diogunez, ez dugu hemen deus berririk esateko. Gelditzen zaiguna zera da, galdekizuna bera nola gelditu den azaltzea.

Mapak agertzen diren lehen alearen aurkibidean agertzen da galdekizuna. Alabaina, zein da sintagma osoa kasu bakoitzean? Zein testuingurutan jaso da?

Galdekizuneko galderak jasotzeko era bat baino gehiago dago. Metodo zuzena, "gauza" bera erakutsiz, deixiaren bitartez, alegia: "Zer da hori?" galderari erantzuteko argazki edo marrazkien bitartez. Metodo hau ez da batere erraza izaten, askotan ez direlako gauza fisikoak galdetzen direnak, edo fisikoak eta ikuskorrak izan arren, guk nahiko genukeen bezala gutxitan erantzuten dutelako. Bestea, berriz, zeharbidezkoa da eta bi eratara egin daiteke. Jaso behar den hitzaren definizio gisako galdera azalduz, edo, lekukoa elebiduna bada, beste hizkuntzan galdetuz. Guk azken honetara jaso dugu, gazteleraz galdetuz, hain zuzen, kasuren batean deixiaren bitartez jaso badugu ere galderaren bat. Hona hemen, galdekizuna eta zein galderen bitartez baliatu garen.

**Bokalak**

[i]

1 A IKUSI 'ver'

1 B IKUSI DITUT 'he visto muchas cosas'

2 A IRIN 'harina'
2 B IRIN GUTXI 'poca harina'
3 UKITU 'tocar' , 'no toques'
4 A URRITZA 'avellano' edo 'avellano salvaje'
4 B SEI URRITZ 'seis avellanos'
5 A ILTZE 'clavo'
5 B LAU ILTZE 'cuatro clavos'
6 A IHIZE 'clavo'
6 B IHIZE GUTXI 'hay poca caza'
7 BAZKARI 'comida'
8 BAZKALDU NUEN 'ayer al mediodía ya comí'
9 GIZONE(R)I 'lleva el almuerzo a los hombres'

[e]

10 A ETXE 'casa'
10 B HIRU ETXE 'tres casas'
11 ETXERA 'a casa', '¿a casa de quién vas a ir?'
12 A HERRI 'pueblo'
12 B HIRU HERRI - HERRI GUTXI 'tres pueblos', 'pocos pueblos'
13 A HARRI 'piedra'
13 B LAU HARRI 'cuatro piedras'
14 A TXERRI 'cerdo'
14 B HIRU TXERRI 'tres cerdos'
15 A BELE 'cuervo'
15 B BELE GUTXI 'pocos cuervos'
16 A EGUZKI 'sol'
16 B LAU EGUZKI 'cuatro soles'
17 A KERATS 'amargo', 'ácido'
17 B KERATSA DA 'el vinagre es amargo'
18 A IZTER 'pata de pollo'
18 B HIRU IZTER 'tres patas de pollo'
19 A EGUERDI 'mediodía'
19 B EGUERDI LABURRA (MOTZA) 'mediodía corto'
20 A GAUERDI 'medianoche'
20 B GAUERDI ILUNA 'medianoche oscura'
21 ELKARREKIN 'hemos comido juntos'

22 A ERDOI 'roña del hierro'
22 B ERDOI GUTXI 'poca roña'
23 ETORRI 'venir'
24 HONETAN 'en esta casa no estará'

[a]

25 A KATE(A) 'cadena'
25 B HIRU KATE 'tres cadenas'
26 GAZTEAGOA 'yo soy más joven que tú'
27 A GAZTA 'queso'
27 B GAZTA BAT 'tres quesos'
28 A ZAHAR 'viejo'
28 B GIZON ZAHARRA 'hombre viejo'
29 A AHATE 'pato'
29 B HIRU AHATE 'tres patos'
30 A AHARI 'carnero'
30 B HIRU AHARI 'tres carneros'
31 A NABALA 'cuchillo'
31 B HIRU NABAL 'tres cuchillos'

[o]

32 A BESO 'brazo'
32 B HIRU BESO 'tres brazos'
33 ZORATU 'mareado'
34 A AROTZ 'herrero' / 'carpintero'
34 B LAU AROTZ 'cuatro herreros' / 'cuatro carpinteros'
35 A AHO 'boca'
35 B AHO TXIKIA 'boca pequeña'
36 A HONDAR 'resto de comida'
36 B HONDAR HORI 'ya puedes echar esos restos de comida'
37 A ONTZI 'vasija de cocina'
37 B HAINBESTE ONTZI 'tanta vasija hay'
38 A HONTZ 'lechuza'
38 B LAU HONTZ 'cuatro lechuzas'
39 BORTZ 'cinco'

40 A ARDO 'vino'
40 B ARDO ASKO 'bebe mucho vino'
41 A DENBORA 'tiempo' / 'poco tiempo'
41 B DENBORA TXARRA 'mal tiempo'
42 A GOROLDIO 'musgo'
42 B GOROLDIO TXARRA 'musgo malo me has traido'

[u]

43 A KATU 'gato'
43 B HIRU KATU 'tres gatos'
44 A KATAKUME 'cría de gato'
44 B HIRU KATAKUME 'tres crías de gato'
45 A PUTZU 'pozo'
45 B PUTZU TXIKIA 'pozo pequeño'
46 A GARIZUMA 'cuaresma'
46 B GARIZUMA LUZEA 'cuaresma larga'
47 GUTI 'poco' / 'lo poco es mucho'
48 A HUNTZ 'hiedra'
48 B LAU HUNTZ 'cuatro hiedras'
49 A GORPUTZ 'cuerpo'
49 B HAMAR GORPUTZ 'diez cuerpos'
50 MOGITU 'mueve la mesa'
51 A BERANT 'tarde'
51 B BERANTETSI 'estaba tardado'

**Beherunzko diptongoak**

[au̯]

52 A HAUSPO 'fuelle'
52 B HIRU HAUSPO 'tres fuelles'
53 A GAUZA 'cosa'
53 B LAU GAUZA 'tengo cuatro cosas para decirte'
54 A GAU 'noche'
54 B HIRU GAU 'tres noches'

55 BARAURIK 'estoy en ayunas'
56 A ARRAULTZA 'huevo'
56 B LAU ARRAULTZA 'cuatro huevos'
57 A AHUL 'débil'
57 B AHUL (DAGO) 'ese hombre está débil'

[eu]
^

58 EUSKARA 'Zein de gure hizkuntza?'
59 A EURI 'lluvia'
59 B EURI HAU 'esta lluvia vendrá bien'
60 A LEUN 'suave'
60 B LARRU LEUNA 'piel suave'

[ai]
^

61 BAI 'sí'
62 A EGITAI 'hoz'
62 B EGITAI ZAHARRA 'hoz vieja'
63 NAIZ 'soy'
64 JAINKOA 'Dios'
65 BEZAIN 'no soy tan joven como tú'
66 BAINO 'yo soy más joven que tú'
67 A ZAINA 'vena'
67 B HIRU ZAIN 'tres venas'
68 A EZPAIN 'labio'
68 B LAU EZPAIN 'cuatro labios'
69 A ARTZAIN 'pastor'
69 B ARTZAIN GUTXI 'queda poco pastor'
70 A AINGERU 'ángel'
70 B AINGERU TXARRAK 'malos ángeles'

[ei]
^

71 A BEHI 'vaca'
71 B HIRU BEHI 'tres vacas'
72 EIHAR 'marchito, seco'
73 A ELEIZA 'iglesia'

73 B HIRU ELEIZA 'tres iglesias'
74 ELEIZARA 'me voy a la iglesia'
75 A HAREITZ 'roble'
75 B HIRU HAREITZ 'tres robles'

[oi̯]

76 A XABOI 'jabón'
76 B LAU XABOI 'cuatro jabones'
77 A ARRATOI 'rata'
77 B HIRU ARRATOI 'tres ratas'
78 GOIZ 'es temprano', 'mañana ven temprano'
79 A GOIZ 'mañana'
79 B GOIZ HOTZA 'mañana fría'
80 BAKOITZ 'dale a cada uno lo suyo', 'cada saco de pienso cuesta mil ptas.'

[ui̯]

81 FRUITU 'fruta', 'este árbol tiene mucha fruta'
82 A ASUIN 'ortiga'
82 B HIRU ASUIN 'tres ortigas'

**Gorunzko diptongoak**

83 SUERTE 'suerte', 'no tengo suerte'
84 A KAFIA 'café'
84 B HIRU KAFE 'tres cafés'
85 A AIHEN 'sarmiento'
85 B HIRU AIHEN 'tres sarmientos'
86 A LEIHO 'ventana'
86 B HIRU LEIHO 'tres ventanas'
87 A OIHAL 'pañal', 'tapete'
87 B HIRU OIHAL 'tres pañales', 'tres tapetes'
88 A EHO 'moler'
88 B ARTOA EHO 'moler el maíz'
89 A MAHAI 'mesa'

89 B HIRU MAHAI 'tres mesas'
90 A ZANGO 'pie'
90 B HIRU ZANGO 'tres pies'
91 JOAN 'ir', 'se ha ido'
92 (MUTIKO) HAUEK 'estos chicos son de aquí'

**Hiatoak**

93 A ARI 'hilo', 'estoy cosiendo con hilo'
93 B HIRU ARI 'tres hilos'
93 C ARE 'arado'
93 D HIRU ARE 'tres arados'
93 E ARI NAIZ 'estoy haciendo algo'
94 A MAHATS 'uva', 'tres kilos de uva'
95 LEHEN 'si hubieras venido antes', 'he estado antes'
96 EDAN 'beber'
97 JAN 'comer'
98 A BELARRI 'oreja'
98 B LAU BELARRI 'cuatro orejas'
99 HIRU ALABA 'tres hijas'
100 ALABA (ETXEAN DAGO)? ¿está la hija en casa?'
101 ALABAK 'las hijas'
102 DEN / DAN 'el chico que ha venido vive en Bilbao'
103 DELA / DALA 'ya te he dicho que ha venido'
104 A EKE 'humo'
104 B EKE ASKO 'mucho humo'
105 GAZTE 'yo soy más joven que tú'
106 NOA 'me voy a la iglesia'
107 ETXEAK 'las casas'
108 ETXEAN 'en casa'
109 DEABRU 'es más malo que un diablo'
110 A BEHOR 'yegua'
110 B LAU BEHOR 'cuatro yeguas'
111 HERRIAK 'los pueblos'
112 HERRIRA 'al pueblo'
113 HERRIAN 'en el pueblo'
114 HERRI BAT 'un pueblo'
115 OGI 'tres panes'

116 OGIA 'pan'
117 OGIAN 'mete el queso en el pan'
118 OGI BAT 'un pan'
119 IKATZ 'tres sacos de carbón'
120 BIHAR 'mañana', 'no vendré hasta mañana'
121 BIHOTZ 'corazón'
122 HIRU BIHOTZ 'tres corazones'
123 BESOAK 'los brazos'
124 BESOAN 'tengo mal (dolor) en el brazo'
125 BESORA 'traeme al brazo'
126 ZOAZ 'vete'
127 ESKU 'tres manos', 'mano sucia'
128 ESKUA 'mano'
129 ESKUAK 'las manos'
130 ESKURA 'a la mano'
131 ESKUAN 'en la mano'
132 ESKU BAT 'una mano'
133 A BULARRA 'pecho'
133 B HIRU BULAR 'tres pechos'
134 HUTSA 'vacío'

**Leherkariak**

135 BARKATU 'perdona'
136 A BORRU 'puerro'
136 B HIRU BORRU 'tres puerros'
137 A DITARE 'dedal'
137 B HIRU DITARE 'tres dedales'
138 A KUPEL 'barrica', 'tonel'
138 B HIRU KUPEL 'tres barricas', 'tres toneles'
139 A KABIA 'nido'
139 B HIRU KABI 'tres nidos'
140 A KORAPILO 'nudo'
140 B HIRU KORAPILO 'tres nudos'
141 A ONDDO 'hongo'
141 B HIRU ONDDO 'tres hongos'
142 JAIKI / -GI 'levántate de la cama'

143 IRABAZI 'ganar', 'no he ganado dinero'
144 ZENBAT DIRU? 'cuánto dinero?'
145 SAGARRAK DIRA 'son manzanas'
146 EDO '¿son manzanas o peras?'
147 BIZI DA 'vive'
148 A OILANDA 'gallina joven'
148 B HIRU OILANDA 'tres gallinas jóvenes'
149 GURASOAK 'los padres'
150 A GURDI 'carro (rueda)'
150 B HIRU GURDI 'tres carros (ruedas)'
151 GABE 'sin ir no veré eso'
152 A ALDARE 'altar'
152 B HIRU ALDARE 'tres altares'
153 HEMENGO 'yo soy de aquí'
154 KOLKOAN "guardar en el...' (señalando)
155 HILGO 'ese también se morirá'
156 EZ DUT 'no tengo comida'
157 EZ GARA 'no somos de aquí'
158 EZ BANAIZ 'si no vengo, empezar a comer'

**Leherkari sabaikariak**

[t']

159 A AITA 'padre'
159 B HIRU AITA 'tres padres'
160 TIPI / TTIPI / TTIKI / TXIKI 'pequeño', 'ese niño pequeño no es de aquí'
161 TENTE 'tieso', 'anda muy tieso'
162 LODITU 'engordar'
163 A OHE 'cama'
163 B HIRU OHE 'tres camas'
164 OHETIK 'levántate de la cama'
165 A EGIN DITUT 'he hecho los trabajos'
165 B DITUT 'tengo cuatro vacas'
166 A TU 'saliva'
166 B ZENBAT TU 'cuánta saliva'

167 -(T)T0 / -TXO (Zuzenean galdetu). 'Amatxo, aitatxo'

[d']

168 SAGAR ONDO 'manzano', 'planta de manzano'
169 IL DA 'se ha muerto'
170 EZIN DUT 'no puedo hacer eso'

**Afrikariak**

171 TXAR 'niño pequeño', 'comida mala'
172 ATZO 'ayer'
173 A ATSO 'vieja', 'mujer'
173 B HIRU ATSO 'tres viejas', 'tres mujeres'
174 OSO 'está muy bueno'
175 A OTSO 'lobo'
175 B HIRU OTSO 'tres lobos'
176 A ZAKUR 'perro'
176 B HIRU ZAKUR 'tres perros'
177 A TXORI 'pájaro'
177 B HIRU TXORI 'tres pájaros'
178 A TXOTX 'palito'
178 B HIRU TXOTX 'tres palitos'
179 A TXIMITX 'chinche'
179 B HIRU TXIMITX 'tres chinches'
180 A HOTZ 'frío'
180 B HOTZ GUTXI 'poco frío'
181 A TXASO 'mar'
181 B HIRU ITXASO 'tres mares'
182 MARTXOA 'marzo'
183 A ITSU 'ciego'
183 B HIRU ITSU 'tres ciegos'
184 AUTSIKI 'morder'
185 JAUNTZI 'vístete', 'ponte la ropa'
186 ERANTZI 'desvístete', 'quítate la ropa'
187 A INTXAUR 'nuez'
187 B HIRU INTXAUR 'tres nueces'

188 ITSI - HERTSI 'cierra la puerta'
189 A BELTZA 'negro'
189 B KOLORE BELTZ HORI 'ese color negro no me gusta'
190 A BERTSO 'bertsolariek zer botatzen dituzte?'
190 B HIRU BERTSO 'tres versos'
191 A SUDURTZULO 'agujero de nariz'
191 B HIRU SUDURTZULO 'tres agujeros de nariz'
192 A AITZUR 'azada'
192 B HIRU AITZUR 'tres azadas'

**IGURZKARIAK**

[f]

193 A FALTSU 'ese hombre es falso'
193 B HIRU (GIZON) FALTSU 'tres hombres falsos'
194 A FERIAN 'non erosten edo saltzen dira aziendak?'
194 B HIRU FERI 'tres ferias'
195 A FESTA 'hoy es fiesta', 'las fiestas del pueblo'
195 B HIRU FESTA 'tres días de fiesta'
196 A AFARI 'cena'
196 B HIRU AFARI 'tres cenas'
197 AFALDU 'hemos cenado bien'
198 NAFARROA 'esto es Navarra'
199 NAFARTARRA 'estos chicos son navarros'
200 A ALFER 'chico vago'
200 B HIRU ALFER 'tres chicos vagos'
201 A FIKU 'higo'
201 B HIRU FIKU 'tres higos'
202 A FERRA 'herradura'
202 B HIRU FERRA 'tres herraduras'
203 IFAR 'norte', 'viento norte'

[j]

204 NOR HAIZ? 'quién eres tú?'
205 JAKIN 'saber', 'si hubiera sabido eso'

206 JAUTSI 'bajar', 'bájate de la silla'
207 JO 'pegar', 'no le pegues'
208 A JABE 'dueño: de una pieza, de un millón de ptas.'
208 B HIRU JABE 'tres dueños'
209 A JAI 'el domingo es día de fiesta'
209 B HIRU JAI 'tres fiestas'
210 A JENDE 'gente'
210 B JENDE ASKO 'mucha gente'
211 (AMA) BIRJINA '¿Quién fue la madre de Dios?'
212 A JIKARA 'tacita de chocolate'
212 B HIRU JIKARA 'tres tacitas de chocolate'
213 A IJITU 'jitano'
213 B HIRU IJITU 'tres jitanos'
214 A JAUNA 'al cura se le decía: sí, señor'
214 B HIRU JAUN 'tres señores'
215 ZAIT - JAT 'me ha venido el hijo'
216 ZAIO -JAKO 'a Juan le ha venido el hijo'

**Xistukariak**

[s] eta [s]

217 EMAIOZU 'dale lo suyo'
218 A SARE 'red'
218 B HIRU SARE 'tres redes'
219 A ZARE 'cesta'
219 B HIRU ZARE 'tres cestas'
220 A SU 'fuego'
220 B HIRU SU 'tres fuegos'
221 ZU 'ud.' , 'tú'
222 A ZERU 'cielo'
222 B HIRU ZERU 'tres cielos'
223 A SORGIN 'bruja'
223 B HIRU SORGIN 'tres viejas'
224 A ZURI 'blanco'
225 B ETXE ZURI HORREK 'esa casa blanca tiene una ventana'
226 A ESNE 'leche'

226 B HIRU LITRO ESNE 'tres litros de leche'
227 IZAN 'ser', 'yo también fui niño'
228 A ZOZPAL 'astilla'
228 B ZOZPAL ASKO 'los aizkolaris sacan muchas astillas'
229 A AZAZKAL 'uña'
229 B HIRU AZAZKAL 'tres uñas'
230 ERNATU 'despertar'
231 ESAN 'dí', 'le he dicho tres cosas'

**Sudurkariak**

[m]

232 MERKE 'barato', 'los pinos están baratos'
233 A MAKILA 'palo', 'bastón'
233 B HIRU MAKIL 'tres palos', 'tres bastones'
234 A MAKAR 'legaña'
234 B HIRU MAKAR 'tres legañas'
235 EMAN 'dar', 'le he dado una manzana'
236 A MOSPEL 'sabañón'
236 B HIRU MOSPEL 'tres sabañones'
237 A MEZPERA 'víspera de fiesta', 'hoy sábado es víspera de fiesta'
237 B MEZPERETARA 'me voy a vísperas'
238 HEMEN 'aquí'
239 A ATZAMAR 'zer da hau...?', (deixiaren bitartez jaso)
239 B HIRU ATZAMAR 'diez...'
240 NAHAS 'revolver'
241 A ATOR NABARRA 'camisa oscura, de varios colores, vieja'
241 B HIRU ATOR NABAR 'esa camisa oscura, vieja no me gusta'
242 A NEGAL 'rana'
242 B HIRU NEGAL 'tres ranas'
243 A NEHOR 'nadie',
243 B EZ DE NEHOR ETORRI 'no ha venido nadie'
244 A ENARA 'golondrina'
244 B HIRU ENARA 'tres golondrinas'
245 A BEDEINKATU 'bendecir'
245 B UR BEDEINKATUA 'agua bendita'

246 A EMANEN 'le daré'
246 B EMANEN DIOT 'ya le daré algo'
247 A EGUN 'día'
247 B EGUN TXARRA 'hoy tenemos mal día'
248 A EGURALDI 'tiempo atmosférico', 'hace buen tiempo'
248 B EGURALDI TXARRA 'hoy tenemos mal tiempo'
249 EZ NAIZ 'no soy de aquí'

[n']

250 SAGAR BANA 'dales una manzana a cada uno'
251 BAINA 'saldría al monte pero hay niebla'
252 INON ERE EZ 'no lo he encontrado en ningún sitio'
253 A KEINU 'giño', 'entrecejo'
253 B HIRU KEINU 'tres guiños', 'tres entrecejos'
254 A BURDINA 'hierro'
254 B HIRU BURDIN 'tres hierros'
255 NAGOK 'estoy en casa' (hika)
256 NABILEK 'estoy buscando una oveja' (hika)
257 A MANTELINA 'mantilla'
257 B HIRU MANTELINA 'tres mantillas'

**Albokariak**

[l]

258 A OILO LUMA 'pluma de gallina'
258 B HIRU OILO LUMA 'tres plumas de gallina'
259A LAHAR 'zarza'
259 B HIRU LAHAR 'tres zarzas'
260 LASAI 'flojo', 'tranquilo'
'este pantalón me ha quedado flojo', 'estáte tranquilo'
261 A LARRU 'piel'
261 B HIRU LARRU 'tres pieles'
262 A BELAR 'hierba'
262 B BELAR GUTXI 'poca hierba'
263 A ELUR 'nieve'

263 B ELUR GUTXI 'poca nieve'
264 A ILAR 'guisante'
264 B HIRU ILAR 'tres guisantes'
265 A ZILAR 'plata'
265 B ZILAR GUTXI 'poca plata'
266 A ILARGI 'luna'
266 B HIRU ILARGI 'tres lunas'

[l']

267 A BOTILA 'botella'
267 B HIRU BOTILA 'tres botellas'
268 A TEILA 'teja'
268 B HIRU TEILA 'tres tejas'
269 A OILAR 'gallo'
269 B HIRU OILAR 'tres gallos'
270 A ILOBA 'sobrino'
270 B HIRU ILOBA 'tres sobrinos'
271 BILATU 'buscar', 'no he encontrado la vaca'
272 A HORI 'amarillo'
272 B KOLORE HORI HORI 'ese color amarillo no me gusta'
273 L(L)O EGIN 'duerme' (a un niño)

**Dardarkariak**

274 A ORE 'masa (para gallinas o cerdos)'
274 B ORE GUTXI 'poca masa'
275 A URA 'agua'
275 B UR GEHIEGI 'demasiada agua'
276 A ERAZTUN 'anillo'
276 B HIRU ERAZTUN 'tres anillos'
277 A PERREXIL 'perejil'
277 B PERREXIL GUTXI 'poco perejil'
278 A ATERI 'escampado'
278 B ATERTU 'euria egin eta gelditzen denean, nola esaten zaio horri?'
279 A ANTZARA 'ganso'
279 B HIRU ANTZAR 'tres gansos'

280 A ORIO 'aceite'
280 B ORIO GUTXI 'poco aceite'
281 A UGALDE 'inundación', 'río'
281 B HIRU UGALDE 'tres indundaciones', 'tres ríos'
282 A LUPEKO 'bajo tierra'
282 B LURPIN 'el topo vive bajo la tierra'
283 A AIZKOLARI 'leñador de apuestas'
283 B HIRU AIZKOLARI 'tres leñadores de apuestas'

**Talde kontsonantikoak**

284 HORTIK 'vete por ahí'
285 HORKO 'Miguel es de esa casa'
286 A ONTASUN 'bienes.
286 B ONTASUN AUNITZ 'tiene muchos bienes'
287 A ERITASUN / GAISOTASUN 'enfermedad'
287 A HIRU ERITASUN / GAISOTASUN 'tres enfermedades'
288 A MASUSTRA 'mora'
288 B HIRU MASUSTRA 'tres moras'
289 A HARTZ 'oso'
289 B HIRU HARTZ 'tres osos'
290 A HERTZE 'intestino'
290 B HIRU HERTZE 'tres intestinos'
291 A BERTZE 'otro'
291 B BERTZE BAT DA 'esa no es mi vaca es otra'

## 6.5. Mapagintza

Lan honek, atlas linguistiko osoa ez izan arren, atlasen tratamendu bera behar du, atlasaren zatia bait da. ALVAR-en aburuz (1984,91) horretarako honako urratsok eman behar dira:

"1. Recogida "in situ" de los datos, mediante un cuestionario elaborado previamente. Este cuestionario es -en teoría- el habla de una localidad.

2. Preparación de los "cuadernos de formas", es decir, despojar los cuestionarios de cada una de sus preguntas para preparar una colección de listas onomasiológicas. Si antes disponíamos de la posible monografía sobre un habla local, lo que ahora tenemos son los nombre de un concepto [...], en cada una de las localidades escogidas [...].

3. Redacción de cada mapa.
4. Dibujo por un técnico de las cartas lingüísticas.
5. Obtención de láminas para reproducir según un procedimiento habitual (fotograbado sobre planchas de cinc, fotolitos de offset, etc.).
6. Impresión."

Pausu horiek nola eman diren ikus dezagun, denak banan banan aipatuko ditugu.

### 6.5.1. "Formen koadernoaren" prestakuntza

Inkesten traskribaketa fonetikoak egin ondoren -honen informazio zehatza mapen analisiari dagokion hurrengo liburuan ikus daiteke-, inkesta bakoitzaren hustuketa egin zen.

Izan ere, mapa bakoitzak fenomeno linguistiko jakin bati eta horren banaketari dagokion informazioa biltzen du. Alvar-ek "Colección de listas onomasiológicas" deitzen dion arren, guk ez dugu uste izen hori arras egokia denik, batez ere fonetikari dagokionez; fonetika gertakizunak ez dira izenak, lexemetan edo sintagmetan zertzen badira ere. Edonola ere, egia da izen zerrendak ez diren arren,formen bilduma baten aurrean gaudela.

Fase honek izan zituen guretzat aski arazo, itxuraz gauza xumea dirudien arren. Bi lekuko erabili ditugunez gero, erantzunak hainbat aldiz desberdinak gertatu ziren, eta, inoiz, lekuko batek ere bi erantzun ematen zizkion galderari, polimorfismoz edo errejistro bikoitzaren eragin hutsez.

Badakigu atlas linguistikoen mugetako bat -beste abantaila asko baditu ere ordainez- hauxe dela: forma bakarra baizik ezin daitekeela ezarri, eta, beraz, ezinbestekoa dela hautaketa egin beharra.

Lope Blanch kartografia linguistikoan teknika modernoak erabiltzen ahalegindu zen eta lekuko askoz baliatu zen "Atlas linguistico de México" egiteko ondorengo arrazoi hauei begiratuz, LOPE BLANCH (1985,399):

"Con esta pluralidad de sujetos -elegidos atendiendo a consideraciones de carácter sociolingüístico: edad, sexo y nivel sociocultural- pretendía cumplir tres objetivos fundamentales: obtener muestreos fundamentales de polimorfismo lingüístico de las hablas mexicanas; superar la desconfianza o inseguridad que me producen, en algunas ocasiones, las respuestas obtenidas de un informador único; y, detectar fenómenos que pudiesen apuntar a factores sociolingüísticos como determinantes de ellos."

Asmo horren zailtasunak eta ezin fisikoak etsierazi zioten, berak pertsonalki jakinerazi zuenez. Ez da batere harritzekoa. Guk ere betiko bidea hartu behar izan dugu, eta informatzaile baten erantzunak hartzea irtenbide bakarra da. Informante edo lekuko horrek erantzun bat baino gehiago eman izan dizkionean galdera bati, inkesta egin den tokiaren arauera sinesgarrien edo egokien zena hautatu izan da.

Kasu hauek ez dira ugariak, baina azpimarragarria da galde-erantzunezko inkesta zuzenduaren eta grabaketa askearen artean dagoen aldea. Grabaketa askeetan berezkotasuna hizketa arruntaren ezaugarri funtsezkoa da eta, beraz, herriko hizketa jaso nahi denean hagitz fidagarriago gertatzen da. Galde-erantzunak asko eta asko baldintzatzen du lekukoa eta honek askoz ere gehiago zaintzen ditu erantzunak. Eragozpen larri hau gure mapetan ere bada, eta mapei erantsi diegun analisi fonetikoaren bitartez ahal zen neurrian zuzentzen saiatu gara.

Horrez gain, bigarren lekukoaren erantzunak ere hor daude, eta hainbat aldiz lehenbizikoarenetik aldatu egiten dira. Horrelakoetan maparen oineko oharretan ezartzen da bigarrenaren erantzuna, aldaketa funtsezkoa bada, noski; baztertu egiten da, ordea, aldaketak ez badu zerikusirik mapa horretan jasotzen den fenomenoarekin.

Hirugarren lekukoaren erantzunak beste bien arteko desberdintasunen artean erabakitzeko erabiltzen dira edo aurretik jasotako zehaztasunak egiaztatzeko. Nolanahi ere, guzti hori mapen analisian baizik ez da erabiltzen.

### 6.5.2. Mapen idazketa


Formen koadernoa osatzeko galdekizunaren biluzketa egin ondoren, mapen idazketa prestatu zen.


Ikerturiko eskualdearen mapen prestaera -ondoren eransten dira- Yolanda CASTILLO-k, Deustu-ko Unibertsitateko Geografia Departamendukoak egin zuen. Hari eskertu behar dizkiogu mapak egitetik kanpo, mapak egitean eta eskalak eta iturriak erabiltzean izan duen txukuntasuna eta zorroztasuna; ez bait gaude dialektologoak horrelako jokabide zintzoetara oso ohituak. Ikus, hurrengo orrialdeetako mapak.

Mapen idazketa sistemak badira zenbait, usatuena delarik, agian, toki bakoitzeko erantzunak dagokion toki-tokian ezartzen dituena. Guk sinboloak erabiltzea erabaki genuen, maparen pean batutako formen zerrenda osoa emanez. Hau honela egiteko arrazoietan lehenbizikoa informazio arinagoa eskeintzea izan zen: sinboloaren bitartez ezarriz gero errealizazioak, askoz ere argiago ikusten dira denak batera, erantzun bakoitza hitzez hitz irakurtzen ibili beharrik gabe; eta isoglosarik gertatuko balitz ere, berez ikusteko aukera errazagoa eskeintzen du.

Horrez gain, informazio bera eskeintzen duten herrigune

**AZTERTUTAKO HERRIGUNEEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**






## LANEAN AZTERTZEN DIREN UDALERRIEN KOKAPENA


IRAKURKETA

| | UDALERRIA |
|---|---|
| 1 | Arantza |
| 2 | Atez |
| 3 | Basaburua Mayor |
| 4 | Baztan |
| 5 | Bertiz Arana |
| 6 | Donamaria |
| 7 | Erasun |
| 8 | Etxalar |
| 9 | Imotz |
| 10 | Ituren |
| 11 | Lerraun |
| 12 | Sunbilla |
| 13 | Ultzama |
| 14 | Zugarramurdi |

Laneen Aztertzen den Lurraldea

## AZTERTUTAKO GUNEA

1. ALDAZ
2. ANIZ
3. AMAIUR
4. ARANTZA
5. ARRAIOTZ
6. ARRARAS
7. AUZA
8. BERAMENDI
9. BEUNZA
10. DONAMARIA
11. ARASUN
12. ETXALAR
13. GARZAIN
14. GOLDARTZ
15. ITUREN
16. LARRAINZAR
17. OIEREGI
18. ORONOTZ-MUGAIRE
19. SUNBILLA
20. ZUGARRAMURDI


20
12
3
4
19
17
18
5
13
15
2
10
11
6
1
7
8
16
9
14
0
10
20 Km.

guztiak sinbolo baten barnean sartuz egiten den zerrendak, jasotako fenomenoaren bilakabidea ezagutzeko aukera eskeintzen du. Alegia, lehen esan bezala, gure metodologiak jasotzen den fenomeno linguistikoaren eboluzioa jarraitu nahi luke. Erantzunak ordenatzeko beste metodorik ere bada, esaterako erantzun berdin gehienetik gutxienerakoa; edo alderantziz, gutxienetik gehienera; edo, azkenik, zerrenda hutsa eskeintzea erizpide finkorik jarraitu gabe.

Gure jokabidea aski arriskutsua da bi alderditatik. Aurrena, euskararen fonetikaren historian hutsune aunitz da oraindikan fenomenoen bilakabidea eta berreraikitzea ezagutu ahal izateko; beraz, bilakabide hori ezarri nahi izateak arrisku galanta darama berekin. Bestalde, erantzun bakoitzaren barnean hizkuntz fenomeno bat baino gehiago gerta daiteke bilakabide ezberdinekoa. Horregatik, zenbait mapetan harrigarri gerta daitezke ezarri diren eboluzio formak, baina ez da ahantzi behar gure erizpidea kasu bakoitzean aztertzen zen fenomenoari lotzea izan dela, hitz edo adibide berean agertu zitezkeen beste fenomenoak baztertuz.

Erizpidea, beraz, aski argia da, baina praktikan sortu dizkigu hainbat arazo, eta zenbait erabaki zalantza haundiekin hartu dira.

### 6.5.3. Mapen automatizazioa

Mapen prestakuntzaren bilakabidearen azalpenari jarraituz, orain mapen marrazkiari buruz hitz egitea dagokigu.

Gure lanaren helburua, galdekizun fonetikoa prestatuz beste, atlasak egiteko metodologia bat eskeintzea zenez, beharbeharrezko generitzon ekintza honetan ordenadoreen ekarriari, ez gintezen, alde batek, lehen urratsetatik atzeratuak hasi eta, bestalde, aurrerapen horren ukaezinezko abantailez balia ahal izateko.

Beste kapitulu baten (4.2.5.) ikusi genuenez, ordenadoreen erabilpena ikerketa linguistikoan 60-ko hamarkadan hasi zen,

baina, orain artekoan behinik behin, erabilpen eta laguntza mugatua izan da, datuak zenbatu eta ordenatzekoa eta maiztasunak zehaztekoa nagusiki. Halere, hori ez da gutxi atlasak egiterakoan, izan ere batzen den informazioaren kopurua hain haundia izanik, teknika konputazionalek oso onura haundia dakarkiote alor honi.

Mapen kartografiaketa ere lan zehatza eta neketsua da, eta hau ere egin daiteke automatizazio teknikekin, honela asko erraztuz lana eta emaitzak ere hobetuz. Ez genuen, beraz, ezpairik izan teknika hori erabiltzeko gure proiektoan.

Argi genuen hasieratik ahalegin denak egin behar genituela metodorik modernoenak erabiltzeko. Egungo teknologi aurrerapenek abiada haundia daramate, eta areago informatikaren esparruan. Aldaketa horiek beti hobeagorako direlarik, ez luke bururik gaurgero gainditurik diren tekniketara lotzea. Tarjeta zulatuak dagoeneko baztertutzat har daitezke, eta egungo datuen base sistemek edozein informazio mota sartzeko eta gero nahi den bezala erabiltzeko aukera eskeintzen dute.

Mapen kartografiaketarako "plotter" delako arkatza erabili ohi den arren bakarrik, guk teknika aintzinduagoak erabili ahal izan ditugu, alderdi orotarik hobekuntza teknikoa suposatu dutelarik: nahiz denbora gutxituz, nahiz burutze osatuagoa lortuz, nahiz, edo, hitz gutxitan esanda, ordenadorea probetxu haundiagoz erabiliz.

Beraz, datuen basean, traskribaketa fonetikoaz ari ginenez gero, aldez aurretik kodeturiko datuak sartu genituen, betiere ordena finkatu baten arauera; ordena horren berri eman dugunean esan dugu bilakabide fonetikoari dagokiona dela. Txulia zitekeen, bai, mapen eskuzko idazketa, gaur ahalezko delako landu gabeko datuak sartzea, hala nola tokia, lekukoa, erantzuna eta zernahi dela ere, eta gero ordenadoreak berak dagozkien erresultado kartografiatuak ematea. Alabaina, guk aurkezten dugun informazio linguistikoa bere bilakabide fonetikoaren arauera eman nahi izango bagenu ordenadorez, ezinbesteko galdera bati erantzun behar-

ko genioke: nola diseinatu programa gero ordenadoreak datu horiek behar bezala ordenaturik prozesatu ditzan? Erantzun bat baino gehiago ez dago; arazoa ez da teknologikoa, teknologiak, berez, ematen zaion oro hartzen bait du, geure aurrerizpide linguistikoena baizik. Guk geuk zalantza haundiak baditugu edozein bilakabide sinalatzeko, ez da posible ordenadoreari agindu sistematiko eta mugiezinak ematea, beti operatu behar bait du aldez aurretik emaniko informazioaren arauera.

Edonola ere, mapei eskatzen zaiena toki bakoitzeko informazioa da, eta, izan, informazio hori izan ohi dute; aipaturiko arazoa, beraz, baztertua geldituko litzateke.

Ordenadoreen erabilpenak gaur egun beste aukera batzu ere eskeintzen ditu. Emilia V. ENRIQUEZ-ek (1986) informazio fonikoen analisi automatikoa egiteko programa bat prestatu du. Programa horren bidez zera lor daiteke (1986,96):

> *"las tablas de frecuencias absolutas de las realizaciones que, de cada alófono, presenta cada informante, en cada Punto Geográfico y en cada Territorio, así como las tablas totales de cada territorio (unificados los puntos) y del total de la muestra (unidos todos los territorios); se calculan, además, las frecuencias relativas (traducidas a porcentajes) del uso que cada informante hace de cada uno de los alófonos y del uso que, de cada alófono, hace cada uno de los informantes."*

Programa hau ere, ordea, atlasek eskeintzen duten informazioaz baliatzeko asmoz egina dago, eta, beraz, lehengoan gaude, ordenadorean aldez aurretik sartu beharko duelako informazioa, autoreak berak onartzen duen bezala, ENRIQUEZ (1986,95):

> *"el interesado deberá rastrear, en los diversos mapas en los que se registran las transcripciones fonéticas, las diversas realizaciones alofónicas que*

*sean de su interés y deberá determinar cuáles y cuántas son éstas."*

Guk, berriz, abantaila haundia dugu, datuak sarturik daudelako ordenadorean, eta nahi den analisirako programa ezarri besterik ez dugu. Halere, gure korpusa mugatua delarik, ez dugu beharrezkotzat jo datu estatistikotan sartzea.

Ondorioak onak izan direlakoan gaude, eta pozik gaude baita ere nahiz diseinoa nahiz marrazkia nahiz inprimaketa erabat automatizatuak izan direlako. Pentsatu nahi genuke honekin bide edo bidexka berri bat ireki dugula euskal eta estatuko linguistikan. Dena dela, garbi gelditu zaiguna zera da, datuak asko gehitzen direnean ordenadorearen erabilpena ezinbestekoa dela atlas linguistikoa egin ahal izateko.

Guk ezin burutu ahal izango genuen José Antonio RUIZ DE OLANO informatikoaren laguntzarik gabe. Honek gure ideiak, ez beti behar bezain gardenak, jasoz prestatu ditu programak eta gauzatu ditu eginkizun teknikoak.

### 6.5.3.1. Garapen informatikoa

Mapen diseinorako lan informatikoak bi alderdi tekniko ditu:

1. Hardware ekipoa, beharrezkoa programen garapenerako. Ordenadore pertsonalen motako ekipo indartsua erabili da; eta honako elementu hauek ditu:

. Unitate zentrala: IBM-ko PS / 2, 80 eredua, honek ditu 80386 prozesadorea 80387 koprozesadore matematikoarekin eta 2MB-ko memoriarekin.

. EGA erabakibideko kolorezko pantaila mota.

. EPSON SQ-2500 inpresora 24 puntutako tintazko iniekzioarekin.

2. Mapak egiteko behar izan diren programak 3 taldetan sailkatzen dira:

a. Datuen basearen eragintzarako programak, zeintzuk dituzten herrigune bakoitzeko datuak eta 459 hitzen ahoskera.

Datuen basean zenbait kode erabiltzen dira ordenadorearen tekladoak ez dituen letrak edo sinboloak ordezkatzeko, esaterako letra grekoak, estandarizatu gabeko sinboloak, ...

b. Diseinoko programerako (CAD) aginduak sortzeko programak. Programa hauek datuen basea eta ordenadorez lagundutako diseinoko programa komertziala (CAD) elkartzen dituzte. Zailtasun haundienak programa honetan dautza, datoen baseko datoetan (letrak eta kodeak) oinarrituz, CAD-eko programa estandarrarentzat ulergarri izan behar diren marrazkiak egiteko agindu sail bat finkatu behar duelako.

Prozeso osoa programa honetan automatizatzen da; zenbait datu landugabetan oinarrituz, aginduak ematen dizkio agindu horien arauera mapak marraztu behar dituen programari.

c. Ordenadorez lagundutako diseinoko programa (CAD). Programa komertziala da (ez programa egileak sortua). Programa honek mapak edo planoak egiteko aginduak pertsona batengandik hartzen ditu, baina gure kasuan lehen azaldu dugun aginduen programatik hartzen ditu, honela mapen diseinoaren bilakabide osoa erabat automatizatua gertatzen delarik datoen basean oinarrituz.

## BIBLIOGRAFIA

Bibliografia hau osatzeko, doktoradutza lan honetan erabili diren gai ezberdinak hartu ditugu kontutan. Dialektologia orokorra, esaterako, eta hor sar daitezke bere historia, hizkuntz atlasak, galdekizunaren prestaketa eta abar, hau da, ale honetan sartzen dena, ongi bereizten da bigarren alean agertzen den fonetika hutsetik. Hortaz, ale honetan lehenbiziko gai multzo horri dagokion bibliografia saila baizik ez da emanen, fonetikako lanak ere, euskaldunak batipat, kontsultatu diren arren galdekizun fonetikoak prestatzeko. Honela, fonetikazko bibliografia oro, nahiz orokorrekoa, nahiz euskararena, bigarren alean sartuko da, hura baita fonetikari osoro eskeinia.

Erreparatu behar da, bestalde, lehen ale honetako gaiak ugariak eta aski bereziak direla, dialektologiarik orokorrenetik euskal dialektologiako beraritasunera igarotzen bait da. Horregatik, egokiago iruditu zaigu gaien arteko bereizketa bibliografian ere zaintzea.

Lehenengo eta bigarren kapituluek, Dialektologia orokorrari dagozkionak, alegia, bibliografiaren lehen atala hartzen dute. Euskal Dialektologiaren historiak bibliografiaren bigarren atala. Laugarren eta bostgarren kapituluek, atlas linguistikoenak, hirugarren atala. Azkenik, bibliografiaren laugarren sailak gainerakoari dagokio eta Nafarroa-ri bereziki:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| I. | atal bibliografikoa: | | | 1. eta 2 gaiak. |
| II. | " | " | : | 3. gaia. |
| III. | " | " | : | 4. eta 5. gaiak. |
| IV. | " | " | : | gainerakoak. |

Bibliografian, beraz, textuan aipatu diren lanak jaso ditugu; baina horiez gain jaso ditugu oinarrizkoak diren beste asko ere eta gure formazio orokorrerako ezinbestekoak izan direnak. Hala eta guztiz ere, kanpoan gelditu dira erabili ditugun hainbeste, gaiarekin zeharbidez zerikusirik dutenak, eta bibliografian sartuz gero, neurririk gabe luzatuko luketenak. Arrazoi beragatik utzi ditugu euskal dialektologiari dagozkionak ere, gaian bertan aipatuak eta reseinatuak izan bait dira.

Honekin batera beste mapa bat komentatu beharrekoa da hemen: "itsi"-"hertsi" (285) mapa, hain zuzen. Agertzen diren aldakiak honako hauek dira: "etsi", "ertsi"; "itsi" eta "itxi". Datu hauen aurrean argi gelditzen da bokala ez dela itsi sabaiko kontsonantearen eraginez. Bestalde, isoglosak ere ez dira parekoak, justu trukatuak baizik. Hemen asimilaketa kasu baten aurrean gaudela esan beharko litzateke.

Belareko kontsonantearen aurreko "e" bokala ere itsi egin da, "egitai" (108-109) hitzean ageri denez, ia kasu denetan "igitai" ebakiz.

## 11 ETXERA (17)

"e": - Hasierako posizioan, silaba askean.
-Tarteko bokala, silaba askean.

Hasierako bokalari dagokionez aurreko mapetan esandakoa hemen zehaztasun haundiz betetzen da, bai fonetikaren, bai distribuzioaren aldetik.

Tartekoak, berriz, ongi gordetzen du bere jatorrizko tinbrea. "Itxia", baina "itxera", mugagabean "iru itxe" egin den erara, armonizazio bokalikoak bere eragina forma mugatuetan duelarik bakarrik. Beramendi-n, esaterako, dardarkariaren galeraz "itxéa" egiten da adlatiboan, eta nominatibo mugatu singularrean ere "itxéa". Hortaz, hitz barruan espero zitekeen "e /i" bereizketa, kasu honetan eduki morfologikoak bereizteko balioko lukeena, hain zuzen, ez da gertatzen.

Azkenik, beste kasu bat azaldu nahi genuke "e-" bokalari dagokiona. "Eke" (175-176) hitzean "ike" aldakia ere jaso dugu. Bapatean, disimilaketa kasua dela esan daiteke, baina "eke, ekea → ekia → ikia" ere izan daiteke, "ikia" ebakitzen duten tokietan armonia bokaliko mota hori egiten bait dute mugatuetan, Arantza, Ituren eta Erasun-en. Mugagabeetan, berriz, "iké aunítz" (Erasun eta Arantza), eta "ikí aunítz" (Ituren), "irú itxé" kasuarekin bat egiten duelarik erabat. Horregatik, asimilaketa gertatzen dela esatea egokiago dela uste dugu.

## 12A HERRI - 12B HIRU HERRI - HERRI GUTXI (18-19)

"e": - Hitz hasieran, silaba askean.

Aurreko mapetan "e" bokalak isteko joera agertu badu kontsonante sabaikarien eta asimilaketaren eraginez, hemen tinbrea irekitzera jotzen du. Dardarkari aurrean aurkitzeak eragiten dio (9) eta ireki egiten du, bi irekiera bereiz daitezkeelarik, bata "oso irekia" eta "irekia" bestea, beti bezala erizpide inpresionistaz edo entzumen hutsez ari garelarik.

Berezi ditugun bi "e" horien artean, ez da batere pertinentziarik gertatzen eta, distribuzio geografikoaren aldetik ere, joera orokorra eta normalena, grabaketa askean ageri den bezala, oso irekia egitekoa da, eta behin, forma mugagabean, ageri den aldaketa bakarra ez dago aipatu beharrik ere.

## 13A HARRI - 13B LAU HARRI (20-21)

Hitz hau, "herri / harri" bikotearen bidez, "e / a"-ren arteko oposaketa mamitzeko sartu da galdekizunean(10). Halere, gauzak ez dira hain garden ageri. Irekiera balitz bokal biak elkarren artean bereizteko arrazoia, non ezarri bien arteko muga, "e" bera hain irekia ahoskatzen baita zenbait kasutan? Tinbreaz gain besterik ere izanen dela pentsa daiteke, artikulazio lekua, esaterako. Artikulazioarena ezaugarri bereiztaile hagitzik ere tinkoagoa da, eta "e"-ren kasuan, "a"-rena baino aintzinduagoa denez, pertinentzia osoa har dezake agian.

## 14A TXERRI - 14B HIRU TXERRI (22-23)

"e": - Kontsonantea eta bokala, silaba askean.

Hemen ere dardarkari baten aurretik doa aztertzen ari garen "e" bokala. Baina hemen, aldiz, tinbrea oso gotor gordetzen da, batere aldaketarik gabe. Ireki egin zitekeela uste genuen, (B) egiten den tokietan "txarri" izatera iritsi bait da, baina guk batere aldaketarik gabe jaso dugu. Azentuak, leku batzutan tonikoa gertatzen delako silaba hau, ez du batere eraginik izan, eta ageri diren isoglosa ezberdinak kontsonante xistukariari eta armonizazio bokalikoari dagozkienak dira.

Hitz honetaz zera esan nahi genuke, emakumezkoek sabai-aurrekoz ahoskatzera jotzen zutela, "txerri", alegia, eta gizonezkoek, berriz, mihipuntako hobietakoz, "zerri". Nolanahi ere, alternantzia fonetikoa gabe, semantiko-adierazkorra da, "zakur / txakur" hitzean gertatu ohi den bezala, (265-266) mapak.

## 15A BELE - 15B BELE GUTXI (24-25)

"e": - Kontsonantea eta bokala, silaba askean.
- Kontsonantea eta bokala, azken posizioan.

Bi mapetan agertzen da, berriro ere, "e" kontsonantearen ondoren eta silaba askean; kasu honetan, kontsonante albokari batez jarraiturik. Hemen ere tinbrea aldaketarik gabe mantenitzen da eta berdin (25) mapan, lexema mugagabean; azentuaren posizioa da aldatzen den gauza bakarra.

Forma mugatuetan, bigarren silabako bokal ertainak aldaketak ditu, armonia bokalikoa dela bide sortuak. Forma mugagabeetan ongi gordetzen da bokala, ikus daitekeen bezala. Ituren-en

"beli gutti" ebaki dute A eta B lekukoek, hirugarrenak, berriz, "bele gutti". Alternantzia hauek, armonia bokalikoaren eraginez maiz samar agertuko direnak, bestalde, lexemaren jatorrizko azken zein izan ote daitekeenaren zalantza sor dezakete.

Ez dugu, bestalde, (B) egiten den "bela"-ren gisako ebakerarik jaso, ez bait da, azken hau, fonetikari dagokion fenomenoa, fonetika sintaktikoari baizik. Morfologiari dagokion "-a" mugatzailea den morfemarekin sortzen diren nahasketaren ondorioa da hori. Ikus, honi buruz, MITXELENA (1977,128).

## 16A EGUZKI - 16B LAU EGUZKI (26-27)

"e": - Hasierako posizioan, silaba askean.

Mapan ageri diren emaitzek bi zati nagusi agertzen dituzte: "e- / i-" (11). Lehenengoa Mendebaldeko bazterrean gertatzen dena: Aldaz, Erasun, Goldaratz, Beramendi-n; gainerako toki guztietan "i-".

Aurreko mapetan ere fenomeno berdina agertu zaigu sarri askotan. Hemen asimilaketa gertatu da: bokal irekia itsi egin da ondorengo bokal itsiaren eraginez, (Ikus (1) mapa, "ekusi / ikusi"). Esan dugun bezala, fenomeno zaharra da: Etxepare-k eta Leizarraga-k "iguzki" erabiltzen zuten; Bizkaieraren lekukoek, ostera, "Refranes y Sentencias", Garibay-k eta abarrek, alegia, "eguzki". Hersketa zaharra den arren, hitz honetan bokal irekiak "ekusi"-ren kasuan baino hedadura zabalagoa hartzen du, partizipioek izan duten aldaketa sistematikoagoa izan delako, jakina.

Darabilgun lurraldera mugatuz, forma nagusia "i-"z da eta ez dugu alternantziarik jaso, Arantza-n egiten den ebakera zalantzagarri samarra baldin bada ere.

## 17A KERATS - 17B KERATSA DA (28-29)

MITXELENA-k (1977, 67) dio bokalarteko kontsonante sudurkaria den "-n-" zahar batek "e" bokala itsi egin duela "i" bihurtuz (12). Zenbait kasuren artean, *ken- batetik datorren **k(h)ino** (L), **khíño** (Z), **keru** (GN), (BN), (G), (Zar), 'gustu txarra' esanahikoa, aipatzen du. Baita horren eratorria den **kerats** hitza ere. Azaltzen dituen isoglosak honako hauek dira: (GN), (G) **ke(r)ats;** asimilaketaz, (BN), (R) **karats,** (Z) **ká(r)ats;** (GN), (R), (L), (B) **kirats**; eta (GN), (BN) **k(h)irets.**

Jaso dugun lurraldean bilakabidea honako hau da: **keratsa, kiratsa, kiretsa** ("a" itsia eta "e" irekia agertzen direlarik) eta **kietsa;** azken hau hiru silabatakoa, baina bikoa ere agertzen da, gorunzko diptongoa eginez.

Hedadurari dagokionez, ez dute batasunik ageri. Gertakizun bata zein bestea tartekaturik azaltzen dira eta ez da isoglosa garbirik jasotzen. Kasuren batean, Ituren-en esaterako, bi aldaki ere agertzen dira. Hala ere, forma nagusiena, maiztasunaren aldetik, "kiratsa" da, edo, hobeki esan, bokal ertsiz gertatzen diren formak dira, gainerako aldakiak dilaziozko kasuak bait dira. Gauza bera betetzen da mugatu gabeko formetan, sintagmaren barnean aurkitu arren ez baita aldaketarik sortu.

Esanahiaren aldetik, "kerats" hitzak balio ezberdinak ditu, batez ere Ultzama eta Baztango azpi-euskalkietan, "samina" eta "garratza"ren pareko esanahia hartuz.

## 18A IZTER - 18B HIRU IZTER (30-31)

"e": - Tartekoa, silaba trabatuan.

(18) eta (19) mapetan ikusi dugun fenomenoa agertzen da hemen ere: dardarkari baten aurrean doan bokal ertaina irekitzea, alegia. Kasu honetan, aldiz, silaba trabatuan doa eta, gainera, hitz honek ez du, bokala aldatu arren, oposiziorik sortzen, "herri / harri" kasuan ez bezala. Arrazoi horiek direla eta, agian, aldaki irekienak hedadura haundiagoa hartu du eta "a" egiteraino ere eraman dute. "Iztarra" gure mapan Beramendi-n bakarrik agertzen bada ere forma mugatuan, Basaburua-ko bailara horretan beste horrelako gertaeraren bat ere jaso dugu (13).

Mugagabean bi tokik egiten dute "iztar", Aldaz eta Beramendi-k; baina, "e" oso irekiko formak askoz ere hedadura haundiagoa hartzen du mapa honetan: Arakil eta Ultzamako azpi-euskalkietatik, berauek barne direla, Bortzirietako azpi-euskalkira hedatzen da, Erasun ezezik, Donamaria eta Sunbilla ere hartuz..

Ohar bat, azkenik, honekin akitzeko. Irekierarako, dardarkariaren eragina haundiagoa da armonia bokalikoarena baino. Izan ere, "kiratsa" > "kiretsa" gertatu arren, goiko mapan ikusi den bezala, "izter" hitzean bokal hertsiak ezin izan dio hurrengo silabako "e" tinbreari eutsi, eta ireki egin du bokal ertain hori.

## 19A EGUERDI - 19B EGUERDI LABURRA (M0TZA) (32-33)

"e": - Bokala + e + kontsonantea, silaba trabatuan.

Begirada bat aski da hitz honen konplexotasunaz jabetzeko: sortzen den hots-taldeak -kontsonante belarekoa + "u" bokala + "e" + dardarkaria- hainbat aldaki eman ditzake.

Lehenengo eta behin, hitz konposatua da, "egun" + "erdi" osagaiez eratutakoa. Elkarketa horrek "ue" bokal taldea sortzen du: aurrena, bi silabetan; hurrengo urratsa, gorunzko diptongoa; eta, azkenik, murrizketa, "u" bakarrik ahoskatuz. Beste aldaki bat ere aurki daiteke, dardarkariaren eraginez bokala irekiz nahiz bokal silabikoan, nahiz gorunzko [we] edo [wa] diptongoetan.

Gure lurraldean aldakien banaketa honako hau da: formarik hedatuena [we] da, gorunzko diptongoko "e" bokalaren tinbrea irekia edo oso irekia izan daitekeelarik. Ez du, bestalde, gune zehatz eta garbirik, azpi-euskalki guztietan sartzen bait da; honen parean [wa] forma ere agertzen da Arraiotz eta Arantza-n, baina mugagabeetan desagertu egiten da eta, horregatik, noizbehinkakotzat har daiteke, eta pertinentziarik gabea, beraz.

Diptongo gabeko aldakia ere, bi silabatakoa alegia, aski bakana da eta ahoskera zainduarekin loturik dagoena, grabaketa libreetan gorunzko diptongoa jaso bait da Auza-n, eta Oieregi eta Aniz-en ere.

Murrizketa bi tokitan jaso da, Ituren-en eta Etxalar-en, eta mugagabeetan Arantza-n eta Oieregi-n ere. Bat-bateko hizketetan aldaki hau askoz ere ugariagoa da polimorfismo garrantzitsua azalduz.

Amaitzeko, azaldu nahi genukeena hauxe da, leherkariaren ebakera hurbilkari bezala traskribatu dugula kasu denetan, Aldaz-en izan ezik, hor garbi jaso bait zen leherkaria. Halere, hurrengo elementu erdi-kontsonantikoarekin, berau ere belarekoa "w",hain zuzen, oso bat ahoskatzen denez, ez da erraza jakiten hots hori ahoskatzen ote den kasu guztietan. Edonola ere, mapan hurbilkari bezala jarri dugu, analisi espektrografikoak laguntza hobeagorik eskainiko duen itxaropenez.

## 20A GAUERDI - 20B GAUERDI ILUNA (34-35)

"e": - Erdi bokala + e + kontsonantea, silaba trabatuan.

Aurreko kasuan bezala, hitz konposatua dugu hemen ere, "gau" + "erdi". Ez du, hala ere, ingurumen fonetiko berdina, honek erdibokala bait du aintzinean, eta ezberdintasun horren ondorioa begi bistakoa da.

Konposatuak sortzen duen diptongoa mantenitzen da kasu erditan baino gehiagotan, eta azentuak, batez ere, agertzen du hitz konposatuaren zentzua gordetzen dela. Horren lekukoak Ultzama-ko bailarako Auza eta Larraintzar dira, eta iparralderago dauden Etxalar eta Zugarramurdi ere bai, hitzaren bi osagaiak beren azentuarekin ematen dituztelako (14).

Beste kasutan, diptongoaren bigarren elementu hori kontsonantizatu egiten da, tentsioa galduz eta ezpainetako hurbilkari bihurtuz -diptongoa galdu aurretik epentesi moduko kontsonantea ere sortzen da tartean-. Kasu guztietan "e" bokalaren tinbrea irekia da.

Dena den, hemen ere forma polimorfikoak azaltzen dira eta ugaritasunez, gainera. Honek nolabait agertzen du erdibokal eta kontsonante hurbilkari horien egoera eta mugak ez direla inondik ere tinkoak.

Geografiazko hedaduraren aldetik, berriro ere azaldu behar dena hauxe da, gertakizun hauek edonon eta edonola gerta daitezkeela, eta ez dutela inola ere banaketa zehatzik.

## 21 ELKARREKIN (36)

"e": - Bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.
- Kontsonantea + bokala, silaba askean.

Bokalen trukaketa, orain arte ikusi den bezala, ugaria izan ohi da eta arrazoiak ere hainbeste bilatu ohi dira, beti erabat gardenak ez badira izaten ere. Ikusi dugu hasierako bokalen estatusa aski mugikorra dela nola silaba askean hala trabatuan, eta aldakortasuna dute, kasu bereziren bat salbu, ezaugarririk nagusiena.

Hau ere bide beretik doa. LACOMBE-k (1928,168) eta MITXELENA-k (1977, 69) proposatzen duten etimologia onartuz gero, ***(h)ark-(h)ar**-etik datorrela, "ille illum" esanaiarekin, disimilaketa baten aurrean ginateke. Gertakizun zaharra, Etxepare eta Leizarraga-ren garairako aldatua, baina Bizkaieraz mantenitu dena.

Aztertu den lurraldean, toki guztietan "e" bokala ebaki da,eta ez da deus aipagarririk, Larraintzar-en gertatutako ahultasuna izan ezik.

Bestalde, Aldaz-en eta Beunza-n barneko silaban doan "e" bokalaren aldaketa azaltzen da: posizio postonikoan erlaxatu egin da; Arantza-n, berriz, galdu, dardarkaria + leherkari belare ahoskabea talde kontsonantikoa sortuz.

## 22A ERDOI - 22B ERDOI GUTXI (37-38)

"e": - Bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

Berriro ere, bokal ertaina dardarkariaren aurrean, silaba trabatuan, baina hasiera absolutuan dagoena kasu honetan. Betiko joera agertzen du, tinbrea irekitzekoa, alegia, baina ez indartsuegi, ez baita inon egin oso irekia. Hala ere, bi tokitan "a" bihurtzen da, Larraintzar eta Goldaratz-en, baina hagitz murritza da ahoskera hau, mugagabeetan ez baita gertatzen. Dardarkariarekin trabatutako aurreko adibideekin erkatuz, tokiak ere aldatu egiten dira, haietan Aldaz eta inoiz Beramendi bait ziren irekitzen zutenak.

MITXELENA-k (1977,84) asimilaketa gerta daitekeela dio, "ordoi", eta Errenderi-ko ahoskera azaltzen du adierazgarri. Guk ez dugu horrelakorik jaso aztertu ditugun lurraldeak euskalki berekoak izan arren.

## 23 ETORRI (39)

"e": - Hasiera absolutuan, silaba askean.

> *"La voyelle initiale de certains mots est tombée parfois dans la prononciation, quand la consonne ou le groupe consonantique qui la suivait était apte au moins dans l'état actuel de la langue, à devenir initiale". GAVEL (1920, 92).*

Egia esan, maiztasunaren aldetik begiratuz, "e" bokala da gehien galtzen dena posizio honetan. UHLENBECK-ek (1909,497) azaltzen dituen kasuetatik "torri, "man" lp(GN), "txaola" (G), "makume" lp(GN), "mazteki" (B), "ta" eta "izan" aditzetik sortzen diren hainbeste adizki jokatutakoak, kasu batzu besterik ez lirateke.

Aferesi hau, gure ustez, Ip(GN) gertatzen da gehien, atera ditugun mapetan ez bada hori jasotzen ere. Izan ere, grabaketa askeetan jaso ditugun datuak eta galdekizunen bitartez jasotakoak ez datoz bat, azken hauek aferesiaren kaltetarako direlarik. Mapan, Bortzirietako azpi-euskalkiko Arantza, Etxalar, Sunbilla eta Oieregi-k, Erasun-ekin batera, "e-" kontserbatzen dute, baina hizkuntz arruntean, Erasun-en izan ezik, gainerakoek oro galdu egiten dute. Zugarramurdi-n mantenitzen da eta Arakil eta Ultzamako azpi-euskalkietan alternantzia ageri da gehienbat, Ultzama bailaran aferesia bada ere ebakera arrunta, mapan ere jaso den moduan.

"Eman" formaz erkatuz (360) bada alderik. "Man" kasuak azkoz ere eremu txikiagoa hartzen du orohar, emaitzak berdintsuak badira ere. Baztan-go azpi-euskalkian bokala galtzen da -(1) eta (2) mapetan ere berdin gertatzen zen "i-" bokalarekin-, Gartzain-en mantenitzen bada ere."Emanen" kasuan ere emaitzak antzerakoak dira, ikus (379).

"Izan" (348) aditz partizipioak ere aferesia agertzen du, baina ez da Baztango azpi-euskalkian gertatzen. Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Oieregi, Donamaria eta Ituren-en bakarrik jaso da, hemen ere bat ez datozelarik galdekizunaren bitartez jasotako erantzunak bat-batean esandakoarekin.

Edozein modutan, alternantzia polimorfiko hauek, gure ustez, oraindik itsi gabe dagoen fenomeno baten ahuleria adierazten dute. Eta hizketa laxoak aferesiko kasu gehiago sortzen dituela ikusteak ere ondorio berdinetara eramaten gaitu.

Bada beste galera mota bat aferesian sartuko litzatekeena, baina beste talde batean. Latinetik hartutako maileguetan "s" likidoz hasten ziren hitzek protesi bokalikoa hartzen zuten, SPECULU(M) > espilu, esaterako. Baina, zenbait kasutan "s" hutsarekin ahoskatzen dela aurkitu dugu, eta beste kasu batzutan "e-" erlaxatuarekin, ikus, esaterako, "ezpain" (116).

## 24 HONETAN (40)

"e": - Hitz barruan, silaba askean.

Aferesiaren fenomenoa ugaria bada, ez da urriagoa "e" bokalaren sinkopa. "Abere" → **abria, abrats, at(e)ra, batre, etxeko andre, gaztanbra,** ez dira aztertzen ari garen euskalkian gertatzen diren kasu batzu baino. Aparte geldituko lirateke konposaketan eta eratorketan gertatzen direnak.

MITXELENA-k (1967, 169) (Zar)ri buruz hau zioen: "La síncopa se da en salacenco con la mayor intensidad. Es también muy frecuente en roncalés y en algunas variedades alto-navarras, y menos en aezcoano".

Bokalaren galera mota honen arrazoiak, gure ustez, ez dira inoiz sakontasunez aztertu. Azentuaren indarraren edo intentsitatearen eragina aipatu izan da, eta, izan ere, aspaldiko garaietan gaur baino azentu gogorragoa izan zitekeen, eta horren ondorioz bokalen sinkopa gertatu izatea oso posible da.


Mapan "onétan" forma jaso da eta, hain zuzen ere, azentua daraman kasutan bakarrik mantenitu da "e" bokala; beste kasu guztietan lehenengo silaban edo azkenengoan agertzen da azentua..

Arantza, Etxalar eta Sunbilla izan dira hiru silabatan ebaki dutenak hitza, sinkopa gabe, beraz. Alabaina, gertakizun hau ere ez da hain irmoa, toki horietako beste lekukoengan ikusi dugunez. Beste leku guztietan sinkopatua jaso da hitza.


### Beste kasu batzu

"e / a" bokalen alternantziaz goian mintzatu gara eta Bizkaieran kokatzen genuen "a" bokalaren aldeko gertakizuna. Gure datuetan ez dugu zalantza apurrik ere aurkitu, "e" ebaki bait da kasu guztietan; ikus, esaterako, nola mantenitzen duen tinbrea

AFERESIA




EMAN, ETORRI aditzetan gertatzen den aferesia, hizketa laxoan.






Aferesia IKUSI aditzean, hizketa laxoan.

tinkotasunez "beltz" hitzaren kasuan,(286-287), albokariaren ondoren bokalak irekitzeko eragina jasaten duen arren.

"e / i" bokalen arteko alternantzia jaso dugu, aldiz, "intxaur" (283-284) hitzean. "i" bokalaren tinbre itsia gorde du sudurkariaren aurrean kasu guztietan, normala dena bestalde, testuinguru horretan bokalek istera jotzen bait dute. Oso eremu txikia hartzen du gertakizun honek, Mendebaldeko bazterrean gelditzen diren Aldaz eta Goldaratz besterik ez.

Albokariarekin trabatua doanean, berriz, bokalak tinbrea irekitzera jotzen duenez, bietariko joera ageri da. Tinbre itsia gordetzen dute Baztango azpi-euskalkian, eta Bortzirietakoan Etxalar, Sunbilla, Oronotz-Mugaire eta Donamaria-k. Azpi-euskalki honetako gainerako herriek, Arantza, Erasun eta Ituren, -azken honetan "etxaurra", baina "eltzaurra" B lekukoak- irekia dute, eta Ultzamako azpi-euskalkiko herri denek ere bai, arestian aipatu dugun Goldaratz kenduta.

Lexemaren egoera, dituen aldakiek agertzen dutenez, aldakorra da; horrez gain, hasieran gertatzen den bokalaren estatusa ere, agian sonante baten aurrean silaba trabatuan doalako, oso mugikorra da.

Bokalaren aldakortasun bera agertzen zaigu beste hainbat kasutan, sudurkariaren aurretik joaten denean beti, eta gehienetan bokal hertsia nagusitzen da, ikus, esaterako, "nehor" (373). Edo txandakatuz ere gertatzen da, "enara"-"iñera" (374-375).

Kasu berezia da "emanen" geroaldiko partizipioarena, baina edonola ere "e" bokalaren hersketa agertzen duena. Kontsonante sudurkariaren disimilaketaz "a-e" bokalak, bi silabatako hiatotik -dokumentatzen ez dena, bestalde- "ai" diptongoa izatera aldatzen dira. Gertaerak esanguratsuak agertzen dira: "emanen" gorde dute Bortzirietako Etxalar, Arantza eta Sunbilla-n; baita Arraras-en ere, harrigarri samar gertatzen bada ere. Gainerako kasu guztietan -Erasun eta Goldaratz alde batera utziz, hauetan "emango" erabiltzen bait dute- "ai" diptongoa ebaki dute.

### 1.1.3. /a/ fonema

#### 1.1.3.1. Definizioak

Artikulaziozkoa: Behekoa, erdikaldekoa.
Akustikoa: Bokalikoa, ez kontsonantikoa, trinkoa.

#### 1.1.3.2. Gertaera fonetikoak :

[a̟] bustia:

- Kontsonante bustiaren aurrean: [amǎ̟ci], [pǎ̟árana], [bá̟n'o]
- "ai" diptongoaren aurrean: [sâ̟i]
- Dardarkari eta afrikari bizkar-hobietako edo mihi- hobietako baten aurrean: [á̟rto], [á̟ca], [á̟́ca]

[a] ertaina:

- Silaba askean: [ãma], [ara]

[a̠] belarea:

- "l" albokariarekin trabatua doanean: [a̠ĺ̪dátu], [a̠lbóan]
- "o" eta "u" boka̠len aurrean: [a̠óa]
- "au" diptongoaren aurrean: [gâ̠usa]
- Belarearekin doanean: [xá̠ri], [â̠xáta]

[ã] sudurkaria:

- Kontsonante sudurkariaren aurrean: [ã́n̂di], [lã́n̪da]
- Kontsonante sudurkarien artean: [mã́n̪do]
- (Z)-k bokal sudurkariak ditu: [ãhz̃ãte]

[ɐ] erlaxatua:

- Azenturik gabea izanik, pre edo postonikoa denean.
- Hasiera absolutuan, sudurkariaren aurretik doanean: [ɐmá].

1.1.3.3. **Fonetika diakronikoa:**

**Galera:**

- Artikuluarekin nahasteko arriskua du beti, eta horregatik galtzekoa ere bai euskalki guztietan, (Z-n eta (R)-n izan ezik, hauetan mugatua eta mugagabea azentuaren bidez bereizten direlako: [gáu̯s], [káte]
- Beste kasu solte eta asistematiko batzu: [erámbéś], [au̯tórbaléś], [aš́ól], [axól].

**Protesia:**

- [ar̃ópa], [ar̃ásou̯], [ar̃átou̯]
- Kontsonantea galdu ondoren geminatua edo bixkia aurki daiteke (15): [sahár], [saár], [sár]; [mahái̯], [mahái̯n], [maái̯], [mái̯].

1.1.3.4. **Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak:**

- Silaba askean:

  katea - hiru kate
- Silaba trabatuan:

  gazteagoa
  gazta - gazta bat
  zahar - gizon zaharra
- Sudurkaria:

  ahate - hiru ahate
- Alternantziak:

  a / e ikus /e/: "r" aurrean
  "l" aurrean
  Hitz barruan
  Azken posizioan
- Galera:

  Hitz barruan:
  ahari - hiru ahari
  nabala - hiru nabal

### 1.1.3.5.Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa:

### 25A KATE - 25B HIRU KATE (41-42)

"a": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.

Latinezko etimoa duen hitz honek, CATENA(M), bi "a" zituen jatorriz, baina euskaraz bigarrena artikuluarekin nahasi da. Dena dela, guk orain bestea jaso nahi dugu.

Mapetan ageri diren emaitzak oso berdinak dira, ez bait dira ezertan bereizten azentutik at. Bestalde, "a" bezala traskribatu da mapan, zehaztasun gehiagorik gabe. Kasu honetan, kontsonante belare batekin joateak tinbrea istera eragiten dio eta artikulagunea atzeratzera; bereizketa hori nabaria da, entzumenez hauteman daitekeena; halere, ez dugu uste izan mapetan agertu beharrik zegoenik batere pertinentziarik gabeko bereizketa horiek, eta horregatik [a] bezala traskribatu ditugu.

Forma mugagabean azentuaren aldaketa gertatzen da Arraras eta Goldaratz-en, sintagma nominalean hartzen duen tokiaren arauera. Lehenbiziko silabari azentua jarri beharraren ondorioa da hori: [kátì:], [kátiè], [írukaté], baina [kátelúsì:], [kátelúsiè].

### 26 GAZTEAGOA (43)

Hiru "a" ditugu kasu honetan:
1- Tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.
2- Bokala + bokal "a" + kontsonantea, silaba askean.
3- Azken posizioan, silaba askean (16).

Lehenengo kasuan ez dago aldaketarik, toki guztietan berdin ebakitzen delako; bestalde, goiko mapei egindako oharrek

hemen ere balio dute, testuinguru fonetiko berdinean aurkitzen bait da bokala.

Bigarren kasuan, berriz, aldaketa ugari sortu dira. Behe-Nafarreraz GAVEL-ek (1920,15) "-ago" atzizkia "o" egiten dela dio **handio, gehio, gutio,** e. ab. ebakiz. "Cette manière de traiter le groupe ao dû à l'amuïssement du g intervocalique dans le suffixe **-ago,** est contraire aux lois ordinaires de la phonetique basque, qui, ainsi que nous le disons ailleurs, tend en général à diphtonguer le groupe **ao** en **au**".

Gure datuetan dispertsio izugarria ageri da. "-ago" talde osoa Amaiur, Erasun eta Larraintzar-en gordetzen da. Taldearen kontserbazioa ere, armonia bokalikoaren eraginarekin, Etxalar, Aniz, Gartzain eta Beunza-n. Bokal erlaxatuaz, Zugarramurdi eta Goldaratz-en. Eta, azkenik, bokala erabat galdurik dutenak gainerako guztiak dira.

Sail apartean sartu beharko litzateke Arraras-ko ahoskera: "a" bokala gordetzen duen arren, gainerako talde guztia galdu egiten du eta "o" erlaxatu bat besterik ez zaio gelditzen. Aldaz-ek ere, Arraras-ek bezala, hurbilkaria galdu du, "-ua" talde bisilabikoa gordez.

Azkenengo "-a" bokalak ere erantzun ezberdinak ditu; erdiek baino gehiagok galdu egin dute morfema mugatzailea, armonia bokalikoaren eraginez "-o" edo "-u" sortu den kasutan.

Azkenik, eta hedadura geografikoaren aldetik, ez dago isoglosarik ezartzerik, aipaturiko fenomenoak nahasiak eta elkarrekin txertatuak ageri bait dira.

## 27A GAZTA - 27B GAZTA BAT (44-45)

"a": - Tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.
- Silaba askean, azken posizioan.

"Gazta" hitza "gazna"-ren parekoa da euskalkien arauera. Lhande-ren hiztegiak "gazna" lparraldeko forma arrunta bezala ematen du; "gazta", berriz, Baxe-Nafarrerakoa bezala.

Aztertu den lurraldean hitz honek isoglosa zehatzak sortzen ditu. Baztango azpi-euskalkiak, Zugarramurdi-k eta Etxalar-ek "gasna" egiten dute eta gainerako guztiek "gazta". Oronotz-Mugaire mugako hizketa ageri da bi aldakiekin.

"A" bokalari buruz ez dago deus bereizi beharrik: tinkotasun haundiz mantenitzen dela eta ez duela tinbrearen aldetik aldaketarik, kasuren baten azentua tokiz aldatzen den arren. Gauza bera esan beharko genuke azken posiziokoari buruz ere, ongi mantenitzen baita.

## 28A ZAHAR - 28B GIZON ZAHARRA (46-47)

"a": - Bokala + bokala / kontsonantea, silaba askean edo trabatuan, kasuen arauera.

Tinbre berdineko bokalen artean aspiraketa zuen hitz honek bilakabide ezberdinak agertzen ditu aspiraketa galtzean. Bi ebakera izan dira usuenak: bokal geminatu edo bixkia, eta honen parean, bokal luzea, alde batetik, eta normala, iraupenari dagokionez, bestetik. Azken bi emaitza hauek, jakina, aspirazioa galdu ondoren besterik ezer gelditu ez denean: h > ∅ alegia. MITXELENA-k (1977,110) honela zioen: "Cuando las vocales puestas en contac-

to eran del mismo timbre, el resultado más general es una vocal igual, de duración normal en la mayor parte de las hablas."

GAVEL-ek (1920,100) honako isoglosak azaltzen zituen hitz honetarako: "...à côté de **zar(r)** = "vieux" (haut-navarrais, biscayen commun, bas-navarrais de Salazar, guipuscoan, roncalais), nous trouvons les formes **zaar(r)** (Biscayen de Marquina), **zahar(r)** (bas-navarrais, labourdin, souletin) et **zagar(r)** (haut-navarrais du Baztan).

Amado ALONSO-k (1923,64), aldiz, bestelako datuak dokumentatzen ditu Baztan-en jasotako informazioan. Bere ustez, izan, bokal geminatuak dira gelditzen direnak, baina ahoskeran murriztu eta bokal luze bezala ahoskatzen dira: "zaarra > gizon za:rra".

Candido IZAGIRRE-k (1966, 465) bokal bixkiz edo geminatuz traskribatzen du Ultzama-n jaso zuen informazioa: "Ttikíe ta xaarrá órere".

Guk jasotako informazioan era ezberdinetako erantzunak ageri dira, baina denak arau nagusietan sartzen direnak. Zugarramurdi eta Amaiur-ek bokal geminatuz uste dugu, "zaarra", alegia; Donamaria eta Aniz-en bokal luzea, "za:rra"; gainerako guztiek iraupen normaleko bokal tonikoa, "zárra", Larraintzar-ko salbuespena izan ezik, "zarrá". Egia esateko, ez dugu Baztanerako ematen den "zagarra" formarik jaso. Tinbre ezberdineko bokalen artean zegoen aspiraketaren aztarnak gelditzen dira toki batzutan, baina tinbre berdineko bokalen artekorik ez. Baztango azpi-euskalkitik kanpo, Zugarramurdi-n klitxeturik dagoen forma "zagar dantza" (zaharren dantza, eta inola ere ez "sagar-dantza") izan da tinbre berdineko bokalen artean kontsonante hurbilkariarekin aurkitu dugun bakarra.

Forma mugagabean geminazioa gordetzen da lehengo tokitan, baina bokalaren luzapena aldatu egiten da : Arantza-k luzea eta ez, berriz, Donamaria-k. Dena den, aldaketa hauen balio zehatza, luzea, bixkia ala normala den, alegia, analisi espektro-

grafikoan jasotzen da ondoen, ebakeraren denbora zehaztasun osoz jasotzen bait da.

Zugarramurdi-ko bigarren lekukoak azaltzen duen aldakiak badu interesgarritasunik aspiraketa egiten bait du. Aspiraketa hau, beste kasu batzutan ere ageriko dena, hemen ahostuna da bokal artean gertatzen delako ziur aski, eta lekuko honengan bakarrik aurkitu dugu Zugarramurdi-n. Izan ere, herri horretako adin haundiko gizon horren aspiraketarekin, lehen Zugarramurdi-k zuen aspiraketaren azken hondarraren aurrean egon gaitezke.

Joan zen mendean, BONAPARTE-k (1869, XV, 3. nota) Zugarramurdi eta Alkerdi-n aspiraketa entzuten zela esaten zuen. Ez, ordea, Urdazubi-n, hau ere euskalkiz lapurtarra izan arren eta Zugarramurdi-tik hain gertu egon arren.

### 29A AHATE - 29B HIRU AHATE (48-49)

Hitz honetan, aztarna guztiek bokalarteko "n" zahar bat galdu egin zela noizbait agertzen dute garbi. Latineko ANATE(M) hitzak honako ondorio hauek izan ditu: "b. nav. lab. **ahate,** sul. **aháte,** vizc. **agate, arate(a),** a.-nav. guip. **a(a)te**", ikus MITXELENA (1977, 221 eta 300).

Aztertu dugun lurraldean lexema ezberdinak jaso ditugu. Baztan-go azpi-euskalkian "piroa" eta Basaburua Haundia bailaran "patoa". Mugaire-ko hizketan, muga-mugan dagoenez, bietara agertzen da: A informatzaileak "pirua", baina "aátia" bigarrenak. Amaiur ere, hizkuntzaren aldetik, nortasun bereziarekin azaltzen da (17), eta askotan Zugarramurdi-rekin bat egiten du. Hemen ere emaitza bikoitzak ditugu: "píroa" lehenengo lekukoak, baina "aátea" bigarrenak. Beste horrenbeste Etxalar-i dagokionez ere:

Bortzirieta-ko bailaran eta Bortzirietako azpi-euskalkian kokaturik egon arren, Iparraldeko mugan dagoenez, Zugarramurdi-rekin lotuko da hainbat gertakizun linguistikotan, ikusiko dugun bezala. Mapa honetan, "pírua" A lekukoak, baina "átia" bigarrenak.

Hitz honetan Zugarramurdi-ko B lekukoak ez du aspiraketarik egin. Forma mugagabeetan aurrekoan ikusitako joera sendotzen da. Hau da, izen sintagmaren barruan geminazioa galtzera jotzen du. Zugarramurdi-k bakarrik gordetzen ditu. Honen arrazoia aspiraketa galdu berria duela izan daiteke, agian.

## 30A AHARI - 30B HIRU AHARI

Bai aurreko mapetako lexemak, bai honetakoak, aspiraketa bigarren mailakoa dute,hau da, "n" sudurkari zahar batetik datorrena. Aurreko kasuan jatorria ezaguna genuen, ez, aldiz, honetan. Badira, halere, beste bide batzu, etimotik kanpo, aspiraketa hori berezkoa den ala ez jakiteko.

"Ahari"-ren kasuan, esaterako, gertakizun hauek ematen dira, MITXELENA (1977,303): (Z) **ahari,** (BN), (L) **ahari,** (GN) **aari, ari,** (B) **adari.** Zubererak ahoskatzen duen bokal sudurkariak agertzen du zein zen jatorrizko hotsa.

Gure mapan, Zugarramurdi-n eta Amaiur-en gordetzen da geminazioa. Bokal luzea, Oieregi eta Erasun-en ageri bada ere, oso zirkunstantziala dela bistan da, Erasun-ek luzapenik gabea bait du B lekukoarena, eta mugagabean, berriz, horrelako luzapenik ez da inon agertzen. Horrenbestez, aurreko mapetatik datozen testigantzak hemen ere mantenitzen dira.

Semantikaren aldetik hitz honek ez du hain erreferente gar-

bia. "Zikiro"-rekin nahasten da eta, bestalde, kosta egiten zitzaien, gehienetan, hitza bera esatea. "Carnero semental"-en parekoa jartzen zuten gehienek, askotan "apostutakoa" dela esaten bazuten ere.

## 31A NABALA - 31B HIRU NABAL (52-53)

"a": - Kontsonantea + bokala, silaba askean, azken posizioan.

Egia esateko hitz hau galdekizunean bokal postonikoaren galera jasotzeko jarri da. Guk biltzen ditugun hizkeretan, batez ere Ultzamako azpi-euskalkian, azentua bortitza dutenez, sinkoparen bat posible zitekeela uste genuen, baina ez dugu horrelakorik jaso, agian gogorrena bigarren bokala delako eta ez lehena.

Hitz honetan aldaketak kontsonanteari dagozkio eta horiek beherago ikusiko ditugu.

"A" bokalari buruz, berriz, honako hau esango genuke, lehenengo bokala irekiagoa iduritzen zaigula bigarrena baino. Azkenengoan, berriz, apokopea gertatzen da toki guztietan, Erasunen izan ezik. Oso normala da berezkoa duten lexemetako azken bokala, mugatzailerako erabiltzen den morfemarekin, "-a"rekin, nahastea, eta mugagabea egiterakoan, morfema delako ustetan, galtzea. Hau konstantea da hemen aztertzen ditugun hizketetan, ikusten joango garen bezala.

Esan duguna baieztatzeko, arestian ikusi den (42) mapan "katea"-ren forma mugagabea jasotzen zen eta han, Lat. CATENA(M)-etik datorrelako, berezkoa beharko lukeen bokal tematikoa erabat galdua dago.

bia. "Zikiro"-rekin nahasten da eta, bestalde, kosta egiten zitzaien, gehienetan, hitza bera esatea. "Carnero semental"-en parekoa jartzen zuten gehienek, askotan "apostutakoa" dela esaten bazuten ere.

## 31A NABALA - 31B HIRU NABAL (52-53)

"a": - Kontsonantea + bokala, silaba askean, azken posizioan.

Egia esateko hitz hau galdekizunean bokal postonikoaren galera jasotzeko jarri da. Guk biltzen ditugun hizkeretan, batez ere Ultzamako azpi-euskalkian, azentua bortitza dutenez, sinkoparen bat posible zitekeela uste genuen, baina ez dugu horrelakorik jaso, agian gogorrena bigarren bokala delako eta ez lehena.

Hitz honetan aldaketak kontsonanteari dagozkio eta horiek beherago ikusiko ditugu.

"A" bokalari buruz, berriz, honako hau esango genuke, lehenengo bokala irekiagoa iduritzen zaigula bigarrena baino. Azkenengoan, berriz, apokopea gertatzen da toki guztietan, Erasun-en izan ezik. Oso normala da berezkoa duten lexemetako azken bokala, mugatzailerako erabiltzen den morfemarekin, ": "rekin, nahastea, eta mugagabea egiterakoan, morfema delako ustetan, galtzea. Hau konstantea da hemen aztertzen ditugun hizketetan,ikusten joango garen bezala.

Esan duguna baieztatzeko, arestian ikusi den (42) mapan "katea"-ren forma mugagabea jasotzen zen eta han, Lat. CATENA(M)-etik datorrelako, berezkoa beharko lukeen bokal tematikoa erabat galdua dago.

Apokope kasua ez bada ere, "-a" mugatzailea den morfemaren galera deklinabidearen barruan ere gertatzen da zenbait kasutan. Ikus inesibo singularreko kasua, "etxean" (180), Arraras eta Donamaria-n, edo "herrian"(186), Arraras-en, eta mapa horiei egiten zaien komentarioa. Ez dira Nafarroa-ko lurralde hauek galera hori gertatzen den toki bakarrak. Zubererarako bazekarren GAVEL-ek (1923,67) fenomeno hau beste kasu batzutara ere zabalduz, eta berdin agertzen da berak "Erizkizundi Irukoitzean" jaso zituen datuetan ere, (1936,9). Ikus gainera, beste euskalkietan ere kasu berdinetan gertatzen den galera, AZKUE (1969,331) eta (B) Ondarru-rako zehazki ROTAETXE (1978,513).

Bokalaren sinkopak ere agertzen zaizkigu, baina ez oso maiz eta gainera leku mugatuetan : ikus, esaterako, "atzaparra" > "atzapra" hitzean gertatzen dena (366) Sunbilla-n, eta Arantza eta Ituren-en B lekukoekin. Edo "berantetsia" > "beran(t)sia" Bortzirietako azpi-euskalki osoan, Erasun-en izan ezik. Edo "eguraldi" hitzean (383) "a" bokalaren galera Baztango azpieuskalkian hasi eta Ultzamakoraino, toki guztietan gertatzen da gutxi edo asko.

Ikusirik gertatzen diren kasuak, lau silabatako lexemetan gertatzen dela batipat bokalaren galera esan daiteke. Batek esango luke euskal hitzaren formazioan silaba batekotik hasi eta hiru silabatakorainokoak direla, eta hortik gorakoak gaitzetsi egiten dituela euskarak. Eta hori, gure ustez, lexemak duen azentu eta doinu nagusiarekin lotzen da nolabait, hitz batek atzizki bat edo gehiago hartu arren, eta unitate fonikoa luzatu arren, ez bait du horrelako sinkoparik egiten. Ikus, esaterako, "ontasuna" (448), lexema + "-tasun" atzizkia toki guztietan osorik ahoskatua, edo "eritasuna" (450), kasu bera dena, edo, luzeagoa dena oraindikan, "ontasun aunitz" (449).

### 1.1.4. /o/ fonema:

**1.1.4.1. Definizioak:** - Artikulaziozkoa: Erdikoa, atzekaldekoa.
- Akustikoa: Bokalikoa, ez kontsonantikoa, trinkoa, lodia.

**1.1.4.2. Gertaera fonetikoak**

[o̞] hertsia edo oso hertsia [o̱], azken posizioan: [só̞ro].
Morfema mugatzailearen aurrean, euskalkien arauera [lepo̞a].

[o̞] > [u] ere egin daiteke fonetika sintaktikoaren eraginez: [bésu].

[o] ertaina, silaba askean [gosea] (18).

[o̞] Irekia, silaba trabatuan: [go̞lde], [so̞rci], [o̞c].
Dardarkarien jarraian: [ár̃o̞], [aro̞lce].
/x/ belarearen aurrean: [erlo̞xu].
"oi" diptongoan: [lo̞i].
Afrikari bizkar-hobietako eta mihi-hobietakoen aurrean: [o̞ca], [ó̞co].

[ŏ] Sudurkaria, kontsonante sudurkariaren aurrean: [ŏn̥do] Kontsonante sudurkarien artean: [nóŋgo].

[ɵ] Erlaxatua: Azentu gabe doanean, posizio pretoniko edo postonikoan: [gɵsária].
Batzutan galdu ere egin daiteke, [témpra] (R).

**1.1.4.3. Fonetika diakronikoa**

## Hersketa

. "O" hersteko joera haundia dago, honela "u" bilakatzen delarik. Zubereraz oso maiz gertatzen da, baina ez da euskalki bakarra (BN), (L) eta (GN) ere joera horretan sartzen bait dira. Ikus GAVEL (1920,24 eta hur.).

Kontsonante sudurkariaren aurrean: [ŭnca], [ŭn̪dar], [ŭnci], [aŕŭn̪t], [nŭn].

Halere, ez da erabat erregularra eta ez da sistematikoki gertatzen aldaketa, ezta Ekialdean dauden Iparraldeko euskalki horietan ere; ez dago idazle klasikoei gainbegirada bat eman besterik, Leizarraga, Tartas, Oihenart-i, "o" eta "u"ren arteko alternantziak ugariak direla ohartzeko, ez direlarik denak ortografikoak, jakina.

MITXELENA-k (1977,56) euskalki orotan arkitzen du bokala inflexionatzeko eta "on" eta "un" nahasteko joera, beste kontsonante baten aurrean batik-bat. Larramendi-k, berriz, bereizten ditu "ontza" eta "untza". Baina ez da bereizten, horrelako kasutan ez (Z) ez (L), (Azk), (Zar), (R), ez eta (GN) Baztan-en ere; bai, ordea, erakusleetan: Iparraldean, "hun-"; (GN), (G), (B) "-on"; (R) eta (Zar) "kon-"; (Aez) "gon-".

(Zar) alderantziz, "u"tik "o"ra ere gertatu da kasu batzutan: [garísoma], [larómbat].

Beste kasu batzutan ere gertatzen da o > u inflexioa, gehienbat (Z)-n eta gero (BN)-n. GAVEL-en eritziz likiden aurrean, [r] izan ezik; eta bokala tonikoa denean, (Z)-k gorde egiten du [ó], ez, ordea, (BN)-k: "arotza" (BN)"hautza", (Z) "aótza" (1920,31).

**Asimilazioak**

Eskuarki

[beor] →[bóhor]
[séṇdo]→ (Z) [séṇtho] / (R) [sóṇto]
[čékor] → (GN) [čókor]

**Metatesia**

Asimilaketa eta disimilaketa ere gerta zitezkeen arren, metatesiaren itxura osoa dute:

(GN), (BN), (L), (B), [eðój̥], (GN), (BN), (G) [oðéj̥], (Zar), (B) [oðój̥]
(GN), (G) [erdój̥], (GN), (BN), (R), [erdój̥], (Z) [erdól'a], (G) [ordój̥], (B) [ordéj̥].

[-o] **Azken posizioan**

Konposatu eta eratorrietan:

Bisilabotan: -o > -a [óso] > [osátu], [osáɣaĭ]
[usó] > [usóteɣi]

Polisilabotan: -o > ø *ardano Ekialdean [ardánce], (G), (B), (L) [ardáŋ̊deɣi].

## 1.1.4.4. Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak

- Silaba askean:
  - beso - hamar beso
  - arotza - lau arotz
  - aho - aho txikia
  - ardo - ardo asko
- Silaba trabatuan:
  - hondar - hondar hori
  - ontzi - hainbeste ontzi
  - hontz - laun hontz
  - bortz
- Alternantziak:
  - o / u ikus goian
  - o / e ikus /e/
- Aldaketak:
  - Azken posizioan:
  - zoratu

Galera:

- denbora
- goroldio

### 1.1.4.5.Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

#### 32A BESO - 32B HAMAR BESO (54-55)

"o": - Kontsonantea + bokala, azken posizioan.

Bokal honen artikulazioa, forma mugatuetan, loturik dago ondorengo "-a" morfemarekin. Berez, "-oa" taldeak bokal ertaina isteko tendentzia dauka. Era guztietara gertatzen da "besoa"-ren ebakera, azentua bera ere tokiz aldatzen delarik. Ez dugu, hala ere, loturarik aurkitu azentuaren eta bokalaren tinbrearen artean.

Mugagabean, testuinguru ezberdinetan jaso bada ere hitza, ez da aldaketarik ikusi. Auza-k "o" itsia egiten du, ondorengo bokalaren eraginez, agian (19). Mugatuan "besúa" izan da maizen egin den forma, eta mugagabean "besó", azentuari leku berean eutsiz.

Armonia bokalikoaren gertaera eta hedaduraz beherago hitz egingo dugu.

#### 33 ZORATU (56)

"o": - Kontsonantea + bokala, silaba askean.
- Azken posizioko bokalaren aldaketa.

Kontsonante xistukariarekin, bizkar-hobietako igurzkari ahoskabearekin, silaba askean doan kasu honetan ez du batere aldaketarik bokal honek. Ertain mailako ahoskera mantenitzen du eta xistukariak duen aldaketak ez dio ezertan eragiten.

"Zoro" hitzarenn azken bokala, "o", hitz eratorrietan aldatu egiten da. Mapan jasotzen den kasuan "-tu" adizkiak sortzeko

"Zoro" hitzarenn azken bokala, "o", hitz eratorrietan aldatu egiten da. Mapan jasotzen den kasuan "-tu" adizkiak sortzeko morfemak aldatu du, baita morfemaren aldaki ahostuna jasotzen badu ere, ikus "zorau" (G) Azpeitia, AZKUE (1969,187 eta 521). Arrazoia, "-atu" atzizkia osorik hartu duelako izan daiteke, agian. Horren alde egongo lirateke parean gelditzen diren beste eratorri batzu, "zoraldi" esaterako. Baina horren kontra, ordea, "zoramen" (B) 'locura', (GN), (B), (BN) 'júbilo', 'azoramiento', (B), (G) 'insistencia', AZKUE (1969,69), edo 'zoragarri', euskalki guztietan erabilia, "-men" eta "-garri" atzizkiez sortuak.

## 34A AROTZ - 34B LAU AROTZ (57-58)

"o": - Tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

NAVARRO TOMAS-ek (1925,598) afrikari bizkar-hobietako xistukariaren aurretik joaten denean "o" bokala ireki egiten dela dio (20). Gure ustez, ez da aurrekoarekin ezberdintasunik nabaritzen eta mugagabean ere ez da ezer berezirik ageri.

Baztan-go Aniz-en bokalarteko hotsa -dardarkari biguna nagusiki, baina hurbilkari belarea Gartzain-en eta Amaiur-en ebakitzen denera lotuko bagina- galdu egiten da, "ao" sekuentzia bokalikoa hiatoan gertatzen delarik. Baina horrek ez du bokalen tinbrea aldatu eta "ua" egiteko eraginik, lehen (BN) euskalkian ikusi dugun bezala. Izan daiteke, agian, kasu honetan galera gertatu berria eta bokalaren aldaketa eragiteko oraindik denborarik ez izatea.

Semantikaren aldetik, Aldaz-eko erantzunak harritu gintuen, hiru lekukoek "erreroa" erantzun bait zuten; galdua dute hitza, erantzun horrek ez bait du beste arrazoirik.

## 35A AHO - 35B AHO TXIKIA (59-60)

Berriro ere aspiraketarekin topo egiten dugu bokal artean, kasu honetan tinbre ezberdineko bokalen artean. Hegoaldeko euskalkietan bokalarteko aspiraketa galdu zenean, haren ordez "g" hotsa gelditu zen hainbat kasutan. Ikus, honi buruz, GAVEL (1920, 473 eta 352) eta MITXELENA (1977,221).

Mapa honetan, lehenbiziko, bokalismotik at gelditzen bada ere, Zugarramurdi-ko ahoskera komentatuko dugu. Bokal ezberdinen artean egiten zen aspiraketaren ordez, igurzkari belare ahoskabea [x] egiten dute eta igurzkaritasuna indar berezi batez mantenitzen dute bere artikulazio puntutik kanpo, gure ustez. Gertakizun aparta da aldaketa hau, beste inon gertatu ez dena, eta originaltasun hau bere berritasunetik datorkio dudarik gabe, mende honetan gertatu den fenomenoa bait da. Guk jaso dugunez, ahoskera hau arrunta da Zugarramurdi-ko hiztunen artean. Halere, B lekukoak ez du horrela egiten, Zugarramurdi-n une honetan den ahoskera arruntetik aldendu egiten delarik. Ez gaitezen ahaztu lekuko honek aspiraketa egin egiten duela, eta egiten ez duen kasutan ez du galdu den aspiraketa beste hotsez ordezkatzen, Iparraldeko hizkelkiekin, Lapurterarekin, batez ere, parekatu daitekeelarik bere bilakabidea.

Zugarramurdi-z aparte, ahoskera arruntena hurbilkari belare ahostuna da, eta horren parean hurbilkari ezpainetakoa toki batetan bakarrik: Arraras-en (aldaketa honetaz, leherkarietan hitz egingo da). Azkenik, Arantza eta Sunbilla-n "aba" egiten dute. Ez dugu uste "aboa" hitzetik datorrenik, "o" bokala oso tinkoa gertatzen baita. Horren bilakabidea honako hau izan daitekeela uste dugu:

"aho→ao + -a > aoa > aua > aba"(21). (Ikus "au" diptongoan, fenomeno hau bera).

Zugarramurdi-ko ahoskeran "o" bokala ez da irekitzen,belare igurzkariaren ondoren doan arren. Beste aldaketak bokalen armoniarekin loturik daude eta, azentua bortitzena duten tokietan,

Ultzama-n, esaterako, "ua" hiatoaren ordez ere izan daitekeela uste dugu, [áɣuà] ebakiz. Edozein modutan, hori analisi akustikoan ikusiko da hobekiago.

Forma mugagabeetan ez da aldaketa haundirik. Ituren-go A lekukoak bokal tematikoa "-u" ebakiz, nahasketa eta jatorrizko tinbrearen galera agertzen du. Ez da, hala ere, erantzun hori tinkoa herri horretarako, (B)-k "-o" forma mantenitzen duelako.

## 36A HONDAR - 36B HONDAR HORI (61-62)

"o":- Hasierako posizioan, kontsonante sudurkariz jarraiturik, silaba trabatuan.

> *"Chez un grand nombre d'individus, l'o subit un commencement de nasalitation lorsqu'il est suivi d'une nasale appartenant à la même sillabe que lui", GAVEL (1920,22).*

Kontsonante sudurkariz trabatua doan "o" bokala erabat sudurkaria ez bada ere, ez dago zalantzarik bokal sudurkaritua dela, eta horrela traskribatu dugu kasu guztietan.

Fonetika historikoari begiratuz, badu bokal honek zerbait gehiago ere aipatzeko. MITXELENA-k (1975,55), garai zahar batean, bi "o" mota, bata irekia eta bestea hertsia, eta bi "u" mota, irekia eta hertsia hauek ere, izanen zirela zioen:

> *"Puede pensarse que /u/ tenía una realización abierta en un número reducido de contextos y otra más cerrada en los demás: algo parecido ocurría en /o/ aunque era aquí acaso la más corriente la realización abierta".*

Eta gertaera hauen mugak autoreak berak jartzen ditu (1977, 55-56):

> *"En líneas generales, se diría que el límite coincide con la frontera franco-española. De las variedades de la Alta Navarra, el baztanés parece ser el más próximo a los dialectos vasco-franceses: en este aspecto como en otros va más bien con el labortano que con las otras variedades alto-navarras. Por el contrario, el aezcoano, el salacenco y roncalés coinciden a este respecto con los dialectos occidentales. Se trata por lo general de casos de o ante nasal más consonante derivados de* ***on*** *'bueno',* ***(h)undar*** *'fondo, residuo', derivado de* ***ondo,*** *cuya o es más general;* ***untzi*** *'vasija' 'nave', etc. Hay que añadir el tema de los caso oblicuos del demostrativo de primera persona,* ***(h)un-*** *en los dialectos occidentales* ***on-,*** *ronc. sal.* ***kon-,*** *aezc.* ***gon-".***

(61) eta (62) mapetan espero, zitekeenaren kontra, Baztango azpi-euskalkian ez da tinbrea isten "u" ebakiz, eta Zugarramurdi-n ere ez. Gorrosueta-k IRIGOYEN (1962,178) eta IZETA-k ere (1985,595) "ondar" dakarte. Amaiur-ko ahoskera hurbiltzen da apur bat "o" hertsia ebakiz, Ituren-goarekin batera. Erasun-en bakarrik jaso da "un-" eta hori "o" hertsiarekin txandakatuz. Hitz honi dagokionez, bada, nahiko zirkunstantziala da fenomeno hau.

## 37A ONTZI - 37B HAINBESTE ONTZI (63-65)
## 38A HONTZ - 38B LAU HONTZ (66-67)

"o": - Hasierako posizioan + kontsonante, silaba trabatuan.

Aurreko mapetan aztertutako kasuarekin jarraitzen da hemen, kontsonante sudurkari baten aurrean doanean tinbrea hertsia zuen "o" zahar baten bilakabidea ikusiz, alegia. MITXELENA-k (1977,56-57) Iparraldeko euskalkietan batipat gertatu zen fenomenoa dela baldin badio ere, Hegoaldeko euskalkietan ere aldaketa hori gertatu zela dio, batez ere bokalak eta sudurkariak osatzen duten taldearen ondoren beste kontsonante bat doanean, "hontz" hitzaren kasuan bezala (22).

Hemen jasotzen diren kasuetan, "hondar" hitzarekin erkatuz, askoz ere ugariagoa da hartan "u"ren aldeko ebakera; eta "hontz" hitzaren kasuan ere, "ontzi"-renean baino ugariagoa. Azken honetan bokal hertsia Baztango azpi-euskalki osoak egiten du, azpi-euskalki horretakoa ez den beste herriren bat hartuz, bazilazioekin bada ere azken hauetan. Ituren-en, adibidez, A lekukoak ez du bokala isten, baina bai B-k eta hirugarren lekukoak. Harrigarriagoa da Zugarramurdi-n gertatzen dena, A-k itsi egiten bait du forma mugatuan, baina ez mugagabean, B-k, ordea, bietan isten du.

"Ontzi"-ren kasuan, esan bezala, "u" forma mugatuagoa da Baztan-go azpi-euskalkian, Amaiur-ek bakarrik isten bait du, baina zabaldu egiten da gehiago beste azpi-euskalkitara: Ultzamakoan eta Bortzirietakoan "hontz" hitzak baino eremu haundiagoa hartuz.

Ezin daitezke aipatu gabe utz ageri diren txandaketa larriak. Mugatuan Arraras-ek eta Etxalar-ek "o" bokalarekin ebakitzen dute, baina mugagabean biek isten dute bokala. Era berean, mugatuan "o" hertsia egiten dute Oieregi-koek, baina "u"z ageri da mugagabean.

kin, "u"rekin, ebakiz, Zugarramurdi, Amaiur, Gartzain eta Aniz daude. Arraiotz-ek, berriz, alternantzia aurkezten du lekukoen arauera. Beste guztiek, bokal irekia.

Ez da beste horrenbeste gertatzen "ontasun" lexeman (448), bokala inon ez bait da isten ez forma mugatuan ez eta mugagabean, Amaiur-ek bakarrik "o" hertsi bat egiten duelarik, baina erabat herstera ailegatu gabe.

(84) mapan "huntz" ('hiedra') batzen da eta han, ikusiko den bezala, "u" bokala tinkoa ageri da batere aldaketarik gabe.

Datu hauetatik ondorio bat atera daiteke: ez dela hersketa hori batere irmoa; aldaketak ageri direla, ugariak gainera, eta ezin daitekeela inondik ere bilakabide hertsi batean gaudela esan.

Kontutan izanik Baztango azpi-euskalkia hartu dugula, -Baztanerako fenomenoa hertsia bezala, "u"-ren alde, alegia, azaltzen bait da- eta jaso diren emaitzen aldaketak nahiko bortitzak ikusi direla, atera beharko genuke autore zaharrengan ortografian ageri diren alternantziak ez direla izanen hainbeste normalizazio ortografikoaren faltaz, ahoskeraren eraginaren ondorioz baizik.

Hemen, berriz ere, grabaketek sortzen duten bat-batekotasunaren falta somatzen da eta ematen ditugun datuen pertinentzia zenbaterainokoa den kezka sortzen zaigu. Edozein modutan, polimorfismoa sortzen dela garbi dago; eta, "hontza", 'lechuza' eta "huntza" 'hiedra', askotan baina ez beti, bat egiten direnez, agian, "hun(t)zostoa" sortzeko beharra sentitu dute "huntza" 'lechuza'-tik bereizteko. Hain zuzen ere, hontza > huntza gertatu den tokitan, ez denetan, "hunt(z)ostoa" ageri bait da.

"o" → "u" aldaketak oso ugariak izaten dira arrazoi ezberdinakatik. Ikusi ditugun kasuetatik kanpo, badira beste batzu ere orokorki dilaziokoak direnak eta aipatu beharko genituzkeenak.

Dilazio erregresiboz (88) mapan **mogitu** eta **mugitu / muitu / muittu** egitera bilakatzen da bokala, tartean "o" hertsi baten ebakera ere dagoelarik.

## 39 BORTZ (68)

"o": - Tarteko bokala + kontsonantea, silaba trabatuan.

Aspiraketa gertatzen den tokietan "au / ahu", "eu / ehu", "ei/ ehi" bereizten dira: **ahuntz, ehun, behi, auntz, eun, bei.**

Tokiren batzutan ez dira beti diptongo egiten: [be-i-dže] (Azkoitia), [be-i-še] (Ondarroa).

Euskalki batzutan bokalak elkarren artean bereiztera ere iristen dira, kontsonante bat tartean sartuz, "g" ala "r" edo "l" ala "n" disimilazioz:

(GN) Baztan-en, (Zar), eta (B) Markina-n: **ahuña → aguña; lohia → logia; bahea → bagea.**

Diptongoen maiztasuna ez da berdina euskalki denetan, eta maiztasun hori gehituz joan da eskuarki, monoptongazioz galdu ere egin diren arren. Kontsonante leherkari ahostunak eta dardarkari bakunak erori ahala, hiatoak diptongo bihurtuz joan dira; zaharragoak dira bokalarteko "n"-ren erorketaz sortu direnak, eta areago aspiraketaren galerak sortu dituenak.

### 1.2.1.1. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

- "Au"

- Gordetzen da: hauspo - hiru hauspo
- Aldaketa: gauza - lau gauza
  gau - hiru gau
- Murrizketa: baraurik
  arraultza - lau arraultza
- Distribuzioa: ahul

- "eu"

- Murrizketa: euskara
  euri - euri hau
- Distribuzioa: leun - larru leuna
- "ai"

- Gordetzen da: bai
- Aldaketa: egitai - egitai zaharra
  naiz
  Jainkoa
  bezain - baino
  zaina - hiru zain
  ezpain - lau ezpain
  artzain - artzain gutxi
- Diptongo egiten da N + kontsonante leherkariaren aurrean:
  aingeru - aingeru txarrak

- "ei"

- Distribuzioa: behi
- Murrizketa: eihar
  eleiza - hiru eleiza
  eleizara
  hareitz - hiru hareitz
- "oi"

- Distribuzioa: xaboi - lau xaboi
  arratoi - hiru arratoi
- Murrizketa: goiz
  goiz - goiz hotza
  bakoitz
- "ui"

- Distribuzioa: fruitu
  asuin - hiru asuin

### 1.2.1.2. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

- [au̯]

"Au" diptongoa da maizena hizkuntzaren aldi historikoetan, "ai" bera baino ugariagoa, ez baita batere bakana "l" edo "r" kontsonanteen aurrean eta "ai", berriz, egoera horretan ez da gertatzen, salbuespeneko kasuren bat ez bada.

### 52A HAUSPO - 52B HIRU HAUSPO (91-92)

"Au" diptongoa, hitz hasieran, silaba trabatuan.

Bokal batek ondoko bokala alda dezakeela ikusi dugu bokalismoan, normalean "u" eta "i" izaten direlarik aldaketa hori sortzen dutenak. Beste horrenbeste gerta daiteke diptongoen kasuan ere. Bokal batek, beste silaba batean egon arren, aurreko erdibokala disimila dezake; "o" bokalak, esaterako, izan dezake disimilatzeko indar hori, eta gertatu ere askotan gertatzen da fenomeno hau.

Aipaturiko kasutako bat "hauspo" hitzarena litzateke, MITXELENA-k (1977, 92), **aspo** (GN), (G), (B); **aspo, (h) ausko** (GN), (BN), (L), (R), (Zar); **auspo** (GN), (G), (B), **hauspo** (Z) Geze, aldakiak ematen ditu, (GN)-rako hiru gertaera ezberdin gertatzen direlarik.

Aztertzen diren lurraldeetan ere hiru ebakera nagusi ageri dira: "auspo", "ausko" eta "aspo". Baina diptongoari dagokionez, "au" diptongoa eta honen murrizketa baizik ez dira gertatzen, tartean erdibokala oso erlaxatu bat ageri delarik Erasun-en.

"Au" diptongoa bi aldamenetan kokatzen da: Arakil eta Ultzamako azpi-euskalkian batetik, eta Baztangoan eta Zugarramurdi-n bestetik. Murrizketa, berriz, Bortzirietako azpi-euskalkian. Badira, halere, salbuespenak: Larraintzar-en murrizketa, eta Etxalar eta Oieregi-n diptongoa ahoskatu zen, hirugarren lekukoek forma monoptongatua ahoskatu bazuten ere. Erasun-go bigarren lekukoak bere azpi-euskalkiaren ebakera orokorrarekin bat egiten du, eta Zugarramurdi-ko B lekukoa, forma murriztua egiten duenez, A lekukoarengandik aldentzen da, A-k berriro ere baztandarrekin berdinketa bat sortuz. Oronotz-Mugaire-ko B lekukoa ere, "auskoa" formaz, Baztango azpi-euskalkiari lotzen zaio, betiko dikotomia azalduz.

## 53A GAUZA - 53B LAU GAUZA (93-94)

"Au" diptongoa, hitz hasieran, silaba askean.

Esan den bezala, euskararen historian zehar gehien dokumentatzen den diptongoa "au" da. Bestalde, hitz zaharretatik datorrenean ere mantenitu egin da, batzutan aldaketaren bat nozitzen badu ere. Latinezko CAUSA(M) hitza euskarak "gauza"

bezala hartu zuen, (R) eta (Z)-n izan ezik, horietan "ai" ebakitzen bait da, baina beste guztietan diptongoa jatorrizkoa da. Esan dugunaren froga ona azterturiko lurraldean dugu, ez baita aldaketarik gertatu azentoarena baizik.

### 54A GAU - 54B HIRU GAU (95-96)

"Au" diptongoa, hitz bukaeran.

Aurreko mapetan esan den bezala, hemen ere (Z) eta (R) euskalkiek "ai", **gai,** ebakiko lukete. Ez da, halere, hitz honek, euskalkien arauera, duen aldaki bakarra. Azken posizioan aurkitzeak badu eraginik atzizki mugatzailea hartzerakoan, diptongoaren bigarren elementua bokal artean gelditzen baita:

> *"La tendance qui veut que l'u se diptongue lorsqu'il suit l'une des voyelles a, o, e est si forte qu'elle continue de s'appliquer lorsqu'il est à son tour suivi d'une voyelle; il est alors complètement consonne, ou peu s'en faut. Il en est ainsi, par exemple, dans la déclinaison du mot* ***gau*** *= "nuit": **gaua, gauaz,** etc., se prononcent respectivement **gawa, gawaz,** etc". GAVEL (1920-79-80).*

> *"... entre* ***u*** *et* ***a*** *il s'intercale d'ordinaire un* ***b*** *fricatif [...], mais il est souvent muet dans la prononciation moderne; il n'est apparemment que le produit d'un ancien u consonne (w) intercalé entre l'u et l'a, et qui aura subi la même traitement que certains autres u consonnes intervocaliques; cf.* ***gabon*** *pour* ***gau on*** *= esp. Nochebuena". GAVEL (1920,69).*

Mapan ageri diren erantzunak bi eratakoak dira, diptongoa eginez, bata, eta diptongoaren bigarren elementua kontsonantizatuz, elementu ezpainkaria nagusituz, bestea. Diptongoa traskriba-

tzerakoan ez dugu zalantzarik izan, diptongoa ahoskatu denean beherunzko diptongo bezala izan baita kasu guztietan. Badakigu, jakin, horrekin ez diogula Gavel-en teoriari zehatz jarraitzen, baina "gau-a" ebakera oso garbi jaso dugula uste dugu. Horren aldekoak dira diptongoaren bigarren elementuaren eta "-a" mugatzailearen errealizazio erlaxatuak ere. Azentoak berak ere, bestalde, teoria hori indartuko luke. Ez litzateke, gainera, kasu bakarra: "afari" hitzean ere, bere lehen zatian antzera gertatu izanen da, MITXELENA-k (1977,221) **afari / abari** hitzek duten aldakiz mintzatzerakoan horrela dio: "la división [au-ari] no [a-wari] se comprende por tratarse de un derivado con el sufijo **-kari".**

Banaketa geografikoaren aldetik, nahastuxea agertzen da eta ez dator bat azpi-euskalkiekin. Batasun batekin kontsonantez ebakitzen dutenak dira: Erasun, Ituren, Donamaria, Sunbilla, Oieregi, Oronotz-Mugaire, Arraiotz, eta Gartzain, Bortzirieta eta Baztango azpi-euskalkietakoak; Arraras, Beramendi eta Aldaz, Ultzamako eta Arakilgoak. Beste guztiek diptongoa ebaki dute.

Forma mugagabean erantzun berdinak jaso dira orohar, eta kontsonantismoaren tinkotasuna ageri da kontsonantez egiten dutenengan, artikuluarekin batera ematen dutelako erantzuna: "íru gába". Halere, Oieregi, Oronotz-Mugaire eta Arraiotz-ek "íru gáu" esan dute, erantzun hau nagusiena delarik. Toki berean erantzun ezberdinak ere jaso dira: Arantza-ko B lekukoak kontsonantizatu du eta baita Etxalar-ko hirugarrenak ere. Zugarramurdi-ko B lekukoak diptongoaren gainean kontsonantea hartzen du epentesi moduan.

Datu hauen arauera ondorio hauek atera ditzakegu:

1. Fonetikaren aldetik, "au" diptongoa gordetzen ez den kasuetan biezpaineko kontsonante hurbilkaria bihurtzen da, baina ez zaio tinkotasunez eusten ebakera honi, hitz bukaeran gertatzen denean diptongoa berreskura bait dezake. Fenomeno bera **aho** hitzarekin gertatzen da. **Aba** ahoskatu den tokietan "ao → au → aua → aba" gertatu bait da. (Ikus 59-60. mapetan: Arraras, Etxalar eta Arantza-n).

Bestalde, kontsonante bihurtu den tokietan badirudi berri samarra dela edo bigarren mailakoa behintzat, edo, bestela esan, armonizazio bokalikoaren ondorioa. Horrela bakarrik uler daitezke-elako:

"gábea", "gábee", "íru gabé"

eta horrelako gertaerak, aurretik honako beste bilakabide hau gertatu ez balitz, behinik-behin:

"gau → gaua → gaue → gabe"

azken forma "gabe" mugatu gabeko lexema bezala hartuz eta horren gainean "-a" atzizki mugatzailea erantsiz:

"gabea", "gábee", "gábì:" e. ab.

2. Geografiaren aldetik Ipar-Hegoa hartzen duen isoglosa gotor samarra ageri da: Zugarramurdi, Amaiur, Larraintzar, Auza, Beunza, Goldaraz diptongoarekin eta gainerako guztiek kontsonante egitera jotzen dute.

## 55 BARAURIK (97)

"Au" diptongoa, hitz barruan, silaba askean.

"Au" diptongoaren iraupena edo aldaketa oso baldintzatua ageri da hitzean duen posizioagatik. Diptongoaren murrizketa gerta daiteke hitz barruan, eta hitzaren azken silaban ere. Bestalde, monoptongazio horiek azentoaren eraginagatik gerta daitezke nonbait, baina ez da hori batere gauza ziurra. Lexemetatik kanpo, adizkietan ere gertatzen da: "dut", "dot", "det", e. ab. murrizketa baten ondorioz sortuak dira; eta gauza bera gertatzen da mugatzaile hurbilekin eta erakusleekin, ikus honen adibide bezala (157) mapan "hauek" erakuslearen forma murriztua, "ok", aztertzen dugun lurralde guztian, Zugarramurdi-n izan ezik. Bestalde, murrizketak sortzen dituen aldakiek, distribuzio geografiko bat dute; baina "a", "o" edo "u" agertzen duten aldakiak

justifikatzeko arrazoiak ez dira garbi ikusten. MITXELENA-k (1977,97) **barau (r)** forma azaltzen du (G), (L), eta (B): Capanaga e. ab.; "u"-ren alde murriztuz: **baru** (GN) eta (B); eta, murrizketaz, baina jatorrizko dardarkariarekin, **barur,** alegia, (L), (BN), (R) eta (Z)-z.

Mapan ageri den forma oso finkoa da eta inon ere ez da diptongoaren aztarnarik. "Barurik" forma izan da nagusia, eta Zugarramurdi eta Amaiur-en "baru" hutsik erantzun dute, eta ez da batere zalantzazko kasurik.

## 56A ARRAULTZA - 56B LAU ARRAULTZA (98-99)

"Au" diptongoa, hitz barruan, silaba trabatuan.

Hitz barruan doan diptongo honek murrizteko joera du, baina ez da toki guztietan berdin gertatzen murrizketa hori; erantzun bat baino gehiago egon daiteke, tokien arauera "o" eta "u" ager daitezkeelarik, non eta ez den "au" diptongoa bera mantenitzen. Halere, MITXELENA-k (1977,94) diptongo hori agertzen den lekuetan, bigarren mailakoa izan daitekeela dio: "El diptongo de ronc. sul. **arrau(l)tze** 'huevo' podría muy bien ser secundario". Edozein modutan, albokari baten aurreko bokalismoa ez da oso tinkoa izan ohi, bi joera nagusi daudelarik, edo diptongoaren murrizketa, edo horren aurkakoa, diptongoaren sorrera, alegia, bai baterako bai besterako adibide ugari delarik.

"Arraultze" hitzaren diptongoa aski goiz dokumentatzen da. Nafarroa-n Erdi Aroan, CAMPION (1913,376) (26), diptongoz erabiltzen zenaren lekukotasunak ageri dira. Gaur egunerako MITXELENA-k (1977,96) honako isoglosok azaltzen zituen:

**arraultza, arrau (l) tze** (GN), (G), (L), (R), (Zar)
**arrautza, arrautze** (GN), (G), (B), (Z)

**arrol (t) ze** (GN), (BN), (Zar), **arroitze** (Azk)
**arrultze** (BN)
**arrauntza** (B): Zeberio, Orozko
**arrontza** (G) Etxarri

Hortaz, goian esandakoa hemen baieztatzen da: "au / o / u" sekuentzien arteko txandaketak eta aldameneko kontsonantearen trukaketa.

Gure mapetan erantzunek batasun haundia dute. Kasu guztietan murrizketa "o"-ren aldekoa eginez, eta "o" bokala irekia gertatzen da aurreko dardarkariaren eraginez. Jaso diren alternantziak, Erasun eta Arraras-en, ez dira batere pertinenteak, B lekuko erasundarrak diptongoz ebaki arren, hirugarrenak ere ez du horrela egin. Aldaz-en agertzen den "a" oso gertaera behinbehingoa da, hasierako bokal tonikoaren eraginez asimilatuz, beste kasu guztietan "o" ebaki da, "au" diptongoarekin ere, kasuren batetan, txandakatuz.

## 57A AHUL - 57B AHUL DAGO (100-101)

"Au" diptongoa, hitz hasieran, silaba trabatuan.

Albokari aurreko diptongo hau kasu honetan bigarren mailakoa da. Gaztelera zaharretik hartutako etimoa du, **ávol,** eta oraino mantenitzen da: (G): Gabiria eta Zumaya, **abol,** (B): Bermeo, Lekeitio, Gernika eta Ondarroa, **arol,** Azkoitia-n "kafe arola", AZKUE (1969, 8 eta 70). MITXELENA-k (1977,94) "diptongo reciente" dela dio, eta horrela onartu beharko da, bokalarteko hurbilkariaren galeraren ondorioz eta, diptongo bihurtu aurretik, aspiraketa sortuko zen, **ahul** (L) eta (BN) eta (Z) **ahül**-ek agertzen dutenez.

Aztertu den lurraldean "au" diptongoa kasu guztietan mantenitu da, bai hitz soltea jaso denean bai sintagma barruan. Amaiur eta Erasun-en, ingurumen ezberdinetan hiatoan jaso dira bokal horiek, baina, bistan den bezala, azentoaren eragin hutsa da, momentuko ahoskeraren eraginez, beste inoiz ez bait da ahoskera hori jaso.

Harritzekoa da, bestalde, Zugarramurdi-ko B lekukoak hasierako posizioan ebakitzen duen aspiraketa. Ez dugu Iparraldeko hizkelkietan horrelakorik jaso eta makal dauden hotsen leku aldatzea dela dirudi.

"Au" diptongoarekin bukatzeko hauxe esango genuke, bigarren mailakoa ere gerta daitekeela hots baten galera gertatu delako edo hots baten bilakabidearen bitartez sortu delako diptongoa. Ikus, esaterako, "irabazi" (223) eta honen bilakabidea "au" diptongoa eta sortzen diren murrizketak.


•[ eu̯ ]


**58 EUSKARA (102)**

"Eu" diptongoa, hitz hasieran, silaba trabatuan.

Diptongo hau goian ikusitako "au" baino askoz ere gutxiago gertatzen da eta gertatzen den kasutan ere aldaketak eta murrizketak ugariak ditu, estatus aldakorra agertzen duelarik.

Diptongo honen tinkotasun falta hitz honek ederki azaltzen du. "Eu" gordetzen da zenbait lurraldetan, eta hitz zaharretan ere dokumentatzen da. Horregatik, "euskara"-k dituen aldakiak "eu" diptongotik sortuak direla pentsatzen dugu, esaterako (B) Arra-


"-ara"
"-era"


[eu] diptongoa
Erdiokalaren metatesia
Diptongoaren murrizketa
Tartekoa

tialdean entzun daitekeen "auskera" forma. Murrizketaren aldetik, berriz, [w] diptongoaren bigarren elementuaren metatesiaz gertatuak dira "e-" geldituz, edo, alderantziz, nagusitzen den forma izan daiteke "u-", eta hemendik jarraitzen diren formak sortuz.

Aztertu den lurraldean ez dugu "eskara" forma aurkitu, zenbaitek (GN)-rako ematen dutena; "eu" diptongoarena da formarik hedatuena, Arakil, Ultzama eta Bortzirietako azpi-euskalkietan egiten dena orohar (27). "u-"z gertatu den murrizketa, berriz, Bortzirietako azpi-euskalkiko herrietan ageri da, eta azpi-euskalki honetan "u-" formak hedadura haundiagoa du mapan ageri dena baino,lekukoen erantzunetan, hauek zainduaguak izan ohi direnez, nolabaiteko korrekzioa sortu bait zen. Bestalde, eta ageri denez, Arraras-en ere murrizketa ageri da.

Bokalaren metatesia Baztango azpi-euskalkian gertatzen da eta baita Zugarramurdi-n ere. Amaiur-ko gertaera oso bakana da, eta forma metatesitua da arruntena.

Azkenik, eta diptongoa alde batera utzirik, "-era" eta "-ara" bukaeraren distribuzioa garbi agertzen da Hego-Mendebaldean: Arakil eta Ultzamako azpi-euskalkiak, Erasun eta Donamaria-rekin "-era" atzizkiarekin eta gainerakoak "-ara"-rekin.

## 59A EURI - 59B EURI HAU (103-104)

"Eu" diptongoa, hitz hasieran, silaba askean.

Berriro ere, hitz honen bitartez, "eu" diptongoak duen ahultasunaren ideia sendotu egiten da. Eta, horrez gain, diptongo horrek posizio horretan dituen nolabaiteko bilakabideen tinkotasuna. Aurreko mapan "euskara"-rako esan dena hemen mantenitzen

da, metatesia ez bada agertzen ere, ingurumenak ez bait du laguntzen bestean bezala. "Eu-" eta "u-" dira ageri diren bi aldakiak, azken hau fonetikako lanetan (GN)-rako agertzen ez den arren.

Diptongoa mantenitzen da Arakil eta Ultzamako azpieuskalkietan, Erasun eta Donamaria ere barruan sartuz. Bortzirietakoan eta Baztangoan eta Zugarramurdi-n "u-" ren aldeko murrizketa ageri da.

## 60A LEUN - 60B LARRU LEUNA (105-106)


"Eu" diptongoa, silaba trabatuan.

> *"Si como es muy posible Corominas (s.v.* ***leme,*** *Adiciones) tiene razón al pensar que vasc.* ***leun*** *(sul.* ***leñ****) 'liso, pulido' viene del occit.* ***teun (e),*** *entonces la variante bisilábica* ***legun,*** *atestiguada ya en lab. del siglo XVII, sería secundaria" MITXELENA (1977,372).*


Aztertzen ari garen kasu honetan, Mitxelena-rena onartuz gero, lehenengo mailakoa genuke "eu" diptongoa eta garai zaharretan hartua, (Z)-k izan duen aldaketa kontutan harturik gaurko **leñ** formak aurreko **lein** bat suposatzen duelako, eta ez "eü" beste kasutan gertatu den bezala, **ehün**-enean, esaterako.

Mapara mugatuz bi ebakera mota azaltzen dira: diptongoarena eta "legun" formarena, eta tartean bi toki ageri dira, Sunbilla eta Gartzain, kontsonanterik gabe, "e-u" bi silabatakoak direlarik; bi herri hauetan azentoa toki ezberdinetan dute, "léuna" Sunbilla-n eta "leúna" Gartzain-en. Bigarren mapan, aldiz, "larrú leúna"

EURI (103)




LEHUN (105)



Sunbilla-k eta diptongoz Baztan-go herriak. Edozein modutan ere, azken herri honetan beste lekukoek kontsonante hurbilkariz ahoskatu dute, beraz, bazilazioa agertuz, eta nolabait Baztango azpi-euskalkian gertatzen denaren arauera, bi aldetako formak jaso bait dira; IZETA-k (1985,588) ere horrela agertzen du: "legune" eta "leune".

Beste lurraldeek honako distribuzioa dute: Ultzama, Arakil eta Bortzirietako azpi-euskalkiek diptongoa, eta Ultzama, Zugarramurdi eta Baztangoek kontsonante hurbilkaria tartekatuz.

•[ aị̯ ]

**61 BAI (107)**

"Ai" silaba askatuan, azken posizioan.

"Ai" diptongoaren egoera oso aldakorra da. GAVEL-ek (1920,17-18) ez du zalantzarik honen aldaketan:

> *"Le changement de a en e est presque de règle dans le diphtongue* ***ai,*** *et l'on dira* ***zerbeit*** *plutôt que* ***zerbait*** *= "quelque chose",* ***norbeit*** *plutôt que* ***norbait,*** *etc."*

Eta ez dira hemen gelditzen diptongo honen aldaketak Gavel-ek berak dioenez:

> *"Le diptongue ei, à son tour, se réduit souvent a i, de sorte que pour certains mots nous avons une triple série par ai, ei et i: ex.* ***zerbait, zerbeit, zerbit,..."***

Horiek horrela direla eta, "ai" diptongoaren errealizazio fonetikoa ikusteko eta aldaketarik gabe aztertzeko biderik edukitzeko, "bai" hitza sartu genuen galdekizunean eta, espero genuen bezala, toki guztietan batere aldaketarik gabe jaso dugu.

## 62A EGITAI - 62B EGITAI ZAHARRA (108-109)

"Ai" diptongoa, azken posizioan, silaba askatuan.

Diptongo hau berez mugikorra bada ere, esan bezala, azken posizioan doanean, eta, batez ere, silaba askatuan, askoz ere aldakorragoa da, eta gehienetan hartzen duen ahoskera, nagusiki, "ei" izaten da.

Jatorrizko forma "egitai" dela onartzen badugu, hauek izango lirateke sortzen diren aldaketak euskalkien arauera, MITXELENA (1977,103):

(GN), (Zar), (B) (RS 268), **egitai,** (R) **egitái**,
(GN), (BN), (G), (L), (B) **igitei,** (Leiç), (Z) **igitéi,**
(GN), (B), **igiti, iriti.**

Nafarroa-n aztertu ditugun lurraldeetan erantzun ezberdinak jaso dira, baina denak ere bilakabide prozesu baten barnean sartzen dira eta isoglosa garbi batzuk sortzen dituzte:

"Ai" diptongoa mantenitzen da: Aldaz, Arraras, Beramendi, Goldaraz, eta Erasun-en.

"Ei" diptongo egitera aldatu dira Baztango azpi-euskalki guztiko herriak, halere "ai"-rekin txandakatzen dute Amaiur, Gartzain eta Arraiotz-ek, baina orohar, lekuko guztien erantzunak harturik, "ei" forma da nagusiena. Zugarramurdi-n ere "ei" egiten dute.

Epentesi kontsonantiko bat sortuz, aurreko hotsen eraginez, agian, "-egi" Ultzama-ko herriek -Auza eta Larraintzar-ek-, eta Beunza-k ere. Larraintzar-en kasuan "-agi" ageri da mapan, baina "-egi" da nagusia. IZAGIRRE-K ere (1966,431) **igitegie** forma ematen du Ultzamara-ko.

Azkenik, asimilaketa baten bitartez, diptongoaren murrizketa "ai → ei → ii → i", aurreko kontsonante leherkaria sabaikari bihurtuz: "igittia" da, beraz, forma nagusia Arantza, Ituren,

Donamaria, Oieregi eta Sunbilla-n gertatzen dena, eta "í:tia", bustidurarik gabe, Etxalar-en. Oronotz-Mugaire-k, azkenik, "-agi"/ "-ei" txandakatuz.

Azpi-euskalkika: Erasun, Arakil, Basaburua, Imoz-ek, "-ai"; Ultzamako azpi-euskalkia banandurik agertzen da, Ultzama eta Atez, "-egi" ahoskeraz. Baztan eta Zugarramurdi-k, "-ei". Bortzirieta-k "i", Erasun kanpoan geldituz, eta Oronotz-Mugaire-k, beti-ere mugan, "-agi"-rekin. Azkenik, "ai" / "ei" / "i" txandaketa ere oso ondo ageri da "jaiki" lexeman (222).

## 63 NAIZ (110)

"Ai" diptongoa, silaba trabatuan.

Hitz honetan agertzen den diptongoaren aldaketa goian azaldu dugu: "ai→ ei → ii → i" (28) da, eta aditzaren joskera iragangaitzetan gertatzen da, Ekialdeko euskalkietan orohar. Etxepare-k ere horrela erabiltzen zuen.

naiz → niz (BN), (Z), (Aezk), (Zar).

Baina, aldiz, murrizketa "a"-ren alde gertatu izan ohi da, "naz", (B) eta (R) euskalkietan, eta Nafarroa-ko Sakana aldeko herrietan.

Gure kasuan, toki guztietan mantenitu dute "ai" diptongoa Aldatz-en izan ezik. Herri honetan **naz** forma erregistratu da kasu guztietan A lekukoarekin, ez, ordea, B eta hirugarren lekukoekin, hauek diptongo makal bat ebakitzen bait zuten.

## 64 JAINKOA (111)

"Ai diptongoa, hasierako posizioan, silaba trabatuan.

Diptongoz jarri dugu maparen izenburua, baina ez dago batere aztarna garbirik jatorrizko hotsa zein den argitzeko. Etxepare-k hiru forma ezberdin alternatzen ditu, ez, ordea, "ai" diptongoa (29). Halere, "ai" hartzen badugu forma zaharren bezala, "ei" eta "i" haren ondorioz sortu direla esan daiteke, eta "au" forma dutenak, berriz, herri etimologiaz sortuak direla, "Jaun" eta "Goikoa" elkartuz (30).

Aztertzen dugun lurraldean, diptongoari dagokionez, lau aldaki ditugu: "ai" diptongoa Ultzama eta Arakilgo azpi-euskalkietan; "au" Bortzirietakoan; eta forma murriztuak, "i" Zugarramurdi eta Amaiur-en, eta "a" Baztangoan, Ituren, Etxalar eta Oronotz-Mugairen. Badira txandaketak ere, nabarmenena, halere, Zugarramurdi-ko "Jáinkua" litzateke.

"A" forma murriztua "au" diptongotik sortutakoa dela uste dugu, "auspo" → "aspo" egin den modura. Inoiz "ai"-ren murrizketatik sortutakoa bada ere, ikus, esaterako, "aizkolaria" (444) Ituren-en edo "aitzur" (292) Aldatz-en. Gainera, bigarren osagaia, "-goikoa", mantenitzen du, "jaun-" dutenek bezala. Ez, berriz, "xain-" ala "jin-" ebakitzen dutenek, amaieran "-koa" besterik ez bait dute.

## 65 BEZAIN (112)

"Ai" diptongoa hitz barruan, silaba trabatuan.

Kasu guztietan "ai" diptongotik "i" bokalera gertatu den murrizketa "ei" diptongoaren bitartez izan da, eta bigarren pausu horren aztarnak eta lekukotasunak arkitu izan dira.

Ez da, ordea, horrela gertatu "bezain"-en kasuan. Mapa honetan, "ai"-tik "i" bokalera pasatu da tarteko ebakerarik gabe. Zugarramurdi eta Auza-ko ahoskerek "a" erlaxatua dute, postonikoa gelditzearen ondorioz, nonbait, eta honek bidea ematen digu pentsatzeko, agian, "ai" diptongotik zuzenean gertatu dela murrizketa, beste bitartekorik gabe (31).

Berriro ere, parean jartzen dira, distribuzio geografikoaren aldetik, Ultzama eta Baztango azpi-euskalkiak diptongoaren ebakerarekin, eta gainerako guztiek batasun haundia agertzen dute diptongoaren murrizketan.

## 66 BAINO (113)

"Ai" diptongoa hitz barruan, silaba askean.

"Ai", "a" eta "i", hiru emaitza hauek azaltzen dira Nafarroako lurralde honetan. Ezin daitezke "Jainkoa" hitzak zituen emaitzekin erka, biotan "a" bokalak sistematik at gelditzen den bilakabidea eduki arren. Kasu honetan "i" bokalerdia kontsonante sudurkaria busti ondoren desagertu da.

Ez da beste horrenbeste gertatu, aldiz, murrizketa "i"-ren alde gertatu denean, bustidurarekin batera gelditu egin bait da. Bilakabidea, seguru aski, honako hau izan da: baino → bain'o → bein'o → bin'o (32).

"Ai" Zugarramurdi-n mantenitu da "bainon" formarekin txandakatuz, eta Etxalar, bigarren lekukoari dagokionez, tartean agertzen da. "I" bokal murriztua Bortzirietako hizketetan, Oronotz-Mugaire eta Erasun salbu, eta Ultzama-ko Auza-k ere "i" bokala du. Eta azkenik, "a" bokala Baztan, Ultzama eta Arakil-go azpi-euskalkiek dute eta Bortzirietako Oronotz-Mugaire eta Erasun-ek. Emaitza hauek koerentzia azaltzen dute orain arteko datuekin erkatzen badira.

**67A ZAINA - 67B HIRU ZAIN (114-116)**
**68A EZPAIN - 68B LAU EZPAIN (117-118)**

"Ai" diptongoa hitz barruan, silaba trabatuan.

Hemen ere kasu berdintsua dugu: "i" erdibokala, hurrengo kontsonante sudurkaria busti ondoren, galdu egiten da (33). Baina mapa hauek informazio gehiago ematen digute. Lehenengo, armonia bokalikoak sortzen duen inflexio bokalikoa bustidura sortu aurretik gertatu dela, eta diptongoaren murrizketa, bestalde, oraindik nahiko berria dela, forma mugagabean agertzen bait da:

ain → -aina → -aine → -añe
→ aña

Halere, armonia bokalikoa ez da berdin gertatzen diptongoaren bigarren osagaiaren eraginez suertatzen denean. Baztango azpi-euskalkian armonizazioa nahiko arrunta da ikusi denez, eta kasu hauetan Amaiur-ek bakarrik isten du bokala. Eta Beunza-k, besteetan bezala, alternantziak agertzen ditu.

Forma mugatuetan Zugarramurdi-k mantenitzen du diptongoa, bustidurarik gabe, eta mugagabeetan Baztangotik hasi eta Ultzamako azpi-euskalkiraino agertzen da, berriro ere, diptongoa.

Amaiur eta Larraintzar-ek, Goldaratz-ekin batera, txandakatu egiten dituzte emaitzak.

## 69A ARTZAIN - 69B ARTZAIN GUTXI (118-119)

"Ai" diptongoa, azken posizioan, silaba trabatuan.


***-ani**: garai zaharreko bokalarteko mugikorra den kontsonante sudurkari honen galera dela bide diptongo bat sortu izan da kontsonante sudurkariz jarraiturik, baina ez da horrela gertatu kasu eta toki guztietan. Euskalkien arauera gertatzen da: galdua edo ezkutatua, (Aezk), (GN), (G) **artzai** gertatzen da, gero hitz konposatuetako lehen elementu bezala, kontsonante sudurkaria agertzen bada ere, ikus MITXELENA (1977,144); bainan (GN)-ko Baztan-en eta (L)-n **artzain.**

Gure datuak bat datoz isoglosa horiekin. Zugarramurdi, berriz ere, Lapurterari loturik agertzen da, "ai" diptongoa mantenituz eta sudurkaria ondotik doalarik. Eta Baztango azpi-euskalkian ere kontsonante sudurkaria sabaikatuz mantenitzen da aurreko erdi-bokal sabaikariaren eraginez. Diptongoaren murrizketaz, berriz, eta armonia bokalikoarekin duen harremanaz, (114-118). mapetarako esan genuenak balio du, emaitza berdinak errepikatzen bait dira.Gartzain-en, A lekukoari dagokionez, ez genuen jaso kontsonante sudurkaria forma mugatuan, baina bai mugagabean, beste lekukoek, berriz, forma mugatuan ere mantenitzen dute sudurkaria. Hortaz, Baztango azpi-euskalki guztirako **-ain** isoglosa har daiteke. Beste guztiek, kontsonante hurbilkaria hartu edo ez hartu, "ai" diptongoa mantenitu egin dute.

BEZAIN (112)




BAINO (113)



## 70A AINGERU - 70B AINGERU TXARRAK (120-121)

"Ai" diptongoa hasierako posizioan, silaba trabatuan.

Kasu honetan, kontsonante sudurkariaren aurretik doan diptongoa bigarren mailakoa da, hau da, ez da jatorrizkoa. **ANGELUS** latinezko hitzean bere etimoa duen hitz hau, kristautasuna sartuz gero hartua izango zela uste du GAVEL-ek, (1922,508), hau da, berandu samar, eta ordurako hitzaren ahoskera aldatua egongo zen eta ***añgeru** batetik edo sortu izango zen gaurko hitza (34):

> *"Si donc la **g** du lat. **angelus** était déjá un phonéme mouillé ou même un sorte d'**i** consonne lors de l'entrée du mot dans la langue basque, on conÇoit que pour essayer de se rapprocher le plus possible de ce phonème plus ou moin étranger à leurs habitudes de prononciation de ce temps-là les Basques aient pu, tout en rendant le corps principal de l'articulation par un **g** ordinaire, ajouter une mouillure sur l'articulation voisine le plus apte à la supporter, c'est-à-dire sur l'**n**".*

Egungo artikulaketaz, eta gure lurraldeari dagokionez, ez dago batere zalantzarik: kasu guztietan diptongoa ebakitzen da, haren bigarren elementua kasuren batean erlaxatu edo erdi-galdu egiten bada ere. Halere, azken gertaera hau joera baten islada besterik ez dela esango genuke.

•[ ei̯ ]

## 71A BEHI - 71B HIRU BEHI (122-123)

"Ei" diptongoa, hitz bukaeran.

"Ei" diptongoaren egoera, besteena bezala, nahiko aldakorra da eta murrizteko joera haundia du. Egia esan, hasiera absolutuan doanean murriztu egiten da eta hitz barruan ere bai, kasu gehienetan hurrengo kontsonantea sabaikatuz. Murrizketa gertatzen ez den kasuak gutxi dira, latinetik jasotako mailegu batzutan: **deitu** < DICTU(M) > rom. ***deito;** halaber mantenitzen da bigarren mailako diptongoa gertatu denean, "egite → eite" kasuan, esaterako.

Bestalde, aspiraketaren sortzearen arazoa ez dago batere garbi, eta are gutxiago noizkoa den diptongoa hautsiz sortu den aspiraketa, edo honen ondorengo kontsonantea: belarea edo dardarkaria, eta, disimilazioz, albokaria edo sudurkaria. Areago ere bai: badirudi egoera horien aurrekoa dela bokalen bi silabetako ahoskera. Izan ere, Hegoaldean ahoskatzen den diptongoa ez da toki guztietan gertatzen:

> *"No siempre es monosilábico, sin embargo: tengo anotado **be-i-(d)že** 'la vaca' en Azkoitia y **be-i-še** en Ondárroa". MITXELENA (1977,88) (35).*

Ikusten dugunez, emaitzak ezberdinak dira: (105) eta (106). mapetan, "eu" bokalei dagokienez, **leun** hitzean, hain zuzen, "g" kontsonantearen sorrera azaltzen zen. Orain hemen, antzeko kasuan gauden arren, ertain mailako bokala goiko bokalarekin elkartzen bait da, ez da epentesi kontsonantikorik sortzen. "Begi" hitzarekin ez nahasteagatik ote?

Gure mapetan Zugarramurdi da aldentzen den leku bakarra, muga silabikoa bi bokalen artean eginez. Beste kasu guztietan

forma diptongatuak ageri dira, armonizazio bokalikoaren eraginez kontsonantizatzen bada ere.

## 72 EIHAR (124)

"Ei" diptongoa, hasierako posizioan.

"Ei-" diptongoa posizio horretan, bigarren mailakoa dela dio zihurtasun osoz MITXELENA-k (1977,105):

> *"El diptongo **ei** ha dado **i** sin excepción en inicial absoluta. En efecto, el vasco histórico sólo tiene **ei-** en palabras como b.-nav. lab. sul. **eihar** 'seco, yerto' con variantes en **i-** como lab. **ihar,** a.nav. guip. vizc. **igar:** el sal. **ear** y el ronc. **éxar** suponen ***e-iar,** n o ***ei-ar**".*

Hori dela eta kokatu dugu hitz hau "ei" diptongoa daramaten hitzen tartean eta ez "aih-" -koen artean, ikus, halere, beherago gorunzko diptongoen saila.

Gure datuetan, kasu guztietan gertatu da diptongoaren murrizketa, "i-" ebakiz. Bokal osoa "i", "a" bokalak jarraitzen diola, eta biak hiatoan Aldaz, Arraras eta Etxalar-ek dute. Zugarramurdi-k "ie-" bokal silabikoak agertzen ditu, eta ez zaigu gertaera hori normala iduritzen, Zugarramurdi-n ez delako horrelako inflexiorik gertatzen eta gutxiago barruko sandhietan. Belarearen epentesi kontsonantikoa da forma nagusiena Bortzirieta eta Ultzamako azpi-euskalkietan eta Baztangoan ere, azken honetan Aniz-ek eta Arraiotz-ko bigarren lekukoak **iñertu** egiten badute ere. M. Izeta-ren hiztegian (1985,578) **iñerra** eta **iñarra** agertzen dira: "Lore hoiek iñertu dire. Era berean ere Gorrosurreta-renean "aritza iñartu", IRIGOYEN (1962,165) (36).

## 73A ELEIZA - 73B HIRU ELEIZA (125-126)
## 74 ELEIZARA

"Ei" diptongoa, hitz barruan, silaba askean.

Hitz hasieran "ei" diptongoa murriztu egiten dela esan badugu, beste horrenbeste gertatzen da hitz barruan ere, hurrengo kontsonantea bustiz eta bokala bakarrik utziz. **Eleiza** kasua dugu bat, diptongoaren jarraian doan xistukari igurzkaria sabaikatuz: **elexa** (Bizkaieraz eta Mendebaldeko euskalkietan).

Gainerako euskalkietan: ei → i gertatzen da eskuarki, "ai" diptongotik zetozenekin bat eginez horrelakotan ere. **Eliza** izango litzateke forma orokorrena goian aipatu diren euskalkietatik at. Horrela agertzen da mapetan ere, batere aldaketarik gertatzen ez delarik, ez forma mugatu-mugagabeetan ez eta adlatibo kasuan ere.

## 75A HAREITZ - 75B HIRU HAREITZ (128-129)

"Ei" diptongoa hitz bukaeran, silaba trabatuan.

Kasu honetan ere, diptongoaren murrizketaren bitartez, hurrengo xistukaria, oraingoan afrikaria, non eta nola bustitzen zen jasotzeko, bilatu zen hitz hau. Eta horrekin batera, murrizketa eginez, "i" bokalarekin ere zer-nolako isoglosak jasotzen ziren ikusteko.

MITXELENA-k (1977,106) honako isoglosak dakartza: (GN), (BN), (G), (L) **(h)aritz,** (Z) **há(r)itx,** (G) **areitz** (araitz), (Heg.), (R), (B) **aretx.**

Gure mapetan honako bilakabide hau agertzen da:

"(h)areitz → aritz → aitz → aitz", beste diptongo bat sortzen delarik.

Aldaz, Arraras eta Goldaratz, Zugarramurdi-rekin batera, bide aurreratuena daramatenak dira, eta ikusten da bestalde, behin kontsonantea galduz gero, pausu bat besterik ez dagoela diptongoa sortzeko, Arraras-en gertatzen den kontrasteak -mugatuan bi silaba eta mugagabean silaba bakarra- azaltzen duen bezala.

Bat etorri behar MITXELENA-rekin (1977,89) hau esaten duenean:

> *"a pesar de las reducciones por monoptongación, la frecuencia de los diptongos ha ido en aumento en la mayoría de las palabras vascas [...]. Como consecuencia de la articulación relajada de algunas consonantes, en particular de las oclusivas sonoras y en ciertas zonas de r, son muy numerosos los hiatos que se han resuelto en diptongos".*

• [oi̯ ]

**76A XABOI -76B LAU XABOI (130-131)**

"Oi" diptongoa, azken posizioan, silaba askean.

Diptongo hau oso maiztasun gutxikoa da, [ai̯] bera baino urriagoa, eta gertatzen den kasutan laburtzeko joera haundia du.

Gazteleratik hartua den hitz honek bilakabide ezberdinak ditu bokalismoaren aldetik. Gaztelerako "-on" amaierak euskaraz "-on" edo "-oi" eman dezakeela dirudi, mailegu berri samarretan behintzat (37).

Hemen ere, mapa ikusirik, bi forma nagusi ditugu: "-oi", **xaboi** eta bere eratorriak, kontsonante sudurkaria ere gordetzen duelarik kasu baten, Zugarramurdi-n hain zuzen, batetik; eta "-on", **xabon** eta honen eratorriak, bestetik.

Bokalen arteko hurbilkaria galduz, bestalde, hiatoa sortzen da, "ao", eta hurrengo pausuan "au", hiatoan hau ere, diptongoa izatera oraindik iritsi gabe. Pentsa dezakegu, beraz, forma hau ez dela hain zaharra.

Hedadura geografikoaren aldetik, esan bezala forma diptongatua da urriena: Zugarramurdi eta Bortzirietako azpi-euskalkiko herri batzutan egiten da. Hala ere, beste lekukoengan alternantziak aurkitu ditugu: Oronotz-Mugairen eta Sunbillan diptongo gabeko formak jaso bait ditugu.

Gainerako toki guztietan diptongo gabeko formak jaso dira: Erasun, Arraras eta Goldaratz-ei, bokalarteko hurbilkaria galduz, "ao" bokalak hiatoan gelditu zaizkie, eta horren ondorioz, "au" diptongo bezala ebakitzera ailegatu dira.

## 77A ARRATOI - 77B HIRU ARRATOI (132-133)

"Oi" diptongoa, hitz bukaeran, silaba askean.

"-One" bukaera zaharra zuten hitzek "-oi" bilakabidea izan zuten, lehen esan den bezala; hortik, "-io" aldaketaere gertatu da zenbait kasutan. Horrela egun, Hg (GN), (Aezk), (Zar) **arratio,** baina (GN) Bertizarana, (G), (B) **arratoi;** (GN) Baztan, (BN), (L) **arratoin, arrotoin,** (Z) **arrathu,** (R) Bidankotze **arratoi,** Isaba, Uztarrotze **arratói.** MITXELENA (1977,148).

Gure datuetan: "-oi" diptongoa, **arratoi,** Bortzirietako azpi-euskalki guztian. "-Oin" eta honen aldakiak, sudurkaria sabaikatuz, Zugarramurdi eta Baztango azpi-euskalkian. Garzain-en alternantziak jaso ditugu "arrotoja" formarekin, bainan puntualak direla iduritzen zaigu. Gauza bera Goldaratz-en aurkitu duguna ere "arratoi" eta "arratore"-ren artean.

Beste sailean gelditzen dira Ultzamako azpi-euskalkian eta Arakilgoan gertatzen den diptongorik gabeko "arratore" forma eta haren aldakiak **arratori, arrature** eta **arratora.** Forma hori ziurrenez, dardarkariaren eraginez, "arratoe" formatik sortua izanen da.

**78 GOIZ 'temprano' (134)**

**79A GOIZ - 79B GOIZ HOTZA (135-136)**

"Oi" diptongoa, azken posizioan, silaba trabatuan.

Ikusi dugu, orain arte, "i" elementuak, erdibokal bezala diptongoan joaten denean, izan ohi duen ahultasuna, eta hurrengo kontsonantea sabaikatzeko gai bada, galdu egiten da zenbait euskalkitan.

Gauza bera gertatzen da "oi" diptongoarekin, batez ere xistukaria bada jarraian duen kontsonantea. "Goiz" / "gox", esaterako, forma arrunta da Bizkaieraz.

Ez da, alabaina, horrelakorik gertatzen Nafarroa-ko hizkeretan, "oi" diptongoa tinkotasunez mantenitu bait da azpi-euskalki guztietan. Aldaketa bakarrak Larraintzar eta Zugarramurdi-koak dira, "goiztiri" formarekin. Auza-n ere jaso dugu "amanecer" edo "goizeko hasierako orduak" adierazteko. Izan daiteke, agian, **goiz**

'temprano' formatik desberdintzeko sortu den hitz eratorria izatea. Edozein modutan ere hedadura zabalagoa du hitz honek: (BN), (L) eta (Z)-z dokumentatzen da eta baita (R) **goizteri.** Ikus AZKUE (1969,357).

## 80 BAKOITZ (137)

"Oi" diptongoa, silaba trabatuan, azken posizioan.

Kasu honetan ere diptongoaren murrizketa sortzen da hurrengo kontsonante xistukari afrikaria sabaikatuz.

Jaso diren emaitzetan "oi" diptongoa Erasun-en mantenitu da kontsonantea busti arren, eta beste kasu guztietan murrizketa gertatzen da.

Arraiotz-en **bakarra** ageri da eta horrela erabiltzen dute, **bakotxa**-ren parean, baina lehenengoa, "bakarra" da bat-batean ateratzen zaiena. Gauza bera gertatu zaigu Baztan-go Aniz eta Gartzain-en, hauetan, lehenengo **bakotxa** erantzun badute ere.

Bestalde, mapan forma bustia ageri da toki guztietan, baina **bakoitz** hitza ere badugu Bortzirietako azpi-euskalkian grabaketa askeetan. "Bakoitzak ate biar ttu kontuak" gisakoak, alegia. Agian ingurumenak badu eraginik.

Galdekizunean jaso duguna bi perpausen bitartez bildu genuen: "Dale a cada uno lo suyo" eta "cada saco de carbón cuesta mil pesetas", eta horiek horrela direla eta, izan zitekeen hortik etortzea forma bikoitzarena. Ez da horrela izan eta, edozein modutan, polimorfismoa hor dago, forma ugariagoa, erabileraren aldetik, sabaikatua delarik.

"Oi" diptongoa duen hitza **erdoi** da, ikus (37-38) mapak. Forma mugatuetan forma murrizten da diptongoa desagertuz eta bigarren elementua kontsonantizatzen delarik: **erdoja** edo, eta horren ondorioz, hotsa saieskatuz, **erdolla / -e** eginez.

• [ u̯i ]

**81 FRUITU (138)**

"Ui" diptongoa, silaba askean.

Oso bakana eta bitxia da diptongo hau, maileguetan eta toponimoetan agertzen da, diptongoaren ahoskera beherunzkoa baino gorunzkoa gehiagotan izaten duelarik, [otadwi]-, eta agertzen den kasu bakan horietan ere murriztu egiten da.

Hain maiztasun txikiko diptongo honek "fruitu"-ren kasuan benetan eremu ezin txikiagoa hartzen du gure mapan. Zugarramurdi-n ebaki dute diptongo bezala eta hor ere 2. lekukoak "u-i" bisilabikoa ahoskatu du, diptongorik gabe. Beste guztiek "u" bokala baizik ez dute eman. Halere, ez dugu uste murrizketa baten aurrean gaudenik, hau da, ez dugu uste "fruitu" hitzetik sortua denik. Itxura guztiak zuzenean gaztelerako "fruta"-tik hartuarenak ditu, -eta Zugarramurdi-koan frantsesezko "fruit"-etik-. Azkenengo posizioko bokalak ere hori adierazten du.

## 82A ASUIN - 82B HIRU ASUIN (139-140)

"Ui" diptongoa, silaba trabatuan, azken posizioan.

Ondoren kontsonante sudurkaria duen diptongo hau balitеke "oi" zahar batetik etortzea, eta sudurkariaren eraginez bokala gradu baten itsia izatea. "Asuin" hitzean, MITXELENA-k (1977,107) diptongoa metatesi batetik datorrena daitekeela dio ziur aski eta honako isoglosak ematen ditu: (L) **(h)ausin,** (BN), (L) **(h)ausin,** (G) **osin**, (B) **asun**, (Z) **asün.**

Gure mapa bat-batean begiratuz, badirudi nahastua eta gertaera askorekin ahoskatzen dela hitz hau. Baina ageri diren aldakiek badute, gure ustez, bere logika , hitz zaharretik hasirik, honako bilakabidea onartu daiteke:

aosin → ausin → asuin → asuña
osin → osiña
→ asoin

Bi murrizketa mota agertzen dira: lehenengoa, erabat normala dena, "i" elementu erdi-bokalikoa galdu egiten da, hurrengo kontsonante sudurkaria bustiz, eta bigarrena, diptongoaren metatesirik gabe, hasierako "au-" diptongoa murriztuz, "o" ebakitzen dute, "arraultza → arroltza", ikus (98-99) mapetan gertatu den bezala.

Distribuzio geografikoa, salbuespenak salbuespen, horrelakoa da: "ausin" Ultzamako azpi-euskalkian eta Arakilgoan; "asoin" Baztangoan eta Zugarramurdi-n; "asuin" ez zaigu agertzen, eta "asuñ" Bortzirietakoan. "Osin", berriz, Bortzirietako Etxalar, Arantza eta Erasun-en. Ituren-en bi aldetara dagoela dirudi, eta Donamaria, kasu honetan, Baztan aldera begira agertzen da.

### 1.2.2. Gorunzko diptongoak

[ja], [je], [jo], [wa], [we], hau da, erdikontsonantea lehenengo elementu bezala duten diptongoak euskaraz bigarren mailakoak dira gehienbat MITXELENA-ren ustez:

> *"Los diptongos ascendentes con **j** y **w** como primer elemento, son secundarios en vascuence, al menos en su gran mayoría. Aparecen en préstamos romances, sobre todo del castellano, y también como resultado de la acomodación de vocales en contacto" (1977,167).*

Aurretik, GAVEL ere (1920,89) diptongo mota honen kontra mintzatzen zen:

> *"La répugnance qu'il éprouve normalement à diphtonguer une voyelle faible, lorsque'elle **précède** une autre voyelle, constitue l'une des differences les plus caractéristiques entre les tendances phonétiques du basque d'une part et celles du castillan (et aussi, dans une forte mesure, du franÇais) d'autre part".*

TXILLARDEGI-k, aldiz, (1980,56) Ekialdeko euskalkietan topa daitezkeela dio, Aezkera, Zaraitzera eta Erronkariera direlarik gorunzko diptongoak egiten dituzten euskalkirik nagusienak: [máitja], [erancjá], [eskwá], [érja].

N. MOUTARD-ek gorunzko diptongoak ez ditu sistema fonetikoaren barruan kokatzen, baina zenbait hizketetako gertaera bezala seinalatzen ditu, batez ere (G) eta (GN)-z, hala nola, Baztangoan, /u/ bokala leherkari belare eta bokal baten tartean joaten denean, esaterako [gwatse]-ren kasuan (1975,21).

Edozein modutan, ez dago dudarik gorunzko diptongoak

ahoskatzen direla egun, eta euskalki guztietan ahoskatu ere maiztasuna euskalkien arauerakoa delarik. Orohar, "u" bokala belare leherkaria edo hurbilkaria den kontsonante baten ondotik eta aldiberean mugatzailea den "-a" morfemaz jarraiturik doanean, gorunzko diptongoa sortzeko joera agertzen du, hala nola: [néɣwe], [áɣwe], [sáŋgwe]. Horietatik kanpo eta Hegoaldean ere toponimian arkitu ditugu mota honetako diptongoak, Oñati-n [milíkwa], Zeberio-n [sußíčweta], [elóřja], [mẽn̥djéta], e. ab.

Zenbait kasutan, [j] eta [w]-tik kanpo, baita "e" eta "o" bokalek ere hurrengo bokalarekin silaba bakarra egin dezakete, Zaraitzeraz gertatzen den bezala.

Gauzak horrela egonik ere, joera zaharra diptongo mota hauek txuliatzearena izan da beti.

• Hitzen barnean [we] eta [je] taldeak galdu egin dira: (GN), (R), (G) "erregu", (BN), (Zar), (Z) "tireso", nahiz diptongoamurriztuz nahiz kontsonante epentetiko bat sortuz.

• Hitz hasierako [j] hotsa kontsonante bihurtu da edo epentesi bokalikoa hartu du: (L) "ja", (R) "xa", (GN), (G) "ia", "iya"; (G), (L), (GN), (B) "igeltsu".

• Metatesiak ere joera berdina agertzen du: "Bien que" → "beinke" Gipuzkoako Bizkaieraz.

### 1.2.2.1. Galdekizunean jaso diren kasuak

- Meileguen errealizazioak:
  suerte
  kafia - hiru kafe
- [j] diptongoaren lehenengo elementuaren errealizazioak:
  aihen - hiru aihen
  leiho - hiru leiho
  oihal - hiru oihal
  eho - artoa eho
  mahai - hiru mahai

- [w] diptongoaren lehenengo elementuaren errealizazioak:
  zango - hiru zango
  joan
  (mutiko) hauek

### 1.2.2.2. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

**83 SUERTE (141)**

"Ue" gorunzko diptongoa, silaba trabatuan.

Gorunzko diptongoaren egoera, gaur egun, arreta haundiz aztertu behar dena da, batez ere zein den hots hauen ebakera ikusteko eta finkatzeko.

Hitz maileguetan , batez ere zaharrenetan, txuliatu egin bada ere, bigarren pausu bat ager daiteke, hizkuntz erromanikoaren interferentziaz diptongo hori berriro ebakitzera igaroz. Hitz horietako bat, hain zuzen ere, **suerte** dugu eta nahiz **suberte,** nahiz **zorte** edo **sorte** egin, [we] sekuentzia baztertu egin dela esan ohi dugu.

Aztertu den lurraldean ez da epentesien bitartez ahoskaturiko formarik, baina bai, aldiz, murrizketarekin, Aldaz-en, hain zuzen. Halere, forma nagusiena gorunzko diptongoarena da, [we] alegia, azpi-euskalki guztietan hedatua; eta, azkenik, diptongorik gabe ahoskatua: "suertia", lau silabatakoa: Aniz, Arraiotz, Arantza, Ituren eta Sunbilla-n. Arraiotz-en diptongoa ere egiten duelarik bigarren lekukoak.

## 84A KAFIA - 84B HIRU KAFE (142-143)

"Ja" gorunzko diptongoa, azken posizioan, silaba askean.

Gorunzko diptongo hau aztertzeko hitz egokia da "kafe" edariarena erabilera mugatuan: "kafea" "kafia". Hitz hau, mailegu bat izatetik kanpo, oso berandu sartutako mailegua da, gaztelerazren bidez sartu bait zen, eta hizkuntza hartan ere XVII. mendean (Corominas) ageri da lehenengoz. Hortik datoz, esaterako, hasierako kontsonantearen tinkotasuna edo igurzkari ezpain-hortzetakoarena. Horregatik, bokalismo mailan ere zihurtasun haundia ageri da erantzunetan. Forma mugagabeetan denek lexemaren basean "-e" bokala ebaki dute batere aldaketarik gabe. Forma mugatuetan, Auza-k bakarrik egin du gorunzko diptongoa, alboko herriek, Larraintzar-ek eta Beunza-k, eta Zugarramurdi-ko B lekukoak ere berdin egiten du, hiru silabatako hitza ahoskatzen dute, azentua aurreko silaban egin arren.

## 85A AIHEN - 85B HIRU AIHEN
## 86A LEIHO - 86B HIRU LEIHO
## 87A OIHAL - 87B HIRU OIHAL (144-149)

Ortografia normalizatuarekin ari garenez, "h" grafia ageri da bi silaben tartean [oi-hal] aspiraketaren ahoskera Iparraldeko euskalkietan gertatzen delako.

Beste euskalkietan, Hegoaldean, eta egun Lapurdiko euskalkian ere gehienbat, hiru bokalen sekuentzia gertatzen da, "aie-", "-eio" eta "oia-". Sekuentzia honetan zera jakin nahi genuen: triptongoa ala muga silabikoa gertatzen den hots horien artean. Bigarren kasu hau gertatuz gero, beherunzko diptongoa ahoska daiteke: [aį-e], [eį-o], [oį-a] ala gorunzkoa [a-je], [e-jo] edo [o-ja]. Edo, azkenik, gorunzko diptongo horretatik, indarra makalduz, kontsonantizatu egiten da hotsa: [a-y̌e], [e-y̌o] edo [o-y̌a], alegia (38). Edozein modutan, "j" hotsak, diptongoaren lehenengo elementuak, zerikusi zuzena du "*j-" hotsarekin. Kasu bakanen batean galdu ere egin da hots hau, batez ere bokalen artean joan denean: **Donacua** ← **Done Jacue, Eaurta** ← **Eiaurrieta.**

Hemen aztertzen diren hitzetarako eman ohi izan diren isoglosak honako hauek izan dira:

(BN), (L), (Z): **aihen, oihal, leiho.**
(G), (GH): **aien, leio, oial,** [a-y̌en] ebakeraz..

Erronkarieraz sabai-aurreko frikari ahoskabea egiten zuten horrelako kasutan, hots hori "*j-" hotsarekin bat eginez: **lexo, oxal.**

Hots kontsonantikoa izan da jaso duguna kasu guztietan, izugarrizko batasunaz gainera. Kasu apartak oso bakanak eta isolatuak izan dira: (146) mapan Ituren-en [leúà] jaso da, bokal tarteko bokal sabaikaria galduz, baina A lekukoarengan azaldu da bakarrik ahoskera hau; (148) mapan, Beramendi-k ebaki du beherunzko diptongoa hitz hasieran, kontsonante sabaikariaz jarraiturik; azken ahoskera hau berezia da, tentsio haundia egiten bait dute lehenengo bi silabek artikulatzean, horregatik azentuatu ditugu biak.

Bukatzeko, zera esan dezakegu, garai zahar batean, "-i" erdibokala diptongoaren bigarren elementua zelarik, aspiraketa berriak agertzen duenez, beherunzko diptongoa zuten hitz mordoxka horrek, artikulazioa aldatzen du, elementu erdibokaliko hori kontsonante bihurtuz. Sabaiko igurzkari ahostuna da sortzen den kontsonantea, eta hasierako posizioko yod hotsaren edo armonia bokalikoaren ondorioz sortzen den bilakabidea izan du, hala nola, "leiho" hitzean (R), Ekialdeko (B)-n: Bergara, Arrasate, Gatzaga, Oñati "leixo" (AZKUE, 1969,539).

## 88A EHO - 88B ARTOA EHO (150-151)

> *"...los dialectos vasco-franceses tienen **eho** (sust. verbal **ehaite**), a-nav. guip. **eo,** pero hay también vizc. **eio** [ei(z)o], io [i(d)zo], a-nav. guip. vizc. **igo** ei- : en ronc. ei**o** "moler" i debe ser epentética, pues de otra forma se esperaría *exo" MITXELENA (1977,176).*


IRIGOYEN-ek (1987,9) beherunzko diptongoaren ondotik aspiraketa daramaten hitz mordoxka horretan kokatzen du hitz hau, forma zaharra bezala ***eiho** hartuz eta honela arrazoitzen du:

> *"...si tenemos en cuenta que junto a la variante **eho** se encuentra el derivado **eihera / eihara,** 'molino', en torno a las cuales, sobre todo después de que tenemos conocimiento de que en el bronce de Contrebia, -de antes de mediados del siglo I antes de Cristo-, se registra (s)EIHAR como monbre del padre de un zaragozano, SALLVIENSIS-".*

Jatorrizko hotsen egoera, hau da, garai zaharreko hitzak diptongoa ote zuen ala ez alde batera utziz, ez bait da hori garbi gelditzen, mapetan ageri diren datuak, orokorki harturik, hauek dira: Baztan, Zugarramurdi eta Etxalar-en **ego;** Ultzaman **ei / i-go,** tarteko ahoskera, Arakil, Ultzamako azpi-euskalkietako zenbait lekutan eta Bortzirietan **ijo, io, jo.**

Datu hauetatik atera daitekeenez, agian, **eio** zitekeen forma zaharrak, **eho** eta **eiho**-rekin alterna zezakeen distribuzio geografikoz "ei" → "e" gertatuz, oraintxe puntuan "leiho → leo [leúa] (Ituren) gertatzen zela ikusi dugun bezala-. Forma aspiratuak, Hegoaldean aspiraketa galdu zenean, **ego** ahoskera hartu zukeen, Baztan-en eta Etxalar-en ahoskatzen dena eta beste kasu batzutan gertatu den bezala, bokal ezberdinen arteko aspiraketa belare hurbilkari egitera aldatuz. Beste era bateko aldaketa "ei → i" litzateke, **eiho**-tik "igo" Erasun-en. Eta, azkenik, batere aspiraketaren aztarnarik gelditzen ez denean, eta diptongoa murriztuz: **ijo, io eta jo,** bokal, erdikontsonante eta kontsonante oso eginez, alegia, gainerako tokietan (39).

Ahoskeraren aldetik, bestalde, hitz polimorfikoa da hau. Etxalar eta Erasun-ek Bortzirietako azpi-euskalkira jotzen dute, lekuko nagusien informazioa aldendu egiten bada ere, eta Ultzamako azpi-euskalkietako zenbait lekutako forma oso mugikorra da, estatus finkorik ez bait du. Azkenik, Zugarramurdi-ko B lekukoaren aspiraketak bidea zabaltzen digu, hitz honetan "h" hotsaren bilakabideak ez duela aztarnarik utzi beste tokietan, zero izan dela, alegia, ziurtatzeko.


[ʸjó]
[eyo]
[iyo]
[i:ʸjó]
[eiʸjó]
[ío] / [iyó]
1
2
4
5
7
9
10
11
12
13
14
15
16
17
18
19
20

## 89A MAHAI - 89B HIRU MAHAI (152-153)

Aspiraketa egiten ez den tokietan, egun, elkar jotzen geldi-tzen diren bokalak, tinbre berdinekoak direnean, murriztu egiten dira Bizkaieratik kanpo, noizean behinka geminaziorik agertzen bada ere, orain arte ikusi den bezala.

Aztertu dugun lurraldean azaltzen diren emaitzak ez dira berdinak, denak latinezko leherkari ahoskabeko hotsetik etorri arren.

"Barkatu" hitza ahostun bezala azaltzen da orohar baina Bortzirietako azpi-euskalkiko Arantza-n eta Baztango Arraiotz-en ahoskabetzeko joeraz, Arraiotz-eko B lekukoak ahostuna ebaki badu ere. Aldaz-en,berriz, B lekukoa izan da ahoskabea ebaki duena. Eta, azkenik, Ultzamako azpi-euskalkian, Beunza-n ahoskabea forma besterik ez dugu jaso. Hortaz, ahostuna, bai, baina fluktuazioa ageri delarik, ez lurraldeen arauera, ez bait da banaketa garbirik, baina bai lekukoen arauera edo.

Askoz ere erantzun tinkoagoak dira "porru" eta "ditare" hitzek eskeintzen dituztenak. "Porru" kasuan denek hots ahoskabea ahoskatzen dute. Salbuespen bakarra Zugarramurdi-ko B lekukoarena da, "forrua" eta "iru forru" gertakizunekin. Berriz ere lekuko honen joera ageri da, Lapurterarantz jotzen. Euskalki honetan "porru" eta "forru" (LHANDE), "f"-rekin hasten ziren latinezko

maileguen ondorioz, hasierako bi ezpainetako leherkaria nahastu egiten zen, aipaturiko bi era horietara ahoskatuz, nahiz eta latinean "f-"-rik ez izan.

"Ditare" kasuan, azkenik, forma ahoskabea nagusitzen da. Aldaketa bakarra Zugarramurdi-koa, ahostun hotsez ebakiz hitza, eta honetan ere Iparraldean, eta Lapurteraz batez ere, erabiltzen den formez bat eginik. Arantza-ko B lekukoak sabaikatuz ahoskatu du, balio adierazkorra besterik gabe emanez hitzari.

Orain arte aztertu ditugun mapei gainbegirada bat emanez, jokabide desberdinak agertzen dira. Latinezko maileguen artean "bazkari" (12), "denbora" (71), "putzu" (79) -"butzu" ere entzun dugun arren-, "garizuma" (81), "gauza" (93) hitzek gotor samar eusten diote hotsari, ahostun - ahoskaberen arteko aldaketarik gertatzen ez delarik. Beste horrenbeste esan beharko genuke "gau" (95) -Erasun-go B lekukoak "kaua" egin arren- , "gazte" (43), "gazta" (44), "beso" (54), "bortz" (68), "guti" (83), "berant" (89), "barurik" (97) hitzei buruz, hauetan ozentasuna askoz ere tinkoago aurkitu badugu ere.

Aldakorrak dira berriz: "katea" (41), Zugarramurdi eta Donamaria-k ahostunez ebaki bait dute; "goroldio" (13), gehienek nahasturik emana edo deus gabe, hau da, aferesia eginez, hasierako hots hori galduz; eta horren parean, Arraras-ek ahoskabearekin, "k-" hotsarekin, ebakiz. "Gorputz" (86), ahostun / ahoskabearen txandaketaz leku berdinetan: Aldaz eta Arraras-en; Erasun-en ahoskabetzeko joerarekin. Emaitzak forma mugagabean aldatzen dira; Larraintzar izanen da hots ahoskabeaz ahoskatuko duen tokia. Gauza bera esan beharko litzateke "katu" (75) hitzaz, eta "katakume"-z (77) ere bai, bi hitz hauetan alternantzia haundia ageri bait da, eta, kasuren batean, baita lekuko berarengan ere, esaterako Ituren-en "katua", "iru kato", "gattokumia", "iru kattokume". Edo leku baten bertan ere A eta B lekukoen arteko txandaketa gerta daiteke, Aldaz, Arraiotz, Erasun eta Mugaire-n gertatzen den bezala.

Egia da, "katu"-ren kasuan, gaztelaniako "gato"-ren eraginez sor daitekeela ikusten ari garen alternantzia hori, baina, haatik, eta horrexegatik ere, Mitxelena-k esaten zuen bezala, posizio horretako ahostun / ahoskabe oposizioa errendimendu eskasekoa litzateke. Areago oraindik: benetako oposaketa galdu egiten da neutralizazioa sortuz, goian esan den moduan eta gure datuek baieztatzen duten bezala. Atera daitekeen ondorioa, agian, ahostun / ahoskabe oposaketaren pertinentzia makaldu egiten dela hasierako posizioan, eta horren ordez fonetika akustikoko bikotea ateza /ahula egokiagoa litzatekeela, hizkuntza germaniko eta sajonetan gertatzen den bezala, ikus FRY (1979,122-125). Dena den, analisi akustikora jo beharko da sonoritatearen marra agertzen den ikusteko, agertuko balitz, ahostun / ahoskabearen oposaketa pertinentea litzateke eta, bestea, ateza / ahula, ondorioz, erredundantea, gazteleraz eta hizkuntza erromanikoetan gertatzen den bezala, ikus QUILIS (1981,210).

**138A KUPEL - 138B HIRU KUPEL (214-215)**
**139A KABIA - 138B HIRU KABI (216-217)**
**140A KORAPILO - 140B HIRU KORAPILO (218-219)**

Hasierako hots leherkariekin jarraituz, ikusten da, zenbait kasuren bitartez behintzat, hots horiek posizio horretan duten makaltasuna. Aferesi kasua aipatu dugu goian, eta egia esan, bai Bizkaieraz, bai Iparraldeko Goi-Nafarreraz, aditz laguntzaileetan gertatzen den fenomenoa da partizipioaren ondotik joaten denean: "emon deutsot" > "emontsot" (B), "egin duzu" > "egin zu" edo "in zu", batez ere Ip (GN)-ko azpi-euskalkietan, beti leherkari ahostuna delarik, ikus (250-251) mapak. Ezin daiteke esan, bestalde, leherkari ahostun hau - bokal artean leherkari ez baina hurbilkari dena-, ingurumenaren eraginez galtzen joan denik, ingurumenak

berak eutsi bait dio hotsari leherkari bezala, teoria mailan behintzat, sudurkaria duelako aurretik. Beste bat izan da arrazoia, zein den garbi ez dakiguna.

Leherkariaren galera, hasierako posiziokoa beti, latinetik hartutako zenbait hitz mailegutan ere gertatzen da: Lat. CAVEA(M) > (h)abia > afia eta, horien parean "kabia" eta "kafia". Gure mapetan jasotzen diren beste kasu batzu ere badira: "kokotz" / "okotz", agian disimilazioz gertatutakoa; edo "korapillo" / "koropillo" / "orapillo", arrazoi berezirik gabe; edo, bestela, ahostuna, ahoskabea eta zero formak alternatuz: (B) **upa,** (B), (G) **upel,** (GN), (G) **kupel,** (BN), (L) **dupel, dupha.**

Hots hori galtzen duten hitzei begi emanez gero, agudo ohartzen gara denek zer bat dutela berdina, hau da, "k-" dutela kolokan agertzen den hotsa. Badu hots horrek, posizio horretan, berezia bihurtzen duen zerbait. GAVEL-ek hainbat kasu aztertzen ditu zehaztasun haundiz, (1920,365-391). Honi buruz MITXELENA (1977,255) honela azaltzen da:

> *"Las oclusivas fuertes iniciales se perdieron regularmente (de todos modos, la desaparición de* ***t-*** *fue mucho más radical que la de* ***k-****, salvo en algún caso en que las protegió el carácter expresivo del término* ***khe, ke****(e),* ***keí,...****,* ***khiño,...t(h)u...****".*

Gauzak horrela izanik ere, sortzen den galdera hau da: zein izan da jatorrizko egoera? Eta hotsaren presentziaren alde agertuz, nola esplikatu hotsaren galera, disimilazioak kasu bakan batzutarako besterik ez bait du balio. Gavel-ek, aipaturiko orrialdeetan, eta MITXELENA-k, (1977,251-255), beren teoriak ematen dituzte, azken hau posizio horretan leherkariek duten aldakortasunak sortzen dituen eragozpenez mintzatzen delarik: "El resultado es que la inicial es la posición de máxima inseguridad para la reconstrucción comparativa".

Hain ilun dauden garai zaharretako gertaerak alde batera utzi eta gure mapei begiratuz, aldakortasuna ageri dela, baina oso

urria, esan beharko genuke: gotortasun haundiz eusten zaio leherkari ahoskabearen ahoskerari hemengo kasu denetan, "kupela", "kabia", "korapillo"; atzera begiratuz, ordea, ikus "goroldio" eta "goroldio txarra" (73-74) mapetan, ez da horrenbeste gertatzen: forma arruntena leherkari ahostunarekin bada ere, hor daude Aldaz eta Arraras-ko leherkari ahoskabearen ebakera eta Beunza eta Goldaratz-en gertatzen den galera, ez dutelarik emaitzek banaketa zehatzik azpi-euskalkietan.

## 141A ONDDO - 141B HIRU ONDDO (220-221)

Hasierako posizioko leherkariekin jarraituz, ikusi dugu leherkarien aferesia edo galera gertatzen dela, baina alderantzizkoa ere gerta daiteke, protesi bat sortzea, alegia. Bizkaieraz eta Gipuzkeraz erabiltzen den "kirikiño" hitza, esaterako, lat. ERICIUS-etik datorrena da. Beste horrenbeste gertatzen da lat. FUNGUS-etik euskaran ditugun "onddo", "ontto"-rekin baina Lapurteraz kontsonante protetikoa hartuz leherkari belare ahoskabea, "kondo" Sara-n (LANDHE).

Gure mapetan ez da inon ere protesirik, ezta Zugarramurdi-n ere hain loturik egon arren kasu askotan Lapurterarekin eta, bereziki, Sara-ko hizkerarekin. Leherkari ahostuna hartuz kontsonante protetiko bezala, "giltzaur" hitza dugu, ikus (283) mapa. Muga Bortzirieta eta Baztango azpi-euskalkietan eta Zugarramurdi-n aurkeztuko litzateke, Ituren eta Aniz kanpoan geldituz protesirik gabe. Halere oraingoan ez badugu jaso ere protesi hori Ituren-en, aditua dugu hitz hori hots protetiko horrekin.

**142 JAIKI / -GI (222)**
**143 IRABAZI (223)**

Alabaina, ez da hasierako posizioan bakarrik agertzen ahostun eta ahoskabearen arteko alternantzia. Hitz barruan ere aurki daiteke bikoiztasun hori, normalean distribuzio geografikoa duelarik, baina ez beti hedadura berdinez. Gehienetan, forma arruntetik aldendu diren euskalkiak bazterrekoak izan dira, Zuberera eta Bizkaiera, hain zuzen. Eta, kasu askotan, fenomeno hauek garai zaharretakoak izan dira.

Gaur egun ere badira horrelako txandaketak bazterretako euskalki hauetan, esaterako **ebaki** / **ebagi** (B)-z izango litzateke forma ezagunetako bat, guk galdekizunean jaso ez duguna, ordea, bai erreferenteak eta bai erantzunak ugariegiak dituelako.

Iparraldean leherkari ahostun / leherkari ahoskabe / leherkari aspiratu alternantzia gerta daiteke, ikus GAVEL (1920,309-314).

Mapan jasotzen dugun kasutara mugatuz, aditzaren forma nominal zenbaitetan ager daiteke txandaketa hori, **irabazi** kasuan bezala, **RS**-en bi aldetara idatzirik agertzen da, eta baita Tartas-en **Onsa** liburuan ere, MITXELENA (1977,281).

Nafarroa-ko lurraldeetan, guk aztertu ditugunetan, ez da horrelakorik gertatu. Denetan bokal artean gertatzen den hurbilkaria ahoskatu dute, edo, bestela, Aldaz-en, Arakilgo azpi-euskalkian, Beramendi-n Ultzamakoan eta Amaiur-en, Baztangoan, batetik, eta Bortzirietako Arantza, Etxalar, Sunbilla eta Ituren-en, bestetik, galdu egin dute hurbilkaria eta galera horren ondorioz, era guztitako bokalen elkarketak egiten dituzte.

Gaur egunean ere distribuzio geografikoa aurkezten dute **jeiki** / **jeigi** formek. Garai zaharrean partizipioak egiteko erabiliko zen atzizki hori, "-ki" / "-gi", alegia; MITXELENA-k (1977,232-233) "-gi (B)-z eta "-ki" beste euskalkietan erabiliko zirela dio, (B) **jagi** eta beste euskalkietan jaiki, inoiz ekialderago ere aurkitzen delarik "-gi", (R) **xagi.**

Gure datuetan leherkari ahoskabea ageri da leku guztietan, eta aldaketa bakarra Arraiotz-eko B lekukoaren "jigi" litzateke.

Edozein modutan, eta gertatzen diren emaitzak kontutan hartuz, posizio honetarako ere leherkari ahostuna / ahoskabea oposaketa ez dela pertinentea esan behar da.

**144 ZENBAT DIRU? (224)**
**145 SAGARRAK DIRA? (225)**

Talde kontsonantikoen elkarketeei buruz ez da erantzun berdina jasotzen autoreengandik. MITXELENA-k (1977,345), esaterako, bi leherkari elkartzen direnerako agertzen duen bilakabidea edo araua hau da:

> *"enmudecimiento de la implosiva con ensordecimiento de la explosiva: cuando ésta es ya sorda, se pierde simplemente la primera".*

Lege honen balioa hainbeste eta hainbeste hitzetan oinarritzen da: **baita** < bait da; **bekain** < begi gain; **arkakuso** < ardi kukuso e. ab.

Baina hizkuntza mintzatuan badirudi gertaerak ez direla berdinak izaten, kanpo lanetan ibili diren fonetistek nahiz dialektologoek egiazta dezaketen bezala. NAVARRO TOMAS-ek, esaterako, Gernika-ko hizkera aztertu zuenean (1923,55-56), aurkitu zuen azken posizioko leherkari ahoskabea ahostu egiten zela orohar: "zenbat" [zemat] edo [semad]. Azken posizioan joaten diren hiru leherkari ahoskabeetatik, "-k" hotsa izaten da erlaxatuen ahoskatzen dena, hots afrikari ere bihur daitekeelarik batzutan, [g]-ren motakoa, hain irekia eta hain ahostuna ez bada ere.

Baina hots horien ahultasun hori, gainera -Navarro Tomás-ekin jarraituz-, haundiagoa izan daiteke "zenbat diru" eta horrelako segmentoetan:

> *"Dentro de la frase en "¿Zenbat diru daukazu?", el grupo **td** se pronunció como una doble **dd** oclusiva. En "¿Nondik dakazuz txoriok? y en "Zuk beste diru daukat", los grupos **kd, kb**, se pronunciaron gd, gb, con g tan reducida y débil que a veces parecía completamente eliminada".*

NAVARRO TOMAS-ek berak ere (1925,605) Gipuzkera aztertzerakoan ingurune horietako leherkariak, "nondik datorren" eta mota horietakoak, ahostu eta igurzkaritu egiten omen direla dio, hurrengo leherkaria hurbilkari bihurtuz. Erantzun berdintsuak jaso zituen HOLMER-ek ere (1968,93-94).

Guk jaso ditugun emaitzak nolabait bat datoz Holmer eta Navarro Tomás-enekin. (224) mapan leherkari ahoskabez amaitzen da hitza eta leherkari ahostunez hasten beste lexema, biak izen sintagma batean loturik doazelarik: "Zenbat diru?". Jaso ditugun erantzunak barreiadura haundikoak izan dira: Bi hotsak, amaierakoa eta hasierakoa, mantenitzetik hasi, lehenengoari eutsiz eta bigarrena ahoskabetuz bazter batetan; lehenengoa galduz eta bigarrena ahoskabetuz beste muturrean; eta bimutur horien artean, mota guztietako erantzunak.

Bigarren mapan, "sagarrak dira" kasua dago. Emaitza berdintsuak honetan ere, baina makalagoa da leherkari ahoskabearen ebakera, galtzera ere iristen delarik, hurrengo hotsa ahoskabetua ebakiz, ikus (225) mapa. Erantzunen aniztasun hau oraindikan aberatsagoa litzateke, B lekukoen erantzunak jarri izan bagenitu. Egia esan, hain zen haundia sortzen zen barreiadura batere gauza berririk eskeini gabe, ezen erabaki genuen lekuko horien erantzunak ez azaltzea, nolabait A lekukoarengandik kanpo ere agertzen zelako sandhi kontsonantiko hauen kolokatasuna. (Arantza-ko B lekukoaren erantzuna jarri dugu, A lekukoaren erantzuna ez zitzaiolako eginiko galderari ongi lotzen).

Gure ustez, orain arte fenomeno hau ikertu duten fonetistek azaltzen dituzten gertaerek beren artean kontrajarriak badirudite ere, ez da horrelakorik egiaz gertatzen. Gertatzen dena zera da, Mitxelena-k, ia kasu guztietan, unitate bat bihurtu diren elementuak ekartzen dituela, mintzaleak hitz bakartzat hartzen dituenak egun eta bitan banatzeko eta ingurune ezberdinetan erabiltzeko biderik eskeintzen ez dituztenak. Horregatik, legeak bere garaian operatu zuen, eta orain burutuak aurkitzen dira fenomenoak.

Baina bestelakoak dira "Zenbat diru?", "Nondik dator?" eta horrelakoak. Hauetan elementu bakoitzak autonomi eta nortasun osoa du, eta askatasun osoa duelako, beste sintagma eta kasu batzutan sartzeko eta erabiltzeko ere gai da: "Zenbat etxe", "Nondik ageri da" e. ab., aztertzen dugun hotsa, azken posizioko leherkari ahoskabea, alegia, oso-osorik ebakitzen delarik.

Hau da, kasu batean, garai bateko legeen betekizuna, klitxaturik gelditu diren formetan ageri da eta banatzeko edo bereizteko aukera apurrik ere eskeintzen ez dutenetan ageri da. Eta bestean, bi elementu solteen elkarketa aldikoa da, eta aldian aldiko ahoskerara irekiak gelditzen dira hotsak.

Horrez gain ere, inkestagilea grabaketa egiten dagoenean eta galderak lekukoari zuzentzen, honek ez du nolanahi bat-bateko erantzunik ematen, eta horrelakotan, lekukoak ondo esaten jartzen duen enfasiak, oker ez ebakitzetik zaindu beharrak eta beste mila arrazoik, denek laguntzen dute ahoskera zaintzen. Horregatik, bada, uste dugu kasu hauetarako ezin dela arau tinkorik ematen ahal, gertakizunek erakusten duten bezala, eta ongi datozkigu, gai hau bera dela eta, NAVARRO TOMAS-en (1923,56) hitzak:

> *"Las discrepancias señaladas entre O. y P., unidas a esta gran falta de fijeza en la pronunciación de uno y otro, alejan toda idea de unidad fonética en el vascuence de Guernica".*

Eta (G)-z egin zuen lanean (1925,609, oharra):

> *"En la pronunciación de B, la vacilación entre las oclusivas b, d, g y las fricativas b, d, g parecía aún más viva y sensible que en L. B hacía más formas oclusivas que L en pronunciación fuerte, y más formas relajadas en pronunciación suave".*

Kanpo-sandhitako beste kontsonante talde batzuen bilakabidea xistukaria + leherkari taldean aurrerago aztertzen da, ikus "Ez dut", "Ez gara", "Ez banaiz", (259), (240) eta (241) mapak. Ez, aldiz, NAVARRO TOMAS-ek jaso zituen emaitzetan (1925,607).

**146 EDO (226)**
**147 BIZI DA (227)**

> *"La oclusiva dental sonora cambia a vibrante en posición intervocálica, en algunas hablas cerrando el proceso: (B) Eibar, Lekeitio, Otxandio, Plazentzia" AZKUE (1919,462).*

Eta, Azkue-k berak fenomeno hau (G) eta (GN)-ko euskalkitara zabaltzen du: (B) ero < edo; eran < edan; bire < bide; neuria ra < neuria da.

MITXELENA-k (1977,227) Errenderi-rako **aixkire < adixkide; bire < bide; oroi < odoi,** kasuak azaltzen ditu, baina fenomenoa (G) eta (B)-ko hizketetan kokatzen du eta (GN)-ko zenbait lurraldetan ere bai. Dena den, fenomeno hau euskal fonetika aztertu duten hizkuntzalari gehienek jaso dute: Bonaparte-k, Holmer-ek, eta abarrek.

Hortzetako den hurbilkari hau dardarkari mailako hurbilkaria izatera gertatzen den aldaketa zein kasutan sortzen den ikusteko, bi adibide jarri genituen galdekizunean: "edo" eta "bizi da", hitz barruan eta kanpo sandhi batean, bokal artean gelditzen zen inguruneetan, jakina.

Gure lurraldeetan ez dugu aldaketarik jaso. Toki guztietan hurbilkari hortzetakoa ebaki da, hotsa galdu ez den kasutan behintzat, Ultzamako azpi-euskalkian eta Amaiur-en gertatu den bezala "edo" formarekin. Beste horrenbeste gertatu da "bizi da" aditz sintagmarekin, hemen, batere makaldu gabe artikulazioa, hagitzik ere sendoago gorde delarik hurbilkaria.

Aurkitu dugu, ordea, aldaketa hau (166) mapan, "edan" hitzean, hain zuzen ere. Oronotz-Mugaire-ko A lekukoak "eran" ahoskatzen du, B-k hurbilkariz egin duelarik. Eta hori izan da mapa honetan gertatzen den kasu bakarra.

(26) mapan "eguzki" hitza jasotzen da. Alternantzia ageri da mapa honetan, oso haundia gainera, hurbilkari honi dagokion ahoskeran. Hurbilkari belare bezala mantenitzen da Bortzirietako azpi-euskalkiko Arantza, Oieregi eta Erasun-go ahoskeran; Baztango azpi-euskalkian Amaiur-en; eta Goldaratz-en, Ultzamakoan. Hurbilkari biezpainetakoa Bortzirietako azpi-euskalkian Ituren eta Sunbilla-n. Hortzetakoa, Baztango Arraiotz eta Gartzain-en; Bortzirietakoan, Etxalar, Oronotz-Mugaire eta Donamaria-n; eta Ultzamakoan, Larraintzar, Auza eta Beunza-n. Azkenik, dardarkari bigunez, Zugarramurdi-n eta Baztango azpi-euskalkian, Aniz-en. Aparte gelditzen dira eta hemen ez ditugu azaltzen hotsa galdu dutenak. B lekukoaren ahoskerari begiratzen badiogu, berriz, Baztango Arraiotz-ek du dardarkaria, baina Aniz-eko 3.lekukoak hurbilkari hortzetakoa ahoskatu zuen.

Mugagabeetara joanez, mugatuetan gertatu diren ebakerak mantenitzen dira, baina berriro Oronotz-Mugaire-ko B lekukoak "lau iruzki", dardarkariz, alegia, ebakitzen du.

Ez dugu alderantzizko kasurik aurkitu, "r > d" aldaketa,

alegia. "Berandu" (89), "garizuma" (81), "goroldioa" (73), "denbora" (71), "arotza" (57), "zoratu" (56), "keratsa" (28) hitzek, beste kasu askoren artean, gal dezakete dardarkaria, baina artikulazio modua ez dute aldatzen. Bestalde, "gaztedi" esaten da lurralde hauetan, baina "euri" edo "uri" (103) - Auza-n bakarrik izan genuen "eudie", baina hau ere zalantzakoa-.

Zein izan daitekeen hurbilkariaren aldaketaren arrazoia eta zein distribuzioa, distribuziorik balu behinik-behin, ez dakigu. Izan, aski bakana da fenomenoa, eta ia ez du finkotasunik, Oronotz-Mugaire-ko B lekukoarengan ageri dentxoak izan ezik.

Halere, azaldu diren kasuak, gutxi izan arren, nahiko dira honako ondorio hau ateratzeko: hurbilkarien egoera, bokal tartean joaten direnez, oso mugikorra dela, eta galtzeko arriskurik ere badutela ingurune horren eraginez (3). Ez da hori gertatzen leherkari ahoskabeekin hitz barruan, ez bait dira beste hotsez txandakatzen.

**151 GABE (233)**

Aztertzen ari garen hots sail honetan metatesiak ere gertatzen dira: bizpahiru silabatako hitzak dira, normalean, aldaketa hau jazaten dutenak: "gabe", "gibel"...

Gure mapan ez da "gabe" kasuan horrelakorik gertatzen. Izan ere, "baga", "bage" Bizkaieraz erabiltzen da. Hitza "Sin ir no veré eso" eta "Sin eso también ya pasaré" gazteleraz egiten ziren galderen bitartez eta ingurunean bildu zen. Sunbilla-n "gabetenik" jaso genuen, baina forma honek eremu zabalagoa hartzen du, "gabetenikan" / "gabeteniken" formekin batera, Bortzirietako azpieuskalkian hedatzen delarik. Semantika edo funtzioaren aldetik,

berriz, ez dio deus gehitzen edo aldatzen. Hona, ablatiboko morfemaz hitz egiterakoan, zer zioen AZKUE-k (1969,332-333) aldaki honetaz:

> *"Hay otra variante tikan que sin vacilación la he calificado de ramplona. Pertenece a los dialectos AN, G, L. Joannes d'Etcheberry ha sido tal vez el autor que más se ha valido de la enclítica an aplicada a varios sufijos terminados en ik".*

**Hurbilkariena amaitzeko zenbait ohar**

Arestian ageri izan den bezala, hurbilkarien egoera oso mugikorra da eta ziurtasun falta hori izan daiteke arrazoirik behinena hainbeste alternantzia gertatzeko hots horien artean. Besterik ere izan daiteke, ordea, disimilaketa - asimilaketa ere txandaketa horien oinarrian egon bait daiteke.

Orain arte azalduriko kasuez gainera, badira, eta ugari, beste kasu batzu ere. "Xaboi" (130) hitzean, bere "-b-" / "-g-" edo zero formen artean bat nagusitzen den arren, hirurak txandakatzen dira, hurbilkarizko aldakiak batez ere. Dena dela, gaztelaniako "jabón"-en interferentzia izan dezake. Baina ez dago interferentziarik "ogia"-n, (118) mapan eta hurrengoetan; eta "ogi"-ren parean "obi" ere aurkitzen da, azken hau hiru azpi-euskalkitan: Arakilgoan, Aldaz-en; Ultzamakoan, Arraras eta Beramendi-n eta Bortzirietakoan, Erasun-en. "Sudurtzuloa"-n (290-291) ere bai, "sugur-"-ekin egin bait dute Arantza eta Oronotz-Mugaire-n.

Hurbilkarien alternantzia hori, dardarkariez aparte, hurbilkari ez diren beste hots batzurekin ere gerta daiteke: "kabi" (216-217) hitza, "kafi" formarekin txandakatzen da, eta txandaketa herri berberan ere gerta daiteke Oronotz-Mugaire-ko lekukoek agertzen duten bezala. Eta, gehiago oraindik, lekuko batengan ere gerta daiteke txandaketa, Zugarramurdi-ko B lekukoak "kabia" eta "iru kafi" ahoskatu bait du. Horrela, bada, bi polimorfismo motak ageri zaizkigu: banakakoa eta gizartekoa.

Aldakortasun hori bigarren mailako hurbilkariekin ere agertzen da. "Aho" hitzak (59-60) **ago / abo / axo / ao** aldakiak ditu, hau da, hain lurralde txikia izanik ere aztertzen ari garena, lau aldaki barruko bokalarteko hotsari dagokionez. Aldaki gutxiagorekin, baina txandaketa mota berdinarekin, "behor" (182-183) eta "bihar" (193) hitzak, biezpainetako hurbilkariaz aldatzen dutelarik garai bateko aspiraketa. Diptongoaren bigarren elementua "u" erdibokal ezpainkaria denean, hurbilkari ezpainetakoaz aldatzen da eta aski maiz gertatzen da gainera. Ikus, adibidez, "gau" (95-96) hitza. "Belarri" (168-169) kasuan, berriz, bigarren mailako hurbilkaria "l" albokariaren aldaketaz sortua da, "begarri".

Amaitzeko, hurbilkarien ezaugarri nagusi bezala mugikortasuna eta nortasunik eza aipatuko genituzke. Eta, ahultasun horren ondorioz, hainbat trukaketa gertatzen dira, nahiz beren artean, nahiz beste sailetako hotsekin: albokariekin, dardarkariekin eta igurzkariekin. Horiez gain, galera ere ugaria da. Horiek denak ikusirik, ondorio hauxe atera daiteke: hurbilkari hauen egoera larria dela sistema fonetiko barruan, eta, leherkarien aldaki kontestualak direnez, garrantzi txikia dutela.

Geografiaren aldetik, berriz, ahultasun eta aldakortasun horrek berak eraginda, aldakiek ez dute distribuzio edo hedadura tinkorik eta isoglosak ezartzeko aukerarik ere ez dute eskeintzen.

## 149 GURASOAK (230)
## 150A GURDI - 150B HIRU GURDI (231-232)

Aurreko mapetan hurbilkariek elkarren artean edo beste saileko zenbait hotsekin dituzten alternantziak ikusi ditugu, eta hasierako leherkari ahostun / ahoskabe-en artekoak ere bai; baina hasierako leherkari ahostunen artean ere gertatzen dira alternantziak, eta ususko gertatu ere.

MITXELENA-k (1977,258) kasu guztiak, hitz hasierakoak eta hitz barrukoak, batera aztertzen ditu, honako arrazoiak azalduz:

> *"No escasean los casos de permutación entre oclusivas de distintos órdenes. Influye en unos la inseguridad inherente a la posición inicial, en otros la articulación muy relajada entre vocales de las oclusivas sonoras, que da lugar a desapariciones y falsas restituciones".*

(230) mapan "gurasoak" hitza jasotzen da eta belareko leherkaria batasunez ahoskatzen dute lekuko guztiek. Zugarramurdi-ko B lekukoak, berriz, hotsa aldatzen du "b-" biezpainetakoa ebakiz.

Hurrengo mapetan "gurdi" hitza jasotzen da. Semantikaren aldetik Oieregi-n "gurdija" 'burnia'-ren esanahiarekin azaldu zigun A lekukoak, ez ordea, B-k. Beste leku batzutan, ez askotan, "gurdia" hitza ezagutu arren ez dute erabiltzen eta "karrua" erantzuten ziguten. Aniz-en, esaterako, "gurdia" hitza Amaiur-en erabiltzen zela zioten, baina Amaiur-en "orga" forma jaso genuen Zugarramurdi-n bezala, horrekin Lapurterara hurbilduz.

"Karrua" Baztan-go azpi-euskalkian gertatzen da, -M. IZETA-k (1985,596) "orga" dakar bere hiztegi zerrendan, baina ez du inon kokatzen eta Baztan bailara guztirako bezala ematen du-; Oronotz-Mugaire-n ere bai, eta, hainbeste gauzetan Baztangoarekin lotzen den Auza-n ere. Eta, azkenik, Donamaria-n ere, Bortzirietakoa izan arren, "karrua" jaso genuen, baina Donamariako hizkera ere behin eta berriz agertzen zaigu Bonaparte-k sartu zuen azpi-euskalkitik kanpo. Dena dela, honek hauxe adierazten digu, hitzaren hedadura eta aldaketa egiaztatuak balio dutela, eta lekukoen erizpideek, berriz, deus gutxi balio dutela nahiz "ezezko erizpideak" jasotzen direnean, nahiz lekukoek erabiltzen ez dituzten formak non erabiltzen diren esaten dutenean.

Fonetikaren aldetik eta leherkariaren ebakerara lotuz, nola forma mugatuan hala forma mugagabean, ebakera nagusia "g-" belareaz da. Horren parean eta txandakatuz, "b-" biezpainetako hotsa Bortzirietako Etxalar eta Ituren-en jaso genuen eta Ultzamako Larraintzar-en.

Oieregi kolokan gelditzen da berriro, polimorfismoa agertuz, mugatuan "gurdija" eta mugagabean "iru burdi" ahoskatu bait zuen. Honek bidenabar alternantzia honen tinkotasun falta adierazten du.

Azkenik, sail ezberdinetako alternantziez bukatzeko, leherkari ahoskabeen artean gerta daitezkeen alternantziak aipatuko ditugu: **auspo / ausko** (92-93) hitzean ikus daitekeena bezalakoak, azken hau ongi kokatua dago Baztango azpi-euskalkiko, Oronotz-Mugaire-n eta Zugarramurdi-n.

Horrenbestez, fonologikoki, leherkarien eta hauen aldaki diren hurbilkarien pertinentzia oso mugatua ageri da; ezerk pertinentziarik izatekotan, bokalarteko edo dardarkarien ondorengo ahostun / ahoskabea oposizioak izanen luke, eta honek ere ez beti ikusi dugunez.

## 148A OILANDA - 148B HIRU OILANDA (228-229)
## 152A ALDARE - 152B HIRU ALDARE ((234-235)
## 153 HEMENGO -154 KOLKOAN - 155 HILGO (236-238)

Leherkari ahoskabea sudurkari eta albokari baten ondoren doanean ahostun egiten dela gauza ezaguna da. (Z) eta (R) euskalkiak dira orohar lege honen aurka doazenak, ez bait dute ingurumen fonetiko horretan ahosten leherkaria, nahiz eta (Z)-z beste euskalkien eraginez edo hauei hartutako maileguz, kasuren

batzutan, ziurrenez, ahostunak izan. Fenomeno zaharra da hau, latineko maileguetan ordurako ahostu egiten bait ziren. Inguruko erromantzeetan ere, gaskoieran eta aragoeran, gertatzen zen, leherkariak albokari eta sudurkarien ondoren ezezik, baita dardarkari baten ondoren joaten zirenean ere.

Lat. TEMPORA(M) > denbora / (B), (Z) denpora / (R) témpra

Lat. CULTER > golde, euskalki guztietan, baita (Z) eta (R)-z ere.

Lat. ADVENTU(M) > abendu (Aezk), (GN) / abentu (R) / abentü (Z)

Beste hitz batzutan: **sukalde, ugalde, zango** / (Z) eta (R) **sukalte, ugalte, zanko,** e. ab.

Ahostunen alde neutralizatzen diren hots horien gertaerak ikusteko hitz ezberdinak hautatu genituen. Lehenengo eta behin, hortzetako leherkaria sudurkariaren ondotik doanean, "-anta" / "-anda" atzizkia -batzutan "-anga" leherkariaren artikulaketa lekuz aldatuz-. Aztertu dugun lurraldean ez da batere aldaketarik sortu; toki guztietan hortzetako leherkari ahostuna ebaki da. Donamaria-n jaso zen "-anta" ahoskabea forma mugagabean, baina beste lekukoek ez dute ebakera hori baieztatu, ahostuna egin bait dute.

Hurrengo hitza latinetik hartutako mailegu bat da: "aldare" hitza. Hortzetako leherkaria hemen ere ahostuna bihurtzen da aurreko albokariaren eraginez. Aldaketarik ez dago eta leku guztietan ahostun ebakitzen da. Eta beste horrenbeste gertatzen da "-ko" atzizkiarekin sudurkariaren ondotik "hemengo" kasuan: ahostuna da erantzun bakarra.

Ez da ahostu, aldiz, belareko leherkari ahoskabea albokariaren ondoren. Kasu guztietan ahoskabea gertatu dira "kolkoan" eta "hilgo". Lehenengoan alternantzia azaltzen da, baina ez aztertzen ari garen inguru fonetikoan, hasierako leherkarian baizik, Amaiur-ko A lekukoak eta Ituren eta Zugarramurdi-ko B lekukoek ahostuna ahoskatu bait dute. Baina, albokari ondoko

leherkaria ahoskabea da kasu guztietan. MITXELENA-k esaten zuenez (1958, 343), hitz hau bera leherkari ahoskabez, "kolko", ebakitzen zen (Aezk) eta (Zar)-z Bonaparte-ren garaian behintzat, baina ahostunez, (R)-z "golgo".

"Hilgo"-ren kasuan, "ilko" / "illen" alternantzia egiten da lekuen arauera. Baztango azpi-euskalkian, Aniz eta Arraiotz-en; eta Bortzirietakoan, Oronotz-Mugaire, Etxalar eta Sunbilla-n "ilko" forma ahoskabea jaso zen. Lhande-k ere forma ahostuna dakar, ahoskabearekin txandakatuz, Iparralderako.

Beste mapetara begiratuz, erantzunak ez dira berdinak. "Bazkaldu" (15) toki guztietan ahostuna gertatu da. Baita "denbora" (71) hitza ere, Arantza-ko B lekukoak ahoskabea ebaki badu ere. Beste horrenbeste "zango" (154) hitzarekin ere, denek ahostunari eusten bait diote.

Ez da ahostuna, berriz, "elkarrekin" (36) kasuan, Zugarramurdi-n bakarrik ahoskatu bait da ahostunez. Bestalde "Jainkoa" (111) hitza begiratzen badugu, "-goikoa" bigarren elementua duten lekuetan ahostuna ahoskatzen da, ez, aldiz, "-koa" bigarren elementu bezala duten lekuetan, sudurkariaren ondotik joan arren. Lehenengoaren bilakabidea ikusirik, "Jaun + goikoa" herri etimologiaz edo sortua dela dirudi. Baina zergatik ez den erregela betetzen bigarren kasuan, hori ez dakigu. "Mantelina"-ren kasuan ere (395) ez da egiten ahostuan; Latineko MANTU(M)-etik dator, eta kasu honetan gazteleraren interferentzia ere egon daiteke.

Edozein modutan, ditugun datuetatik, albokariaren ondotik doan leherkaria -eta leherkari belarea gainera- esango genuke, gertaeraren aldetik eskasa izatetik kanpo, askotan aldatu gabe gelditzen dela, "kolkoan", "ilko", "elkarrekin" kasuek adierazten duten bezala. Eta sudurkaria bada aurreko hotsa, bietara ageri dira erantzunak: "emengo" ahostuna, baina "Jainko" ahoskabea.

Dena den, lege bezala formulatzen den fenomeno hori:

$$\left\{ \begin{matrix} p \\ t \\ k \end{matrix} \right\} \rightarrow \left\{ \begin{matrix} b \\ d \\ g \end{matrix} \right\} / \begin{matrix} l \\ n \end{matrix} _$$

ezin daiteke inondik ere esan beti eta euskalki guztietan, (Z) eta (R)-n izan ezik, erregulartasunez betetzen denik. Azterketa sakonagoaren beharrean dagoela uste dugu.

Aparte gelditzen da [t'] hotsa. Leherkariak ahostunak egiten badira ingurumen horietan, ikusi beharko litzateke zer pasatzen den "onddo"-rekin (220) mapan. Gure datuetan, ahostunez ebakitzen da Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Bortzirietakoan eta Ultzamakoan, honako salbuespenez: Erasun, Bortzirietakoan; Beramendi eta Goldaratz, Ultzamakoan; eta Aldaz-en Arakilgoan; hauetan: "oñttoa" eta "ontoa" ahoskatu bait dute.

**156 EZ DUT - 157 EZ GARA (239-240)**
**158 EZ BANAIZ (241)**

Beste neutralizazio mota bat leherkari ahostun eta ahoskabeen artean kanpo-sandhian gertatzen dena da, xistukari baten ondoan joaten denean. Gertakizun hau beti eta edonon gertatzen den lege bezala aurkeztua izan da, irakurtzerakoan ere lege hori bete beharra agertuz, gainera. IRIGOYEN (1978,637-638) ez da zuzenean legearen balioaren aurka agertzen, baina bai legearen erabateko eraginaren aurka, eta beharrezko jotzen du aldez aurretik noiz betetzen den eta noiz ez ikertu beharra.

Gure datuek ere ez dute hori egiaztatzen. Joera hutsa baino gehiago da leherkaria ahoskabetzekoa, baina, (239) mapan

esaten den bezala, alternantziak ere haundiak dira, lekuko batek berak ere, zein batera zein bestera, bietara joka bait dezake.

Beste ezberdintasunik ere baden arren ebakerari dagokionez, "ez dut" kasuan ahostunez ahoskatu da Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Amaiur, Gartzain eta Aniz-en eta Ultzamakoan, Auza eta Larraintzar-en.

"Ez gara" mapan leherkari ahostunez honako hauek ebaki dute: Baztango azpi-euskalkian, Aniz-ek; Bortzirietakoan, Etxalar eta Oronotz-Mugaire-k; Ultzamakoan, Auza, Larraintzar, Arraras eta Beramendi-k.

"Ez banaiz" kasuan: Zugarramurdi-k; Arraiotz-ek, Baztangoan; Auza, Beunza, Arraras eta Beramendi-k, Ultzamakoan.

Ikusten denez, ez da jokabide zehatzik ageri, eta Ekialde-Iparraldetik Hegoalderuntz leherkari ahostunaren presentzia aski nabaria da. Baina hauek ere ez dira inola ere erabateko jarrerak. Grabaketa asketan hiztun hauek ahoskabea ebaki dute eta, alderantziz ere, mapetan ahoskabe egin duen zenbaitek, askean, inoiz edo behin, ahostunez ebaki du leherkaria. Horregatik, beraz, legea betetzen dela esan behar da, baina ez itsu-itsuan edo kasu guztietan, eta hiztunak askatasun osoz erabiltzen du, ohartzeke eta batere garrantzirik eman gabe nahiz batera nahiz bestera. Kanpo sandhi-denez, gainera, pilaka hitz ezberdinekin gerta daiteke testuinguru foniko bera, eta joerak ez du indar bera agertzen denetan: zenbat eta bakanagoa hitzen topaketa, hainbat eta ahulagoa kanpo- sandhia. Gure mapetan jaso direnak aditzaren forma ezezkorrak dira, kasu oso erabiliak beraz; baina hauetan ere ez da beti gertatzen fenomeno hau.

Konposatu berrietan ere kanpo-sandhi hori ez da gertatzen, gramatikaren eraginez eta norberaren bortxaz izan ezik. Adibide oso ona "ezberdin" hitzarena litzateke: "ez"-ekin osatua eta maiztasunik haundienekoa izan arren, "ezperdin" ebakera ez litzateke onargarri izanen, ulertu, denek ulertuko balute ere.

## 2.1.5.LEHERKARI SABAIKOAK

### 2.1.5.1. Definizioak

[t'] : Artikulatorioa: leherkaria, sabaikoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, etenkaria, karrankaria, ahoskabea.

[d'] : Artikulatorioa: leherkaria, sabaikoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, etenkaria, matea, ahostuna.

### 2.1.5.2. Gertakizun fonetikoak

MITXELENA-ren ustez (1977,184-185), /t'/ fonema da, eta, hain zuzen ere, adierazkorrena, inguruetako erromantzeek ez dutelako beren sistemetan. Tomás BUESA-k (1972,91) euskal sintema kontsonantikoak duen kontsonaterik adierazkorrena dela dio. Bizkar-sabaiko leherkari ahoskabea bezala definitzen du, eta egun, berak aztertutako Nafarroa-ko lurraldeetan desfonologizatua dagola, hortzetako leherkaria ahoskabea gertatuz: "t' > t", alegia.

NAVARRO TOMAS-ek (1925,626-627) hots honi buruz honela zioen:

> *"Las variantes de la t vascongada, por la forma de su articulación, oscilan entre la oclusión pura y la oclusión africada, y por el lugar en que se producen ocupan un ancho espacio articulatorio desde los dientes hasta el principio del velo del paladar. [...] Sería del mayor interés conocer la forma y la extensión de cada una de las variedades de este sonido, que es sin duda uno de los más característicos y más ricos en matices dentro de la fonética vasca".*

NAVARRO TOMAS-ek berak (1923,54) bi [t'] mota bereizten ditu Bizkaierarako: bata, "medio-palatal, dorsal, sorda, mojada [t̡]"; eta "post-palatal, dorsal, sorda, mojada [k̡ ]", bestea.

HOLMER-ek (1964,17) hots aparta bezala definitzen du eta leherkarien sistematik at gelditzen dena, beti ahoskabea dena eta korrelato ahostunik ez duena, "prescindiendo de ciertas variantes de "j" que pueden asemejarse a d'"; "el primer elemento de la africada ch del castellano (=t's)" ekartzen diola burutara dio, eta badela, gainera, "una variante bastante corriente, una k palatal (k') lo'ik'u(b)a (R3, 'enlodado')".

Baztango hizkera aztertzerakoan ez zuen A. ALONSO-k (1923,63-64) aztertu gabe utzi sabaikoa den hots hau eta, hizketa laxoan edo zaindu gabekoan, lehenengo gradoko asibilaketa (5) gertatzen dela zioen eta ahoskera zainduan ez omen zela ez sabaikoa, ez bustia ere: "Es, más bien, una "t" predorso-alveolar de explosión sorda". Hots honek Baztaneraz duen erabileraz eta maiztasunaz, berriz, horrela dio: "es escaso y, exceptuando la expresión onomatopéyica tapatapa, gizon-talla, apenas tiene lugar más que en nombres propios para darles el matiz familiar de afecto: Antoni, Vitor, etc., apato, amato, aitato. A veces estos matices de pronunciación determinan sendos matices de significación. P.ej. gizon txarra, xarra, ttarra".

Artikulaketaren aldetik egin ditugun palatogrametan erdisabaiko jaso dugu hots hau, atzera egiteko joerarekin bokalaren arauera. Horrela "atta"-ren kasuan sabaierdikoa, baina sabaiatzekoa "loditu" ahoskatzean. Ikusi den bezala bai Amado ALONSO-k (1923,63-64), bai NAVARRO TOMAS-ek (1923,54) hizketa mota bereizten dute deskribapena egiterakoan, hotsa bera aldatzen delarik laxoa ala zaindua denean, azken honetan afrikaritasunaren hersketa indar gehiagorekin agertuz, eta hau geuk ere nabaritu genuen inkestak jasotzerakoan.

Hersketa mihi gorputza ahosapaiaren kontra jartzerakoan sortzen da, mihiaren aldamenak hotzen tartean geldituz. Mihi-

punta beheruntz gelditzen da, baina bere mogimenduz airea kanpora urtetzen laguntzen du. Benetako "t" busti baten itxura guztia du eta bat gatoz NAVARRO TOSMAS-ekin ematen duen definizioarekin, izan ere horrela delako.

[d'] hotsaren deskribapena [t']-rena litzateke, ahoan parte hartzen duten elementuen posizioak berdinak direlako. Ahoskorden dardaratik kanpo, [d'] ahostuna bait da, tentsioaren indarrean egongo litzateke desberdintasuna, honetan ahulagoa gertatzen delako. Normala dena, bestalde, leherkariaren ahostuna / ahoskabearen artean gertatzen den bezala, ahoskabeak berez tentsio haundiagoa bait dute.

[d'], MITXELENA-ren ustez (1977,189-189), [d] hotsaren korrelato bustia da, edo, nahi izanez gero, korrelato adierazkorra. Hots honen gertaerak, beti Mitxelena-ren iritziari jarraituz, hauek dira: leherkari etenkaria kontsonantearen ondotik, eta igurzkaria bokal artean, /ǰ/ hotsarekin nahasten delarik gehienetan.

"adar" (BN), (R) **addar**

(L) **anddereder,** (Z) **andderejer,** [-ezer]

(G), (L), (B) **(h)onddo,** (Z) **ónddo,** (R) **fongo, fungo**

MITXELENA-k (1957,118) [d'] hotsaren definizioa beste sabaikarien sailean kokatuz ematen du:

"dd" coincide en realidad con el fonema castellano /y/, cuyas realizaciones fricativa y africada son poco más o menos las del español /y/". Eta, orohar, "tt, dd, x, tx, ñ eta ll" sabaiko fonema sail hau bereizten du: "como una serie no autónoma y en cierto modo "secundaria" cargada de valor afectivo, y subordinada como tal a la serie "principal", la de los fonemas no palatalizados" (7).

HOLMER-ek (1968,64-65) dioenez Bizkaieraren [d'] hotsa ezin daiteke fonema aske bezala hartu. Eskuarki egoera honetan gertatzen da: hasierako posizioko "j" hotsetik sortzen da (gaztele-

rako "y" bezalakoa) eta, fonetika sintaktikoz, sudurkariaren ondotik doanean. Edo, beste modu batera esanez, "d" leherkaria leherkari ahostun bezala aktualizatzen den posizio berdinetan: "min'i'nd'a-cu" (B1).

LARRASQUET-ek (1932, 280) leherkari ahostun bustia bezala definitzen du hots hau, oso leherkaritasun bigunekoa eta giarren energia erlaxatukoa, oso gutxitan igurzkaria ere izan daitekeena, (Z)-z asko agertzen dena.

LAFON-ek (1952,12-13) [d'-] hasierako hotsa *j hotsarekin bat egiten du, kasu gehienetan balio adierazkor edo diminutiborik gabekoa.Ekartzen dituen bikoteak, berriz, mota honetakoak dira: **joan / doan, jakin / dakin, jabe / gabe, onddo / ondo.**

NAVARRO TOMAS-ek (1925,622-24) [d'] hotsa, (G)-z armonia bokalikoaren ondorioz "-ia" lexema bukaeran gertatzen dena , definitzeko zailtasun haundiak aurkitzen ditu, sabaiko-bizkar aurrekoaren antza duelako batzutan, eta afrikariaren [ŷ] itxura ere hartzen duelako beste batzutan:

"La [ḏ] y la [ŷ] (G) sólo son dos matices muy semejantes de una articulación que tan pronto se inclina al tipo oclusivo como al tipo africado. El oido tropieza a cada paso con la dificultad de distinguir si la variante que acaba de pronunciarse deber ser representada por [ḏ] o por [ŷ] o por una combinación o mezcla de ambos: [xa̰iŷa] o [xa̰iḏa]; [bḛiŷa] o [bḛiḏa]; [o̰iŷa] o [o̰iḏa]".

Armonia bokalikotik kanpo, hemen ere hizketa zainduan egiten den "y" hotsa eta hizketa arruntean edo laxoan egiten den [ŷ] eta [ḏ] bereizten ditu.

Ideia berdintsuekin mintzatzen da Gernika-ko hotsei buruz hitz egiten duenean (1923,55):

> *"El efecto acústico de **d**, dorsopalatal africada sonora resultaba muy semejante al de la **y** normal española de [iŋ̰ŷḛkta], [ko̰ŋ̰ŷugál], etc. Mis transcripciones vacila-*

*ron con frecuencia entre esta* ***y*** *y una variante* ***d*** *más oclusiva que africada" (8).*

### 2.1.5.3. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

[t']

1. Bustidura automatikoa:
   aita - hiru aita
   loditu
2. Bustidura adierazkorra:
   tipi / ttipi / ttiki / txiki
   tente
   tu - zenbat tu
3. Fonosintaxis:
   ohe - hiru ohe - ohetik
   egin ditut - ditut
4. Txandaketak:
   tto / -txo
   (Eta goikoak)

[d']

1. Bikoteak: sagar ondo - (onddo)
2. Bustidura automatikoa;
   hil da
   ezin dut

### 2.1.5.4. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

### 159A AITA - 159B HIRU AITA (242-243)

Hots sabaikariak Hegoaldeko hizketetan gertatzen dira gehien maiztasunari dagokionez. Iparraldekoak eta Hegoaldeko (Aezk) eta (Zar) gutxien bustitzen dituzten euskalkiak dira, kasu askotan bustidura kendu ere egiten dietelarik. Ez da harritzekoa, bada, Hegoaldeko zenbait hizketetan hortzetako leherkari ahoskabea "i" bokalaren ondotik joaten denean bustitzea: "adittu" edo "aittu" , "deittu", "lodittu" eta abar luzea aipa genezake. MITXELENA-k (1977,186), talde horren elkarketa berria denean, edo berri samarra, ez dela gertatzen dio: begiratu > beiratu > beitu > beito.

Halere, HOLMER-ek (1968,105) "t" leherkariaren bustidura aurreko "i" bokalaren eraginez hizkuntzaren bilakabidearen une batean gertatu dela onartu arren, eta bigarren mailako "i" bokalak bustidurarik ez duela sortzen ere onartu arren, bigarren mailako "i" busti horrek sorturiko bustidurak badirela dio, hala nola, "begi(r)atu" > begi't'u (F1). Eta, areago ere bai, bustidurarako joerak jarraitzen duela dio, euskalkien arauera, jakina, nahiz eta Dima bezalako leku batzutan "ai'te", "ei'ten" eta horrelako formetan ez gertatu. Eta analogiaz ere gertatzen omen dira, beti Bizkaierari buruz ari delarik: **oetik** (oitik) / **oi't'ik, o't'ik, ero'meri'cik, ici't'e, jagi't'én.** Baina bustidurarik gabe, esaterako, **euki'teko** forman.

Gure mapan bi arrazoi daude "aita" hitzean bustitzeko, bata automatikoa, "i" bokala aurretik daukalako, eta bestea balio adierazkorra ere baduelako berez.

Gure kasuan bustudirarekin jaso da gehienbat. Hala ere, Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Amaiur, Arraiotz, Gartzain eta Aniz-en, hau da, azpi-euskalki guztian; Bortzirietakoan, Erasun-en; eta Ultzamakoan, Auza eta Beunza-n, bustidurarik gabeko forma jaso genuen.

Ez dira mapako datuak erabat erabakiorrak. Erasun-en

"atte" ere jaso genuen B lekukoarengandik, eta Auza-koak "aite"-ren parean forma bustia ere eman zuen, haurren erabilera eskatu genionean. Alderantziz ere bai, Larraintzar-en ikusten den bezala forma mugatuan sabaikaria, baina bustidurarik gabe mugagabean.

Azkenik, Arraras-ko forma aipatu nahi genuke, sabaiko afrikaria ahoskatu bait da, "atxe:". Aldaketa hau (B)-z maiz gertatzen dena da eta bere eremua zabalduz joatetik kanpo, ez dago ere ondo finkatua. Edozein modutan, Bermeo, Elantxobe eta kostalde horretan, hots afrikari sabaikoak lekutu egin du leherkaria: "aitxa" (-e); "gaitxu", "ditxu" eta horrelakoak entzun daitezkeelarik, (AZKUE 1919,463). Ip(GN) Baztango azpi-euskalkirako, A. ALONSO-k hots asibilatuez hitz egiten duenean ere, (1922,63) horrelako artikulazio moduaz ari da, baina ez du afrikari bezala aurkezten, leherkaritasuna galdu baitu, igurzkari bezala baizik. Honi buruz zehatzago analisi akustikoan mintzatuko gara.

**162 LODITU (246)**
**165A EGIN DITUT - 165B DITUT (250-251)**

Hemen ere, "aita"-ren kasuan bezala, "-it" taldearen eraginez sortzen da sabaitzeko joera, baina, bestean ez bezala, kasu honetan balio adierazkorrik gabe.

"Loditu"-ren kasuan, bustidurarik gabe, beste behin, Zugarramurdi eta Baztango azpi-euskalkia aurkitzen ditugu. Eta, goian bezala, Arraras-ek sabaiko afrikaria.

"Ditut" aditz laguntzaileak (250) eta "ditut" bere eskuko adizkiak (251) agian bilakabide desberdina eduki dezakete, baina guk jaso ditugun datuetan ez dugu, hots sabaikariaren aldetik, ezberdintasunik jaso. Bilakabidea honako hau litzateke:

ditut → dittut → ttut → ttot → txot
↓
tut

Gertaeren hedadura, berriz, hau da:

"Ditut" Zugarramurdi-ko B lekukoak.

"Tut", aferesia eginez, bustidurarik gabe, Zugarramurdi-ko A lekukoak; Amaiur, Arraiotz, Gartzain eta Aniz-ek, hau da, Baztango azpi-euskalki guztiak, eta Etxalar-ek Bortzirietako azpi-euskalkian.

"Dittut", bustidura eginez, aferesirik gabe, Bortzirietako Sunbilla-n.

"Ttut", bustidura eta aferesiz, Bortzirieta guztian, Sunbilla-n izan ezik; Ultzamakoan, Larraintzar, Beunza eta Goldaratz-en; eta Arakilgoan Aldaz-en; azken honetan "u" eta "o" bokalen arteko tinbrea mugikorra delarik, lekukoen arauera.


Azkenik, ageri diren aldakiak:


"Ttot" Beramendi-n eta "txot" Arraras-en, biak Basaburua haranean.

(250) mapan, Auza-n "ttet" egiten du A lekukoak, eta forma honek ditiat → ditiet → ttiet → ttet bilakabidea suposatzen du, alegia. Bestalde, Mendebaldeko bazterrean adizkiaren bokalaren tinbrea mugikorra azaltzen da aski maiz eta ez da harritzekoa hemen hori agertzea. Arraras-ek, "dut" formaren parean, ia maizago "dot" ahoskatzen du, eta Aldaz-ek ere bide horretatik jotzen du, ikus (239) mapa.

Mapa hauen ondorioz esan daiteke bai Zugarramurdi-k eta bai Baztango azpi-euskalkiak ez dutela bustidura automatikoki egiten. Bide horretatik jotzen du Etxalar-ek ere, "aita"-ren kasuan horrela gertatzen ez bada ere; baina kasu honetan balio adieraz-

[t'] notsa




korrez gerta zitekeen. Erasun eta Auza-n ere berezi gelditzen da, baina aditzarena aski esanguratsua bada ere kasu gehiagotan begiratu beharko litzatekeela uste dugu.


(88) mapan **mogitu** forma jasotzen genuen. Hemen ere bustidura automatikoki gertatzen da, salbuespen hauez: Zugarramurdi; Baztango azpi-euskalkian Aniz eta Gartzain, -Amaiur eta Arraiotz-ek sabaitu bait dute hortzetako hotsa-; Bortzirietakoan, Erasun-ek alternantzia aurkezten du, A lekukoak bustidurarik gabe, baina B-k bustiduraz; azkenik, Ultzamako Goldaratzek bustidurarik gabe. Ezin izan da Etxalar eta Auzako A lekukoen ebakera jakin, "mugizu" eta "mugizak" formak azaldu bait zituzten.

(108) mapan "egitai" forma jasotzen da, eta, ingurunearen aldetik, leherkari hortzetako hots hori sabaiko egiteko ingurune egokia du. Horrela gertatzen da Bortzirietako azpi-euskalkian, Etxalar eta Oronotz-Mugaire-n ez beste toki guztietan bustitzen bait da. Erasun-en txandaketa gertatzen da, lekukoen arauera. Hitz berezia den arren, besteen aurretik bidea jarraitzen du honek ere. AZKUE-ren (1969,198) hitzak gogoratu beharko genituzke: "En la AN, por ejemplo, dicen, hasta causar hastío al oyente, **dittu, itto, atta por ditu, ito ...**"

### 160 TIPI / TTIPI / TTIKI / TXIKI (244)
### 161 TENTE (245)

Ingurune fonetikoak eragin gabeko bustidura kasuak gerta daitezke hitz hasieran, "ttipi", "ttarra", e.ab., eta hitz barruan ere, "gutti", "pattarra" eta horrelakoetan. Guk mapa hauetarako hautatu ditugun hitzetan edukiak berak sortzen du bustidura, ingurune fonetikoaren eraginik gabe, hitzaren eduki semantikoa indartuz bereiztasun fonetiko horren bidez. "Tipi" hitzak, bustiduraren


t´ notsa
[t']
[č]
[t]
[t']
[č]
GUTI / GUTTI / GUTXI


Joera nagusiak
[t]
[t']
[č]
txandaketa larrienak

bidez, "ttipi" sortzen du distribuzio geografikoz. Leherkari ahoskabearen txandaketaz, "ttipi"-ren parean "ttiki" dago, baina honen bustidurarik gabeko forma, guk dakigunez, ez da erabiltzen gaur egun. Azkenik, bai "ttipi" bai "ttiki" formek aldaketa afriri dute, "txipi" eta "txiki" jarraiberean. Forma igurzkaria, berriz, "xipi"-ren kasuan agertzen da bakarrik.

MITXELENA-k (1977,186) forma hauentzat azaltzen dituen isoglosak hauek dira: (GN), (L) **ttiki;** (GN) Baztan, (BN) Amikutze, (Z) **ttipi;** (G), (B) **txikar, txiker** (Mic); (Heg) **txikir;** (GN), (BN), (G), (B) **txiki;** (L), (Z) **(t) xipi** (Etx., Leiç. **xipi,** Gar, Land. RS **txipi**).

Dena den, (B)-ko formetan alternantziak daude: Markina-n, **ditut, deutsat;** Eibar-en, **dittut, detzat;** Bergara-n, **dittut, dotzat**; Plaentzia-n, **ditxut, dotxat.**

Bestalde, Erdi Aroan deituretan Chipia arrunta zen eta guk aztertu dugun lurraldean "ttiki" izen laguntzaile bezala erabiltzen bada ere, tokiren batzutan toponimia xehean eta etxeen izenetan "txipi" aurkitu dugu, "Matxatxipia" adibidez, Ituren-go etxe baten izena.

Gure mapan, **ttipia** forma "ttikia"-rekin alternatuz aurkitu dugu Bortzirietako Oronotz-Mugaire-n. Halere, formarik hedatuena "ttiki" da: Zugarramurdi-n, Bortzirietako azpi-euskalki guztian eta Ultzamakoan erabiltzen da. Azken honetan salbuespen bakarrak, Arraras eta Goldaratz dira, "tx-" ebakitzen bait dute, eta Aldaz-ek "tt-" / "tx-" txandaketa du. Larraintzar eta Arraras-en hitzaren esanahia indartzen dute "-tto" eta "-txo" atzizkia erantsiz: "ttikittoa" eta "txikitxoa", jarraiberean, ahoskatuz. Bestalde, Erasun-en B lekukoak "txikia" ere erabiltzen du, ikus (80) mapa.

"Xorie": Zugarramurdi-ko B lekukoak, Baztango azpi-euskalki osoan, Bortzirietakoan, Arantza-n eta Erasun-en izan ezik. Sunbilla-n txandaketak jaso ditugu, A lekukoak afrikazio apur batez ahoskatu zuelarik.

"Txorie": Bortzirietako azpi-euskalkian Erasun eta Arantza-n, eta Sunbilla-ko B lekukoak; Ultzamako azpi-euskalki osoan eta Aldaz-en ere.

"Txotx" hitzean ez dugu batasunik aurkitu, ez fonetikorik, ez lexikalik. Erreferente berarentzat izen ezberdinak erabiltzen dituzte: Beramendi-n eta Auza-n, "sistrikek"; Larraintzar-en, "arbak" (2); Aldaz-en, "eskarbak"; Zugarramurdi-n, "abarrak"; eta Beunza-n, "xostapurrak", apur bat afrikatuz. Herri hauetan hitz horiek eman dituzte, "txotx" hitza ezagutzen ez dutelako edo, ezagutu bai,

Hasierako posizioko
sabaiko xistukariaren isoglosa nagusia



baina ez erabili. Alderantziz ere berdin esan beharko genuke: "txotx" normalean erabiltzen duten tokietan "abarrak" edo "arbaztak" edo bestelakoren bat ere badakitela, baina erreferentea, horrelakotan, aldatu egiten da eskuarki.

Gertaera fonetikoen aldetik hiru motatakoak ditugu:

"Zotzak": Baztango azpi-euskalkian, Amaiur-en; Bortzirietakoan, Erasun eta Arantza-n; Ultzamakoan, Arraras eta Goldaratz-en.

"Xotxak": Bortzirietakoan, Ituren, Oieregi, Oronotz-Mugaire-n; eta Baztangoan, Aniz-en.

"Txotxak": Bortzirietakoan, Etxalar eta Sunbilla-n; eta Baztangoan, Arraiotz-en.

Hemendik hauxe jarrai daiteke, lurralde hauetan "z- / x- / tx-"saila gertatzen dela eta ez dela distribuzio geografiko hutsez gertatzen, toki berean ere bata eta bestea gerta bait daitezke: Amaiur-ko A lekukoak, esaterako, nahiz "zotzak", nahiz "txotxak", biak erabiltzen zituen, eta Ituren-en ere, "xotxak" eta "txotxak", biak erabiltzen dira. Horregatik, bada, bustiduraren balioa ez da adierazkorra gertatzen, berdin erabiltzen bait da hain batera, zein bestera, ezberdintasun semantikorik egin gabe. Eta, bestalde, adibide honek erakusten duen bezala, xistukarien asimilaketa ere agerian gelditzen da hasierako xistukariaren hotsa aldatzen denean sabaiko eginez: "z- > x-" ala "tx-" gertatzen bada, barrukoa ere automatikoki aldatzen da, ez bait dugu inoiz "zotza"-ren parean "xotza" aurkitu.

Hitz honi buruz, banakako polimorfismo fonetikoarekin batera, sinonimo ugariko erreferentea duela esan beharko litzateke, forma mugagabekoen mapan ikus daitekeenez, batez ere "zotz" edo honen aldakiak erabili ez diren tokietan agertzen denez.

"Tximitx"-ek honako gertakizunak ditu:
**zimitz(a) / -txa:** Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskakiko Amaiur

eta Arraiotz-en eta Bortzirietako Etxalar, Oronotz-Mugaire, Oieregi eta Donamaria-n.

**ximitxa:** Ituren-en, Bortzirietakoan; eta Aniz-en, Baztangoan.

**x- / tximitxa / -txe:** Bortzirietako Erasun-en eta Ultzamako Arraras-en.

**tx-:** Bortzirietako Arantza-n eta Sunbilla-n; Ultzamako Auza, Goldaratz eta Beunza-n; eta Arakilgo Aldaz-en.

Zugarramurdi-ko lekukoak txandaketa azaldu zuen igurzkaria eta afrikariaren artean, ziurrenez, lehenengoa zelarik, "zimitxa", zirudienez forma nagusiena, B lekukoak ere eman zuen bezala. Honek erakusten digu, bestalde, goian aipaturiko xistukarien asimilaketa ez dela beti gertatzen, bizkar-hobietako igurzkaria eta sabaiko afrikaria batera, gertatzen bait dira hitz berean.

Bestalde, bada beste aldaki bat, hasierako xistukari afrikaria galduz ahoskatzen dena: "imitza", "imitxa", "imi(n)txa", "imutxa" (B)-z eta (G)-z gertatzen dena batez ere, baina guk ez dugu forma hori jaso.

Hitz honek badu bere inguruan gauza aipagarririk. Aurreko hitzen banaketa fonetikoaren hedaduratik aldendu egiten da neurri batean; gure ustez, hitzaren erabilera ez delako erabat arrunta. Alde batetik, hitza bera galduxea aurkitu dugu, normala denez, erreferentea aspalditik kasatua dagoenez gero, eta Larraintzar eta Arraras-en ezagutu ere ez ez zuten egiten. Bestetik, ezagutu arren, batzuk lotsarik ere bazuten aipatzeko eta hitza esateko. Eta hauek denak hor daudelarik, toki gehientsuenetan gazta egiten den ontziari deitzeko ere "zimitz" hitza zeukaten; hortaz, homonimian ere agertzen den hitza da.

## 180A HOTZ - 180B HOTZ GUTXI (273-274)

Xistukariek, azken posizioan joaten direnean afrikari, egiteko joera dute, joera baino gehiago ere, neutralizazioa sortzen bait da afrikatuaren alde:

**hitz, hats, utz, huts**

Joera hori latinetik hartu ziren maileguen garaietatik agerian zegoen: Lat. CORPUS > gorputz, eta salbuespen bakarrak morfologian eta aditzean daude: **naiz, ez,** e. ab.

Bestalde, bukaerako posizioko afrikari horien distribuzioa garrantzitsua da, bai bukaera absolutuan joaten direnean, ikusi dugun bezala, bai beste lexema edo morfemekin elkartzen direnean, aldaketarik dagoen edo ez ikusteko. Hori dela eta, hots afrikari hori, kasu batzutan, frikari bihur daiteke hitz barruan gertatzen denean: "gatz → gazi", "orratz → orraze". Kontutan izatekoa da, bestalde, har dezaken edozein atzizki edo, hitz konposatua osatzean, konposatuaren bigarren elementua hots leherkariz hasten bada, aurreko afrikaria igurzkariaren alde neutralizatzen dela ingurumen fonetiko zehatz horren eraginez: "hitz → hizkuntza", "hizpide", "huts → hustu".

"Hotz" hitzean bizkar-hobietakoa den afrikaria mugatua doanean, bokal artean beraz, leku guztietan afrikari bezala ahoskatzen da eta azentu nagusia bigarren silaban darama, Baztango Amaiur-en eta Ultzamako Auza, Beunza eta Goldaratz-en izan ezik, hauetan, atzetik hasita, lehenbiziko silaban jartzen bait dute azentua.

Forma mugagabean hots afrikaria, azken posizioan gertatzen dena, leherkari batez juntatzen da "afrikaria + leherkaria" elkarketa sortuz, "hotz gutxi" izen sintagman. Eta, egia esan, ez dira nahi ziren emaitzak jaso, leku askotan forma mugatuan eman delako. Halere, mugagabeko formetan "afrikaria + hurbilkaria" jaso da: Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Amaiur eta Anizen; Bortzirietakoan, Ituren eta Sunbilla-n; eta Ultzamakoan, Auza,

Larraintzar, Beunza eta Goldaratz-en. "Igurzkaria + hurbilkaria" Oronotz-Mugaire eta Erasun-en, Bortzirietako azpi-euskalkian biak.

Emaitza hauekin hautsi egiten zaizkigu, apur bat, aurreko hipotesiak, hau da, ingurumen honetan igurzkariaren alde neutralizatzen dela hots afrikaria. Halere, beti kontutan eduki behar da ahoskera zaindua dela, kasu askotan, galdekizunaren bitartez grabaketan jaso den informazioa.

Beste mapetan ere afrikariak jaso dira azken posizioan:

• Bizkar-hobietakoa:

1) bokalaren ondoren:

**Lau arotz** (58) bizkar-hobietako afrikaria eginik toki guztietan. Salbuespen bakarrak Etxalar-koa eta Zugarramurdi-ko B lekukoarena, hauetan sabaiko afrikaria ahoskatuz (3).

2) diptongoaren ondoren, bigarren elementu bokalikoa "i" delarik:

**Hiru hareitz** (129): denetan bizkar-hobietako afrikaria.

**Bakoitz** (137): "Bakoitxa" Bortzirietako Erasun-en eta "bakotxa" beste guztietan, Arraiotz-en izan ezik. Hau da, nagusitu den ebakera azken hau izan da, erdibokala, bizkar-hobietakoa sabaituz, galdu egin da.

3) Kontsonante sonante (n, l, r) baten ondotik:

**Lau hontz:** Txandaketa haundiz ageri da. "Lau ontza" eta honen aldakia den "lau untza": Bortzirietako Sunbilla, Oieregi, Erasun eta Donamaria-n eta Ultzamako Beunza-n. Igurzkariz, berriz, "lau onza" eta bere aldakia, "unze": Amaiur-en, Baztangoan; Beramendi eta Arraras-en, Ultzamakoan; eta Aldaz-en, Arakilgoan. Azken posizio absolutuan gelditzen denean, bietako

formak ageri dira: bizkar-hobietako afrikaria, "ontz" eta "untz", Zugarramurdi-n -B lekukoak igurzkariz ahoskatu badu ere-, Bortzirietako Arantza-n eta Ultzamako Goldaratz-en. Eta bigarren aldakia Baztango azpi-euskalkian, Arraiotz eta Aniz-en; eta Bortzirietakoan, Oronotz-Mugaire eta Etxalar-en. Azkenik, bizkar-hobietako igurzkaria bi azpi-euskalkitako diren Amaiur eta Larraintzar-en jaso zen.

• Mihipunta-hobietako afrikari ahoskabea:

**Hiru kilo mahats** (164), afrikaria erantzun dute kasu guztietan, baina ez da beti azken posizioan gelditu, "iru kilo matsa" erantzuteko joera haundia bait dute.


Albokariaren ondoren, "kolore beltz hori" (287), toki guztietan afrikaria; baina Amaiur eta Gartzain-ek Baztangoan eta Goldaratz-ek Ultzamakoan igurzkariz ebakia.

Dardarkariaren ondoren, azkenik, "bortz" (68) kasuan bi isoglosa nagusi ditugu: "bortz / bost", azken hau oso ondo kokatua: Erasun-en, Bortzirietako azpi-euskalkian; Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en, Ultzamakoan; eta Aldaz-en, Arakilgoan. Mugan Beunza gelditzen da, tarteko hots bat eginez.


Baina "dardarkaria + afrikaria" gertatzen den lurraldean ere bada distribuzio bat. Afrikariz ebakitzen da: Zugarramurdi-n; Arraiotz eta Aniz-en, azken bi hauek Baztango azpi-euskalkian; eta Bortzirietako azpi-euskalki osoan, lehen esan bezala, Erasun kanpoan geldituz. Ultzamako Auza-ko hizkerak ere afrikaria du. Igurzkaria, berriz, Baztango Amaiur eta Gartzain-ek. (Ikus, adibide bezala, "hiru hartz" ere (455) mapan).

Ondorio moduan, lehenengo gauza ikusten dena emaitzen batasunik eza eta irregulartasuna da. Ez daitezke batere sistematizatu jaso diren aldakiak. Fonetikaren aldetik eta analisi akustikoak agertuko lukeen bezala, ez da gertakizun bakarrik, alternantzia baizik. Eta gertatzen den txandaketa horrek, badirudi nahi eta nahi ez, banaketa geografikoa behar duela, eta, ikusi ditugun datueta-

BORTZ - BOST




OZKATU / AUTSIKI



tik, hein batean hori gertatzen dela jarrai daiteke. Bada gauza gehiago ere mapen analisitik ateratzen dena, batez ere sonanteen ondoko "afrikaria / igurzkaria"-ren arteko kolokatasuna, azken posizioan gertatzen den arren. Ikusi da erdibokalaren eragina ere kontsonantea bustitzera bultzatuz. Eta beste joera bat agerian jarri zaiguna, lexema mugatzeko joera, egitura gramatikalak mugagabea eskatu arren.

Maiztasunaren aldetik, bizkar-hobietakoa ugariena da, eta mihipunta-hobietakoa askoz ere urriagoa. Sabaikoa, aldiz, bigarren mailakoa genuke, aurretik aipaturiko hots baten bustiduraren eraginez sortua; bustidura automatikoa, beraz, eta inola ere ez adierazkortasunez gertatua.

**181A ITXASO - 181B HIRU ITXASO (275-276)**
**182 MARTXOA (277)**
**183A ITSU - 183B HIRU ITSU (278-279)**
**184 AUTSIKI (280)**

Mapetan ageri diren lexema hauek bokalarteko afrikarien banaketa aztertzeko hautatu genituen.

Sabaiko afrikarirako "itxaso" eta "martxoa" hitzak. Lehenengo kasuan, mihipunta-hobietakoarekin txandakatu daitekeelako. Kasu berdina litzateke "etxe", (15) mapa, hitzarekin gertatzen dena. Bestelakoa da "martxoa"-rena. Hau latinetik hartutako mailegua bait da, eta "tj" taldeak erantzun ezberdinak eman ditu euskalkien arauera. Toki batzutan sabaiko afrikaria ahoskatuz, eta beste batzutan jatorrizko taldeari eutsiz. Bizkaieraz ere, azken hau gertatzen delarik.

Gure mapetan gertatzen den hots bakarra sabaiko afrikaria-

rena da, leku guztietan hori ebaki bait da. Beunza-ko ahoskera, "martxoa"-ren kasuan, sabaiko hotsa izan da, erdi afrikaria erdi igurzkaria baina kasu bakan bat baizik ez da izan. Hortaz, batasun osoa bi adibide hauetan, batean bokal artean eta bestean dardarkari baten ondotik joan arren afrikaria.

Bi kasu ditugu mihipunta-hobietako afrikarirako: "itsu" eta "autsiki". Lehenengoan sabaiko afrikariarekin txandakatzen da Mendebaldeko hainbat hizkeretan, gazteleraren interferentziaz, ziurrenez.

Gure mapetan, mihipunta-hobietako afrikaria ebaki da leku guztietan, denetan erretroflexua egiten delarik, gainera.

"Autsiki" hitzak eta honek dituen aldakiek banaketa geografikoa dute. Alde batera uzten baditugu "au" diptongoak sortzen dituenak, "ts" hots afrikariak igurzkariarekin alternantzen du, ingurumen bokalikoan egon arren, "guraso" (230) eta "jautsi" (314) hitzetan ere gertatzen den bezala.

A. Alonso-k jaso zuena ageri da hemen ere, bokalarteko hersketaren galera eta igurzkaritasunaren garaiketa.

"Autsiki" lexema, guk aztertu dugun lurraldean, ez da leku guztietan jaso. Ezagutu bai, baina, erabili, ez dutela erabiltzen esaten ziguten jaso ez genuen toki gehienetan: Arakilgo azpieuskalkian, Aldaz-en; Ultzamakoan, denean; eta Bortzirietakoan, Erasun-en. Hauetan "ozka" hitza edo honen eratorriak erabiltzen dituzte. Besteetan, denetan, "autsiki" edo "atsiki", mihipunta-hobietako afrikaria ebakiz.

Ez da berdin "gurasoak" (230) hitzarekin gertatzen. MITXELENA-k (1977,286) forma afrikaria Heg (GN) Elkano-rako eta Ip (GN) Baztanerako azaltzen du. Guk, egia esan, aski nahastua aurkitu dugu forma hau; Arantza-n, esaterako, lekukoen arauera alternantziaz gertatzen da. Hala ere isoglosak Ipar-Hegoa hartzen du, Mendebaldeko bazterretik joanez. Baina, ez dirudi banaketa diatopiko bati erantzuten dionik.

Bizkar-hobietako afrikaria gertatzen da kasu guztietan, bokal osoen artean joaten bada behintzat. Gorago ikusi ditugun kasuetan garbi agertzen zen hau eta, kasu bakarra, erdibokalaren ondotik zihoana sabaikatu egiten zen: "bakotxa". Beste adibiderik ere badugu: "putzu" (79), "atzamar" (366), esaterako, eta denetan afrikaria gertatzen da. Halere, beti daude salbuespenen batzu garrantzi gutxikoak badira ere, hala nola, Beunza-ko ebakera, sabaikoa eginez, "tx", besteek bizkar-hobietakoa egiten duten tokietan, ikus "urritxe" (6), eta "iru urritxe" (7).

Beste motatako txandaketa "tt" eta "tx"-ren artean gertatzen dena litzateke, goian aipaturiko "gutti" - "gutxi"-ren gisakoa, alegia.

## 192A AITZUR -192B HIRU AITZUR (293-293)

Azkenik, **aitzur** hitzak ere izan dezake alternantziarik aurreko erdibokalaren eraginez. Gure mapetan emaitzak uste baino ugariagoak izan dira. Batetik, diptongoaren bigarren elementuaren eta afrikariaren tartean epentesi kontsonantikoa sortu delako, albokariarena kasu batzutan, sudurkariarena bestetan (4), eta kontsonanteen artean igurzkaria / afrikaria alternantzia besteetan.

Fenomenoaren hedadura eta banaketa geografikoa hau izan da:

"aitzur": Bortzirietako azpi-euskalkian, leku guztietan, Oronotz-Mugaire eta Donamaria-n izan ezik, eta Baztango azpi-euskalki osoan, Amaiur-en izan ezik; Ultzamako Arraras-en, eta baita Aldaz-en ere, Arakilgoan.

"aizur": Baztango Amaiur-en.
"ailtzur": Ultzamako azpi-euskalkian, Auza, Larraintzar, Beunza eta Goldaratz-en.

"ailzur": Bortzirietako Donamaria-n.
"alzur": Ultzamako Beramendi-n.
"aintzur": Zugarramurdi-n.
"ainzur": Bortzirietako Oronotz-Mugaire-n.

Edozein modutan, mugak oso fluktuanteak edo mugiberak dira. Leku berean formen alternantzia ere jaso dugu. Aldaz-en "aitzurre"-ren parean "altzurre". Ituren-en ere albokaridun aldakia ere jaso dugu. Baina, nabarmenena Larraintzar-ko B lekukoak egiten duen forma litzateke, afrikari sabaikoa ahoskatuz, "altxurra", nahiz eta ez den bakarra joera hori, albokari ondoko afrikaria sabaikoa egitea gertatu izan baita beste kasutan ere, ikus **giltxaur** (283) mapan.

Hauek denek, forma honen kolokatasuna, edo, bestela esan, estabilitaterik eza, adierazi nahi dute, eta, bidebatez, **aitzur - ailtzur** formen arteko muga fonologiko-fonetikoak, eta, agian, fonologiko hutsak ere, eskasak direla.

**185 JAUNTZI - 186 ERANTZI (281-282)**
**187A INTXAUR - 187B HIRU INTXAUR (283-284)**
**188 ITSI - HERTSI (285)**
**189A BELTZA - 189B KOLORE BELTZ HORI (286-287)**
**190A BERTSO - 190B HIRU BERTSO (288-289)**
**191A SUDURTZULOA - 191B HIRU SUDURTZULO (290-291)**

Sonanteen ondoko hots xistukarien ebakera ez da izaten oso tinkoa. Neutralizazioak gertatzen dira (ikus, aurrerago, talde kontsonantikoak). Horietatik, hemen artikulazio puntuaren aldetik gertatzen diren txandaketez, batez ere, mintzatuko gara.

Aditz-erradikalekin maiz gertatzen da horrelako txandaketa, esaterako, "jauntzi" eta "erantzi"-k, bizkar-hobietako afrikaria dute-

nak, mihipunta-hobietako afrikariarekin txandakatzen dute, askotan banaketa dialektala baino gehiago bazilazio hutsa izaten delarik.

Aztertu dugun lurraldean ez da artikulazio puntuaren aldaketarik, bai, ordea, moduarena igurzkaria - afrikariaren artean. Baina, txandaketa horretatik kanpo, lexikoari dagokio komentarioa. "Erantzi"-ren kasuan galtzear ageri da hitza eta horren pareko diren beste batzu jaso dira. Donamaria, Auza, Larraintzar, Beramendi eta Beunza "biluxi" hitzaz baliatzen dira, "erantzi" hitza erabat galdua dute, erabili ezeze, ezagutu ere ez bait dute egiten.

"Intxaur" hitzak ere aldaki aunitz ditu, eta aldaki horiei azalpen egokia emateko aski konplexotasun ere bai. Alde batetik, igurzkaria -afrikariaren arteko txandaketa agertzen da, aurreko hotsa aldatzen delarik, gainera, albokaria, sudurkaria edo zero izan daitekeelarik; eta bestetik, hitz hasierako hotsa bokala edo leherkaria eginez, (ikus honi buruz, aurreko kapitulua). MITXELENA-k (1977,285) ematen dituen aldakiak eta banaketa hauek dira:

> *"Las variedades orientales muestran una predorsal en sul.* ***intzáur*** *'nuez' (Oih.* ***Prov.*** *279 y Sauguis* ***inzaur)*** *, ronc.* ***etzagur, itzagur,*** *sal.* ***giltzagur*** *(aezc.* ***etxabur)*** *, b.-nav. lab.* ***eltxaur.*** *Las occidentales tienen en tiempos modernos* ***intxaur,*** *que es ambiguo, pero la toponimia y los textos antiguos documentan (t)s:* ***ynsaur*** *'nuez' en RS 226 y 344 (****ynsaurpe*** *366), mer.* ***unzaur*** *(ms. Oñate* ***untxaur)".***

Aztertu dugun lurraldean aldatzen diren fenomenoak hitz hasierari dagozkionak dira, bokalaren tinbrea aldatuz, "i-" ala "e-" eginez, hurrengo hotsa ere txandakatuz: "in-", "il-", "en-, "el-"; eta aldaki hauei protesia dutenak gehitu behar zaizkie: "gil-", "gel-", alegia. Horietatik kanpo, afrikarien aldetik aurkitu dugun aldaketa bakarra Arraiotz-ekoa izan da, bizkar-hobietako afrikaria ahoskatuz (5); beste guztietan sabaiko afrikaria ebaki dute mapetan azaltzen diren emaitzen arauera.

"Itsi- hertsi"-ren kasuan aldakiak honako hauek dira guk aztertu dugun lurraldean: **ertsi / etsi // itsi / itxi.** Hau da, alde batetik, bokalen trukaketa: "e- / i-", eta bestetik, kontsonante mailan, talde kontsonantikoa "dardarkaria + afrikaria" (ikus beherago), edo afrikari hutsa, azken hau mihipunta-hobietakoa eta sabaikoaren artean txandakatuz. Gertaera hauen isoglosak garbiak dira:

"ertsi": talde kontsonantiko zaharra, Ultzamako azpi-euskalkian Beunza-k eta Beramendi-k gordetzen dute.

"etsi": Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian eta Bortzirietakoan, Arantza eta Erasu-n kanpoan geldituz.

"itsi": Bortzirietako Arantza eta Erasun-en; Ultzamako Arraras eta Goldaratz-en.

"itxi": Arakilgo azpi-euskalkian Aldaz-en.

"Beltza"-ren kasuan talde kontsonantikoa dugu, "albokaria + afrikaria", baina talde hau bigarren mailakoa litzateke, bokalaren sinkopaz gertatua, alegia, ontzat ematen badugu MITXELENA-k (1977,162), **Belex, Beles** Akitaniako iskripzioetatik, hitzari eskeintzen dion jatorria. Bestalde, hitz bukaeran gertatzen denean, izen sintagman mugagabe bezala joaten denean, afrikaria egiteko joera eduki beharko luke, barruan doanean frikaria egin arren, edozein hitzetan eta baita latinetik hartutako hitz maileguetan ere gertatzen zela ikusi genuen bezala: "gorputz", e. ab.; baina ez da beti horrela gertatzen, albokariaren ondotik doalako neutralizatu bait daiteke.

Guk aztertu dugun lurraldean, beti kontutan izanik belarriz eginiko traskribaketak direla, afrikaria gertatzen da toki guztietan, salbuespen bakarrak, Baztango Gartzain-en eta Ultzamako Arraras-en gertatzen direnak dira, horietan igurzkaria egin bait zen.

Forma mugagabeetan afrikaria mantenitzera jotzen da,

baita leherkariaren aurretik joan arren ere, Oieregi-n ebaki zen bezala, esaterako. Dena den, toki honetako A lekukoak, mapan agertzen dena, oso ahoskera enfatikoz ebaki zuen. Ez da, berriz, afrikaria egiten ingurumen berdinean Arraras-en, "igurzkaria + leherkaria" ebaki bait zuen. Eta kasu honetan, mugagabean, alegia, Goldaratz-ek ere igurzkariz ahoskatzen du.


Hitz honetan ahoskera sabaikoa ere gertatzen da espresibitatea bilatuz, eta horrela jaso genuen leku guztietan. Horrelako balio adiezkorrarekin azaldu zigun Arraiotz-eko B lekukoak ere, eta hortik dator mapan agertzen den aldaketa.

Azkenengo mapek "dardarkaria + afrikaria" taldea azaltzen dute. "Bertso" hitz bakun bezala, eta "sudurtzuloa" hitz konposatu bezala hartu ditugu. Lehenengoan ahoskera igurzkaria da, batez ere, formarik hedatuena. Bortzirietako bi lekutan bakarrik jaso dugu afrikaria, Arantza-n eta Sunbilla-n, eta hauetan ere, Arantza-n hain zuzen, B lekukoak igurzkariz egin zuen. Zugarramurdi-ko B lekukoak ere afrikariz.

Mugagabean afrikariaren ahoskera zabaltzen da, espero zen bezala: Zugarramurdi-n, Arantza-n eta Oronotz-Mugairen, bi hauek Bortzirietako azpi-euskalkian, eta Aniz-en, Baztangoan. Arraiotz-eko ahoskera berezia da, afrikaria / igurzkariaren arteko sabaikoa eginez, baina ez du beste baliorik, berea bakarrik baita erabat.

"Sudurtzulo" hitzaren kasuan, bi lexema elkartuz osatua izanaren kontzientzia ez da galdu, "sudur+zulo", eta horregatik har daiteke konposatu bezala. Hori "z" bizkar-hobietako igurzkariaren ahoskeran ere ezagun da, forma hedatuena hori bait da. Izan zitekeen, agian, dardarkariaren ondotik doalako ere, ingurumen horretan neutralizazioa ez bait da hain maiz gertatzen Ekialdera jotzen duten euskalkietan, baina, kasu horretan, aurreko maparekin lotura haundiagoa edukiko luke eta emaitzek ere antz haundiagoa izango lukete elkarrekin, eta ez da horrelakorik gertatzen. Bestalde, MITXELENA-k (Z), (R) eta (Zar)-z ere horrelako ebake-

ERTSI / ITSI / ITXI



rak jaso zituen (1977, 289-91), eta azken euskalki horretako mailegu berrietan igurzkariaren gertaera jasotzen du kontsonante talde horietarako (1967,166). Bi unitate direnaren kontzientzia bizia azentuan ere agertzen da, inoiz komentatu izan dugun bezala, kasu hauetan bi elementuak bere azentu gotorrarekin agertzen bait dira.

Azkenik, semantikaren eragina ere ageri da, erreferenteak eragiten duelako "zulo" forman sabaiko hotsa ebakitzera, nahiz afrikaria eginez, Goldaratz-en bezala, nahiz igurzkaria, Sunbilla-n bezala.

### 2.2.5. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

> *"El valor expresivo de la serie palatalizada no podrá evidentemente sentirse plenamente más que cuando con la forma "normal" o "fuerte" de la palabra conviva la forma "débil", y desaparece cuando la forma originariamente marcada ha quedado como forma única de una palabra. [...]. El contraste será, por otra parte, tanto mayor cuanto menor sea la frecuencia del fonema palatalizado. Cuando ésta sea grande, el fonema se trivializa y su efecto disminuye en la misma proporción" MITXELENA (1957,119).*

Bigarren mailako diren sabaiko hots xistukarien egoera, berez aski irriskorra dena, gehiago konplikatzen da oraindik kontutan hartu behar izaten denean zein betekizunetan erabilia den, hots, balio adierazkorrez ala ez, zein ingurumenetan eta, gainera, maiztasuna bera neurtu behar denean. Guzti honek hots hauen sitematizazioaren ezintasunera eramaten gaitu, saioak eta lanak egin badira ere (6).

Eragozpen horrekin topo egin dugu guk behin eta berriz, eta

horri erantsi behar zaio nibelaziorik eza eta hots hauen artean aurkitu ditugun txandaketak. Izan ere, aztertu dugun lurralde honetako hizketa gehienek hots mota guztiak erabiltzen bait dituzte.

Fonema leherkariei buruz ateratzen ditugun ondorioez mintzatzeko aski harrigarria gertatzen da bustiduraz eta sabaiko hotsez hitz egiten hastea, baina bustidura izan da, hasierako posizioari dagokionez behinik behin, maiz agertu izan zaigun hotsa. Hori dela eta, hasierako posizioaz ari garelarik, honako puntu hauek nabarmendu nahi ditugu:

1. Ez dugu jaso, aipaturiko posizioan, mihipunta- hobietako afrikaririk eta oso gutxi, kasu bakan eta aparteren bat besterik ez, bizkar-hobietako afrikaria. Horrenbestez, dela eta sabaiko sailarekin bakarrik gelditzen gara.

2. Aztertu dugun lurraldean "z- / x- / tx-" saila jaso dugu, honek ez du esan nahi bilakabide hori distribuzio geografikoz gertatzen denik, toki berean eta lekuko batengan ere gertatzen bait da.

3. Lekuko batek bizkar-hobietako igurzkaritik sabaiko afrikarira alda dezake hotsa tartekoa inoiz ebaki gabe. Eta hau, gainera, ingurune berdinetan eta batarekin edo bestearekin balio berezirik adierazi gabe. 4. 3. puntuan esan dugunak ez du esan nahi sabaiko hots horiek balore adierazgarririk inoiz hartzen ez dutenik, kasu batzutan balore hori garbi agertzen baita.

5. Sabai-aurreko igurzkariaren eta afrikarien arteko isoglosa dela eta, banaketa geografikoaren aldetik -kanpoan uzten ditugu "zakurra" eta horrelakoak, horiek toki guztietan horrela ebakitzen bait dira-, Ultzamako azpi-euskalki osoan eta Arakilgoan, hau da, Aldaz-en, hasierako posizioan kasu guztietan gertatu den hots bakarra sabaiko afrikaria da, "tx". Bortzirietako azpi-euskalkian Erasun-en txandaketa gertatu da, afrikariaren aldekoa nagusia izan bada ere. Bortzirietako beste leku batzutan ere txandaketa

jaso dugu, baina igurzkariarena da ebakerarik erabiliena. Horregatik, 2, 3 eta 4. puntuetan esandakoak, beste lurraldeetarako ere balio du.

6. Orohar, hasierako hotsaren aldaketak barruko xistukariaren aldaketa suposatzen du. Hasierako posiziokoak artikula gune berdinera eramaten du barrukoa. Halere, ez da beti horrela gertatzen, batzutan bi toki desberdinetako xixtukari afrikariak gerta daitezke, kasu soltetan baizik ez bada ere.

7. Azaldu dugun txandaketak hitz berezietarako balio du, "tximitx / zimitz", "txotx / zotz" eta horrelakoetarako. Ez da hori gertatzen, aldiz, erabilera arruntekoak direnekin, "xori" / "txori", "zakurra / txakurra", "zerri / txerri" eta mota horietakoekin. Hori, agian, izan daiteke hitz hauek erabilera haundikoak direlako, informazioa jaso dugun lurraldeetan egunero erabiltzen direnak. Hortik jarrai daiteke erabilera adierazkorretarako sabaiko aldakietara jo beharra; ez, aldiz, beste hitz marjinaletan, hauetan, erdi galduak edo oso gutxi erabiliak direnez, aisagoa da hotsak berez aldatzea. Dena den, kasu marjinalak izan arren, sabaikoen sistema eta balioa apurtu egiten dela batzutan esan nahi du horrek.

8. Balio adierazkorrez jasotzen denean hotsa bi motatakoa jasotzen da, sabaiko afrikaria eta sabaiko igurzkaria, biak lekuko berarengan zenbait kasutan. Ez dakigu txandaketa hutsa den eta, hortaz, balio berdinarekin erabiltzen diren aldakiak, ala ingurune desberdinetan erabiltzen dituzten. "Zerria" forma markatu gabekoa da Bortzirietan, eta, horren parean, "xerria" eta "txerria" formak adierazkortasunez erabiliak dira. Gure ustez badute bereizketarik, baina gehiago sakondu beharko litzateke eta guk jaso dugun baino korpus haundiagoz baliatu ondorio tinkoak atera ahal izateko.

9. Azkenik, eta posizio honetako hotsekin amaitzeko, sabaiko igurzkariaren egoera ahula aipatu nahi genuke. Hasierako p( i-zioan hagitz maiztasun urria du eta forma apur batzuk kenduta ez da batere entzuten, non eta ez den erabiltzen balore adierazkorrez eta, horietan ere, gure ustez, esparrua galtzen ari da.

Hitz bukaerari dagokionez, esan bezala, azken posizioko hots xistukariak neutralizatu egiten dira afrikarien alde. Guk ere horrela jaso dugu azken posizioan gertatzen den hotsa, eta, kasu bakan batzutan izan ezik, besteetan afrikaria dela esan behar da. Alabaina, egoera hau aldatu egiten da hots hori beste hotsen artean joaten bada kate mintzatuan.

Afrikariaren ondotik leherkaria joaten bada, kanpo-sandhia gertatuz, leherkaritasuna galtzen du afrikariak, igurzkaria bihurtuz. Gauza berdina gertatzen zaio hurbilkaria denean atzean daramana, "igurzkaria + hurbilkaria" taldea sortuz: "hotz gutxi"-ren kasuan, esaterako.

Baina azken posizioko afrikaria ere bihur daiteke igurzkari aurreko hotsaren eraginez. Orohar sonanteak deitzen ditugun sudurkaria, albokaria edo dardarkaria, hau da, horietako edozein aurretik badarama, hurrengo leherkariak bere hersketa unea galdua ikus dezake. Hain interesgarria den talde hau beste atal batean aztertuko dugu, kontsonanteen taldeei zuzendutakoan, alegia. Kasu hauetan, dena den, ez dago batere erabaki tinkorik eta barietate haundia jaso dugu toki eta kasu guztietan.

Honekin batera doan beste talde batetaz ere hitz egin beharko litzateke, nahiz eta egun gertatzen diren fenomeno fonetiko puntualetik at gelditu. Kontsonante taldea da garai zahar bateko bilakabidea adierazten duena eta gaur arte gorde dena beste aldaketarik gabe. Egia esan, talde bat baino gehiago dago, orain aztertzen ari garenekin bat besterik ezbadator ere ongi, "rst" / "st" taldea da, alegia. Bere muin fonetikoaren azterketa alde batera utziz, bi talde desberdinen ebakera jaso dugu eta kasu honetan ez da bazilaziorik jaso, gehien ere Beunza-ko ahoskera gelditzen da muga-mugan. Isoglosak Ultzamako azpi-euskalkia banatzen du, Ultzama-ko bailara Baztango eta Bortzirietako azpi-euskalkiekin, Zugarramurdi barne, alde batera uzten ditu "rtz" taldearekin, eta gainerako guztiek, Bortzirietako Erasun-ekin batera, "st" egiten dutelarik. Isoglosa honen mugen banaketa ezaguna egiten da, beste batzutan ere agertu delako. Maiztasun batekin agertzen ari zaigu Ultzama-ko bailara Iparreruntz begira.

Afrikarien egoera aldatu egiten da inguruan dituen bokalen eraginez. A. Alonso-k jaso zuen bezala, gu ere konturatu gara, hizketa laxoan, afrikaria bokalartean badoa galdu egiten duela bere leherkaritasuna edo entzumenez, behintzat, ia jasoezina dela, kasu askotan horrelakorik ez bazaigu gertatu ere .

Azkenik, aurretik daraman hotsa "i" diptongoaren bigarren elementu bokalikoa bada, hurrengo hots afrikariaren artikula puntua, bizkar-hobietakoa edo mihipunta-hobietakoa bada, sabaikatu egiten da kasu askotan. Bustidura automatikoa gertatuz, jakina.

Azaldu ditugun kasuek berdin balio dute hitz barrenerako eta hitz bukaerarako, azken hauek ere berdin gertatzen bait dira barnean kate mintzatuan.

Aipaturiko fenomenoen hedadura diatopikoari buruz ezin daiteke ondorio zehatzik atera, irregulartasun eta alternantzia sobera gertatzen delako. Gertakizun diatopikoez baino egokiago litzateke afrikarien sisteman eta inguruaren eraginez edonon eta edozeinengan agertzen diren joera fonetikoez mintzatzea. Leherkarietan bezala, bokalarteko posizioa da pertinentea, baina kasu hauetan ere tentsioa biguntzera edo galtzera jotzeko joera ageri da.

### 2.2.6. Analisi akustikoa

Afrikarien bi ebakerak, leherkaria eta igurzkaria, garbi agertzen dira, sonograметan bikain neurtzeko bidea ere ematen dutelarik. Lehenengo momentua, leherkariari dagokiona, zuriz agertzen da, eta iraupenaren aldetik laburragoa da igurzkariari dagokiona baino. Bigarren momentua, igurzkariarena, beste edozein igurzkari bezala gertatzen da, leherkariarena baino luzeagoa. Bestalde, nahiko aldiz agertu izan da lehenengo unea ahostua

gertatzen dela, bigarrena erabat ahoskabea egiten delarik. Bizkar-hobietako afrikari ahoskabearekin gertatzen da batez ere; mihipunta-hobietako afrikari batzutan ere gertatzen da, baina gutxitan; eta ia inoiz ez, aldiz, sabaikoarenetan. Maiztasunak artikulaketa gunearen arauera aldatzen dira, zenbat eta aurreragokoa hainbat maiztasun goragokoa, eta, alderantziz, maiztasun apalagoa eta artikula gunea atzeratuagoa. Denak posizio guztietan gertatzen dira, hasieran, hitz barruan eta hitz bukaeran. Hasierako posizioan afrikari sabaikoa jaso dugun zenbait hizketetan gutxitan gertatzen bada ere.

Bizkar-hobietako afrikari ahostunaren ebakera nahiko bariatua gertatu da jaso ditugun emaitzetan. Ebakerarik arruntena leherkaria + igurzkaria jaso dugu, baina besterik ere aurkitu dugu, maiztasun txikiagoarekin bada ere: leherkaria + igurzkaria + igurzkaria; igurzkaria + leherkaria + igurzkaria; bi momentuko igurzkariak, eta hiru igurzkari ere bai. Ez dugu hemen kasu bakoitza azaltzen, bazterrekoak direlako eta ez dakigulako, bestalde, berez ala zein arrazoik eraginik ahoskatzen duten horrela; guk ez dugu uste arrazoi berezirik dagoenik.

Oraintsu esan bezala, maiztasunak bokalen arauera aldatzen dira; halere, bataz-bestekoa 3.034 Hz-takoa da. Leherkariaren iraupena 52 msg-takoa da bataz-beste, eta bigarrenarena 72 msg-takoa, guztira 134 msg-tako iraupena duela. Esan dugu lehenengo unea ahostuna egiteko joera badagoela, oso txikia bada ere. Ebakera bereziak ez ditugu azaltzen eta adibide gisa gertaera arrunt bat jartzen dugu, leherkaria + igurzkaria ebakitzen den hotsarena, alegia, ikus (5.1) "atzo" hitzaren Auzako lekukoaren ahoskera.

Mihipunta-hobietako afrikari ahoskabeak ebakerak aldatzen ditu, baina ez oso maiz: igurzkari hutsa ere gertatu izan zaigu batzutan, eta bi igurzkaritasunekin ere bai. Halere, arruntena leherkaria + igurzkaria jaso dugu, bi uneak eginez. Igurzkariaren maiztasuna bizkar-hobietakoarena baino apalagoa da, horregatik artikulaketa gunea atzerago gertatzen da. Bataz- bestekoa 2.173

Hz-takoa da eta, beherago ikusiko dugun bezala, bai bizkar-hobietako afrikariak bai mihipunta-hobietako afrikariak beren pareko igurzkariekin antz haundia dute igurzkaritasunaren maiztasunari dagokionez.

Iraupenaren aldetik lehenengo unea 68 msg-takoa da eta bigarrena 76-takoa, denera 144 msg-tako delarik bere bataz-besteko iraupena. Afrikari silabiko bat ere agertu zaigu, hasierako posizioan, aurretik zeraman bokala galduz gero ziurrenez. Ez dugu uste gertakizun hau askotan gertatuko denik, alderantziz baizik.

Esan dugu, bestalde, hots hau erretroflexua gertatzen zela guk aztertu dugun hizkeretan. Akustikoki, agian zerbait igartzen da hirugarren formakinean, formakin horren maiztasuna beherago hasten dela esango genuke, baina oso datu gutxi ditugu eta ezin dugu erabateko deus esan, ez eta gutxiagorik ere. Azterketa sakonagorako utzi beharko da.

Adibide bezala Arraras-ko lekukoak ebaki duen "otso" hitza ematen dugu, ikus (5.2).

Azkenik, sabaiko afrikari ahoskabea azaltzen dugu. Maiztasuna, bataz-beste 1.968 Hz-takoa da eta iraupena 64 msg-takoa lehenengoa, 84-takoa bigarrena, eta 148 msg-takoa guztira, mihi-puntakoarekin bat egiten duelarik.

Afrikari honen gertaerak igurzkari hutsaren eta leherkaria + igurzkariaren artean txandakatzen dira, eta batzutan bi leherkaritasun ere agertu izan dira.

Ikus hasierako posiziorako ematen dugun adibidea, Arraras-ko "txoria" (5.3) hitzaren ebakera, leherkaria + igurzkaria gertatuz.


Azaldu nahi dugu bigarren mailako hots afrikari ahoskabearen errealizazioa izan daitekeena, [t'] hotsarena, alegia. Sabaiko leherkari ahoskabea azaltzerakoan esan dugun bezala, hots horrek igurzkaritasuna ere izan ohi du askotan, kasu horietan ia

afrikaria bihurtzeraino ere. Horrelakotan beti aurretik bokal sabaikaria eramaten du, "i", alegia: "aitta", "ttiki" eta horrelako kasutan gertatzen da. Jaso ditugun kasuetatik larrienetako bat nabarmendu nahi dugu, Ituren-go lekukoak, emakumea hain zuzen, ebaki duen "igitaia" hitzarena (5.4). Ageri denez, afrikaria da, lehenengo momentuan apur bat ahostua. Igurzkaritasunaren maiztasuna 2.091 Hz-takoa da eta iraupenak 88 eta 56 msg-takoak, 144 msg. guztira. Horretan bereizten da benetako afrikarietatik, lehenengo unearen iraupena luzeagoa duela bigarrena baino, eta hori, ikusi dugunez, ez da afrikarietan gertatzen dena, luzeagoa behar bait du igurzkaritasuna. Hori dela eta, [t'] bezala entzuten da hotsa, leherkaria izango bailitza. Sonograman afrikaria traskribatu dugu eta, izan, horrela da, pertzepzioz leherkaria jasotzen bada ere. Horrenbestez, ongi ulertzen da Bizkaieraz, eta Gipuzkeraz ere zenbait tokitan, eman den pausua "tt" → "tx", eta Goi-Nafarreraz gertatzen ari dena.


Sonogrametan agertzen den bezala, hiru hots afrikariak karrankariak dira, hirurak etenkariak eta hirurak zorrotzak. Beste zehaztasunak definizioan agertzen dira.

Gertaera hauez gainera, afrikari ahostunarenak daude. Guk sabaiko afrikari ahostuna jaso dugu, baina jodaren gertaera den bat haren sailean aztertuko dugu, hemen baino egokiago kokatzen bait da afrikaria izan arren.


Azkenik, definizioari buruzko puntu bat aipatu nahi genuke. Mihi-puntako afrikaria erretroflexua bezala definitu dugu horrela bizkar-hobieta afrikaritik akustikoki bereizten da. Bereizketa hau JAKOBSON-ek zenbait hizkuntzetarako proposatzen du, ikus esaterako (1971,278).





(5.1)




(5.2)




(5·3)




(5·4)

# Oharrak

(1) Xistukariei buruzko analisi akustikoa egiten duten bi liburu argitaratu berriak ditugu, bigarrena oraintxe puntuan gure eskuetara iritsia-, ZENBAITEK (1988) eta (1989), (B) eta (G)-ri, hain zuzen, dagozkiotenak. Sistemaren urraketa jaso dute euskalki hauetan, baina, tamalez, ez da zehaztasun geografikorik azaltzen, emaitzak azpi-euskalkika orohar ematen bait dira.

(2) "Abar", "abarrak" hitzetik datorrela dirudi, hurbilkariaren metatesia eta azentuaren aurreko bokalaren sinkopa eginez, nahiko normala bestalde, leku horietan azentoa aski bortitza bait dute.

(3) Ikus, ingurumen berdinean ere, "hamar gorputz" (87).

(4) Aurretik albokaria edo sudurkaria izateak, berez afrikaria den kontsonantearen txandaketa sortzen du apikari / igurzkariaren artean.

(5) Ituren-go B lekukoak ere horrela ahoskatu du. Dena den, Bortzirietako azpi-euskalkian ebakera hori zabalagoa da eta, ikusten den bezala, bi formek alternatzen dute egoera polimorfikoa gertatuz.

(6) Sain berezi honen interesgarritasunak lortu arazi du zenbait lan. Hona hemen guk ezagutzen ditugunak: LAFON, R.: 1952, "La mouillure en Laburdin", **Etudes Basques et Caucasiques,** Salamanca, 11-15. or.; CORUM, C.: 1972, "Palatalization Phenomena in Basque", **ASJU** VI, 29-34. or.; OÑEDERRA, M. L.: 1986, "From automatique assimilation to sound symbolism", ASJU XX-1, 67-74. or.; OÑEDERRA, M. L.: **Palatalizazioa euskaraz,** Argitaratu gabeko Doktoradutza Tesia, EHU-UPV, 1987-1988 ikasturtea.

## 2.3. IGURZKARIAK

### 2.3.1. Definizioak

/f/ fonema: Artikulatorioa: igurzkaria, ezpain-hortzetakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, lodia, ahozkoa, jarraikorra, matea, ahoskabea.

/s/ " : Artikulatorioa: igurzkaria, bizkar-hobietakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, jarraikorra, matea, ahoskabea.

/s̀/ " : Artikulatorioa: igurzkaria, mihipunta-hobietakoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ahozkoa, jarraikorra, karrankaria, ahoskabea.

/s̬/ " : Artikulatorioa: igurzkaria, sabaikoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, zorrotza, jarraikorra, ahozkoa, karrankaria, ahoskabea.

/j/ " : Artikulatorioa: hurbilkaria, sabaikoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, zorrotza, jarraikorra, matea, ahozkoa, ahostuna.

/x/ " : Artikulatorioa: igurzkaria, belarea, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, lodia, ahoskabea, jarraikorra, matea.

/h/ " : Artikulatorioa: igurzkaria, gingilekoa, ahoskabea.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, lodia, jarraikorra, matea, ahozkoa.

### 2.3.2. /f/

#### 2.3.2.1. Gertakizun fonetikoak

Ezpain-hortzetako igurzkaria den hots honek ez du bere sailean pareko hotsik. "F" hotsa duten hitzak begiratu ahala, maileguetan bakarrik ageri dela ohartzen da bat, edo euskal hitza bada ere, "f" hotsa beste hots baten ondorio bezala sortua dela. Dirudienez, aintzinako euskal sistema fonetikoan ez zuen fonema honek existitzen. Hori dela eta, inguruko hizkuntza erromanikoetan izan omen duen eraginagatik, erromanisten artean oso aztertuak izan dira fonetika historiko mailan horrek sortu dituen arazoak.

Gaur egun euskal fonetikaren sistema barruan hartzen duen lekuaz aparte, eta bere balio fonematikoa alde batera utziz, -"afaldu / apaldu", "forrua / porrua" bi adibide beste bikote batzuren artean-, bere ahoskerak ez du arazorik sortzen, eskualde batzutan besteetan baino beranduago sortutako hotsa dirudien arren.

Artikulaketa ere dela eta, era batera baino gehiagotara gertatzen dela esan behar da. DUVOISIN-ek (1930,96) hots hau definitzerakoan horrela zioen:

> *"Pour ce qui est de la lettre F en particulier, il est rare qu'on prononce sans une aspiration plus ou moins accentuée; mais quand on arrive aux mots qui font image, ou dont le son est imitatif, on prononce presque toujours le F avec l'aspiration le plus exagérée".*

Deskribapen hau Duvoisin-ek Lapurteran oinarrituz egingo zuen ziurrenez, bera Lapurdikoa bait zen; dena dela, ez dirudi hots hori guk egun deskribatzen dugun ezpain-hortzetako hotsa izango zenik, igurzkari biezpainetako ahoskabea baizik. Garai zaharretan horrela izango zela uste zuten, beste batzuekin batera, JUNGEMANN-ek, LAFON-ek, MARTINET-ek (1), hau da, euskararen hots hori, biezpainetako igurzkaria izango zela.

NAVARRO TOMAS-ek (1925,609-610) ez zuen garbi ikusten hots honen ahoskera Gipuzkeran: "Su articulación no presenta una forma clara y precisa [...]. En **santifikatua**... y **frutuba**..., la **f** no fué labiodental pura; la estrechez de la articulación, formada entre la cara interior del labio inferior y los dientes superiores, iba acompañada de una aproximación de los labios que daba al sonido cierto timbre bilabial [...]. Por lo demás, la f africada (en inicial de "frutuba"), con articulación imprecisa entre bilabial y labiodental, parece hallarse en muchos lugares vascongados" (2). Berdintsu gertatzen zitzaion UNAMUNO-ri (1893,138), alemanierako **pf** edo [ph] bezala ahoskatzen zela euskarako "f" hotsa zenbait tokitan esaten bait zuen.

Ez da, beraz, harritzekoa arazoak izatea biezpainekato igurzkari ahoskabe honekin, zail gertatzen baita entzumenez ondo jasotzea. MARTINET-ek dioen bezala (1968,61):

> *"...es rara e inestable, porque para imponerse al oído de los oyentes no tiene ni fricción verdadera ni vibraciones glotales que la sostengan. En cuanto la articulación labial se relaja un poco, lo que se percibe ya no está causado por el aire que sale por los labios, sino por el que pasa a través de la glotis".*

Bigarren une hau aspiraketa bat dela dio eta ez soinu biezpainkaria.

Bi ezpainetakoarena ez zuen MITXELENA-k oso argi ikusiko (1977,263), ezpain-hortzetakoa bezala definitzen bait du:

*"/f/ se realiza en la mayor parte del país como una fricativa labiodental sorda, que no difiere gran cosa de la pronunciación normal del esp. o fr. **f**".*

**Aintzinatasuna**-ren aldetik, eta gertakizun diakronikoetan sartu gabe, esan behar da hots honen presentzia euskal sistema fonetikoan ez dela zaharra, berria baizik, Hona A. IRIGOYEN-ek dioena: "En el siglo XI hay testimonios que inducen a aceptar que una **b-** había ya evolucionado a **f-** entre hablantes vascos, cuya pronunciación terminó por incorporarse a su sistema fónico" (1977,236). Goian esan dugun bezala, hots hori agertzen duten hitzak bereziak dira, hau da, edo maileguak dira edo, mailegua ez balitz, esan nahi baita hitza zaharra edo bertakoa bada, hots ezpain-horzkari hori bigarren mailakoa izango da, beste hots batetik sortua, alegia.

**Maiztasuna** ere oraintsu esan denaren alde dago, ez bait da askotan ageri den hotsa. Hala eta guztiz ere, hasierako posizioan, eta hitz barruan ere, aski dexentea da hots horren presentzia, batez ere Iparraldeko euskalkietan eta lp(GN)-n; hainbeste ez agertu arren, nahiko usua da (B)-ko Mendebaldean ere. Gipuzkeraz eta Nafarroa-k eta Bizkaia-k Gipuzkoarekin dituzten muga inguruetan arazo ezberdina gertatzen da. Gauza ezaguna da Markina baten "f"-ren ahoskera zaila gertatzen dela. Ana Mª ETXAIDE-ren lana (1968) begiratuz, bestalde, Orio-n ere beste horrenbeste gertatzen dela esan behar da (3).

### 2.3.2.1.1. Artikulaketa modua eta bere banaketa

Sisteman sartu berri samarra izateak badu eraginik hots honetan, maiztasunean ezezik, maiztasunarekin hain zerikusi haundia duen artikulaketa moduan baizik. Gipuzkeran eta Gipuzkeraren inguruetan, Bizkaieraren Ekialdean eta Goi-Nafarreraren Mendebaldean, maileguetan gertatzen den hotsik

orokorrena biezpainetako leherkari ahoskabea da, [p] hotsa, alegia, hainbeste mailegutan ageri dena: **paltsu, prai, pesta, perde;** hitzen baten "f" ere ahoskatzen da ia beti: fede, esaterako, eta inoiz txandakatuz ere erabiltzen da: **afari / apari; nafar / napar;** kasu hauetaz, MITXELENA-k (1977,263) bilakabide bigarrendar eta berantiarra dela dio: "esto no representa probablemente nada antiguo, sino un proceso secundario relativamente reciente". Horrezaz kanpo, aldaki estilistiko bat ere izan daiteke.

Gainerako lekuetan txandaketak gertatzen dira eta horren adibiderik hoberena hizkuntza ezberdinetako maileguak nola hartu diren ikustea aski da. Latinetik hartutako hitzetan era askotako hotsak gerta daitezke, denak ezpainetakoak halere, aspiraketa salbu:

Lat. F- > b-, m-, p-, ph-, h-, f-, ø

"Fiku" hitzarekin, esaterako, honako banaketa hau gertatuko litzateke: (Aezk), Hg (GN) **biku,** (L), (Heg) **fiku,** (R) **figo,** (GN), (BN), (G), (L), (Zar), (Z), (B) Ekialdea eta Gip. **p(h)iko,** (B) **iko.**

Gazteleratik hartutako maileguetan, (G) eta haren inguruko hizkerak kenduta, jatorrizko "f" hotsa mantenitu egin da: "faltsu". Gaztelerako beste hots batzuk, denak biezpainkariak eta hasierako posiziokoak, "f-" eman dute euskaraz: "fadura", "frakak"; azken hitz honen kasuan disimilaketa dela bide sortutako fenomenoa izan daiteke, edo, agian, "f-"-k duen adierazkortasunagatik, hots bitxi samarra gertatzen bait zen; eta lehenengo kasurako, berriz, ultrazuzenketa izan daiteke. Frantseseko maileguetako "v-" hotsa euskaraz "f-"-rekin aldatu da, gehien hurbiltzen zitzaion hotsarekin, jakina: fr. "vite" > eusk. **fite,** fr. "vert" > eusk. **ferde .**

Artikulaketaren aldetik guk jaso ditugun datuak ez datoz denak bat. Lekuko batzuk benetako hots ezpain-hortzetakoa egiten zuten, hau da, azpiko ezpaina goiko hortzen ertzarekin ukitzen zuten, zirrikitutik aireari pasatzen uzten zioten bitartean.

Dena den, beste lekuko batzukin ez dugu hori jaso. Hotsa

entzumenez "f" aditu arren, artikulaketa ez zen ezpain-hortzetakoarena. Hurbilago gelditzen zen biezpainetakotik, biezpainetakoa ez bazen ere. Ahoa erdi hertsia eta bi ezpainak elkartu gabe eta, hurbildu gabe ere, aireak mihiaren laguntzaz urtetzen zuen. Guk, halere, ezpain-hortzetako hotsa entzuten genuen. Eta berdin gertatzen zitzaigun erdarazko "f" duten hitzak esanarazterakoan, "afán", "faena", "felicidad", "f" entzuten genuen, baina ez zuten ezpain-hortzetako hotsa egiten.

Azkenik hauxe esan nahi dugu, ez dugu erabateko erabakirik hartu, ez bait dugu deus garbirik jaso. Hori dela eta, /f/ fonemari gertakizun bakarra jarri diogu, [f]-rena, alegia. Ez dugu [φ] alofono bezala inon sartu, ez bait da batere ziurra bere izatea.

### 2.3.2.2. Galdekizunean jasotzen diren fenomenoak

1. Banaketa:
   Hitz hasieran:
   faltsu - hiru (gizon) faltsu
   ferian - hiru feri
   festa - hiru festa
   Hitz barruan:
   afari - hiru afari
   afaldu
   Nafarroa - nafartarra
   alfer - hiru alfer
   Txandaketak:
   fiku - hiru fiku
   ferra - hiru ferra
   ifar

### 2.3.2.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

**193A FALTSU - 193B HIRU (GIZON) FALTSU (294-295)**
**194A FERIAN - 195B HIRU FERI (296-297)**
**195A FESTA - 195B HIRU FESTA (298-299)**


Hitz hasierako posizioan gertatzen den "f-" hotsa, ezpain-hortzetakoa, hiru hitz mailegutan kokatzen dugu. Garai ezberdinetan hartutako maileguak: FESTA zuzenean latinetik, eta beste biak, "faltsu" eta "feria", gaztelera erromantzetik. Bietatik, "feria", gazteleraz erdi-kultismoa bada ere, lehenago sartua euskarara ziur aski "faltsu" mailegua baino.

Ahoskerak, jaso dugun lurraldean, ez du zalantzarik. Denetan ezpain-hortzetakoa ebaki da "faltsu" eta "ferian" kasutan; salbuespen bakarra Oronotz-Mugaire-koa izan da, biezpainetako frikari ahoskabea egin duela iduritu bait zaigu.


Mailegu zaharrean, aldiz, "festa"-ren kasuan "b" eta "p"-ren arteko txandaketa gertatzen da. Ez da hain bakana Arraras eta Oronotz-Mugaire-k forma mugatuan erantzun duten "festa". Egia esan, horrelako forma bikoitza beste Bortzirietako herrietan ere aurkitu dugu, baina ez da sistematikoa, horregatik ez dugu mapetan jarri. Gure ustez, alternantzia horren arrazoia gazteleraren interferentzian bertan datza. eta, nolanahi ere, beti bigarren mailako forma litzateke.

Isoglosa nagusiak honako hauek dira: Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Bortzirietakoan, Erasun kanpoan geldituz, eta Ultzamako Larraintzar, Auza eta Beunza-n, **bestak;** Auzan ahoskabetua jaso genuen mugagabean; Bortzirietako Erasunen, Arakil-go Aldaz-en eta Ultzamako Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en, **pestak.**

FERRA (309)




ALFERRA (305)



## 201A FIKU - 201B HIRU FIKU (307-308)
## 202A FERRA - 202B HIRU FERRA (309-310)

"Fiku" hitza ere, goian esan den bezala, latinezko etimotik datorrena da eta toki guztietan ezpainetako leherkari ahoskabea egin da; Zugarramurdi-ko B lekukoak egin duena da, "fikoa", aldentzen den kasu bakarra.

"Ferra"-ren kasuan emaitzak aldatu egiten dira. Ezpain-hortzetako frikari ahoskabeak hartzen du lparraldeko zatirik haundiena: Zugarramurdi, Baztango azpi-euskalki osoa, eta Bortzirietan, Erasun, beti bezala, kanpoan gelditzen da, eta Oronotz-Mugaire eta Donamaria-k ezpainetako frikari ahoskabea egiten dute forma mugatuan; mugagabean, Donamaria-k bakarrik, beste leku guztietan "ferra", Ultzama-ko Larraintzar eta Auza-n ere horrela ahoskatzen dutelarik.

Ezpainetako leherkari ahoskabea, Aldaz eta Erasun-en Bortzirietako azpi-euskalkian, eta Beunza, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en Ultzamakoan.

Kanpo-sandhietan batasun haundia dago, ez bait dago bigarren mailako hotsik eta jaso diren denak, orohar, bokalarteko jod hotsa bezala ahoskatzen dira; xistukariek eta jodak topo dutenekotan ere ez dugu aldaketarik aurkitu.

Hori horrela izanik, ahoskera tradizionala eta kontserbatzailea dela esango genueke. aldaketa gutxikoa. Mendebaldea da belarea duena, bereizketa aski harrigarriz gainera, Basaburua Haundia bitan banandurik agertzen bait da.

Azkenik, fonematasunaren aldetik, sabaiko hots ahostun hau Bortzirietako eta Baztango azpi-euskalkietan, Zugarramurdi-n eta Ultzama-ko bailaran fonema dela esango genuke. Ez dugu uste hizketa hauetan, gaurko sistema fonologikoan, beste hots baten alofonoa denik, bere nortasun berezia eta bere lekua bait du. Gutxienezgo bikoteak ere sortzen ditu: "jo" eta "xo" ("ixilik!"), "jarri" eta "karri", "joko" eta "xoko", eta beste abar luze bat uzten dugularik.

Beste kontu bat da zein hotsez ari garen, hitz egin dugun, ez bait dugu zehatz definitu, baina hori analisi akustikorako uzten dugu.

### 2.3.3.5. Analisi akustikoa

Atal honetako azterketa jod hotsaren inguruan mamitu dugu; edo, bestela esanda, deskribapen artikulatorioaren aldetik sabaiko hurbilkari ahostuna bezala definitu dugunaren inguruan. Akustikoki, berriz, beste ezaugarri orokorragoez gainera, trinkoa, zorrotza, jarraikorra eta matea ezaugarriekin definitu dugu. Baina, akustikora jo aurretik, konturatu ginen hots horren pean beste ebakera mota asko gertatzen zirela eta nolabait sistematizatu beharra zutela.

Hotsaren banaketa kontutan hartuz, honako azpi-talde hauetan banatu genuen:

1 - Jod hotsa hitz hasieran.

2 - Jod hotsa hitz barruan.

3 - Jod hotsa sudurkari eta albokarien ondoren doanean.

4 - Jod hotsa kanpo-sandhian.

5- Jod hotsa beherunzko diptongoaren bigarren elementuak sortzen duenean.

6 - Jod hotsa antihiatikoa denean edo armonia bokalikoaren ondorioz sortzen denean.

Nolanahi ere, beti erreparatu behar da jatorri ezberdinetako-ak direla eta ezin daitekeela, sorrerari dagokionez, ikuspegi diakronikoz parean jarri. Jakin, badakigu, arestian esan dugun

bezala, erabat batera ezin daitezkeen hotsak hartzen dituela jod deiturak, halere, jatorriaren arazoa sahiestuz eta gaur egun sistema barruan gertatzen direnez, ongi deritzogu gertaera denak talde batean sartzeari. Talde horien arauera eta sonogramak atera eta aztertu ondoren, honako emaitzak jaso ditugu:

1. Hasierako posizioan ia mota guztiko ebakerak dauzkagu. "Jo" hitzarekin Auza-ko lekukoak (7.1) tinbre berdineko bi bokal, goikoak eta hertsiak biak ahoskatu zituen. Egia esan, ez da oso ebakera arrunta, inoiz gertatzen bada ere eta beti bokal berdinarekin "i"-rekin alegia.

Ebakerarik arruntena edo arruntenetakoa sabaiko leherkari ahostunarena da, benetan, erabileraren maiztasunaren ikuspegitik , aisa gehien agertzen dena. Ikus azaltzen ditugun adibideak, Ituren-goa (7.2) eta Donamaria-koa (7.3). Ahostunak diren leherkari guztietan bezala, leherkaritasunaren marra oso makala izaten da, batzutan igarri ere ez delarik egiten, eta ahostasunaren formakinak iraupen murritza azaltzen du, bataz-beste, 52 msg-takoa. Iragaiteari dagokionez, berriz, I1 negatiboa da, eta I2 positiboa, "o" bokalarekin bait doa joda. Maiztasunak, aldiz, 1558 Hz-en inguruan dabiltza.

Hurrengo ebakera (7.4) Sunbilla-ko lekukoarena da. Gure ustez, sabaiko hurbilkari ahostuna da. Leherkaritik hurbil badago ere, iraupen luzeagoak 80 msg. ingurukoak dira; maiztasunak leherkarienak baino haundiagoak dira, 1640 Hz. eta goragokoak ere bai. Espektroan agertzen den goitik beherako irudia hurbilkariari dagokiola iruditzen zaigu. Bestalde, iragaiteak ere luzeagoak dira, eta leherkariarenekin erkatuz gero honetan hagitzik ere polikiago dihoaztela ikusten da eta horrek bokalekin duten antza agertzen du apur bat.

Hasierako posizio honekin amaitzeko, afrikariaren ebakera azalduko dugu "Jauntzi" hitzarena, Beunza-ko lekukoak ebakia (7.5). Bi momentuak garbi ikus daitezke: leherkariarena leherketa marrarekin eta iraupen laburrarekin, eta bigarrena ere, igurzkaria-

rena, iraupen laburrarekin, 32 eta 44 msg-takoak dira bienak jarraiberean. Igurzkariaren zaratak ateratzen duen maiztasuna 1800-tik 2200-eraino Hz-takoa, bataz-beste; bere kide den afrikari ahoskabeak baino maiztasun txikiagoa du. Orohar, sabaiko afrikari ahostun hauek maiztasun txikiagoa dute ahoskabeek baino. Beste hizkuntzetan ere gertatzen da eta fenomeno orokorra da, bestalde; ahostunak sabaian leku gehiago hartzen duela adierazten du eta apur bat atzerago ere ebakitzen dela hertzioetan dagoen ezberberdintasunaren arauera, jakina. Ikus eta erka beste lekuko batenarekin, honen igurzkaritasunaren iraupena aisa luzeagoa delarik (7.5).

2. Hitz barruan, bokalartean doanean ere era ezberdinetako ebakerak, gehientsuenak, jaso ditugu. Beti bezala erakusgai gisa, adibide batzu ekartzen ditugu. Lehenengo, (7.6) "Hiru jabe"-ren kasua gorunzko diptongoa ebakiz, Aniz-eko lekukoak eginikoa. Iturengo-ak (7.7) sabaiko hurbilkari ahostuna apur bat erlaxatua, baina ikusten da hurbilkaritasunak espektroan bokalekin azaltzen duen kidetasuna, 3. formakina ere azalduz. Maiztasuna 2000 Hzren ingurutik gora dabil, eta hasierako posizioan baino haundiagoak gertatzen da eta iraupena ere luzeagoa, 76 msg-takoa bataz-beste. Azkenik, leherkaria gertatzen da Arraiotz-ko lekukoarengan "jauntzi" hitzean, "arropa jauntzi". Iraupenaren aldetik hurbilkariarekin nahiko berdintsu gertatzen dira, eta maiztasunak hurbilkarienak baino apalagoak, 1800 Hz. ingurukoak (7.8).

Posizio honetarako jaso ditugun emaitz guztietatik ez dugu gertakizun bateraturik aurkitu eta bat gainditzen denik ere ez genuke esango. Afrikaria dela gutxiago agertu dena esango genuke.

3. Ezin izan dugu ikusi albokari ondoko sabaiko hotsa nola gertatzen den, ez bait genuen gure korpusean horrelako gertaerarik, - Mitxelena-k ahoz esan zigun Errenderi-n gaztea zenean Kolddo deitzen zutela, leherkariz, alegia-. Sudurkariaren ondorengo hotsa ikusteko "onddo" hitza genuen, eta honekin ere gertakizunak hiru motatakoak izan dira, hurbilkaritik hasi (7.9), Amaiur-ko

lekukoarena; afrikariz jarraitu, Arraras-ko lekukoak (7.10); eta, azkenik, leherkaria (7.11) Aniz-ekoak.

Hurbilkarien maiztasunak 1845 Hz. ingurukoak izaten dira; horrenbestez, afrikarienak baino haundiagoak, eta iraupena 52 msg ingurukoa, beste posiziotan hots honek izan ohi duen baino laburragoa, beraz.

Hots afrikariak ongi bereizten ditu bi momentuak. Lehenengoa, leherkariarena, bataz-besteko 44 msg-takoa iraupenarekin, eta, bigarren momentukoa, igurzkaritasunarena, apur bat luzeagoa, baina laburra hau ere, 60 msg. ingurukoa. Maiztasuna, berriz, 1353 Hz-koa da bataz-beste; hortaz, hurbilkariarena baino txikiagoa.

Leherkariak, azkenik, oso iraupen laburra izaten du, 32 msg-takoa gutxi gora behera. Gertaera hau normala da, aurretik doan sudurkariaren leherkaritasunak hurrengoarena ere hartzen bait du biak ia bat egiten direlarik. Afrikarian ere berdin gertatzen da, leherkariarena bezain laburra ez bada gertatzen ere. Maiztasuna 1886 Hz-takoa da, nahiko emaitza bateratua duelarik beste posizioan gertatzen den kidearekin.

4. Kanpo-sandhietarako "Nor haiz?" sekuentzia aztertu dugu eta hemen ere, beste kasu guztietan bezala, hotsen ebakeran aniztasuna izan da ezaugarririk nagusiena. Aniz-ko lekukoak leherkaria ebaki du (7.12) eta Arraras-koak hurbilkaria (7.13). Leherkarian igurzkaritasun apur bat agertzen da espektroaren oso goiko aldean, horrek, hein batean, afrikari bihurtzen du hotsa, baina hain txikia denez igurzkaritasuna, leherkaritzat hartu dugu, ebakera, berriz, aski gibelekoa du, sabai-atzekaldekoa ziurrenez. Arraras-koan, aldiz, maiztasunak eta iraupen laburrekoa da, baina sustantzian ez da beste inguru netan jaso dituguneta tik aldatzen.

Azkenik, diptongoen eta armonia bokalikoaren eraginez sortzen diren kasuak aztertu beharko lirateke, baina gehiegi luzatuko litzateke ia alferrik azalpen hau; egia esan, ez genuke gauza

berririk ekarriko, bai, ordea, orain arte esanak errepikatu. Ahoskeren txandaketek jarraitzen dute, mota berdineko sabaiko hotsak ebakitzen bait dira.

### 2.3.3.5.1. Ondorioak

Analisi akustiko hau egin ondoren, lehenengo eta behin ikusten dena hauxe da, orain arte egin diren eskemak hautsi egiten direla neurri batean, eta ateratako arau fonetikoek berrikusi beharra dutela, eta ezarritako isoglosak ere bai.

Ikusten da ez dela hain estua eta eraginkorra gertatzen ingurunea hots hau ebakitzerakoan, ez bait da bokalartean joaten denean biguntzen, armonia bokalikoaren kasuan, esaterako; ez da nahi eta nahi ez leherkari ere egiten sudurkariaren ondoren joaten denean; eta hasierako posizioari dagokionez ere, ez da atezu edo tentsio gehiagorekin ahoskatzen, gertaera bokalikoak ere ikusi bait ditugu. Bapateko begirada, anarkiko samarra dela ebakera esango genuke.

Zer esanik ere ez dago, guk emandako traskribaketek eta mapetan agertzen direnek, ez diotela analisi akustikotik jasotakoari erantzuten. Jod hotsari dagokionez, hurbilkari bezala traskribatu dugu, afrikari kasu banaka batzurekin batera. Leherkaria, berriz, "dd" hotsa, leherkari bezala eta armonia bokalikoaren eraginez sortutako sabaiko epentesia hurbilkari eta hurbilkari erlaxatua bezala, horrela somatzen bait genuen hotsa. Bistan gelditzen da zein iruzurti gertatzen den pertzeptzio soilik baliatzea. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu sonografoa erabili beharra traskribaketak egiteko, eta analisi akustikoa ere ezin daitekeela azterketatik baztertu.

Horrelako txandaketek, zer adierazten dute? Uste dugu ez dagoela erabateko edo besteko gertaeren banaketa egokirik; eta

gertaera diakronikoek ere ez dute arrazoirik, agirikorik behintzat. Hotsean bertan datzala arrazoia esango genuke.

Bestalde, seinalatzen diren isoglosek ere ez digute balio, ikusten bait da leherkaria, afrikaria, hurbilkaria eta modu guztietako hotsak agertzen direla "jan", "jo" eta horrelakoak ebakitzen direnean. Gehien ere, hots bat har daiteke erreferente gisa, sabaiko hurbilkari ahostuna, agian, eta beste gertaera guztiak hots horren alofonoak lirateke posizio zehatz horietan.

Banaketa diatopikoari dagokionez ere, esan den bezala, ez dugu gertaera metodikorik aurkitu, edonon eta edonorengan ebakera ezberdinak gertatzen bait dira. Egingo genukeen banaketa nagusia eta bakarra hots sabaikoari eta belareari dagozkiena litzateke. Goiko ondorioetan agertu dena, hain zuzen: Aldaz, Goldaratz eta Beramendi [x] belareaz; eta gainerako guztiak hots sabaikoaz.

Lehenengo taldekoak [x] belare igurzkari ahoskabea ahoskatzen dute, eta toki horietan sabaiko gertakizunak bigarren mailakoak gertatzen dira, eta oso gutxitan gainera: diptongoaren bigarren elementuaren gertakizun bezala eta kanpo-sandhietan, "Nor haiz?" eta kito. Sabaikaria ager zitekeen kasutan ere, toki hauetan txuliatu egiten da: "onto" ala "ontto", "io" ala "eo". Hortaz, hots honi dagokionez, sistema desberdina dute.


Beste taldekoek, sabaiko hotsen gama osoa dute: [i], bokal osoa; [j], erdikontsonantea; [ǰ], sabaiko hurbilkari ahostuna, - ez dugu uste nahiko elementu dugunik [ɾ̆], hurbilkari erlaxatuaren existentzia frogatzeko-; [dž], sabai-aurreko afrikari ahostuna, eta [d'], sabaiko leherkari ahostuna; inoiz [ž] sabai-aurreko igurzkari ahostuna agertu zaigu, baina oso bakana, ia aipatu beharrik ere ez dago.

Definizio akustikoei buruz, denen definizioak eginak daude aurretik eta ez ditugu errepikatuko. Orain arte aipatu ez dugun sabai-aurreko afrikari ahostunarena hauxe litzateke: ez bokalikoa,


kontsonantikoa, trinkoa, zorrotza, ahostuna, etenkaria eta karrankaria.

Leherkari sabaiko ahostuna, [d'], alegia, leherkarietan azaldu dugun bezelakoa azaltzen dugu hemen ere, eta han egin genion definizio akustiko bera mantenitzen dugu orain ere. Gure ustez, aztertu ditugun hizketetan, sabaiko hurbilkari ahostunaren aldakia dela uste dugu, eta goian eutsi genion fonematasunik ezari eusten diogu berriro. ZENBAITEK (G)-rako eginiko lanean leherkari sabai-aurreko [ʒ] hotsa azaltzen dute (1989,150) armonia bokalikoaren ebakeraren ondorio bezala, guk [d'] leherkariari egin diogun definizioarekin bat datorrena. Euskal fonemei egiten dioten sailkapen akustikoan (1989,21) /d'/ bezala traskribatzen dute eta lodia bezala definitu, baina ez dakigu lehenengoa fonema bezala hartzen duten, ala bigarreneren, hau da /d'/-ren aldaki bezala, alofonoa, hain zuzen. Gure azterketen arauera, ez dugu uste fonema denik eta, ongi egiaztatu ondoren, gertaera bakarrarekin jaso dugu artikulaketa moduaren aldetik, bizkar-sabai-aurreko edo sabaiko leherkari bezala, alegia.


Azkenik, sail honekin bukatzeko, euskararen sisteman dagoen sailik garrantzitsuenetako baten aurrean gaudela esango genuke eta nortasun berezia ematen dion sailarenean, gainera. Hedadura eta banaketa desberdinekoa tokien eta lurraldeen arauera, eta, beraz, hizketen sistemak jasotzeko oinarrizkoa. Azterketa sakona behar du bere deskribapen egokirako, baina, betiere,inguruneak, gertaerak eta jatorria ongi kontutan hartuz. Horrenbestez, datozkigun erizpideak eta presupostuak, kasurik gehienentan betetzen ez direnez, alde batera utziz edo, gutxienez, horiekatik baldintzaturik gabe jokatuz.





(7.1)





(7.2)





(7.3)





(7.4)





(7.5)





(7.5bis)





(7.6)





(7.7)




(7.8)





(7.9)




o n' dž ó à

(7.10)




ć r u ó n' d' ò

(7.11)



(7.12)



(7.13)

# OHARRAK

(1) Euskara galdu ez den tokietan, noski. Fenomeno hau, MITXELENA-k (1977,168-177). or. aztertzen du.

(2) MITXELENA-k (1977,170), 1956. urtean ahoz jasotako informazioa da, adineko jendeek sabai-aurreko igurzkari ahoskabea ahoskatzen omen zuten, gazteek, aldiz, belare igurzkari ahoskabea.

(3) BONAPARTE-k "Observations sur le basque de Fontarabie..." lanean dioenez, Goizueta-n [x-] soinua ez da ematen, hitz banaka batzutan, **jaun, Jaungoiko** eta horrelakoren bat izan ezik. Hitz bakar hauek Arano-n bezala ahoskatzen dituztela dio, baina herri honetan [x-] soinua arrunta den bezala, Goizueta-n sabaiko hurbilkari ahostuna, [j], ahoskatzen dela eskuarki. Hori ulergarria da, nolanahi ere, Arano-ko hizketak Goizueta-koak baino antz haundiagoa duelako Gipuzkerarekin.

(4) MITXELENA-k (1977,193) dio [d'] d-ren eta beste ahostun diren hots batzuren korrelatu bustia izatetik, eta, beraz, deskribatzean bigarren uneko, izatetik ez dela jarraitzen historikoki ere bigarren unekoa izatea.

(5) Iparraldean LHANDE-k hiztegian (609. or) **kikera** (Z)-rako azaltzen du.

(6) Hitz hau seguru aski gazteleratik hartua da, Corominas-ek **Egiptano** hitzetik erakartzen du "gitano". Euskarazko "i-" hori, agian, jatorrizko "e-" horretatik letorke, gero galdu dena.

## 2.3.4. [s], [ṡ], [š]

### 2.3.4.1. Gertakizun fonetikoak

Hiru hots hauek elkarrekin dituzten kidetasun eta inplikazioak kontutan hartuz, hirurak batera aztertzeari mesedegarriago deritzagu, bakoitza bakarka egiteari baino.

Hots hauen artean, hirugarrenak, sabai-aurreko igurzkari ahoskabeak, [s], zalantzak sortzen ditu fonematasunaren aldetik. Hots honi MITXELENA-k (1977) eta TXILLARDEGI-k (1980) fonemen tratamendua ematen diote. N'DIAYE-k (1970,16) ere fonema bezala hartzen du eta honelako bikoteak eskeintzen ditu: "zori" / "xori"; "laxo" / "lazo", "litxu" / "lixu"; Txillardegi-k ez du gutxienezko bikoterik ematen. MARTINET-ek ere (1981,60) euskal fonemei buruz egiten duen aurkezpenean bi talde bereizten ditu: "les palatales, avec tt, dd, ñ, ll" eta "les chuintantes, avec tx, x" denak fonemak direlarik, alegia.

ECHENIQUE-k (1979,63), Gipuzkerari buruz ari delarik, ez du erabat zehazten: "Al mismo tiempo mantiene el sonido [š] como variante alofónica expresiva del fonema /s/ en otras muchas palabras". [s] duten hitzek jatorri adierazkorra dute dudarik gabe, eta "zoko" / "xoko" edo edozein bikote izan daiteke horren adierazgarri. Alabaina, arazoa besterik da, gaur egun "xoko" "zoko"-ren edo "xatar" "zatar"-en aldaki adierazkortzat har al daitezke egiaz edo galdu egin dute balio adierazkor hori? Gutxienezko bikoteetara mugatuko bagina fonematasun hori arrazoitu eta frogatzeko, [s]-ri dagokionez behinik-behin, gauzak sakonago aztertu eta zehaztu beharko lirateke.

Izatez ahoskabeak diren hots hauen parean, badira (Z)-z eta (BN)-z ahoskabe horiekin kontrastatzen duten beste batzu, ez oso aspaldiko mailegutan, eta gainerako euskalkietan testuinguruzko aldaki baizik ez direnak. Bistan denez, [z], [ż], [ž] ahostunez ari gara. Ikus GAVEL (1929,48).

Ahosteko behar diren testuinguruak hauek dira: sudurkarien aurrean eta, orohar, kontsonante leherkari ahostunen aurrean. NAVARRO TOMAS-ek (1925,612-615), Gipuzkerarako, ahoskera zainduan igurzkari ahoskabea edo ez erabat ahostuna agertzen du, eta ahosteko joera haundiagoa bizkar-hobietakoan ikusten du, [s] hotsak ahostunaren aurrean ere eutsi egiten bait dio ahoskabetasunari hitz solteetan edo ahoskera bizian; bizkar-hobietakoa, [s], aldiz, beti ahosten da kasu horietan ere.

[ezbaiŷa], [ezbeąra]
[ezṇea], [bòẓnaka], [eźneduna]

Baita lotura sintaktikoan ere:

[ezɣaisąsu], [ustezbai]

Mihipunta-hobietakoari buruz txandaketa agertzen du:

[xesusbon] eta [xesuzbañn]

GAVEL (1936,5) honela azaltzen da (Z)-ri buruz (1):

> *"De même que l's le* ***z*** *apparaît fréquemment en souletin avec la prononciation sonore, qu'en d'autres dialectes il n'affecte que très exceptionnellement".*

Zein testuingurutan ahosten den seinalatzen du: sudurkarien aurrean, beste euskalkietan gertatzen den bezala; bokalen aurrean kanpo-sandhian, **ez úntsa;** eta "Toutefois, en composition, le z final reste sourd si le mot existe depuis une époque déjà ancienne".

> *"Z est également sonore quand il provient d'un z intervocalique roman sonore; la* ***z*** *sonore du béarnnais* ***arrazou*** *reste sonore dans le souletin* ***arrazú*** *«raison»".*

NAVARRO TOMAS-ek (1923,52)(B)-rako "s" eta "z" hasierakoak ahoskabe gertatzen direla esaten du. Baina bokalartean eta ahoskera bizian edo berdin laxoan ahostu egiten dira maiz, eta halaber kontsonante ahostunen aurrean.

Txistukari igurzkari ahostunekin gabiltzanez, euskaraz sabai-aurreko igurzkari ahostuna [ž], bokalarteko "*j-"-en errealizazioa dela (B)-ko itsasaldean esan behar da. Gertatzen da, ikusi dugun bezala, hizketa batzutan, bokal armoniaren ondorioz epentesi gisa sortzen denean ere.

NAVARRO TOMAS-ek (1923,54) Gernika-rako hau ematen du:

Ebakera ahoskabea [š]:
[iši], [išiḷik], [gaišoa]
[gaišotu], [éliši]
Ebakera ahostuna [ž]:
[ežo] edo [eižo], [xažo] edo [xaižo], [xažoži] edo [xaižosi]
Baina [maiyeša] [z]-ren ordez "y" leunaz.

Nafarroa-ko hizketa batzutan hots hauei buruz MITXELENA-k dio (1977,515):

"Se diría que en Cinco Villas y Baztán, etc., no puede uno fiarse de la calidad sorda sonora, de algunas consonantes, ya que parece haber [š] también por romance [ž]. Así, en Lecároz, junto a **lixue** 'colada', **xabona** 'jabón' determinados, hay también **taxutu** 'calculado'(imp.**taxu zazu,** en castellano "al taxu" 'a ojo de buen cubero') **aparaxu** 'herramienta', que parece corresponder a castellano **aparejo,** cf. en Aranaz **xandarma,** sobrenombre segun Holmer".

### 2.3.4.1.1. Neutralizazioak

(B)-n eta (G)-ko zenbait tokitan: [s] → [ś] (Ikus neutralizazio honi buruz, afrikarietan esandakoa).

Nafarroa-n Hg (GN)-n eta (R)-n, euskalki galduak egun,

beste aldaketa hau gertatzen zen: bizkar-hobietako igurzkaria [s] horztarteko igurzkaria [θ].

(Zar)-z bizkar-hobietako eta hortzarteko igurzkarien artean neutralizazioa gertatzen dela iduri arren, ez da horrela izaten, MITXELENA (1967,166):

> *"Por su efecto acústico /s/ no está muy lejos del español / θ/, no obstante, con un poco de atención se distingue perfectamente y su articulación no interdental, es muy otra".*

Mihipunta-hobietako igurzkariak, [s̻], eta afrikariak, [c̻], berriz, sabai-aurreko igurzkaria, [š], eta sabaiko afrikaria, [č] hotsen hurbileko ahoskerak dituztela dio, tinbre oso sabaikorra, beraz.

NAVARRO TOMAS-ek (1923,52) Gernika-ko hizketarako - Bizkai osorako balioko lukeena, bestalde- "i" bokalarekin edo "i" erdibokalarekin ukipenean euskarak orokorki mihipunta-hobietakoa "s" edo bizkar-hobietakoa "z", sabai-aurreko "x"-ra aldatzera jotzen duela seinalatzen du:

[eliš̻ɪ̯], [gǫiš̻etiḵ]
[aiš̻ɪ̯], [iṇǫiš̻].

Ez da hainbeste gertatzen bokala silabikoa denean: **izan > ixan, gizon > gixon, nax, nox, kerexa,** etabar.

Beste euskalki batzuk ere bustitzen dute xistukaria leherkariak jarraitzen badio:
**ga(i)xto, ge(i)xto**

MARTINET-ek (1981,62) Lapurtera-n gertatzen dena azaltzen du:

" /s/ et /s̻/ tendent à se confondre en [š] en Labourd notamment".

Hg (GN) eta (Aezk)-z bizkar-hobietako igurzkaria mihipunta-hobietako iguzkariaren alde neutraliza daiteke, baita azken posizioan gertatzen denean ere,instrumentalaren morfema deneean batipat: "negarres", "egurrez", etabar.

Bestalde, hasierako posizioko sabai-aurreko igurzkari ahoskabea etor daiteke:

– euskal jatorriko sabai-aurreko balio adierazkorra duen igurzkari batetik: **xuri.**

– erromaniko jatorriko sabai-aurreko igurzkari batetik: **xaboi.**

– *j- hotsaren jarraitzaile bezala, bilakabidean tarteko egoeran gelditu ziren hizketetatik: **xan, xin, xarri...**

– Latineko "j-" eta erromantzeko ahostunetatik, idatziz (e,i)-ren aurrean "g"-z eta bestela "y"-z azaltzen ziren hotsetatik: (R) **xa, xunto, xuntatu, xusto.**

Azkenez, (R)-n xistukaria gehi jodek eman du hori: zuek > ziek > xiek.

### 2.3.4.1.2. Eusketa

Hots hau hobekien gorde duten euskalkiak (BN), (L) eta (GN)-ren zati bat izan dira. (GN)-ren Gipuzkoa-ko azpi-euskalkia eta (G) bera, emaitzen aldetik, bat etorri dira kasu gehienetan. Hurbilkari sabaiko hotsa igurzkari belarea egin da baita mailegetan ere: **jan, jakin, xo, jostatu, jela.**

Barruko posizioan ere gauza bera: **perrejil, prejitu, taju.**
Baina euskarakoetan mantenitzen da: **gaxo, gizagaxo.**
Bestalde, sabaiko afrikaria, "tx", jatorri ezberdinetakoa izan daiteke, baina ez dator inoiz ***j** hotsetatik:

**xantu → txantu**
**sats, satsu → txatxu**

### 2.3.4.1.3. Ebakerak

Ip (GN)-z mantenitu ez ezik, era ezberdinetako ahoskerak gertatzen dira bizkar-hobietako igurzkariari dagokionez. Baztango eta Ultzamako "z"-ri buruz ahoskera berezia duela esan izan da, baina, egia esan, ahoskera berezi hori, beste euskalkiekin erkatuz berezia gertatzen dena, beste bailaretan ere entzun daiteke. Amado ALONSO-k (1923,58) horrela deskribatzen zuen "z baztanesa" deitzen zuen hori:

> *"... una fricación linguo-alveolar* ***redondeada,*** *seguida de otra fricación linguo-dental* ***alargada,*** *cuya impresión domina en el oído porque, además de ser más áspera, es la última. Creo poder añadir que la mayor tensión muscular de la lengua corresponde a la parte próxima a los dientes superiores. Ahora, pues, podremos definir este fonema como una articulación sorda, predorsal, fricativa, alvéolo-dental, de fricación redondeada en los alvéolos y alargada en los dientes".*

SALABURU-k (1984,250), aldiz, ebakera ezberdinak jasotzen ditu. Bata A. Alonsok jaso zuena bera, eta bestea, diatopikoki hedatuagoa eta bigunagoa bere ustetan:

> *"Beste zenbaitek, ordea, akustikoki desberdina zen z bat ahozkatzen zidaten, hitz berean eta gela berean, gainera. Bi kasutan aurkitu nuen anaia zaharrenak* ***z*** *biguna ebakitzen zuela (****z*** *arronta, nolabait esateko) eta gazteenak, berriz,* ***z*** *latza (AMADO ALONSOrena). Nere ustetan, lehen* ***z*** *hau (hau da, ez A. ALONSO-k deskribatzen duena, bestea baizik)*

*aise hedatuago dago Baztanen [...] **z** bigun hau ahozkatzeko, mihipunttak azpiko hortzak oso osoan (oietatik) jotzen ditu, egindako proba bereziek argi aski utzi zidaten bezala, beste mekanismo guztia berdin".*

P. Salaburu polimorfismo fonetikoa azaltzen ari da, alegia: hitz berean eta ingurune berdinean gertatzen diren fonema baten bi gertakizun desberdinak; baina, dirudienez, bi ahoskera horiek ez dira pertsona berarengan gertatzen Bizkar-hobietako "biguna" litzateke erabiliena, eta bestea, "latza", edo A. Alonso-k "áspera" deitzen duena, marjinala izango litzateke. Bestalde, "biguna"-k Navarro Tomas-ek Tolosa aldean jasotakoaren antz gehiago du, hortaz, Navarro Tomás-ek esango lukeen bezala "gipuzkoarragoa" litzatete Salaburu-k Baztango ebakera arrunterako ematen duena.

Bailaraz aldatuz, A. ALONSO-k (1923,58) Ultzamakoa ere deskribatzen du Baztangoarekin erkatuz, eta horrela dio:

*"La z del valle de la Ulzama aún presenta otro matiz interesante. Su articulación coincide con la que acabamos de describir, pero la lengua deshace antes la aproximación dental que la alveolar; y coincidiendo esto con el comienzo de la vuelta de las mandíbulas a su posición normal, queda al final tan sólo la fricación linguo-alveolar, y el oído cree percibir una z baztanesa en su primera mitad y guipuzcoana, es decir, vasca corriente, en su final".*

Guk egin dugun azterketan -gero mintzatuko gara akustikoa-z, aurkitu dugu bereizketarik ebakeran, ez hainbeste azpieuskalkien arauera, lurraldeen arauera baizik. Artikulaketa moduaren aldetik, eta horrela jaso dugu palatogrametan, denak ebaki dira bizkar-hobietako igurzkari ahoskabeak. Baina, gure ustez, gauza bat da bereziki desberdintzen dituena, kokotzaren mugimendua, hain zuzen. Baztango azpi-euskalkian, Oronotz-Mugairen eta Oieregi-n jaso dugun hotsaren artikulaketarako kokotza

aurrera eramaten zuten hotsaren ebakera bukatu arte, Ultzama-ko bailaran eta Beunza-n, aldiz, aurreratu bai, baina ez zuen irauten bukatu arte, lehenago egiten bait zuen buelta bere posiziora; horra, gure ustez, A. Alonso-ren bi denboratako bereizketa. Antzerakoa gertatzen zen Bortzirietakoan: Oronotz-Mugaire, Oieregi eta Erasun-en ez beste toki guztietan, kasu hauetan mihia hobietatik hurbilago gelditu arren eta igurzketa haundiagoa somatu arren. Azkenik, Basaburua-ko bailara eta Aldaz Erasun-ekin batera gelditzen dira, igurzkari arruntago bat ahoskatuz eta kokotza bere posizio normaletik hutsa mugituz. Azken finean, ahobarrunbean gertatzen da bereizketa nagusiena, kokotza mugituz haunditu egiten bait da eta soinuek eta igurzketek beste ebakera batzu hartzen bait dituzte. Ezpainei dagokienez, berriz, ez dugu batere ezberdintasunik jaso, denetan oso pasibo egoten bait dira, eta ezer mugitzen badira bokalaren eraginez izanen da.

Gainerako igurzkariei buruz ez dago ezer bereizirik esateko. Mihi-puntako igurzkariaren artikula puntua beste fonetistek jaso duten baino atzerago jaso dugu, hobien atzekaldean, alegia, eta sabai-aurreko igurzkariarekin daukan distantzia benetan oso murritza da, oso milimetro gutxikoa. Bi hots hauen arteko desberdintasun nagusia ez dago, esan ohi den bezala, hainbeste, gure ustez, artikula puntuan, moduan baizik. Mihi punta, bigarrenean, elementu pasiboa da eta, aldiz, mihiaren bizkarra da jartzen dena aho-sapaiaren ondoan igurzkaritasuna sortuz. Ezpainak ere, kasu honetan, apur bat mugitzen dira aireari bidea eginez bezala.

### 2.3.4.2. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

1. Bikoteak:
   sare - hiru sare
   zare - hiru zare
2. Distribuzioa:
   Hitz hasieran:

su - hiru su
zu
zeru - hiru zeru
sorgina - hiru sorgin
zuri - etxe zuri horrek

Hitz barruan:

aisa
esne - hiru litro esne
izan

3. Galera:

zozpal - zozpal asko
azazkala - hiru azazkal

4. Alternantziak:

ernatu
esan

### 2.3.4.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetiko-diatopikoa

**218A SARE - 218B HIRU SARE (332-333)**
**219A ZARE - 219B HIRU ZARE (334-335)**
**220A SU - 220B HIRU SU (336-337)**
**221 ZU (338)**

Bizkar-hobietako eta mihipuntako-hobietako igurzkarien artean gero eta eskualde haundiagoetan ageri den nahasketa ikusi ondoren, bi xistukari hauek ahal zen neurrian aztertu eta sistema barruan zein egoeratan dauden ikusteko gutxienezko bikoteetara jo genuen.

Aztertu ditugun lurraldeetan mantenitu egin dira bi hotsak, oposaketa gertatuz bien artean; bada salbuespenen bat, baina ez da fonetikoa, lexikoa baizik. "Sare" hitza mihipunta-hobietakoa bezala jaso dugu euskalki guztietan eta oposizioan sartzen da

"zari" formarekin: Bortzirietan, Erasun-en izan ezik; Ultzamako Goldaratz-en eta Baztango Aniz-en; Arraiotz-en "zaretoa", eta Amaiur eta Gartzain-en "buruzarea", neurri batean balio duten formak, "zare" lexema hor bait dago, eratorriaren eta konposatuaren osagai bezala. Gaineko leku eta azpi-euskalkitan "saskia" jaso da eta, horien artean, Erasun-go erabilera ere hori litzateke. Halere, forma horien parean, bai Zugarramurdi-n bai Arraiotz-en, "zare" ere erabiltzen dute.

"Zu" / "su"-ren arteko bikotetasuna mantenitzen da; beraz, erizpide hori ontzat hartuz gero, bizkar-hobietako eta mihipunta-hobietako hotsak pertinenteak direla esaten jarrai daiteke.

**222A ZERU - 222B HIRU ZERU ((339-340)**
**223A SORGINA - 223B HIRU SORGIN (341-342)**
**224A ZURI - 224B ETXE ZURI HORREK (343-344)**

Hitz hasierako banaketa ikusteko jarri diren hitz hauetan oso emaitza berdintsuak jaso ditugu eta ez dugu aldaketarik aurkitu.

**Zeru**-ren kasuan toki denetan bizkar-hobietako igurzkari ahoskabea ebaki dute. Eta aldaki bakarra Erasun-go "zeiru" hitza, aski harrigarria, bestalde, (BN)-ko Baigorri-n eta (R)-rako bakarrik dokumentatzen bait da AZKUE-ek dioenez (**Hizt.**, 427). Mihipunta-hobietako igurzkari ahoskabea ahoskatzen dute **sorgina** hitzean. Aldaz-en sabaikoa ageri da batere arrazoirik gabe, ez bait du balio adierazkorrik, eta ingurumenak ere ez dio laguntzen (2).

Ez da berdin gertatzen **zuri** hitzarekin. **Zuri / xuri** alternan tzia berdin aurkitzen da nola forma mugatuan hala mugagabean.

Bizkar-hobietako igurzkari ahoskabea honako leku hauek dute: Bortzirietako azpi-euskalkian, Sunbilla, Oronoz-Mugaire, Donamaria eta Erasun-en; Arakil-goan, Aldaz-en; Ultzamakoan toki guztietan, Goldaratz-en izan ezik; Baztangoan, azkenik, Arraiotz eta Gartzain-en. Falta diren beste toki guztietan sabaiko igurzkari ahoskabea ebaki zuten.

Bustidura mota honek bazuen garai batean, dudarik gabe, balio adierazkorrik, egun lexikalizatua gelditu bada ere. "Xuri" eskuarki erabiltzen den tokietan "zuri"-k adierazkortasun berezia hartu ohi du, konnotazioa bereziz, "arpegia pareta baino zuriagoa", eta erabili ere distribuzio batekin erabiltzen da.

Adierazkorra da emakumeen hizketan bizkar-hobietakoa sabaikari izatera aldatzen denean: "xakur" (265-266), "xerri" (22-23), ikus goian, eta horrelako hitzetan. Baita "zoratu" (56) "xoratu" kasuan ere.

**225 AISA (345)**
**226A ESNE - 226B HIRU LITRO ESNE (246-247)**

Lehen ikusi dugu hitz barruko distribuzioak ere garrantzia duela, batez ere mihipunta-hobietako igurzkari ahostunak aldaketak jasan ditzakeelako ingurumen berezietan.

Lehenbizi "i" bokalaren aurrean, "aisa" bokal honek sortzen duen eraginagatik hurrengo hotsa bustitzeko. Edo, aldiz, zenbait tokitan, hitz horretan hain zuzen, ahostun egiteko bidea duelako.

Guk mihipunta-hobietakoa jaso dugu toki guztietan eta, entzumen hutsez behinik-behin, ez zaigu iruditu ahostuna egiten denik.

Bestelakoa da "esne"-ren kasua, sortzen duen ahostun /ahoskabearen arteko zalantzagatik, goian ikusi dugun bezala. MITXELENA-k (3) (1977,280) xistukari ahostunez honela dio:

> *"En la mayor parte de los dialectos, las sibilantes fricativas sonoras no son más que variantes de los fonemas /s/ y /ś/, precisamente ante consonante sonora:* ***esne*** *o* ***ezne*** *'leche', que se puede pronunciar [ezne] o [eźne]".*

GAVEL-ek (1920, 161-62) dio:

> *"Chez de nombreux Basques, l's devient sonore quand elle précède la lettre* ***l*** *ou une nasale. Il est d'ailleurs très rare qu'elle soit suivie d'une* ***l*** *ou d'une* ***m,*** *du moins dans le corps de mots. Mais il lui arrive plus fréquemment de précéder une* ***n,*** *par exemple dans* ***esne*** *= "lait" et* ***gasna*** *= "fromage".*

Guk ere ahostun bezala traskribatu dugu Zugarramurdi-koa, Bortzirietako azpi-euskalkikoa, Ituren-goa izan ezik, Ultzamakoan Auza eta Beunza-koa eta Baztangoan Arraiotz, Gartzain eta Anizkoa. Eta ahoskabe bezala Bortzirietako Ituren-goa eta Ultzamako Arraras, Beramendi eta Goldaratz-koa.

Horiekin batera "esene" forma ere jaso dugu Arakil-go Aldaz-en, Ultzama-ko Larraintzar, Baztango Amaiur-en eta Ultzamako Goldaratz-ko beste lekukoengan ere. MITXELENA-k (1977,163) berandu sortutako aldaki bezala hartzen du bokal epentetiko batez sortua den forma hau. Ziurrenez "sn" taldea txuliatzeko sortua. Agian LAFON-ek (1959,6) ematen duen bilakabidea *ezende > *ezdene > *eznene > *eznee > * ezne ez da toki guztietan berdin gertatzen. Agian ez zen "ezen-" jatorrizko forma. Ikus, honi buruz, ZYTSAR (1986,120). Aldaki horren isoglosak Azpirotz, Huitzi, Urdiain, Bakaikoa eta Iturmendi-n kokatu beharko lirateke "Erizkizundi Irukoitzaren" arauera, Euskera (1928), 9, 111. or.

Esan izan da eskuarki, xistukaria ahostun bihurtzen dela kontsonante sudurkariaren edo ahostun baten aurrean doanean, aisago bizkar-hobietako igurzkari ahoskabea mihipunta-hobietako igurzkari ahoskabea baino. Horrelako talde kontsonantikoa lexemaren barnean aurkitzea ez da izaten erraza (4). Bai, aldiz, kanpo-sandhietan: "ez dut" (239), "ez gara" (240), "ez banaiz" (241). Egia esan, guk kasuren batean jaso dugu ahostun bezala, hala nola Zugarramurdi-n eta Larraintzar-en "ez dut" forman, edo Auza eta Beunza-n ere. Eta Auza eta Zugarramurdi-n "ez gara" ezezko adizkian. Beste kasu solteren bat ere aipa genezake, baina denak ere aski irlatuak eta asistematikoak dira eta ez dago, jaso ditugun materialetik behintzat, goiko legea inondik ere betetzen dela esaterik. Bestalde, gertaera hau nahiko aurkakoa agertzen da xistukarien ondorengo leherkari ahostunak ahoskabeak egiten direla dioen legearekin, "eztut", "ezkara", alegia.

**227 IZAN (348)**

Aztertu dugun lurraldean, "i" bokalikoaren ondoren datorren xistukaria, bizkar-hobietako igurzkaria, ez da bustitzen edo sabaikari bihurtzen, (B)-z gertatzezn den bezala. Horren eredu ona "izan" aditz partizipioa dugu, denetan jatorrizko hotsez jaso bait dugu.

Bustidurarik gabe jaso genituen **eliza** (125) eta **elizara** (127), **ihize** (10), **gizon** (47), **gizonari** (14), **bizi** (227), **garizuma** (81), azken hitz honetan bokal postonikoaren jausketaren ondorioz sortzen den talde kontsonantikoan xistukariak ahostun egiteko aukera badu ere, [garízma], Baztango Arraiotz eta Aniz-en. Baina badira salbuespen batzu ere. **Izter** (30) lexema mihipunta-hobietako igurzkaria ahoskatzen da Ultzamako Goldaratz-en, eta sabaikoa, Baztango Aniz-en, Bortzirietako Sunbilla-n eta Ultzamako

Larraintzar-en. Erasun-ek, berriz, txandakatu egiten ditu forma mugatuan. Mugagabean Bortzirietako euskalkian forma bustia zabaltzen da Oieregi-ra eta Oronotz-Mugaire-ko B lekukoaren ahoskerara; Sunbilla-k, aldiz, ez du bustitzen eta Ultzamako Goldaratz-en formak trukatu egiten dira emaitzetan; A lekukoak, forma mugatuan, ez du bustidurarik egiten eta bai, ordea, B lekukoak. Lexema honek sortzen dituen txandaketa hauek balio adierazkorraren eraginez gertatzen direla, hautagarriak direlako, uste dugu.

Ez da bustitzen, aztertu dugun Nafarroa-ko lurralde honetan, xistukaria "i" erdibokalaren ondoren doanean ere: ikus **goiz** eta bere jarraikoak (134), (135) eta (136).


## 228A ZOZPAL - 228B ZOZPAL ASKO (349-350)


Xistukaria inoiz galdu egiten da hasierako posizioan, baina ez da garbi ageri zergatik, kasu bakoitzerako arrazoirik bilatzen bada ere. Artikuluaren deglutinazioagatik esan ohi da gertatu dela batzutan: "apo" < "zapo", erdararen interferentzia tartean delarik, jakina. Kasu gehienetan erabiltzen den arrazoia, eta arrazoi normalena dirudiena, bestalde, disimilaketa da. Horrela dirudi gertatu dela "zozpal" / "ozpal" (B), "ezpal" beste euskalkietan. Edo "zitoitz" (BN), (L) / "itoitz" beste euskalkietan.

Aztertu dugun lurraldean ere disimilaketa gertatu dela dirudi "zozpal" lexeman, toki guztietan "ezpala" egiten bait da.

Ez ditugu, berriz, hain emaitza bateratuak "azazkala" (351) hitzean. Hasierako posizioan ez egon arren xistukaria, jarraian doazen xistukarien disimilaketa ikusteko egokia da, silaba berean bi bizkar-hobietako igurzkari gertatzen bait dira. Bi xistukariak

TXANDAKETAK



ahoskatzen dira, batere disimilaketarik gabe, Baztango azpieuskalkian, Bortzirietakoan, Arantza eta Erasun kanpoan geldituz, eta Ultzamakoan, Auza-n izan ezik.

Besteetan ere ez da xistukarien disimilaketarik gertatzen, baina bai metatesia eta bokalen disimilaketa, xistukariak silaba ezberdinetan suertatzen direlarik bidebatez: "o"-ren aldeko disimilaketa Aldaz-en "azkozal", eta "e"-ren aldekoa Erasun-go azkenengo emaitza, "ezkazal". Disimilaketa mota honetan, Zugarramurdi-ko B lekukoaren formara hurbiltzen da, honek metatesirik gabe egiten badu ere: "ezazkal".

Azaldu dugun bilakabideak, jatorrizko forma bezala "azazkal" hartzen baldin bada balio dezake, baina bestelakoa litzateke bilakabidea bigarren mailako forma hartuko bagenu zaharrago bezala, **azkazal** < atz + azal, alegia. Kasu honetan trukaketa alderantzizkoa litzateke eta disimilaziorako baino hurbilketarako joera haundiagoa legoke.

**230 ERNATU (353)**
**231 ESAN (354)**

Kasu berezia xistukariekin gertatzen den permutazioa da, xistukaria dardarkari izatera aldatzea. Permutazio hau kontsonante ahostunaren aurrean gertatzen da. Posizio honetan euskalki denetan xistukaria ahostua ahoskatzen da normalki, eta gero [z] edo [z]-tik [r]-rako pasaerak ez du eragozpen haundirik:

(L) **irla,** (G), (B) **arnasa,** (GN), (G) **asnasa;**

(GN), (G), (B) Markina **esnatu,** beste euskalkietan **ernatu.**

Zenbait kasu ez dira hain ulergarri, euskaraz errotazismoa gertatu izan den arren: "intxaur", "sagar", "intxausti", "sagasti" eta "erran", "esan",ez delarik esaten ahal zein den zaharragoa.

Fonetika sintaktikoan ere gertatzen dira mota honetako permutazioak. Oroit gaitezen goian ikusitako "ez jauna", "etxauna" (Aezk), Hg (GN) edo Bizkaieraz gertatzen den "ez zakiat", "etxakiat", "ez jaku", "etxaku", etabar.

NAVARRO TOMAS-ek (1925,615) batu zuenez, Gipuzkerako ahoskeran "da" aditzarekin alderantzizko asimilaketa ahoskabetasunarekin batera gertatzen da, eta gertaera hau hizketa denetara heda daiteke. "Ez gaitzazu"-rekin, berriz, xistukaria gehienbat ahoskabea gertatu bada ere, leherkariak beti eutsi dio ahostasunari.

Permutazio kasutarako "ernatu" / "esnatu" hitza hautatu genuen, baina ez dugu "esnatu" jaso, "ernatu" / "iratzarri" alternantzia baizik. Lehenengoa, Zugarramurdi-n eta Bortzirietako azpi-euskaltietako herrietan, Oronotz-Mugaire kanpoan geldituz. Hauetan eta gainerako leku guztietan, esan bezala, **iratzarri** eta honen ondokoak -armonia bokalikoaren eta bokalarteko dardarkari bigunaren ausketaren ondorioz gertatutakoak- erabiltzen dira.

"Erran" eta "esan" kasuan, berriz, biak erabiltzen dira aztertu dugun lurraldean. Isoglosa zehatza da: **erran** Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Bortzirietakoan, Erasun-en izan ezik, eta Ultzamakoan, Auza, Larraintzar eta Beunza-n. Isoglosaren beste aldetik, **esan** formarekin, Erasun-en, Bortzirietan, Aldaz eta Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en, azken hauek Ultzama-ko azpi-euskalkikoak. Jaso dugun isoglosa bat dator SANCHEZ CARRION ("TXEPETX")-ek (1974,261) jaso zuenarekin.

Azkenik, maiztasuna eta distribuzioa kontutan hartuz, [s] eta [ś]-ren estatusa nahiko argi ageri dela esango nuke; baina ez dago hain garbi [s̬]-ren kasuan. Hots hau fonema den ala ez jakin beharko litzateke; zein presentziarekin agertu den, benetako auto-

nomiaz ala aldaki bezala, eta aldaki bezala agertu bada, adierazkorra ala kontestuala izan den; eta aldakia izan bada, aldaki bezala jarraitu duen sistema barruan; eta azkenik, gaurko sisteman balio funtzionalik ote duen ikusi. Hauei ere jatorrizko jod hotsetik sabai-aurreko igurzkari ahoskabea bilakatu dena eta zenbait euskalkietan horrela gelditu dena erantsi beharko genieke. Bistan da lan sakonago eta zehatzagoaren premian gelditzen dela hots hau.

### 2.3.4.4. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Xistukari igurzkariei buruz egin dugun azterketatik atera daitekeenez, bizkar-hobietako eta mihipunta-hobietako igurzkarien arteko oposaketa ongi gordetzen da. Ez dugu inon oposaketa horren galeraren aztarnarik ere aurkitu. Ongi bereizten dira, beraz, eta ebakeraren aldetik ez zen zalantza txikienik ere. Ez da, beraz, desfonologizaziorik gertatzen, eta hizketa hauetan hiru motatako igurzkari xistukariak mantenitzen dira, gure ustez, fonema bezala har daitezkeelarik hirurak.

Ez dugu mihipunta-hobietako igurzkariaren bustidurarik aurkitu, ez adierazkorrik ez automatikorik. Bai, berriz, bizkar-hobietakoan. Honetan, bi motatako bustidura aurkitu dugu. Bata, adierazkorra, baina lexikalizatua aurkitu duguna, "xuri"-ren kasuan, esaterako. Markatu gabeko termino bezala gelditu da eta ez du batere konnotaziorik. Alderantziz, bizkar-hobietakoa, da kontrastez, expresibitatea hartu duena eta, egun, adierazkortasuna lortzeko erabiltzen dena. Bizkaieraz eta Gipuzkeraz ere gauza bera gertatu da kasu askotan, sabiko afrikaria delarik hots orokorra eta lexikalizatua, nolabait esateko; eta kasu honetan ere bilakabide honekin fonetikan balio adierazkorra azaltzeko sortzen den hutsunea jatorrizko termino eta hots markatugabeak hartzen du. Guk aztertu dugun lurraldean sabaiko igurzkaria da lexikalizatua -inoiz

baita afrikaria ere-, baina ez da sistematikoa, eta kasu askotan, apika gehienetan, bere indar berezia gordetzen du.

Beste bustidura mota automatikoa litzateke, sabaiko bokal baten ondoren doanean eta haren eraginez sortzen dena. Bustidura honek, automatikoa izan arren balio berezia du, Nafarroa-ko lurralde hauetan behintzat, adierazkortasun bat ere ba duelako. Gure ustez, sabaiko igurzkariak balio adierazkorra duenez berez kutsatzen du adierazkortasunez edozein hitz. Bestela esan, bustidura automatikoan balio expresiboa ez da bilatua, berez sorturikoa baizik, eta gainera, bustidurarik gabeko forma ere mantenitzen denez horren parean, kontrastea hobeto agertzen da. Tarteko adierazkortasuna dela esango genuke, bigarren mailakoa eta berezia.

Bustidura mota hau guk silaba trabatuan aurkitu dugu "i+z-" taldean, eta ez da gertatzen silaba ezberdinetan: esaterako, "ixter", baina, "izan", "gizon", "bizi" etabar. Dena den, kasu apur eta ilunsko hauetatik ez dago ondorio definitiborik ateratzerik; datu zehatzagoak eta ugariagoak behar lirateke erabateko emaitzarik izan nahi bada.

Emaitza diatopikoen aldetik ez dago deus nabarmenik gauzarik garrantzitsuenetan, bat egiten bait dute denek, sistema apurtu gabe gordez, jakina. Emaitza berdinak hasierako posizioko igurzkariaren galerari dagokionez ere, denek galdu bait dute jaso dugun kasu bakarrean. Gainerakoetan zer gutxiko aldaketak, lexikoak izan bait dira batez ere.

Tinkotasunarekin gordetzen den isoglosari, "erran" eta "esan"-en alternantzian ere eusten zaio, Aldaz, Erasun eta Basaburua Haundian aztertu diren herrietan izan ezik, hauek Gipuzkeraren alderantz jotzen dute eta.

### 2.3.4.5. Analisi akustikoa

Berez aberatsa den xistukarien euskal sistema, are aberatsago gertatzen da analisi akustiko bitartean sortzen diren emaitzak ikusten direnean, hain dira ugariak eta, batzutan, bereziak ere. Edonola ere, analisi akustiko honek hurbilketa baizik ez du izan nahi, ez bait dugu benetako lan sistematikoa osatu. Hori horrela izanik, ematen ditugun maiztasunen eta iraupenen zenbakiak ere orokorrak dira, eta ez ditugu ingurunearen arauera banan-banan ematen.

Bizkar-hobietako igurzkari ahoskabeak ditu aldaketarik haundienak, alboan daraman bokalak eragiten bait dio maiztasun haundiagorako edo txikiagorako; eta bokal ezpainkarituekin, hauek aho-barrunbea zabaldu egiten dutenez, maiztasunak apalagoak gertatzen dira.

Orohar, guk jaso ditugun bizkar-hobietakoek ahoskera aurreratua aurkezten dute, hobietakoa alegia, eta hortzetara hurbiltzeko joera apur bat ere agertzen dute batzutan, ez badira inoiz hortzetakoak gertatzen ere, kasu bakarren baten izan ezik. Honen eragina maiztasunetan ageri da, maiztasun altuak ematen bait ditu, eta espektroan ere gora egiteko joera bapatean ikusten bait da. Gure datuen arauera, maiztasunen emaitza bateratua 3.567 Hz-takoa da. Datu hau ZENBAIT-ek (1989,58) Gipuzkeraren Nafarroa-ko azpi-euskalkirako ematen dituztenekin erkatuz, aski antzerakoak agertzen zaizkigu gureak ere, 2.877 Hz. bokal aurrerako eta 3.648 Hz. bokal ondorako ematen bait dituzte. Iraupenaren aldetik aldaketak aurkitu ditugu hasierako posizioan eta azkenean luzeagoak egiten dira; bokal artean edo kontsonantearekin joaten denean laburragoak. Hala ere, bataz bestekoa 108 msg-takoa izan da.

Baztango eta inguruetako bizkar-hobietako igurzkaria aztertzeko gogo bizia genuen, benetako aldaketarik agertzen ote

zen ikusteko. Egia esan, ez dugu aparteko desberdintasunik jaso, baina bai maiztasunak goratzeko joera, eta horrek hotsa aurreratuagoa dela aditzera ematen du; eta ez da karrankaria, bestalde, matea baizik. Edozein modutan, hots hori jaso ditugun aldaki guztietarako mate bezala definitu dugu, nahiz eta, momentu eta kasu batzutan, karrankaria izateko joera ere agertzen duen.

Horrenbestez, Baztango eta inguruetako hizketetako bizkar-hobietako igurzkaria ez dela ezberdina esango genuke; agian graduzko bereizketasunen bat edo izanen luke. Ikus adibide moduan azaltzen ditugun sonogramak: lehenengo Arraiotz-ek ebaki duena (8.1) eta horren parean, Beramendi-koarena (8.2) "zaina" hitzean; eta gero "zu" hitzean Zugarramurdi-k ematen duena, "u" bokalarekin joan arren (8.3).

Mihipunta-hobietako igurzkariak ere gertaera ugari ditu, denak artikula guneari dagozkionak, leku berean atzerago edo aurrerago ebaki daitekeelako, eta maiztasunak gorago, eta alderantziz. Jaso ditugun bataz-besteko zenbakietan maiztasunak 2.173 Hz-takoak atera zaizkigu, eta kasu honetan ere ZENBAITEK Nafarroan egiten den Gipuzkerako euskalkian ortografiazko "z"-rentzat jaso zituzten datuekin bat datoz 2.125 Hz. ematen bait dituzte. Iraupenaren aldetik bizkar-hobietakoari egin diogun komentario berak balio du hemen ere, kate mintzatuan hartzen duen tokiaren arauera gertatzen bait da. Dena den, bataz-besteko iraupena 112 msg-takoa da. Ikus, adibide moduan, Sunbilla-ko "saria" (8.4) eta Zugarramurdi-ko "suba" (8.5), bata "a" bokalarekin ingurune neutroan, eta bestea "u" ezpainkarituarekin, biak erkagarri gerta daitezen.

Hitz eginda gaude inguruko kontsonante ahostunen eraginaz, ahoskabea den hots igurzkari hau ahostun bihurtzen dutelarik. Kontsonante sudurkariaren aurrean ahostuna gertatzen zela esaten genuen, eta berdin beste kontsonante ahostunen aurrean ere. Analisi akustikoan ez dugu gertakizun tinkorik jaso, denetarikoak baizik. Sudurkariarekin erabat ahostuna ere jaso dugu, baina maizago ahostua eta ez osoro, lehenengo momentua baino ez, errealizazio horien

parean ahoskabearena ere jaso dugu eta ez hain gutxitan. Ikus honen adibidea Zugarramurdi-ko lekukoaren ahoskeran (8.6).

Kanpo-sandhian gertatzen denean ere ahostuna egiten dela esaten genuen. Ikus izatez bizkar-hobietako igurzkaria Arraraseko lekukoak ebaki duen "ez gara" sekuentzia, xistukaria erabat ahostuna ahoskatzen duelarik (8.7).

Mihipunta-hobietako igurzkariarekin bukatzeko, behin baino gehiagotan jaso dugun "s" likido edo silabikoaren exenplu bat ekarri nahi dugu adierazgarri bezala. Gehienetan oso laburra gertatzen da xistukari aurrean doan "e" bokala, baina bokalik gabe ere ahoskatzera iristen da batzutan, bai "esnea" hitzean, bai ingurune berdineko beste hitzetan ere, "esnatu"-ren kasuan esaterako, betiere xistukaria kontsonante baten aurrean doanean. Ikus Mugaire-ko lekukoak ebakitzen duen "esnea" hitzaren sonograma, kasu honetan, mihipunta-hobietakoa sabaikatu egin delarik (8.8).

Azkenik, sail honekin bukatzeko, sabai-aurreko igurzkari ahoskabea gelditzen zaigu. Ez da oso ugaria, baina ez hain urria ere; Baztan eta Bortzirieta azpi-euskalkietan gertatzen da batez ere, eta, gutxiagotan bada ere, Ultzama-ko bailaran ere bai.

Hitz hasieran eta hitz barruan aurkitu dugu, inoiz ez hitz bukaeran. Ebakera atzeratzeko joera aurkitu dugu, maiztasunaren espektroak goruntz egiten duelarik; halere, bataz-besteko maiztasuna 1.660 Hz-takoa izan da. Batzutan, hitz hasieran, igurzkaria entzun izan dugu, baina gero leherkaritasunaren marka agertu da, normala bestalde, hasierako posizioak berak sortzen bait du. Beste batzutan, berriz, alderantzizko jokabidea gertatu da, afrikariaren hotsa entzun eta gero igurzkari hutsa agertu sonograman. Iraupenaren aldetik, beste kideak baino luzeagoa jaso dugu, bataz beste 124 msg-tako iraupenez.

Adibide moduan Aniz-ko lekukoak ebakitzen duen "xoria" azaltzen dugu, ikus (8.9). Nahiko erlaxatua agertu arren hitz osoaren ahoskera, xistukariaren maiztasuna nabarmentzen da berezi-ki, eta karrankaria eta trinkoa dela ondo agertzen da.

Sail honetan igurzkari ahostunez hitz egin beharko litzateke, baina horiek, jod hotsa aztertu genuenean azaldu genituenez, ez ditugu orain aipatuko; izan ere, jodaren aldaki kontestual bezala gertatzen bait dira. Hemen, berriz, igurzkari ahoskabeak ez dira erabat ahostun bihurtzen, ahostu egiten dira, gehien ere, inguru-nearen arauera ikusi den bezala.


### 2.3.5. Aspiraketa

Igurzkarien atal honekin ezin izango genuke behar bezala amaitu Zugarramurdi-ko B lekukoarengan jaso dugun aspiraketa azaldu gabe. Galdekizuna traskribatu ondoren eta sonogramak ikusiz gero, honako inguruneetan aurkitu genuen aspiraketa: "etxe zaharra", "haul dago", "eho", "artoa eho", "mutiko hauk", "iru kilo mahats", baina "maatsa", "iru bihotz", -inoiz baita "hiu" ere-, "nehor ere", "laharra". Kasu hauek ziurrak dira, eta beste batzu aspiraketaren eta belare igurzkariaren artean gertatzen dira; azken hauek alde batera utzi ditugu. Belare igurzkariak baino ubularrak gehiago direla eta espektroan ere horrela agertzen dire-la esango genuke.

Maiztasunak nahiko behean aurkitu ditugu, bataz-beste 1330 Hz. inguruan ematen dute, iraupenak 96 msg-takoak. Matea gertatu da kasu guztietan eta jarraikorra, lodia eta trinkoa. Hitz hasieran ahoskabea, eta hitz barruan, bokal artean, ahostuna. Aipagarria da aldameneko bokalen formakinetan sortzen duen zarata edo turbulentzia, F2 eta F3 formakinetan batez ere. Ikus, adibide gisa, hasierako posizioko ahoskabea "haul" itzean (9.1), eta hitz barruan, bokal artean, ahostuna "laharra" hitzean (9.2).

Dena den, fenomeno kuriosoa izan da Zugarramurdi-ko aspiraketarena. Beste leku batean esaten genuen bezala, BONA-PARTE-k **Le verbe basque en tableaux** lanean (1869, XV., 3. nota), Zugarramurdi-n eta Alkerdi-n aspiraketa gelditzen zela


seinalatzen zuen. Egun, aldiz, guk lekuko honengan bakarrik jaso dugu aspiraketa, eta gordetzen badu ez dago dudarik duen adinagatik dela. Jaso ditugun kasuak ere garbi erakusten dute aspiraketak ez duela finkotasunik, eta tokiz ere alda daitekeela: "mahats / maatsa", "iru / hiu", "haul" eta beste batzu. Aspiraketaren ordez belare igurzkari ahoskabea gelditu da zenbait kasutan, esaterako "axoa" eginez. B lekukoak, ordea, aspiraketa ez duenean egiten, galdu egin du hots horren arrastoa Lapurteraz gertatu den bezala; aspiraketaren ordez ez du ezer ahoskatzen, kasu bakanen batzutan izan ezik: "egaztuna", "oge", baina baina "oea", "oetik"; garai baten ondarreko lekukoa dela esan behar, beraz.





(8.1)





(8.2)




(8.3) s ˈu:




(8.4) ˈs ə r ˈi ˋə




(8.5)





(8.6)




e z y á r a e mé n y· o à k

(8·7)




S, n í a


(8·8)




(8.9)




(9.1)




(9.2)

# OHARRAK

(1) Zubererako xistukariei buruz LARRASQUET-ek (1934) egiten duen azterketa fonetikoan, mihipunta-hobietako hotsak gertaera kakuminala duela esaten du.

(2) Maila lexikoaren aldetik Auza-n balio bereziarekin jaso genuen. Gizonari, eta ez emakumeari, ematen zaio izen hau: gizon langileari lanean eten gabe aritzen denari esaten omen zaio "sorgiña".

(3) MITXELENA-k (1977,163) azaltzen du honen problematika eta jatorria, "zn" taldea oso berezia delako hitz zaharren artean. Eritzi berdinekoa zen LAFON ere (1959,3-5).

(4) Gazta (44): Zugarramurdi-n, Etxalar-en eta Baztango azpi-euskalki osoan "gasna" esaten dute eta guk xistukari ahostunez traskribatu dugu.

## 2.4. SUDURKARIAK

### 2.4.1. Definizioak:

/m/ fonema: Artikulatorioa: sudurkaria, ezpainetakoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, lodia, ez zorrotza, sudurkaria, ahostuna, jarraikorra.

/n/ : Artikulatorioa: sudurkaria, hobietakoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, ez zorrotza, ez lodia, sudurkaria, ahostuna, jarraikorra.

/n'/ : Artikulatorioa: sudurkaria, sabaikoa, ahostuna.
Akustikoa: ez bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, zorrotza, ez lodia, sudurkaria, ahostuna, jarraikorra.

Euskalki guztiek hiru kontsonante sudurkari dauzkate: /m/, /n/ eta /n'/. Alabaina, heuren arteko oposaketa ez da beti gertatzen, m / n artekoa ingurumen hauetan izaten da: bokal aurrean, hitz hasieran edo hitz barruan gertatzen denean. Sudurkari hobietakoa egoera inplosiboan dagoenean hurrengo kontsonantearen artikula puntua hartzen du.

### 2.4.2. /m/ fonema:

#### 2.4.2.1. Gertakizun fonetikoak

##### 2.4.2.1.1. Banaketa

Biezpainetako fonema honek /b/ fonemarekin duen desberdintasun bakarra sudurkaritasunean datza. Ahozko kontsonanteak ebakitzean sabai bigunak itsi egiten du sudurrerako bidea; sudur-

karien kasuan, berriz, zabalik uzten du, eta airea sudurretik eta ahotik pasatzen da. Ahotik doan aireak "m"-ren kasuan ezpainetan aurkitzen du pasabideko hersketa; sudurretik doanak, berriz, ez du batere eragozpenik aurkitzen eta horregatik da jarraikorra.

- Azken posizioan ez da agertzen [albun].
- Hasierako posizioan eskuarki agertzen da: [míru], [mákil] (1).
- Hobietako sudurkaria biezpainkari batez jarraiturik doanean bigarren mailako biezpainkaria sor daiteke: [arcạ̀imbiskó̍ra].

### 2.4.2.1.2. Maiztasuna

MITXELENA-k (1977,267 eta hur.) uste du, biezpainetako sudurkaria gaur egun euskaran hots arrunta bada ere, aintzinako sistema kontsonantikoan ez zela izanen fonema hori. Garai zaharreko sistema horretan /m / erako fonemaren bat onartzen du, gero /m/ fonema bilakatuko zena. Teoria hori akitanozko inskripzioetako "sembe", gaurko "seme", gisako formetan oinarritzen da. Gertaera diakronikoetan sartu gabe, ekarri nahi dugu MARTINETek (1970,387) dioena:

> *"Vittorio Bertoldi a recueilli sur le pourtour de la Méditerranée un nombre considérable de cas d'alternance m/b, presque toujours à l'initiale. Cette alternance suggère l'existence, en vieil-euskarien et de façon générale dans une aire méditerranéenne ancienne, d'un phonème d'articulation complese /m /, une nasale dans laquelle le relèvement du voile de palais précède le relâchement de l'occlusion labiale".*

Edozein modutan, gertaera diakronikoetan oinarrituz, ez da batere zehatza sudurkari biezpainetako hots horren estatusa. AZKUE-k (1969-2,2) berak morfologian agertzen diren kasu bakarrak **-men, mendi, -mendu** atzizkiak direla dio. Aurrizki baten ere

agertzen da **ma-":** Leizarraga-k "gur", "gurtu" partizipioa, (GN)-z "kurtu", eta honen ondorioz "makur","makurtu".

### 2.4.2.1.3.Txandaketak

Asimilaketa eta disimilaketaren ondorioz sortzen diren txandaketa nagusiak hauek lirateke:

• Hitz zaharretan: *bini > mi(h)i, miñ, mihi

*bene > me(h)e, méhe

Ageriko arrazoirik gabe, non eta ez den arrazoi diakronikoetan oinarritzen, zenbait hitzetan ere: "bakar", "makar", "bezpera", "mezpera", ibeni / imeni.

• Ondorengo "n" sudurkariaren asimilaketaren ondorioz: ***eoan** adizkiaren faktitiboan, "eraman", (Zar) "erman", (B) "eroan"; (B), (G), (GN), (L), (BN) "amen"- "(h)emen", "(h)emen", "(Z) "hében", (R) "keben".

• Biezpainkari sudurkaria zero eta xistukariarekin txandakatzen da: ere: (GN), (G) "mospel", (GN) "nospel", "(GN), (G), (B) "ozpel", (BN), (L) "uspel", lp (GN) "suspel".

• Arrazoi berdinengatik, asimilaketa eta disimilaketa, alegia, biezpainetako sudurkaria beste ahokari diren "b" eta "p" biezpainetakoekin ere txandaka daiteke: "armin", (B) "arbin", eta "arpin"; "atzapar", "(h)aztapar", "atzamar".

### 2.4.2.2. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

1. Distribuzioa:
    - Hitz hasieran:
        merke
        makila - hiru makil
        makar - hiru makar
        mospel - hiru mospel
        mezpera - mezperetara
    - Hitz barruan:
        eman
        hemen
        atzamar - hiru atzamar

2. Txandaketak, ikus goikoak.

### 2.4.2.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetikoa eta geografikoa

**232 MERKE (355)**
**233A MAKILA - 233B HIRU MAKIL (356-357)**
**234A MAKAR - 234B HIRU MAKAR (358-359)**

Hasierako ezpainetako sudurkaria jasotzeko jarritako lexema hauetan sudurkaria mantenitu egiten da. Ez da batere aldaketarik jaso; "makar" hitzean ere, beste toki batzutan "bekar formarekin alternatzen duena hain zuzen, gure emaitzetan sudurkariak ez du aldaketarik izan; Ituren, Sunbilla eta Arantza-n, Bortzirietako azpi-euskalkikoak denak, jaso badugu ere "bekar" aldakia beste lekuko batzuengan.

## 236A MOSPEL - 236B HIRU MOSPEL (361-362)

Hitz hasierako sudurkari hau gorde arren, galdu ere egin daiteke, zero eta biezpaineko sudurkariak, distribuzio geografikoz, txandakatzen dutelarik. Esaterako, "mospel" hitzean, arestian ikusi bezala.

Aztertu dugun lurraldean erantzunak aldatu egiten dira tokien arauera. Ultzama-ko Auza eta Larraintzar-en hitza galdua dute eta "sabañonak" eta "sabajonak" erantzuten ziguten normalean, norbaitek "potroak" eman baldin bazuen ere. "Mandokoak" hitza Beramendi-n jaso genuen, baina ez zen toki bakarra izan, beste tokiren bateko hirugarren lekukoak ere erantzun berdina eman bait zuen. Gainerako guztietan, salbuespenak kanpo, "mospel" eta honen ondokoak jaso ziren.


"Mospelak" eta sudurkariaren eraginez, bokala grado batean isten delarik, "muspelak" jaso dugu: Baztango azpi-euskalkian, Bortzirietakoan, hemen Etxalar, Arantza eta Erasun kanpoan geldituz, eta Ultzamako azpi-euskalkian Beunza-n.


Sudurkariaren aldaketa, xistukariarekin asimilatuz, "suspelak", Etxalar-en A lekukoak, eta hirugarrenak ere bai, eta "muspela" bigarrenak erantzun zuen. Txandaketa bera Gartzaingo A lekukoak forma mugatuaren eta mugagabekoaren artean agertzen du.

Sudurkariaren erabateko galera, "ospela" ebakiz, eta honen aldakia den "uspelak", Zugarramurdi-n, Bortzirietako Arantza eta Erasun-en, Aldaz-en eta Ultzamako Arraras eta Goldaratz-en.

Galdekizunean ez jaso arren eta, beraz, mapetan ere ez agertu, kasu berezi bat aipatu nahi genuke bukatzeko: Bortzirietako azpi-euskalkian homonimia kasu bat aurkitu dugu, sudurkariaren aldaketaz bereizi egin dena, "mospel" 'sabañón' da, "ospela" eta "uspela", berriz, 'lugar sombrío' adierazteko erabitzen dira.

[..] notsaren aldaketak



**235 EMAN (360)**
**238 HEMEN (365)**

Aztertzen ari garen sudurkariak, hitz barruan doanean eta bokal artean, mantenitzera jotzen du. Hemen azaltzen ditugun adibideetan ez da disimilaketarako joerarik ageri, ez eta bi kontsonante sudurkari egon arren ere hitz berean; aferesia gertatuz, silaba bakarrekin gelditzen den "man" forma ere Baztango azpi-euskalkian eta Ultzamakoan Beunza-n; aferesi hau hedatuagoa hizkuntz laxoan gertatzen da, ikus bokalismoan. Disimilaketari buruz, bestalde, ikus, "emanen" partizipioan gertatzen den sudurkariaren disimilaketa (379-380) mapei egiten diegun komentarioan.

Emaitza berdina, sudurkarien disimilaketarik gabe, bi sudurkariak gordez, "emengo" forman, ikus (236) mapa.

**237A MEZPERA - 237B MEZPERETARA (363-364)**
**239A ATZAMAR - 239B HIRU ATZAMAR (366-367)**

"M-" eta "b-"-ren arteko alternantzia dugu "mezpera" hitzean. Aztertu dugun lurraldean kontsonante sudurkariaz ebaki dute Zugarramurdi-n eta Baztango azpi-euskalki osoan. Gainerako kasu guztietan kontsonante ahokariarekin, Bortzirietako Oronotz-Mugairek txandaketa duelarik, B lekukoak "mezpera" eman bait zuen.

Sudurkaria / ahokaria bikoteari dagokionez, alternantzia berdintsua, baina hitz barruan, "atzamar" hitzean. Kasu honetan ahokaria ahoskabea delarik, biezpainetako leherkari ahoskabea, alegia (2). Hortaz, jaso ditugun emaitzetan, "atzapar" dugu forma bakarra eta, horren parean, xistukari afrikatuak sortzen dituen aldakiak.

### 2.4.3. [n] eta [n']

[n] hotsa sudurkaria denez, [m]-rako egin dugun deskribapena berdin balio dio, sudurretik airea libre pasatzen baita bietan. Hobietako bezala definitu dugu, baina artikula guneari dagokionez, aski zabala duela esan behar da, hobietatik sabaiaurreraino hartzen duelarik eta zenbait kasutan hobietako sudurkari honen ahoskera xistukariena baino atzeratuagoa gertatu izan da, ez hainbeste, ordea, Basaburu Haundia-n eta Aldaz-en. MC MURRAUGH-ek, bestalde (1981,78) erretroflexua dela dio batere zalantzarik gabe, Navarro Tomas-i buruz honako hau esaten duelarik:

> *"Navarro-k ez zituen ikusi erretroflexoak bere gaztelaniazko kondizionapenarengatik".*

Ideia berari eusten dio SALABURU-k (1984,240), horrela definituz hots hau:

> *"Bestaldetik, gailurkari edo iraulia dugu fonema honen ahozkera, ebakera amaitzen dugunean mihipunttaren azpikoak ukitzen baitu ahosabaia. Beraz, bada, soinu honen ebakera inglesezko /r/ erretroflexuekin konpara dezakegu: mihitxapalak hortzobien atzeko partean egiten du hersketa eta gero, ebakera laxatu gabe, atzeratu egiten da".*

Guk jaso dugun [n] sudurkaria hurbilago gelditzen da NAVARRO TOMAS-ek jaso zuenetik (1925,628):

> *"La **n** inicial de sílaba se forma sobre los alvéolos, hacia las encías, sin llegar a los dientes. La amplitud de la adherencia lingual varía con el énfasis, alcanzando de ordinario unos 8 mm. en el punto de articulación. Dicha adherencia afecta a todo el contorno del paladar en la forma de una oclusión perfecta".*

Palatalogrametan mihipunta zabal-zabal agertu zaigu, Navarro Tomás-ek esan bezala, eta ahoskera enfatikoan, palatalogrametan jasotzen dena normalean, garbiago agertzen da hori. Hizketa arinean, berriz, konturatu ahal izan ginen askoz ere gutxiago ukitzen zutela ahosabaia mihiaz.

Erretroflexuaren ahoskera birritan jaso dugu, eta kasu honetan ere ahoskera zainduan ikusten da erretroflexutasunerako joera ttiki bat, baina ez hizketa arinean eta laxoan. Gauzak horrela, ez dugu hots hau erretroflexu bezala definitu.

### 2.4.3.1. Gertakizun fonetikoak

Sudurkarien artean euskarak baditu oposaketak, batez ere hitz hasieran eta barruan; /n/ / /m/ fonemari oposatzen zaio:

narra / marra
narru / marru
ene / eme
une / ume
dena / dema

Eta /n'/ fonemari ere bai:

ona / oña
gana / gaña
sena / seña
nabar / ñabar

Azken posizionan, berriz, neutralizatu egiten dira, (Z) salbuespena delarik:

(Z) hun / huñ

Sudurkari diren biezpainetako eta hobietako hotsen artean oposaketa bakarra hitz hasieran eta hitz barruan bokal artean joaten denean gertatzen da; beste kasutan, posizio inplosiboan gertatzen bada, neutralizatu egiten da alboko kontsonantearen

artikula puntua hartuz, honako gertakizun hauek direlarik nagusienak:

biezpainetakoa + [b], [p]: [sémbat], [nómbait]
ezpain-hortzetakoa + [f]: [m̩]: [im̩férnu]
hortzetakoa + [t] ala [d]: [n̪]: [mũn̪du], [mi̪n̪dút]
sabaikoa + [c], [d'], [t']: [n']: [ón'd'o]
belarea + [k], [g]: [ŋ]: [oŋgi]

### 2.4.3.1.1. Banaketa

Hasierako posizioan: **nahas, nabar, nagi, nagusi, nahi, neska.** Morfologiako galdera formak: **nor, norekin,** etabar. Hutsarekin ere alterna dezake, baina azken hauetan sudurkariak bigarren mailako hotsa dirudi (3):

Mendebaldean: **ekaitz** , (BN) **nekaitz**
**i(n)gel,** (GN) **negal, negel**
**ospel, nospel**

Hitz bukaeran:

Ez da "-n" hotsaren galerarik gertatzen: **gizon**

Atzizkietarako aldakiak "-n"-rekin edo gabe gertatzen dira, baina ez dirudi gertaera fonetikoak direnik:

Soziatiboan: **-ki / -kin / -kila**
Genitiboan: **re / -ren**

Hitz konposatuetan txandaketa agertzen da, baina ez da garbi ikusten zein banaketarekin:

**egun:** **eguberri**
**eguraldi**
**egurats**

**Jaun:** **jauregi**
**jauretsi**
**Ohoin:** **ohorgoa**
**ortotsik**
**Oihan:** **Ororbia** (Toponimian)

Bokal artean:

Bokal arteko sudurkaria, "-n-" zaharra, galdu egin da:
Mailegu zaharretan (4):

Lat. ANATEM (Aurreko kapituluan ikusia).
ARENAM > (Aezk), (Zar), (GN), (G), (B) **are(a), aria,**
(Z) **haríña.**
CORONAM > **koroa**
HONOREM > **ohore**
Toponimian eta leku-izenetan: Galdakao, Lazkao, Zeberio.
Konposizioan berriro agertzen da:

gazta → **gaztanbera**
kanpai → **kanpantorre**
ardao → **ardantze**
arrai → **arrandegi**

Aspiraketa duten euskalkietan, "n" zahar bat zegoen tokian aspiraketa dago eta aspiraketa ez dagoen tokietan, Hegoaldeko euskalkietan, aspiraketaren lekuan "g" belarea edo "r" dardarkaria eta, disimilaketaz, "l" albokaria agertzen da (5).

**segi, lukarika, irastu**
(Z) **ahari,** (BN), (L) **ahari,** (GN) **ari,** (B) **adari**
(R) **ol,** (BN), (L), (Z) **ohol,** (GN) Baztan **ogol,** (GN), (G), (Zar) **ol**
(Z) **xehe,** (R) **xe,** (BN), (L) **xehe,** (GN), (G), (Zar) **xe, txe.**

### 2.4.3.1.2. Sudurkariaren berreskuratzea

Kasu batzutan berreskuratu egiten da sudurkaria, hala nola, "i" baten ondoan [n'] sabaikoa gertatuz, (BN) eta (L)-z [n] delarik:

**erregiña, erregina**
**burdiña, burdina**

Sudurkari bustia, garai zaharreko "e"-tik sortu den "i" bokal bati jarraitzen dionean:

(Z) **katiña, ha(r)iña**
(GN), (G), (B) **iñor, iñon, iñoiz** < <*e-nor...

Jatorrizko diptongo sudurkari baten ondoren ere berreskuratu da:

Mend. **bedeikatu, bedeinkatu** / Ek. **benedikatu**
**lukaika, lukainka** < Lat. LUCANICAM

Bokalaren eta kontsonantearen artean ere berreskura daiteke, baita aspiratua denean ere kontsonantea:

(Z) **zünhar, ahantzi**
(BN), (L) **ihitz,** (Z) **íhitz** / (L) **ihintz,** (GN), (G) **intz.**

Aditz zaharren forma nominaletan ere:

**iretsi / irentsi**

### 2.4.3.1.3. Bokal arteko galera

Sudurkariaren galera bokal artean gertatu ohi da, baina kasu guztiak kanpo sandhian eta hizkuntz mintzatuan gertatzen dira; Bizkaiera da, batez ere, fenomeno horren adierazgarri:

(B) egin eban → egieban
entzun ebanean → entzuebanian
Partizipioetan: etortzen, egoten → etortzezan, egotezan

Galera hori bera, edo, agian, sudurkariaren falta, iraganeko adizkietan, (B)-z, zenbait hizketetan, Hg (GN) eta (Aezk):

**joan ze, eman zida**

### 2.4.3.2. /n'/ fonema

### 2.4.3.2.1. Gertakizun fonetikoak

[n'] hotsa hobietako eta sabai-aurreko gunearen barruan ahoskatzen da, sabai-aurrea nagusitzen delarik batez ere. Mihiaren bizkarrak ahosabaia jotzen du airearen irteera erabat itsiz, eta mihipunta beheko hortzen hobietan egoten da.

Lehenengo eta behin, sudurkari hau sabaikoa denez, hauxe esan nahi dugu: kontsonanteen euskal sisteman, sabaikari guztiak bezala, sabaiko sudurkari honek ere estatus berezia duela. Hara zer dioen MITXELENA-k (1977,180) horiei buruz:

> *"En todo caso y hablando de una manera aproximada, la posición especial de los fonemas palatalizados puede caracterizarse diciendo que son sentidos como una serie no autónoma y en cierto modo secundaria, cargada de valor afectivo, y subordinada*

*como tal a las series principales, de fonemas no palatalizados".*

Hortik jarraitzen da, jakina, sabaiko hots honen hain kinka larria, ia egon ere ez bait dago (L), (BN) eta (Aezk) euskalkietan, balio adierazkorreko kasuak salbu. Eta, alderantziz, bustidurarik gehien egiten duen euskalkia (G) da, eta (B)-k ere egiten du zenbait lekutan, "i" erdibokala edo bokal osoa gertatzen den kasuen ondoren doanean kontsonantea.

Hau ikusirik, galde daiteke, sabaiko sudurkari honen kasuan fonema baten aurrean gauden ala ez. Fonematasuna adierazten duten bikoteek badirenez, fonema bezala har dezakegu [n'] hotsa:

ona / oña; sena / seña; bana / baña; nabar / ñabar

alabaina, hau euskalki bakoitzean baieztatu behar den arazoa da, ez bait da beti horrela gertatzen.

Hobietako kontsonante sudurkaria ere sabaiko kontsonante baten ondoan joaten denean sabaiko bihur daiteke:

**antxe, ttantta** → [n'] hotsa gertatzen delarik.

Azken posizioan hobietako eta sabaiko sudurkariak neutralizatu egiten dira, (Z) izan ezik, euskalki honetan gordetzen bait da oposaketa:

(Z) **hun / hun'**

Diakroniaren ikuspuntutik: **-in > i > ñ** aldaketa agertzen da bazterretako euskalkietan:

(B) **burdiña,** (Z), (R) **burña,** (Z) **bürdüña** < *burdina
Atzekaldeko kontsonante despalatalizatua: (BN), (L) **burdina**
*in > ñ: (R) **ñor, ñeur, ñoiz**

*nj > n' (hizketa ezberdinetan): (G) Legazpi-n: **ñauk, ñagok**
**ñabillek, ñoak**
**ñatorrek**
(GN), (G) Mutriku-n: **niok, nabilek**

### 2.4.3.2.2. Sabaikaria "i" erdibokalaren ondotik

Sudurkari eta albokariaren bustidura hedatuena "i" erdibokalarena, hau da, diptongoaren jarraian doanarena izaten da, nahiz aintzinatik datozen **"-ain", "-aen",** nahiz ***-ani, *-ane** taldetatik, **-ai** eta **-ae** formetatik pasatuz.

Sudurkariak, azken posizio absolutuan, sabaiko / ez sabaiko oposaketa neutralizatzera jotzen du. Bada, ordea, mugatzailea beti hartzeko joerarik:

"ezpain" → "ezpaña, "soin" → "soña", "otsail" → "otsalla" edo "otsailla", azken emaitza hau nahiko orokorra izaten delarik euskalki gehienetarako.

### 2.4.3.2.3. Sabaikaria "i" bokal osoaren ondotik

Kasu honetan bustidurak banaketa dialektala du. (B), (G), Ip (GN)-ko zenbait lekutan eta (L)-ko Sara-n eta kostaldean bustidura gertatzen da. Ez da gertatzen, berriz, Hg (GN), (Zar), (Z), (Aezk) eta (BN) euskalkietan.

Hala eta guztiz ere, oso zaila da lehengoratzea edo berreraikitzea kontsonante sudurkariaren egoera, hain dira ugariak, euskalkien arauera, gertakizunak:

Etx. **bana** 'mas', 'pero'/ **bano** 'erkatzailea'
Leiz. **baina, baino** / (GN), (G) **baña(n), baño**
Heg (GN) Elkano: **baña** (Beriain-ek **baya**), baño
(B) zaharra: **baea, baya** eta **baño**
(Aezk): **baia, beino**
(Z) **baya, baño**

### 2.4.3.2.4. Metatesia

Sudurkari eta albokarien arteko kontsonanteen metatesia edo leku aldatzea gertatzen da:

Lat: NOVACULAM > (L), (GN) **nabala**
(BN), (Z) **nabela**
(B), (GN), (G) **labaña, labaiña**
(G) **labana**
Lat: MANTUM > (GN), (G) **manteliña** (Leiz. **mantelina**).

### 2.4.3.3. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

1. Distribuzioa:
   Hitz hasieran:
   nahas
   (ator) nabarra - (hiru ator) nabar
   negal - hiru negal
   nehor - ez da nehor etorri
   Hitz barruan:
   enara - hiru enara
   bedeinkatu - ur bedeinkatua
2. Txandaketak:
   Ikus goian
3. Galera:
   emanen - emanen diot
   egun - egun txarra
   eguraldi - eguraldi txarra
   ez naiz

/ n'/ fonema

1. Bikoteak:
   sagar bana / baina

2. Distribuzioa:
    - Hitz barruan:
        inon ere ez
        keinu - hiru keinu
        burdina - hiru burdin
    - Hitz hasieran:
        nagok
        nabilek
3. Metatesia:
        mantelina - hiru mantelina

### 2.4.3.4. Jaso diren fenomenoen analisi fonetikoa eta diatopikoa

**240 NAHAS (368)**
**241A ATOR NABARRA - 241B HIRU ATOR NABAR (369-370)**

Hitz hasierako mihipunta hobietako sudurkaria tinkotasun haundiz gordetzen da, baita sintagma barrenean eta kontsonantearen jarraian gertatzen bada ere, **nahas** eta **nabar(ra)** hitzei buruz jaso ditugun erantzunek adierazten dutenez. Beste kasu batzuk ere emaitza bera eman dute, sudurkaria mantenitzearena, alegia: **naiz** (110), **Nafarroa** (303), **nafartar** (304), **nor haiz?** (312).

**342A NEGAL - 342B HIRU NEGAL (368-369)**
**243A NEHOR - 343B EZ DA NEHOR ETORRI ( (373-374)**
**244A ENARA - 344B HIRU ENARA (375-376)**


Halere,ez da beti tinkoa, galdu ere egiten baita inoiz hasierako posizioko sudurkari hori. **Negal** dugu kasu bat. Alde batera utziko ditugu "zetela", "xetela" eta "txetela", Bortzirietako Sunbilla, Etxalar eta Arantza-n erabiltzen direnak jarraiberean, ez bait dira guk aztertzen dugun hotserako baliagarri gertatzen.


Hortaz, "negal" hitza jatorrizkoa bezala hartuz, bilakabide fonetikoak direla bide hamar gertaera ezberdin jasotzen dira gure mapetan. Hauek dira eta honako hedapen geografikoa dute:

**Negal(a):** Baztango azpi-euskalkian eta Mugaire-n. Horrela dakarte ere beren hiztegietan Gorrosueta-k, IRIGOYEN-ek (1962,172), eta IZETA-k (1985,594), lehenengoak "igel" formaren parean, hori ere ematen bait du. Izeta-rentzat, berriz, "igel" 'celo de yegua' (1985,587) da. Edozein modutan, guk ziurtasuna aurkitu dugu hitz honetan, Aniz-en txandakatuz jaso bazen ere, lehenengo forman "a"-ren aldeko asimilaketa eginez: **nagala** A lekukoak eta bokalen metatesiaz B lekukoak, eta **igel** ere bai harekin batera.

Sudurkaririk gabe, **igela** eta hurbilkari ahostunaren galeraz, **iela,** eta azkenik, behar bada elkarrekin doazen bi bokalen arteko aldea haunditzeko, edo azken mugatzailearekin asimilatuz, **iala** ere gertatzen da, beti hiru silabatan. Honako hedadura du: Ultzamako azpi-euskalkiko Arraras, Beramendi, Goldaratz-en eta baita Arakil-go Aldaz-en eta, azkenik, beste bazterrean dagoen Zugarramurdi-n (6).

Sudurkaria eta albokariaren artean gertatzen den trukaketa izango litzateke jaso dugun beste aldakia: **legana,** alegia. Eta horren parean, bokalen asimilaketaz, **legena** eta **lerena** ere: Ultzamako Auza, Larraintzar eta Beunza-n eta Bortzirietako Erasun-en gertatzen dira. Bestalde, "Erizkizundi Irukoitzak", **Euskera**


[ɛ́là]
[s-/š-/čerlél]
[neɣálà]
[neɣélà]
[ɬɣélà]
[lerénà] - [léɣanà]
[léɣenà]
[ɛ́alà]
[ɛ́élà]


30
12
4
19
17
18
5
13
15
2
10
11
1
7
16
9
14
[naβala]
[laβana]

(1928, 121-122), ematen dituen datuekin erkatu ditugu gureak, eta berdin-berdinak dira.

Azkenik zera esan daiteke, "negal"-en kasuan ez dakigula kontsonante sudurkaria bigarren mailakoa den ala ez: badakigu, ordea, **n-** / **l-** hotsen arteko txandaketan, l- gero sortua dela. Hori bera agertzen digu **nabala** hitzak (52), "n-" hotsak "l-"-ren arteko trukaketa bait du eta hitz horren jatorria ezagutzen bait dugu, Lat. NOVACULAM > NAVACULA-tik, alegia. Eta hitz honi dagokion distribuzio geografikoa hau da: **nabala** Zugarramurdi-n, Baztan-en, Bortzirieta-n Erasun-en izan ezik, eta Ultzamako **Auza**, Larraintzar eta Beunza-n.

Trukaketarekin, **la(b)ana:** Bortzirietako Erasun-en, Ultzamako Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en eta Arakil-go Aldaz-en.

"Negala" eta "nabala" hitzak elkarrekin erkatuz ikusten denez, bataren eta bestearen emaitzak ez datoz bat geografikoki. Fenomeno beretsua agertzen da "ñ" hotsa azaltzerakoan ere, ikus "mantelina" (395).

"Nehor" hitzak duen kontsonante sudurkaria ere, MITXELE-NA-K (1977,304-310) dioenez, bigarren mailakoa da, ***e-nor**-etik **iñor,** behin bokala itsi ondoren hots sudurkaria bustiz:

"Dech. **ehor, ehonere,** ronc. Uztárroz **eur, eun** (Vidangoz **ñor, ñon**), y en b.-nav. y lab. con restablecimiento de la consonante nasal en la inicial (analogía de **nor** 'quién', etc.?), **nehor, nihor,** etc., como a.-nav. Elcano **nior** (ronc. Urzainqui **ñeur**)".

Guk jaso ditugun datuetan **níor** forma Zugarramurdi-n bildu dugu, B lekukoak emandako **nehor ere** formarekin txandakatuz. Beste kasu guztietan "iñor" forma ageri zaigu.

Fenomeno berdina gertatzen da "enara" hitzarekin, hitz hori erabiltzen den tokietan. **Enara** Bortzirietako Etxalar, Arantza, Sunbilla -hirugarren lekukoak "eñarak" ahoskatu zuen-, Ituren eta

Donamaria-k azaldu zuten. "Enara > iñara / iñera" Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalki guztian eta Bortzirietako Oronotz-Mugaire eta Oieregi-n. Gartzain kanpoan gelditzen da "azpixurie" eginez eta Ultzamako azpi-euskalkian eta Arakilgo Aldaz-en, barietate haundia ageri da, batez ere "txiriñak" eta hitz honen aldakiak, "azpixuriak" eta "txankiarrak" direlarik formarik ugarienak. Normala da, bestalde, horrelako erreferenteei dagozkien izenetan aniztasun haundia gertatzea.

Mailegu etako zenbait kasutan bokalarteko "n" zaharra galdu egin dela esan behar da: ANATEM > **ahate** eta honen eratorrietan (48); KATENAM > **katea** (41). Garai zahar batean bokal sudurkariak mantenituko zuen "n" horren aztarna, baina, azkenean, hori ere galdu egin zen. Iparraldean, zenbait kasutan, aspiraketa gelditu da tinbre berdineko bokalen artean; Hegoaldean, beriz, "g" bat agertzen da kasu batzutan. Bokal sudurkaria bera, gaur egun, (Z)-z bakarrik.

### 245A BEDEINKATU - 245B UR BEDEINKATUA (377-378)
### 246A EMANEN - 246B EMANEN DIOT (379-380)

Iraganeko partizipioan "-nen" atzizkia erabiltzen duten hizketetan sudurkarien disimilazioa gerta daiteke:

**emanen** → **emain; izanen** → **izain,** etabar.

Kanpo sandhia gertatzen denean ere murrizketa gerta daiteke, baina kasu honetan badirudi disimilaketa ez dela arrazoia, kasu gehienetan behintzat:

(B) **amaitzen dot** → "amaitzot"
(G) **jartzen dute** → "jartzeute"

**esaten dituk** → "esateituk"
(GN) **ematen dute** → "emateute"
**esaten duzu** → "esateuzu"

Goi-Nafarreraz metatesiak gertatzen dira aditz formetan ugaritasun haundiz:

**egiten dute** → eitenute > **iteunte**
**erraten dizut** → **erratenizut** > errateinzut

Latineko BENEDIKATU(M)-etik jasotako hitza, Ekialdean aldaketarik gabe mantenitu da, "benedikatu", eta Mendebaldean beste aldakiak eman dira. Hitz honi dagokionez, bi aldaki mota egongo ziren ziurrenez kontsonanteen metatesiaren ondoren: bat, kontsonante sudurkaria mantenituz, "bedeinkatu"; bestea, sudurkaria galduz, hasieran bokal sudurkarituarekin eta, azkenik, hori ere galduz, "bedeikatu".

Kontsonante sudurkariarekin aztertu dugun lurraldearen mendebaldean jaso dugu: Bortzirietako Erasun-en eta Arakilgo Aldaz-en, hain zuzen ere. Gainerako kasuetan kontsonante sudurkaririk gabe, bai hitz soilean, "bedeikatu", bai hitz konposatuan, "urbedikatua".

Arestian aipaturiko sudurkariaren disimilaketa hitz barruan, "emanen" partizipioaren kasuan gertatzen da, gure mapetan ikus daitekeen bezala. Forma osoa, "emanen", Bortzirietako Etxalar, Arantza, Sunbilla eta Ultzamako Arraras-en jaso dugu. Beste tokietan "emain" eta "emein", edo aferesia duen "main" ebaki zuten. Bortzirietako Erasun-en eta Ultzamako Goldaratz-en, aldiz, "emango" jaso da. Bigarren mapan ere, normala den bezala, emaitzak berdinak dira; bereiztasunik larriena Arantza-koa izan da, bigarren honetan "emain diot" erantzuna jaso bait da.

Edozein modutan, sudurkarien disimilaketaz hitz egin bada ere, egia esan, aliterazioak ere sortzen dira, ikus bestela (257 mapan) "ezin in dut", "ezin in diet" eta antzerako formak. Hauek agertzen dutenez jarraiturik doazen silabetan bi sudurkari ager

daitezkeela batere galerarik gabe, ez "emanen" → "emain" gertatzen den tokietan ere.

### 247A EGUN - 247B EGUN TXARRA (381-382)
### 248A EGURALDI - 248B EGURALDI TXARRA (383-384)

Azkenengo posizioan dagoen sudurkaria, "egun" lexeman ikusten denez, mantenitu egiten da. Baita izen sintagman ere, jarraiko hotsen eragina jasaten duenean, sabaikaria bihurtuz esaterako, gure kasu honetan bezala.

Konposizioan "r" hotsez aldatzen da, "eguraldi" kasuan ageri den bezala. Horrela ahoskatzen dute Bortzirietako aspi-euskalkian Etxalar eta Oieregi-n eta Baztango Arraiotz eta Gartzain-en. Hitz honen beste aldaki guztiak, eta ez gutxi, dardarkariaren galeraren ondorioz sortu dira.

"Eguerdi" hitzean, berriz, ez da sudurkariaren arrastorik gelditzen ez eta beste hotsekin trukaketarik ere. Kontsonante sudurkaria galdu egin bide da, besterik gabe, konposizioan sartzerakoan, ikus (32-33) mapak.

## 249 EZ NAIZ (385)

Xistukari baten ondoren doanean kontsonante sudurkariak jasaten duen aldaketa ikusteko "ez naiz" aditza hautatu genuen.

Jaso ditugun emaitzetan sudurkaria mantenitzen da eta xistukaria da galtzen dena hainbat kasutan. Mapan ageri denez, galera hori Baztango azpi-euskalkiko Amaiur eta Arraiotz-en gertatu da; Bortzirietako, Ituren-en; Ultzamako, Auza, Larraintzar, Arraras eta Beramendi-n; eta Aldaz-en. Denetan hedatua dago eta banaketa ez da azpi-euskalki batean edo lurralde tinkoan gertatzen. Horrek esan nahi du fenomenoak ez duela banaketa diatopikorik, denetan gertatzen dela eta ez duela lege finkorik. Horren alde daude kasu horretan, xistukaria + sudurkaria taldean, alegia, jaso ditugun txandaketak ere, nahiz leku berean, nahiz lekuko berarengan jasoak izan. Hau ere orokortasunez eman ohi diren lege horietako beste bat da, kasu honetan sudurkariaren aurrean galdu egiten dela xistukaria, alegia, baina, ikusten denez, ez da neutralizatzen.

## 250 SAGAR BANA (386)
## 251 BAINA (387)

"Bana" eta "baina" formak erkatu nahi izan ditugu, elkarren artean nola bereizten diren ikusteko. Banatzailea beti "bana" erabiltzen da, batere aldaketarik gabe; konjuntzio adbertsatiboan, ordea, badira aldaketak.

Izan ere, "baina"-k aldaki asko ditu euskalkien arauera MITXELENA-k (1977,200) azaltzen duenez: "(GN) eta (G) baña(n); (GN) Elkano **baña** (Beriain **baya**), (B) **baya,** (Aezk) **baia,** (Zar) **baia,** (R) **baia,** (Z) **béna".**

Txandaketak, bada, jod hotsaz eta sudurkariaz ageri dira, eta honen arrazoia, ziurrenez, hitzaren bilakabide fonetiko ezberdina izanen da.

Diptongoa Zugarramurdi-n gorde da, eta kontsonante sudurkaria ere ez du bustitzen. A lekukoak "báinom" ez du nahasten konparatiboetan erabiltzen den formarekin, horretarako "baino" esaten bait du (113). B lekukoak, berriz, **bainan** adbersatiboan eta **bainom** konparatiboan. Bustidurarik gabe Amaiur-en ere, "bano", eta "baño" konparatiboan (7).

Bide bertsutik jarraitzen du Etxalar-ek ere, baina sudurkariaren bustidura eginez: "bañan", eta konparatiborako "biño".

"Baño", diptongoaren murrizketaz eta hurrengo sudurkaria bustiz, Baztango azpi-euskalkian, Arraiotz, Aniz eta Gartzain-en; Bortzirietakoan, Arantza, Sunbilla eta Erasun-en; Ultzamakoan, Goldaratz eta Arraras-en; eta, azkenik, Aldaz-en. Toki gehienetan konparatiboarekin nahastuz.

Larraintzar-ek "beño" ebakitzen du, eta ia "i" bokalaren tinbrea entzuten da; izan ere, "biño" forma jaso dugu beste lekukoarengandik. Eta "biño" forma bera Bortzirietako, Oronotz-Mugaire, Oieregi, Ituren, Donamaria-n eta Ultzamako Auza, Beunza eta Beramendi-n. Forma honek hedadura haundiagoa dauka hemen jaso duguna baino, egin ditugun grabaketa askeetan ikusi den bezala, eta toki askotan konparatiboekin bat egiten da.

Sudurkariaren sabaitzeari dagokionez, ikusten da diptongoaren murrizketa baino lehenagokoa dela, "baño" forman agertzen den bezala, eta forma horretatik jarraitzen da "biño": baino > baiño > *beiño > biño; eta ez baino > *bino > biño, ez bait dugu "bino"-ren aztarnarik. Leherkaria, berriz, ingurumenaren eraginez ageri da hurbilkari bihurturik, galdera hau izan bait zen: "Saldría al monte, pero hay niebla".

## 252 INON ERE EZ (388)

Indefinidoek euskaraz egitura berdina dute: **inon, inor, inoiz**... Denek "*e-" zahar eta dokumentatzen ez den batetik etorriko lirateke: "*e-non" formatik, alegia. Bokalismoan ikusi den bezala, kontsonante sudurkariek aurreko edo inguruko bokalak isteko joera dute. **Inon,** bada, formarik arruntena genuke eta hasierako "i" bokalaren eraginez hurrengo sudurkariaren bustidura letorke, **iñon,** indartu egin zena "ere" eta "ere ez" erantsiz. Sudurkari hori zegoen tokian aspiraketa eginez erabiltzen zuen Etxepare-k: **ehonere,** (Z) **ihun, ihunere, ihune** ahoskeran, GAVEL (1920,269). **Nor** eta **non**-en eraginez, analogiaz, **nehon, nehun** aldakiak sortzen dira Iparraldean, eta Hg (GN)-n **nion,** horien parekoa.


Mapan Zugarramurdi, beti bezala, berezia agertzen zaigu: nion forma A lekukoak, eta **nehonere** B-k: forma bera azken finean, batean aspiraketa galdu ondoren armonia bokalikoak sortu duen aldaketarekin.

Beste guztiak berdinak dira, sudurkari sabaikoa aurkezten dute, bokala gradu batean itsi dutelarik zenbait tokitan.

Beste aldaketak bigarren mailakoak dira. Dardarkari biguna-ren erorketaz "iñonez" ageri da, eta horren gainean inesiboaren morfema itseki ondoren, semantikaren aldetik duen analogia dela bide, "iñonizen" eman zuen Gartzain-ekoak.

SUDURKARIAREN

BUSTIDURA AUTOMATIKOA




A: nior, nion, keinu, daino, dainon

B: iñor, iñon, keiñu, daño (diño), dañan eta r ondorengoak

C: daño (adversatiboa) daño (errefortzailea)

Gainerakoak bustiduraz

## 253A KEINU - 253B HIRU KEINU (389-340)
## 254A BURDINA - 254B HIRU BURDIN (391-392)

Kontsonante sudurkariek hitz barruan duten banaketari jarraitzen diogu, eta kasu honetan lexema nominalekin.

Oso maiz ageri dira, bestalde, euskalkietan **n(h)-, in(h)** eta **-ñ-** hotsen arteko txandaketak edo alternantziak. Askotan berezko bustiduraz, edo ingurumen fonetikoaren eraginez sortuak; bestetan, bigarren mailan gertatutako desbustiduraz:

(GN), (BN), (L): **lan(h)o,** (Z) **lanhu** / (GN), (G), (Zar) **laño,** (Aezk) **laño, lano,** (L) **laino.**

Kasu batzutan, eta ingurumen berezitan, diptongoaren bigarren elementua zen "i" zahar batetik letorke:

(B) **oñe(t)zitu, oñaztu, oñeztu**
(GN), (G) **oñaztura,** (Aezk) **oinaztura**
(R) **iñaztura,** (Z) **inházi**
(B) Aramaio, Arrasate, Otxandio **irastu, irestu**

Kasu batzutan "-ND-" taldea ere gerta daiteke:

(BN), (L) **soinu,** (GN), (G), (B) **soñu**
(GN) Baztan **soindu,** Bortzirietan **sonddu**

Eta zenbait kasutan bigarren mailakoa ere izan daiteke, esaterako (G) Burunda-n **baindo, gindan.**

Gure mapan emaitzak ez dira, aipatutakoekin erkatuz, aldatzen. Bustidurarik gabe Zugarramurdi-n, **keinoa,** eta beste guztietan bustidura agertuz, diptongorik gabe, **keñu;** eta sudurkariaren eraginez, bokalaren hersketa, **kiñu,** zenbait tokitan.

Bustidurarik gabeko hotsa ireki egiten da "burdina"-ren kasuan. Zugarramurdi-n eta Baztango Amaiur eta Gartzain-en "burdina", "burdine" (8).

Sudurkari sabaikoa egiten dute Baztanen ere Arraiotz eta Aniz-ek, eta Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Etxalar eta Oieregi-k.

Bestela gertatzen da gainerako leku guztietan, "burni" egiten bait da. Garibay-k ere bere garairako "burniaric" idazten zuen. Ebakera hori, hortaz, Arakilgo Aldaz-en, Ultzamako azpi-euskalki ia osoan eta Bortzirietako Arantza, Sunbilla, Donamaria, Ituren eta Erasun-en eta, azkenik, Ultzamako Beunza-n.

Mugagabean "iru burni" edo "iru burne". Bestalde, "-a" berezkoa duen hitza izan arren, toki guztietan galdu egiten da, sudurkaria azken posizioan geldituz; sudurkari hobietakoa da forma hedatuena, "iru burdin", alegia. "Iru burdiñ" Bortzirietako Etxalar, Oronotz-Mugaire eta Oieregi-n bakarrik.


Horren parekoa "irin", (3) eta (4), genuke, isoglosa berdintsuekin: Zugarramurdi eta Amaiur bustidurarik gabe eta besteak bustiduraz. Azken posizioan, berriz, Beramendi eta Goldaratz-ek bakarrik egin dute hots bustia: "iriñ gutxi".

Hitz hauekin batera "i" erdibokalaren ondoren kontsonante sudurkaria azken posizioan duten hitzak jarri beharko genituzke: "zain" (114-115), "ezpain" (116-117), "artzain" (118-119), "asuin" (139-140).


**Mugatuetan** forma berdina agertzen da. Bustidurarik gabeko sudurkaria Zugarramurdi-n bakarrik gertatzen da; beste guztietan sabaiko sudurkaria, diptongoaren "i" erdibokala galduz ebakitzen dute.

Talde horretatik kanpo gelkitzen da "artzain" (118-119) hitza, azken posizioko sudurkaria galdu bait du, Zugarramurdi eta Baztango azpi-euskalkian izan ezik: diptongoa eta kontsonante sudurkari hobietakoa mantenitu da Zugarramurdi-n, "artzaina", eta Baztango azpi-euskalkian kontsonante sudurkari hori sabaikaritu da "i" erdibokalaren eraginez eta hau sabaikarian bertan suntsitu da.

BURDINA (39)




IRINA (3)



**Forma mugagabeetan** ez dago batasunik: "zain" hitzean, diptongoa mantenitzen da kontsonante sudurkari hobietakoarekin, Zugarramurdi-n, Baztango azpi-euskalkian, Amaiur-en izan ezik, Bortzirietako Etxalar-en eta Ultzamakoan Auza, Beunza, Arraras eta Beramendi-n. Erasun-en bietariko erantzunak jaso genituen. "Iru zañ" forma Amaiur-en, Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Arantza, Oieregi eta Ituren-en, Ultzamako Larraintzar eta Goldaratz-en. Besteek forma mugatua eman zuten.

"Lau ezpain", diptongoz eta kontsonante sudurkari hobietakoz: Zugarramurdi-n; Baztango azpi-euskalkian, Amaiur-en izan ezik; Bortzirietakoan, Arantza, Etxalar, Sunbilla eta Donamaria-n; Ultzamakoan Auza, Beunza, Arraras, Beramendi-n; eta, azkenik, Aldaz-en.

"Lau ezpañ", diptongorik gabe eta kontsonante sudurkari sabaikoz: Amaiur-en, Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Oieregi eta Iturene-n, eta Ultzamako Larraintzar-en.

"Artzain"-en kasuan, kontsonante sudurkaria mantenitu den toki guztietan gertatzen da hobietakoa, diptongoaren ondotik joan arren.

Ikusten denez, mugatuetakoen joera berdina bada ere toki guztietan, mugagabeetan, kasu batzutan bai, baina ez dira beti emaitza berdinak mantenitzen.

Aparte utzi dugu "asuin" hitzaren kasua. "Ui" diptongoaz ez dugu inon jaso. Bistan da diptongo zahar horrek murrizketak izan dituela, bigarren mailakoa sortuz lehenengo silaban. Horrela esplikatzen da: Ultzamako Auza, Larraintzar, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-ek eta Arakilgo Aldaz-ek egiten duten "ausiñ- + mugatzailea"; honen ondorengo "osiña" Bortzirietako Etxalar eta Arantza-n eta Ultzamako Beunza-n. Jatorrizko "ui" diptongoaren murrizketa, sudurkaria bustiz, Bortzirietan, Ituren, Oieregi, Oronotz-Mugaire eta Sunbilla-n, eta Baztango Amaiur-en. Gainerakoetan denetariko emaitzak ageri dira. Hemen ere bereizgarri litzatekeen

gauza bakarra, Zugarramurdi-k mantenitzen duen sudurkari hobietakoa da, busti gabe "i" erdibokalaren jarraian joan arren. Hitz honek erakusten diguna zera da: "ui" diptongoaren aldaberatasuna eta horrek sortzen dituen aldaketa ugariak.

Horrenbestez, Zugarramurdi genuke ingurumenaren eragina berdin jasan arren, sudurkari kontsonantea sabaikatu gabe tinkotasunez mantenitzen duen toki bakarra. Beste toki guztiek, alternantziaz bada ere, isoglosa bat emango lukete, sabaikatu egiten dutelako aztertzen ari garen kontsonante sudurkari hori.

Bestalde, "i" diptongoaren bigarren elementua ez baina bokal osoa denean, emaitzak ez dira erabat berdinak. Bustidurarik gabe Zugarramurdi, Amaiur eta Gartzain herriek egiten dute: "Amabirjina /-e" (322). Baina Zugarramurdi-k bakarrik "sorgina" (341). Hortaz, berriro ere, Zugarramurdi-k agertzen du bustidurarik gabeko forma ziurtasunez.

## 255 NAGOK - 256 NABILEK (393-394)

Sudurkari hobietakoa gehi yod hots talde zahar batetik sudurkari sabaiko hotsa sor daiteke, lehen ikusi dugun bezala, bigarren mailakoa, hortaz. Testuinguru hori lehenengo pertsonari dagozkion adizkietan gertatzen da. "Nagok" eta "nabilek" jarri genituen galdekizunean, euskalki guztietan orokortasunez erabiliak direlako.

"Nagok" kasuan, "ñegok" forma sabaikatua Ultzamako Goldaratz-en bakarrik jaso dugu. Bustidurarik gabe, baina jod hotsez, Baztango Gartzain eta Aniz-en, Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Oieregi eta Donamaria-n eta Ultzamako azpi-euskalkian Auza eta Beunza-n. Beste toki guztietan "nagok" eta honen jarraikoak jaso genituen.

"Nabilek" formarako ez dugu sabaiko hotsa duen aldakirik jaso, eta Oronotz-Mugaire-ko B lekukoarengandik bakarrik jaso dugu jod hotsez: "niabillek". Beste guztietan "nabil-" forma dute, Gartzain-en salbu, hemen "i" ireki batez "nibilek" agertu bait zen.

## 257A MANTELINA - 257B HIRU MANTELINA (395-396)

Sudurkarien artikula puntuaren makaltasuna hainbat aldiz agertu zaigu, sudurkari hobietako sabaikoa eginez, nahiz diptongoaren "i" bigarren elementu erdibokalikoaren, nahiz "i" bokal osoaren ondotik doanean. "Mantelina" hitzean ere sabaikaritasun hori leku guztietan gertatzen da, Zugarramurdi, beti bezala, geldituz. Baina hitz honetan metatesia gertatzen da, aurreko sudurkarien eraginez nonbait. "Mantenille" Ultzamako Larraintzar-en aurkitu genuen eta Erasun-go B lekukoak ere metatesitutako forma azaldu zuen: "mantanilla". Emaitza berdinak jaso ziren forma mugagabean.

Elkarren artean dauden sudurkarien eragina ez dugu uste, hala ere, metatesiaren arrazoia izango denik (9). Albokaria eta sudurkariaren arteko leku-trukaketa beste kasu batzutan ere gertatzen bait da, hala nola, "nabala" (52) hitzean.

"Nabala" forma hedatuena jaso bagenuen ere, aztertutako Mendebaldeko lurraldean forma metatesitua ageri da: "labana" Bortzirietako Erasun-en, Ultzamako Beramendi eta Goldaratz-en eta Arakilgo Aldaz-en. "Laana" Arraras-en eta Erasun-en, honetan aurreko formarekin txandakatuz.

Azkenik, "intxaur" (283) hitzaren kasua aipatuko genuke. Ez dugu uste errotazismoz azal genezakeenik fenomeno hau; baina "intzaur" (10), "intxaur", Goldaratz eta Aldaz-eko formak jarraibe-

rean, aldaketak jasan dituzte beste tokietan: "illtxaur", "elltxaur", "giltzaur", "giltxaur" eta "geltxaur". Eta "etxaurra" ere Ituren-en ageri da, "eltzaur" formarekin alternatuz.

Bistan dago, talde horrek oso estatus mugikorra duela egun ere, eta lurralde bateko hogei herritan hainbeste aldaki jasotzea horren adierazgarri baizik ez da.

### 2.4.3.5. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Kontsonante sudurkarien saila aztertzean oharmena lehenengo astintzen duena ezpainetako sudurkariak beste bietatik duen independentzia da, hobietakoak eta sabaikoak elkarrekin dituzten loturak oso hertsiak bait dira, eta ezpainetakoa, berriz, bere aldetik ibiltzen da, beste biekin batere zerikusirik gabe, sudurkaritasunean ezpada, jakina.

Hala izanik ere, /m/ ezpainetako fonemak ez du aparteko maiztasunik euskararen sisteman. Haatik, aztertu diren hizketetan egiaztatu ahal izan da, ugariegi agertzen ez bada ere, euskararen sistema fonetikoan toki aski garrantzitsua lortzeko adina agertzen dela.

Agian arrazoi historikoak direla bide, bi alderditara azaltzen zaigu sabaiko kontsonante honen agertzeko era. Alde batetik begi bistakoa da kontsonante honen erabilerak duen tinkotasuna, nahiz bokalen artean nahiz posizio inplosiboan hitzaren barnean. Hasiera absolutuan ere ongi gordetzen da: "makila", "merke", "(e)man" eta abar.

Bada, ordea, beste kontsonante sail bat sudurkari honekin txandakatzen dena, aldaketaren arrazoia ez bada garbi ikusten ere. Aldaketa hori hitzaren hasieran ematen da batez ere, eta "m"-rekin aldatzen diren hotsak, maiztasunaren arauera, ahozko biezpainetako leherkaria, /b/, eta xistukari igurzkari ahoskabea, /s/,

dira, eta azkenik, sudurkaria galtzea ere gerta daiteke beste hots batek ordezkatu gabe. Ezaguna da, bestalde, alderantzizko bilakabidea ere, hau da, ahozko biezpainetako leherkariaren ordez ezpainetako sudurkaria ahoskatzea. Guzti honek frogatzen du kontsonante honen izatea bera diakronian aski zalantzagarria dela.

Banaketa diatopikoari dagokionez, kontsonantearen erabileraren aurkako joerarik ez da ikusten, ez eta horren aztarnarik ere, alderantziz baizik, aztertu ditugun hizketa guztietan eskuarki jaso bait dugu. Txandaketei dagokienez, berriz, ezin badira ere erabateko isoglosak ezarri, esan dezakegu, ordea, Baztango azpieuskalkiak gordetzen duela zintzotasunik haundienaz hots hau, jokabideetan Lapurteraren idurikoa delarik, bestalde, non maiz agertzen baita sudurkari hau ahozko biezpainetako leherkariaren ordez.

Lehen esan dugun bezala, hobietako eta sabaiko sudurkariak ezpainetakoari oposatzen zaizkio nolabait esateko, azken honek beste biengandik duen askatasunagatik, edo bestela esanda, sabaikoak hobietakoarekin agertzen duen menpekotasunagatik. Izan ere hala da, sabaiko kontsonante bigarrenkaria bait da, hobietakoaren errealizazio bustia, eta fenomeno honen barreiadura geografikoak ere gauza bera erakusten du. Honek berez dakar, bestalde, hobietako sudurkariaren kolokatasuna.

Kolokatasun hori ez da hasiera absolutuan gertatzen, ziurtasun haundiz erabiltzen bait da hobietako sudurkaria hasieran: "nahas", "nabar". Alternantzia ere eman daiteke, metatesis edo, hasierako posizioan, "nabala", "labana", eta hitzaren barnean ere bai, "intxaur", "iltzaur". Alternantzia honi bi hots hauen artikula gunearen hurbiltasunak irekitzen dio bidea, eta euskalkietan ongi banatua agertzen da; guk aztertu ditugun hizketetan ez da oso berdin agertzen, joerak nabari diren arren lehen esan dugun bezala, baina ez dira joera orokorgarriak. Dena dela, alternantzia hauek ez gaituzte harritu behar, fenomeno honek ez bait du kokagune ziurrik diakronian, eta hasiera bateko forma eta ondorengo bilakabidea ere ez bait dira ezagutzen.

Hobietako sudurkaria aldabera da, zenbait arrazoi desberdin dela eta, garai historikoetatik. Lehenbizi, zenbait kasutan, disimilaketarako joerak kontsonantea galerazten duelako, hala nola "emain"-en aztertu ditugun hizketetan forma hedatua dena. Berdin galtzen da hitz elkartuetan lehen osagai bezala sartzen denean, "eguraldi".

Bigarren lekuan, -ez, ordea, garrantzi gutxiagoz-, sudurkariak aurreko edo ondorengo bokaletan, kasu bakoitzaren arauera, duen eragina gogoratu behar da, bokala sudurkarituz aurrena, eta gero kontsonante sudurkaria bera galduz, aintzinako mendeetan gertatu eta burutu izan zen bezala, bokalen sudurkaritasuna ere galdu delarik. Guk aztertu ditugun lurretan kontsonante sudurkaria ez da agertzen kasu horietan eta bokal sudurkaritua ere ez.

Azkenik, alderantzizko eragina jasan duten kasuei buruz hitz egin beharko genuke. Hau da, bokal sabaikariak kontsonante sudurkarian izan duen eragina kontsonantea sabaikari bihurtuz. Aztertu ditugun hizketetan emaitzak bokalaren izaeraren arauera aldatu dira. "I" sabaikoak ez du sabaiketarik eragin Zugarramurdiko hizketan, eta Amaiur-koan ere ez zenbait kasutan, eta gutxiagotan oraindik Gartzain-goan. Beste guztiek kontsonante sudurkariaren sabaiketa agertzen dute. "I" erdibokalak, berriz, erabat sabaitu du sudurkaria Gartzain-en, eta ia beti Amaiur-en, eta Zugarramurdi-n hobietakoak iraun du kasu horietan.

Ondorio bezala atera dezakegu, beraz, ikuspegi diatopikoz Zugarramurdi-ko hizkerak gorde duela hobietakoa sabaikari egin gabe, eta jokabide honekin beste behin ere Lapurterarenekin bateratuz. Amaiur-ko hizketak ere baditu zenbait berdintasun Zugarramurdi-koarekin.

Gainerako hizketek kontsonante sabaikaria ebakitzen dute edo beste hots batzukin alternantzia.

Ikuspegi fonetikoaz, beraz, sudurkarien sistema aski tinkoa dela esan dezakegu, zenbait alternantzia gertatzen bada ere; baina hauek inguruko hotsen eraginez gertatzen direla dirudi, eta

ez dute, gainera, ez erregulartasunik, ez banaketa zehatzik nahiz testuinguruari nahiz lurraldeei dagokienez.

### 2.4.3.6. Analisi akustikoa

Hots leherkarien sailkapen akustikoa egitean azaldu zaigun arazoa kontsonante sudurkarien kokapenarena izan da, sudur barrunbean zehar airea etenik gabe igortzen bait dute. Halere, ahoan duten hersketaz gainera, badituzte zenbait ezaugarri akustiko ahozko kontsonanteen idurikoak, esaterako bigarren eta hirugarren formanteen arteko iragaiteen abiadan eta norabidean; honek bultzatu ditu fonetistak kontsonante sudurkariak leherkarien sailean sartzera eta sail horretan ahozkoak eta sudurrekoak bereiztera. Kontutan izan behar da, bestalde, artikulazioaren ikusmiratik heskariak bezala hartuak izan direla ahoan duten hersketa dela eta. Ikus DELATTRE (1962,407-411) eta QUILIS (1981,189-190).

Kontsonante sudurkariak ongi bereizten dira artikula moduan ahozkoetatik, eta honek bere islada du formakinezko osagarrietan. Lehenbiziko formakina da, ahostasunezkoa alegia, FS1 aurrerantzean, izaera nabarmenena duena eta ahozkoetan baino maila askoz ee apalagoan agertzen dena. Honi esker berehala ezagutzen ahal da edozein kontsonante sudurkari, FS1-ek espektroan hartzen duen egoera apalagatik esan bezala.

Aztertu ditugun kontsonante sudurkarietan ez dugu desberdintasun nabarmenik aurkitu lehen formakin sudurkari honi dagokionez, eta ematen duen bataz-bestekoa 246 Hz-takoa da. Honen ondorioz, beraz, ahozkoetatik lehen iragaitean, I1-ean, bereizten dira. Ez dugu aurkitu, berriz, eskuarki behinik-behin, F1-en intentsitatearen jaitsialdirik bokalenarekin erkatuz QUILIS-ek (1981,214) dioen bezala.

Ezpainetako sudurkariak tinkotasunez eusten die altuera


berdintsuan hiru formakinei. Guk jaso ditugun bataz-bestekoak, forma kopuru aski mugatuan, 1.066 Hz-takoa da F2-rentzat eta 2.378-koa F3-rentzat. Ez dugu ingurune bokalikoaren edo hotsaren posizioaren eraginez sorturiko bereizketarik aurkitu. Iraupenak ere ez du aldaketa nabaririk jasan, bataz-beste 52-msg. eman bait ditu. Ikus Etxalar-ko lekukoaren (10.1) "matsa" hitzaren erabilpena. Begiratu kontsonante sudurkariaren eta ondorengo bokalaren formakinen arteko paralelismorik eza.

Hobietako sudurkariak beste sudurkariek bezala du FS1; FS2-k 1.394 Hz-tako bataz-bestekoa ematen du. Ikusi ahal izan dugu kontsonante sudurkari honen espektroek ez dutela antzik, orohar bigarren formakinaren maiztasunean eta, batzutan, hirugarrenarena ere falta izaten da. Iraupenari dagokionez, sudurkari hau hiruetatik laburrena da, 40 msg-tako bataz-bestekoarekin, ia gora-behera batzu ere baditu posizioaren arauera, egoera inplosiboan, neutralizatua gertatzen delarik hain zuzen, laburrago izan ohi da. Ikus (7.12) sonograma, "Nor haiz?", Aniz-ko lekukoak egina.


Sabaiko kontsonante sudurkariaren ezaugarririk bereziena, agian, maiztasun ertain eta altuetan ez duela batere seinalerik ematen izan daiteke. Ikus "ausina" Beunza-ko lekukoaren sonograma (10.2). Noiz-behinka marra horizontal bat agertzen da sabaiko sudurkarietan hirugarren formakin bokalikoaren altuerakoa, baina, esan bezala, ez da orokorki gertatzen. Iraupenari buruz, beste bi sudurkariekin erkatuz iraupen luzeena duena dela ikusi dugu, 113 msg-tako bataz-bestekoarekin.

Ez dugu, bestalde, bereiztasunik atera hobietakoaren izaera erretroflexuari dagokionez, F3-ren irregulartasunagatik batez ere, hartan somatu bait zitekeen, agian, horren arrastoren bat. SALABURU-k (1984,240) antza aurkitu omen zion berak deskribatzen duen sudurkari erretroflexuari amerikar ingleseko /r/ batekin (11). Desberdintasunak badituzten arren, interesgarritzat dut bien antz akustiko hori azpimarratzea, fonema biak oso berdintsu jasotzen bait dira eta espektroa ere oso idekoa bait da, DELATTRE-k (1951,91) ikusi zuen bezala egin zuen azterketaren ondoren.

Sudurkari hauen definizioak bereizteko, barreiatuak eta jarraikorrak direnez hirurak, beste ezaugarri batzu behar dira. QUILIS-ek gaztelanian egiten duena egoki datorkigula euskararako ere esango nuke, sistema bietako sudurkarien sailak oso iduriak bait dira. Honela lodia / ez lodia beeizketa egiten du, /m/ lodia delarik eta beste biak ez lodiak, bata, /n'/, zorrotza, eta bestea, /n/, ez zorrotza, azken honek espektroaren erdigunetan biltzen duelarik bere indarra, sabaikoak, aldiz, goikoetan.




(10.1)




(10.2)

# OHARRAK

(1) Orohar, esan daiteke latinezko "m-" hotsetik euskaraz "m-" sortu dela, honako hitz hauek adierazten duten bezala:

Lat. MAGIS > maiz
META(M) > meta
MERKE(M) > merke

Eta, latinezko ezpainetako hotsetatik, euskaraz "m-" gertatu da orokorrean:

Lat. VAGINA(M) > magi(ñ)a
VINDICARE > mendekatu

(2) MITXELENA-k (1977,276) honela dio:

"Acaso sea expresiva la p de **(h)aztapar** 'garra', vizc. **atzamar** 'dedo', si según la etimología de Mogel y Azkue procede de **(h)atz** y **(h)amar** 'diez'".

(3) Sudurkari eta albokari diren "n / l" hotsen arteko txandaketaren azalpenerako ikus albokarien kapitulua.

(4) Bokal arteko "-n-" sudurkariaren galera, aho-hersketa galduz eta ondorengo bokala sudurkarituz gertatu zen. XVI eta XVII. mendeetan aurkitzen ditugun bokalak egun arte mantenitu dira Zubereraz, eta Erronkarieraz ere bai euskalki hau galdu den arte. (Ikus bokalen kapitulua).

(5) Bokal arteko sudurkaritik datorren aspiraketa, "-n- > -h-", alegia, garai zaharreko aspiraketatik bereizi egiten da, konposatuetan sartzerakoan jatorrizko hots sudurkaria, edo leherkari hortzetako ahoskabea, berriro agertzen delako.

(6) Guk horrelako ordenan jarri arren, ez du horrek esan nahi bilakabidea nahitanahiez horrela izan denik. MITXELENA-k (1977,73) sudurkaria bigarren mailakoa dela uste du, eta, agian, **iger** / (B) **uger** 'nadar' hitzaren eratorria G. BAHR-ek, **RIEV** 19, (1928, 4 eta hur.), 27 (1936,111 eta hur.) defenditzen zuena onartzen duela dirudi. Egia esan, "i- / -u" bokalen alternantzia horren bilakabide geografikoa bat dator "nadar" eta "rana"-ren kasutan.

(7) "Baino" konparatiboaren emaitzak MITXELENA-k (1977,200) ematen dituen araueera hauek lirateke: (GN), (G), (GN) Elkano, (B) **baño,** (Aezk) **beino,** (Zar) **beño**, (R) **b(e)ino,** (Z) **béno,** (G) Burunda **baindo.**

(8) Albokari eta sudurkarien ingurumenak eraginiko bustiduraz MITXELENA-k (1977,196-197) honela dio: "todo indica que hay que dar la precedencia a la aparición de "ñ" en el grupo antiguo "-in-" más vocal: el estado intermedio tuvo que ser "i". Es al menos la palatalización más extendida y no parece demasiado atrevido afirmar que, en alguna época, fue común a todas las variedades de la lengua". Aztertzen dugun hitzari buruzko isoglosak azaltzen ditu: (B) **burdiña**, (GN) Elkano **burriña,** (R), (Zar) **burña**, (R) **burduña,** (Z) **bürdüña.** Jatorrizko ***burdina** batetik datozenak eta (BN), (L)-n eta idazle zaharrek, Leizarraga, Axular etabarrek, geroko despalatalizazioz sortutako **burdina** erabiltzen zuten.

(9) "Parece haber habido metátesis de la palatalización también en a.-nav., guip. mod. **manteliña** que en Larramendi **Corografia,** p. 181, aparece en castellano correctamente como **mantellina**. Leiç. tiene, sin palatalización, **mantelina** "penula, phelóne", en 2 Tim. 4.13", MITXELENA (1977,522).

(10) Testu zahar guztietan sudurkariarekin agertzen da: **Inzaur** Oihenart-ek, **ynsaur, Refranes y Sentencias**-en.

(11) Horrela definitzen ditu DELATTRE-k (1965,91) hots horiek:

"They are identified by ear as similar sounds,and both cause a lowering of the third formant on spectrograms. For the retroflexed /r/, the palatal constriction is produced by raising back the tip of the tongue toward the hard palate. For the bunched /r/, the palatal constriction is produced by raising the mid-dorsum of the tongue toward the hard palate, leaving the tip down or absorbed in the ball-shape of the mass of the tongue. Some American speakers use the retroflexed /r/ in all positions, others use the bunched /r/ in all positions. Still others use both types of /r/, and these speakers use the retroflexed /r/ in strong (prevocalic) position, and the bunched /r/ in weak (postvocalic or intervocalic) position".

## 2.5. LIKIDOAK

### 2.5.1. ALBOKARIAK

#### 2.5.1.1. Definizioak

/l/ fonema: Artikulatorioa: Albokaria, hobietakoa, ahostuna.
Akustikoa: bokalikoa, kontsonantikoa, barreiatua, jarraikorra, erretroflexua.

/l'/ : Artikulatorioa: Albokaria, sabaikoa, ahostuna.
Akustikoa: bokalikoa, kontsonantikoa, trinkoa, jarraikorra.

#### 2.5.1.2. / l / fonema

##### 2.5.1.2.1. Gertakizun fonetikoak

Hots albokariak, dardarkariekin batera, "likidoak" deitzen dira, eta bokal eta kontsonanteen artean daude, bai batzuen eta bai besteen ezaugarriak dauzkatelako.

Hobietako albokaria, orohar, hobietakoa izatez gain mihipuntakoa da; halere, hurrengo hotsaren eraginez alda dezake bere artikula puntua, eta, beraz, beste gertakizun fonetiko batzu izan ditzake, baina, berriz esan, ingurumenak eraginda, gertakizun nagusienak hauexek lirateke: [l̪] mihi-hortzetakoa hortzetakoaren aurretik doanean, [al̪dáre], eta sabaikoa, sabaikoaren aurretik doanean, [ál'ča] baina [álca].

[l] hotsa artikulatzeko mihipuntak, hobien atzetxoa ukituz, ez du airea pasatzen uzten, sabai bigunak sudurrerako bidea isten dionez, aireak ahoaren alboetatik atera behar du ezinbestean. Horrenbestez, ahokoa da, hortik datorkio albokari izena eta ahoskera bera ere berezia du.

Esan dugu albokari hobietakoaren artikulazioa mihipuntakoa dela, eta izan ere horrela da hizketa laxoan. Zainduan, berriz, erretroflexua gertatzen da. Horrela definitzen dute MC MURRAUGH-ek (1981,78) euskalki guztietarako eta SALABURUk Baztanerarako (1984,242). NAVARRO TOMAS (1925,629) ebakera horietaz ari zen zioenean:

> *"En la **l** final de sílaba, la parte anterior de la lengua toma, como en español, una posición ligeramente cóncava".*

Eta jarraitzen du (629. or, 2. oharra):

> *"El timbre cóncavo de la **l** se manifestaba principalmente en la pronunciación popular de B siempre que éste se expresaba con cierta lentitud y énfasis".*

Bi ebakera mota bereizten ditu ikusten denez, bata silaba bukaeran gertatzen dena, eta bestea lekukoarengan gertatzen da, ahoskera motaren arauera.

Jaso ditugun palatogrametan, guk ere hots erretroflexuaren ebakera bildu dugu, baina ez kasu guztietan, eta egoera explosiboan beti. Ituren, Erasun eta Larraintzar-ko lekukoek hots erretroflexua ebaki zuten, baina ez Baztango Gartzain-goak: egia esan, azken lekuko honek askoz ere erlaxatuagoa ebakitzen zuen dena.

DELATTRE-k (1965,90) zenbait hizkuntzetako erretroflexuak erkatzen ditu, eta ingleserako azaltzen duen "l" erretroflexuarekin guk ere jaso duguna erkatu dugu eta, **mutatis mutandis,** biek antz haundia dute elakarrekin. Gaztelaniako "l"-ren ahoskeraz azaltzen duena onartuko bagenu, berriz, ezin izango genuke Navarro Tomasek euskararako eta gaztelaniako "l" albokariaren erretroflexutasunaz diona onartu, guk jaso dugunez euskaraz mihia txokodunagoa gertatzen baita, eta, beraz, erretroflexuagoa.

Horrezaz kanpo ados gaude Navarro Tomás-ek hizketa zainduaren eta laxoaren artean eginiko bereizketarekin, beraz kimogra-

foz jaso zuenez guk palatalogramaren bitartez jaso ezin izan duguna (1925,629):

> *"El contacto apical sobre la zona de articulación da de ordinario en el paladar artificial una huella de unos 6 mm. de amplitud. En pronunciación suave y rápida este contacto suele reducirse hasta resultar incompleto en algunos puntos de dicha zona".*

Guk tresnen bitartez ezin izan badugu jaso ere, ohartu gara, hizkuntza laxoan edo zaindu gabekoan mihiak ia ukitu ere ez duela egiten ahosabaia. Gure ustez, ahoskera mota hau da garrantzitsuena, hizkuntza arruntarekin lotzen delako eta maiztasunaren aldetik ere hagitzik gehiago erabilia delako.

#### 2.5.1.2.1.1. Banaketa

Albokari hobietako hotsa posizio guztietan ager daiteke, hau da, hasieran, hitz barruan eta azken posizioan. Azken posizioan, eta garai zaharreko inguruko hizkuntzetan, iberoan eta akitanoan, alegia, ez omen zegoen horrelako hotsik azken posizioan, [-l]; alabaina, gaur egun, euskaran barra-barra ageri da: "azal", "aztal", "gibel", "odol", "sabel", etabar. G. N'DIAYE-k (1970,30) Amaiur-ko hizkeran jaso zuen korpusean kontsonanteen bataz-besteko maiztasunaren datuetan 34 aldiz agertzen zaio l hotsa hasierako posizioan eta 137 aldiz hitz barruan; bestalde, kontutan harturik denetara 21 hotsen sistema jasotzen duela, albokari hotsari 9. postua dagokio. Ez da, beraz, gutxitan gertatzen den hotsa, alderantziz baizik.

### 2.5.1.2.1.2. Aldaketak

Gertaera diakronikoetan:

Garai zahar bateko bokal arteko albokaria dardarkari biguna bihurtzen zen:

Mailegutan: Lat. ANGELUM >aingeru (ikus 120 eta 121 mapak)
VOLUNTATEM > borondate
GULA > gura
MILU(U)S > miru

Badira salbuespenak, normalean berandu hartutako maileguak direlako edo hizkuntza erromanikoen eraginez:

(GN), (BN), (G), (L), (Z) **olio**
(R), (Zar), (B) **orio**
Orok. **zeru**, (R) **zeuri,** (Z) **zelü**
Morfologian adlatiboa: **-(a)ra,** (Zar), (Z), **-ala, alat.**

Dardarkariaren disimilaketaz gerta daiteke, (R) eta (Z) gutxien aldatzen dutenak direlarik:

(B) **bera**r / besteetan: **bel(h)ar**
(B) **erur** / besteetan: **el(h)ur,** (Z) **elhür**
(B) **irar** / besteetan: **il(h)ar, illar**
(R), (B) **zirar** / besteetan: **zil(h)ar, zillar**

Konposaketan eta eratorketan albokaria hitz bukaerako dardarkari baten ordez ager daiteke, hitz konposatu edo eratorrietako lehenengo osagai gertatzen denean:

**aizkora → aizkolari, aizkolbegi**
**euskara → euskaldun**
**afari, bazkari → afaldu, bazkaldu**

Ez da kasu guztietan betetzen lege hau; baditu salbuespenak, batez ere, garai zaharreko hitz konposatu eta eratorrietan:

**buru → burko, bur(h)ezur**
Morfologian: **erori → eror, erortzen.**

Edozein modutan ere esan behar da albokaria hitz zahar askotan gordetzen dela dardarkari izatera aldatu gabe:

**bele, zelai, olo, ile, zulo,** etabar.

### 2.5.1.2.1.3. TXANDAKETAK

Albokari hobietakoa maiz gertatzen da hasierako posizioan, eta hitz zaharretan ere ageri da: **lau(r), lo(h)i.**

Halere, maiz gertatzen dira hots honen aldaketak, sudurkariz edo galduz: "l- / n- / Ø"

(GN), (L), (BN), (G), (B) **la(h)ar,** (Z), (B) Oñati **na(h)ar,** (R), (Zar),
(B) **nar,** (R) **ñar.**
Orokorra **larru,** (B) **narru**
(GN), (G), (B) **lapur,** (GN) Baztan **napur**

Bada beste txandaketa mota bat ingurumenak eraginik sortua, "i" bokalaren ondotik doanean albokaria sudurkari sabaikoaz alda daiteke:

(BN), (L) **elhar, ilharre,** (Z) **ílharre,** (GN), (G), (B) **iñarra,** (B) **giñarra, gindarra, kiñar.**

### 2.5.1.3. /l'/ fonema

#### 2.5.1.3.1. Gertakizun fonetikoak

Hobietakoan bezala, hemen ere [l'] hotsa ahoskatzeko aireak aldamenetatik edo alboetatik urten behar du, mihiak isten bait dio aho erditik irtetzeko aukera. Kasu honetan mihi-bizkarra da sabaiaren kontra jartzen dena, eta horrek hots sabaikoa egiten du.

Jarraikorra, beraz, hotsa segidan eta airea etenik gabe ateratzen delako. MC MURRAUGH-ek bi uneetan ahoskatzen dela zioen, horietatik lehenengoa erretroflexua delarik:

> *"Ahosabaiko **n** eta **l** (erderaz **ñ** eta **ll** idatziz) agertzen diren Euskal Herriko tokietan, ez dira sarritan gaztelaniazkoak bezala, konplexoak baizik. Modu desberdinez agertzen dira. Adibidez, euskal mailegu edo prestamo modernoetan batez ere, bi hots jarraitzen dira: lehena erretroflexoa eta bigarrena gaztelaniaz bezalako ahosabaikoa".*

Egia esan, guk ez dugu horrelako hotsik jaso, bi unetako hotsik, alegia. Hotsaren ahoskera hasten den lehenengo momentutik mihipunta ahoaren aurrekaldean dago, beheko hortzen hobietarantz hurbilduz; ez da, beraz, inola ere, erretroflexua. Bestalde, mihiak sortzen duen hersketaren ondorioz agian, irudi dezake bi momentutan ebakitzen dela hotsa, baina ez dago horrelakorik, dena batera gertatzen den ebakera bait da.

"Olo / ollo" ; "zala / zalla" dira aurki daitezkeen bikoteetariko batzu, eta horiek egiaztatzen dute sabaiko hots honek gaur egun duen nortasun propioa. Nolanahi ere, hainbat kasutan, ingurumen fonetikoen eraginez /l/ hobietakoaren gertaera bat besterik ez da. Ingurumen horiek hauek lirateke:

- Bokal osoaren edo erdibokalaren ondoren:
  [il'ar], [mutil'a], [gaɹ̯l'ur]
- Sabaiko kontsonante baten aurrean:
  [bil'd'ur]

### 2.5.1.3.1.1. Banaketa

Hasierako posizioan oso urri eta hitz adierazkorretan batipat agertzen da: "llabur", "llo". Azken posizioan ere gerta daiteke euskalkien arauera, baina beti ingurumenak bultzatu behar du albokaria bustitzera: "hill".

Dena den, oso murritza da hots honen erabilera gure sistema-man, Amaiur-erako N'DIAYE-n jaso zituen datuetara buelta eginez, (1970.30-31), hitz hasieran inoiz ez du jasotzen eta hitz barruan, berriz, 12 aldiz, maiztasun osoan 21-etik 20-garrena geldituz.

### 2.5.1.3.1.2. Bustidura automatikoa

Lehen esan den bezala, "i" bokalak nahiz erdibokalak, albokari hobietakoaren aurretik doanean, busti dezake albokaria. Ez da, haatik, euskalki guztietan berdin gertatzen ez eta euskalki batean ere, erantzun ezberdinak edonon jaso bait daitezke. Halere, salbuespen larrienak (L), (BN) eta (Aezk)-n gertatzen dira, eta, neurri batean (G)-ren Nafarroako azpi-euskalkian ere bai. (Z), berriz, tartean gelditzen da, bietara jokatzen bait du.

Aipatu ditugun bustidurarik gabeko euskalkiek sabaiko hotsak desabaikatu ere egiten dituzte "i" bokal sabaikaria sortuz:

**botella → boteila**
**ollo → oilo**
**tellatu → teilatu**

Beste batzutan bustidura "i" bokalik sortu gabe gal daiteke:

Lat. ACULEUS > (Z) **akhüllu,** (B), (GN) **akullu,** (B) **akillo,** (BN) **akulu,** (L) **akilu.**

Lat. SUBSELUM > orok. **zizallu,** (Z) **züzülü**

Dena den, ezin daiteke esan emaitza tinkorik gertatzen denik hobietako eta sabaiko albokarien artean. Aldaketak eta zalantzak asko gertatzen dira, eta arrazoi garbirik gabe sarri askotan. Euskalkien arauera bada gertaera berezirik, eta batzutan badirudi aisago bustitzen dela erdibokalaren ondoren doanean albokaria, bokal osoaren ondoren joaten denean baino; hala ere, egun, eta dauden datuekin, ez dago inolako sistematizaziorik lortzerik.

Diakroniari begiratuz, badirudi *lj talde zahar batek **l'** eman duela:
(Zar) **lioba,** (R), (Z) **lloba;** (GN), (BN), (G), (L) **il(l)oba,** (Aezk) **eiloba.**

"l" erdibokalaren "i" bokal osoaren ondoren baino maizago gertatzen dela bustidura esan dugu, eta hori euskalki guztietan gertatzen da orohar, (BN) eta (Aezk)-z izan ezik. Bokal osoa denean ere bustitzen da, baina ez (Aezk), (BN), (Zar), Hg (GN) eta (R)-z.

Azkenik, [l'] hotsaren balio espresiboa nabarmendu behar da dardarkariaren aldaki bezala, batez ere ekialdeko euskalkietan: "bero" → "bello"; "hori" → "holli".

### 2.5.1.4. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

/l/ fonema
1. Distribuzioa:
    - Hitz hasieran:
        oilo luma - hiru oilo luma
        lahar - hiru lahar
        lasai
        larru - hiru larru
    - Hitz barruan:
        belar - belar gutxi
        elur - elur gutxi
        ilar - hiru ilar
        zilar - zilar gurxi
        ilargi - hiru ilargi
    - Txandaketak eta disimilaketak, ikus goikoak.

/l'/ fonema
- Distribuzioa:
- Hitz barruan:
    botila - hiru botila
    teila - hiru teila

oilar - hiru oilar
iloba - hiru iloba
bilatu

2. Bustidura adierazkorra:
hori - kolore hori hau
l(l)o egin

### 2.5.1.5. Jaso diren emaitzen analisi fonetikoa-diatopikoa

### 258A LUMA - 258B HIRU OILO LUMA (397-398)

"Luma" lexema hobietako albokaria hitz hasieran nola erabiltzen den ikusteko jarri genuen, baina "oilo luma"-rena igurumen egokiagoa iduritu zitzaigun, albokaria barnean gelditzen baita. Maileguzko hitza da eta "pl-" taldetik dator eta "l" bilakabidea izan du eskuarki. Halere, "pluma" ageri da Ultzamako Auza eta Goldaratz-en, baina, ziurrenez, gazteleraren eraginez izanen da.


Azaltzen diren bereizketak "oilo" hitzari dagozkio, bustidurarik gabeko formarekin Zugarramurdi-n, gainerako guztietan forma bustia egiten delarik. Elkarketan ere bada alternantziarik: "olloluma", "ollaluma" alde batetik eta "olloanluma", "ollunlume" bestetik. Forma mugagabeko erantzunetan askoz ere ugariagoa da "luma" soilik "iru" zenbatzailearekin, eta emaitzak mugatuan bezelakoak izan dira.

**259A LAHAR - 259B HIRU LAHAR (399-400)**
**260 LASAI (401)**
**261A LARRU - 261B HIRU LARRU (402-403)**

Hitz hasieran albokaria mantenitzen da ustez zaharrak diren hitzetan: "lau eguzki" (27), "le(h)en" (165), "le(h)un" (105<0, "lei(h)o" (86), baina ez beti albokari bezala, lehen ikusi dugun bezala.

Aztertu dugun lurraldean, euskalkiz Goi-Nafarrera egiten den lekuetan, lehenbizikoari dagokionez espero genuen emaitza jaso dugu: **lá:rra** eta **larra.** Zugarramurdi-n eta Bortzirietako Donamaria-n bokal luzeaz; eta Zugarramurdi-ko B lekukoak aspiratuz "laharra". Emaitza berdinak forma mugagabeetan, baina bokal luzearen ahoskera Beunza-n ere jaso da.

Dena berdintsu "lasai" hitzerako. Hitz honetan, ordea, hobietako hotsaren artikula modua aldatu egiten da lekuen araueera **nasai** ere entzuten bait da, batez ere (L), (BN), (B)-z. Guk aldaki ugari jaso ditugu, baina denak bokalei dagozkienak: **lasai, lasaia, laso, laxo, leso** eta **lixo.** Beste horrenbeste esan behar da larru hitzari buruz ere. Baina inon ez dugu **narru** jaso; izan ere, forma hau (B)-z gertatzen dena bait da. Nafarroa-n azterturiko herrietan beti "l-" forma aurkitu dugu mugatuan nahiz mugagabean.




BELARRI / BEGARRI / BEARRi (158)

**262A BELAR - 262B BELAR GUTXI (404-405)**
**263A ELUR - 263B ELUR GUTXI (406-407)**
**264A ILAR - 264B HIRU ILAR (408-409)**
**265A ZILAR - 265B ZILAR GUTXI (410-411)**
**266A ILARGI - 266B HIRU ILARGI(410-411)**

Ikusi dugun bezala, beste hots batzuekin albokariek dituzten txandaketak ez dira hitz hasieran bakarrik gertatzen, hitz barruan ere agertzen dira. Bizkaiera da, normalean, dardarkariaren ahoskera daukana eta, horren parean, hurbilkari hortzetako ahostunarena: "belar / berar / bedar", Iparraldean "belhar" ere ager daiteke. Berdin "elur / edur / erur / elhur" (1). Gure mapetan denetan albokaria agertzen da.

"Ilar", "ilargi" eta "zilar" hitzek, beste batzurekin batera, talde berezia sortzen dute, "i" bokalaren jarraian bait dute albokaria. Multzo honek txandaketa berdina du beste hotsekin, "l / r / d" hotsekin, alegia; baina, horrez gain, sabaikatu egin daiteke sabaiko bokalaren ondoko albokaria. Gertatu ere, horrela gertatu da guk aztertu dugun lurraldean: "illarra", "illerra", "illarbilla", "marratzillarra" dira jasotako aldakiak, denetan albokari sabaikoa eginez, eta horien parean Zugarramurdi dugu, "etzilarra" formaz, sabaikatu gabekoa eta bakarra.

"Zilarra"-ren kasuan bustidurarik gabeko forma Baztan aldera hedatzen zaigu: Zugarramurdi, Amaiur eta Gartzain-era. Beste horrenbeste gertatzen da "ilargi" lexemarekin: Zugarramurdi, Amaiur eta Gartzain-en busti gabeko formaz ahoskatzen bait dute.

Disimilaketak gertatzen dira mapetan jasotako beste hitz batzutan ere, azterturiko lurraldean ez bada gertatzen ere:

arraultza / arrauntza (B) (98)
elkar / alkar / arkal (B) (36), (metatesiarekin)
alfer / alper / arpel (B), (metatesia gertatuz) (305)

Sudurkariarekin ere txandakatuz:

iltze / itze / ultze / untze (B) (8)
ikatz / ink(h)atz (Z), (B) Zigoitia (192)

Gure mapetako emaitzak hauek dira: hots albokaria gordez, **arraultza, elkar, alfer,** silaba trabatuan eta azken posizioan doanean hain zuzen, **iltze**-ren kasuan zero formaz alternatzen du; eta, **belarri / begarri / bearri** eta ondorengoak mapan ageri den banaketaz.


Azkenik, "ikatz" hitzean ez da batere kontsonante epentetikorik sortu.


**276A BOTILA - 276B HIRU BOTILA (414-415)**
**270A ILOBA - 270B HIRU ILOBA (420-421)**
**271 BILATU (422)**

Lehen aztertu ditugun "zilar", "ilargi" hitzen mapetan ikusi dugu albokaria berez busti dela, ingurumenaren eragin hutsez. Joera normala hori da, "i" bokal oso edo erdibokalaren jarraian doan albokari hobietakoa sabaiko bihurtzea. Baina salbuespenak ere badaude, banaketa geografikoa duten salbuespenak: horrela, "botella", gaztelerako hitz mailegua, euskarak "botilla" egin ohi du orokorki, eta despalatalizaziorako joera arestian aipaturiko lekuetan ageri da, "boteila", "botoila". Gure mapan "botila" Baztango Gartzain-en jaso dugu, eta "botoila" Zugarramurdi-n. Beste toki guztietan forma bustia edo sabaikoa. Mugagabean ere mantenitzen dira emaitzak, Baztango Aniz-en izan ezik, "iru botil"-ekin bat egiten bait du Zugarramurdi eta Gartzain-ekin.

"Iloba" kasua ez da hain nabarmena, ez bait da despalatali-

BUSTIDURA AUTOMATIKOA



zatzen. Hala ere, isoglosa berdina sortzen du (2); Zugarramurdi-k eta Baztango Amaiur-ek albokari hobietakoarekin ebakitzen dute, eta beste guztiek albokari sabaikoa. Mugagabean ere berdin.


"Bilatu" aditz partizipioak eremu zabalagoa hartzen du busti gabeko formari dagokionez: Zugarramurdi, beti bezala; Baztango Amaiur eta Gartzain; Bortzirietako Sunbilla eta Ultzamako Larraintzar.


**268A TEILA - 268B HIRU TEILA (416-417)**
**269A OILAR - 269B HIRU OILAR (418-419)**

Ikusi dugu "i" erdibokalaren ondoren doan albokari hobietakoa erraz busti ohi dela. Halere "teila" hitzean despalatalizatu egin da Zugarramurdi-n; besteetan "tella" nahiz "telle" egiten dute. Gauza bera mugagabean. Eta emaitza berdinak "oilar" hitzean ere: "oilarra" Zugarramurdi-n eta "ollarra" beste guztietan.

Beti garbi agertzen da, beraz, isoglosa aztertu dugun lurraldean. Bustitzen ez duen leku bakarra Zugarramurdi da, ez duelarik gainera inoiz txandaketarik edo forma bikoitzik sortzen. Baztango Amaiur-en kasuan ageri zaigu zalantzarik kasu bakanen batean, eta Aniz-en ere bai behin. Biak Baztango azpi-euskalkikoak dira eta Zugarramurdi-tik aski hurbil daude; edonola ere, hauen joera nagusia hots bustiak ahoskatzea dela esan behar da.

BUSTIDURA AUTOMATIKOA



**272A HORI - 272B KOLORE HORI HAU (423-424)**
**273 L(L)O EGIN (425)**

Azkenik, kasu berezi bat jaso nahi izan genuen: albokari sabaiko kontsonantea aldaki adierazkor bezala. Bigarren mailakoa da, hortaz, eta zenbait euskalkitan, (Zar), (Z), gertatzen dela esan ohi da, baina mugak ez dira ondo ezagutzen. "Hori"-ren kasuan, bagenekien Nafarroa-ko guk aztertzen dugun lurraldean ez genuela jasoko, baina galdetzera behartuak geunden.

Gertatu ere, uste bezala gertatu zen: "hori"-ren kasuan ez genuen "olli"-rik jaso; baina uste dugu ama batek esango liokeela bere haurtxoari, balio adierazkorrez, jakina. Gu mugitzen ginen giroan, ordea, grabaketa egiten eta jende nagusiaren artean, nahiko adintsuak gehienak, oso zail ezezik ezinezko ere gertatzen zen horrelako bitxikeriak jasotzea. "Llo"-ren kasuan jaso dugu forma bustia, baina hemen ez da dardarkariaren aldaki adierazkorra, albokariarena baizik. Edozein modutan, ez dugu uste eman ditugun isoglosak aipatzerik merezi duenik, ez bait dute egoera errealik azaltzen.

### 2.5.1.6. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Aztertu dugun lurraldean albokarien sistemak ez du nabarmentzen duenik ezer, mantenitzea bait da, orohar, gertakizunik nagusiena. Nortasun gutxikoa da sabaikariari dagokion egoera, beti aurreko hotsaren mende bait dago.

Hobietako albokaria da tinkoena, batez ere hasierako posizioan gertatzen denean ondo mantenitzen da, eta kasuren batean bigarren mailako hotsa bihur daitekeena, "nabala" - "labana", gehienetan metatesia dela bide. Bigarren mailakoa ere izan daiteke hitz barruan gertatzen denean, "beharri"-ren kasuan bezala. Baina posizio honetan ere kontserbatzea da gertaerarik arruntena, batez ere posizio explosiboan doanean. Ez da berdina bere egoe-

ra posizio inplosiboan, galdu egiten bait da horrelakotan, "iltze", "itze" kasuan gertatzen den bezala, (8) eta (9) mapak.

Alabaina, hobietakoarentzat egoerarik larriena bokal sabaikariarekin joaten denean gertatzen da, ingurune horretan busti egiten delako sabaikoa bihurtuz. Eta alderantziz, sabaiko albokaria ingurune horren beharrean aurkitzen da hizkuntz mintzatuan agertu nahi badu. Hortik jarraitzen da sabaiko albokaria bigarren mailakoa izatea batetik, eta hain gutxitan agertzea bestetik.

Azkenik, garai zaharrean bi fonema zituen sail honek, "L" eta "l", alegia, oraindik mantenitzen du, aztertu dugun laurraldean, haren oihartzunena edo "olio"-"orio" eta horrelako forma bikoitzetan, beti distribuzio geografiko batez; baina kasu bakanak dira eta ez dute toki bakoitzeko sistema urratzen.

Komentagarria litzateke goian esandakoa eta artikulaketari dagokiona, erretroflexua izatea hizketa motan datzala, hizketaren tentsioan, alegia. Horrek ez du esan nahi hizketa laxoan gertatzen den hotsak, hain ebakera ahulekoa izan arren, galtzeko edo aldatzeko joerarik duenik.

Ikuspegi diatopikoz, isoglosa bat gelditzen da aski zehatza, eta Zugarramurdi-ri dagokio, erabat falta bait du sabaiko albokaria. "l" erdibokala badarama ere alboan, Zugarramurdi-n hobietako albokaria ez da bustitzen; beste gehienetan, berriz, sabaikoa ahoskatzen da. Honek baieztatzen digu, bidenabar, aurretik ere somatzen genuena, hau da, "i" erdibokalak ondorengo kontsonantea bustitzeko duen ahalmena. "l" bokal osoak, aldiz, ez du hainbesteko eraginik, toki gehiagotan agertzen bait da hobietako albokaria sabaikari egin gabe "i" bokal osoaren jarraian. Zugarramurdi-rekin batera Amaiur sartzen da isoglosa horretan, eta Gartzain mugan gelditzen da bietariko gertaerak dituelarik. Bustiduraren kasuan, beraz, sudurkariekin ere erkatuz, nahiko isoglosa garbia sortzen da, Zugarramurdi delarik bustidurarik gabeko euskalkietara begira dagoena. Eta, alderantziz, aztertu dugun lurraldean berriro ere beste lekuetatik hizkera motan bereizten dena.

## 2.5.2. DARDARKARIA

### 2.5.2.1.Definizioak

/r/ fonema: Artikulatorioa: dardarkari bakuna, mihipunta-hobietakoa, ahostuna.
Akustikoa: bokalikoa, kontsonantikoa, etenkari bakuna.

/r̄/ : Artikulatorioa: dardarkari anitza, mihipunta-hobietakoa, ahostuna.
Akustikoa: bokalikoa, kontsonantikoa, etenkari anitza.

#### 2.5.2.1.1. Banaketa fonetikoa

Dardarkariak, albokariekin batera, fonema likidoak dira, lehen esan dugun bezala. Dardarkari izena, bestalde, mihiak egiten duen dardaratik dator. Mihipunta hobien kontra jartzen da eta airearen indarrak mihia behin eta berriz mugiarazten du dardara sortuz. Ikus nola azaltzen duen gaztelerako dardarkari anitzaren artikulaketa NAVARRO TOMAS-ek (1968,122):

> *"En el mismo instante en que la lengua toca los alvéolos, es empujada con fuerza hacia fuera por la corriente espiratoria; rápidamente su propia elasticidad le hace volver al punto de contacto; pero de nuevo es empujada hacia fuera con igual impulso, repitiéndose varias veces este mismo movimiento".*

Eta euskararako zehazki, dardarkari anitzaren ebakera horrela azaltzen du (1925,632):

*"La **rr** intervocálica consta, por lo común, de tres o cuatro vibraciones. En pronunciación fuerte, estas vibraciones suelen ser cinco o seis. En pronunciación suave y rápida se reducen a dos. La pureza y claridad de estas vibraciones varía también con la fuerza de la articulación. En algunos caso el contacto repetido ápicoalveolar no llega a producir oclusiones completas".*

Dardarkari bakuna, /r/, gertaera fonetikoetan ahostuna da, kasu askotan ez da dardarkari gertatzen, hurbilkari baizik, eta erlaxatu samarra. Hots honi buruz ikus NAVARRO TOMAS-en deskribapena (1925,630):

*"El aire espirado no produce roce ninguno perceptible entre la lengua y los alvéolos. En este sentido, la denominación de fricativa sólo viene a significar que no se trata en realidad de una **r** vibrante. La intervención de la glotis es plenamente sonora. En pronunciación suave y rápida, esta **r** se reduce con frecuencia a un leve movimiento articulatorio próximo al timbre y a la abertura de una simple vocal".*

Horretaz oharturik erabaki genuen "hurbilkaria" bezala hartzea eta definitzea.

Bi dardarkarien arteko oposaketa bokal artean bakarrik, hitz barruan gertatzen da, eta ugaritasun haundiz gainera: "ari / arri"; "ere / erre"; "ero / erro", "gori / gorri"; "zoro / zorro".

Hitz hasieran dardarkaria ez da sekula gertatzen, (R)-z edo zenbait kultismotan izan ezik. Hitz maileguetan bokal protetikoa hartzen da: "errota", "errege", "arrosarioa".

Hitz bukaeran, berriz, neutralizatu egiten da eskuarki. Arruntena bi edo hiru dardara egitea da, baina hizketa arin edo bizian bat bakarrik izan daiteke edo igurzkari ere gerta daiteke. Edozein modutan, aldaketak izan ditzake, mintzaleen eskuetan

baitago haren artikulaketa. Hortik jarraitzen dira gertatzen diren txandaketak:

**antzar:** (B) "antzarra", (G), (GN), (L) "antzara", (BN), (Z) "anzera".
**bihar:** "biarrera", baina "bi(h)aramun".
**ater, aterpe:** (B) "aterri", Ek. "ateri".

Bokalarteko posizioan "r" dardarkari bakunak, anitzarekin oposatu arren, gertaera ezberdinak eduki ditzake. HOLMER-ek (1968,96) "d" leherkari hortzetako ahostunarekin antz eta harreman haundiak dituela dio, **giso'nari** eta **gisonadi,** igurzkaria ez baina leherkari gertatzen den "d" bati hurbilduz .

MITXELENA-k (1977,190) (R)-z kanpo Gipuzkerarako, Goierriko lurralde batzutarako, dardarkariaren ahoskera berezi bat seinalatzen du, "udda" eta antzerako hitz batzutan "dd" leherkari bat ahoskatzen dutelarik.

NAVARRO TOMAS-ek, aldiz, (1925,630) dardarkari bakunaren ahoskera, patxadaz hitz egiten denean, igurzkari luze batena dela dio, ateza eta itsia, bokalen arteko hortzetako "d"-ren modukoa.

### 2.5.2.1.2. Banaketa dialektala

Dardarkarien errealizazioa ez da berdina euskalki guztietan. Iparraldea ageri da bereziena puntu honi buruz: bi ebakera mota dituzte baina dardarkari bakuna eta anitzaren arteko oposaketa galtzen ari da, GAVEL (1920,239). Bestalde, gero eta gehiago ikusten da artikulaketaren atzeratzea, batez ere dardarkari anitza erabat ubularra egiten bait dute. Hau (L)-z eta (BN)-z gertatzen da batipat, eta aspiraketarekin ere erraz nahasten da: "arotza", (BN) Amikutze "ahotza".

(Z)-k beste aldaketa bat izan du. Bi fonemen arteko oposaketa erabat galdu da eta fonema dardarkari bakarra gelditu da. LARRASQUET-ek, (1934) eta (1939), zehatz azaltzen du euskalki horretako egoera. Hauxe nabarmenduko genuke bereziki: dardarkari biguna bokal artean eta aspiraketaren aurrean galdu egin da; hortaz, galera sistematikoa da salbuespenen bat kenduta. Diptongoaren ondoren doanean, "d", hortzetako hurbilkari ahostuna bihurtzen da.

Hegoaldeko euskalkietan bokalarteko dardarkari biguna ez da beti galdu, baina bada joera aski hedatua hots hori galtzeko ingurumenak ekartzen dion ahultasuna dela eta.

### 2.5.2.1.3. Txandaketa

Dardarkari bakuna eta anitzaren artean txandaketa gertatzen da, anitzaren alde beti:

Egoera inplosiboan, kontsonante aurrean:

"ar-" erakuslean: (G) "arrezkero"
(GN) "arrek", "arren" (genitiboa)
(GN), (G), (B), (L) "er(h)aztun", (Z) "e(r)haztün", (G) "erraztun", (L) "erreztun".
"perexil", "perrexil"
"bar(h)e" → (B) "barraskillo", (G) marrakurrillo, (GN), (G) "barakurkullo"

### 2.5.2.1.4. Kontserbazioa eta galera

Dardarkari bakuna gordetzen da "u" bokal osoaren edo erdibokalaren ondoren, eta "o" bokalaren ondoren ere bai, batez ere silaba bakarretako lexemetan:

"nor", "zer", "hur", "zur"
"(h)aur"
"hirur", "laur".

Mailleguetan ere bai:

"plater", "paper".

Konposaketan galdu egiten da konposatuaren bigarren osagaia kontsonantez hasten denean; bokalez hasten bada, berriz, galdu egin daiteke edo "h" edo "g" hotsez aldatu:

"ur" → "ugalde", "ugarte"
"zur" → (GN), (L), "zu(h)aitz", (G), (B) "zu(g)aitz
"lur" → "lupeko", "lubizi"
"hamar" → "hamaika", "hamabi"
"belar" → "belategi", "belagi"

### 2.5.2.1.5. Neutralizazioak

Dardarkari bakuna eta anitzaren arteko oposaketa neutralizatzen da hitzaren azken posizioan eta kontsonante aurrean. Neutralizazio horretatik sortzen den artxifonemak ez du artikulaketa zehatzik, gehienetan dardarkari anitz bezala egiten bada ere, hau da, mihia behin baino gehiagotan dardaratuz.

### 2.5.2.2. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

1. Distribuzioa:
   - ore - ore gutxi
   - ura - ur gehiegi
2. Txandaketak lexemetan:
   - eraztun - hiru eraztun
   - perrexil - perrexil gutxi
   - ateri - atertu
   - antzara - hiru antzar
   - orio - orio gutxi
3. Txandaketak fonosintaxian:
   - ugalde - hiru ugalde
   - lurpeko - lurpin
   - aizkolari - hiru aizkolari

### 2.5.2.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetikoa eta diatopikoa

Aurreko mapetan jaso ditugun kasuetatik hauek nabarmenduko genituzke: "Ari" (158), (159), 'hilo' eta "are", 'arado'(160), (161) han ikusi zen bezala nahastu egiten dira, bai forma mugatuan bai forma mugagabean, hauetan gutxiago. Eta, ingurumen gramatikal ezberdinekoak izan arren, "ari" (162), 'estar haciendo algo", formarekin ere bat egiten dira. Hauekin batera "ahari", (50), (51) 'carnero', ere aipatzekoa da, besteekin batzen bait ditu emaitzak Nafarroako lurralde hauetako zenbait lekutan.

Ezberdintasunik larrienetako bat, aipatu ditugun lau forma hauetatik "ari" (162) aditz perifrasietako formak duena litzateke, bokalarteko dardarkari bakuna galtzeko joera aparta duelako.

Hauekin oposaketan "(h)arri", 'piedra' (2), (21), genuke, dardarkari anitzak balio bereizgarria bait du bakunaren parean.

**Protesia**

Euskal hitzak dardarkariz hasten ez direnez, beharrezko dute bokal protetikoa hartzea, lehen esan bezala. **Arratoi** (132), (133): protesi horren tinbrea, kasu honetan hitzaren lehenbiziko bokalarena bada ere, ez da beti horrela izaten; "e" izan ohi da gehienbat. Hitz honetan indukzio fenomenoa ere sortzen da, lehenengo dardarkariaren eraginez, "arratore" ahoskatuz maparen Hegoaldeko lurraldean: Ultzamako azpi-euskalkian, Auza, Larraintzar, Beunza, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en eta Arakilgoan Aldaz-en.


**274A ORE - 274B ORE GUTXI (426-427)**
**276A ERAZTUN - 276B HIRU ERAZTUN (430-431)**
**276A PERREXIL - 277B PERREXIL GUTXI (432-433)**
**278A ATERI - 278B ATERTU (434-435)**
**279A ANTZARA - 279B HIRU ANTZAR (436-437)**

Hitz barruan banaketak, dardarkari bakun eta anitzaren artean, zenbait kasutan balio bereizgarria du. Baina ez da beti horrela gertatzen. Alternantziako kasuak nahiko ugariak dira, gehienetan euskalkietan banandurik badaude ere:


"Ore" hitzean, Iparraldeko Zubereraz aspiraketa hutsa geldi-tu da, dardarkari bakunak, "rh" taldean bait zuen bere lehenengo ahoskera (3). Horrela, **ohe** ahoskatzen dute, beste **ohe,** 'cama', hitzarekin bat eginez. (G)-z eta (Aezk)-z darkarkari anitzarekin alternatzen du: **orre.**

Gure mapetan: "ore" da ahoskera arrunta eta toki denetan egiten dena. Forma mugatuetan Bortzirietako Oronotz-Mugaire, Etxalar, Arantza, Sunbilla, Ituren eta Donamaria-n "ori"-rekin, 'amarillo', nahasten dute, armonia bokalikoa dela bide.

ERAZTUN (430)




PERREXIL (432)



Kasu berdintsua gertatzen da hurrengo hitzarekin:

Zubereraz "ehaztun" (4), "rh" taldetik datorrena, ahoskatzen den bitartean, beste euskalki batzutan dardarkari anitzarekin ebakitzen da: "erraztun" (G), (Aezk). Dardarkari bakunak albokariarekin alda dezake ebakera: "eleztun" (B), (G)-z.

Gure mapetan agertzen den forma nagusia dardarkari bakunarekin da "eraztun", Zugarramurdi, Arraiotz, Gartzain eta Aniz, Baztango azpi-euskalkian; Etxalar eta Arantza Bortzirietakoan; eta Auza eta Beunza Ultzamakoan. Bokalarteko dardarkari bakun hori galduz: Bortzirietako Erasun-en, Arakilgo Aldaz-en, Ultzamako Arraras, Beramendi, Goldaratz-en eta Baztango Amaiur-en. Azkenik, "-r- > -d-" aldaketa eginez, Bortzirietako Sunbilla eta Ituren-en eta Ultzamako Larraintzar-en.

Dardarkari bakuna eta dardarkari anitzaren arteko txandaketa bera aurkitzen dugu "perrexil" hitzean gure mapetan (5). Dardarkari anitza bada ere formarik hedatuena, zenbait tokitan sakabanatua bezala dardarkari bakunaren ahoskera entzuten da: Bortzirietako Sunbilla eta Oronotz-Mugaire-n, batetik, eta Larraintzar-en, Ultzamakoan, eta Aldaz-en, Arakilgoan, bestetik, forma mugatuetan.

Forma mugagabean, aldiz, ia erabat aldatzen dira tokiak: aurrekoetatik bat bakarra gelditzen zaigu dardarkari bakunez: Aldaz. Bestalde, Gartzain, Erasun eta Arraras dira, kasu honetan, dardarkari bakuna dutenak. Dena dela, polimorfismo hutsa dela iduritzen zaigu, ebakera bat nahiz bestea funtsezko arrazoirik gabe gertatzen direla bait dirudi.

Txandaketa bera, dardarkari anitza eta bakunaren artekoa, gertatzen da (B) "aterri" eta "antzarra" kasutan. Guk, mapetan, bakuna jaso dugu kasu guztietan eta inoiz erlaxatua ere bai, guk hurbilkaritzat hartzen duguna.

"Atertu" hitzean dardarkaria silabaren azken posizioan gelditzen da, beste kontsonante baten aurrean, eta neutralizatu

egiten da; neutralizazioa kasu honetan dardarkari bakunaren aldekoa dela uste dugu. Azken posizio absolutuan gertatzen denean, berriz, ikus "(h)iru izter" (31), "(h)iru bular" (207), "(h)iru intxaur" (284), gogorragoa dela uste dugu.

### 275A URA - 275B UR GEHIEGI (428-429)

Ez dugu guk "dd" hotsik jaso hitz honetan, denek dardarkari bakunaren ebakera dute eta Auza-k erlaxatu edo bigundu egiten du, hurbilkaria gertatuz.

Honen parean "edan" aipatuko genuke, hemen alderantzizko bidea egiten delako "-d- > -r-". Azken finean, artikulazioaren aldetik oso antz haundia dute biek: artikulazio puntua ia bera dute, hobietakoa, alegia; dardarkaria ere oso maiz gertatzen da hurbilkari; eta jausteko joera ere badute biek.

#### Beste txandaketa batzu

Dardarkari bakuna eta hurbilkari belare ahostunaren arteko txandaketa, **eguzki** (26) hitzean gertatzen da, eta **arotza** (57) forman ere bai Baztango Amaiur eta Gartzain-en eta Ultzamako Goldaratz-en.

Posizio honetako dardarkaria, bokalartekoa, alegia, oso tinkotasun gutxikoa izan ohi da; hurbilkari izatetik maiz jotzen du galtzera. Adibideen zerrenda ugaria da; hona banaka batzu: kerats (28), (29); denbora (71),(72); **goroldio** (73), (74); **ari naiz** (162); **iratzarri** (353); **mezpera** (363).

## 280A ORIO - 280B ORIO GUTXI (438-439)

Maileguzko hitz honetan dardarkari bakuna, egun, (B)-z, (R) eta (Zar)-z mantenitzen da, baina beste euskalkietan albokaria gertatzen da. Nafarroa-n aztertu dugun lurraldean ere albokari bezala ebakitzen da.

Beste horrenbeste gertatzen da "zeru" (339), (340) hitzarekin. Maileguetatik kanpo, morfologia mailan, adlatiboko morfemarekin: "-ra / -la" eta horien eratorriak. IKus: "(h)erria" (185), "besora" (198), "eskura" (203). Gure kasuan beti dardarkaria ageri da.

## 281A UGALDE - 281B HIRU UGALDE (440-441)
## 282A LUPEKO - 282B LURPIN (442-443)
## 283A AIZKOLARI - 283B HIRU AIZKOLARI (244-245)

Konposizioan sartu diren hitz zaharretan dardarkaria galdu egin da (16). "Ugalde" hitzean forma orokorra "ugalde" eta "ugelde" badira ere, baditu beste erantzun batzu ere aztertu dugun lurraldean. Arakilgo Aldaz-en "uralde" eta Zugarramurdi-n "ualdea" -Ituren-go toponimia xehean ere hitz hau dokumentatzen da-, azken hau, nahiz "ugalde" nahiz "uralde"-tik etor daitekeelarik. Bereziagoa da Arraras-ko "uarrate"; lexema berria beste elementu batzurekin sortu dela dirudi.

Semantikaren aldetik ez du batasun haundirik hitz honek. 'Río' erreferentea du kasu gehienetan, baina ur haunditakoa beti; 'inundación' bezala ez dugu inon jaso, ez eta zentzurik irekienean ere.

"Lupeko" eta "lurpin" hitzek ere aurkezten dute dardarkariaren galera. Gure kasuan oso mugatua da galera hori. Lehenen-

goan, Bortzirietako Ituren-en bazilazioa agertzen da, eta Etxalar eta Sunbilla-n, berriz, galera tinkoa da. "Lurpin"-en kasuan Ituren eta Sunbilla-n galtzen da, beste guztiek eusten diotelarik dardarkariari.

Mapetan jaso ditugun beste gertakizun batzu: "afari" eta "bazkari"-tik "afaldu" (302), "bazkaldu" (13), partizipioak sortzeko "-tu" atzizkiaren ondorioz.

Goian aipatu dugu, eta MITXELENA-k ere (1977,336) azaltzen du, azken posizioko dardarkarien egoera, hitz zaharretan batez ere. Euskalki batzuk, Ekialdekoek, hainbat kasutan "-r" dute: "haur" / "kaur"; "(h)irur", "laur", monosilaboetan eta diptongoaren ondotik joaten direnean batez ere; gainerako euskalkietan, berriz, azken "-r" hori galdu egiten da.

"Baru" hitzak ere baditu horrelako aldakiak; Mitxelena-rekin jarraituz: "...variantes con -r (**baraur, barur,** que es también suletino, según Gèze) y sin ella (**barau, bareu, baru**). Se emplea sobre todo en partitivo **(bar(a)urik**, y de aquí guip. **baraurik**), donde r lo mismo puede considerarse parte del tema o de la desinencia".

Gure lurraldeetan Mendebaldeko joera dago eta **baru** kasuan partitiboko forma jaso dugu, Zugarramurdi eta Amaiur-ko herrietan salbu, hauetan "baru" eta "barugaitzetarik", jarraiberean, joera orokorra bizkortuz.

### 2.5.2.4. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Egin dugun analisian, egia esan, aldez aurretik espero genuen dardarkarien egoera agertu zaigu. Dardarkari anitzaren gertaera deskribatu ohi den bera jaso dugu, lau edo bost dardarekin egiten delarik normalean. Azken posiziotakoa, berriz, ez da esan izan den bezain gogorra jaso; neutralizaziori dagokion artxifonema dardarkari anitza da, baina ez bokalarteko dardarkari anitza bezain gogorra. Beste horrenbeste gertatu da posizio inplosiboan ere, batzutan biguna ere agertzen delarik. Edozein modutan, hemen ere beti bezala, bereizi beharko lirateke ahoskera zaindua eta laxoa, horren eragina nabarmena delako dardarkarien ahoskeran.

Dardarkari asibilatua ere uste genuen baino hagitzik gehiagotan agertu zaigu. Posizio inplosiboan gertatu da maizenik, baina bokalartean ere behin baino gehiagotan azaldu da. Kasu honetan ere sonografoari esker jaso dugu hots hau, entzumenez ezin bait daiteke bereizi kasu aparteren bat izan ezik.

Dardarkari bakuna nahiko tinko gorde da. Galerak ez dira izan ugariegiak eta hemen ere ebakera mota, laxoa ala ez, erabakiorra da. Tinkotasun hori mapetan agertzen da, baina, zenbait kasutan, guk dardarkari bakun bezala traskribatu duguna sonogramek hurbilkari bezala eman digute, eta bai alderantziz ere, hau gutxiagotan, ordea. Txandaketak ere gutxi gertatu dira. Sabaiko leherkari ahostuna ez dugu dardarkariaren ordez inoiz jaso. Txandaketarik normalenak hurbilkari hortzetakoarena eta hurbilkari belarearena izan dira.

Gazteleraren sistema ere berdina, edo berdintsua, denez orohar, aldaketa funtsezkorik ez da gertatu, eta hortik datorkio sistemari, gure ustez, bere oreka eta tinkotasuna.

Banaketa geografikoaren aldetik ere ez dago ezer aipagarririk. Ageri diren aldaketek ez dute banaketa zehatzik; han-hemen-

ka gertatzen dira eta hori ere esanguratsua da, alde batetik ez dutelako sistematizaziorik, eta bestetik aldaketa horien ahultasuna erakusten dituelako.

### 2.4.5. Analisi akustikoa

Kontsonante likidoek, esan bezala, bokalen ezaugarriak dituzte kontsonanteak izan arren. Horregatik, kontsonante diren heinean beren ezaugarriak dituzte beste kontsonanteetatik bereizteko, baina bokalekin duten idekotasunagatik ere jasotzen dituzte beren izaera propioa gotortzeko. Sonogrametan, jakina, ezaugarri hauek agertzen dira, eta kontsonante horietan gauzarik agiriena da, hain zuzen ere, bokalak bezalako formakinak dituztela, alegia.

Albokariek hiru formakin dauzkate. QUILIS-ek gaztelerakoak aztertu ondoren (1979,322 eta hur.) jasotzen dituen ondorioak laburbilduz, honako hauek lirateke:

Albokarietan posizioa oso garrantzitsua da, horren arauera gertatzen direlako iraupena eta formakinen aniztasuna.

Iraupenaren aldetik, /l/ mihipunta-hobietako albokariak, posizio prenuklearrean edo posnuklearrean doanean, beste kontsonante batekin silaba bakarra sortzen ez badago, 6,03 cs-tako bataz-besteko iraupena du. Sabaikoarena luzeagoa da, 7,32 cs. bataz-bestekoa gertatuz.

Formakinen maiztasunak mihipunta-hobietakoetan honako hauek dira: lehenengo formakinerako 328 eta 338 Hz-takoak silaba tonikoan eta atonoan jarraiberean; bigarren formakinerako 1.561 eta 1.547 Hz-koak; eta hirugarrenerako 2.587 eta 2542 Hz-takoak azken bi hauek silaba barruan duen banaketaren arauera aldatzen direlarik. Gehien aldatzen dena bigarrena da eta artikulaketa gunearen arauera aldatzen dela uste dute.

Sabaikoaren maiztasunen bataz-besteko neurriak hauek dira: F1 290-292 silaba tonikoa edo atonoan jarraiberean; 2077-2043 F2-rako eta 2.732-2.590 Hz. F3-rako.

Bi hots albokariak elkarrekin erkatuz ateratzen dituen ondorioetan hau ikusten da: sabaiko albokarien iragaiteak askoz ere luzeagoak direla mihipunta-hobietakoenak baino eta, bestalde, sabaikoaren bigarren formakina askoz ere haundiagoa dela, goian ikusi den bezala.

QUILIS-ek, DELATTRE-k (1965,88-90) ingeleserako ematen dituen datuak, berak gaztelerarako jasotakoekin erkatzen ditu, eta honako ondorioa ateratzen du:

"Al comparar las posiciones articulatorias de /l/ en inglés y en español, puede deducirse que la consonante inglesa es menos anterior y más retrofleja que la española: de ahí la mayor altura del F2 de la lateral española" QUILIS (1981,277).

Euskararako jaso ditugun albokariak aztertu ondoren, hauxe esango genuke: mihipunta-hobietako albokaria posizio explosiboan eta hitz hasierako silaba tonikoan doanean 410 Hz-tako bataz-bestekoa ematen du lehenengo formakinerako, 1.312 Hz-takoa bigarrenerako eta 3.034-koa hirugarrenerako; iraupena 80 msg-takoa. Hitz barruan eta posizio berdinean, silaba tonikoan orain ere, bigarren formakina apur bat goratzen du, 1.476 Hz-tako bataz bestekoarekin. Beste formakinak ez dira funtsean aldatzen eta iraupena apur bat luzeagoa agertzen da, baina ia ez da pertinentea ere gertatzen 84 msg-takoa aldaketa. Egoera aldatzen da inplosiba denean, "alfer" eta horrelako kasuetan: lehenengo formakinaren maiztasuna berdina gertatzen da eta bigarrenarena jaitsi egiten da, 1230 Hz-takoa baita bataz-beste. Hirugarren formakinak ez dira agertzen orohar, eta iraupena laburragoa du 72 Hz-takoa: egoera honetan dagoen albokaria oso gutxi agertzen da eta bere espektroa ere ahula da .

Sabaiko albokariaren datuak hitz barruan eta posizio explo-

siboan hauek dira: lehenengo formakinaren maiztasuna mihipunta-hobietakoa bezelakoa da; bigarrená da, batez ere, aldatzen dena, 2.132 Hz-takoa, alegia, hirugarrenak ere beherago du maiztasuna, 2.378 Hz-takoa bataz-beste. Iraupenak, bere aldetik luzeagoak dira: 96 msg-takoak.


Mihi-puntakoa eta sabaikoa erkatuz, sabaikoaren bigarren formakina askoz ere gorago dagoela ikusten dugu; eta honek gauza bat erakusten du, bigarren formakinak artikulaketa gunearekin duen erlazioa. Iragaiteak, bestalde, askoz ere luzeagoak dira sabaikoarenean. Eta, azkenik, sabaikarien hirugarren formakina kasu askotan agertu ere ez da egiten, eta, orohar, espektroa bera ere ahulagoa eta lausoagoa da mihipunta-hobietakoarekin erkatuz. Ikus, esan ditugun adibide bezala, "laxo" (11.1), Zugarramurdi-ko lekukoarena, "larru" Arraras-ko lekukoak ebakia (11.2) eta "ilarra" (11.3) Larraintzar-koarena.

Ontzat hartzen badugu Quilis-ek egindako ingelesaren eta erdararen arteko "l" hotsen erkaketaren ondorioa, analisi artikulatorioan lehen esandakoarekin jarraitu behar dugu, eta, hortaz, guk aztertu dugun lurraldeko "l" albokaria hurbilago gelditzen dela inglesekotik gaztelerakoa baino, eta harek bezala errotroflexuaren ezaugarriak dituela, bigarren formakinaren altuera haundiagoa bait du gaztelerakoak baino.


Dardarkarien ezaugarri funtsezkoena etenkaritasuna da eta, analisi artikulatorian esan den bezala, anitza eta bakunaren artean dagoen ezberdintasuna egiten dituzten dardaretan datza. Hori espektroetan argi azaltzen da. Dardarkari anitzak hiru edo gehiago etenaldi sortzen ditu. Etenaldi horien tartean elementu esbarabatikoa sortzen da, hau da dardara bakoitzaren artean elementu anaptitiko gisako formakin bokalikoa. Dardarkari bakunean ez da horrela gertatzen, eten bat laburra sortzen da, besterik gabe. Azkenik, hurbilkaria ere bereiziko genuke, ez du hots honek dardarkaritasunik edo etenik eta likidoek dauzkaten formakin tipikoak hartzen dituzte. Hurbilkarien banaketa dardarkari bakunarena bera da, hau da, dardarkari bakunaren dardarkari gertatzen ez

denean. Ikus hauen eredu bezala azaltzen ditugun sonogramak: dardarkari anitzerako Larraintzar-ko ebakera (11.4) "larrua" hitzean; dardarkari bakunerako Gartzain-go lekukoarena (11.5) "perexila"; eta azkenik, Auzakoa-rena, hurbilkari ebakitzen baitu "barkatu" hitzean (11.6).


Dardarkari anitzak badu beste ebakera mota bat asibilatzen denean gertatzen dena, [r] asibilatua, jakina. Askotan agertu zaiguna da eta euskararako dardarkarien bereiztasun nabarmena dela esango genuke. Hots hori bera Euskal Herriko inguruko lurraldeetan agertzen da, ikus A. LLORENTE (1965, 321-350). Hots hau, dardarkariak ez bezala, jarraikorra da eta likidoek dauzkaten formakinak ez dira inon agertzen; bere itxura, espektroan agertzen duen armoniarik eza eta turbulentzia dela eta, xistukariena da erabat. Ikus honetarako "kontsonante multzoak" sailean egiten dugun analisi akustikoa.




(11.1)





(11.2)




i l' á r̄ à

(11.3)




l á r̄ u è

(11.4)




(11.5)




(11.6)

# OHARRAK

(1) MITXELENA-k (1977,315) disimilaketa ematen du aldaketa horren arrazoia, "r" eta "R" hotsen disimilaketa; "d", hortzetako hurbilkaria, bigarren mailakoa litzateke eta jatorrizko hotsa nahiz "l" nahiz "r" izan zitekeen, bi hotsak hizkuntzaren sistema zaharrekoak zirela onartuz gero.

(2) Nahiz eta jatorriz *lj- talde batetik etorri [l'] hotsa, goian ikusi dugun bezala.

(3) Ikus GAVEL (1920, 218 eta hur.). Guk Iparraldean aurre-inkesta jaso genuenean (BN)-z eta (Z)-z maiz aurkitu genuen fenomeno hau: "arotza" **ahotza**; "kerats" **kehats**; "ditarea" **ditahea,** etabar.

(4) Baina: "elhezta, elheztaldi, elheztari, eleztatü," denak (Z)-z. AZKUE, DIC, (232.or.).

(5) GAVEL-ek (1920,223-224) hitz honek duen dardarkarien alternantziari esplikazioa frantsezeko "persil" formaren bitartez ematen dio. Guk uste dugu, hainbeste hitzetan ageri denez alternantzia hau, euskararen barnean datzala txandaketa horren arrazoia, kasuren batetan kanpotiko arrazoirik ere izan daitekeen arren.

(6) "Certains mots nous fournissent des exemples de permutations, au moins apparentes, entre r douce et g: telles sont les formes **Ugarte** ou **Ugalde** pour **Urarte** et **Uralde**. Il est difficile de dire s'il y a en substitution directe de g à r, ou s'il y a eu d'abord chute de l'r, avec intercalation ultérieure d'un g pur éviter l'hiatus". GAVEL (1920,235).

MITXELENA-k (1977,337) galera bezala azaltzen du.

## 3. KONTSONANTE MULTZOAK

### 3.1. Gertakizun fonetikoak

Kontsonante multzoak aurkezterakoan eta kontsonanteak elkarrekin aurkitzearen ondorioz gertatzen diren aldaketez hitz egiterakoan, bi talde egin daitezkeela uste dugu. Alde batetik, kontsonante multzoa hitz edo lexemaren barnean suertatzen denean sortzen diren aldaketak eta bestetik, kanpo-sandhia dela bide, edo lexema ezberdinetako kontsonanteak elkarrekin aurkitzen direnean gertatzen diren aldaketak. Inola ere ez dira kasu berdinak, kontsonante berak izan arren talde fonikoa osatzen dutenak. Lanak berak, egin ahala, erakutsi digu gure aurre-hipotesia betetzen zela.

Lexemaren baitan kontsonante multzoek arau batzu jarraitzen dituzte, batzutan euskalkika aldatu egiten direnak, baina betiere berdintasun haundiz jokatzen dutenak; aldaketak ere ez dira asko izaten. Legeak jarraitzen dituzte, beraz, eta tinkotasun haundiz gainera; horrenbestez, normatibotasuna dela barne-sandhi hauen ezaugarri nagusia esan daiteke.

Kontsonante multzoa bi hitzen artean gertatzen denean, hau da, kanpo-sandhian, hotsak aldatu ohi dira, baita kontsonante bera suertatzen denean ere hitz bien bukaeran eta hasieran; baina hiztun bakoitzak bere ingurumena eta bere erregistroa izan ohi duenez, ez da arau oso tinkorik izaten kasu hauetan.

Kanpo-sandhi hauen sailean, azpisail bat bereiz daiteke oso maiz gertatzen diren kontsonante multzoekin. Alde batetik lokuzio gisa finkaturik erabiltzen direnak dauzkagu, esaterako, "bat batean" → "bapatean"; gero, adizkiak, "ez naiz", "ez dut", "ez gara", "bait dut", "bait gara", "ez bait dut"...

Guzti hauek oso kontuz aztertzekoak dira, jasotzen diren datuak ere ez bait dira beti berdinak eta ez da erraz kontsonante multzo hauentzat arau orokorrik ematea.

Goiko mapetan egin dugun analisian, ikusi dugunez, lekuko berak era ezberdinetara eman dezake edozein multzo, ingurumenaren arauera. Horregatik, ez daiteke erabateko erantzunik eman eta hainbat gutxiago arau bezala. Uste dugu, bestalde, euskarak beti jasan duen normalizaziorik ezak, ahoskeran sortu duen anarkia ezin daitekeela, inola ere, araugarritzat hartu.

Ikusirik bada, aurre-galdekizunetan egin genituen probetan, kanpo-sandhien ugaritasuna eta sistematizazio falta, konturatu ginen kontsonante multzo horien bilketa beste bide batez eta beste metodologia batez jaso behar zela, eta ez mapagintzaren bitartez. Horregatik lexema barneko kontsonanteen multzoez arduratu ginen, eta horietako nagusienak bakarrik jasotzea erabaki genuen (1).

Hasierako posizioan kontsonante multzoak ez dira ugariak: bokal baten jausketaren ondorioz, (R) **dra** < "dira"; mailegu berriskoetan, "tronco" > **trunku, fruta** (138). Latinetik hartutako maileguetan talde kontsonantikoak galdu egin dira: FLOREM > **lore,** Leizarraga-k erabiltzen zuen "flore" MITXELENA-k (1977,347,6.nota) kultismotzat jotzen du, PLUMA > **luma** (397).

Azken posizioan gertatzen diren kontsonanteen artean "-t", "-k" eta "-n" morfemak oso ugariak dira; "-p" ia inoiz ez, "eup"; eta albokariak eta dardarkariak. Horiez gain, konposaketan eta eratorketan beste kontsonante batzu ere suertatzen dira lehen osagaiaren bukaeran: "errepide" < erret bide < errege bide; "arkakuso" < ardi kukuso, etabar. Hauetan, bistakoa den bezala, galerak eta aldaketak ugariak izan ohi dira, eta hori bera izaten dute ezaugarririk nabarmenena.

Guk horrelakoak forma mugagabeetan jaso izan ditugu; apropos jarriak, bestalde, zer gertatzen zen ikusteko. Halere, behin baino gehiagotan esan dugun bezala, galderak direlako eta ez bat-bateko hizketa, normalean sortzen ez diren kontsonante multzoak sortu dira. Ikus, esaterako, "Zenbat koropillo" (219) Auza-n, enfasiaren eraginez dudarik gabe. Edo "zenbat listu" (253):

Oieregi, Donamaria, Ituren, Arantza, Sunbilla, Etxalar-en, denak Bortzirietakoak, eta Ultzamako azpi-euskalkian, eta Aldaz-en, Erasun-ek bakarrik "zenbatixtu" ahoskatu duelarik.

Edo "nm" taldea: "etorri den mutikoa" (173), kasu guztietan bi kontsonante sudurkariak ahoskatuz. Ez da hau normalena; MITXELENA-k (1977,355) dio: "**nm** se reduce a m en composición: **Arçamendi**, año 1025, CS Mill. 91 < artzan-, **unamaizter** 'jefe de vaqueros', año 1167, **Vasc. med.** 24, nota 11 < **unan-**, etc.". Eta: "Hay -n+m- excepcional en **Lope Aran Mendico** Irache, original de hacia 1200 pero **Pascual de Aramendia** 1209, etc." (1977,562).

Baina, goian esaten genuen bezala, ingurumen guztiak ez dira berdinak izaten. "Aran Mendiko" taldeak, beti ingurumen berdinean erabiliz, "cognomen" bezala gainera, "nm" "m" egitera jo du berez, errendimendu faltaz eta ekonomiaren legez. Baina, gure ustez, horrelako kasuak ezin daitezke "den mutikoa" kasuarekin erka edo horrelako kasuetara zabaldu, "-n" horrek funtzio garrantzitsua duelako kasu hauetan, erlatibozkoa hain zuzen, eta hemen "den mutikoa" agertzen den bezala, hurrengoan, "den katua" edo "den sarea" izan daitekeelako; hau da, multzoa aldatzen delarik, "-n" hori hor mantenitzen da, eta, dakigun bezala, "nk" edo "ns" ere gertatzen diren taldeak dira. Eta, gainera, "nk"-ren kasuan, ez da "ng" taldea ahoskatzen, joera hori izan arren, zirkunstantziala delako elkarketa eta erregela operatiboek ez dutelako maila horietan funtzionatzen, "den mutikoan" → "demutikoa" egin ez den bezala. Edonola ere, "nm" talde horretako bereizgarri akustikoak aztertu beharko lirateke nolakoa den ikusteko.

### 3.2. Galdekizunean jaso diren fenomenoak

Multzo kontsonantikoek sortzen dituzten talde nagusienak honako hauek dira:

Leherkaria (t, k) + leherkaria
+ sonantea (n, l, r)

Xistukaria + leherkaria
+ xistukaria
+ sonantea

Sonantea + leherkaria
+ sonantea
+ xistukaria

Eta hiru kontsonantetako taldeak ere bai:

Goiko arrazoiak kontutan izanik, guk hitz barruko multzoak eta errepresentatiboenak bakarrik jaso ditugu:

Sonantea + leherkaria: **horko, hortik**
Xistukaria + leherkaria **(muta cum liquida** taldea):
**masustra; hartz, hertze, bertze**
Sonantea + xistukaria: **-tarsun / -tasun**

Eta, horiez gain, mapetan zehar agertu direnak.

### 3.3. Jaso diren emaitzen analisi fonetikoa-diatopikoa

**284 HORTIK - 285 HORKO (446-447)**
**286A ONTASUN - 286B ONTASUN AUNITZ (447-448)**

Sonantea + leherkariak elkarrekin topo egiten dutenean, ahostun bihurtzeko joera agertzen du leherkari ahoskabeak. (R) eta (Z) euskalkiek besterik egiten dute, eta (R) tinkoagoa da Zuberera baino ahoskabe hori mantenitzen, honek alternantzia ugari bait ditu. Ikus leherkarien saila.

Dardarkaria denean leherkariaren aintzinetik doan sonantea, ez da normalean ozentzen leherkaria. Leherkarien ahostun / ahoskabearen bikotetasuna ingurumen honetan mantenitu egiten da: "urte / urde". Badira, halere, kasuren batzu, "orgo", "ordik" eta horrelakoak; Hg (GN)-z Elkano-ko Lizarraga-k erabiltzen ditu, eta Ip (GN)-z ere entzun izan ditugu inoiz (2).

Guk ez dugu leherkari ahostunik jaso "hortik" eta "horko" kasutan.

Jaso dugun aipagarriena morfologiako "-ikan / -iken" atzizkiarena da, ablatiboko kasuarena, alegia. AZKUE-k (1969,331-333) "ramplona" dela eta (GN), (G), (L) (Joannes Etxeberri), euskalkietan erabiltzen dela dio. Guk ere, Azkue-ri jarraituz, ez dugu uste ezertan aldatzen duenik deklinabideko kasu horren eduki semantikoa eta esanahia. Bortzirietako Ituren, Sunbilla eta Oieregi-n jaso genuen bereiztasun hau, ez beste azpi-euskalkietan.

Albokaria + leherkari ahoskabea albokaria + leherkari ahostuna gertatu ohi da: lat. ALTAREM > eusk. "aldare" , ikus, gure mapetan: (234) eta (235). Baita toponimian ere: Elgea,..., etabar. "Elkarrekin" hitzean (36) ez da leherkaria ahostuna bihurtzen gure lurraldean; Zugarramurdi-k bakarrik ahoskatu du "elgarrekin".

Morfologia mailan, berriz, ikusi dugu talde hau ahostuntzen dela: afaldu (302), **bazkaldu** (13). Baina, **ilko** eman duten toki guztietan -besteetan **illen** erantzun bait dute-; leherkari ahoskabez Etxalar, Sunbilla, Oronotz-Mugaire-n Bortzirietako azpi-euskalkian eta Arraiotz eta Aniz-en, Baztangoan. Baita Zugarramurdi-ko B lekukoak ere "ilko" erantzun zuen.

Dardarkaria + leherkaria taldea bigarren mailakoa ere izan daiteke bokalaren erorketaren ondorioz: "elkarrekin" (36) forman, posizio postonikoan gelditu den "e" bokalaren galeraz, "elkarkin" ahoskatu zuten Arantza-n.

Sudurkariaren ondoko leherkari ahoskabea ahostun bihurtu izan da, latinetik hartutako mailegu zaharretan ikusten denez: TEMPORA **> denbora** (71), (3).

Jaso dugun "ontasun" hitzean, Auza-n eta Arraras-en, biak Ultzamako azpi-euskalkian, ezin izan dugu hitz hori jaso; ebakera nagusia ozentzekoa da, Zugarramurdi, Erasun eta Aniz-en izan ezik, hauetan ahoskabea ebaki bait dute. Mugagabean Amaiur-ek ere "ontasun aundik" formaz.

Morfologia atzizkietan ahostuna gordetzen da: **(h)emengo** (236), esaterako.

"Sonantea + sibilantea" taldea aztertua izan da goian, eta, izan, ugaria da, galdekizun honetan agertzen den bezala. Kasu berezia, talde honen barruan, "rtz" multzoa da. MITXELENA-k (1977,362) bi talde zahar bereizten ditu: ***rz** eta ***rtz.**

> *"A grandes rasgos ***rtz** se ha conservado (com. **zortzi,** mer. **zorzi** 'ocho') o ha pasado a **st; *rs** se ha conservado en b.-nav. de Mixe, salacenco, roncalés y suletino y se ha reducido a s, pasando probablemente por ***rs,** en el resto".*

## 287A ERITASUN / GAISOTASUN (450)
## 287B HIRU ERITASUN / GAISOTASUN (451)

"-tarsun" atzizkia dugu talde zahar hori mantenitzen duen hitzetako bat, "-tarzün" eta, "-tasun", biak txandakatuz distribuzio geografikoaren arauera. Gure mapetan "-tasun" ageri da atzizki hori erabili duten toki guztietan.

Kontsonante talde hau atzizki horretan ez bada agertu ere, agertu da, ordea, "bortz" (68) hitzean. Dardarkariz eta afrikariz ahoskatu dute Zugarramurdi-n, Bortzirietan, Erasun-en izan ezik, Arraiotz eta Aniz-en Baztango azpi-euskalkian eta Auza eta Larraintzar-en Ultzamakoan.

"Rz" taldearekin Amaiur eta Gartzain-en. "St" Erasun, Aldaz eta Arraras, Beramendi eta Goldaratz herrietan, tartean Beunzako "borst" tartekoa genukeelarik. Bide berdina ere eramango luke-te ondoren datozen mapen komentarioek ere.

### 290A HERTZE - 290B HIRU HERTZE (456-457)
### 291A BERTZE - 291B BERTZE BAT DA (458-459)


Hemen ere "rtz" taldea mantenitzen zaigu lehen aipaturiko tokietan. Erasun-go erantzunak aldakorrak dira: "hertze"-ren kasuan "rtz" taldea, mantenitzen du, talde zaharra, alegia, baina ez du "bertze" egiten, "beste" baizik. Beunza-k, kasu hauetan, talde zaharra agertzen du eta Larraintzar-ek "rtz" / "rz"-ren arteko txandaketa.

Salbuespen hauez kanpo, salbuespen ulergarriak, bestalde, mugetan gertatzen bait dira, isoglosa garbia gertatzen da "-r(t)z-" eta "-st-" taldeen artean: Aldaz, Arraras, Beramendi eta Goldaratz-en oso tinko dute "-st-" taldea.


### 288A MASUSTRA - 288B HIRU MASUSTRA (452-453)

Aurreko talde zahar horren barruan egon beharko litzateke hitz hau, baina bilakabide ezberdinak izan dituenez, aparte hartzen dugu. Dardarkaria + afrikaria: "mazurtz" Bortzirietako Erasun eta Ituren-en; balio adierazkorrez, "maxurtx", Arantza eta Sunbilla-n. Horren parean, "-st-" taldearekin Aldaz eta Goldaratz-ek dute. Talde


BORTZ (68)




HERTZE (456)



"rtz" / "st"



honetan mota guztietako ebakerak eta fenomenoak aurkitu ditugu; danera hamabost aldaki jaso ditugu, hori kontutan hartuz Auza-k eta Larraintzar-ek ez digutela erantzunik eman. Larraintzar-ko hirugarren lekukoak "martxutxa" eta "íru martxúte" mugagabean erantzun zigun.

### 289A HARTZ - 289B HIRU HARTZ (454-455)

"-rtz-" talde hau goian ikusi dugunetik aldentzen da, ez bait da "-st-" agertzen kasu honetan, gehien ere sortzen den xistukariaren neutralizazioa azaltzen da aldaki bezala. Guk dardarkari bezala traskribatu genuen, baina asibilaturik agertu zaigu sonogrametan.

Horren parean, "artzain" (118), (119) eta, orohar, edozein sonante ager daiteke xistukariaren aurretik; sudurkarietan: **ontzi** (63), (64), **hontz** (66), (67), **jauntzi** (281), **erantzi** (282), **intxaur** (283), (284) / **iltxaur** eta **eltzaur** txandakatuz.

Albokarietan: **iltze** (8), (9), **faltsu** (294), (295), **aitzur** (292), (293) **ailtzur** eta **aintzur**-ekin txandakatuz.

Hauekin batera "itsi / hertsi" (285) hitza aipatu beharrekoa da: "-rts-" / "-ts-" eta "tx" aldakiz azaltzen delako. Eta, orokorki, afrikatuetan ikusi ditugunak. Dardarkariaren presentzia, bestalde, oso leku berezietan agertzen da: Ultzamako Auza, Larraintzar, Beunza eta Beramendi-n. Eta hau esaten dugu, batez ere Ekialdeko hizketetan gertatzen delako.

"Sonantea + sonantea" taldeak aldaketa berezirik edo sistematikorik gabe gertatzen dira.

"Ernatu" (353) hitza jaso dugu guk Bortzirietako azpi-euskalkian, Erasun-en izan ezik, eta Zugarramurdi-n; besteetan, "iratzarri". Baina badu "esnatu" aldakia ere, hau bigarren mailakoa delarik.

"Erran / esan" (354) alternantziak ere gogoratzen digu "r / s"-ren aldaketagatik "ernatu / esnatu" alternantzian ageri zaiguna.

"Arno / ardo" (69), (70), bikoteak bestelako aldaketa azaltzen du. "Arno", sudurkariz, Zugarramurdi-ko B lekukoarengan bakarrik jaso genuen. **Burnia** (391), (392) / **burdina** bikoteak ere alternantzia bera agertzen du, baina hemen metatesiaren ondorioa izan daiteke.

Azkenik, "xistukaria + sonantea" taldeak ere ageri dira: "ez naiz", kanpo-sandhian, (112) "ni ez naiz zu bezain gaztea" ingurumenean jasotakoa. Xistukariaren galera zen forma nagusia, baina ez beti, bai, aldiz, ugariagoa grabaketa libreetan.

Galerarik gabe agertzen da, ordea, lexema barruan, **esne** (346), (347) hitzean; eta **gazna** (44) Zugarramurdi-n eta Baztango azpi-euskalkian **gazta**-rekin alternatuz, azken hau gainerako leku guztietan erabiltzen delarik.

### 3.4. Analisi fonetiko eta diatopikoaren ondorioak

Kontsonanteen multzoen ebakerak zalantzak sortzen ditu batez ere ortografia eta ahoskera normalizazio bidean daudenean. Hori dela eta, hainbat arau eman nahi izan da, ahoskeran oinarritzen diren aitzakiaz. Alabaina, dialektologia munduan ibiliz gero ikusten da gauzak ez direla hain ziurrak eta hain erabatekoak izaten; eta dialektologia lantzen denean gertaera horiek aztertu eta kanporatu egin behar dira, azken finean hizketen eta euskalkien gertaerak eta sistemak ezagutzeko balio dutelako, eta bestela errealitatea faltseatu egiten delako. Arauak ematea beharrez-

koa izan daiteke, baina kontsonante multzoei dagokienez behintzat ez daiteke zorrotzegia izan, batez ere herriaren erabileran oinarritu nahi izanez gero.

Gauzak horrela, elementurik funtsezkoenak mapen analisi puntualak egin ditugunean esan ditugula uste dugu, eta ez gara, beraz, hemen berriro errepikatzen ibiliko. Hori bai, argi dago gai honek azterketa sakona behar duela baina galdekizunaren bitartez jasotako materialak ez dira horretarako egokienak, lehen esan dugun bezala. Grabaketa askeak dira beharrezko, eta horiekin, aurreritziak alde batera utziz, azterketak antolatu.

### 3.5. Analisi akustikoa

Kontsonante taldeak aztertzerakoan era guztietako ebakerak jaso eta baieztatu ditugu analisi akustikoaren bitartez. Bi sudurkari jarraian ahoskatzen zituztela edo xistukaria ahostu egiten zela leherkari ahostunaren aurrean zihoanean; alderantzizkoa ez zela gertatzen ere bai, hau da, leherkaria ez zela ahoskabetzen xistukariaren eraginez, leherkaritasuna gordetzen zuela xistukariaren aurrean ere, alegia, Xistukariak ez direla beti ahostun egiten sudurkariaren aurrean, etabar. Denetarikoak eman dira, eta, dudarik gabe, arauen erregulartasunari erantzuten diotenak, edo gutxien espero zitezkeen kasuak ere bai, esaterako "-ld-" taldeak leherkaria galtzea, "gelitzen" "gelditzen"-en ordez.

Interesgarria iduritzen zaigun kontsonante multzoa sonantea eta xistukariarena da; "n", "l", "r" sonanteen ondorengo xistukariak, ahoskeran, igurzkari ala afrikari gertatzen diren ez da batere garbi ikusten. MITXELENA-k (1977,290-91) banaketa geografiko bat ematen du, baina gauzak ez daude hain garbi, batez ere autore zaharren ortografia, eta berriagoena ere, begiratzen badugu, ikus gai honi buruz PAGOLA (1985,65-68). Egin dugun analisi diatopikoan, dardarkari hotsari dagokionez banaketa bat agertzen

zaigu, baina azaldu dugun isoglosa bakarra "st" / "rtz-rz" izan da; ezin izan dugun "rtz / rz"-ren artekoa jarri, ez bait genuen datu erabakiorrik.

Egia esan, beti uste izan dugu alternantzia bat gertatzen zela hots horiek ahoskatzerakoan eta alternantzia hori ez zela geografikoa, joera nagusi batzu egon arren, mintzaleena baizik, batean era batera, frikari, eta bestean bestera, afrikari, egiten dutelako. Goian aipaturiko artikuluan horrela genioen (67. or.):

> *"Bi eragin daude, bada, nire ustez: fonetikoa eta solasaren mailakoa. Sonanteek, bere bokaltasuna dela bide, ondorengo kontsonante afrikariari itsidura biguntzera eragiten diote; hori garbi ikusten da hizketa arrunt eta zaindugabean. Baina, zenbat eta solasa zaindu eta arretatsuago den, fonema afrikatuago ahoskatzen da".*

Analisi akustikoa egin ondoren, lehen esandakoak mantenitzen dira funtsean, baina arrazoiak bestelakoak direla uste dugu. Zalantzan dauden hots horiek, sonanteen ondorengoak alegia, neutralizatu egiten dira "n","l" edo "r" hotsen ondoren doazenean, hau da, igurzkaritasuna / afrikaritasuna bereizteko duten ezaugarria galdu egiten da, hain zuzen sonanteek ere beren artikulaketan badutelako hersketa eta nahastu edo bat egiten da xistukarian suposatzen dan hersketarekin. Sonanteen ondoren doazen xistukariek, sonanteen leherkaritasuna dela bide, eurek ere leherkaritasuna hartzen dute; eta alderantziz ere, sonanteen ondorengo afrikariek ere frikari egitera jotzen dute, sonanteen leherkaritasunak kendu edo ezabatu egiten dietelako eurena. Horregatik, askotan gertatu izan zaigu ez dugula jakin agertzen ziren hersketak sonantearenak ala xistukarienak ziren. Edo, bestela esan, ez genekien hots igurzkari ala afrikari baten aurrean ginen (2). QUILIS-ek ere jasotzen du horrelako gertaeraren bat gazteleran (1981,264):

> *"Muchas veces, despues de consonante nasal (en casos como **cónyuge**, por ejemplo, la realización de [dz] se produce sin momento interrupto, que es susti-*



Euskal Gaien Institutua
Deustuko Unibertsitatea
EUSKALDOK

*tuido por la misma explosión de la consonante nasal. En estos casos, la duración de la fricación es más larga: 7 cs por término medio".*

Edonola ere, Quilis-ek prejuzgatu egiten du "cónyuge"-ren ahoskera, gertatu aurretik edo aldez aurretik emana bezala hartzen bait du, hau da, "cónyuge" ahoskera afrikariaz suposatzen du, eta hori, egia esan, ahoskeraren ondoren ikusi behar da, ez aurretik, kontsonante multzo hori beste testuinguru aunitzetan ere gertatzen bait da.


Sonograma askotan kasu bitxiak agertu zaizkigu, xistukarietan aipatu genituenak: bi leherketa eta igurzkaritasun bat, edo leherketa bat eta bi igurzkaritasun edo igurzkaria, leherkaria eta igurzkaria. Horrelako kasuak ia beti dardarkariarekin gertatu izan dira eta, gure ustez, dardarkariak asibilatzeko joera duelako izan da. Sudurkariarekin eta albokariarekin ere gertatu zaigu, baina ez hainbeste, eta tinkotasun gehiago agertu dute, azken finean duda berdina izan arren, zeini zegokion leherkaritasuna, alegia.

Ikus adibide moduan ematen ditugun sonogramak, gure ustez garbienetarikoetatik hautatuak, "artza" Erasun-go lekukoarena (12.1); "ontza" Arraras-koarena (12.2) eta Goldaratz-ko lekukoarena (12.3); "arroltzia" Aniz-koarena (12.4). Funtsezko gauzetan nahiko errepresentatiboak dira. Esaterako, oso iraupen ezberdinak aurkitu ditugu, batez ere igurzkari gertatzen direnetan luzeak gertatu dira, eta afrikarietan ere igurzkaritasunaren unea kasu batzutan ere bai. Maiztasunak ere aldakorrak izan dira, orohar beste ingurumenetan gertatzen direnekin bat egiten badute ere. Bestalde, ahoskabeak izan arren xistukariak, denak edo ia denak, lehenengo momentua ahostua dute, ipini ditugun adibideetan ikusten den bezala.


Aipamen berezia "hartz" hitzari egin nahi diogu. Dardarkaria asibilatua dago eta horrelako kasu gehienetan asibilatua aurkitu dugu eta ia beti ahoskabetua, nahiko normala den bezala kontsonante ahoskabearen ondoan doalako, jarraikorra eta xistukariaren

itxura osoa hartzen duelarik. Maiztasuna aurreko bokalaren araue-ra gertatu da. Desberdintzen zuena iraupena izan da, oso iraupen aldakorrak aurkitu bait ditugu, hemen azaltzen dugu 88 msg-takoa luzeenetarikoa delarik. Batzutan goiko maiztasunetan hersketa antzerako zerbait aurkitu dugu, edo dardarkaria bi unekin, lehe-nengoan hersketa eta gero asibilatua. Hor ikusten da dardarkari eta igurzkarien arteko harreman biek elkarren eragina pairatzen dutela.


Hain interesgarria gertatzen den multzo honek garbi ager-tzen du sakontasunez aztertzeko zein behar haundia duen eta areago ondo finkatu nahi badira har daitezkeen erabakiak.





(12.1)




(12.2)




(12.3)




(12.4)

# OHARRAK

(1) Horrelakoak dira MITXELENA-k (1977,343-369) aztertzen dituenak. Egon dira, ordea, bestelakoak ere, eta azken denbora hauetan, hizkuntzaren normalizazioa dela eta, gai hau ugarituz doa. Ikus: ETXEBARRIA, J.M.: "Kontsonante multzoen ahozkera", **Euskera** (1986,2), XXXI, 361-372. or.

(2) Harrigarria gertatzen da euskarak ez ozentzea kasu hauek, ez eta latinetik hartutako maileguetan ere; bai, aldiz, inguruko hizkuntza erromanikoek: Aragonesak eta Gaskoierak. Sustratoz oinarritzen den legea, alegia, dardarkarietara zabaltzen da eta euskaran, berriz, ez. Harrigarria da (R) eta (Z)-k, hizkuntza erromaniko horien alboko hizketak izanik, ez ozentzea leherkari horiek. Berdin mantenitzen da ahoskabea hitz maileguetan: **barkatu** (209), **gorputz** (86).

(3) Ez dugu, ordea, leherkari ahostuna jaso "mantelina" (395) hitzean. Agian, izan daiteke gure hiztegian berandu sartutako hitza izatea eta gazteleraren eragina bortitza garai hartan. Kontutan hartu behar da gazteleraz ere **mantellina** 1.490. urtean dokumentatzen dela, COROMINAS (1961,372). Gure ustez, talde horiek, berri samarrak badira, ahoskabe bezala mantenitzen dute leherkaria, hau da, ozentzearen legea ez da betetzen. Ikus: **bedeinkatu** (377), **egin ditut** (250) eta, txandakatuz, **onddo** (220), **Jainko** (111) -hau, agian, kasu berezia daiteke-, **ttentte** (245).

## AZTERTUTAKO LURRALDEKO HOTSEN SAILKAPEN ARTIKULATORIOA

| | | | | EZPAINETAKOA | EZPAIN-HORTZETAKOA | HORTZETAKOA | BIZKAR-HOBIETAKOA | MIHIPUNTA-HOBIETAKOA | | SABAI-AURREKOA | SABAIKOA | BELAREA | GINGILEKOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | Erretr. | Ez erretr. | | | | |
| ERAGOZLEA | +HERSKETA | LEHERKARIA | Ahost. | b | | d | | | | | d' | g | |
| | | | Ahosk. | p | | t | | | | | t' | k | |
| | | AFRIKARIA | Ahost. | | | | dz | dz̆ | | | dž | | |
| | | | Ahosk. | | | | c | c̆ | | | č | | |
| | -HERSKETA | HURBILKARIA | Ahost. | β | | ð | | | ɹ | | ž | ɾ | |
| | | IGURZKARIA | Ahost. | | | | z | | z̆ | ž | | | ɦ |
| | | | Ahosk. | f | f | | s | | s̆ | š | | x | h |
| SONANTEA | | SUDURKARIA | Ahost. | m | ɱ | n̪ | | | n | | n' | ŋ | |
| | LIKIDOA | ALBOKARIA | Ahost. | | | ɬ | | l̆ | | | l' | | |
| | | DARDARKARIA | Bakun. | | | | | | r | | | | |
| | | | Anitza | | | | | | r̄ | | | | |
| | | | Asibil. | | | | | | r̆ | | | | |

| | Aurrekaldekoa | Erdikaldekoa | Atzekaldekoa |
|---|---|---|---|
| Erdikontsonantea | j | | w |
| Erdibokala | i̯ | | u̯ |
| Goikoa hertsia | i | | u |
| Goikoa erdihertsia | i̝ | | u̝ |
| Erdikoa erdirekia | e | | o |
| Erdikoa irekia | e̞ | | o̞ |
| Behekoa irekia | | a | |

| AZTERTUTAKO LURRALDEKO FONEMA KONTSONANTIKOEN SAILKAPEN ARTIKULATORIOA | | | | EZPAINETAKOA | EZPAIN-HORTZETAKOA | HORTZETAKOA | BIZKAR-HORTZETAKOA | MIHIPUNTA-HOBIETAKOA | SABAIKOA | BELAREA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ERAGOZLEA | + HERSKETA | AHOS-KABEA | Leh. | p | | t | | | t´ | k |
| | | | Afrik. | | | | c | ɪ c͡ɕ | v c͡ɕ | |
| | - HERSKETA | AHOSTUNA | | b | | d | | | ɣ ʝ* | g |
| | | AHOSKABEA | | | f | | s | ɪ s̻ | v s̻ | x** |
| SONANTEA | SUDURKARIA | | | m | | | | n | n´ | |
| | LIKIDOA ALBOKARIA | | | | | | | | ɭ´ | |
| | LIKIDOA DAR DARKARIA | BAKUNA | | | | | | r | | |
| | LIKIDOA DAR DARKARIA | ANITZA | | | | | | r̄ | | |

*Banaketa diatopiko osagarrian.
** Aldaz, Goldaratz eta Beramendi-n

**AZTERTUTAKO LURRALDEKO FONEMA BOKALIKOEN SAILKAPEN ARTIKULATORIOA**

| | Aurrekaldekoa | Erdikaldekoa | Atzekaldekoa |
|---|---|---|---|
| Goikoa | i | | u |
| Erdikoa | e | | o |
| Behekoa | | a | |

## AZTERTUTAKO LURRALDEKO HOTSEN SAILKAPEN AKUSTIKOA

| | i | e | a | o | u | b | p | d | t | dd | tt | g | k | c | ć | č | f | s | ś | š | j | x | h | m | n | n´ | l | l´ | r | r̄ |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Bokalikoa - Ez bokalikoa | + | + | + | + | + | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | − | + | + | + | + |
| Kontsonantikoa - Ez konts. | − | − | − | − | − | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + |
| Ahozkoa - Sudurkaria | | | | | | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | − | − | − | | | | |
| Trinkoa - Barreiatua | − | + | + | + | − | − | − | − | − | − | − | + | + | − | − | + | − | − | − | + | + | + | + | − | − | − | − | + | | |
| Lodia - Zorrotza | − | − | ± | + | + | + | + | − | − | − | − | + | + | − | − | − | + | − | − | − | − | + | + | + | ± | − | | | | |
| Ahostuna – Ahoskabea | | | | | | + | − | + | − | + | − | + | − | − | − | − | − | − | − | − | + | − | − | + | + | + | | | | |
| Jarraikorra - Etenkaria | | | | | | | − | | − | | − | | − | − | − | − | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | + | − | − |
| Karrankaria - Matea | | | | | | − | − | − | − | − | + | − | − | + | + | + | − | − | + | + | − | − | − | | | | | | | |
| Erretroflexua - Ez erretr. | | | | | | | | | | | | | | − | + | | | | | | | | | | | | + | | | |
| Etenkari bak. - Eten. anit. | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | + | − |

## ONDORIO OROKORRAK

Lan honen ondorioak ateratzerakoan, lan osoa izan dugu kontutan eta, batik-bat, lanean edozein eratako ekarria suposa dezakeen oro, eta ez galdekizuna eta haren bilketa eta azterketa soilik, hauek baldin badira ere ikerketa honen muina eta funtsa.

1.1. Horrenbestez, euskal dialektologiaren historiarekin hasiz, azpimarratu behar den lehenbiziko gauza euskal idazleek izan duten euskararen hizketen desberdintasunaren kontzientzia bizia da; eta horrekin ia batera, arau amankomunaren beharra euskaldunen arteko komunikazioa erraztu eta indartzeko, komunikazio idatzia batez ere. Honek adierazten du, bidenabar, euskalkien eta hizketen ugaritasunarena bezain bizia izan dutela euskararen batasunaren ezaguera.

Euskal dialektologiaren historia, beraz, ez da hainbeste hizkuntz zientzia baten historia, euskalkiei buruzko euskal idazleen pentsamoldeen eta jokabideen historia baizik. Historia honen mugarri nagusietan, Leizarraga eta Axular ere ahantzi gabe, lehenengoa Oihenart izango genuke, bere garairako planteamendu zorrotz eta aurrerakoiak zituelako. Halere, Larramendi litzateke euskal dialektologiaren aintzindaria, ez euskalki batzuen sistemak, nolabait esateko, deskribatu zituelako bakarrik, baizik, eta batez ere, benetako dialektologo bezala "kanpo-lana" egin zuelako, lekukotasunak hiztunen ahotik zuzenean jasoz eta lekukotasun horiez baliatuz euskal dialektologiaren aurre-oinarriak ezarri zituelako. Ekarri haundia izan zen hauxe, hainbat haundiagoa XVIII. mendea akitzen zegoenean dialektologia lanetarako idatzizko korrespondentzia erabiltzen zela kontutan hartzen bada.

Edonola ere, Bonaparte Printzea izan zen euskal dialektologi lanak gorenera eta geroztik inork gainditu ez duen mailara jaso zituena. Bildu zuen materiala neurrigabekoa eta benetan ordaingaitza da; material horri esker, gainera, gaur egun galduak diren hizketen testigantza eta ezagutza bizia dugu. Dialektologiarako

garrantzitsuagoa dena, ordea, haren artikuluetan eta liburuetan hizkuntz maila guztietarako eta bereziki morfologiarako aurki daitekeen hainbeste elementuren ekarria da. Oroz gain, berari zor diogu euskalkien eta azpi-euskalkien sailkapen sistematikoa eta osoa, eta oraindik funtsezko ukiturik jasan ez duena. Sailkapen hori dialektologiarako ekarri aparta izan zen, baina horrek, dialektologiaren mugez gaindi, ordurarte egiaztatzeko zegoen euskal hizketen ugaritasunean euskararen batasuna erakutsi zuen.

Azkenik onartu behar da Euskal Herrian dialektologiak ez duela behar adinako aurrerapenik izan. Espaina-ko azken gerrateak orpotik atera zituen Azkue eta Campión-en inguruan batetik, eta Julio de Urquijo-renean bestetik, erne ziren mugimenduak. Euskaltzaindiaren sorreratik hasiak ziren egitasmoek eta lan garrantzitsuek eman izanen zuten fruitu oparorik egoera zakar hark epaitu ez balitu.

R.I.E.V.-en bitartez, Julio de Urquijo-k eragin haundia izan zuen, garaiko munduko hizkuntzalari aipatuenak eta aurrerakoienak erakarri bait zituen euskal alorra lantzera, aldizkari honetako artikuluek edo Rousselot bezalako jakintsuek euskara aztertzen aritzeak erakusten duten bezala.

1.2. Haatik, gerrateko eta ondorengo hutsartea luzeegia izan dela uste dugu eta dialektologia munduan Bonaparte-k hemeretzigarren mendean ekarri zizkigun ideia zahar eta zaharkituak oraindikan ez ditugula baztertu. Itsekiegiak jarraitzen dugu egin zuen euskalkien sailkapenera; badakigu ona izan zela metodologiaren aldetik eta hasiera indartsua eman ziola euskal dialektologiari, baina gaur egun ezin zaio eutsi eusten zaion neurrian, ez hizkuntzari berari dagokionez, ez eta hura oinarritzen duen ikuspegi orokorrari dagokionez ere.

Bonaparte-k azpi-euskalkien toki errepresentatibotzat hartu zituenek ez diote inondik ere egungo egoerari erantzuten -bakoitzari berea denez legea, Bonaparte-k ere ez zuen uste izan "toki errepresentatiboak" tokirik errepresentatiboena izan behar zuenik

nahitaez-; kasu askotan Printzeak hautatuak tokirik desegokienak dira dagokien azpi-euskalkia edo aldakia behar bezala jaso eta isladatzeko. Azpi-euskalkien banaketak ere berrikuspena noraezekoa du. Baina, batez ere, benetan zaharkitua dena Geografia linguistikoaren eta Dialektologiaren ikuspegia da, edo, bestela esan, muga dialektaletan oinarritu nahi den hizkuntza mintzatuaren edozein azterketa diatopikorena: aztertzailea edo ikerlea ez dute muga dialektalek kezkatu behar, hizkuntzaren barneko gertaera geografikoek baizik, errealizazioen banaketaren eta hedaduraren azterketek, alegia, horiek bait dira azken finean hizkuntzak eta hauen aldakiak tajutzen dituztenak. Hau dela uste dugu euskal dialektologiak hartu behar duen bidea eta honela erdietsiko dela momentu honek eskatzen duen maila.

2. Arestian aipatu dugun hutsarte luze eta gaizto horren ondorioetako bat hizkuntz atlasa oraino egiteke izatea da. Asmoak eta egitasmoak behin eta berriz sortu izan dira, baina ez dira inoiz benetan mamitu, batez ere egitasmo horiek ahalbide guztien gainetik zeudelako; arrazoi extralinguistikoak izan dira, beraz, egitasmo horien burutzea eragotzi eta ezinezko egin dutenak. Zorionez, halere, momentu honetan euskararen hizkuntz atlasa bideratua eta egin arian dago, materialen bilketa aski aurreratua bait doa.

2.1. Gure lan honen ardatza eta muina, euskal hizkuntz atlaserako ekarri bezala, galdekizun fonetikoaren prestaketa izan da, eta galdekizun horren erabilpena eta datu bilketa eta kartografiaketa lurralde historiko bateko hainbat puntutan.

2.1.1. Nafarroa-ko hogei herrigunetan jaso dugu galdekizuna. Ez dira toki gutxi, baina inkestatu dugun eremu osorako ez zaizkigu aski iruditu. Lanaren helburuak berak ezartzen ditu beharrizanak, baina ohartzen gara ezinezkoa dela eremu edo lurralde osoa zeharo jasotzea. Lan honetan, tokiei dagokienez, ezer deitoratzen badugu, Urdazubi-n daturik ez jasoa da, Zugarramurdikoekin erkatzeko; edo Arizkun-goak eta, batez ere, Erratzu-koak, Baztan Bailarako ikuspegi osoa lortzeko; edo Zubieta-koa,

Bortzirietakotik eta Bertizarana-kotik desberdintzen delako; edo Urrizola herrigunekoa, Ultzama-koa izan arren, hizketaz Odieta-ko Bailararuntz begiratzen duelako. Beti luza daiteke zerrenda, baina tokiak ez mugatzera, lan honek eta beste edozeinek ez luke amaierarik.

Badu garrantzirik, ordea, inkesta guneen sarea hedatzean, ikusten bada interesgarria izan daitekeela bizpahiru hizketa bereziki erkatzea, elkarren hurbileko tokiak hautatzea. Guk horrela egin dugu eta emaitza bikainak jaso ditugu, esaterako Oronotz-Mugaire eta Oieregi-n, Arraras eta Erasun-en, Arraras eta Beramendi-n, edo Aniz eta Berroetan.

3. Bildu ditugun materialetatik, galdekizunaren bitartez jasotakoak baizik ez ditugu aurkeztu. Asko diren arren, ez ditugu kontutan hartu solasaldi askeetan edo aske bideratuetan jasotakoak.

3.1. Traskribaketetarako eta ondorengo analisirako hain ona den arren metodo espektrografikoa, oso garrantzitsua da ebakeran parte hartzen duten beste zenbait elementu funtsezko eta horien ezaugarriak errejistratzea. Horretarako beharrezkoa jotzen dugu, beraz, palatogramen eta zinemarradiografien laguntza. Guk palatogramak egin ditugu, baina ezin izan ditugu fonazio-organoak filmatu ez eta elektrokimogramak ere egin. Horiek egin ahal izanez gero, euskal hotsen ahoskera zehaztasun osoz lor eta eskeini zitekeen. Analisi hauek zeharo gainditzen zituzten gure asmoak eta ahalbideak, baina egin daitezkeela uste dugu, eta egin beharko liratekeela egitasmoa aintzinera eramango balitz.

4. Traskribaketak egin eta fenomeno eta lekuen arauera ordenatu ondoren, geure buruari datuen informatizazioa planteatu genion, ondoren interesatu ahal ziezazkigukeen azterketak eta, batik-bat, kartografiaketa ordenadorez egin ahal izateko.

Gure inguruetako lurraldeetan egin diren azken kartografiaketa lanak miatuz, zaharkituxeak aurkitu genituen, eta egungo elektronika aurrerapideek eskeintzen dituzten abantailez baliatuz, programa berri bat egin beharra zegoela ikusi genuen.

Lan honen ondorioetan euskal informatiko batek prestaturiko datuen basetik zuzenean kartografiaketa posibilitatzen duen programa berria aurkeztu dezakegu, eta ez du ez plotterraren ez beste lagungarriren beharrik edozein hizkuntz informazio mapetara aldatzeko. Kartografiaketarako bide hori hautatu genuen, hizkuntz informazioa hobekien eta arinen eman zezakeela iruditu zitzaigulako, baina beste modurik ere bada hori egiteko, unean uneko beharraren arauera.

Uste dugu, beraz, materialaren eta ondorengo kartografiaketaren informatizazioari dagokionez, bide berri eta garrantzitsua ireki dela, egungo teknika informatikoen abangoardian lotsarik gabe aurkez daitekeena.

5. Doktoradutza lan honen helburua galdekizunaren prestaketarekin eta haren bitartez jasotako datuen kartografiaketarekin burutua gelditzen zen arren, datu horien analisirik gabe zerbait faltatuko zitzaiola erizten genion.

Badakigu, jakin, egin den analisia aski mugatua dela, eta ez dela behar adina sakondu, batez ere alderdi akustikoan; halere, lan honen izaerak berak eskatzen du analisi mota hau eta ez du onartzen, berriz, lan monografikoetan ematen den tratamendurik. Ahalegin bat izan da eta nekea merezi izan duela uste dugu.

5. 1. Analisiaren ondorioetan bi gertaera azpimarratuko genituzke:

A- Errealizazio puntualetan aurkitu dugun aniztasun haundia, edo, bestela esan, hizketa gertakizunen batasunik eza.

B- Hotsen errealizazio fonetikoan enuntziazio moduak duen eragina. Ahoskera zaindu eta begiratutik ahoskera laxora dagoen aldeak hotsaren izaera eta konposaketa aldatzen du, hots txit desberdinak izango bailira. Seinalatu beharra dago, bestalde, grabaketen oztopoa, lekukoak mikrofonoaren aurrean ez duela berez sortzen zaion emisioa egiten.

Hainbat fenomeno ahoskera laxoari egotzi behar zaizkio: hots afrikaria edo herskaria igurzkari bihurtzea; kontsonante albokariaren erretroflexutasunaren galera; dardarkarien asibilaketa; eta beste hainbat hotsen sinkopak eta galerak.

5.1.1. Esan dugunaz gainera, aztertu dugun lurralde osoan polimorfismo ugaria nabaritzen da. Polimorfismo lexikoa alde batera utziz, hori ere ikusi bait dugu,polimorfismo fonetikoari dagokionez bi eratakoa aurkitu dugu: soziala eta banakakoa.

Egin dugun materialen analisian polimorfismo soziala agertu zaigu. Polimorfismo horrek estatus finkorik ez duten forma fonetikoetan aldaketak eta alternantziak somarazten ditu, batzutan alofonoak pila bat direla iduriz. Adibide gisa, hurbilkariak, sabaikoak edo, nahi izanez gero, jod fonemaren errealizazioak ekarriko genituzke.

Gizarte izaerakoak lirateke hizketa ezberdinen mugetako ahoskera tartekariak ere. Kasu aski garbia Oronotz-Mugaire-rena da, eta hein batean Erasun-ena, tokirik nabarmenenak baizik ez aipatzearren, herri hauetako hizketak mixtoak bait dira, fenomeno garrantzitsuetan agertzen dituzten alternantziak direla bide.

Bakarkako polimorfismoa goian aipaturiko A eta B puntuekin lotu behar da, kasu gehienetan ahoskera puntualak direla ikusi bait dugu, hiztunaren errejistro bikoitzari dagozkionak, alegia.

Dena dela, ezinbestekoa dela uste dugu, atlasa edo dialektologiako beste edozein lan egiterakoan, gertakizun hauek ere azaltzea,hizkuntzaren errealitatea osotasunean agertu nahi bada.

5.2. Datuen analisien ondoren, benetan onargarria dela uste dugu herskarien bokalarteko errealizazioari eta berdin sabaiko igurzkari ahostunari eta eskuarki dardarkari erlaxatua deitzen zaionari eman zaien **hurbilkari** deitura berria. Analisi akustikoak ere izen horrekin ongi asmatu dela baieztatu du, hiru kontsonante mota horien eduki akustikoari bait dagokio batik-bat.

5.3. Azterketa berezia beharko lukete honako fenomeno hauek: gorunzko diptongoak, ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabearen ebakerak, zenbait kontsonante taldek, eta hauetan, batez ere, sonantea gehi igurzkariak; sabaiko kontsonanteen sailak orohar, hau da, jod hotsaren eta beste sabaikari guztien sailak, ikerketa sakona behar du, kasuan kasuko textuingurua eta banaketa kontutan hartuz, eta jod hotsaren errealizazio desberdinei ezarri izan zaizkien muga geografikoak birraztertuz.

5.4. Berriro esan nahi dugu analisi akustikoa mugatua dela ezinbestez. Halere, saio bat egin nahi izan dugu honelako laneta-rako analisi akustikoaren ahalbideak ikusteko, eta uste dugu haren baliagarritasuna baieztatzea lortu dugula.

Gure hizkuntzak, inguruko hizkuntzekin hain desberdina delarik, sistema fonetikoa ere berezia du, eta analisi aproposak eskatzen ditu zenbait aldiz, eta kasu horiek seinalatuak gelditu dira. Beste kasu apart ugari ere atera ditugu, eta horien berri kontsonante sail bakoitzari dagokion kapituluan eman dugu, hala ondorio fonetikoetan nola diatopikoetan.

5.5. Eragozpenik latzenekin egin dugu topo fonemen sistema osatzerakoan. Hitzaren analisian eta sintaxian aurrerapen haundiak eman dira eta geroago eta garbiago ageri da datu fisiologiko, fisiko eta psikologikoek elkarrekin duten zerikusia, baina oraindik ez dira sistema fonologikoa finkatzeko erizpideak zehatz ezagutzen. Azken finean, hor gelditzen da erantzunik gabe Jakobson-en galdera: nola bereizten ditu entzumenak hizketan gertatzen diren aldaki guztiak? Horra, beraz, zergatik ditugun hainbeste erreparo edozein hizketaren sistema fonologikoa osatzeko, baina oraingoan ezin izan dugu saihestu. Proposatzen dugun sisteman edo diasisteman [d'] hotsa ez dugula fonematzat hartu nabarmenduko genuke, orokorki jod deitu dugun fonemaren konbinaziozko aldaki bezala baizik. Horrekin honako hau esan nahi dugu:

/t'/ sabaiko fonema leherkaria, ahoskera afrikarirako joera

arriskutsuarekin aurkitu duguna, bestalde, egoera koloka samarrean gelditzen dela, baina arrazoi hori ez dela aski pareko leherkari ahostunari fonema tratamendua emateko. Gauza ezaguna da euskarak xistukari ahoskabeen sistema aberatsa duela, eta xistukari horiek badituzte bere alofono ahostunak, baina ez da, hori dela eta, alofono hauek fonematzat hartu beharra planteatzen. Era berean, leherkari ahostunaren sabaiko errealizazioa aldaki adierazkorra da, "ura → udda"; edo testuinguruzkoa, nahiz hitzaren hasieran nahiz bokalartean armonia bokalikoko kasutan. Gure ustez, ortografiak berak -"dd", leherkari ez zen kasutan ere- asko eragin du hots honi fonema kategoria eskeintzeko, betiere, esan bezala, ustez berari zegokion pareko hots ahoskabean oinarrituz.

6. Bonaparte-ren sailkapenaren mugei buruz ezartzen genituen hipotesiak baieztatu egin direla orohar esan behar dugu.

Gure datuak fonetikoak bakarrik diren arren, esan dezakegu Bonaparte-ren mugak aprobetxagarriak direla lagungarri metodologiko bezala, baina ezin gaitezkeela haren muga zehatzei lotu.

Bailara bera ere, bestalde, ezin daiteke hizkuntz ikuspegiko unitate geografiko bezala hartu, horrek ez bait du hizkuntz batasunik suposatzen, lanean zehar egiaztatu izan den bezala.

Zugarramurdi izan da berezien agertu den tokia. Egoera fonetiko aldakorra duen arren, ikusi ahal izan dugu, lekuko zahar bati esker, gertakizun fonetiko garrantzitsuetan Lapurterarekin lotzen dela; gero Amaiur ere bai kasu batzutan, baina herrigune honetako hizkera Baztandarrean kokatzen da; Etxalar ere, Bortzirietakoa izanik, Iparraldearekin mugan dagoenez, giza-harremanak ditu harekin eta hori zerbait isladatzen da hizketan ere.

Oronotz-Mugaire bi bailaren eta bi hizketen muga-mugan dago, eta bertako hizketa ere mugako hizketen eredukoa da, Bortzirieta-ra eta Malda-Erreka-ra gehiago jotzen duelarik Baztan aldera baino. Oieregi-k ere badu muga kutsurik, baina ez Oronotz-Mugaire-k beste.

Baztan-go hizketak errealizazio aski bateratuak agertzen ditu, bestalde.

Bonaparte-k Bortzirietako azpi-euskalki bezala sailkatzen zuenak berrikusketa behar du: Ituren eta Sunbilla-k badituzte analogiak Arantza eta Etxalar-ekin, baina desberdintasun garrantzitsuak ere bai. Sunbilla-k Bortzirieta-rantz jotzen du; Donamaria-k, berriz, Basaburua Haundira orokorki Bertizarana eta Malda-Erreka-ko hizketekin afinitate haundiagoa badu ere.

Erasun zeharo kanpora atera behar da Bonaparte-ren sailkapenetik, Basaburua Haundiko eta Aldaz-ko hizketetatik hurbilago bait dago. Gainera lehendik datorren giroa ere nabari da, beharbada mendearen hasieran mendebal aldetik sartu zen eraginez.

Ultzama-ko Bailarak, Larraintzar eta Auza-k batez ere, ez dugu uste Basaburua Haundia-rekin afinitaterik duenik. Gehiago parekatu dira Baztan-go hizketarekin, eta gertakizun garrantzitsutan Arraras, Beramendi eta horietatik biziki desberdindu dira.

Beunza ere Ultzama-koaren antzekoa agertu da, baina honek ez du Atez Bailara osorako balio, Muzkiz-ek Beunza aldera jotzen duelako eta Oskoz-ek Basaburua Haundirantz, alderdi orokorretan gutxienez.

Aldaz Larraun-go Bailarakoa da, eta hizketaz, Bonaparte-k dioenez, Arakil-gokoa. Guk ez dugu Larraun-go hizketa aztertu, baina D. de Inza-ren lekukotasunari jarraituz, Larraun-go hizketatik hurbilago ote dagoen esango genuke, eta, nolanahi ere, gure azterketan Goldaratz, Arraras eta Beramendi-ko emaitzekin bat dator kasurik gehienetan.

Laburbilduz, isoglosa nagusiek Aldaz, Beramendi, Arraras eta Goldaratz alde batera utziko lituzkete eta gainerakoak beste aldera, Zugarramurdi Lapurteraren eta Baztandarreraren tartean kokatuko litzatekeelarik, eta Erasun aldaketa giro batean.

7. Hitz batez, uste dugu Euskal Herri osoan informazio fonetikoa jasotzeko balio duen galdekizun fonetikoa prestatu dugula, eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren osagarri bezala balio dezakeela. Materialen traskribaketa eta ondorengo informatizazioa ere ekarri garrantzitsua gerta daiteke, mapen kartografiaketa automatikoa bideratu bait du. Bidebatez, materialen analisi fonetiko eta diatopikorako metodologia ere eskeintzen da.

8. Lan honek eskeintzen dituen materialak direla eta, hizkuntzari begiratuz suposa dezakeen ekarriaz gainera, balio dezakeela uste dugu erreferente eta lehen eredu gisa datuen sistematizatze, prozesatze eta kartografiatze fasean.

Ez dakit ez ote naizen Euskal Herrian lehena -apalki esatea zilegi bekit- horrelako lana euskarari buruz egiten duena. Urte hauetako azturak erakutsi dit zein garrantzizkoa den, lana ongi burutzeko, zenbait bide zuzen hasieratik bertatik hartzea. Horrenbestez, Euskal Atlasean alderdi fonetikoa eranskin edo osagarri gisa jaso nahi balitz, ene ustez ezinbestekoak diren ohar batzu egin nahi nituzke:

8. 1. Oso garrantzitsua iruditu zitzaigun aurre-inkesta bat prestatu eta jasotzea, osatu nahi genuen galdekizunak euskalki eta aldaki guztietarako balio zezan. Honela borobildu eta osa daiteke, ezagutzen ez zelako edo erabili den bibliografian aurkitu ez delako, aurre-galdekizunean sartu gabe gelditu dena; edo berdin kendu, alferrikakoa edo desegokia gerta daitekeen edozein galdera. Aurre-inkestak, bestalde, aukera ederra eskeintzen du zalantzak argitzeko eta aldez aurretik hartu den edozein erabaki egiaztatzeko. Guk euskalki bakoitzeko inkesta bat jaso genuen, baina batzutan inkestak errepikatu beharra izan genuen, eta inoiz, (BN)-n, esaterako, baita hiru aldiz ere.

Hala eta guztiz ere, ongi ohartzen gara metodo honen badaezpadakoaz, lana burutu ondoren ikusten bait da garbien zein eta nolakoa behar duen izan lanak eta jaso nahi den materialak. Bonaparte-k bere laugarren eta azken sailkapena egin ondo-

ren, aurreko hirurak deitoratu egiten zituen eta bere burua ere zuritzen zuen , herriz-herri ibili gabe eta jasoriko materialen azterketa zehatza egin gabe ezin zitekeela euskalkien behin-betirako sailkapena egin onartuz. Adierazpen apart hau ikusi ondoren, gure galdekizun proposamena ausardiatzat ez baina ahaleginik zintzoeneko eta borondaterik haundieneko ekarria bezala hartzea eskatuko genuke.

Egia esan, aurkezten dugun galdekizuna ontzat edo baliagarritzat jotzen dugu euskararen alderdi fonetikoa jaso eta sistematizatzeko; betiere aldez aurretik ezartzen ditugun mugen barruan, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren osagarri bezala, alegia.

8. 2. Toki bakoitzeko hiru lekuko hartzea oso beharrezko iruditzen zaigu, eta, gure esperientziaren ondoren, laugarrena ere aski mesedegarria litzatekeela uste dugu. Hau ez da beharrezko mapetarako, mapek berez eragozten bait dute egoera polimorfiko konplexuak eta askotariko txandaketak aurkezteko aukera; baina bai dialektometria lanak egiteko, hauek edozein geolinguistika lanetarako ezinbestekoak bait dira gaur egun.

Oso garrantzitsua da, bestalde, inkesta tokian grabaketa askeak eta, ahal den heinean, berezkoak jasotzea, horietan jasotzen eta aurkitzen delako tokiko hizketa bizia.

8. 2.1. Lekukoei dagokienez, honelako lanetan kontutan hartu ohi diren ezaugarriez gain, oharren bat ere egin nahi genuke. Adinaren aldakiak momentu honetan garrantzi aparta hartu duela ohartu gara, eragin haundia bait du jasotzen den informazioan. Hizkuntzaren estandarizazioaren eta erdararen eta ikasketen hedapenaren eraginez, euskara egoera berezian aurkitzen da eta, gure gaiari dagokionez, aldaketa fonetiko nabarmenak -jod, aspiraketa, xistukarien desfonologizazioa, etabar- ageri dira. Horregatik, gure eritziz, adin ezberdinetako lekukoekin jaso behar da informazioa.

Lekukoaren sexoaz, espektrogrametan gizasemeen abotsa emakumeenetik aldatu egiten denez, analisi akustikorako mesedegarriago gertatzen dira gizonei egindako inkestak; hortaz, praktikotasunaren alde, batez ere gizonei egitea inkestak proposatzen dugu.

8. 3. Analisi lan sistematikoa egin nahi bada, eta hainbat hizketa eta toki desberdin ugari badira, erabat beharrezkoa da material bateratua izatea, bata bestearekin parekagarria eta ikuspegi hautatu batetik erka eta definitu ahal daitekeena. Galdekizunaren bitartez ez egitera, ez dago, alderdi fonetikoari dagokionez, hainbeste fenomenoren azterketa seriorik egiterik. Bistakoa da, beraz, nolako materiala behar den.

Haatik, grabaketa askeak eta aske bideratuak ere beharrezkoak dira galdekizunaren bitartez jaso den informazio zurrun eta nolabait bortxatua, inoiz baita okerra ere, kontrastatzeko. Guri oso probetxugarriak gertatu zaizkigu erabili ahal izan ditugun neurrian, lanaren hedadurak ez bait zuen honetarako aukera larregirik eskeintzen. Bidezkoena eta hoberena informazio kartografiatuari osagarriak eranstea izango litzateke, horrek biziki aberastuko lukeelako mapetan aurkezturiko materiala.

8. 4. Aspalditik datorren eztabaida da lan kartografikoetan erabili behar den traskribaketa motarena, fonetikoa ala fonologikoa den egokiena. Gu ez gara horretan sartu: hizketa bakoitzeko sistema fonologikoa ezagutu eta fonemak eta artxifonemak finkatzea ondorengo lana da, erresultaduen eta kartografiaketaren analisia egin ondoren egitekoa.

Azaldu genuen bezala, traskribaketa egiteko erabili dugun metodoa entzumenezkoa izan da. Analisi akustikoa horren ondoren etorri da.

Edonola ere, beharrezkoa ikusten dugu sonografoaren laguntza traskribaketa egiteko, languntzaile ezin hobea baita traskribaketen objetibotasuna zaintzeko. Gainera, egungo sonografoez analisi akustikoa monitoretik zuzenean jaso daiteke, horrek

nahiz denboraren nahiz kostuen aldetik suposatzen dituen abantailekin, eta interesatzen dizkiguten datuak ordenadorean zuzenean altxatzeko duen ahalbidearekin. Analisi akustikoaren alde betor MALMBERG-en lekukotasuna (1956,9): honek esaten du lehenengo inpresioa beti entzumenezkoa dela eta entzumenezko inpresio horretara egokitzen direla errealizazio artikulatorioak; analisi akustikoak, beraz, artikulatorioaren aurretik joan behar duela dio.

8. 5. Hasiera batean galdekizun hau euskalkien arteko desberdintasunak eta euskalki bakoitzaren ezaugarri bereziak jasotzeko prestatu genuen. Alabaina, egungo egoera eta sistema sinkronikoa eratu eta ulertzeko ezin izango genituen noraezekoak diren fonetikaren historiako zenbait alderdi garrantzitsu baztertu. Horregatik, beti saiatu gara diakronia eta sinkronia batera eramaten, baina betiere hura honen zerbitzutan, sekula ahaztu gabe egungo hizketa zela jaso nahi genuena.

Nolanahi ere, kontu haundia hartu behar da lan guzti honen bideragarritasunaz, edozein egitasmo desegin bait dezake bildu eta aztertu behar diren datuen kopuru izigarriak. Perfekzio irrika tranpa larriegia bihur daiteke, lana txit ongi burutzeko baino bertan behera utzi eta porrot egiteko arriskua askoz ere haundiagoa izango litzatekeelako. Berriro ere gogoratu nahi dut, bestalde, hutsune asko beteko liratekeela grabaketa askeetan jasotako materiala erantsiko balitzaie mapei.

Hogei herritan jasotako datuen bilketaren eta analisiaren ondoren, esan dezakegula uste dugu prestatu genuen galdekizuna baliagarria eta behar bestekoa dela euskal bokalen eta kontsonanteen sistemak aztertzeko eta kate mintzatuan gertatzen diren errealizazioak zehazteko.

## BIBLIOGRAFIA OROKORRA


ABERCROMBIE, D: 1965, **Studies in phonetics and linguistics,** Oxford University Press, London.

– 1967, **Elements of General Phonetics**, Edinburgh University Press, Edinburgh.

AINSWORTH, W.A.: 1976, **Mechanisms of Speech Recongnition,** Pergamon Press, Oxford.

ALARCOS LLORACH, E.:1964, "Algunas cuestiones fonológicas del español de hoy", **Presente y futuro de la Lengua Española** II, 151-161.or.

– (1965), **Fonología española,** Gredos, Madrid.

ALONSO, A.: 1951, "Una ley fonológica del español", **Estudios Lingüísticos (Temas españoles),** Gredos, Madrid, 237-249. or.

ALVAR, M.: 1966-67, "Polimorfismo y otros aspectos fonéticos en el habla de Santo Tomás de Ajusco, México", **Anuario de Letras** VI, México, 11-42.

ALLIERES, J.: 1954, "Un exemple de polymorfisme phonetique: le polymorphisme de l'-s implosif en gascon garonnais", **Via Domitia** I, 69-103. or.

BADIA MARGARIT, A.: 1965, "Función significativa y diferencial de la vocal neutra en el catalán de Barcelona", **RFE** XLVIII, 79-93. or.

BAILON, C.: 1969, "Introduccion a una Dialectologia Estructuralista d'Oc" (Descripcion fonologica de tres parlars occitans vesins", **Revue des Langues Romanes** LXXVIII, Tome I, Université de Montpellier-Faculté des Lettres et Sciences Rumaines, 1-28. or.

BLOCH, O.: 1948, "A set of postulates for phonemic analysis", **Language** 24,3-36. or.

BLONDIN, R.: 1975, **Fonction, structure et évolution phonétiques,** Université de Lille III, Lille.

BORDEN, G.J. ; HARRIS, K.S.: 1980, **Speech Science Primer. Physiology, Acoustics and Preception of Speech,** Williams & Wilkins, Baltimore.

BORZONE DE MANRIQUE, A.: 1979, "Acoustic analysis of the Spanish diptongs", **Phonetica** 36, 194-206. or.

– 1980, **Manual de fonética acústica,** Hachette, Buenos Aires.

BROSNAHAN,L.F.: MALMBERG,B.: 1970 **Introduction to phonetics,** CambridgeUniversity Press, Cambridge.

CAITUCOLI, C.: 1985, "Synchronie / diachronie, phonologie / morfologie (Le cas de l'alternance vocalique dans le parler de Corté (Corse)", **Actes XVI Congrés Int. de Ling. et Filologia Romàniques** II, Palma de Mallorca, 631-649. or.

CANELLADA, M. J.; KUHLMANN MADSEN, J.: 1987, **Pronunciación del español, Lengua hablada y literaria,** Editorial Castalia, Madrid.

CARDENAS, D. C.: 1960 "Acoustic Vowel Loops of Two Spanish Idiolects", **Phonetica** V, 9-34. or.

CERDA MASSO, R.: 1972, **El timbre vocálico en catalán,** C.S.I.C., Madrid.

COROMINAS, J.; PASCUAL, J.A.: 1980, **Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico,** Gredos, Madrid.

COSERIU, E.: 1967, "Forma y sustancia en los sonidos del lenguaje", **Teoría del lenguaje y lingüística general,** Gredos, Madrid, 115-234. or.

DALE, PH.S.: **Desarrollo del lenguaje** (Un enfoque psicolingüístico), Trillas, México. (8. kap. "Fonología y lectura", 256-296. or.).

DELATTRE, P: 1962, "Le jou de transitions de formants et la percepcion des consonnes", **Proceedings of the Fourth International Congresof Phonetic Sciences,** Mouton, The Hague, 407-417. or. (DELATTRE (1966)-an sartua, 276-286 or.

– 1965, **Comparing the phonetic features of english, french, german and spanish,** Julius Groos Verlag, Heidelberg.

– 1966, **Studies in french and comparative phonetics: selected paper in French and English,** Mouton, The Hague, Paris.

DI PIETRO, R. J.: 1965, "Los fonemas del catalán", **RFE** XLVIII, 153-158. or.

ESGUEVA, M. eta CANTARERO, M.: 1983, **Estudios de Fonética,** I, C.S.I.C., Madrid.

FANT, G.: 1970, **Acoustic Theory of speech production,** Mouton, The Hague, Paris.

– 1973, **Speech Sounds and Features,** MIT Pres, Cambridge.

FERNANDEZ, J.A.: 1960, **El habla de Sisterna,** C.S.I.C., RFE, Anejo LXXIV, Madrid.

FLANAGAN, J.L.: 1972, **Speech Analysis, Synthesis and Perception,** Springer Verlag, Heidelberg.

FOURQUET, J.: 1958, "Classification dialectale et phonologie evolutive", **Miscelanea Hom. a André Martinet** (Estructuralismo e historia) II, Ed. D. Catalán, Universidad de la Laguna, Canarias, 54-62. or.

FRY, D.B.: (Ed.) 1967, **Acoustic Phonetics. A book of basic readings,** Cambridge University Press, Cambridge.

– 1984 (1979), **The Physics of Speech,** Cambridge University Press, Cambride.

FUDGE, E.C.: 1975 (1970) "Fonología", **Nuevos horizontes de la lingüística,** (Introducción y selección de J. Lyons), Alianza, 79-89. or. (Conxita Lleó-ren itzulpena).

GARDE, P.: 1972 (1968), **El acento,** Editorial Universitaria de Buenos Aires, Argentina. (Julio Baderrama-ren itzulpena).

HALA, B.: 1966, **La sílaba** (Su naturaleza, su origen y sus transformaciones), C.S.I.C., Madrid, (R. Palavecino eta A. Quilis-en itzulpena).

HAMMARSTRÖM, G.: 1976, "The use of tape recordings in a dialectology", **Orbis** XXV, 13-19. or.

HARA, M.: 1973, **Semivocales y neutralización** (Dos problemas de fonología española), C.S.I.C., Madrid.

HYMAN, L.M.: 1981, **Fonología,** Teoría y análisis, Paraninfo, Madrid. (R. Monroy Casas-en itzulpena)!

IPA: 1978 (1949), **The Principles of the International Phonetic Association,** International Society of Phonetic Sciences, London.

JAKOBSON, R.: 1963, **Essais de Linguistique générale,** Mouton, La Haye.

– 1967, "Principes de phonologie historique". Ikus TROUBETZKOY (1967), 315-336. or.

– 1967, "Sur la théorie des affinités". (Ikus TROUBETZKOY (1967), 350-365. or.

– 1971, **Selected writings** I, (Phonological Studies), Mouton, The Hague, Paris.

– 1976, **Nuevos ensayos de Lingüística general**, Siglo Veintiuno Editores, México.

JAKOBSON, R., HALLE, M.: 1973 (1956), **Fundamentos del lenguaje,** Ayuso, Madrid.

JORDAN'S, R.: 1974, **Handbook of middle english grammar: phonology,** Mouton, The Hague, Paris.

JUNGEMANN, F. H.: 1955, **La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones,** Gredos, Madrid. (E. Alarcos Llorach-ek paratutako edizioa).

LADEFOGED, P.: 1962, **Elements of Acoustic Phonetics,** The University of Chicago Press, Chicago.

– 1967, **Tree areas of experimental phonetics,** Oxford University Press, London.

– 1971, **Preliminaries to Linguistic Phonetics,** Chicago University Press, Chicago.

– 1975, **A course in Phonetics,** Harcourt Brace Jovanovich, Inc, New York.

LAMUELA, X.: 1985, "La monotongació de AU en gascó pirinenc", **Actes XVI Congrés Int. de Ling. Filologia Romàniques,** 567-571. or.

LAPESA, R.: 1977, "Tendencias y problemas actuales de la lengua española", **Comunicación y lenguaje,** Karpos, Madrid, (Lapesa, Coordinador), 207-229. or.

LASS, N.J. (Ed.): 1978, **Contemporary issues in experimental phonetics,** Academic-Press, New-York.

LINDBLOM, B; OHMAN, S.E.G. (Eds.) 1979, **Frontiers of speech communication Research,** Academic Press, New York.

LOPE BLANCH, J.M.: 1969, "Algunos casos de polimorfismo fonético en México", **RDTP** XXXII, 247-262. or.

– 1979, **Dialectología y Sociolingüística. Temas Puertorriqueños,** Playor, Madrid.

– 1985, "La información fonética en los atlas lingüísticos", **Actes XVI Congrés de Lingüistica Filología Romàniques** II, Palma de Mallorca, 399-404. or.

LOPEZ MORALES, H.: "Caracterización fonológica de los dialectos del Caribe Hispánico", **Actas del 1er. Congreso Inter. de Lengua Española** II, 1401-1416. or.

LORENZO, E.: 1972, "Vocales y consonantes geminadas", **Studia Hispánica in Honorem R. Lapesa** III, 401-412. or.

LLORENTE MALDONADO DE GUEVARA, A.: 1965, "Algunas características lingüísticas de la Rioja en el marco de las hablas del Valle del Ebro y de las comarcas vecinas de Castilla y Vasconia", **RFE,** XLVIII,321-350. or.

MACKAY, I.: 1987 (1978), **Phonetics: the science of speech production,** A College-Hill Publication Little Brownand Co., Boston.

MALMBERG, B.: 1956, "Questions de méthode en phonétique synchronique", **Studia Linguistica,** X, 1-44. or.

– 1965, **Estudios de fonética hispánica,** C.S.I.C., Madrid.

– 1972, "Descripción y clasificación a propósito de las semivocales castellanas", **Studia Hispánica in Honorem R. Lapesa** III, 413-415. or.

– 1974 (1968), **Manual of Phonetics,** North-Holland /American Elsevier, New York.

MANOLIU, M.: 1977 (1973), **El estructuralismo lingüístico,** Cátedra, Madrid, (3. kapituluan "Fonética y fonología", 95-103. or.).

MARRERO AGUIAR, V.: 1988, **Fonética estática y fonética dinámica en el habla de las Islas Canarias,** Tesis doctoral, Universidad Complutense, Madrid, (Reprografiatua).

MARTINET, A.: 1939, "Description phonologique du parler franco-provençal d'Hauteville (Savoie)", **RLR** XV, Paris, 1-86. or.

– 1968 (1960), **Eléments de linguistique générale,** A. Colin, Paris.

– 1970 (1955), **Economie des changements fonétiques** (Traité de Phonologie diacronique), Editions A. Francke, Berne.

– 1972, "La fonología como fonética funcional", **Cuadernos de Semiología,** Colección Palabras, Buenos Aires.

– 1974, **La descripción phonologique,** Droz, Genève.

– 1983, **Evolución de las lenguas y reconstrucción,** Gredos, Madrid. (Bereziki: XVI. kap. "Frontera política y haz de isoglosas", 208 eta hur. or.).

MARTINEZ CELDRAN, E.: 1984, **Fonética,** Teide, Barcelona.

MARTINEZ MARTIN, F.M.: 1983, **Fonética y sociolingüística en la ciudad de Burgos,** C.S.I.C., Madrid.

MASSARO, D.W.- ODEN, G. C.: 1980, "Evaluation and integration of acoustic features in speech perception", **Journal of the Acoustical Society of America** 67,3, 996-1013. or.

MICHELENA, L.: 1975, "Distribución defectiva y evolución fonológica", **Studia Hispánica in honorem R. Lapesa** III, Madrid, 337-349. or.

MONROY CASAS, R.: 1980, **Aspectos fonéticos de las vocales españolas,** Sdad. General Española de Librería, Madrid.

MULJAČIĆ, Ž.: 1974 (1969), **Fonolofía general,** (Revisión crítica de las nuevas corrientes fonológicas), Ed. Laia, Barcelona.

NAVARRO TOMAS, T.:1918, "Diferencias de duración entre las consonantes españolas", **RFE** V, 367-393. or.

– 1921, "Concepto de pronunciación correcta", **Hispania** IV, 155-164. or.

– 1927, **Compendio de ortología española para la pronunciación normal en relación con las diferencias dialectales,** Madrid.

– (1966-67), "El alfabeto fonético de la Revista de Filología Española", **Anuario de Letras** VI, México, 5-10.

– 1968 (1918), **Manual de pronunciación española,** C.S.I.C., Madrid,

– 1974, "Transcripción estrecha", **Anuario de Letras** XII, México 181-187. or.

– 1974-1, **Manual de entonación española,** Gudarrama, Madrid.

– 1975, **Capítulos de Geografía Lingüística de la Península Ibérica,** Instituto Caro y Cuervo, Bogotá.

O'CONNOR, J.D.: 1982 (1973), **Phonetics,** Penguin Books Ltd., Middlesex.

PEDERSEN, H.: 1971, "Por qué la p- es un sonido lábil", **FLV** 9, 227-230. or.

PENSADO RUIZ, C.: **El orden histórico de los procesos fonológicos,** Universidad de Salamanca, 1983.

PETTERSSON, TH.: 1981, "In favour of the archiphoneme", **Phonology in the 1980's,** D.L. Goyvaerts, E. Story-Scienctia, Ghent, 39-54.or.

PIKE, K.: 1953, **General Phonetics,** Ann Arbor, University of Michigan Press. Michigan.

PINEDA PEREZ, M. A. de: 1976, "Oposiciones lingüísticas y estructura fonológica", **RESEL** 6,1, 133-145. or.

POCH OLIVE, D. 1986, **Las oclusivas sordas del español. Estudio analítico espectrográfico de las realizaciones intervocálicas en contacto con vocal acentuada,** (Resumen de Tesis Doctoral), Bellaterra.

QUILIS, A.: 1964, "Datos fisiológico-acústicos para el estudio de las oclusivas españolas y sus correspondientes alófonos fricativos", **Homenajes. Estudios de Filología Española,** 32-42. or.

– **Perspectivas de la investigación fonológica en Hispanoamérica,** Ed. por Lope Blanch, México, UNAM, 13-30. or.

– 1981, **Fonética acústica de la lengua española,** Gredos, Madrid.

QUILIS, A.; FERNANDEZ, J.: 1979, **Curso de fonética y fonología españolas,** C.S.I.C., Madrid.

SCHNEIDERMAN, C.K.: 1984, **Basic Anatomy and Physiology in Speech and Hearing,** College Hill Press, San Diego, California.

SCHURR, F.: 1976, "La metafonía y sus funciones fonológicas", **RDTP** XXXII, 551-555. or.

SOMMERTEIN, A.: 1980, **Fonología moderna,** Cátedra, Madrid. (G. Diamanteren itzulpena).

STEVAENS, K.N.: 1972 **Acoustic correlates of certain consonantal features,** New York.

STRAKA,G.: 1957, "Etendue et limite de l'enquête phonètique", **Bulletin de la Faculté des Lettres de Strasbourg** 35-5, 261-292. or.

– 1965, **Album phonétique,** Les Presses de L'Université Laval, Québec.

– 1979, **Les sons et les mots,** Ed. Klincksieck, Strasbourg.

STRENGER, F.: 1974, "Radiographic, palatographic and labiographic methods in phonetics", Ikus MAMLBERG (1974), 334-361. or.

THOMAS, J.J.; BOQUIAUX, J.: 1976, **Initiation à la phonétique,** PUF, Paris.

TORREBLANCA, M.: 1980, "La sílaba española y su evolución fonética", **Thesaurus,** Boletín del Instituto Caro y Cuervo XXXV 3, 506-515. or.

TROUBETZKOY, N.S.: 1967, **Principes de phonologie,** Editions Klincksieck, Paris. (J. Cantineau-ren itzulpena).

– 1967-1, "Phonologie et geographie linguistique" (Ikus: TROUBETZKOY (1967), 343-350. or.

WEINRICH,H.: 1981 (1976), **Lenguaje en textos,** Gredos, Madrid, (XVI, kap. "Fonología de la pausa del habla"), 324-337. or.

ZAMORA, C.; GUITARD, J.M.: 1982, **Dialectología hispanoamericana,** Almar.

ZENBAITEK: 1973, **Cuestionario para el estudio coordinado de la norma lingüística culta,** I. Fonética y Fonología, Departamento de Geografía Lingüística, P.I.L.E.I.- C.S.I.C., Madrid.

– STOCKWELL, R.P.; MACAULAY, R.K.S.-k editatutako saiakerak: 1977, **Cambio lingüístico y teoría generativa,** Gredos, Madrid.

– SLOAT, C.; HENDERSON,S.; HOARD, J.: 1978, **Introduction to phonology,** Prentice-Hall Inc, New Jersey.

– QUILIS, A.; ESGUEVA, M.; GUTIERREZ, M.L.; CANTARERO,M.: 1979 "Características acústicas de las consonantes laterales españolas", **LEA** I,2, 233-343.or.

– GUITARD, J.M.; ROY, J.; eta beste: 1980, **La estructura fónica de la Lengua Castellana. Fonología, Morfología y Dialectología.** Ed. Anagrama, Barcelona.

## EUSKAL BIBLIOGRAFIA


ALONSO, A.: 1923, "Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés", **3er. Congreso de Estudios Vascos,** San Sebastián, 58-64. or.

ALTUBE, S.: 1932, **El acento vasco (en la prosa y en el verso),** Bermeo.

ALTUNA, P.: 1986-2, "Azpeitiko euskal ebakeraz", **Euskera** XXXI, 333-340. or.

APRAIZ, O.: 1923, "De fonética y etimología. En torno a la N caduca", **RIEV** XIV, 661-668. or.

AQUESOLO, L. de: 1966, "Pedro de Madariaga, calígrafo y vascófilo", **BRSVAP** 12, 37-65. or.

ASTARLOA, P. P.: 1883, **Discursos filosóficos sobre la lengua vascongada Primitiva,** Bilbao.

AZKUE, R.: 1919, "Fonética vasca", **1er. Congreso de Estudios Vascos,** Bilbao, 556-580. or.

– 1926, "Observaciones acerca de la obra "Langue basque et langues finnoises" del P. L.L. Bonaparte", **Euskera** 7, II-IV, 17-36. or.

– 1928, **Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera,** Bilbao.

– 1930, "Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos" **Euskera** XI, 282-318. or.; eta 1931 **Euskera** XII 3-50.or.

– 1931, "Particularidades del dialecto roncalés", **Euskera** XII, 207-233. or.

– 1969, **Diccionario vasco-español-francés,** (2 ale), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

– 1969-1, **Morfología vasca,** ( 3 ale), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.

BAHER, G.: 1925, "Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)", **Euskera** VI, II-III, 73-114. or.

BASTERRECHEA, J.: 1975, "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica", **FLV** 21, 289-338. or.

– 1976, "Hizkera soinua dala ta", **FLV** 22, 5-8. or.

– 1986-2, "Euskal azentoa", **Euskera** XXXI, 349-350. or.

BEREICUA BASAURI, R. M.S.: 1972, "A survey of lingüístic variables in the Central zona of the Deva River Valey", **ASJU** VI, 20-28. or.

BONAPARTE, L.L.: 1862, **Langue basque et langues finnoises,** Londres. (IV. kap." Harmonie et permutation des voyelles", 31-45. or).

– 1881, "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos", **Revista Euskara** IV, 161-166. or.

– 1881 -1: "Observaciones acerca de la afinidad de vocales en el vascuence de Lizaso (Valle de Ulzama)", **Revista Euskara** IV, 65-67. or.

– 1881-2: "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del Valle de la Burunda", **Revista Euskara** IV, 33-40. or.

– 1882, "Observaciones acerca del vascuence de Betelu", **Revista Euskara** V, 120-121. or.

– 1877, **"Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.",** Ernest Leroux Editeur, Paris.

BUESA OLIVER, T.: 1972, "Léxico vasco relativo al tiempo en la Navarra Nordoriental", **Homenaje a Fco. Yndurain,** Universidad Fac. F. y Letras, Zaragoza, 65-106. or.

– 1976, "Notas sobre un latinismo en vasco", **RDTP** XXXII, 51-71. or.

COROMINAS, J.: 1960, "Breves notas vascorrománicas a propósito de la Fonética de Michelena", **Tópica Hespérica** (Estudios sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances", Gredos, Madrid, (2 ale), 293-311. or.

CORUM, C.: 1972, "Palatalization Phenomena in Basque", **ASJU** VI, 29-34. or.

CHARENCEY, C.: 1891, **Phonetique souletine,** Orleans.

DUVOISIN, C.: 1930, "Correspondencia du Capitaine Duvoisin", **RIEV** 21, 96. or. (J.-B. Daranatz-en edizioa).

ECHAIDE, A. M.: 1968, **Castellano y vasco en el habla de Orio,** Príncipe de Viana, Pamplona.

– 1985, **Erizkizundi Irukoitza** (Euskara 1925), Iker-3, Bilbo.

ELEIZALDE, L. de.: 1922, "La caída de vocales iniciales en las voces topónimicas vascas", **RIEV** 13, 439-444. or.

ETXEBARRIA, J. M.: 1986, "Kontsonante multzoen ahozkera", **Euskera** XXXI, 361-372. or.

ECHENIQUE, M. T.: 1979, "Implicaciones dialectales y repercusión fonológica en el sistema palatal vasco derivadas de la interferencia de un fonema castellano", **RESEL** 9-1, 59-66. or.

GAVEL, H.: 1920, "Eléments de Phonetique Basque, **RIEV** XII, Bilbao.

– 1923, "De fonética gramatical", **3er. Congreso. de Estudios Vascos,** San Sebastián, 65-70. or.

– 1925, "A propos de l'ü souletin", **RIEV** 16, 230-234. or.

– 1936, "Réponses souletines à un questionnaire linguistique", **RIEV** XXVII, 1-28. or.

GONZALEZ OLLE, J.: 1972, "La sonorización de las consonantes sordas iniciales en vascuence y romance y la neutralización de k- / g- en español", **Archivium** 22, 255 eta hur.

HOLMER, N.: 959, "Sobre algunos problemas de lingüística histórica vasca", **BRSVAP** 15, 403-416. or.

– 1964, **El idioma vasco hablado**, Ed. Diputación de Guipuzcoa, San Sebastián.

HOLMER, N.; ABRAHASON, V.: 1968, "Apuntes vizcaínos", **ASJU** II, 81-141. or.

HUALDE, J. I.: 1986, "Tone and stress in basque: A preliminary study", **ASJU** XX-3, 867-896. or.

– 1987, "Proto-Basque Yod", **FLV** 49, 29-40. or.

INTZA, D.: 1957, "Larraun eta bere euskalkia", **Euskera** 2, 91-106. or.

IRIGOYEN, A.: (1962), "Vocabulario baztanés de Juan Bautista Gorrosueta", **Euskera** 7, 135-193. or.

– 1971, "Estudio de un texto arcaico del vizcaino antiguo", II **Semana de Antropología Vasca 1970,** La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 455-471. or.

– 1977, "En torno al topónimo **Fila Ruuia** de 1215 y 1216", **FLV** 26, 235-238. or.

– 1978, "Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz; Txillardegi-k Bergarako Biltzarrerako bidali duen lanari oharrak", **Euskera** 24-2, 631-638. or.

– 1986, **En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica** II, Bilbao.

– 1986-2, "Hizkuntzaren normalizazioa, kontzientzia linguistikoa eta euskal ebakerak", **Euskera** XXXI, 351-361. or.

– 1987, **De re philologica linguae vasconicae II,** Bilbao.

IZAGIRRE, K.: 1966, "Ultzamako euskeraren gai batzuk", **BRSVAP** XXII, 403-467. or.

– 1967, "Altsasuko euskeraren gai batzuk", **ASJU** I, 45-97. or.

IZETA, M.: 1985,2: "Baztango hiztegi ttipia", **Euskera** XXX, 553-618. or.

JAKOBSEN, W.H.: 1972, "Nominative-Ergative sincretisme in Basque", **ASJU** VI, 67-109. or.

LACOMBE, G.: 1928, "C.C. Uhlenbeck. Baskisch elkar", **RIEV** 19, 168. or.

LAFITTE, P.: 1967, "L'accentuation labourdine au XVIIIe. siècle selon **l'Etorkia** de Pierre d'Urte", **Gure Herria,** 232-234. or.

LAFON, R.: 1933, "Sur le traitement de "u" devant le groupe "R" plus consonne en souletin", **RIEV** 24, 173-175. or.

– 1934, "Sur quelques cas de dilation vocalique régressive", **RIEV** 25, 666-671. or.

– 1934-1, "Passage de **au** a **eu** en basque", **RIEV** XXV, 290-293. or.

– 1935, "Observations sur la place de l'acent das quelques formes basques des parlers souletins", **Melanges Paul Laumonier,** 625. or. eta hur.

– 1948, Remarques sur l'aspiration en Basque", **Melanges Gavel,** Toulouse, 60. or. eta hur.

– 1948-1, "Correspondences basques-caucasiques", **Eusko Jakintza** II, 359-370. or.

– 1952, **Etudes basques et Caucasiques,** Salamanca.

– 1952-1, "La moillure en labourdin", **Etudes basques et Caucasiques,** Salamanca, 11-15. or.

– 1955, "Sur la place de l'aezcoan, du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes basques", **Pirineos** II, 109 eta hur.

– 1955-1, "Le verbe basque dans la Doctrina Cristiana de Betolaza (1596)", **BRSVAP** XI,311-316. or.

– 1958, "Contribution a l'étude phonologique du parler basque de Larrau (Haute-Soule)", **Miscelanea Hom. A. Martinet** (Estructuralismo e historia) II, Ed. Diego Catalán, Universidad de La Laguna, 77-106. or.

– 1959, "Sur les noms du vin, du fromage et du lait en basque", **RSVAP** XV, 1-7. or.

– 1962, "Sur la voyelle "ü" en basque", **Bulletin de la Societé de Linguistique de Paris** 57, 83-102. or.

LHANDE, P.: 1926, **Dictionnaire basque- français,** G. Beauchesne, Paris.

LARRASQUET, J.: 1928, **Action de l'accent dans l'evolution des consonnes en basques souletin,** Paris.

– 1928-1, **Recherches experimentales sur l'état actuel et l'evolution des velaires dans le basque souletin,** Paris.

– 1928-2, "Sons et alphabet du basque souletin", **Revue de Phonetique** V, 260-288. or.

– 1932, "Phonetique basque de Larraja (Quartier de Barcus)", **RIEV** XXIII, 153-191. or.

– 1934, **Le basque souletin nord-oriental,** Paris.

– 1939, **Le basque de la Basse-Soule orientale,** Paris.

MAC MURRAUGH, L.: "Euskal fonetika", **Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak,** Iker-1, 77-81. or.

MADARIAGA, P. de: 1565, **Honra de escribanos,** Casa de Juan Mey, Valencia. (Bereziki: "Capítulo último de los inventores de las letras, y de la Ortografía en lengua Vizcayna y quan elegante y antiguo es este lenguaje", **RIEV** 13, (1922), 249-251. or.).

MARTINET, A.: 1950, "De la sonorisation des occlusives initiales en basque", **Word** 6, 224-233. or.

– 1955, "La reconstruction structurale:les occlusives du Basque", **Economie des Changements Phonétiques.** (Traité de Phonologie Diachronique), Berna, 370-388. or.

– 1981, "La phonologie syncronique et diachronique du basque", **Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak,** Iker-1, 59-73. or.

– 1981-1, "Euskal fonetika", **Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak,** Iker-1, 77-81. or.

MEYER-LUBKE, W.: 1924, "La desaparición de la "n" intervocálica en vascuence", **RIEV** 15, 224-238. or.

MITXELENA, K.: 1951, "De fonética vasca. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas", **BRSVAP** VII, 539-549. or.

– 1951-1, "La sonorización de las oclusivas iniciales. (A propósito de un importante artículo de A. Martinet)", **BRSVAP**571-581. or.

– 1954, "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal", **Via Domitia I,** 123-157. or.

– 1955, "La doctrina cristiana de Betolaza", **BRSVAP,** 83 eta hur.

- 1957, "Las antiguas consonantes vascas", **Miscelanea Hom. a A. Martinet** I, 113-157. or.
- 1958, "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte", **BRSVAP** XIV, 335-364. or.
- 1958-1, "Unas observaciones al último número de **Euskera", Euskera** III, 5-10. or.
- 1958-2, "A propos de l'accent basque", **Boulletin de la Societé Linguistique de Paris** 53, 204-223. or.
- 1958-3, "Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea Jaunak egindako itzaldia eta Mitxelena jaunaren erantzuna. Euskal azentuaz", **Euskera** III, 29-44. or.
- 1964, **Textos arcaicos vascos,** Minotauro, Madrid.
- 1966, **Sobre el pasado de la lengua vasca,** Auñamendi, San Sebastián.
- 1967, "Notas fonológicas sobre el salacenco", **ASJU** I, 163-177. or.
- 1968, "Lat. s: el testimonio vasco", **Actas del XI Congreso Internacional de Lingüística y Filología Románicas,** Madrid, 473-489. or.
- 1972, "A note on Old Labourdin accentuation", **ASJU** 6, 110-120. or.
- 1974, "El elemento latino-románico en la lengua vasca", **FLV** 17, 183-209. or.
- 1976, "Acentuación alto-navarra, **FLV** 23, 147-162. or.
- 1977 (1961), **Fonética histórica vasca,** Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián.
- 1978, "Miscelanea filológica vasca" I, **FLV** 29, 205-228. or. eta II, **FLV** 30, 389-413. or.
- 1983, "Iruñea", **Piarres Lafitte-ri Omenaldia** Iker-2, 445-451. or.

– 1985, "La teoría del sustrato y los dialectos gascones", **Lengua e historia,** 313 eta hur.

MORVAN, M.: 1985, "Le nom de la hache en basque" I, **FLV** 45, 169-173. or.

– 1987, "Le nom de la hache en basque" II, **FLV,** 11-14. or.

MOUTARD, N.: 1975, "Etude phonologique sur les dialectes basques", **FLV** 19, 5-42. or. eta **FLV** 20, 141-189. or.

– 1976, "Etude phonologique sur les dialectes basques", **FLV** 22, 9-54. or.

– 1981, "Problemes specifiques de phonétique et de phonologie basques", **Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak,** Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 115-128. or.

MUGICA, S.: 1907, "Observaciones sobre la afinidad de las vocales en los subdialectos septentrional y meridional de Guipuzcoa", **RIEV** 1, 56-68. or.

NAVARRO TOMAS,T.:1921, "Metodología de la fonética", **Cursos de Metodología y Alta Cultura,** Eusko Ikaskuntza, Bilbao.

– 1923, "Observaciones fonéticas sobre el habla de Gernika", Ier. **Congreso de Estudios Vascos,** San Sebastián, 49-56. or.

– 1925, "Pronunciación guipuzcoana", **Homenaje a Menéndez Pidal** III, 593-653. or.

– 1926, (H. Gavel-en **Phonetique basque** lanaren rezentsioa) **RIEV** 17, 416-423. or.

– 1926, "Sobre entonación y acentos vascos", **RIEV** XVII, 639. or. eta hur.

N'DIAYE, G.: 1970, **Structure du dialecte basque de Maya,** Mouton, La Haya.

NUÑEZ ASTRAIN, L.: 1976, "Fonología consonántica de un idiolecto del euskera de Zuberoa", **ASJU** X, 153-198. or.

OÑEDERRA, M. L.: 1986, "From automatic assimilation to sound symbolism" (A case study of Basque Palatalization), **ASJU** XX-1, 66-74. or.

ORMAETXEA, N.: 1918, "Acento vasco", **RIEV** IX, 1-15. or.

– 1926, "La pronunciación guipuzcoana del Sr. Navarro Tomás", **RIEV** XVII, 260-268. or.

– 1958, "Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea Jaunak egindako itzaldia", **Euskera** 3, 29-36. or.

ORTIZ DE URBINA, J.: 1986, "Aspects of Basque lexical phonology", **FLV** 48, 205-223. OR.

PAGOLA, R.M..: 1985, "Hitz mailegu batzuen zenbait arazo fonetiko era ortografiko", **Cuadernos de Sección Hizkuntza eta Literatura** 5, 65 - 71. or.

PEILLEN, Tx.: 1979, "Expression de la connotation ironique au niveau phonologique dans le basque de la Haute Soule", **FLV** 32, 237-242. or.

– 1979-1, "Quelques aspects dénotatifs et connotatifs de l'interrogation en basque souletin", **FLV** 33, 407-422. or.

RIJK, R. P. de: 1970, "Vowel interaction in Bizcayan Basque", **FLV** 5, 149-158. or.

ROLLO, W.: 1925, **The Basque of dialect of Marquina,** Amsterdam.

ROTAETXE, K.: 1978, **Estudio estructural del euskera en Ondarroa,** Ed. L. Zugaza, Durango.

– 1981-1, "Euskal prosodiaz", **Euskera** XXVI, 381-395. or.

SALABURU, P.: 1983, **Hizkuntz Teoria eta Baztango euskalkia. Fonenika eta Fonologia,** Publicaciones de la Universidad del País Vasco, Leioa (2 ale).

SANCHEZ CARRION, J. M.: 1974, "ESAN / ERRAN en el área lingüística alto navarra", **FLV** 17, 261-264. or.

SAROIHANDY, J.: 1925, "Remarques sur la plus ancienne ortographe de la langue basque", **RIEV** 16, 330-340. or.

SCHUCHARDT, H.: 1947, **Primitiae linguae vasconum,** Salamanca (Itzulpena, oharrak eta iruzkinak, A. Irigaray-renak).

TOVAR, A.: 1952, "El vascuence y la fonología", **BRSVAP** VIII, 49-51. or.

– 1971, "Miscelánea vasca", **FLV** 7, 7-10. or.

TXILLARDEGI: 1980, **Euskal fonologia**, Ediciones Vascas, Donostia.

– 1984, Euskal **azentuaz,** Elkar, Donostia.

– 1986-2, "Proposamen bat azentuari buruz", **Euskera** XXXI, 341-348. or.

UHLENBECK, C.: 1909, **Contribution à une phonétique comparative des dialectes basques,** Champion, Paris. (G. Lacombe-ren itzulpena, extrait: **RIEV** III, (1909), 465-503; IV (1910), 65-118. or.).

UNAMUNO, M. de: 1893, "Del elemento alienígena en el idioma vasco", **Zeitschrift für romanische Philologie** XVII, 137-147. or.

VINSON, J.: 1869, "Premier essai de Phonétique basque", **RL** III, 423-459. or. eta 1870, IV, 118-127. or.

– 1907, "Spécimens de variétés dialectales basques", **RIEV** I, 627-633. or. 1908, **RIEV** II, 129-135. or. 1911, **RIEV** V, 211-223. or.

ZARABORO, C.: 1972, "Two Borrowed Sound changes in Basque", **ASJU** VI, 174-182.or.

ZENBAITEK: P. ROSELLO; M. A. SAEZ; C. ZUBELDIA: 1977, "La pronunciación del castellano en el corredor de la Barranca", **FLV** 25, 69-74. or.

ZENBAITEK: H. URRUTIA; M. ETXEBARRIA; I. TURREZ; J. C. DUQUE: 1988, **Fonética vasca. Las sibilantes en el Vizcaíno.** Universidad de Deusto, Bilbao. H. URRUTIA; M. ETXEBARRIA; I. TURREZ; J. C. DUQUE: 1989,

– **Fonética vasca. Las sibilantes en el Guipuzcoano.** Universidad de Deusto, Bilbao.

ZYTSAR, Y.: 1986, "Sobre los nombres vascos de la leche", **FLV** 47, 115-124. or.